


Antonio Zavala

XENPELAR ETA BERE INGURUA



Xenpelar eta bere ingurua

Auspoaren Sail Nagusia



EUSKALTZAINDIA
3 AZKUE BIBLIOTEKA



B. UGALDETZO, S/N
☎ 49 35 51 / 49 35 52
FAX: 493548
20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)

Antonio Zavala
(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

Xenpelar
eta bere ingurua

© SENDOA

ISBN: 84-85846-83-4

Legezko gordailua: SS.735/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza, S.A.L.

ITZAURREA

ITZAURREA

Edozein liburu zerbait adierazteko edo zerbaiten berri emateko idatzi oi da. Baiña azkenean bera ere kontaktuzun edo idatz-gai biurtzen da, nola osatu dan gauza jakingarria izanik. Orixe da, ain zuzen, lerro auen bidez liburu onen atarian egin nai deguna.

Ni kaletarra izanik, Xenpelar bertsolaria izan zanik entzun ere gabe azi nintzan. Erdal olerkariak ezagunagoak nituan askoz ere. Aien olerki batzuk irakurri ere bai, gure ikas-liburuetan agertzen ziranak beintzat.

Ala ere, Xenpelarren izena leenengoz noiz entzun nuan ondo gogoan daukat. Loiolan giñala, batean Oñatzerara igo giñan, meza entzun eta gain artan goiza igarotzera. Alako batean, lagun bat gure taldera inguratu eta onela esan zigun:

- Olakok, euskeraz kantari asi eta, Azken Juizioko bertso zaar batzuk kantatu ditu. Norenak diran ere esan du: Sanpilar edo orrelako zerbait.

Bertso oiek kantatu zituana gipuzkoarra zan, eta baserriko semea. Bestea, berriz, bizkaitarra eta, ni beze-la, kalekumea.

Gertaera onek, ain ezereza izanik ere, ederki agertzen digu orduko Euskal-Erriaren giroa zer zan: kalea, erririk geienetan beintzat, euskal munduari bizkar emanda; baserria, berriz, mundu orren eusgarririk sendoena.

Gero, urteen buruan, bertsozaletzen asi eta Makazagaren argitalpenak eta On Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* liburua eskuratutakoan, begietara antxe azaldu zitzaidan arako esaldi ezagun ura: *Bertso berriak Xenpelarrek jarriak*. Orduan oartu nintzan bizkaitar lagunak Sanpilar izendatutako ura nor zan.

Bertso-paperak biltzeari ekin nio- nean, berriz, geienik agertzen zitzaidan izena Xenpelarrena zan, zalantzarik gabe. Aren bertso-saillak bein eta berriro argitaratu baitzituzten garai artako moldiztegiak.

Batean, gogoan det, lagun batek Aiako apaiz bat bisitatu bear zuala eta alkarrekin joan giñan. Aiek beren esan bearrak bukatu zituztenean, itza nik atera nuan, lotsaz beteta bada ere, nere eskaera egiteko:

- Erri ontan bertso-paperik bai al da?

Apaiz arek onela erantzun zidan:

- Izango da noski, baiña gauza ortaz ni ez naiz arduratu. Ala ere, bat badaukat aspalditik, eta erregalatu egingo dizut. Nola aitortu bear dan eta abar, oso ondo adierazten du.

Beste gela batera sartu eta andik paper bat eskuan zuala etorri zan. Zer izango eta Xenpelarren Konfesioarenak esanda entenitzen diran bertsoak.

Era ontan, Xenpelarren karpeta aguro loditu zitzaidan, andik eta emendik, Euskal-Erri guzitik alegia, eskuratutako paperekin.

Bertso-paperak ez-ezik, moldiztegi maillako beste iru iturri ere izan nituan, Xenpelarren bertsoak ezagutu aal izateko: Errenteriko Makazagak *Xenpelar'en bertsoak* izenarekin 1931 urtean argitaratu zuan liburua; Makazagak berak 1931 eta 1932-an kaleratutako *Bertsolariya* astekaria; eta Errenteriko Luis Jauregi apaiz jaunna zanaren *Xenpelar Bertsolaria - Bizitza ta bertsoak liburua* (Kuliska sorta, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958). Baiña argitaraldi auetaz aurre-rago patxaraz itzegingo degu.

Ondoren, argibide billa Errenterira joaten asi nintzanean, erri ontan norbaiten laguntza bear eta leenengo egunetan Jose Goñi zana izan nuan gidaria. Errenteri zaarreko kontuak ondotoxo zekizkiana zan ura, eta bai Xenpelarrenak ere. Beraren izena bein baiño geiagotan ikusiko du irakurleak liburu ontan berri-emaleen artean.

Beste iturri bat, benetan ugaria, bertako Pello Zabaleta bertsolaria izan nuan. Bere bertsoak emateaz gain

-*Auspoa*-ren 74-75-garrenean aurkituko ditu irakurleak-, Xenpelar eta Txirrita ziranen gertakizunak eta bertsoak barra-barra eman zizkidan.

Beste berri-emale oparoa beraren koiñata izan nuan: Monika Galarraga, Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna. Era berean, Florentina Perez Salaberria zanari ere asko zor dio liburu onek.

Bi andre auek motibo berdiña zuten nik bear nuan gaiak jakitun izateko: beren gazte-denboran Xenpelarren illoba batekin, Joxepa Antoni Aranberri Petriarenarekin alegia, eten gabeko artu-emanetan bizi izana.

Joxepa Antoni au ere bertso-jartzaillea zan. Orregatik, aren bizitzaren berri eta eskuratu ditugun bertsoak liburu onen azken orrialdeetan eskeiñiko dizkiogu irakurleari.

Familirik gabe gelditu eta orduan auzoko etxe batera bildu zan. Emen jostundegia zuten. Neskaxa asko ara joaten ziran josten ikastera. Oietako bat, Monika Galarraga. Bestea, berriz, Florentina Perez Salaberria alegia, bertakoa zan, etxekoa.

Ala, biak ere errenteriar bertsolari aundiaren bertsoak eta gertaerak aren illobaren aotik ikasi zituzten. Gero, nik jakinduri orren eske agertutakoan, aien borondateak eta nere gustoa egin naiak neurririk etzuten.

Urrengo lana, Errenteriko eta Oiartzungo artxiboetan azterketa egitea izan nuan. Ango arduradunak atepak zabal-zabalik ipiñi zizkidaten, eta nere lana aal zuten aiñean erreztu ere bai.

Orrela osatu genduan Xenpelar bertsolaria izeneko liburua, eta aren eriotzaren eungarren urte-mugarako, 1969-ko abendurako alegia, argitaratu.

Liburu ura nekerik gabe saldu eta agortu zan. Ala, bigarren argitalpen bat ere egin genduan, ezertxo ikutu eta aldatu gabe, zegoan-zegoanean alegia.

Orain, berriz, *Auspoaren Sail Nagusia* argitaratzeko asmoak artutakoan, Xenpelarren bertsoak ere bertan bear zutela bereala ikusi genduan. Baiña ez Xenpelarrenak bakarrik; baiña aren inguruko bertsolarienak ere: Patxi Bakallo, Larraburu, Ardotx, Bekoetxia, Eperra, Panderitarrak, Fraile eta abar; eta, azkenik, aren illobarenak.

Bertsolari-baratza emankorra izan da beti, izan ere, Erretereri, Oiartzun eta Ernani bitarteko txokoa. Baiña lurralde ortan sortutako fruturik onenak, Xenpelar eta beraren gizaldiko bertsolariak ditugu leenengoz; eta Txirrita gero, andik urteetara.

Xenpelarren bertsoak eta bizitza bezela, beste bertsolari oienak ere leendik argitaratuta ditugu. Geroztik, ordea, aien beste gertaera eta bertso asko azaldu dira, eta oiek illunpeetatik atera bitartean Euskal-Erriarekin zorretan geundela iduritzen zitzaigun. Zor ori kitatzeko egokiera liburu onek eman digu.

Gure 1969-ko liburuan, Xenpelarren bertsoak kantatzeko doiñu-morkoska bat ere sartu genduan, iru iturri auetatik bilduta: Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburua; Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno bat; eta,

azkenik, gerok erriaren aotik jasotako doiñuak.

Baiña Aita Donostik eta Azkuek badituzte beren bildumetan Xenpelarren bertsoak kantatzeko beste doiñu batzuk ere. Oiek ez genituan sartu gure 1969-ko liburuan, geiegi ez luzatzearren. *Auspoa*-ren neurriak, izan ere, ez dira aundiak, eta Xenpelarrena bestela ere naiko liburu lodia genduan.

Orain, berriz, *Auspoaren Sail Nagusia* onek leku zabalak izanik, alako bildurrik etzegoan. Orregatik, Azkue eta Donostiren bildumetako doiñu oiei ere, Xenpelarren bertsoak kantatzeko diranei alegia, liburu ontan leku eman nai izan diegu.

Laugarren doiñu-iturri bat ere izan degu. Azkue Euskal-Erri guzian zear ibili zan doiñu zaarrak biltzen. Baiña uzta osoa etzuan gero bere *Cancionero popular vasco* famatuan argitaratu. Baztarrera utzitako doiñuak ere bazituala esan nai degu. Oiek, berriz, beraren esku-idatzietan ezagutzeko zoria izan degu. Olakoak ere, Xenpelarren bertsoen letra dutenak noski, liburu ontan bear zutela dudarik ez da.

Era ortan, doiñu mordo ederra osatu degu; eta ez det uste orrekin liburu au asko aberastu egin dala esan bear danik.

Aita Donostik ere utzi zuan argitaratu gabeko doiñu-mordo ederra. Baiña altxor ori leenbaileen kaleratzeko asmotan lanean ari diranak badira. Xenpelarren bertsoak kantatzeko doiñuak or ere izango dira noski. Denbora asko gabe, beraz, musika aldetik aberatsagoa egingo zaigu bertsolari onen bertso-emaitza.

Aita Donostik eta Azkuek bere doinũ oiek nun bildu zituzten ere esaten dute. Gipuzkoako mugak eragin eta beste euskal probintzietako erri-izenak ere arkituko ditu irakurleak. Orrek zera esan nai du: errenteriar aundi onen bertsoak Euskal-Erri guziko azken zokoetaraiño zabaldu eta iritxi zirala.

Xenpelar, izan ere, bertsolaritzaren zimendu eta giltzarria degu. Arek idikitako bideetatik ibili dira geroztikako bertsolari geienak. Guretzako beintzat gauza garbia zan ori leen ere. Baiña are geiago orain, liburu au prestatu ondoren.

A.Z.

BIZITZA

SENPERELARRE

Xenpelar bertsolaria jaio baiño ogei ta bat urte leenago, 1814 urtean, Errenteriko udalak lur batzuk saldu zituan, Senperelarre zeritzaion tokian:

“En la Villa de Renteria, a veinte y ocho de Dicre. de mil ochocientos y catorce, ante mí el Escribano de S. M. y numeral de ella y testigos infraescritos fueron presentes Dn. Franc. de Echeandía y Dn. Franc. Ign. de Irigoyen, Alcaldes, Dn. Pedro Antonio de Aranalde y D. Juan Migl. de Alcelay, jurados mayores y D. Jose Manl. de Echeverría Regidor de esta Villa la mayor y mas sana parte de los Individuos que componen el Concejo de esta dicha Villa dixeron: que estan autorizados por el Gobierno para la enajenación de terrenos concejiles a fin de atender a los gastos locales, y en consecuencia otorgan: que dan en venta real y enajenación perpetua por juro de heredad para siempre jamas a Juaquin Cruz de Petriarena vecino del valle de Oyarzun, una porcion de tierra en parte poblada de robles bravos en los montes propios de la misma, sita en el Partido de Semperelarre, con-

finando en todas sus partes con las Concejiles de esta Villa la cual contiene en su area quatrocientas cuarenta y seis y media posturas de cien codos quadrados cada una, con deduccion y descuento de lo que ocupa un camino carretil que atrabiesa por dicho terreno, considerandole de doce pies de ancho, que segun su posicion y estado actual, regulado por Dn. Juan Baupta. de Huici, vecino y Maestro perito de esta Villa, por comision de la misma en la cantidad de dos mil quatrocientos cincuenta y seis rrs. vôn. y aseguran y declaran los otorgantes no estar vendido, enagenado...”. (1)

Paper ontako txeeetasun batzuei buruz zerbait esatea komeni da.

Frantzestea (1808-1814) bukatu berria zan. Gerra artan gastu aundiak egin bear izan zituzten erriak, soldadutaldeei jaten ematearren eta abar, eta zorretan sartuak ziran. Orregatik, gobernuak baimena eman zien lur batzuk saltzeko. Ori bera gertatu zan, uste degunez, karlisten bi gerrateen ondorenean ere.

Erreterian, 1814 urteko aldi artan, "Juaquin Cruz de Petriarena" zeritzan eta Oiartzunen bizi zan gizon bat, lurreosleetako bat izan zan.

Xenpelarren aitona, aren bataio-agirian dagoanez, Juan Krutz zeritzan. Erosle oni, berriz, Juakin Krutz esaten zaio. Baiña, gure iritzirako, bietatik batean, bataio-agirian ez bada salmenta-paperean, oker dago. Seguru aski, Juan Krutz eta Juakin Krutz auek gizon bakarria dira, Xenpelarren aitona alegia.

Xenpelarren aitona ori Naparroako Sunbillan jaioa zan; eta aita, berriz, Arantzan.

Erositako lurrari Senperelarre zeritzan. Xenpelarre eta Xenpelar geroztikako laburpenak dira, beraz.

Lurraren neurria: "cuatrocientas y seis y media posturas de cien codos cuadrados cada una". Pagatu zana: 2.456 errial, "reales de vellón".

Posturak 34'26 metro kuadratu omen ditu, gutxi gora-beera, Araban eta Gipuzkoan. Guzira, beraz, erosi zutena: 13.926 metro kuadratu.

Andik sei urtera, 1820 urteko otsailaren 27-an, "Jose Bernardo de Petriarena" zeritzan batek, Xenpelar bertsolariaren aitak alegia, eskari au egin zion Erreteriko udalari:

"Jose Bernardo de Petriarena, vecino del Valle de Oyarzun y Colono de su caserío de Errotazar con el debido respeto a V.S. expone que el partido denominado Senperelarre jurisdicción de V.S. tiene un terreno que fué concejil suyo adquirido por compra; a cuya continuacion determino edificar una

casuca o tejado con tejabana reducida para poder habitar en pieza propia con su familia. Y por cuanto pegante a dho terreno existe un sitio mas adecuado que otro del exponente para aquel efecto:

Suplica a V.S. con todo sentimiento se digne concederle ocho posturas de terreno en el paraje que así es mas adecuado el qual montará al Perito que V.S. comisione para el efecto; en permuta de otro en equivalente medida dará en el mejor terreno que el exponente tiene en dicho paraje pegante al termino concejil de V.S.; de cuyo favor que se promete de su notoria generosidad vivirá agradecido. Rentería 20 de Febrero de 1820.

A ruego del suplicante que no sabe firmar

Jose Lorenzo de Gainza"

Xenpelarren aita Oiartzungo Errotazar baserrian bizi zan, beraz. Baiña Senperelarren etxe bat egin asmotan zebillen. Eta, toki ohea nairik, lur-truke bat eskatzen dio Erreteriko udalari.

Onek "Juan Bautista de Huici" zeritzan gizon bat bialdu zuan Senperelarrera, lur-truke ortaz bere iritzia eman zezan. Erriaren kalterako etzala iritzi zion, eta udalak ontzat artu zuan Jose Bernardo Petriarenaren eskaera. Amasei postura ta erdi trukatu zituzten.

Senperelarreri buruzko urrengo argibidea Erreteriko leenengo *Padrón Municipal* deritzea liburuan arkitu degu; 1840 urtekoa da. Jose Bernardo

Petriarena bertan bizi zan bere familia-rekin. Etxea eginda zegoan, beraz. Iru gizonezko eta iru emakumezko ziran. Ez dira izendatzen. Baiña Xenpelar bertsolaria, 1835 urtean jaio baitzan, oietako bat izango da.

Senperelarre Erreteritik urruti xamar dago, eta Oiartzun alderago dauka. Oiartzundik Astigarragara kamioz goazela, Txikiardi pasa eta berealaxe ezkerretara jo bear da, gaurko baserri-

-kamio oietako bat artuta. Txikiarditik ordu laurden bat or nunbait.

1. Protocolo del Escribano de Rentería D. Antonio María Sorondo, 1814 y 1815, folio 59 y ss., archivo provincial, Oñate.

2. Protocolo del Escribano de Rentería D. Antonio María Sorondo, 1919 y 1820, folio 100, archivo provincial, Oñate.

XENPELARREN JAIOTZA

Leen ere esan degunez, Xenpelar bertsolariaren aita, Jose Bernardo Petriarena Bergara, Naparroako Arantzán jaioa zan. Oiartzungo Errotazar baserrian bizi zan 1820 urtean. Bi Errotazar dira Oiartzunen: bata, Oiartzun eta Errenteri bitartean, bazter batean; bestea, Ugaldetxotik Txikierridira goazela, ezkerretara artuta, gaur fabrika aundi bat jarri duten ondoan.

Ardotxene ere andik bereala dago. Ardotxenekoa omen zan Ardotx bertsolaria.

Dakigunez, Xenpelarren aita Senperelarren etxe bat egin nairik zebillen 1820 urtean. Gero, 1840-an, an bizi zala azaldu da.

Leenengo, Josefa Inazia Irigorri-rekin ezkondu zan. Oiartzungo alaba zan. Emazte onengandik, eliz liburuetan arkitu degunez, iru seme izan ziotuan: Juan Jose, Jose Saturnino, 1815-II-9-an jaioa, eta Juan Krutz, 1816-X-2-an jaioa(1). Alabarik ez degu arkitu.

Emazte au il zitzaionean, Maria Rita Berrondorekin ezkondu zan. Xenpelarren bataio-agirian Errenteriko

alaba zala esaten da; baiña beste guzietan Oiartzungoa zala.


Onengandik sei seme-alaba izan ziotuan: Josefa Gregoria, 1829-XII-27-an jaioa; Jose Manuel, 1832-IV-5-ean; Maria Luisa, 1833-V-11-an; Juan Frantzisko, 1835-I-12-an; Katalina Josefa, 1838-VIII-13-an; eta Inazio Maria, 1842-IV-16-an. (2)

Senide auetatik Juan Frantzisko ori da Xenpelar bertsolaria.

Agiri batzuetan Jose Frantzisko esaten zaio; baiña bataio-agirian Juan Frantzisko idatzita dago. Prantzisku esaten omen zioten.

Xenpelar Oiartzunen bataiatu zuten, jaio zan biaramonean. Orren berri bazekiten Errenteriko bertsozaleak. Auek diotenez, gerragatik izan zan ori. Ain zuzen, Xenpelar jaio zanean, leenengo karlista gerratea zebillen (1833-1839).

Oiartzungo erria eta Senperelarre baserria karlisten mendean omen zuden. Aurreko mendiak, berriz, eta bai Errenteriko erria ere, liberalen mendean, tartean Txikierridiko erreka zutela.



Senperelarre edo Xenpelarre baserria, Errenteri.

Ala esan didate; baiña ez det liburuetan aztertu, orrela izan ote zan ziur jakiteko.

Bigarrenengo gerratean ere (1872-1876) toki oiek berak izan omen zituzten liberalak eta karlistak. Gaur egunean ere nabari omen dira zenbait tokitan, orduan egindako trintxera edo lubakiak. 1936-ko gerratean ere aietaz baliatu omen ziran leku batzuetan soldaduak.

Alkarrengandik gertu xamar baitziran, “Or ago, faltso, faltso! Tripa triste!” eta olako beste disparate asko esaten omen zizkioten ojuka alkarri karlistak eta liberalak bigarrenengo gerratean. Leendabizikoan ere etzuten beste izketa-modurik erabiliko.

Gorroto-deadarrak eta tiroak izan ziran, beraz, Xenpelar pakezalearen belarriak entzun zituzten leenengo gauzak. Ongi etorri polita egin zion munduak...

Ala, gerragatik Senperelarretik Errenterira joaterik etzegoalako alegia, bataiatu omen zuten Xenpelar Oartzunen. Ala diote Errenteriko bertsozale zaarrak.

Baiña Xenpelar ez-ezik, beraren senide guziak, gerra-denboran jaio etziranak ere bai, Oartzunen bataiatu zituzten. Errenterin, berriz, iñor ere ez.

Zergatik ote? Leen esan degunez, Oartzun erosoago zuten Errenteria baiño. Orregatik, eliz-eginkizunak betetzera Oartzuna joango ziran, eta aurrak bataiatzera ere bai. Ala egiten omen zan garai artan askotan.

Oartzunen bataiatuagatik ez degu pentsatu bear, beraz, Errenterin jaioa

etzanik. Baiña bada besterik, gure ustetan beintzat duda pixka bat jarri dezakeanik.

Xenpelarren eliz agiri guzietan, ezkondu zaneakoan, seme-alaben bataio-agirietan, il zaneakoan eta abar, bein ere utsegin gabe, Oartzunen jaioa zala esaten da: “*natural de Oyarzun y residente en Rentería*”.

Agiri auetatik dudarik geien jartzen dutenak ezkontzakoa eta seme-alaben bataio-agiriak dira. Auetan Xenpelar bera izango baitzan erretore jaunarengana joan eta argibideak eman zizkiona. Eta Xenpelarrek ongi asko jakingozuan Senperelarre Errenteriko partean dala. Ala ere, berak eragindako agiri guzietan “*natural de Oyarzun y residente en Rentería*” jarri zioten, ares-tian esan degunez.

Xenpelarren alaba Maria Luisagatik ere ori bera esaten da beti.


Argibide aukeratuak Xenpelar oiartzuarra izatearen alde dihoaz. Baiña beste onak aukeratuak errenteriarra izatearen alde.

Errenteriko 1871 urteko *Padrón Municipal* deritzaion liburuan, Xenpelarren anai Juan Joserengatik, etxera esposatu zanearengatik alegia, Errenterian berrogei ta amairu urte zeramazkiala esaten da; 1818 urtea ezkeroztik, beraz.

1887 urtekoan, berriz, Errenterin irurogei ta bi urte zeramazkiala; 1825 urtea ezkeroztik, beraz.

Eta 1893 urtekoan, berriz, irurogei ta amabost urte zeramazkiala; 1818 urtea ezkeroztik, beraz.

Liburu oiek ez datoz danak bat, beraz. Sekretarioak-edo etzuan arretarik



Senperelarre edo Xenpelarre baserria, Errenteri.

aski jarriko, eta guri etziguin batere mesede onik egin. Baiña ala ere gauza garbirik atera genezake.

Xenpelarren anaia -eta famili guzia ere bai ote arekin batera?- aurrena kanpoan bizi zana, gero Errenterín bizi zan; eta beti ere aldaketa ori Xenpelar jaio baiño leen egin zan.

Baiña, egia esan, eliz-agiri guziak Xenpelar oiartzuarra zala esateak, du-da pixka bat sartzen du noski nungoa ote zan. Agian, gerra etxe inguruan zutelako, andik aldegin bearra izango zuten, eta kanpoan zirala Xenpelar jaio... Agian, ama Oiartzuna, bere jaiotetxera joango zan aurra izatera. Ain zuzen, etxean etzeukan lagundu lezaiokean emakumerik.

Kontu au argitzearren makiña bat saio egiñak gera artxiboetan, baiña al-perrik.

Leen esan degunez, Xenpelarren aitak lur-truke bat egin zuan 1820 urtean, Senperelarren etxea altxatzeko. Urrengo argibidea, berriz, 1840-koa da; ontan, familia Senperelarren bizi zala esaten da.

Ogei urteko tarte ori illun daukagu. Zein urtetan altxatu zuten etxea, eta zein urtetan aldatu ziran Oiartzungo Errotazarretik Senperelarrera? Xenpelar 1835 urtean jaio zan. Urte ori baiño leenago egin al zuten aldaketa ori? Amabost urteko tarte lur-trukea egin zanetik. Sobra eta geiegi, noski, etxea bukatzeko. Alderdi ontatik errenteriarra zala esan bear genduke. Baiña beti gauza bera errepikatzen ariko bagera ere, zergatik esaten zaio eliz-agiri guzietan oiartzuarra zala?

Norbaitek korapillo au askatzeko modu arkituko aal du!

Baiña, ortaz kanpora, bere denborarik geiena, eta bai onena ere, Errenterín egin zualako, eta bere bertso guziak Errenteritik zabaldu zitualako, emengotzat jo bear degu noski gure Xenpelar aundia.

1. Oiartzungo 13-garren bataio-liburuan.

2. Oiartzungo 14 eta 15-garren bataio-liburuetan; Juan Frantziskorena, Xenpelar bertsolariarena alegia, 15-garren liburuan, 7-garren orrialdean dago.

BASERRIA

Esana degu zein tokitan dagoan Senperelarre baserria, norbaitek ezagutu nai badu.

Errenteriko 1863 urteko *Catastro* liburuan, iñork errentan artua balego, “*lo que produciría en arriendo*” alegia, urtean berreun errealeko etekiña emango zuala esaten da; erderaz: “*200 reales de vellón*”.

Urterik ez duan geroagoko beste *Catastro* batean, Senperelarre baserriak 12.500 erreal -*reales de vellón*-balio duala esaten da. Dakigunez, lurragatik pagatu zana 2.456 erreal izan zan.

Bitatik bat, beraz: edo baserria, ango etxea egin, lurrez ugalduta eta obetua zuten, edo orduko dirua, oraingoa bezela, beera jotzen ongi ikasia zegoan.

Eta urtean lau anea gari eta iru anea arto jasotzen omen zituzten.

Ori da paperetan arkitu deguna. Gaiñontzean, errenteriar zaarrak esan digutenez, baserri urria izan bear zuan. Sagasti polit batzuk ba omen zituan, baiña txikiak.

Gaurko egunean Senperelarre utsik

dago. Bertaraño elduak gera ezagutzearren. Mendi-kaxko batean dago.

Kaxko orren beeko aiekan, erreka bat. Erreka-zubi baten gaiñetik pasa eta aldapa gora igo bear da. Nai duanak, gurdi-bidetik; eta nai duanak, bidxigorretik.


Goi xamar badago ere, ez da Senperelaretik bistarik asko ikusten, altuagoko mendiz inguratuta baitago.

Baserri estu eta luze bat da. Aurreko aiekan, beean, ate zabal bat eta leio bat; goien bi leio eta balkoi luze bat; teillatua, oso aterea.

Etxe onek bi zati ditu. Bata, zuritua eta leiouduna. Leiotik barrena begiratu-ta, gela aundi bat ikusten zan. Gela orretan, egurrak, goldea, botillak eta beste traste asko, an eta emen zabalduak.

Beste zatia, illuna eta zuritu gabea. Goien, teillatuaren ondoan, zenbait leio txiki; beean ukuillua, ego aldean mandioaren atea.

Bi zati oiek ez dira, gure iritzian, denbora berean egiñak. Aurrekoak, zurituak alegia, geroztikakoa dirudi.



Senperelarre edo Xenpelarre baserria. Mandioko atea.

Baserriaren atarian, platano batzuek itzal egiteko.

Andik ego aldera, erreka-zulo txiki bat, beeko erreka aundira dijoana.

Erreka txiki ortaraiño jexteko, gurdi-bide bat izandakoa ikusten zan.

Baita bidexigor bat ere. Onek armailla batzuk ageri zituan oraindik.

Erreka txiki ontako arkaitzak gorol-

dioz jantzita zeuden. Arkaitz batean teilla gorri bat jarrita zegoan, ura ontzietan jaso aal izateko. Orrelakoxea izango zan iturria Xenpelarren denboran ere; onera jetxiko ziran ur billa.

Beeraxeago, errekaen putzu bat. Ara jexteko, beste bidexigor bat. Putzu ontara eramango zituzten abereak edan araztera.

EGURROLA

Egurrola, Oiartzungo partean, Ugaldetxo baillaran arkitzen dan baserri bat da. Malda batean goi xamar dago, Oiartzungo erria eta inguruko zelai eta mendi ederrak aurre-aurrean dituela.

Izena berez Egurrola bada ere, erriak Eula esaten dio gaur, itzaren erdia janda. Egurrola eta Eula ez dira, beraz, bi baserri, bat bakarra baizik.

Errenteriko Makazaga moldiztegiak 1931 urte inguruan *Xenpelar'en Bertsuak* izenarekin argitaratu zuan liburuaren itzaurrean, onela esaten du Luis Jauregi apaiz jaunak:

“Bere gurasoak -Xenpelarrenak alegia- oso beartsuak ziran eta Xenpelar baserria urri eta kaxkarra; nundik-edo-andik saiatu bear, ba. Au dala-ta, oraindik mutil-koskorra zala, Oiartzun'go Eula basetxean morroi jaurri zuten gurasoak gizajoa”.

Eta ori bera da errenteriar zaarrak ao batez esan digutena.

Zerbait geiago jaso ote genezakean, Egurrolara joan giñan egun batez, eta ez genduan neke ori alperrik artu.

Baietz esan ziguten; Xenpelar mutil

koakorretan Egurrolan bizi izana zala, zazpi urterekin-edo etorria. Baiña morroi ez, parientetasunez baizik ekarria zutela; ala entzuna zutela beren aurrekoengandik.

Eta ala izaki. Oiartzungo eliz liburuetan arkitu degunez, Xenpelarren izeba bat, aitaren arreba, Maria Bautista Petriarena, Egurrolara ezkondu zan. Izebarengana bialdu zuten, beraz.

Xenpelarren arreba bat, Maria Luisa, izeba orren besoetakoa zan.

Egurrolatarrak Isasti zuten deitura. Gaur ere orrela dute. Xenpelarren izebaren gizonak Manuel Frantzisko zuan izena.

Xenpelarren aitajauna ere Frantzisko Inazio Isasti zeritzan bat izan zan. Egurrolakoa au bera ere, seguru asko.

Orretxengatik artuko zuten Xenpelar Egurrolan, illoba ez-ezik besoetakoa ere baitzuten. (1)

Xenpelar zazpi urterekin Egurrolara joan bazan, 1842 urtean izan zan ori. Garai artan Senperelarren lagun asko ziran: gurasoak eta bederatzi senide. Geitxo baserri txiki baterako.



Egurrola baserria, Oiartzun.

Egurrolatarrak mandazai ibiltzen omen ziran garai artan, egur-ikatza eta abar karriatuz.

Bein batean, Artamugarri baserriko andre bat gaizkitu omen zan. Donostiako Manteo ospitalera eraman bear omen zuten operatzera, eta Egurrolatarrei otsegin zieten, beren mandoren batekin joateko. Joan ziran; mendi-baserri artatik Erreteriraño ekarri zuten andre ura mando gaiñean; emen, artean jarri berria zegoan tranbean sartu zuten eta Donostiaraiño. *Apendicitis* edo olako gaitzen bat omen zuan. Operatu zuten eta bizirik atera zan. Etzan iltzen erreza izango!

Beren mandoekin batera eta bestera edozertara ibiltzen ziran, beraz, Egurrolatarrak.

Garai artan, otea ematen zitzaient abereei neguan, beste jatenik etzanean. Otea larrean ebaki, trabesekin jo txiki-txiki egiteraiño, eta ganaduari bota. Oitura orrela omen zan. Baita Egurrolan ere.

Xenpelarrek ere makiña bat ote-jotze egin bear izan omen zuan, Egurrolan bizi zalarik. Orra nola dion berak bertso batean:

Amar urteko nitzan
oteketan asi...

Baita bertsoan egin ere denbora berean. Egurrola ondoan, gaur piñudi aundi bat dagoan tokian, ote asko izaten zuan larrea omen zan. Ba, gaurko Egurrolatarrak, beren aurrekoengandik entzunik dutenez, Xenpelar larre ortan “ote ainbeste bertso botea omen zan”.

1. Manuel Frantzisko Isasti orren ondoren, beraren seme bat, Juan Krutz, izan zan Egurrolako etxejoauna; Xenpelarren leengusua beraz. Onen ondoren, berriz, beraren seme bat, Juan Jose. Urrena, onen seme bat, Luis Isasti. Argitasun auk Luis oni eta beraren izebei zor dizkiegu.

GIZONA

Zer gizon-modu ote zan Xenpelar?
Jakingaitza da ori.

Luis Jauregi apaiz jaunak onela dio
bere *Xenpelar bertsolaria* liburuan:

“Ez aundi ta ez txiki, gorputzez;
bien arteko baizik. Aurpegia, beltzera-
na; begiak, biziak eta biurri-xamarrak;
burua, erne ta azkarra; gañerakoan, gi-
zon elizkoia ta atsegiña, kristau jato-
rra, ta langille paketsua”.

Ala jasoko zuan Xenpelar ezagutu
zuten errenteriar zaarrendandik. Guk
ez degu noski olako zoririk izan. Gaur
ez da munduan Xenpelar bere begiz
ikusi zuanik.

Baiña Usurbilko Eguzkitza baserri-
ko Pedro Bidasorok onela esan zigun:

- Nere amona zanak ezagutu zuan
Xenpelar bertsolaria, Donostiako kale-
an. “Xenpelar! Xenpelar!”, jende gu-
zia korruan. Plako berdexka bat omen
zan. Itz guzia testua zuana.

Amerikano batek onela kantatu
zion bein batez Xenpelarri:

Xenpelarri eman biaizkat
artatik pixar bi,

ezurrak lasaitu ta
azi al baleri.

Etzion olakorik esango, gizon aun-
dia izan balitz.

Musarro eta Xenpelarrek alkarri
Fabrika Aundian bota zizkioten ber-
tsoetan, onela esaten dio onek ari:

Zertako daukak grandeza?
Txikia ikusi nai eza...

Musarro gizon aundi eta bikaiña
omen zan. Ala diote ezagutu zuten gu-
ziak. Xenpelar, berriz, txikia, bertso
onek aditzera ematen duanez.

Beste bertso bat ere bada, Olloki
zaarrak edo garai artako beste bertso-
lariren batek Xenpelarri kantatua:

Kupel bat jarri dute
atarian txutik,
gizon txikiyak aundi
ematiagatik;
zer esanen faltikan
ez dago gugatik,

onoko txiki (y) onek
astinduko gaitik.

Bertso ontan bi gauza aitortzen
zaizkio Xenpelarri: bata, bere bertso-
-maisutasuna; eta bigarrena, bere gor-
putz-txikitasuna.

Bati aditu diogunez, sagardotegian
bertsotan asten zanean, onela esaten
zioten:

- Ea, Prantxisku, igo ontara!

Eta alki baten gañera igo arazten
zuten. (1)

Beti ere obe da kantu-lanean alki
edo maai baten gaiñetik jardutea.
Ontatik ez genduke, beraz, Xenpelar
txikia zanik nai eta nai ez pentsatu be-
ar. Baiña bertsoak diotenetik bai, nere
ustetan.

Auek gorputzari dagozkionak dira.
Animaren doaiak nolakoak ote zituan?
Au ere jakingaitza degu. Ez gera ortaz
mintzatuko; ori jakiteko bertsoak ira-
kurtzea beste biderik ez dago.

1. Errenteriko Florentina Perez Salaberria.

ANAI JUAN JOSE

Xenpelarren anai Juan Jose, aitaren leenengo emaztearengandik sortua, Oiartzunen ezkondu zan, 1855 urteko otsaillaren 12-an, bertako alaba zan Josefa Gregoria Retegirekin. Andre-gaia zein etxetakoa zan ez dakigu. Senperelarren jarri ziran bizi izaten.

Erreteriko 1856 urteko *Padrón Municipal*-ean, Senperelarren onako lagun auk bizi ziralda ageri da: Juan Jose, bere emazte Josefa Gregoria, Maria Luisa, Juan Frantzisko, Katalina eta Jose Mari senideak, eta auen ama Maria Rita Berrondo.

Urte bete zan, aita, Jose Bernardo, mundu ontatik joana zala, 1855-eko martxoaren 22-an illa. (1)

1857-ko *Padrón Municipal*-ean, berriz, lagun oiek berak ageri dira Senperelarre-n, eta beste bat ere bai: Santiago Urbietak; *menor*, aurra alegia, esaten zaio. Ez dakigu nor izan zitekean.

Eta 1861-ekoan, berriz, senar-emazteak, Juan Jose eta Josefa, beren bi semeekin, Jose Joakin eta Jose Frantziskorekin, ageri dira Senperela-

re-n. Beste guziak andik aldegiñak, beraz.

Bost seme-alaba izan zituan Juan Josek, eliz liburuetan arkitu degunez. Irakurleak kontuan ar beza Erreterin bataiatu ziralda aur auk. Ona emen beren izenak eta jaio ziran egunak:

Juan Krutz, 1856-XI-7-an jaioa; Jose Joakin, 1858-XI-16-an; onen amapontekoa Xenpelarren ama, Maria Rita Berrondo, izan zan; eta, eliz agiriak dionez, Urnietan bizi zan; Juan Frantzisko, 1860-VII-23-an; onen aita-ama pontekoak Xenpelar eta bere emaztea izan ziran; Jose Antonio, 1863-X-19-an; eta Frantziska Inazia, 1866-VII-31-an.* (2)

Zaarrena, Juan Krutz, agian aingertutan ilko zan, aren izenik ez da geiago ageri eta.

1. Erreteriko 7-garren eriotz-liburuan, 56-garren orrian.

2. Erreteriko 13 eta 14-garren bataio-liburutan.

ARREBA MARIA LUISA

Xenpelarren senideetatik, bere arreba Maria Luisa izan zan arekin artu-emanik geiena izan zuana.

Leen esan degun bezela, urte t'erdiz zaaragoa zan. Arreba, 1833-ko maiatzaren 11-n jaioa; eta Xenpelar, 1835-eko ilbeltzaren 12-an.

Maria Luisa, 1860-ko urriaren 31-n, Jabier Inazio Aranberri Elorza-rekin ezkondu zan (1). Senargai azkoitiarra zan, eta -nola ez?- alpargatagillea. Urrategi-ko Oiaun baserrian jaioa omen zan. (2)

Eliz-liburuetan arkitu degunez, onako seme-alaba auk izan zituzten:

Jose Frantzisko, 1861-V-28-an jaioa. Medikua, Jose Inazio Etxartek, presaka bataiatu bear izan zuan, eta biaramonean il zan. Xenpelar izan zan aren aitapontekoa.

Maria Paskuala, 1862-III-9-an jaioa; eta 1867-VII-26-an il zan, lau urte t'erdirekin.

Joxepa Antoni, 1865-I-7-an jaioa. Onen aitajauna ere Xenpelar izan zan. Senide guzietatik au bakarra izan zan aur txikitan il etzana. Erreterin bizi izan zan, eta gaur egunean ere badira artaz oroitzen diranak. 1943-XII-29-an

il zan. Bertso jartzen poliki zekiana zan. Aren bertsoak eta bizitza aurrerago eskeñiko dizkiogu irakurleari.

Eta, azkenik, Daniela. Baiña onen berri gero emango degu.

Xenpelarren arreba Maria Luisa au ere bertsolaria omen zan. Bein baiño geiagotan jardun izan omen zan bertsoan anaiarekin. Erreteriko Fabrika Aundian lan egiten zuten biak. Bein batez, nagusia Andoaiña bialdu omen zituan eginkizun batera. Eta an alkari bertso botatzen aritu omen ziran, bertako jendea entzuten zorutzen zeukate-la.

Maria Luisa au oso buru argikoa omen zan. Irakurtzeko zaletasun aundia zuana. Egunez astirik ez, eta arratsean, oierakoan, jarduten omen zan, kinke bat piztuta. Batzuetan, ordea, lo artzen zuan, eta bere ille kiskurrak erre egin omen zitzaizkion bein baiño geiagotan. Bestetan, berriz, senarrak argia itzali bear izaten zion. (3)

1. Erreteriko eliz liburuetan.

2. Erreteriko Florentina Perez Salaberria.

3. Erreteriko Monika Galarraga eta Florentina Perez Salaberria.

EZKONTZA

Xenpelar Oiartzungo alaba batekin ezkondu zan: Maria Josefa Retegirekin, 1859 urteko abenduaren 22-an; ogei ta lau urte osatu gabe, beraz. (1)

Bere anai Juan Jose, berriz, Maria Josefa onen aizpa batekin esposatuta zegoan. Bi anai bi aizparekin uztartu ziran, beraz.

Ezkontza-testiguetako bat Juan Isasti izan zan; Egurrolakoa seguru aski.

Onako frutu auek izan zituzten, Erreteriko eliz liburuetan arkitu degunetz: Juana Josefa, 1860-III-1-ean jaioa -denbora baiño leen mundura etorria, beraz-; Maria Luisa, 1863-II-10-ean jaioa; eta Juana Manuela, 1866-XI-5-ean jaioa. (2)

Leen ere esan degunetz, 1857 urtean Xenpelar Senperelarren bizi zan, urte ortako *Padrón Municipal*-ean ageri danez.

Urrengo *Padrón Municipal* a 1861 urtekoa da. Bertan irakurtzen danez, Senperelarren Juan Jose bere emazte eta bi semeekin bizi zan; leen ere esan degu ori. Eta Xenpelarren ama, arreba

Maria Luisa, anai Jose Mari, emaztea eta alaba Juana Josefa, berriz, Erreteriko kale-etxe batean bizi ziran.

Eta arritu gaituana au da: ez Xenpelar eta ez onen koiñadua, Jabier Inazio Aranberri alegia, ez dira oiekin batera ageri. Eta *Padrón* ortan ez degu beren izenik arkitu. Nora joanak ote ziran? Zergatik ez dira bakoitza bere emaztearekin bizi?

Beste arrazoi batengatik ere pena artzekoa da Xenpelar *Padrón* ontan ez agertzea. Ontan, bestetan ez bezela, lagun bakoitzak irakurtzen eta idazten ba ote dakian esaten da. Orregatik, ori ezin jakiñik gelditzen gera. Penagarria benetan, Xenpelar paperetan ainbeste bertso jarri eta zabaldu arazi zuan gizona izanik.

Baiña arreba Maria Luisak eta anai Jose Marik irakurtzen bai eta idazten etzekitela esaten da. Seguru aski, eskola ori bera izango zuan Xenpelarrek ere: irakurtzen bai eta idazten ez. Eta bere bertsoak papereratzeko norbaiten sekretariotzaz edo laguntzaz baliatuko zan.

Gero, Malen Kanean bizi izan zan Xenpelar. Bertan il zan. Orregatik, 1931 urtean oroitarria jarri zioten etxe orri euskeraz eta erderaz. Orrekin ezaupide erreza du irakurleak, zein etxe dan ezagutu nai badu.

-
1. Oiartzungo 11-garren ezkontza-liburuan, 28-garren orrian.
 2. Errenteriko 14-garren bataio-liburuan.

BIZIMODUA

Xenpelarrek Errenteriko Fabrika Aundian lan egiten zuan. Baita bere arreba Maria Luisak ere. Ez dakigu noiz asi ziran. Baiña fabrika ortako liburu zaarretan argibide batzuk bildu ditugu.

Eun-fabrika baitzan, euntegian lan egiten zuten. Beren kontura aritzen ziran: oial-pieza bat bukatu aala, ura ko-bratu eta beste bat asi.

Adibide bat jartzeagatik, txetasun auek apuntatu nituan: Maria Luisak 1869-ko uztaillaren 14-ean bukatu zuan pieza bat; baita urrengoa asi ere. Beste au illaren 21-ean bukatu zuan. Piezak 104 kana zituan luzeran, 44 ontza zabaleran, eta *plugastel* deritzaion oial-motakoa zan. Ogei ta bat erreal pagatu zioten.

Xenpelarrek, berriz, 1869-VII-6-an bat bukatu eta urrena asi zuan. Beste au illaren 14-ean bukatu zuan. Pieza onek 91 kana eta 34 ontza zituan. Irurogei ta amabi erreal pagatu zioten. Oial au ere *plugastel* zan. Baiña, gutxiago egiñagatik, arrebari baiño geiago eman baitzioten, *plugastel* dalako orrek ere mota bat baiño geiago izan-

go zuan. Bestela ez dakigu soldataren ezberdintasun ori nola ulertu ditekean.

Oialaren berri dakian batek, *plugastel* ori *belakia* esaten zioten oiala izango ote zan esan digu: itsas-ontzietako belak egiteko arizko oial lodi bat izaten omen zan.

Jai-arratsaldeetan, berriz, festa guzia maia kanpora atera eta karta-jokua izaten omen zan. Eta aztu aparria bear zutenik ere.

Bitartean, Xenpelarren arreba Maria Luisa tripakiak jartzen aritzen zan. Astean lana besterik etzuana, jaie-tan ere lanean.

Eta karta-jokuan ari ziranak, alako batean gogoratu eta esaten zuten:

- Oi, aparirik ez degu! Maria Luisak pronto eukiko ditu tripakiak!

Arengana joan eta:

- Ardit baten tripakia ekaitzu!

Geroago, Mateonetik enkargatzen omen zuten merienda, batez ere sagar-dozaleak. Ango neskameak serbilleta txuri-txuri bat bizkarrean artu eta beste batekin lurrezko kaxuela tapaturik joaten ziran merienda eramatera.

Arreba tripakiak maniatzen ari zan bitartean, anaia sagardotegian bertso kantari. Esan degunez, alki baten gaiñera igo arazten zuten:

- Ea, Prantxisku, igo ontara!

Xenpelarren koiñadua garaiz eta txintxo erretirutzen zan. Etxean galde-tzen zioten:

- Prantxisku nun duzu?

Eta arek:

- Prantxisku nun dedan? Orain asi da, alki gaiñera igota, bertsoa bota eta bertsoa bota... Auskalo noiz etorriko dan!

Olakoak izaten omen ziran anai-arreba aien jai-arratsaldeak. (1)

I. Erreteriko Florentina Perez Salaberria.

ERIoTZA

Xenpelar baztangaz kutsatuta il zan. Errenteriko eliz-liburuak aztertu ditugu, eta erri ontan aldi artan baztangaz leenen il zana, guk arkitu degunez beintzat, Migel Joakin Zabala izan zan. Ogei ta bat urteko mutil gaztea bera, eta 1869-ko urriaren 10-ean utzi zuan mundu au.

Eta azkeneko illa Juan Maria Karrera izan zan, ogei ta bat urtekoa au ere, nekazaria, 1870-ko ilbeltzaren 17-an mundu ontatik joana.


Bitarte ortan, ogei ta bederatzi lagun kontatu ditugu baztangaz illak. Adin guzietakoak dira: amairu urteko nexka eta irurogei ta amabi urteko agurea; ogei urteko gazte lorekoa eta berrogei ta amasei urteko gizon larria. Baita ere ofizio guzietakoak: nekazariak, langilleak, nagusiak... Famili batean aita eta bi alaba il ziran.

Baztangaz kutsatuta zeuden etxeak itxi egiten zituzten. Etxe-barrendik otartxo bat jexten zuten leiotik kalera, lokarri batetik zintzilik, barruan paper batean zer bear zuten esanez. Au eka-rritakoan, otarra atzera barrena jasozten zuten, lokarriari tiraka.

Etxe oiek madarikatuta bezela gelditzen omen ziran; baita gaixoa il eta gero ere, beste berrogei egunean (*cua-rentena*), kutsuaren bildurrez. Iñor ere etxe artara sartzea debekatuta egoten zan, eta etxetik ateratzea ere etzan libre izaten. Ildakoak gaez atera eta eramaten zituzten kanposantura; eta baserrikoa bazan, bideetatik ez, zelaie-tatik barrena baizik.

Gerra ondorean kolera-izurritea izan omen zan. Gaitzik txarrena, leengo zaarrak ziotenez; kristaua ogei ta lau orduan bukatzen zuana. Etxe batean beeko bizitzakoak arrapatu omen zuten. Orduan goikoak, balkoian ool bat jarri eta balkoitik balkoira pasatuz aldegin omen zuten etxetik, eskallere-tatik ez pasatzeagatik. Olamoduzko gauzak gertatuko ziran baztangarekin ere.

Errenterian, azkeneko baztanga-izurritea 1921 urtean izan zan. Pasaira itsas-ontziz eldutakoren bat, Errenterira etorri eta Kontzeju ondoko etxeren batean ostatuz jarri omen zan. Eta onek ekarri zuala edo etzuala, segituan kale guzia baztangaz bete zan. (1)



Xenpelar bertsolaria il zan etxea, Errenteri.

Orduan erri guzia txertatu zan. Baiña baztangaz kutsatuta zeudenak, gauetz artu eta Donostiako Manteoko ospitalera eraman zituzten, eta emen aparte jarri. Don Pedro Indaberea apaiz jauna, mediku bat edo bi eta iru bat moja, gaixoekin batera barrena sartu ziran. Oien tokia itxi zan eta an gelditu ziran, aalik eta dana garbitu zan arte.

Aldi ontan, 1921-ean alegia, lau bat edo dozen erdiren bat lagun il ziran, eta gaiñerako guziak salbatu.

Txertatu ziranak ere batzuek arrapatu zuten, baiña aiek ariñago pasa. Batzuk txertotik oso gaizki ibili ziran, edadekoak batez ere.

Ez txertorik eta ez beste aurrerape-nik gabe, bakoitza bere etxe barruan kartzelan bezela sartuta, beltza izango zan orratik, Xenpelarren denboran, kutsatutako gizarajo aien egoera, bate-re itxaropenik gabe, eriotzaren zai egotea beste zer egiñik etzutela.

Xenpelarrean, gure bertsolariaren emaztea il zan aurrena, 1869 urteko urriaren 25-ean, baztangaz. (2)

Xenpelarrek jarraitu zuan geroztik ere fabrikara joaten. Bearko, noski, bizimodua aterako bazuan. Bere azkeneko oial-pieza azaroaren 20-an kobratu zuan. Irurogei eta amabi erreal eman zioten. Azken bigarrena, berriz, illaren 6-an kobratu zuan.

Baiña bera ere kutsatu eta abenduaren 8-an il zan, Ama Birjiñaren egunean, emaztea il eta illabete ta erdira. (3)

Ala esan digu errenteriar batek:

-Arek azkeneko bertsoan zera eskatzen zion askotan Ama Birjiñari:

eriotzako orduan zeruko atean sartzea edo olako zerbait. Eta Ama Birjiñaren egunean il zan.

Xenpelar gaizkitu zanean, beraren arreba Maria Luisa, aurdun bazegoan ere, anaiarengana joan zan. Senarrak onela esan omen zion:

-Etzoazela, Maria Luisa! Bakarrik utzi bear al nauzu gure aur onekin? (4)

Eta emazteak erantzun zion:


- Ez, ez, ez! Ez naiz kutsatuko! Ondo aterako naiz! Lagundu egin bear diot, lagundu egin bear diot!

Maria Luisak abenduaren 7-an kobratu zuan azkeneko oial-pieza. Anaia il zan bezperan, beraz.

Ontatik zenbait pentsakizun datozkigu burura: edo anaiak etzuan gaitz luzerik pasa, edo-ta oso gaizkitu arte arreba etzan arengana joan, edo-ta lagun baten bitartez kobratu zuan leendik egiña zeukan lana...

Dana dala, anaiarengana joan zan. Leen esan bezela, anaia abenduaren 8-an il zan. Egun berean, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Maria Luisak aurra izan zuan: nexka, Daniela. Kutsatutakoen etxera bein sartu ezker, ateratzerik ez baitzegoan, anaiarenean izango zuan. Apaizak, Jose Ramon Irigoienek, etxean bertan presaka bataiatu zuan.(5) Bearbada, Xenpelarri elizakoak ematera etorri zan apaiza izango zan.

Etxe berean eta egun berean, bati elizakoak eta besteari bataioa... Osaba gela batean gorputz, arreba aldamenekoan aur izateko antsietan, eta andik puska batera aur jaio berriaren negarrak...



PETRIENA TAR JON PANTZEZKA,
"XEMPELAR", BERTSOLARI
OSPETSUA, 1835 GKO. ILBELTZAREN
13 AN JAIO ZAN ETA ETXE ONETAN
1869 KO. ABENDUAREN 8 AN IL ZAN.
ORERETA ERRI ETA EUZKELTZALEAK
ARRI OROIGARRI AU IPIÑI ZUTEN.
1931 KO. UZTA-REN 24 AN.

Xenpelar bertsolaria il zan etxeko oroitarria, Errenteri.

Aur ori andik bederatzi egunera il zan, abenduaren 17-an; eta ama, berri-
riz, biaramonean, 18-an, baztan-
gaz.(6)

1. 1921 urteko baztangaren argibideak, Erre-
nteriko Monika Galarragarengandik; baita
kolerarenak ere.

2. Erreteriko 7-garren eriotz-liburuan, 131-
garren orrian.

3. Erreteriko 7-garren eriotz-liburuan, 134-
garren orrian.

4. Aur ori bera zan, urteen buruan gauza auck
kontatzen zituana. Leen esan degunez, Joxepa
Antoni zeritzan, baiña Joxepa Antoni Xepelar
esaten zioten Erreterian. Berarekin urte askotan
bizi izan zan Florentina Perez Salaberriak sarritan
entzun zizkion, eta bera izan genduan urteen bu-
ruan guri esan zizkiguna.

5. Erreteriko 14-garren bataio-liburuan,
231-garren orrian.

6. Erreteriko 7-garren eriotz-liburuan, 135-
garren orrian; eta 8-garren eriotz-liburuan, 71-ga-
rren orrian. Liburu ontan aur-eriotzak bakarrik
daude.

AZKENA

Xenpelarren ama, Maria Rita, 1882-ko uztaillaren 14-ean il zan(1), semea baiño amairu urte geroago, onen izena millaka bertso-paperetan Euskal-Erriko baztèr guzietaraiño zabaldua zegoalarik.

Xenpelarren alaba bat, Maria Luisa, Egurrolakoak jaso zuten, umezurtz artaz errukiturik. Gero Andoainen bizi izan zan, eta Pasai Antxon il.

Maria Luisa oni, ama il zitzaionean, soiñeko berri beltz bat egin zioten. Eta bera, artaz gustaturik, dantzan aritu omen zan.

Baiña gero, aita il eta Egurrolara jaso zutenean, eguna joan eta eguna etorri, eta etzuan aita ikusten; etzan ageri. Eta egun batez, penaren penaz, pikundo batera igo eta gauera arte negar eta negar aritu zan.

Ala kontatu zigun Maria Luisa orren alaba zan Klara Sagarzazu Petriarenak, Xenpelarren billobak alegia.

Beste alaba bat, zaarrena, Juana Josefa, Senperelarren bizi zan 1871 urtean, bere izeba-osabekin eta leen-gusuekin.

Irugarrena ere, Juana Manuela, amonak-edo jasoko zuan.

Bi aizpa auek, Juana Josefa eta Juana Manuela, Ameriketara joan omen ziran, eta an zer egin zuten ez daki gaur iñork; aien aztarrenak galdu dira.

Xenpelarren anai zaarrena, Juan Jose, Senperelarren bizi izan zan il arte, 1900 urte inguruan.

Onen seniderik etzan berarekin bizi izan. Sakabanatuak ziran, beraz. Iñork ere ez digu aien berririk eman.

Ameriketara joan ote ziran aiek ere?

Juan Joserren seme-alabetatik irugarrena, Jose Antonio, etxerako gelditu zan. Maria Olaziregi Karrerarekin ezkondu zan.

Juan Joserren ondorengoak, 1908, 1911 eta 1918 urteetan, Senperelarren jarraitzen zuten; baiña 1924-eko *Padrón Municipal*'a egin zanean, aren seme Jose Joakin bakar-bakarrik bizi zan bere jaiotetxean, irurogei ta sei urterekin, eta 1927-koan ez da Senperelarre baserriaren aitamenik ere egiten. Baserria utsik gelditua izango zan.

1938 urtekoan, berriz, beste famili bat ageri da Senperelarren bizi izaten: Rufino Etxeberria, bere emazte Joakina Lasa eta seme-alabak.

Azkenekoz Senperelarra bete zutenak lau famili erdaldun izan ziran. Etziran errez moldatuko laurak batera baserri txiki artan. Baiña aiek ere andik aldegin zuten. Xenpelarren etxea mututurik ikusteak pena ematen du; baiña aundiagoa emango zuan noski, erdera dariola balego.

Azkena Xenpelarrera joan giñanean, berriz, baserria berritzen eta txukuntzen ari zirala ikusi genduan, leengo itxura zaarra errespetatuz. Nagusi berriak etorri zaizkio, izan ere, euskaldun jatorrak, eta laster bertan bizitzen jartzeko asmotan dira. Berri pozgarria dala derizkiogu.

I. Errenteriko eliz-liburuetatik.

XENPELARRI BURUZKO LIBURUAK

Xenpelarri buruz egindako leenengo liburuak *Xenpelar'en Bertsuak* izenburua dauka. Errenteriko Makazaga moldiztegiak 1931 urte inguruan argitaratu zuan. Azalean *1º Idaztia* irakurtzen da; bigarrenkoa ere ateratzeko asmotan ziran, beraz.

Luze-zabalean amazazpi eta amabi zentimetro ditu; eta larogei eta lau orrialde.

Liburu orrek Xenpelarren bertso asko falta ditu. Makazagak berak *Bertsolariya* aldizkarian aren bertso geiago argitaratu zituan. Liburu ortan ez daudenak bigarrengorako utziak izango ziran.

Makazagak oso lan bikaiña egin zuan bertsolaritzari buruz. Bertsolaritza alde bat utzita zeukaten garai artako euskaltzaleak, aintzat artu gabetanik. Baiña errepublika-denboran gauzak zearo aldatu ziran, eta bi gizon presturi eskerrak aldatu ere: Juan Jose Makazaga Mendiburu (1867-1963) eta don Manuel Lekuona apaiz jauna zana (1894-1987).

Ona emen Makazagak argitara emandako lanak: *Bertsolariya* asteka-

ria; *Txirrita'ren Testamentua*, *Euskal-Erriko Kanta Zarrak* iru liburu, *Bilintx'en Bertsuak*, *Xenpelar'en Bertsuak* eta bertso-paper asko.

Xenpelar'en Bertsuak deritzaion liburuaren itzaurrea Errenteriko Luis Jauregi apaiz jauna zanak egin zuan. Ona nola dion:

“Gure basetxeko ate-barruraño etorri zitzaigun lengo egun batean izer patsetan Makazaga jauna liburu onentzat itz-aurretxoaren eske. Ez degu oraindik guk gure etxe-ataritik limosnatxorik gabe eskalerik bidali; ez genezakegun jaun ori ere, esku utsik guren etxetik uxatu. Abegi edo arrera ona egin geniola uste det eta bere asmoa txalo beroz txalotu ez-ezik, gure aletxo ere eskeñi genion.

Lenago bagenakigun ez genduala Xenpelar bertsolari motela; baña arrezkero bertsolarien artean goi-goieneko mallan jartzeko bildurrik ez degu. Liburutxo au irakurri ondoren, zorrorek ere, irakurle, orixe esango didazulakoan nago. Xenpelar-izenaren otsa, Gipuzkoa osoan entzun oi da oraindik ere; bañan an-or sakabanatuta

arkitzen ziran bertso batzuek, beste batzuek berriz il-zorian euskaldun zaarren buruetan, oroigai kutunen antzera, bizi ziran. Guziak pillatxo maitagarri batean jartzeko, esku langille baten bearra zegoan, eta esku ori, Makazaga jaunarena noski, zorionez agertu zai-gu. Ez da benetan bere lana makala izan. Xenpelar'en bertsoen liburu bat eskeintzen digu orain, beste bat ere agintzen dizu geroko."

Makazagak ez du inoiz esaten bertsoak nundik jaso zituan. Gure iritzian, bi iturri izan zituan: bertso-paperak eta garai artako errenteriar zaarren oroimena. Makazaga bertso-biltzaille bikaiña izan zan; eta, bere lanari akatsik billatzekotan, auxe bakarra arkituko nioke: esan bezela, ez duala inoiz adierazten bertsoak nundik eskuratu dituan.

Makazagaren liburuan dauden doi-ñuak, berriz, Pasai San Juango Anjel Dadie-k paratu zituan, Makazagaren enkarguz.

Dadie jauna Pasai San Juango organista zan. Berak esan zigunez, liburu ontako doiñu-mordoa onela bildu zan: lau edo bost jai-arratsaldetan, Txirrita eta beste lau bat bertsolari eta bertso-zalerekin juntatu zan. Oietako bi, Errenteriko Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak izango ziran, seguru asko. Txirrita zaarra gurdi batean ekartzen zuten.

Dadie-k onela galdetzen zien: "Bertso auek nola kantatzen dira?". Eta aiek bertso-doiñu ura kantatzen zuten, bein ez-ezik, lau edo bost aldiz ere bai, garai artan magnetofonorik ez baitzan, Dadie-k ikasi arte. Onek pa-

perean solfeoz idazten zuan aiek kantatutako doiñua, eta aiek kantatu bezela idatzi ere. Dadie-k berak esan zigunez, aien melodia obetu zitekean, eta lan asko gabe obetu ere; baiña, bere iritziz, doiñua aien aotik atera bezelaxe utzi bear zan, eta ala egiten zuan. Ondo egiña, noski.

Dadie jaunak lan ederra egin zuan orrela. Orain barra-barra kantatzen diran zenbait doiñu -Iparragirrerena, mutil zarrarena, "Iya guriak egin du" bertsoena, Balentin Berriotxoarena eta abar- berak jarri zituan paperean leenengo aldiz. Baita andikan makiña batek ikasi ere.

Xenpelar'en Bertsuak deritzaion liburuak iru langille izan zituan, beraz: Makazaga, bertso-biltzaillea; Jauregi, itzaurrea erantsi ziona; eta Dadie, doiñuak solfeoz papereratu zituana.

Bigarren liburua onako au da: *Xenpelar Bertsolaria / Bizitza eta bertsoak / Egillea: Jauregi'tar Luis - Jautarkol / Kuliska Sorta / Itxaropena Argitaldaria / Zarautz'en / 1958.*

Jauregik, bere liburua leenengo orrialdeetan, argibide-iturriak zein izan zituan esaten du. Onela dio: "Nere idaz-lantxo au burutzeko, eskuartean erabilli ditudan liburuak auexek izan dituzu". Eta ondoren liburu-zerrenda bat dakar.

Irugarren liburua, berriz, gerok prestatu genduan, *Xenpelar bertsolaria* izenburuarekin, eta 1969-an argitaratu, errenteriar bertsolari aundia il zaneke eungarren urte-muga betetzen zanean, alegia.

Gure liburu au nola egin genduan,

berriz, irakurleak ia orrialdero ikus dezake. Bertso-sail, gertaera, argibide eta esakizun bakoitzarentzat oar bana erantsi baigenion, nundik artua zan adierazteko.

Liburu ontan, Xenpelarren bertso ezezagun batzuk ematen ziran, eta aren bizitzaren argibide berririk ere bai. Baiña bere lanaren epailari zuzena danik oraindik ere ez da mundura sortu, eta gure orren kritika beste batek egitea obe izango da noski.

Bigarren argitaraldia izan zuan liburu orrek, 1981 urtean. Baiña leen bezelaxe agertu zan, zuzenketarik egin gabe eta ezer berririk erantsi gabe.

Xenpelarri buruzko bostgarren liburua, berriz, onako auxe da. Baiña zer dan eta nola egiña dan itzaurrean adierazi degu.

Askotan esan izan degu bertso biltzea berandutxo asi dala Euskal-Errian. Inoiz baiño nabarmenago ikusten da ori Xenpelarrekin. Bertsolari onen bertso, gertaera eta argibide jakingarri asko eta asko betiko galduak

izango dira, orain irurogei edo larogei urte bizi ziran aiton-amona bertsozaleei inor galdezka joan etzitzaielako.

An zan, adibidez, Senperelarren, gure bertsolariaren anai Juan Jose; baita alaba Maria Luisa eta illobak ere; eta Erreterian bertan, berriz, beste illoba bat, Joxepa Antoni, 1943 urtean il zana.

Inor ere joan ote zan oiengana galdezka? Bat bakarrik inguratu zan, guk dakigularik, Joxepa Antonirengana. Baiña bisita ori, gero esango degunez, etzan inola ere gure mesedetarako gertatu, Xenpelarren paperak galtzeko bidea izan baitzan.

Dudarik ez da Xenpelarren liburu au askoz ederragoa eta aberatsagoa aterako zala, orain baiño leenago, esaten degun garaian alegia, egin izan baltz.

Ala ere, naiko liburu bikaiña gertatu da. Ortik pentsa genezake zer-nolako bertsolaria izan zan ura, eun urte pasatuxeak igaro eta gero ere gure artean olako itzala daukana.

XENPELARREN PAPERAK

Errenteriko Florentina Perez Salaberriak eta Monika Galarragak onela esan zidaten, argibide billa aiengana joan nintzanean:

- Xenpelarren illoba Joxepa Antoniri bein baiño geiagotan entzun genion osabaren paperak urte askotan gorde izan zirala bere etxean. Baiña egun batez Ebaristo Bozas-Urrutia zanak etxera etorri eta eskatu zizkiola; bai eraman ere, atzera bueltatzekotan noski; baiña gero Arjentinara joan zala, eta etzuala paperik bat ere bueltatu. Orrela galdu zirala Xenpelarren paperak.

Ebaristo Bozas-Urrutia jauna periodista zan, eta liburu bat ere idatzi zuan *Andanzas y mudanzas de mi pueblo* izenarekin, 1921 urtean argitaratu zana. Xenpelarren illobari egin zion bisitaz ere itzegiten du atal batean. Onela esaten du:

“Tengo a la vista una multitud de Bertso berriak, Sempelarek jarriak, en los que se hace alusión a todos los grandes problemas morales que se agitan en el seno de la Humanidad”.

Eta aurreraxeago:

“Después hablamos de Sempelar, cuyos versos me entrega para copiarlos. Simón -Simón Echeverría- carga con ellos”.

Egi-egia da, beraz, Xenpelarrek paperik utzi zuala; eta ez bat edo beste, mordo aundi bat baizik: *una multitud...* Eta paper oiek illobaren etxetik atera zitua Bozas-Urrutia jauna izan zan, berak garbiro aitortzen duanez.

Ori jakiñik, Madrident bizi zan eta euskaltzale prestua zan Ebaristo Bozas-Urrutiraren seme Rodolfori idatzi genion. Onek euskerazko esku-titz luze baten bitartez erantzun zigun. Ona emen zer dion, pixka bat laburtuta bada ere:

“Madrid'en 1968'ko Epaillaren 28'an...”

Zure karta eta zure galderak, erdi azturik nituen, obeto esan, gogoratu ere nai ez nituen gartzaroko gertaerak burura ekarri dizkidate. Esan nezake, gezurrik gabe, nere gurasoen eriotzaz kanpo, gertaera oietxek izan ditudala bizitza guziko penagarrienak...

Ez nuke nai zu nekatzerik; aski izango nuke zure eskaerari erantzun labur bat eman, gaiñezko xeetasunetan sartu gabe; baiña gauza orretzaz ol-dotzen ain ustekabez ipiñi nauzun ezkerero, luzatu-

ko dut apur bat, zure barkamena aurrenez eskatzen dizudala...

1938'ko Ilbeltzean, Buenos Aires utzi eta España'ra abiatu nintzan, Republika-alderdirako soldado, boluntario, izateko... Nere ama ere -argentina zan bera- etorria zan ni baiño illabete batzuek lehenago, arjentin-erriak espainiar gobernuari eskeñitako anbulantzi bat ekartzea bere gain arturik... Nere biderako gauzak, Espainiara ekarri nai nituanak alegia, prestatzen asi nintzan. Auta egin bear, batez ere nere liburu eta papere-tarik... Zer ekarri? Dudarik ez nuen izan: euskal liburuak batetik musika-eta bestetik -nere ogibideari zegozkionak-; eta gaiñera, nere aita zanari autoreak dedikatutako liburuetarik geienak. Bazan antxe gauza baliosik! Eta, zer esanik ez, beraren paperak, eskutitzak, liburu-gaiak eta abar... Orain egia ezin nezake nik argiro eta zalantzik gabe esan: bai ote zeuden paper aietan Xenpelarren bertso-paperak ere? Oso bertso-zalea nuen aita, eta baietz uste izateko da, baiña... nik beintzat aldi artan ez nekien euskeraz -ikasten asi berri-berria nintzan orduantxe-, eta ezin gauza aiek bear bezela ezagutu. Ori bai: zuri eman dizuten arako albiste ura, bertsoak Ameriketara eraman zituela alegia, egiazkoa baldin bada, orduan esan nezake antxen zeudela aiek, seguru asko.

Andre Alabearrak -andrea ote?- nai izan zuen, nere kalterako nunbait, nik artutako ontzian bertan nere lagun zar bat ere etortzea. Gipuzkoarra zan bera, eta aren izena... (1). Gizon prestu bikaiña, baiña kemenik gabea, gazterik txori-buru gisa ibillia... Bear zan egunean biok abiatu giñan Buenos Aires'tik Rosario'ra, eta *Londonmier* itxas-ontzi beljikarrera igo giñan.

Ontziratu orduko, bat ere gustatu etzitzaidan gauza bat ikusi nuen: Republikako *Brigada Internacional* etara zijoan giza-multzo bat; geienak, ogeitamar bat, Europa erdiko gizonak -hungariar, rusoar, yugoslabitarrak, ukrainiar- ziran; dozenatxo bat, espainiak, zar eta gazte, Argentina'n pote egiñak zeudelako. Ezagutzen nuen nik multzoaren buru ageri zana; espainiak bat, begi gaiztoko gizona. Ura ikusita esan nion nere lagunari (2) Jainkoaren izenean itzik ez esateko Gipuzkoa'ra (3) zijoala, obe zuen eta. Bera konforme, eta ni lasai. Egun gutxi igaro ondoren, ordea, talde-buru arek bakarretara deituta esan zidan: "Bai al dakik,

lagun, *fascista peligroso* batekin biajatzen aizela?". Parre-algarari eman nion. Bera ordea berran ari zan, nere lagunak berak esanda baitzekien Gipuzkoa'ra zijoala. Egia zala bai, erantzun nion, baiña ez fazista zalako, baizik ere gaixo zegoelako eta azken urteak gurasoen etxean pasa nai zituelako; gu bezin republikarra zala, eta lasai egoteko, ni aren berme ataritzen nintzan eta. Etsi zuen gizon ark... itxuraz beintzat.

Noski, bereak eta asto beltzarenak esan niozkan *nere lagunari*. Berandu, ondikotz! Arrezkero okertu ziran gauzak. "Itxuraz beintzat" esan dut lasaitu zirala gizon aiek; baiña geroxeago, ni ere etsaitzat artzen asi ziran. Prantzesez mintzatzen nakielako ta beste gabe, kontu politikak asmatu zituzten: ontziko telegrafistaren lankidea nintzala, eta au alemanen salatari izana zala. Egia esan, bildur ziran, gure bildur, ustez-eta portugaltar Cabo Verde ugarteetara iritxita bertako agintari-ri salduko genituela. Gure mailetak miatzen zituzten gu goian lo geundenetan, eta edozeri irizten zioten susmogarri. Eta gu itxasora botatzea erabaki zuten; au ontzia kai-barruraño jo ezkerro egingo zuten; *rada*'n geratzen bazan, berriz, gu legorrera joan da portuges agintariari salatzeo arriskurik izango ez zutela-ta, pakean utziko giñuzten... Espainol-taldea bazan aguretxo bat, asko estimatzen ninduen; eta albiste oiek, izkututa bederik eta itz erdizka, eman zizkidan erne egon gindezen. Eta bai erne nengoela! Kubiartan paratutako alki luze batean egiten nuen lo, etxola bati kontra babestuta, anteojuak jarri ta oñetakoak jantzita, eskuan ganibeta aundi bat neukala, nere bizia garesti saltzeko eta edonor zulatzeko prest. Nere bizia eta nere lagunarena. Au, bitartean, odeciaten bizi zan; an gertatuaz bat ere konturatzten ez...

Baiña gau batean Cabo Verde'ra iritxi eta ez giñan kai-barruraño sartu, kanpoan geratu baizik. Bizia salbatu genduen ordukotz. Andik aurrera gizon aiekin laguntasun onean -azalekoa noski- ibilli giñan; aiekin kantatzen genuen, aiekin jolasten, txantxetako burruketan aritzen eta abar. Eta onela bururatu zan bidaje ura, Antwerpe'n. Emen, kaiean bertan, gure orogarriak eukitzeko aitzakiz, argazki batzuk atera zizkigun aietako batek, arpegi ona beti jartzen zigun asturiar batek. Guk ez genduan susmo txarrik egin; ni nin-

tzan, iñor bazan, susmotan sartu bearrekoa, baiña uste oneko gaztea izanik, ikusiak ikusita ere, ez nuen ezer txarrik usaindu. Bestalde, arako aguretxo ark erdia baizik ez zidan esan; geroago, Barcelona'n, osatu zuen bere kontaera. Bizkitartean nere trasteak -iru kaja eta maletak-gaiñekoen trasteekin biali genituen Paris'a gure tren berean; ez ordea nere lagunarenak, onek bestelako elburua zuen eta. Paris'ko elburu-etxea, *Partido Comunista*'rena zuten boluntario aiek, eta arañjo joan ziran gauza guziak. Jasotzera nin-joanean, gaizki artu niñuten ango agintari batzuek, eta ontzian talde-buruak esandako astakeriak ber-berak berriz ere esan zizkidaten. Paperak erakutsi nituen nik, nere jokabide jatorria ikus zezaten; bat edo beste zurrutu ahal izan nuen, ez ordea aien nagusia. Zakarrondo alena! Geroago jakin nuenez, Paris'ko kaleetan zear jarraiki zitzazkigun, pausoz-pauso, ezagutzen ez ginduzten baiña gure argazkiak ikusiak zituzten zelatari batzuk. Arako aguretxo adiskide ark esan zidan au. Ni dirurik gabe nenbillen; ez neukan, ezta nere trasteak etxe artatik jaso ta beste norabait eramateko ere. Gobernu republikanoak lagundu zidan orduan. Bidezkoa zan ori, bestalde, ain urrutitik eta neronen kabuz aren alde gudukatzeko nentorren eta; baiñan ez diruz lagundu, ostatuko gastuak ordainduaz baizik, eta gero Barcelona'ra-ko txartela pagatuaz. Maletak eta nere gauza guziak Paris'ko komunisten eskuetan utzi bearrean ikusi nintzan. Lasai xamar joan nintzan ala guttiz, Españi'tik eskuratu ahal izango nituelako itxaropena galdurik ez nualako. Baiñan España'n sartuz geroz... jakiña, gerrako zalapartak, ezin ibilliak, dirurik-eza eta gaiñontzeko milla istillu. Ezin, beraz, nere puskak eskuratu, eta azkenik betirako galdu nituen dan-danak.

Eta orain nik egiten dut galdera bat: ba ote zeuden galdutako paper aien artean Xenpelarren bertsoak ere? Lerro abek egin ondoren, irakurraldi berri bat eman diot nere aitaren liburuari erriko bertsolariez idazten duen orri-aldeetan... Bertako XXII kapituluaren kontatzen digu idazleak Joxepa Anthoni Aranbarri eta Petriarena'ri egindako bixita, Simon Etxeberria bere lagunarekin...

Bixita ori 1921 urtean gertatu zan. Ez ote zikion bertso oiek atzera eman nere aitak Joxepa

Anthoniri, kopiatuta gero? Arritzekoa litzake, li-burua agertu ondoren, nere aitak beste sei urte aundi egin bait-zituen Donostia'n, eta maiz asko-an joaten zan Erretereri'ra. Zirt edo zart izan dedin, bertsook galdu ziran era bat".

Oneraiño Bozas-Urrutia'ren seme-ak idatzi ziguna. Egia esan, berri oiek etzidaten barrena poztu. Alde batetik, arrezkeroztik igarotako urteak; eta, bestetik, askoz okerragoa dana, 1939 urteko gerra, alemanak Frantzian sartzea eta abar. Alemanak etzuten, noski, Parisko komunista-etxe ori pakean utziko... Atarrantu onik ez, beraz, Bozas-Urrutia'ren gauzak etxe artan gure zai egoteko. Ala ere, aitatutako liburu ortan "*multitud de Berso Berriac Senpelarrec jarriac*" esaten baita, alegin guziak egin arte etsi bear etzala pentsatu nuan. Orregatik, Bozas-Urrutiaren semeari berriro idatzi nion, txeetasun geiago eskatuz. Onela erantzun zidan:

"Madrillen 1969-VI-8:...

Nere aita zanaren paperak billatzeagatik, pau-suak emateko gertu ikusten zaitut... Esan bear di-zut nere amak ere, bere aldetik, alegiñak egin zituela, bere garaiean, ots, 1940'gn. urtean; dena alperrik. Paris'era joan zan; ezin zuen deus ere arkitu. Egia esan, egun txarrak ziran aiek; alemanak Paris'en gaiñean zcuden eta; gaixoak korrika irten bear izan zuen andik; biaramonean, doixtar-rrak bertan ziran. Ulertzeko da, beraz, momentu aietan atarrantu gutxi atera bazuen. Dana dala-koan, *Partido Comunista*'ren egon-lekua *Place des Mathurins-Moreau*'n zegoen, oker ezpanago. Eztakit orain non ote dagoen. 31 urte! Askotxo da, baiñan... nork daki!

... Iru kajoitxo ziran, ez aundi, ez txiki; 50 zm., or nunbait, alde guzietatik"

Eskutitz au arturik, Paris'en bizi dan euskaldun bati idatzi nion, arazo guzia adieraziz eta aalegiñean saiatzeko eskatuz. Ona emen lagun orren erantzuna, Baiona'tik, 1969-IX-10-ean:

"... quise hacer las necesarias investigaciones para saber si en el número 8 de la Avenida Mathurin Moreau, Paris XXe, podría hallarse todavía un cajón conteniendo documentos propiedad de don Evaristo Bozas-Urrutia, relacionados con Xenpelar.

Posteriormente he indagado por medio de amigos residentes en París y que tienen acceso a los locales del número 8 de la citada Avenida -ocupados en la actualidad por algunas secciones sindicales de la C.G.T. y otras entidades similares-, y me han informado que allí no queda ningún cajón ni maleta que date de 1939. Lo que no es nada de extrañar, teniendo en cuenta las diversas manos por las que ese local ha pasado desde la anteguerra.

Etzuten, beraz, gure egiñaalak suerte onik izan. Arritzekoa ere ez da. Ala ere eskerrak eman bearrean gera, pauso oietan lagundu ziguten guziei.

Bateonbatek, ni kontsolatu nairik-edo, agian alemanak Parisko komunisten gauzak artu eta Alemaniara eramango zituztela esan zidan. Ez genduke besterik nai! Ea, bada, egunen batean, norbaitek Xenpelarren paperak gutxien uste dan tokian topatzen dituan! Euskal-Erriko kanpai guziak bueltaka jartzeko eguna litzake ura! Baiña ez det uste egun ori iritxiko danik.

Or goien esaten dan guzia irakurri ondoren, Madrid'tik, 1969-ko urriaren 16-an egindako eskutitz batean, onela

esaten zidan Rodolfo Bozas-Urrutia jaunäk:

"...zer egingo zaio, alegiñak egin ondoren? Etsi egin bear... Bateonbat orrek eman dizun kontsolamendua onartu eta itxoegin, ea alako batean Xenpelarren paperak gutxien uste dugun lekuan agertzen diran, naiz Germania'n dala, naiz... Errusia'n. Neretzako beintzat, nolabaiteko kontsolabide bat asmatu dut paper oieri buruz; ez, ondikotz, gaiñerako gauzeri buruz! Ara: Donostia'tik Madrillera lenbizi, Madrilletik Argentina'ra gero, joaterakoan, aitik bere liburu eta paperetarik mordoska bat ederra bertan bera utzi zituen, bear zituenak bakarrik beretzat gordez. Lan du siñistek -neretzat beintzat ezta siñisgarri- bere ez zituenak berekin eramatea; batez ere paper oien jabeak urbil-urbil zituларik. Uste izatera iritxi naiz, ba, arako bertso-paper aiek ez zituela Ameriketaratu. Zer bilakatu ziran, orduan? Baliteke paperok guk uste baiño bertago egon ditezten, Erretereria'n bertan edo. Ondo daki zu erri-jendeak ez dirala oso ajolatsu izaten paperekin. Interesgarri litzake jakitea, zer egin zan Simon Etxeberria'ren sendia. Balitekeana da, nere aitik Erretereri'ra joateko betarik izan ez arren, jaun beroxeri, edo besteren bati, bertsoak ematea, jabeari itzultzekotan. Hipotesi soilla da au, besterik ezean ar genezakeana".

Bozas-Urrutia'ren semeak emen diona egia izan ditek. Agian Erretererian dago Parisen eta abar billatzen ibili gerana.

Simon Etxeberria zanarenean ote zeuden, bear diran galderak egin dizkiegu beraren seme-alabei. Ez dakite ezertxo ere, eta aita zanaren paperetan ez omen dago olakorik ezer.

Etsi degu, beraz, Xenpelarren paperak billatzeaz. Aalegiñak egin ditugu, baiña alperrik. Besteren batek suerte oberik izango aal du!

1. Emen ez du eskutitzak *gipuzkoarra* esaten, erriaren izena baizik; eta ondoren izen-deiturak dakarzki. Baiña aren familikoak bizi dira oraindik, eta ez derizkiogu nor izan zan salatzea komeni danik.

2. Eskutitzak ez du emen *laguna* esaten, beraren izena baizik.

3. Emen ere ez da Gipuzkoa aitutzen, erriaren izena baizik, Aurrerantzean ere aldaketa au bera egingo degu.

AOTIK AORA

ZENBAIT BERTSO ETA ATERALDI

Or goien esan degun bezela, Egurrolako leengo zaarrak esaten zutenez, Xenpelar, bertan zalarik, ote ainbeste bertso botea omen zan etxe ondoko larrean.

Ote-sastrakak beste entzulerik etzuan izan beraz, bertsoan asi zanean, urte asko baiño leen Euskal-Erri guziko belarriak erne para bear zituan bertsolariak.

Dana dala, ondo gazterik asi zan, beraz, bertsoan.

Atal ontan, Xenpelarrek aotik aora plazetan, sagardotegian, lagunartean eta abar bota zituan bertsoak ipiñi ditugu. Paperetan jarritakoak gerorako utzi dira.

Aotik aorakoetatik ez da Xenpelarren bertso asko gorde izan; ezta ere gutxi, Xenpelar orain eun urte baiño geiago il zala kontuan artzen badegu.

Baiña, asko edo gutxi, jaso aal izan ditugunak emen ditu irakurleak.

* * *

Bein batez, amaika urteko mutil koskorra zalarik, larrean ganadu-zai omen zegoan Xenpelar.

Bi gizaseme andik zijoazen, eta alkarri esan zioten:

- Aizak: Xenpelarreko bertsolaria au izan bear dik! Au, bertsoan aritzen dana izan bear dik!

- Au al dek?

- Bai! Kaso egin bear zioat!

Ta aren parera eldu ziranean, ola esan zion:

- Kaixo, mutikoa! Zer zabiltza?

- Emen!

- Xenpelarrekoa al zera zu?

- Bai!

- Zu al zera bertsoan aritzen dana?

- Bertsoan edo...

Umea artean eta, jakiña, lotsatu. Orduan gizaseme arek onela esan zion:

- Nik jarriko dizut puntua! Ea zuk gaiñerakoa osatzen dezun!

Onela jarri zion:

Goizian jaiki eta
lenbiziko lana...

Eta Xenpelarrek:

Badakit siñatzia
prezisua dana;
ori ezpadakizu
atoz neregana,
larri ibilliko da
deskuidatzen dana.

Orrela jaso genion Oiartzungo
Larraburu baserriko etxeko-andreari,
Joxepa Arbelaitzi.

Bertso onek jabe asko ditu.
Batzuek Udarregirena dala diote, beste
batzuek Pello Errotarena, eta abar(1).
Orain, berriz, Xenpelarrena dala. Guk
bertsoa jaso bezelaxe eman bear diogu
irakurleari. Ori da gure eginkizuna.
Eta irakurleak derizkiona pentsa deza-
la...

* * *

Onako gertaera eta bertso aukerak, be-
rriz, Azkoitin jaio eta Zarautzen bizi
izan zan Patxi Larrañaga bertsolaria
zanari jaso nizkion, 1970 urte ingu-
ruan:

“Orain ogei ta emezortzi edo eme-
retzi urte Zarautza etorri nintzanean,
emen bazan *Xalbide Argiña* esaten
ziotena. Arek kontatu zidan neri, eta
kantatu ere bai seiná bertso bakoitza-
rena. Nik ez nuan buru txarra, baiña
gaur ez dakizkit bi besterik.

Xenpelar zana Erreteriko Aiunta-
mentuak bere alde artu omen zuan. Eta

Ernaniko beste bertsolari bat omen
zan. Larogei urte omen zituan beste
orrek. Izenik ez dakit. Arek esan zi-
dan, baiña ez daukat gogoan. Xepel-
larrek amalau urte, eta zein bertsolari
obeagoa. Ortik pentsatu Xenpelar zer
izango zan.

Joan omen zan, itxura dan bezela,
Ernanira, zaarraren errira; eta zaar ori
plazara etorri omen zan asto gaiñean.

Jarri omen ziran eta, itxura danez,
gazteak esan omen zion lotsagabe-lo-
tsagabe zaarrari:

- Saka!

Eta zaar orrek kantatu omen zion:

Bein bajatu nintzan da
ezin gora iyo,
nere buruarekin
enaiz oso piyo.
Errenteitik etorrita
zenbat desafiyo!
Nere kontrariyuak
sakatzeko diyo.

Xenpelarren erantzuna:

Zu ziñan sakian da
ni naiz errestuan,
jende asko bildu da
gure pretestuan,
batzuek oñez eta
bestiak astuan;
probatzeko ez gaude
paraje gaiztuan.

Leenago esan dedan bezela, seiná
bertso kantatu zuten garaian erabaki
omen zuten etzegoala apartatzerik zein

obea zan; eta aiuntamentu bakoitzari bere ontzakoak entregatu eta jaialdi bat alkarrekin egin omen zuten”.

* * *

“Xenpelar etxeko leioan zegolarik, agertu zitzaien erbiaz jabetu naian gogor ziardubela, zortzi-bederatzi eiztari begiztu zituan bere zakurrekin.

Osasun onarekin alde egiñ ziyen erbiyak, eta etxerakoan Xenpelar etxe-atariyan arkiturik, parrez batek onela diyo:

- Poztuko ninduan guri gertatua ikustea, oleskietan jartzeko.

Erantzun orde, pozkiro entzun ziztuzten oleski abek abestu zizkien:

Sano eraman diyo (*sic*)
bere alderdiyak,
paluak ziruriten
aren belarriyak,
beatzi-amar gizon
eizaren guardiyak,
arma kalatu eta
korruan jarriyak,
ala ere iges egin
zioten erbiyak”. (2)

* * *

Xenpelarrek onela bota omen zion bertsoa *Astigarraga* esaten zioten gizon bati, au mozkor eginda zetorren batean:

Astigarraga, bai al dakizu
nola daukazun korputza?
Ankak zabaltzen asiya zera,
buruak ere balantza;
zere denboran etzera izandu
kontrabandista kamutza,
ez ikaratu, guardira nator,
egingo dizut laguntza.

Baiña Astigarraga ori bertsoan zekiana zan, eta onela erantzun omen zion:

Okasiyorik gabe natorren
pakian umil-umillik,
kuadrilla ortan ez det mendratu
gizonik eta mutillik;
jaun orrek ez du danik usteko
bera dan beziñ abillik,
baldin geiago ez badakizu
egon ziñezke ixillik.(3)

* * *

Onako bertso au Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bertso-bildumatik degu. Lasarteko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabarrek bialdu zion, aurretik adierazpen au erantsita:

“Xenpelar”i auzoko astoa etortzen bere baratzara, ta astoaren jabeak ez kasorik egiten; berak atakarik ezin, ba, jarri, ta astoari onela abestu zion:

Astu orrek bazeukak
milla bat malezi,
baratzara birerik
ezin galerazi;

jabeak ikusi ta
ase arte utzi,
illar-muturrak janez
eztek gaizki bizi!”

* * *

Garai artan, mediku gizatxarren bat
bizi omen zan Erreterin; oso zakarra,
ordea.

Bein batez, lagun bat billatu zuan
Xenpelarrek kalean:

- Nora oa?

Lagun arek esan zion andrea gaizki
zeukala, eta medikuagana ikaraz zijoala.

Eta Xenpelarrek esan zion:

- Goazemak! Ez bildurtu! Nik esan-
go zioat eta ez aute joko!

Joan ziran, atea aldabaz jo zuten eta
Xenpelar plazaren erdira atera zan.

Medikuak galdetu zuan:

- Zein da?

Eta Xenpelarrek beetik bertso batez
erantzun zion, esanez lagun bat la-
guntzera etorria zala, lagun ori ikarak
eldu zala, andrea miñez jarri zitziola
eta jetxi bearko zuala.

Eta medikuak:

- Egon adi pixka bat, Prantxisku!
Baniak! Baniak!

Eta Xenpelarrek lagunari:

- Orra: ez da, ba, asarretu.(4)

* * *

Ebaristo Bozas-Urrutia jaunak, be-
re *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*,
Rentería, 1921 liburuan, onela dio:

“A José Ramón Loinaz, que le lla-
maban Sosua (*tordo*) por su padre,
quiso Sempelar aludir a su condición
plumífera, en ocasión de un partido de
pelota que aquel jugó en el prado de
Añabitarte. Y le dedicó estos versos:

Jose Ramonek badu
guante-manijua,
sotamano bueltatzen
zuben azpikua;
pelota arrapatzeko
ibilli fijua,
egaztiya bezela
aidian dijua”.(5)

* * *

“Errenderiko aundizkietakoa zan
Sorondo jaunak, Afrikako gudara
errenderiar mutil batzuek zijoaztela-ta,
bertsotxo bat botatzeko esan zion(6).
Ara bere erantzuna:

Lengo legeak galtzera,
orain berriak jartzera
asi gerade zartzera.
Aundiak ere jun bear dute
aurretik gu giatzera...
Eztira etorko atzera
sekulan beren etxera
maizter-errentak artzera.

Sorondo jaunari bertso auek min
eman ziotela ez daukat esan bearrik.
Baña, beazunaren mingotza kentzeko

ezi-tantoak ere ixurtxen iaioa zan gu-re Xenpelar bertsolari biurria. Alaxe egin zuan oraingoan. Bereala beste bertso atsegingarrigo bat abestu zion, eta lengo eztenkadak egin zion zauria orrela sendatu zion".(7)

* * *

Xenpelar, leen esan degunez, 1835-ean jaioa zan. Pello Errota, berriz, 1840-an. Bost urteko aldea, beraz. Orregatik, adiñez kide samarrak izanik, ez da arritzekoa biak alkarrekin kantu-lanean jardun izana.

Ala, Zizurkilko Teodoro Mujika adiskideak gertaera au bialdu digu orri batean idatzita. Onela dio itzez itz:

"Xenpelar eta Pello Errota egun batez Erreterin bertsoan aritu omen ziran, eta Xenpelarrek naikoa zirikatu omen zuen Pello; naiko berotzeraiño ere bai.

Ondorengo egun batez, Billabona aldera etorri omen zan Xenpelar; eta, Pelloekin topo egin orduko, asi omen ziran bertsoan.

Pello Errotak gogoan zeukan noski Xenpelarrek Erreterin eman zizkan zirikadak, eta laster asi omen zitzaion ordaiñak ematen.

Onela esan omen zion Xenpelarrek:
- Pello, aski diagu. Ez diagu beti ari bear errekerin.

Eta Pello Errotak:

- I aritu intzan ba neri Erreterin!"

* * *

Bertso pare au, Erreteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanak idatzitako orri pare batean arkitu degu.

Baiña badira Pello Errotarenak dirala esaten dutenak ere. (Ikus: *Auspoa*, 52-53, 58 eta 78 orrialdeetan.)

Pello Zabaletak onela idatzi zituan bertso auk:

Koloriaren conforme
saboria badu,
oso tontua ez danak
ezagutuko du;
bataiatu ezkeru
zerua seguru,
munduan pekaturik
egiten ezpadu.

Emen zeñek eraten du
ardo erejia?
Ori esateko're
badek korajia;
Nafarrutik egiña
dauka birajia,
ez du ezagututzen
lengo parajia.(8)

* * *

Urrengo kontaera eta bertso auk Erreteriko Monika Galarraga, Juan Zabaleta bertsolaria zanaren alargunaren aotik jaso ditugu.

"Esnarritako *señora* Oiartzunen bi-zi zan. Egun bakoitzeko opil bana eramaten zioten Erreteritik. Fabrika Aundian lan egiten zuan neskatxa bat enkargatzen zan ortaz.

Egun batez, opilla pardeletik paltatu zitzaien neskatxa orri. Orduan ala gelditu zan kontu ori; baiña, andik denbora puska batera, lapurra fabrikako beste neskatxa langille bat zala azaldu zan.

Garai artan ogi gutxi jaten zan; taloa eta artoa bai galanki; eta lapurretarako tentazioa ortikan sortu.

Ala, opilla ostutako neskatxa ori, *maxorkak* eramatera joan zitzaion egun batez Xenpelarri. Au fabrika artako eulea baitzan, eta *maxorkak* euleak beren lanerako bear baitzitzuten.

Eta Xenpelarrek, bat-batean, neskatxa ori ikusi bezin laister, onako bertso au kantatu zion:

Esnarritan señora
makillakin or dun,
kartzelan pasa baiatun
iru edo lau egun;
desterratzeko ere
motibua badun:
opilla arrapatu ta
Santa Klaran jan dun.

Santa Klara Erreteriko kale bat da."

* * *

Bertso au Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman ere arkitu degu, batere aldaketarik gabe gaiñera. Baiña atzetik beste bertso au:

Neskatxa ederra da,
Jaunari graziyak;

etzaio iduritu
opilla gaziya;
koskorra jan diyo ta
ondatu guziya,
orrekin kunplitu du
bere kutiziya.

1. Auspoa 49-50, 56 orrialdean; eta Auspoa 56, 23 orrialdean.

2. Xenpelar'en Bertsuak, Makazaga, Erretereri, 1932 urte inguruan.

3. Jose Oyarbide, Ereñozu, Ernani.

4. Zoritxarrez, etzan Xenpelarren bertsoaz oroitzen gertaera onen berri eman ziguna: Erretereriko Florentina Perez Salaberria.

5. Bozas-Urrutia jaunak *Jose Ramon, zuber, aizpikua* eta *arrapaltzeko* idazten ditu.

Luis Jauregi apaiz jaunak ere badakarzki bertso eta gertaera auk bere Xenpelar Bertsolaria liburuan.

6. Afrikako guda ori 1859-1860 urteetan izan zan. Ordukoa degu, beraz, bertso au. Gerra artako bertsoekin Auspoa-ren 128-garren zenbakia argitaratu genduan, adierazpen eta argibide jakingarri asko emanez. Artean euskal fueroak zutik zeuden, eta emengo mutilik etzegoan ara joatera beartuta. Baiña Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioak alkar artu eta lau milla soldadu bialtzea erabaki zuten. Boluntarioekin etzan, ordea, taldea osatu, eta bestelakoak erantsi bear izan ziran. Joan ziranetan, jende apala eta beartsua geiago izango zan aberatsa baiño, eta orregatik esango du Xenpelarrek: "aundiak ere jun bear dute zurretik gu giatzera..."

7. Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958.

8. Leenengo bertsoa onela dator Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jaunaren bertso-bilduman. Bilboko Ziarsolok bialdua, onek Tolosako Salustiano Sarasolari ikasia:

Itxuraz konpormidan
saboria badu,

eruba eztanak
ezagutuko al du;
bataiatu ezkeru
zeruba seguru,
geroztik pekaturik
egiten ez badu.

bataiatu ezkeru
zerua seguru,
munduan pekaturik
egiten ez badu.

Saltzalleagatik:

Bertso-bilduma ortan bertan, 1935 urtean
Lizaso eta Aranguren'dar Andonik bialduta, lee-
nengo bertsoa eta beste bat daude, era onetan:

Pasaiko sagardotegian, sagardoari:

Kolorea bezela
saborea badu,
gizon tontoak ere
ezagutuko du;

Emakume oneri
bear zaio larga,
gaixo onek berekin
dauka naiko karga;
maiz ematen bazaio
olloaren salda,
zer dun badaki eta
sendatuko al da!

XENPELAR ETA OLLOKI ETA PATXI

Izenburu orrekin eta onako iru bertso auekin, Erreteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanaren iru orritxo ditut.

Bizi zalarik, ez nion Pellori beste argibiderik eskatu. Orregatik orain, bera il eta gero, bertsoak dauden bezela jarri besterik ezin egin dezaket.

- 1/ Kupel bat jarri dute atariyan txutik, gizon txikiyak aundi ematiगतिक; zer esanen faltikan ez dago gugatik, onoko txiki (y) onek astinduko gaitik.
- 2/ Xenpelar jauna onek probatu nai gaitu, itzak bere biriak ibilliko ditu; asko moduzko kontuak aditzen baditu, Olloki tzarrak tximak arrotuko ditu.

- 3/ Auxen da jendiaren bueltan dagon jira, batzuek kantari eta bestiak begira; Xenpelar asten bada kargatu ta tira, Ollokiñ txima arruak makurtuko dira.

Olloki *patilla* aundi batzuekin ibiltzen omen zan.(1)

* * *

Aita Migel Maria Zubiaga zanak beste era batera jaso zizkion bertso auetako bigarrena eta irugarrena Amezketako Garaiko-etxeko Jose Etxeberriari.

Xenpelarren osaba bertsolariari erri batetik otsegin omen zioten, urtero bezela etorri zedilla pestetara beste bertsolari batekin. Eta osabak onela esan zuan bere artean: “Illobarekin joango nauk!”.

Baita alaxe egin ere. Eta Olloki

bertsolariarekin bertsotan ari zirala,
onek au kantatu zuan:

Nik zer esaten dedan
guziok aditu,
arrazoiak bideak
ebakiko ditu;
asko mouzko errespuestak
aditzen baditu,
Olloki zarrak lumak
arrotuko ditu.

Eta amabi urteko Xenpelar gazteak
onela erantzun zion:

Plazara etorrita
auxen da egokira:
batzuek kantuan da
besteak begira;
nik ekiten badiot
kargatu ta tira,
Ollokin luma arruak
umilduko dira.

I. Jose Rekalde, Garro, Ugaldetxo, Oiartzun.

AMERIKANUARI XENPELARREK JARRIYAK

Bederatzi bertso auek Errenteriko *Bertsolariya* astekarian arkitu genituan, 37-garren zenbakian, 1932-V-29-an. Ez du or goien jarri degun izenburua beste adierazpenik ematen.

Paulo Yanzi bertsolariaren liburuan, *Auspoa*-ren 77-78-garrenean, 106-garren orrialdean, auetako bost bertso arkituko ditu irakurleak: 1,2,4,5 eta 7-garrena, beste emeretzirekin batera ogei eta lau bertsoko sailla osatuz.

An esaten danez, Paulo Yanzik leengo zaarretatik ikasiak iru edo lau bertso idatzi zituan, eta gaiñerakoak berak bere kasa moldatu.

Alkarrekin dauzkaten aldaketak, irakurleak berak ikus ditzazke.

Ona emen bertsoak *Bertsolariya*-n dauden bezela.

Doiñua Errenteriko Juan Zabaleta bertsolariaren kuaderno batetik artu degu.

A-ma - bi ur - te - ta - ko
o - te - ke - tan a - si, zarpa e - ta ne -
ki - a gu - txi i - ra - ba - zi;
a - be - ra - tsa i - za - ten



ez nu-ben i - ka - si, orain e-re ez
nau-zu in - di - a - no bi - zi.

1/ X.: Amar urteko nitzan
oteketan asi,
galanki nekatu ta
gutxi irabazi;
aberatsa izaten
enuben ikasi,
oraiñ e enaiz bada
indiano bizi.

2/ A.: Oteketan besterik
ezpanu izandu,
gaur enitzan egongo
anketatik maingu;
nere gazte denbora
nai det deklaratu:
beiak jatzi ta esnia
ura emanda saldu.

3/ X.: Gizona abilla da,
badu fantasiya,
txoruak engañatzen
ordukoz asiya;
esnia saltzen zuen
urakin nasiya,
karrokarekin etzan
erreko paziya.

4/ A.: Nere beiak esnia
sendo eta lori,
ura emanagatik
ez fiyatu ari;
Xenpelarri eman biaizkat
artatik pitxar bi,
ezurrak lasaitu ta
azi al baleri.

5/ X.: Len baldin badauzkagu
ezurrak estuak,
eztigu lasaituko
erari freskuak;
esnia eta ura
elkarri nastuak
enpatxua kentzeko
eztitu gaixtuak.

6/ A.: Bostak konbentuban ta
seiak Lekunberrin,
buelta oik denak einta're
sekulan bezin min;
saiatutzen naiz baño
alkantzatu ezin,
bost egun ontan ez det
pikorrikan egin.

7/ X.: Enfermedade ori
eztago neregán,
premiyan dagonari
bear dizkat eman;
*hoja de sen'*ak erosi,
aien urak eran,
ikusiko dezu nola
libratuko zeran.

8/ A.: Erdiyak ez dakite
medikuak ere,
olako erremeiorik
botikan bada're;
nere aldian gizon
jakintsua zaude,
enpatxua kentzeko
labatibik gabe.

9/ X.: Astua emango nizun
bizi izan bazen,
berdin zuregatikan
aixa juango zen;
enfermedadi ori
sendatzeko zuzen
erri (y) ontan alako
medikurik etzen.

Sail ontako irugarren bertsoa onela
ematen du Ebaristo Bozas-Urrutia jau-
nak, bere *Andanzas y mudanzas de mi
pueblo, Rentería, 1921* liburuan:

*“Otro de los hijos de Sosua, D. José Antonio
Loinaz... tenía fama de hombre marrullero, nego-
ciador a toda costa, en asuntos claros y turbios.
Dicen que de chico le venía la manía de comer-
ciar y que una vez en que sus padres le enviaron
a vender leche pura, Loinaz le echó unos jarros
de agua de un río... para sacar más suses en la
venta. Súpolo Sempelar y al punto le dedicó este
verso:*

Esnia saltzen zuben
urari nasiya,
etzuben karrokakin
erreko paziya,
mutill abilla zala
zeukan pantasiya,
txoruak engañatzen
orduko asiya”.

Bozas-Urrutia jaunak *carroraqui*
idazten du.

Luis Jauregi apaiz jaunak, bere
Xenpelar Bertsolaria liburuan, bertso
eta gertaera auek berak dakartzki.

PATXI BAKALLO ETA XENPELAR

Patxi Bakallo bertsolaria Errenterian jaioa zan, Ernanin bizi bazan ere. Xenpelar baiño iru urtez zaarragoa zan. Alkar ezagunak izango ziran, beraz, eta seguru asko alkarren lagunak ere bai.

Patxi Bakaloren bertsoak eta bizitzaren argibideak aurrerago eskeiñiko dizkiogu irakurleari. An esango degun bezela, larogei urtetik goragoko ernaniar baten aotik jaso genduanetz, beraren aitak ondo gogoan zuan nola ikusi zituan Xenpelar eta Patxi Bakallo bertso kantari Ernaniko plazan, kale nagusiko kantoian.

Beste aldi batez, Patxi Bakallo eta Xenpelar zeñek aldrebesago kantatu jardun omen ziran Astigarragako plazan, eta ordukoa omen da bertso-puska au:

Astigarragatik bera
Santiyago kale,
makillarekin jota
ni zutik gelditu,

lapikua jarriya
oliyorik ez ta...(1)

Baiña bertsolari auen bertsorik ezagunenak, alkarri kantatu edo jarri zizkiotenetan, Patxik Xenpelarri kartaz bialdu eta onek ordaiñetan moldatu zizkionak dira.

Bertso oiek desafioa dirala esan izan da bein baiño geiagotan. Baditeke noski ala izatea; baiña alkarrekin bertso kantari arratsalde goxo bat igarotzeko deia ere izan ditezke.

Astigarraga, Errenteri eta Oiartzungo kamioak biltzen diran bide-gurutzean dago Bentaberri. Izenez Bentaberri bada ere, garai bateko benta zaarra da. Gaur baserri soilla.

Ona emen bertsoak, Makazagak 1931 urte inguruan argitaratu zuan *Xenpelar'en bertsuak* liburuan dauden bezela.

Bakallok:

Iñork baldin badaki
Oiartzungo berri,
eskumiñak Ardotxi
eta Xenpelarri;
dibersiyo polit bat
nai genduke jarri:
birez erdi bezela
dago Benta-berri,
konbidatzen ditut nai
badute etorri.

Desafiyo ori da
Benta-Berrirako,
konformatzen badira
birez erdirako;
ezpazaie egiten
gogorik arako,
lagun bat artuko det
nere guardirako,
igual prestatuko naiz
Errenterirako.

Eta Xenpelarrek onela erantzun
zion:

Pazko bigarren goizian
artu nuben karta,
bestek firmatuba da,
ez da gure falta;
suma ederra dezu,
eztarriya alta,
abiyatuko nazu
itz abek esanta:
gizona gonbidatzia
dibersiyo bat'a.

Xenpelar probatzeko
egin dute masa,
gizon baten itzari
eman diyot traza;



Bentaberri.

ez Astigarratikan
onuntzago pasa,
bertara juango naiz,
egon zaitez lasa,
nai dezun ordurako
eska zazu plaza.


Bertso-saio ori egin zan ala ez, edo
zer egin zuten, ez dakigu.(3)

* * *

Doiñua, berriz, Erreteriko Juan
Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno
batetik artua degu:



I - fiork bal - din ba -
da - ki O - iar - tzun - go be -
rri, es - ku - mu - fiak Ar -
do - txi e - ta Xen - pe - la -
rri; li - ber - tsi - yo po -
li - pat nai gen - du - ke ja -
rri; bi - dez er - di be -



ze - la da - go Ben - ta - be -
rri: kon - bi - da - tu - tzen
di - tut nai ba - du - te e - to - rri.

1. Inazio eta Patxi Lazkano anaiak, Otxoki baserria, Altza.

2. bat'a: bat da.

3. *Xenpelar'en bertsuak*, Makazaga, Errenteria, 1931 urte inguruan.

Manuel de Lekuona: *Literatura oral euskérica*, Donostia, 1936. Onek dionez, Xenpelar artean Egurrola baserrian morroi zebillen. Aldaketak: 1/1: Iñork badakizute; 1/5: libertsio polit bat; 1/6: nai badute jarri; 1/9: gonbidatutzen ditut; 1/10: nai badute etorri; 2/9: berdin prestatuko naiz; 3/1: Pazku bigarren goizez; 3/8: itz oiek esan-ta; 3/9: gizona gonbitzia; 4/2: egin dute faza.

Manuel de Lekuona: *Literatura oral vasca*. Auñamendi, San Sebastián, 1964.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958. Aldaketak: 1/5: bidez erdi bezela; 1/6: dago Benta-berri; 1/7: dibertsio polit bat; 1/8: nai genduke jarri; 1/9: gonbidatutzen ditut; 1/10: nai badute etorri; 2/5: baiñan baldin gogorik; 2/6: ezpadute arako; 3/5: orain abiatzen naiz; 3/6: itz ori emanta; 3/7: memori ona dezu; 3/8: eztarria alta; 3/9: gizona serbitzea;

4/5: ez Astigarragatik; 4/7: bertara etorriko naiz.

Bertso aukerak guziz diferente jasotzen dituzten
Azkoitian, Izarraitz mendiko Arane baserriko aitona-
ren aitona:

Gu ere bagera ere
bi bertsolari:
Gazteluko Gorri ta
Pello Errotari;
bidez erdira bezela
dago Bentaberri,
jokua eitera ara
nai badute etorri,
goraintziak Ardotxi
eta Xenpelarri.

Xenpelarrek:

Oiek dute promesa
bertso bakoari,
Xenpelar menderatzeko
bota dute baza;
zuek zerbait esan arren
ni egon emen lasa,
nai dezun ordurako
eskatu zazu plaza,
antzen ikusiko du
zeñena dan baza.

Pelloc:

Jendiaren esanik
ez artu buruan,
gezurra pranko dabil
oraingo munduan;
iru seme ta aita guk
otsegin genduan,
testigu pranko ere
bazan inguruan,
etzaigu faltatuko
esan zan moduan.

Xenpelarrek:

Ori izango dezu
zuk biar dezuna,
etziok inportarik,
esan nai dezuna,
eta gañera egin
emen al dezuna;
aitu nai baldin baituzu
joan Oiartzuna,
berdin ez da faltako
zeñek erantzuna.

Bertso au, irakurleak aurrerago ikusiko du-
nez, Ardotzek Exkerrari egin zion desafioaren bi-
garrena da.

XENPELAR ETA ARDOTX BERTSOLARIA

Ardotx bertsolaria Oiartzungoa omen zan, Ardotxene baserrikoa. Aren bertso batzuk eta bizitzaren argibideak gero emango ditugu.

Baiña ona orain Xenpelarrek eta Ardotxek alkarri kantatu zizkioten bertso batzuk.

Errenteriko Luis Jauregi apaiz jaunak, *Xenpelar Bertsolaria* liburuan (Itxaropena, Zarautz, 1958), onela esaten du:

“Lezo’ko jaiak Gurutze Santu egunez izan oi dira. Antxe ziran, beste urteetan bezela, gure Xenpelar ta Ardotx bertsolari ospetsua, osaba ta illoba, erriko pestetarako alkate jaunak deituak. Beren bertso-saioa erri etxeko balkoitik egin bear zuten, oi dan bezela.

Baiña asteko ordua baiño len, enparantza osoa jendez josia zegon, eta erriko gizon edo kontzejalak larri zebiltzan jende tartean bertsolariak zuden tokiraño ezin iritxirik. Ori zala-ta, alkateak esan zion Xenpelarri neskatxen aurka edo kontra asteko bertso-tan. Xenpelarrek, zarragoari ta osabari zor zion itzalagatik, Ardotxi eskeñi

zion asiera. Onek erantzun zion, alkateak berari esan ziola bai, ta asteko be-
ra, agindua beteaz.

Ona emen, ain pozez jendeak entzun zuan bertso-jardunaren asierako lenengo iruak”.


Doiñua, Oiartzungo Inazio Pikabek kantatu, guk magnetofonoz jaso, eta Ernaniko Manuel Yaben eta Donostiako Ambrosio Zatarain jaunak solfeoz idatzia da.

Xen.: Orain asi biagu
asunto berriyan,
zer gertatutzen zaigun(1)
Lezoko erriyan;
neska gaztiak daude
emen alegriyan,
kantaren aitzakiyan
mutillen erdiyan.

Ard.: Emakume-kontuan
al zerade asi?
Gerenez konsidera(2)
dezagun lenbizi;
jendiari nai diot
emen adirazi,

ia zein joaten dan
neskatxen igesi.

Xen.: Ia, dama gaztiak,
ondo entzun arren:
ez utzi sartutzen
nai dan bezin barren;
asiko lirakenak
Xenpelar baño len,
bizar aundi batzuek
badirade emen.(3)



O - rain a - si bi -
a - gu a - sun - to be - rri - yan, zer
ger - ta - tu - tzen zai - gun Le -
zo - ko e - rri - yan; nes - ka gaz - ti - ak
dau - de e - men a - le - gri - yan kan -
taren aitza - ki - yan mu - ti - llen er - di - yan.

1. Makazagaren liburuan: gertatzen.

2. Makazagaren liburuan: Kontsideratu.

3. *Xenpelar'ren bertsuak*, Errenteriko Makazagak 1931 urte inguruan argitaratua.

Bertsolariya astekaria, Errenteria, 5'garren zenbakian, 1931-X-18.

Euskal Erriko Kanta Zarrak, Tomo 1.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958.

Tolosako Estanis Urruzolaren kuaderno batean, aldaketak: 2/1: Emakume kontutan; 2/3: geinaz ere kontsideratu; 2/4: gentzake lenbizi; 2/5: jendeari biayogu; 2/6: orain adierazi; 3/1: Ia, neska gaztiak; 3/3: ezpada sartzen utzi; 3/7: bizar luze batzuek.

"PANDERIYAKO ONEK..."

Oiartzungo Txiki-erdi, sagardotegi eta taberna izaten zan garai artan. Gaur egunean ere ala da. Oiartzundik Astigarragako bentetara goazela, esku-bitara kamio-bazterrean dago.

Egun batez, bederatzi bertsolari bildu ziran Txiki-erdin. Xenpelarrek eta


Larraburuk iru bertso auekin eman zioten asiera bertso-saioari.

Aurrerago zeatzago esango degunez, Larraburu oiartzuarra zan, Txiki-erditik geroxeago dagoan Larraburu baserrikoa.

Ona emen bertsoak:

Xen.: Panderiyako onek
memoriya erne,
Lexotik jartzen digu
zenbait umore;
txarrik ezin bota du
Ibarrek naita're,
nik oiekin ezin det
luzitu batere;
Xorrola da trebe,
baita Bordondo're,
Ardotx pare gabe,
Arotxa kantore,
Larraburu jartzen det
gobernadore.

Lar.: Zer esanik ez daukat,
jaunak, Xenpelarrez,
Larraburu nonbratzen
gobernadorez;



Txiki-erdi, Oiartzun.

aspaldiyan neguen
enpliorik gabez,
gizon polita zaude
aditzen dedanez;
tokatzen dan legez,
arrazoian bidez
bazaude aberets,
jarri zaitez juez;
orra libertadia
nere poderez.

Xen.: Larraburuk Xenpelar
graziyaz onratu,
errespuesta ordañez
diyot billatu:
nik gobernadore eta
- ark juez nonbratu,
okasiyorik gabe
gera konformatu;
orri gogoratu
ni nola adoratu,
ezta deskuidatu,
nai nau anparatu;
nik orren faboria
nola pagatu?(1)

1. *Xenpelar'en bertsuak*, Makazaga, Erretereri, 1931 urte inguruan.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral euskérica*, Donostia, 1936. Aldaketak: 1/9: Xorrola dotore; 2/1: Ez det esan bearrik; 2/2: ezer Xenpelar'ez; 2/3: Larraburu lonbratzen; 2/5: aspaldiyan or negon; 2/7: zu ere ala zaude; 2/10:

arrazoia-bidez; 3/4: diyot paratu; 3/13: orrenbeste fabore.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, San Sebastián, 1965.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958: aurreko biak bezelaxe.

"AMIGO BATEK..."

Iru Errege egun batez, illundu eta gero, Xenpelar Oiartzungo Ugaldetxo baillaran omen zan. Lagun bat etorri eta onela esan zion:

- Aizu: obe duzu gaur goiz etxera joan. Palaziyoko bertsoak zuk jarri dituzula-ta, or zai daukazkizu, ta gaizki ibili bearra zera bidean.

Palaziyo, Ugaldetxotik Erreenteri aldera goazela, ezkerretara zegoan base-
rri aundi bat zan. Aieka batean, Illu-
rrita errota; bestean, Palaziyo. Izenak
adierazten duanez, garai batean jaure-
gia izana noski.

Palaziyon billera egiten zan. Billera
orri bateonbatek bertsoak jarri zizkion.
Xenpelarrenak zirala zabaldu zan.
Orregatik, gau artan, Palaziyoko pare-
an lagun batzuk Xenpelarren zai zeu-
den, jotzeko.

Xenpelarrek onela esan zion lagu-
nari:

- Ez ditut nik bertso oiek jarri, eta
beti bezela joango naiz etxera.

Ala, betiko garaian abiatu zan; eta,
Palaziyora alderatzen zijoala, gauaren
illunean eta ixillean, mantso-mantso
bertso kantari asi zan, bera jotzeko
guardian zeudenak entzun zezaten. Bat
kantatu zuan; bigarrena ere bai; eta
irugarrena bukatzean atera zitzaizkion.
Onela esan zioten:

- Ik jarri ituen bertso oiek!

- Nik ez!

Bai eta ez asi ziran; baiña azkene-
an, nolabait ere, Xenpelarrek konben-
tzitu zituan berak etzituala bertso oiek
jarri.

Xenpelarrek kantatutako iru bertso-
ak onako auek dira.

Leendabiziko doiñua, Erreenteriko
Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kua-
derno batetik artua degu. Bigarrena,
aren anai Pellok kantatu, guk magne-
tofonoz jaso, eta Ernaniko Manuel
Yaben eta Donostiko Ambrosio
Zatarain jaunak paperera solfeoz pa-
sea.

Amigo batek or topatu nau
 Ubalditxoko parian,
 uste gabeko enkontra txarrik
 izan ez dezan birian;
 kulparik gabe nola nabillen
 pertsona askoren abian,
 ai ori pena eman dirate
 Iru Errege gabian!

Errenteriyen esan omen du
 larogei urteko atsuak:
 "Orroko orretzek para zituen
 Palaziyoko bertsuak".
 Gazte bat balitz emain niozkake
 belarrondoko batzuak,
 konfesakizun aundiyak ditu
 testimoniyo faltsuak.

Bertsolariya engañatzeko
 eskuan madamusela,(1)
 uste al dezu orrenbestekin
 engañatutzen naizela?
 Ume txikiyak engañatzeko
 nola egiña dan pastela,
 kulparik gabe salduzuten naute
 Kristo Judasek bezela.(2)

A - mi - go ba - tek or to -
 pa - tu nau U - gal - di - txo - ko pa - ri -
 an, us - te - ga - be - ko en - kon -
 tra txar - rik izan ez - te - din bi - di -

an; kul - pa - rik ga - be no - la
 na - bi - llen per - tso - na as - ko - ren
 a - bi - an | ai o - ri pe - na
 e - man di - da - te I - ru E - rre - ge



ga - bi - an.



A-mi-go ba - tek or to - patu nau



U-bal - ditxo - ko pa - ri - an,




us - te - ga - be - ko en - kon - tra txa - rrik



i - zan ez de - zan bi - ri - an;



kulpa - rik ga - be no - la na - bi -



llen per - so - na as - ko - ren a - bi -



an ai o - ri pe - na e - man di - da -



te I - ru E - rre - ge ga - bi - an.

* * *

Errenteriarrek diotenez, Oiartzun eta Errenteriko urte aietako artu-emanak etziran gaurkoak bezin gozo eta leunak.

Garai batean bildur ematen omen zuan Oiartzuna joateak. Inor kanpokorik ikusi eta arrika edo makilka erasozten omen zioten. Zer esanik ez, arrotz batek bertako neskatxa batekin tratatibidea asten bazuan.

Errenteriar batek onela esan digu:

- Oiartzuarrak afan aundia zuten arrika. San Esteban arrika illa baitzen, eta ura imitatzeko!

Oiartzuarrak diotenez, berriz, errenteriarrek burloso antzean portatzen omen ziran beti. Ergoia edo Oiartzungo edozein bazterretara etorri eta onela galdetzen zuten:

- Zer ordutan dira emen tranbeak?

Eta oiartzuarrak, tontakeri oiek sendatu nairik, ortarako sortu diran botikarrik onenak erabiltzen zituzten...

Dana dala, edozein ez da gauza Xenpelarrek egin zuana egiteko. Bidean bera jotzeko asmotan zai zituala jakin eta batere izutu ez; illunpetan lasai asko aiengana alderatu; eta aien asarrea bertso batzuekin baretu.

Gertaera onek ezin-da obeto adierazten digu Xenpelarrek zer-nolako barrena zeukan.

* * *

Txirrita bertsolariaren illoba zan eta berarekin Altzako Gaztelueneren amasei bat urtean bizi izan zan Jose Ramon Erauskin Lujanbio zanak sail



Palaziyo etxea zana, Oiartzun.

onen aditzera bazuan. Baiña bertso
geiago zirala esaten zuan.

Baten erdia onela omen zan:

Xenpelar ez da karga premiyan,
len daukan pixka basta dik;
kulparik gabe nere gañera
ez iñork bota pastarik.

Eta beste baten errematea:

Palaziyoko billerarentzat
nik ez det bertsorik para.

-
1. Madamusela: musua, muiña.
 2. Pello Zabaleta bertsolaria eta Monika Galarraga, Juan Zabaleta zanaren alarguna, Errenterin.

IPARRAGIRRE ETA XENPELAR

Iparragirrek eta Xenpelarrek alkarrekin topo egin eta onek ari bertsoak kantatu zizkiola edozein bertsozalek daki.

Pasadizoa bi modutan kontatua arkitu degu. Biak sustraian bat datoz; ez ordea txeetasunetan. Orregatik, biak jarriko ditugu emen.

Ara, leenengo, Manuel Lekuona apaiz jaunarena, Bergaran, 1930 urtean, *La poesía popular vasca* izenarekin eman zuan itzaldian esan zuana:

“La fama de Xenpelar había empezado a difundirse. Llegó hasta San Sebastián; mejor dicho, llegó hasta Donosti, hasta el viejo Donosti de Ixkiña y Bilintx.

Ixkiña y Bilintx eran también bertsolaris; y bertsolaris de los buenos. Pero les había salido un contrincante en aquel obrero tejedor de la vecina Rentería.

Había que ir a verle. Había que re-

tarle...

Y un domingo se fueron varios donostiarras a Rentería.

Fue en una sidrería... Canta Bilintx y canta Xenpelar...

La disputa es reñida. Pero el pueblo se inclina por Xenpelar. Sin duda el errenteriarra es mucho más occurrente.

Los donostiarras lo vieron y lo sintieron. Había que reconocer: Xenpelar era más bertsolari... Bertsolari... Bien. Pero no sabía cantar. Siempre canturreaba el mismo impreciso recitado. Ellos le traerían un contrincante que “cantaba” los versos con solfa. Iparraguirre. Iparraguirre era más que Xenpelar. Iparraguirre “cantaba con solfa”.

- ¿Iparraguirre dijiste? ¿Y solfa? ¿Qué tonada? ¿Esa de última hora que tanto gusta? Ahí va...

Y empezó Xenpelar:

Iparragirre abilla dela
askori diyot aditzen,
eskola ona eta musika
ori oiekin serbitzen.
Ni enazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komeriante moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika,
bertsolariya gañera,
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen bagera.
Atoz gure kalera,
baserritar legera,
musika oiek utzita;
Errenteriyen bizi naz eta
egin zaidazu bisita”.(1)

Doiñua Makazagaren *Xenpelar'en*
bertsuak deritzaion liburutik artu de-
gu.

I - pa - ra - gi - rre a - bi - lla
de - la as - ko - ri di - yot a - di -
tzen es - ko - la o - na e - ta mu -
si - ka o - ri oi - e - kin ser - bi -
tzen. Ni e - nazu i - biltzen kantuz di - ru - a

bil - tzen ko - me - ri - an - te mo - du -
an; de - bal - de pes - ta pre - pa - ra -
tzendet gogu - a de - dan or - du - an.

* * *

Luis Jauregi apaiz jaunak, berriz,
bere *Xenpelar bertsolaria* liburuan,
beste onela kontatzen du:

“Bein, Iparragirre ta Xenpelar
Donostia’ko sagardotegi batean arkitu
omen ziran, eta Iparragirre’k esan:

- Etorri nai al dek nerekin? Nik so-

ñua jo ta ik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk.

Xenpelar'ek ezetz. Orduan Iparragirre'k esan omen zion:

- Ik beti doñu zarrean kantatzen baidituk bertsoak. Ez izan gauza nere doñu berriaz bertsuak egiteko. Argatik ez dek nerekin etorri nai.

Xenpelar'en erantzuna auxe izan zan: doñu berri-berri onekin bertso eder auek abestu. Doñu onei geroztik *Iparragirre'ren doñua* esan oi zaio”.

* * *

Iparragirre 1857 edo 1858 urtean joan zan Ameriketara, eta ogei bat urte igaro arte etzan andik etorri.(2)

Izendatutako urte oietako batean edo leenago kantatuak bear ditugu, beraz, bertso auek. Eta Xenpelar 1835 urtean jaioa zan ezkerro, mutil gaztea

izango zan nolana ere, bertso auek kantatu zituanean.(3)

1. Manuel de Lecuona: *La poesía popular vasca, Vergara, Quinto Congreso de Estudios Vascos, 1930.*

Manuel de Lecuona: *Literatura oral euskérica.* Donostia, 1936.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca,* Itxaropena, Zarautz, 1958.

2. Ignacio Beláustegui e Iturbe: *El bardo euskaro Iparragirre,* Durango, 1920.

3. Ona emen bertso auen beste era batzuk, Lekuonak dakarrenarekin konparatuta:

Xenpelar'en bertsuak, Makazaga, 1930: 1/1: Iparragirre abilla dala; 1/5: ni enaiz ibiltzen; 1/8: debalde fiesta preparatzen det.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I: aurrekoa bezelaxe.

Oiartzungo Ergoingo Jose Manuel Lekuonaren esku-idatzi batean: 1/3: eskolak eta musika aundiyak; 1/6: kaliañu diru biltzen; 1/8: festa de balde ipintzen det nik; 2/1: Eskola eta musika aundiyak; 2/7: soñu oriyeñk utzita.

ALDREBESKERIAK

Justok eta Xenpelarrek alkarrekin egin zuten bertso-saioaren oroipena, ainbeste urte igaro eta gero ere ez da Euskal-Errian galdu.

Pasadizoaren berri ongien eman duana, Manuel Lekuona apaiz jauna izan da; baita bertsorik geien dakartziana ere. Orregatik, berari kopiatu diogu.

Lekuonak adierazpen eta bertso oiek Bergaran 1930 urtean eman zuan itzaldian eskeiñi zituan: *La poesía popular vasca, Quinto Congreso de estudios vascos, Vergara, 1930, Donostian, 1934.*

Ona emen beraren itzak:

“En pleno apogeo del famosísimo renteriano Xenpelar, había por aquella vecindad dos desgraciados vates, Justo y Lonjinos, famosos también ellos aunque por otro estilo. Su fama procedía de que los versos que cantaban eran de los aldrebesak, completamente desatinados, aun cuando ellos los cantaban con toda la seriedad de un bertsolari consciente, lo cual aumentaba enormemente la comicidad de las sesiones en que actuaban...”

¿Y qué más podía querer la gente para entretenerse? Se les aplaudía desafortadamente. Se les aplaudía siempre.

Y fue tanto lo que se les aplaudió, que los infelices llegaron a creerse superiores al mismísimo Xenpelar.

Y un buen día, Juxto se atrevió a lanzar un reto contra el errenteriarra.

Xenpelar aceptó...

No había más que hablar. En la plaza de Lezo. El día de la Cruz...

El intento del maestro era procurar una bonita diversión a los aficionados, improvisando también él en el mismo tono de su contrincante.

El público entendió inmediatamente el propósito de chanza que animaba al “ídolo”, y el día de la Cruz acudió un mundo a la plaza de Lezo.

El mayor aplauso se llevaría aquél que más desatinara. Esa fue la consigna. Y empezó la sesión.

Xenpelar hizo los posibles en su extraño cometido; pero aun los mayores disparates los decía tan egoki tan egoki, que los aplausos fueron principalmente para Juxto. Este desbarraba sin

querer: aquél aun queriendo no podía.

He aquí una muestra de lo que cantaron. Xenpelar comenzó de esta manera(1):

1/ Arano'n sortu dira
amalau nobiyo:
zortzi konpiteruak,
sei botikariyo.
Seiña kintalekuak
amar armariyo,
gizon batek *a pulso*
bizkarrian iyo...
Arrazoi onen kontra
nork egingo diyo?

A lo cual replicó Juxto:

2/ Kontzientzi ona dauka
Lezo'ko jendiak...
Askoz obia ezpalu
Gurutze Santuak;
askoz obia ezpalu
Gurutze Santuak,
urrikari dizkiyet
persona pobriak.

3/ X.: Itsasuan ari dira
arbolak aldatzen;
itsuak ikusi du
itxia erretzen;
ankamotzak badaki
bidia korritzen;
mutua diadarka
jendiari deitzen.

- 4/ J.: Eguarri-eguneko
joaiera trixtia:
lo geniken bapo egin
Jaunari graziyak.
Goizian jaiki eta
gosari-txikiya;
zortzitako denboran berriz
txokolate ona;
amarretako denboran berriz
gosari ez txarra...
Asi ziradenian
ala ta onela,
pakiak egitera
etorriyak gera.
- 5/ X.: Gizon bat ikusi det
irureun urtetan
mariñel dabillega
ontziko soketan;
zapat-ordez zituen
txalupak oñetan;
aren aitona berriz
itsasora urketan.
- 6/ J.: Itsasora jua eta
espantaturikan
etzagola kañoirik
ainbeste barkontzat.
Gizon aundiyak eta
zipilladoriak
itsasoko arraian
abertsariyuak.
- 7/ X.: Txantxangorri batenak
sei libra tripaki;
txingurri batek berriz
zazpi arto-jaki.
Baiak iriña iyo,
errotak iralki,
ganibetak erre ta
labiak ebaki...
oien madria nun dan
Xenpelar'ek daki.(2)

8/ J.: Neguan otzak eta
udan txingurriyak;
orbela ta zipotza
denak ziyatuak;
subia ta ziraba
dauzkat inguruan...
beldur-beldurak nago
sartzeko mixtua.

*A esta salida fue tal la expresión de
risa del público, que ya no fue posible
continuar el torneo”.*

* * *

Bertso auek beste iturri askotatik
ere eskuratu ditugu. Batzuen berri, gu-
ziena ezin, oarretan emango degu.

Baiña bada iturri bat, Tolosako
Estanis Urruzolaren bertso-bilduma,

zortzi bertso dakarzkiana: orain arteko
aueetatik iru, aldaketa askorekin; eta
gaiñerako bostak, beste iñun arkitu ez
ditugunak. Orregatik, guziak jarriko
ditugu emen.

Aurretik adierazpen au dakar:
“Egun batian bildu omen ziran zenbait
bertsolari beren artian txapeldun zein
gelditu; baiña jardun-jardunean ezin
alkar puskatu noski ta erabaki zuten
aldrebeskoak botatzia. Ara oietan ba-
tzuek:

1/ Itxuak ikusi du
etxia erretzen,
anka-motzak badaki
bidiak korritzen,
mutua deadarka
jendiai deitzen,
gorra ere an zegon
guziak aditzen.

2/ Amon bat ikusi nun
irureun urtetan,
mariñel zebilela
barkuko soketan;
aren aitona berriz
itxasoan lurketan,
espartziñaren ordeztu
txalupak anketan.

- 3/ Gitarra ta bibolin,
bandurri ta arpa,
eskalaproi ta botin.
polain da abarka,
zezena muturka ta
txerria adarka,
gaur ipiñi biar diau
sekulako marka.(3)
- 4/ Mozkor bat ikusi det
kañu-pian sartzen,
beste bat illargiyai
matxardakin eltzen;
emakume bat berriz
urpian erretzen,
bonberuak ai ziran
suak ateratzen.
- 5/ Txantxangorri batenak
sei libra tripaki,
txingurri batek berriz
zazpi arto jaki;
baiak iriña iyo,
errotak iralki,
ganibetak erre ta
labiak ebaki,
oien madria non dan
Xenpelarrek daki.
- 6/ Neguan txingurriak,
udaran izotzak,
orbela ta zipotzak
danak sekatuak;
subia ta ziraba
dauzkat inguruan,
beldur-beldurrez nago
sartzeko mixtua.

7/ Lengo jai-egun batian
 ermita-atadi baten
 a zer erromeriya
 zelebratu duten!
 Mutua kantuan da
 gorra zan entzuten,
 itxua begira ta
 trokotxa dantzatzen.

8/ Oliyua laurden bat,
 arrautzak bederatzi,
 txardin berriak ziran
 berrogei ta zortzi;
 iru kuartillu edan da
 ezpañak igurtzi,
 tabernan ez genduan
 propinikan utzi.

Eta ondoren beste adierazpen au:
 “Naiz eta Xenpelarrena, bostgarrena,
 bertsorik onena izan, Muxarrarena
 atsegiñagoa izaki entzule ta maieko zi-
 radenentzat, ta onetxuri eman zioten
 txapelketa”. (4)

Bertso auen doiñu bat Azkuek da-
 kar, bere *Cancionero popular vasco*
 kanta-bilduman, 481 zenbakian.

me-di - ku e - ta lau bo - ti - ka -

ri-o. Zaz-pi kin tal - e - ko - ak

zor - tzi ar - ma - ri - o, gi - zon

bat - ek a pul - tso biz - ka - rre - ra

i - go.

A - ra no - ra joan zi - ran

a - ma - lau no - bi - o, zor - tzi

1. *Como* Maria, nora zuaz (Lekuonaren oarra).

2. Xenpelarrenak zirala alegia. Batzuek esan didatenez, onetxegatik galdu zuan Xenpelarrek; ontan aldrebekeria edo gezurra ez, baiña egi-egia esan baitzuan.

3. Bertso au onela ere jaso det:

Kitarra, mandurria,
bioliña t'arpa,
eskalaproi ta bota,
zapata t'abarka;
txerria muturka ta
zezena adarka,
aurten autsiya dute
lengo urteko marka.

Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio zanak (Gazteluene, Altza) bertso au eskutitz batean bialdu zidan, eta ondoren onela zion: "Ez dakit zeñek eta non botia dan, baiña nik orrela entzun nuan, eta bada-ezpada ere bialtzen diot".

4. Ona emen beste zenbait iturriren berri, berrin aldaketekin, Lekuona jaunaren erarekin konparatuta.

Ibaizabal aldizkaria, 66 zenbakian, 1903-ko apirillaren 5-ean. Au da guk arkitu degun iturririk zaarrena. Lau bertso ditu: 5, 3, 1 eta 7'garrena. Aldaketarik nabarmenena eta jakingarriena leenengo bertsoan eta leenengo puntuan duana da. Onela dio:

Ara non sartu dira
amalau nabio...

Guk uste, *Arano'n* izango da, erdibitu gabetanik. Aldrebekeriak esatera etorriak baitziran, emen aundia botatzen da orratik. Arano, Naparroa'ko erri bat da, Mandoegi mendiaren egal batean oso goien dagoana. Orregatik, an amalau nabio, amalau itxas-ontzi alegia, sartuak dirala esatea ez da iñola ere astakeri txikia.

Gaiñerako aldaketak: 1/3: zortzi konfitero ta; 1/5: Bosna kintalekuak; 1/6: zortzi armariyo; 1/7:

gizon batek pultsuan; 1/8: bizkarrera igo; 1/9: Arrazoi orri kontra; 3/6: ederki korritzen; 5/5: txalupak zapat orde; 5/6: zituen anketan; 7/2: sei milla tripaki; 7/3: arraultza bi jateko; 7/7: labanak erre eta; 7/9: orren madria zer dan. Aldaketa aue-taz gañera, zenbait tokitan puntuak tokiz aldatuta daude.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunaren libreta batean, 5, 3, 1 eta 7-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/1: Ara nora juan diran; 1/6: zazpi armariyo; 1/8: bizkarrera iyo; 1/9: arrazoi ori prenda; 1/10: norik artu bear diyo; 3/5: ankamotozak bazekian; 3/6: bidian korritzen; 3/7: mutua an zebillen; 5/3: Madriden dabillega; 5/5: zapata orde zeduzkan; 5/7: arren aitona dabil; 5/8: itxasoan urketan; 7/3: bi arraultzaxorekin; 7/5: baiak iriña egin; 7/9: oien madria zein dan. Onak ere puntuak tokiz aldatuta dauzka zenbait tokitan.

Xenpelar'en bertsuak liburua, Makazaga, Errenteria, 1931 urte inguruan argitaratua. Onak ere lau bertsoa: 5, 3, 1, eta 7'garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/1: Ara non sartu dira; 1/3: zazpi konpiteruak; 1/4: bost botikariyo; 1/5: Bosna kintalekuak; 1/6: zazpi armariyo; 1/8: bizkarrera iyo; 1/9: arrazoiari kontra; 3/6: birian korritzen; 3/9: gorra're an zeon; 3/10: guziyak aitzen; 5/3: mariñan dabillega; 5/4: barkuko soketan; 5/7: zapata orde txalupak; 5/8: zituen anketan; 7/3: Arroltza bat labore; 7/5: batak artuko (*sic*).

Azkue: *Cancionero popular vasco* izeneko kanta-bilduman, 663 orrialdean, lau bertso: 1, 7, 3 eta 5'garrena, Aurrekoen moduko aldaketak. Geiegi ez luzatzearen ez ditugu jartzen.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bertso-bilduman, *Poesías vascas laborianas* deritzaion sortan, auetako bi bertso, 3 eta 5-garrena, zenbait aldaketarekin; eta, irugarrena beste bertso au:

Zakurak ikusi du
gatua itxasuan,
promenan zabillala
ombrela eskuan,
aren aitona berriz
ari zen jokuan,
kartatzat zituela
ezpalak eskuan.

XENPELAR ETA MUSARRO

Musarro bertsolariaz argibide auek bildu ditugu:

Bizente Retegi Iriberrri zeritzan. Oiartzunen, 1838-ko uztaillaren 13-an jaio zan.(1)

Luis Jauregi apaiz jaunak onela dio, Musarro bertsolari orri buruz, bere *Xenpelar bertsolaria* liburuan:

“Xenpelar ta Musarro alkarrei ziri-kaka ta eztenkadaka bertsoan maiz aritu-arren, adiskide mami-mamiak izan ziran beti. Xenpelar baztangak jota zegoala oso gaizki, gau batean ixilik eta izkutuan -estu-estu galazita baitzego-, Musarro zintzua, kutsatzeko bildurrak aldamenara botata, bere laguna ikustera etorri egin zan gero. Ortik antz-emango diozu zenbaterañoiko alkar maiteak ziran biok”.

Musarro bi aldiz ezkondu zan. Leenengo, Erreteriko alaba zan Maria Jabiera Etxabegurenekin; eta urrena, Ondarrabiko alaba zan Teresa Lekuo-narekin.

Musarro Erreterin il zan, 1919-ko azaroaren 8-an, larogei ta iru urterekin. Eriotz-agirian “*de profesión teje-*

dor” esaten zaio; eulea izan zan, beraz, bere denbora guzian.

* * *

Onako bertso pare au toki askotatik bildua degu. Pasadizoaren berri, txee-tasun guzietan bat ez badatoz ere, one-latsu eman oi dute geienak:

Erreterian pelota-partiduren bat zan. Xenpelarrek eta sagardotegi bateko nagusiak pezeta bana trabes egin zuten alkarrekin. Xenpelarrek irabazi zuan. Galtzaillea, nagusia alegia, Xenpelar bizi zan etxearen jabea zala diotenak ere badira.

Andik aurrera, Xenpelar ikusten zuan bakoitzean, burlaz pezeta orren aitamena entzun bear izaten zuan, eta tripak jaten jartzen zan.

Ala, Musarro bertsolariarekin topo egin zuan batean, zer gertatzen zitzaien adierazi eta Xenpelarri botatzeko bertso bat eskatu zion. Musarrok erakutsi, berak buruz ikasi eta, urrena Xenpelar ikusi zuanean, onela kantatu zion:

Pezeta bat dek guziya
ik neri irabaziya,
orregatikan egiten al dek
milla fantasiya?
Kriantza txarrez eziya,
molde gaiztuan aziya,
alare i baño obeto zio
etxe-nagusiya!

Eta Xenpelarrek onela erantzun
zion:

Kontzientziya garbiya
ik ote daukak jarriya?
Gizonarentzat ondra txarra dek
lapurreriya;
egin dek etxe berriya
zurrupatubaz erriya;
ez ongi bete izan bauen
sagardoz neurriya!(2)

* * *

Xenpelarrek eta Musarrok Fabrika
Aundian alkarri bota zizkioten bertso-
ak, euskal bertsorik famatuenetakoak
izango dira.

Musarro bertsolaria gizon aundia
omen zan. Burua atzeratu, gora al-txa
eta goitik beera begirutzen omen zion
jendeari. Orregatik *Musu-arro* jarri
zioten izengoitia, eta *Musarro* gelditu
zitzaion bere denbora guzirako. Baiña
izatez oso gizon umilla omen zan.

Errenteriko Manuel Elizetxeak,
Enrike Elizetxea bertso-jartzaille saia-
tuaren semeak, makinaz idatzitako
orrialde bat bialdu zigun, Musarrori
buruz berri jakingarri batzuk emanez.
Onela diote:

“Muxarro ere izagutu nuen gure
etxe-ostatuan.

Telleri-Txiki bertsolariaren emaztea
gure ostatura etortzen zan sukaldeko
lantegira. Manuela zuen izena, eta oso
emakume jatorra zan. Arekin egin
nuen nik nere asiera sukalde-ikasle.
Nik griña artarako nonbait eta emaku-
me artean ibiltzen nintzan, nere amak
naiz ez utzi; eta Manuelak gordetzen
niñuan ezer okerrik etortzen bazan.
Arekin asi nintzan arrautza nola preji-
tzen zan ikasten, eta orregatik esan
det, nik autsitzen banuen arrautza,
Manuelaren gañera joaten zan karga.
Gero, ni gizon egin nintzanian, ala
esaten zion edozeiñeri:

- Onek jaiotzetik ekarri du griña
ori; sukaldeko lana egitia alegia.

Muxarro guretzat etzan gizon gaiz-
tua. Baña berari zerbait gogor egiten
zionari, berak oso errez egingo zion.
Kaskagogorra zan. Gizon itxuraz in-
dartsua. Oso aundia ez, baña naiko
sendoa. Jakiak onak nai izaten zitun.
Orduan sukaldera azaldu eta zer nai
zan berezitu egiten zan. Zegonek iku-
siko dezun bezela, beste ostatu paper
ortan oso merke jaten zan. Baña, ala
ere, Musarrok geienetan zer edo zer
esan bear izaten zuen garisti zalako,
aren esaerarako.

Baguenen guk emakume zar bat,
Bizenta Alzelai, Fabrika Aundian oso
gaztia zala lana egin zuena, eta Joxepa
Anttoniren gazte-laguna. Musarrok or-
tatik bertso bat edo beste esan ta li-
bratzen zan. Baña bein batian, nere ai-
ta zenak jakindu zuenian zer ordain-
tzen zuen, nere aurrian esan zion:

- Ori egiten baduzute, beste batian biak joango zerate etxetik kanpora.

Jaten zuen bi ankaren erdiak, txerriarenak, saltsa ugariarekin; ogia, berak nai zuena; ardua, iru laurdeneko botilla beltza; gero, bere gogozkoa zuen arrozeta eta esnia; baiña ez platerkada bat; al bazuen, laurentzat jartzen zan ontzia.

Gero, ordaintzeko, orduan izaten ziran lanak. Denetara zenbat izango zuen eman bearra? Pezeta bat eta erdi, gutxi gora-bera.”

Musarro eta Xenpelar Fabrika Aundiko langilleak omen ziran: euleak. Musarro, langille utsa; eta Xenpelar, enkargatua. Baiña alkarren oso lagunak. Fabrika Aundian, erretzea galerazita zegoan. Musarro, ordea, erre-zale purrkatua izaki. Ainbeste ordu-tan erre gabe ezin egonik, komunera joan eta antxe erretzen zuan. Xenpelarrek, ordea, zer zebillen igerriz; eta, enkargatua baitzan, zerbait esan bearrean arkitu zan. Ala, egun batez, Musarro oi bezela komunean pipa erretzen ari zala, joan eta bertsoa botatzen. Bai Musarrok erantzun ere.

Orrela kontatu izan oi da beti pasadizoa. Baiña Fabrika Aundiko liburue-

tan Xenpelar, Musarro bezela, eule utsa ageri da; ez da esaten enkargatua zanik. Onek zera esan naiko du: bentan ez, baiña txantxetan asi zitzaiola bertsoan.

Dana dala, saio polita egin zuten. Zenbat bertso kantatu zituzten? Auskalo! Entzuten zeudenak-edo ikasi eta gorde izan diranak, emen arkituko ditu irakurleak. Toki guzietan lau bertso jartzen dira. Baiña Xenpelarren illobak etxean zeukan eskuz idatzitako orri batean, zazpi arkitu ditugu. Ez dakigu zazpiak alkarren segiran kantatu ziran, baiña paper ortan ala daude.

Erreteriko Koldo Mitxelena jaunak onela esan izan zigun: berak txikitant entzun izan zuanez, Musarro ez omen zan gauza Xenpelarri bat-batean erantzuteko; eta etxera joan, patxaraz pentsatu eta biaramonean kantatzen ziola berea. Bai Xenpelarrek bereala erantzun ere, eta Musarro ostera etxera. Orrela egin omen zuten. Baditeke ola izatea; baiña urte asko igaro dira, txetasun auek danak argitzeko.

Ona emen Xenpelarren illobarenean arkitutako zazpi bertsoak. Doiñua Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* deritzaion liburutik artu degu.

X.: Aizak i, mutill mañontzi,
nagusiar goraintzi,
ez al akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?
Jeniyo txar oiek utzi,
bestela ezurak autsi,
giza-legia nola bear dan
ezin erakutsi!

M.: Nik badet giza-legia,
Prantxiskuk baño obia,
beste tatxarik etzait arkitzen:
arlote pobria;
nik jenyua noblia,
kortesi paregabia,
neri ezurak austeko nun dek
abillidadia?

X.: Ziri bat sartu dit neri,
orain bestia berari,
abillidade gutxi duela
ez esan iñori;
azala dadukak lori,(3)
mamirik ez duk agiri,
ezur igarra austen zalla duk,
bazekiat ori.

M.: Kunplitzik nere ordenak,(4)
ez dik kalterik barrenak,
bestela parra egingo ditek
aditzen daudenak;
ik nundik dauzkak kemenak(5)
menderatzeko gallenak?
Ezur igarrak autsitzen dizkik
indarra duenak.

X.: Gaztelaniya geroko,
ardua berialako,
nagusari ejemplo onik
ez diyok parako;
gogua daukak arako,
paraje ona dalako,
eskola dezu txikiegiya
tertuliyarako.

M.: Arrazoi txarra abian
dezu seitatik labian,
egongo zera errespuesta
aditu nayian;
gabero nabil galdian,
ikusi nai nau aldian,
zuk baño obeki ematen det nik
ango sukaldian.

X.: Ardo guzien jueza,
maiz erateko promesa;
ofiziale ederra zera,
irudi inglesa.
Zertarako daukak grandeza?
- Txikia ikusi nai eza,
*yo buen hombre, usted no vale
hermoso cabeza.*

Ai-zak i, mu-till ma-ñon-tzi,
na-gu-si-a-ri go-rain-tzi,
ez al a-ki-ken or pi-pa ar-tzi-a
e-tze-la li-zen-tzi?

Je-ni-yo txar oi-ek u-tzi,
bes-te-la e-zu-rrak au-tsi,
gi-za-le-gi-a no-la be-ar dan
e-zin e-ra-ku-tsi.

Azken bertsoak adierazpen labur bat bear du. Xenpelar txikia omen zan; eta Musarro, aundi eta bikaiña. Orre-gatik esango du:

Zertako daukak grandeza?
Txikia ikusi nai eza...

Eta azkeneko puntua, *hermoso ca-beza* ori alegia, Musarro, leen adierazi degunez, *Musu-arro* zalako esangozion.(6)

1. Oiarzungo 15'garren bataio-liburuan, 208 orrian.

2. Bertsoak Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburutik artuak ditugu. Onek dionez, bigarren bertsoa Musarro kantatua da; eta aurrena zeñena dan ez du esaten.

Beste toki batzuetan ere arkitu ditugu bertso auek, baiña aldaketa askorekin. Gauza nabarmenik ez, ordea; lerroen eta itzen tokia eta olako zerbait bakarrik.

3. Esku-idatzian: *daukak lodi*.

4. Bearbada, emen *ire* edo *ere ordenak* bear-ko luke.

5. Esku-idatzian: *daukak*.

6. Esan bezela, zazpi bertso auek Xenpelarren illobarenean arkitu ditugu, eskuz idatzitako orri batean. Baiña leenengo lauak beste toki askotan argitaratuta daude.

Ona emen argitaraldien berri, bakoitza bere aldaketekin.

Bertso-papera, "Imp. R. Altuna. -San Sebastián", Juan Iturralde, "Juanito Kojua", Donostia: 1/3: ez al dakik ik or pipertzia; 1/4: ez dala lizentzi?; 1/5: oitura txar oiek utzi; 2/3: beste ajerik etzait arkitzen; 2/5: izatez nazu noblia; 2/6: biotzez ezin obia; 2/7: ik neri ezurrak austeko nun dek; 3/1: Ziriya sartu dit neri; 3/3: abilidadarik ez duala; 3/5: azala daukak ugari; 3/6: mami-rik ez dek ageri; 3/7: ezur igarra austen zalla dek; 3/8: egiya dek ori; 4/1: Entzuntzik nere esanak; 4/5: ik nun daukazkik kemenak.

Manuel de Lecuona: *La poesía popular vasca*, *Quinto Congreso de Estudios Vascos*,

Vergara, 1930: 1/1: Aizak, Manuel mañontzi; 1/2: urrengorako goraintzi; 1/3: ez al dakiken or pipartzia; 2/3: beste tatxik deus etzait arkitzen; 2/5: jeniyya det noblia; 2/7: ik neri ezurrak austeko nun dek; 3/2: ara bestia berari; 3/3: abillidade gutxi dagoenik; 3/5: azala daukak ik lori; 3/7: ezur igarrak austen zalla (zallak?) ttuk; 4/1: kunplitzik ire ordenak; 4/2: ez dik kalteko nor denak; 4/4: begira daudenak; 4/5: ik non daukazkik kemenak.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral euskérica*, San Sebastián, 1935: aurrekoa bezelaxe.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, Donostia, 1965: aurrekoa bezelaxe.

Xenpelar'en bertsuak, Makazaga, Errenteri, 1931 urte inguruan argitaratua. Aldaketak: 1/1: Aizak a motell mañontzi; 1/2: urrengorako gorantzi; 1/3: ez al dakiken or pipartzia; 2/3: beste tatxik deus etzait arkitzen; 2/5: jeniyya det noblia; 2/7: ik neri ezurrak austeko nun dek; 3/2: ara bestia berari; 3/3: abillidade gutxi dagoenik; 3/5: azala daukak ik lori; 3/6: mamirik ez dek agiri; 3/7: ezur igarrak austen zalla'ituk; 4/1: kunplitzik ire ordenak; 4/2: ez dik kalteko nor denak; 4/4: begira daudenak; 4/5: ik nun daukazkik kemenak.

Oni kopiatu diote beste auek danak:

Bertsolariya astekaria, 44'garren zenbakia, 1932-VII-17.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo II.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Euskal-Kantak, Bilbao, 1961.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958: 1/3: ez al dakiken or pipa artzia; 1/4: ez dala lizentzi; 2/5: jeniyya det noblea; 3/3: abillidade gutxi dedala; 3/5: azala daukak ik lori; 3/7: ezur igarrak; 4/1: kunplitzik ire ordenak; 4/4: begira daudenak; 4/5: ik nun daukazkik kemenak.

Auetaz gaiñera, baiña berezita, bi orrialde leenago alegia, beste bi bertso dakarzki, 5 eta 6'garrena. Leenago, adierazpen au: "Errenderi'n bizi zan Lezotar apaiz jaun baten etxera maiz joaten omen zan Muxarro ta ara bein Xenpelar'ek bota zion bertsoa".

Eta ondoren bertsoak ditu, aldaketa auekin: 5/3: nagusiari ejenplo txarrik; 5/4: ez dio parako; 5/5: gogua badu arako; 6/4: aditu zalian; 6/5: gauero dago galdean; 6/7: zuk baño obeto ematen det nik; 6/8: aren sukaldean.

LAU BERTSOLARIREN BIZIMODUA

Urrengo adierazpen eta bertsoak gerra aurreko *Argia* astekarian agertu ziran, *Goikolako Txoria*-k firmatutako idazlantxo batean.

On Manuel Lekuona apaiz jauna zanak jasotako paper-punta edo *recorte* batetik kopiatu ditugu. Zoritzarrez, paper ortan egunik ez da esaten.

Ona nola dion *Argia* astekariaren idazlan orrek:

“Euskadi gure aberri eder onen apaingarrietako bat bertsolaria da.

Artzai ta baserritarren artean sortzen dira geienak.

...Sagardotegi ta edari tokietan izaten dira entzutekoak, batek ziri ta besteak ziri, aiek bai ziri-bertsoak.

Baita kantura deitu dituzten tokietan beren kantualdia bukatu ta bereziki lasa-lasa jartzen diranean ere.

Aietakoren batean noski, Xenpelar buru zutela, onek esan zien bakoitzak bere bizimoduaz bertso bana abestu bear zutela.

Xenpelar, asko jakiña, berea esan gabe, besterenakin onela asiera eman zion.

Xenpelarrek:

Kaxo, Gaztelugorri!
nola oi zera bizi?
Aspaldiko denboran
etzaitut ikusi.
Irungo arrobian
omen ziñan asi,
gutxi gastatu eta
asko irabazi.

Gaztelugorrik:

Amalauri bost kendu,
bederatzi daude,
errial bat gutxixko
sagardotako ere;
jaiak eta oporrak
bastante badaude,
Xenpelar, alakuak
probatutzen gaude.

Gaztelugorri au oraingo *Gaztelu* bertsolariaren osaba zan. Batzuek *Bautista Gorria* deitzen zioten, eta orain berrogeitabi urte Arakale zarreko (Enbeltrán) 8-an tabernari ezagutu nuan.

Uztarrik:

Osasuna ederra
emanik Jainkoak,
alare ez du eman nai
ogia naikua;
iñola ezin sortu
astian jaikua,
zu nola bizi zea
Udarregikua?

igesi joanak dira
arratoiak ere.

Andaluzi kutsu pixkan bat ez ote
bertso oietan?

Ez det uste orrenbeste Jeremi abes-
tirako arrazoirik zutenik.

Jakiña, par eragiteko abestuko zi-
tuztela noski.

Juan Jose Udarregik:

Zuk ogia diozu,
nik artua ere,
jango lutekienak
etxian badaude;
askotan baba zarra
oliorik gabe,

Orra bertsolarien
bizi modua entzun,
irakurle, zuk esan
zer derizkiozun;
bertsolariak aña
erromeri egun
eztakit beste iñork
izaten ote dun”.

BERTSO-SAILLAK

OARRA

Onako atal ontan Xenpelarrek paperetan jarritako bertso-saillak bildu ditugu.

Xenpelarrek idazten eta irakurtzen ba ote zekian ez da gauza garbia.

Leen esan degunez, Erreteriko 1861-eko *Padrón Municipal*-ean, beraren arreba Maria Luisak eta anai Jose Marik irakurtzen bai eta idazten etzekitela agertu da.

Xenpelar ere, senideen eskola bera izango baitzuan, mailla ortan gelditua izango zan.

Ori ola izan bazan, norbaiten sekretariotza eta laguntza bearko zituan bertsoak paperetan jartzeko.

Baiña Patxi Bakallori ordaiñetan bialdu zizkion bertsoetan, onela dio Xenpelarrek:

Pazko bigarren goizian
artu nuben karta,
bestek firmatuba da,
ez da zure falta...

Guk uste, etzion tamaiña ortako ziririk sartuko, berak, barra-barra idazte-

raíño ez bada ere, firmatzen beintzat jakingo ez balu.

Xenpelarrek bertso-paper asko eta asko agertarazi zituan. Eun urte igaro ondoren bildu ditugunak liburu mardul bat osatzeko lain izan dira. Eta zenbat izango dira betiko galduak? Eta zenbat gure eskuetaraiño eldu bai, baiña arenak dirala ez dakigunak?

Xenpelarren bertsoak askotan argitaratu ziran, naiz bertso-paperetan eta naiz aldizkarietan, bai bera bizi zalarik eta bai il eta gero ere.

Orregatik, onela dio Manuel Lekuona apaiz jaunak bere *Literatura oral euskérica* liburuan:

“Recuérdese la popularísima frase, que ya puede decirse que ha pasado a proverbio, Bertso Berriak Xenpelar’ek jarriak”.

Ortaz gañera, Xenpelar izango da bertso-mota geienik erabili duan bertsolaria, garai artakoetan beintzat; eta bertso-mota bakoitzak doiñu bana eskatzen duan ezkerro, doiñurik geien kantatu duenetakoa ere bai.

Nundik ateratzen zituan bertso-mo-

ta oiek, eta nundik doiñu oiek? Bere aurreko bertsolariengandik, ala berak bere burutik sortzen zituan? Orra or, nik uste iñoiz ere ezin askatuko dan korapilloa.

Oarretan, oi degunez, argitaraldi bakoitzaren berri emango degu; baita ere argitaraldi batetik bestera arkitu di-

tugun aldaketak. Xenpelarren bertsoak ainbeste bider argitaratu ziran ezkerro, iñoiz baiño neke geiago izan degu lan ortan.

Bertso-sail bakoitzaren ondotik, bildu ditugun argibide guziak eskeintzen ditugu, irakurleak bertsoak obeto ulertu ditzan.

(1854)
SAN JOSEREN
ZAZPI DOLOREN BERTSOAK

1/ Dibersio polit bat
buruan det pasa,
iruritzen zat dala
- txit ondo dan gauza;
bertso bi paratzeko
egin det ametsa,
San Joseren bizitza
kanta al baneza.

2/ Gure Aita San Jose,
zerura baño len,
arotz pobre gaizo bat
bizitu zan emen;
debozio aundikoa
Aita Eternoaren,
Birjiñaren esposo
eskojitu zuen.

3/ Birjiñak artu zuan
San Jose esposo,
familiaren karga
al bazezan jaso;
bizitza artako zazpi
dolore eta gozo
munduari nai diozkat
kantuz adierazo.

4/ Au zan lendabiziko
penaren astea:(1)
aurdun sentitu zuen
bere emaztea;
gogoak eman zion
bakarrik uztea,
orduko San Joseren
dolore tristea!

5/ Aingeruak bialdu
zion enbajada,
motibo orregatik
etzezala laga:
“Espiritu Santuaren
milagroko obra da,
Jaungoikoaren Semea
jaio bearra da”.

6/ Bigarren dolorea
Jesusen jaiotzan,
ikusirik aurtxo
alako pobrezan;
berak naiko etzuan
kunplitua izan,
guretzat desonrarik
ipiñi etzezan.

7/ Desanparo onetan
zegoan pensatzen,
aingeruak aurrari
gloria kantatzen;
artzaiak beste aldetik
Jesus adoratzen,
aiek ikusi ta zan
Jose konsolatzen.

8/ Irugarren dolorea
urrengo egunean,
Jesus jaio zanetik
zortzigarrenean;
oñazez aur gaizoa
negar samĩñean,
ura pena San Josek
eziñ egiñean!

9/ Aur gaizoa negarrez
odola zeriola,
ezin isildu zuen
iñundik iñola;
aingeruak zerutik
esaten ziola
Jesus bere izena
eman zegiola.

10/ Gustora eman zion
Jesusen izena,
egiteagatikan
jaun orren esana;
gure probetxurako
bazekien zana,
orduho San Joseren
atsegintasuna!

11/ Laugarren dolorea
-penaren garratza-
aditu zuenean
Simeonen otsa:
Jesus onaren penak
amaren biotza(2)
erdiratzeko zala
ezpata zorrotza.

12/ Simeonek ekarri zion
zeruko berria:
Jesusen pasakizun
ikaragarria,
gure salbazioa
zala etorria;
San Josek artu zuan
atsegin aundia.

13/ Enemigo beldurrez
gau ta egun zebiltzen,
kasikan iñun ere
fiatu ezin zen;
deskuidoren batean
arrapatu etzezen,
ama-semearekin
Ejitora juan zen.

14/ Ango idolo edo
jaungoiko falsoak
lurrera bota zituan
aur egiazkoak;
orduko San Joseren
atsegiñ gustoak,
aztu zitzaizkan lengo
penazko pausoak.

15/ Ejitotik bueltatu
ziran Israela,
notizia artu zuen
andik bereala
Erodesen semea
errege zutela;
San Joseren beldurra
galduak zirala.

16/ Aingeruak zerutik
aiek giatzeko
bereal esan zien
ez ikartzeko;
etzegoala beldurrik
artean galtzeko,
Galilea aldera
erretiratzeko.

17/ Juan ziran tenplotik
Jauna adoratuta,
amabi urteko Jesus
birian galduta;
billa ibilli ziran
berriz jiratuta,
ura pena San Josek
eziñ billatuta!

18/ Irugarren egunean
zuten billatua
dokterien erdian
zeruko maisua,
lurrekoai ematen
bere konsejua;(3)
ikusi zuenean
ai zer deskansua!

19/ Orra zazpi dolore
amabi urtean,
nunbait beti gustora
ezin zegokean;
orain gure zai dago
zeruko atean,
ia billatzen degun
saiatu gaitean.

20/ Dolore oien onran
zazpi *pater noster*
egunero esatea
ez da bada ezer,
irabazteko asko
grazia ta esker;
kuidado esan gabez
ez gabiltzan oker!

21/ Debozio onetan
segitzen duana,
konfiantza osoan
dijua argana;
guziz gustatzen zaio
eske dijuana,
bera da bitarteko
iñun dan onena.

22/ Para dezagun bada
bera bitarteko,
berdin bere esposa,
ez du ukatuko;
enpeñu oberikan
ez da topatuko,
ez da ama baño oberik
semeaganako.

23/ Alperrik da ibiltzea
mingañak lasterka,
biotzetik ez bada
probetxurik ez dauka;
benaz negar egiñaz
biotzetik eska,
biotzaren saltuak
gustatutzen zaizka.

24/ Zuzaz akordatzen naiz
orduen batzuetan,
beartzen naizenean
nere pausoetan;
mundua largatzeko
ordu estu artan,
eriotza nai nuke
zure eskuetan.

25/ San Jose amorosoa,
ai nere larria!
Zuk largatzen banazu
nago eroria;
zurekin bat egiñik
Jesus ta Maria,
arren izazu guzaz
misericordia.

26/ Guziz bire labañak
senti ditut emen,
ar zazute kargua
nere animaren,
adiskide izan gaitean
zeruan alkarren;
ala gerta dedilla,
biba Jesus, amen!

* * *

Makiña bat aldiz argitaratutako bertsoak ditugu auek. Gure eskuetaraiño eldu dan argitaraldirik zaarrena, 1854 urtekoa da. Xenpelarrek emeretzi urte zituan orduan. Orregatik, beste sail guzien aurretik jartzen ditugu bertso auek.

Gazte-gazterik asi zan, beraz, bertso gintzan. Bertso auek ez dira, guk uste, besteen maillara irixten. Baiña arritzekoa ere ez da; oraindaiño ez bai-

ta iñor maixu jaio izan.

Xenpelarren denborako beste bi argitaraldi ere arkitu ditugu: biak 1866 urtekoak dira.

Gero txeetasun guziekin esango degunez, argitaraldi batetik bestera oso aldaketa gutxi izan dituzte bertso auek.

Norenak diran, berriz, ez da bertso-paperetan adierazten; egillearen izenik gabekoak dira guziak. Xenpelarrenak dirala Erreteriko Makazaga moldiztegiak esan zuan leenengo aldiz

bere *Bertsolariya* astekarian, 1932 urtean. Ola entzungo zuan garai artako errenteriar bertsozale zaarren aotik.

Leenengo doiñua, Ereñozuko Akola baserriko Gregorio Santa Krutz-ek kantatu, guk magnetofonoz jaso eta Manuel Yaben eta Anbrosio Zatarain jaunak solfeoz idatzia da.

Di - ber - tsi - o po -
lit bat bu - ru - an det pa -
sa i - ru - ri - tzen zat
da - la txit on - do dan gau -
za ber - tso bi pa - ra -
tze - ko e - gin det a - me -
tsa San Jo - se - ren bi -
zi-tza kan - ta al ba-ne - za.

Bigarren doiñua, Azkuek bere *Cancionero popular vasco* bilduman dakar, 654 zenbakian Orioko Josefa Trekuri jasota:

Allegro

Li - ber - tzi - o po -
lit bat bu - ru - an det pa - sa i -
ru - ri - tzen zai - ta - la txit
on - do den gau - za, ber -
tso - ak pa - ra - tze - ko ar -
tu det a - mes - a, san Jo - se - ren bi -
zi-tza kon - ta y al ba-ne - za.

Irugarren doiñua, berriz, Aita Donostiak agertu zuan, bere *Euskel Eres-Sorta* bilduman, 1921, 213 zenbakian, Etxalarren jasota:

Bir - ji - na ar - tu
zu-ben San Jo - sek es - po - sa fa -
mi - li - a - ren kar - ga al - ba - ze - zan ja -

so. Bi-zi-tza ar-ta - ko zazpi do-lo-re

ta go-zo mun - du - a - ri nai

diozkat kantuz a-die - ra - zi

Laugarrena, Gipuzkoako Gaintzan
Martina Barandiarani jaso, Azkueren
esku-idatzietatik artua degu:

Andante mosso

Gu - re ai-ta San

Jo - se ze - ru - ra bai - ño

len a - rotz po - bre gai -

so - a bi - zi - tu zan e -

men de - bo - zi - o an - di -

ko - a ai - ta E - ter - no - a -

ren Bir - ji - ña - ren es -

po - so es - ko - ji - tu zu - en.

Bostgarrena, Asteasun jaso,
Azkueren esku-idatzietan agertu da:

Andante mosso

Gu - re Aita san Jo - se ze -

ru - ra bai - ño len a - rotz pobre gai

xo bat bi - zi - tu zan e - men de -

bo - zi - o an - di - ko - a Ai - ta E - ter - noa

ren Bir - ji - ña - ren Es - po - so es -

ko - ji - tu zu - en.


Seigarrena ere, Bera-Bidasoako
Romana Errandoneari jaso, Azkueren
esku-idatzietatik:

Gu - re Ai-ta San Jo - se ze -

ru - ra bai - ño len a - rotz po - bre gai -

xo - a bi - zi - tu zan e - men bi - tar -

te - ko aun - di - a ze - la Ai - ta E - ter - no -



* * *

Ona emen gure eskuetaraiño iritxi diran argitaraldien berri, zaarrenetik asita.

Bertso-papera, "Tolosan: Andres Gorosabelen moldizteguien 1854 garren urtean", Bonaparte zanaren bilduma, Chicago.

Bertso-papera, "Irunen 1866: -Imp. de Francisco Huarte-ren moldizteguien", D'Abbadie zanaren bilduma, Paris.

Bertso-papera, "Vergaran: Francisco Maria Machain-en Moldizteguien 1866 garren urtian", D'Abbadie zanaren bilduma, Paris.

Bertso-papera, "Imp. de Pozo. -Fuenterrabia 14", Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduma.

Bertso-papera, "Eibar.- Imprenta de Pedro Orúe", Aita Agirretxe prantziskotarrak bialdua.

Bertso-papera: "Oñate: Imp. de M. Raldua", Azpeitiko Fidel Uria apaiz jauna zanaren papere-tan azaldua.

Bertso-papera, "Durango Imp. de Elosu", Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduma.

Oraindaiño argitaraldiak ez dute beren artean aldaketarik, aitatzerik merezi duanik beintzat. Emendik aurrerakoak bost aldaketa auek sartzen dituzte: 17/8: ezin topatuta; 22/8: ez da semearentzako; 23/5: deboziyo onarekin; 23/6: barrendikan eska; 24/2: ordu batzuetan.

Bertso-papera, "Imp. de B. Valverde - Irún", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "Donostiyan: Francisco Muguerzaren Moldizkiran", Jertrudis Arrieta Urdanpilleta zana. Errenteria, eta Jose Maria Esnaola, Tolosa.

Bertso-papera, "Imp. de S. de Diego. - Eibar", Jertrudis Arrieta Urdanpilleta zana, Errenteria.

Bertso-papera, "Imp. de S. de Diego. - Eibar", Oiartzungo Antonio Arsuagaren bitartez eskuratua.

Bertso-papera, "Guernica - Goitia y C^{aa}", Altzalegi baserria, Berriatua.

Bertso-papera, "Guernica / Goitia y Compañía / Imprenta", María Oiartzabal, Makutso, Oiartzun.

Bertsolariya astekaria, 54 zenbakia, 1932-IX-25. Onek beste aldaketa bat: 11/7: erdibitzeko zala.

Argia astekaria; guraizez ebakitako puska batean arkitu ditugu bertso auek, eta ez dakigu zein egunetakoa dan. Onek geixego aldatu ditu bertsoak: 2/3: arotz pobre gizon bat; 3/1: San Jose artu zuan; 3/2: Birjiñak esposo; 7/3: aingeru bat aurrari; 7/7: oiek ikusi eta; 8/5: aur gaxua oñazez; 9/5: aingeru bat zerutik; 11/7: erdibitzeko zala; 12/1: Simonek eman ziyon; 13/6: arrapa etzitza; 13/7: bere Ama-semiak; 14/5: orduan artu zuan; 14/6: atsegin gozuak; 14/7: aztu azi zizkiyon; 15/1: Ejito'tik buelta; 15/2: ziran Jordan'era; 17/1: Bazijuazen tenplotik; 18/3: San Jose amosoro; 18/7: ikusi zutenian; 19/4: ezin zitekian; 21/4: bijuba argana; 21/7: bera da bitartekorik; 22/6: ezta billatuko; 22/7: ezta Ama baño ere; 23/6: gogotikan eska; 24/2: ordu batzubetan; 24/8: zuen eskuetan; 25/1: doktorien erdiyan; 25/3: zuk utzitzen banazu.

1. Bertso-papertan: *asitzea*.

2. Leenengo argitaraldiak, 1854 urtekoak, *bitziza* dio emen; beste guziak *biotza*. Nabarmen dago, gaiferako puntuekin eta Ebanjelioak dionarekin ondo etorriko bada, *biotza* bear duala.

3. Bertso-papere guziak *konsejuak* diote emen; dudarik ez da *konsejua* bear duala.

OIARTZUNGO NESKATXEN BENTAJAK

- 1/ Iparragirren bozian ditut
bertso berriak paratu,
Gipuzkoako euskal erriya
al banezake nonbratu;
asko ezkongai daude
gustokorikan gabe,
ezin dutela topatu;
projimuari erakustia
ezta izango pekatu.
- 2/ Konsejutxo bat lendabiziko
ezkongai dauden danentzat:
esposatzia tratu pisuba
dala iruritutzen zat;
dote eta arrio,
ez dutela balio
amorio fiñarentzat,
zergatik izan biarko duben
il arteraño beretzat.
- 3/ Neskatzia eder balientia
artu nai baldin badezu,
etorri zaitez Oiartzuna ta
antxen billatuko dezu;
kale eta basarri,
kolore zuri gorri,
ederra franko badezu;
San Estebanez da erromeriya
ikusi nai badituzu.

- 4/ Gustagarriak oien bentajak
dirade klase askotan,
ez dezu ezer arrapatuko
asi ezkerro izketan;
eskojitutzekua
oien errespetua
relijioako gauzetan;
Jangoikuaren beldur aundian
aziyak daude gaztetan.
- 5/ Ostentazio batere gabe
izketan dute graziya,
gorputz egoki, pausu aidoso,
lujo gabeko jantziya;
beti alegre daude,
tristurarikan gabe,
ezaguerakin josiya;
gizonak bezin aundia dute
laneko irabaziya.
- 6/ Bide batian izaten bada
enkontratzeko fortuna,
saludatzean bai zait gustatzen(1)
aien egokitasuna;
aberats eta pobre
guztientzako noble,
igual da ez-ezaguna;(2)
ori da gure relijiyuak
erakutsitzen diguna.
- 7/ Erreterian dama oiekin
askotan det nik itzegin,
perfeziyua ta umiltasunak
eman lezake atsegin;
daude ikasirikan
gurasuetatikan
ez dezatela utsegin;
nik ere ori egin nai nuke
betiko galdu ez nadin.

- 8/ Beste bentaja egokitxo bat
bada orien artian:
umildadian bizitzen dira
gurasoakin batian;
erresponditu gabe
ikasirikan daude
segitutzeko lanian;
fabore gutxi ez du izango
ezkondu nai dubenian.

* * *

Bertso aukerak Oiartzungo neskatxak
famatzeko paratuak dira. Ain zuzen,
leenago esan danez, Xenpelar bera ere
Oiartzungo alaba batekin esposatu
zan.

Baiña, dudarik gabe, oiartzuarren
izenean edonungo neskatxetan ikusi
nai zituan doaiak adierazten dizkigu
bertso auetan. Edo-ta, agian, andretzat
artua edo artu bearra zuan Oiartzungo
alaba orrengan ikusi zituanak; ez bai-
takigu ezkondu aurretik ala ondotik
moldatu zituan.

Bertso aukerak paperetan inprentatu
eta zabalduak izango ziran; baiña aie-
tako ale bakar bat ere ez degu inñondik
eskuratu aal izan.

Arkitu degun iturririk zaarrena,
Tolosako Fakundo Adurriaga “Besamotza”
zanaren bertso-bilduma edo
kuadernoa da. Zortzi bertso ditu; bera-
ri kopiatu diogu.

Bertsoen atzetik, firma bezela, one-
la irakurtzen da Adurriagaren bildu-
man: *Oiartzundar batek jarriak*. Guk
uste, ori Adurriagak bere kasa idatzia
izango da; ez paperetik kopiaturia.

Urteen buruan, Erreteriko Maka-
zagak publikatu zituan, gure iritzirako
buruz zekizkian norbaiten aotik jasota.
Norbait ori garai artako bertsozaleren
bat izango zan. Bertsoak Xenpelarre-
nak dirala ere orretxen aotik jasoko
zuan Makazagak. Izan ere, Xenpela-
rren izena ez da bertsoetan inñon ere
azaltzen. Ala, Makazaga izan zan ori
esan zuan aurrena.

Berari kopiatu diote geroztikako ar-
gitaraldirik geienak, itzez itz ez bada
ere.

Beste iturri batzuk ere topatu ditut;
baiña oiek, Makazagarena bezela, nor-
baiten aotik jasota daude. Orregatik,
aldaketa aundiak daude batetik beste-
ra.

Doiñua, Anjel Dadiak jaso eta
Xenpelar'en bertsoak liburuan agertu
zana da. Liburu ontan bertan, *Iparra-
guirre eta Xenpelar* atalean arkituko
du irakurleak.

* * *

Ona emen bertso aukerak nun arkitu ditugun:
Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* za-
naren eskuz idatzitako bertso-bilduma.

Xenpelar'en bertsuak, 1931 urte inguruan Errenteriko Makazagak argitaratutako liburua. Onek zazpi bertso dakarzki: 1, 2, 3, 7, 6 eta 5-garrena orden ortan; eta, oietaz gainera, Adurriagaren bilduman ez dagoan beste bertso bat. Aldaketak: 1/1: Iparragirren bozian baiutut; 1/3: Gipuzkoako euskal erritan; 1/4: al banitzake onratu; 1/5: asko ezkongai gaude; 2/2: ezkongai dauden oientzat; 2/3: esposatzia gauza pixuba; 2/6: ez tubela balio; 3/1: Neskatxa eder balientiak; 3/2: baldin gustatzen bazaizu; 3/3: etorri zaitetz Oiartzunera; 3/4: emen billatuko ituzuz; 3/7: ederrak franko badezu; 3/8: San Estebanez erromeriyan; 5/3: gorputz egoki, pausua aidoso; 5/4: lujo gabeko jantziyak; 5/7: ezaguerakin josiyak; 5/9: lanian irabaziyak; 6/1: Bire batian gertatzen bada; 6/2: topatutzeko fortuna; 6/3: saludatzen bai zait gustatzen; 6/4: oien egokitasuna; 6/6: guztiyarentzat noble.

Eta Adurriagaren bilduman ez dagoan bertsoa, onako au:

Elizan ere atentziyuz
deskubritutzen dan ua,
duda gabe ark adoratzen du
guziyen Soberanua;
aundi yak ta txiki yak
kristabak geran guzi yak
ortan eduki kontuba;
realidarez ez tu bidedin (*sic*)
gure remordimentuba.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I, Makazaga, Errenteria, aurrekoa bezelaxe, au izan ezik: 6/3: saludatzia gustatzen zait. Eta laugarren bertsoa ere badakar, aldaketa auekin: 4/5: eskojitutakua; 4/9: aziyak dira gaztetan.

Bertsolariya astekaria, 3'garren zenbakian, 1931-X-4. Aurrekoa bezelaxe.

Manuel de Lecuona: *La poesía popular vasca, Quinto congreso de estudios vascos, 1930, 1934* urtean argitaratua. Onek zazpi bertso dauka: 1, 2, 3, 7, 6, 5-garrena eta Adurriagaren bilduman falta dana. Bertso auek *Xenpelar'en bertsuak* liburuan bezelaxe daude, auek izan ezik: 3/1: Neskatxa eder balienterik; 3/7: ederra pranko baduzu; 5/7: ezagueraz josiyak; 5/8: gizonak bezin aundi yak ttuzte; 6/1: Bide batian tokatzen bada; 6/3: saludatzen gustatutuzen zait; 7/4: ematen baitu atsegin; eta Adurriagaren bilduman falta dan ortan: 5: aundi eta txiki yak; 6: kristau geran

guzi yak; 8: realidarez estali dedin.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, kuliska-sorta, Itxaropena, Zarautz, 1958: Lekuonak bezelaxe.

El Día egunkaria, ez dakigu zein egunetakoa. Onek sei bertso dakarzki: 3, 6, 1, 7, 2 eta 5'garrena. Aldaketak: 1/1: Iparragirren bozian baiutut; 1/4: al banezake onratu; 2/3: esposatzia gauza pixuba; 2/5: dote edo arrio; 2/6: ez duela balio; 2/8: zergatik artu bearko duan; 3/2: baldin gustatzen bazaitzu; 3/3: etorri zaitetz Oiartzunera; 3/4: ta antxen topatuko dituzuz; 3/8: San Estebanen erromeriyan; 5/3: gorputz liraña, pauso aidosa; 6/1: Bide batian egiten badet; 6/2: enkontradazko fortuna; 6/3: saludatzia baizat gustatzen; 6/6: geientzako noble; 6/7: naiz ez izan ezaguna; 6/8: auxen da gure relijjiyak; 7/1: Errenterian neskatxa oiekien; 7/2: nik askotan det itzegin; 7/8: nik ere ala desiatzen det.

El Día onek adierazpen au dakar bertsoekin batera: "Orain iru ogei ta amar bat urte, Iturrino'tar Sebero Motrikoarrak, Errenderi'n ikastetxea zeukala, Oiartzuar neska erri ontako, Deun Esteban jaietako jarritako bertsoak". Ez degu uste Iturrinok jarriak diranik; eta onek Errenterin eskola izan ote zuan ez degu inoiz ere entzun.

Aita Donostia zanaren bertso-bildumak iru bertso: 1, 3 eta 5-garrena. Aldaketak: 1/3: Gipuzkoako herri nobliyan; 1/4: ahal banitzazke kantatu; 1/7: ezin dutela billatu; 1/9: ezta izanen pekatu; 3/2: balin hartu nai baduzu; 3/3: etorri zaitetz Oiartzunera; 3/4: han billaturen dituzuz; 3/7: ederra franko daukazu; 3/8: San Estebanez erromerian.

Bestgarrena.

Deus tentazio batere gabe
izketan duten grazia,
gorputz egoki, pausu airoa,
lujo gabeko jantzia;
hoien desidua da
ibiltzia guzia
ezta bada fantasi
daukanak eman ta kendu gabe
biar duen merezia.

1. Adurriagaren bilduman: *saludatzen*.
2. Adurriagaren bilduman: *igual da ezaguna*.

ALBAKA BATENGATIK

- 1/ Dama gazte galanta bat
gure probintziyan,
alabatzera nua
egiñal guziyan;(1)
lenago gabiltzanak
Jaunaren graziyan,
orain paratu gaitu
kolera biziyen,
trata-biria on da
saldu-erosiyan.

- 2/ Kontuan badabiltzke(2)
gaztiak karrikan,
egin gabetandikan
aziyo txarrikan;
dama orren pausuak
ez dira alperrikan,
iñon faltatzen bada
albaka-adarrikan,
pagatu biar degu
multa ederrikan.

- 3/ Albaka batengatik
justiziyengana,
nork maitatu biar du
orrelako dama?
Aita kastellanua,
emengua ama,
azal ederra dezu
Jesusek emana,
kopetako barnizak
bista badarama.

- 4/ Preziso bear zenduke
albaka kolkuan,
azal ederragua du
zenbaitek orpuan;
beti irabaztia
neke da tratuan;
pasatzeko modurik
badezu barkuan,
Txinako beltzetara
obe dezu juan.
- 5/ Justiziyari parte
emate ezkerro,
ain errax libratzekorik
enuan espero;
kanpuan ikusita
pena zuen gero
desterruan urterik
ez degula igaro,
pezeta bana eman ta
libratu lijero.
- 6/ Ogei ta lau errial
albakaren multa
pagatu genituan
kontzejura juanta;
ez daduka merkia
belar orrek punta;
nork sinistatuko du
au iñork esanta:
keja orrekin juan dala
gaztia izanta?
- 7/ Orain eskerrik asko,
Mari Manuela,
uste zenuen betiko
galdu giñuela;
multa aundiyak eta
gañera kartzela
bazeniyon gureztat
falta etzala,(3)
benturaz mintzatuko
enitzan bestela.

* * *

Zazpi bertso auek, ezarri diegun izenburu orrekin berarekin, Errenteriko Makazagaren *Bertsolariya* astekarrian argitaratu ziran, 53 zenbakian, 1932-ko iraillaren 18-an. Ez du esaten nundik artuak dituan; baiña, dudarik gabe, norbaiten aotik jasoak izango dira, eta ez bertso-paperen batetik kopiatuak.

Bertso auei buruz argibide auek eman dizkirate Errenteriko Florentina Perez Salaberriak eta Monika Galarragak.

Albaka ez da lorea; belar polit bat da, izan litekean usai goxoena duan belarra.

Beraren izena erderazko *albahaca* iztetik datorrena da, noski.

Orain ez da olako oiturarik, baiña garai aietan albaka asko izaten zan. Udaberrian landare txiki bat tarro batean sartu, zabaldu eta aundi xamar egiten zan. Berde-berdea izaten zuan kolorea. Ari eskua pasa eta oso usai ona ematen zuan.

Neskatxak, agerian ez-ezik, barreanean ere eramaten zuten. Kolkoa askatu, sartu eta arnasa artzean ura usai goxo! Oraingo damak perfumeak bezela, ordukoak albaka nai izaten zuten.

Xenpelarren illoba Joxepa Antoni ere oso loreketaria zan, eta urtero egiten zuan.

Oiartzungo baserri bateko neskatxa batek albaka bat oso ederra omen zuen. Baiña mutil batzuek jo eta autsi egin zioten. Orduan parte eman zuan Udaletxean, eta multa kendu zieten

mutillei. Eta auek bertsoak jarri arazi zizkioten Xenpelarri.

Doiñua, Oiartzungo Inazio Pikabekak kantatu, guk magnetofonoz jaso eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak solfeoaz idatzia da.

Da - magaz-te ga-lant bat gu -
 re probin-tzi - yan, a - la-ba-tze-ra
 nu-a e - gi-ñal gu-zi - yan; le -
 na-go ga-bil - tza-nak Jau - na-ren gra-zi -
 yan, o - rainpa-ra-tu gai-tu ko -
 le-ra bi-zi - yan, tra - ta bi-ri - a
 on da sal - du c - ro - si - yan.

1. *Bertsolariya*'n: egiñalak guziyan.
2. *Bertsolariya*'n: badibiltzke.
3. Emen bearbada *faltako etzala* bearko luke.

AGEDARENAK

- 1/ Bertso berri batzuek
al banitza para,
motiboaz konforme
konbeni dana da;
empleua orrekin
aberastua da,
arrua bada ere
asentatuko da,
Aizateko billeran
probestu Ageda.

- 2/ Dama batek jartzia
orrenbeste lege,
nonbait egin nai luke
guziyaren jabe;(1)
Gorputz-arratsaldian
orrenbeste jende,
ixilik egoteko
soñurik jo gabe,
Aizateko billera
Agedaren mende.


- 3/ Ageda juntetako
prebenitutzian,
baten itxura emain du
plazan agertzian;
meriñekia arro
para korputzian,
illiak *de rodete*
biarko du atzian,
gerriya alegiña
estutu kortsian.

4/ Ageda, zertarako
zabiltza orrela
justiziya egiten
jueza bezela?
Disimulatu ziteken
nola edo ala;
ezta denbora asko
esan diratela
amaren konbentuan
monja sartzen dala.

5/ Dudarik gabetanik
gogoratu zaio
beti funtziyorako
ez giñala jaio;
beste afiziyorik
eztu oraindaño:
mutillak kortejatu
biziya duaño;
obe dezu ezkondu
monja sartu baño.

6/ Deklaratzera nua
Agedaren kausa,
nundik-nai aginaldo
eldu zaio gauza;
zapata txarolatubak,
zillarrezko bretxa,
mantelin sedazkua,
enkajia beltxa;
dam'orren graduari
tokatutzen zaizka.

7/ Oñak eta aztalak
ez ditu itxusiyak,
tripa ere sanua
Jaunari graziyak;
gerri kuriyosua,
bular egokiyak,
mingaña lasaitxua,
begiyak zuriyak,
oiek dira Agedaren
bentaja guziyak.



Aizate baserria, Errenteri.

* * *

Zazpi bertso auk, 1931 urte inguruan Errenteriko Makazagak *Xenpelar'en bertsuak* izenarekin argitaratu zuan liburutik artuak ditugu.

Bertso-sail ontaz argibide auk bildu genituan Monika Galarraga zana-ren aotik:

Aizate baserria Errenteriko partean dago. Oiazundik Txiki-erdira gozela ezkerretara, aldapan gora artu eta ordu erdi bateko bidean.

Aizaten billera egiten zan jaietan. Orain urte batzuk, berriz, inguruko baserrietako aurrak biltzeko ere toki egokia zalako, eskola biurtuta egon zan. Senperelarre ere ez dago andik urruti.

Ageda, Trabaleku baserriko alaba zan. Eta Aizateko billeran bulla aundia egiten zala edo eskandaloa zala-edo, parte eman omen zuan, eta debekatu egin zan ango festa. Orduan, mutillak, asarretuta, bertso auk para arazi zizkioten Xenpelarri.

Leenengo doiñua, *Xenpelar'en bertsuak* deritzaion liburutik artu dugu.

Ber - tso be - rri ba -
tzu ek al ba - ni - tza pa - ra, mo -
ti - bo - az kon - for - me kon - be - ni - da - na

da; en - ple - u - a o - rre - kin a -
be - ras - tu - a da, a - rru - a ba - da
ce - re a - sen - ta - tu - ko da, Ai -
za - te ko bi - lleran pro - bestu A - ge - da.

Bigarren doiñua, berriz, Azkuek *Cancionero popular vasco* bilduman argitaratu zuan, 672 zenbakian.

O - rain pa - ra bi -
ai - tut A - ge - da - ren kau - sak, pro -
pi - naz el - du zaiz - ka au -
ke - ra - ko gau - zak; za - pa - ta txar - o -
la - tu zi - la - rrez - ko ble -
txak, man - ta - lin se - daz - ko - a en -



Trabaleku baserria.

ka - je - a bel - tza; da -
ma o - rren gra - du - a - ri to -
ka - tu - tzen zaiz - ka.

* * *

Errenteriko 1857 urteko *Padrón Municipal*^oean, bizi-lagun auek ageri dira Trabaleku baserrian: Agustin Goñi Urbieta, irurogei ta iru urte, alarguna, nekazaria; Frantzisko, semea, ogei ta amar urte, ezkongaiia; Maria, alaba, ogei ta zortzi urte, ezkongaiia; Ageda, alaba, ogei urte, ezkongaiia.

Xenpelarrekin auzo ez-ezik, adiñez ere kide xamarra zan, beraz, Ageda au.

1861-ekoan, berriz, Agedaren bigarren deitura ere badator: Ageda Goñi Jaunenea. Baiña lau urte pasatuagatik, bat bakarrik eransten diote. Emakume askoren ametsa! Ogei ta bat urte omen ditu orain. Eta irakurtzen eta idazten etzekiala esaten da.

* * *

Oiartzungo Larraburu baserriko Joxepa Arbelaitz andreak beste argibide auek eman zizkigun:

Ageda esposatu zan, eta senarra eta bere aizpa neskazaar batekin bizi zan.

Nunbait ere gizonarekin zerbait

izan zuten, eta bi aizpak, mendian lanean ari ziran batean, onela esan zioten alkarri:

- Egin bear diñagu zama bat aundia, eta gero prueba egingo diñagu ea guk jasotzen degun. Eta guk bai eta gizonak jasotzen ez badu, orduan seguru gaitun. Asarretzen bada ere, arenak aisa egingo dizkiñagu.

Egin zuten bi aizpen artean zama ori, eta batek artu eta jaso zuan. Orduan esan zion besteari:

- Nik jaso diñat! Ik egin zan prueba!

Eta besteak ere jaso zuan. Baiña, gizona etorri zanean, arek jaso ez! Eta seguru zirala, gizona aisa menderatuko zutela-ta, pozik bi aizpa oiek.

Eta artatikan edo zerbaitengatik beñepein aserretuta, gizona Ameriketara joan zan.

* * *

Bertso auzentzat iturri auek izan ditugu:

Xenpelar'en bertsoak liburua, Makazaga, Errenteri, 1931 urte inguruan.

Oni kopiatu diote bertso auek publikatu dituzten beste guziak:

Bertsolariya astekaria, 34 zenbakia, 1932-III-8.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958.

2. Makazagak: guziyen jabe.

ZERTARAKO ZABILTZA AITZAKIYEN BILLA? XENPELARREK JARRIYAK

- 1/ Dama orrek pausuak
gustaturik dauzki,
eztuela dantzatutzen
zortzikuan gaizki,
egin dualarikan
egiñalik aski,
aspertuko lituzke
orrelako zazpi.

- 2/ Begiratu ederra du,
zankua galanta,
orren gorputzak eztu
ezer ere falta;
begira neskatxa orren
dantzarako planta,
airoso altxatzen du
ezkerreko anka.

- 3/ Nondinai somatzen du
soñua asita,
zergatikan dagueu
ondo ikasita;
pozik egingo niyoke
gabero bixita,
ezpaleuka gelako
atia itxita.

4/ -Pozik utziko nuke
atia irikiya,
etxian ezipagenduke
txakur salatiya;
bakarrik itziten naiz,
banuke tokiya,
enaiz bada mutillen
oso beldurtiya.

5/ -Ori besterik ezipada
zuk dezun beldurra,
dama gaztia, etzait
batere ardura;
artzen baldin badet nik
eskuan egurra,
laister ixilduko det
nik zuen txakurra.

6/ -Txakurra illagatik
kuidadoz, galaia,
bestela askiko nago (*sic*)
zuk eta nik naia;
beti etxian daukat
ama eta anaia,
lua egiten dute
biziro ernaia.

7/ -Ama eta anaia
erretiratxian,
aixa gorde ziñezke
atian atxian;
iñoren beldurrik ez det
nik zure etxian,
etorriko nazaizu
biyar arratsian.

8/ -Eskopeta kargatuta
atian atzian,
anaia an egoten da
ni oiera artian;
etortzen bazerade
zeretzat kaltian,
egon biarko degu
besteren batian.

9/ -Kontuz eruki zazu
ati orren giltza,
iztari asko zure
ondoren dabilta;
ustez emanagatik
ezkontzeko itza,
oraingo mutillakin
kuidaduz zabilta.

10/ -Oraindikan ez daukat
ezkongai sobrerik,
ez aberetsik eta
ain gutxi pobrerik;
biyotzian zarauskat
ondotxo gorderik,
zurekin ezkonduko naiz
ezpadet oberik.

11/ -Neoni joango nitzake
emendik Madrilla,
zu bezelako dama
perpillaren billa;
igual salduko nuke
soñeko armilla,
erositziagatik
zure pantorrilla.

12/ -Abiratzen bazera
emendik Madrilla,
pasa biarko dezu
Burgos ta Abilla;
itzak ederrak eta
amoriyo illa,
zertarako zabilta
aitzakiyen billa?

* * *

Bertso auek *Bertsolariya* astekarian argitaratu ziran, 31 zenbakian, 1932-ko apirillaren 17-an, Xenpelarrenak dirala adierazten duan izenburu orrekin berarekin. Baiña ez du esaten berak nundik artuak dituan.

Guk uste, *Bertsolariya*'n bertsoak oker daude zenbait tokitan, inprentak utseginda-edo. Oker oiek zuzentzen aalegindu gera. *Bertsolariya*'k onela

zion: 2/4: ezer e falta; 2/5: begira neskatxa orrek; 5/7: laister ixildukoet; 6/8: bizidu ernaia; 7/1: Ama ta anaia; 7/6: ni zure etxian; 8/2: atiaren atzian; 8/5: etortzen batzera; 9/5: uste emana-gatik; 11/7: erostiatik.

Irakurlea oartuko zanez, neska-mutil bi alkarrizketan ari dira bertso aue-tan. Jenero ori gaur baiño maizago erabili zan garai batean, bai Bidasoaz onunzko aldean eta bat iparraldean ere.

NESKA GAZTE BATI XENPELARREK JARRIYAK

1/ Intentziyo onaz abiyatzen naiz
dama gazte bat ondratzen,
Mari Bentura dauka graziya,
Erroma zaigu nonbratzen;
milagro aundiz ikusiko da
berri onikan banatzen,
kristau fiñaren amoriyua
ezta orrela mudatzen.

2/ Itzak eder ta biyotza falso,
beti dabilla tranpiyan,
engañatuta erabilli nau
urte bat eta erdiyan;
orain bastante egin diyote
ametitzia erriyan,
sentimentuak paratzen dizkat
eskarmantatu dediyen.

3/ Prenda ederra ori Alkizakua,
Pasaian dago serbitzen,
dama orrengan fiñezekon bat
sekula ezta arkitzen;
klaro egiyak esango ditut,
nork egon nai du aditzen?
Enganiyuan bizitzerikan
eztu legiak agintzen.

4/ Bera izatez Alkizakua,
nagusiya du barbero,
kontseju onak arturik dago
orrendandikan gaur gero;
nabegantiak arraxku txarra
pasa bear duan ezkeru,
utzi dezala agindu diyo
a Nikasio brebero. (*sic*)

5/ Nabegantiak uzten baditu
arrixkuaren beldurrez,
portunaren bat egin lezake
agiyen ere legorrez;
borondatia galdatau niyon,
ni ez nabill indarrez,
gauza guziyak orniturikan
orduko neukan siñalez.

6/ Lendabiziko borondatia
zedorri nizun galdatau,
gurasuaren lizentziya're
bertara juanik logratu;
obligaziyo duan bezela
orain nai diyot ondratu,
edozer gauza esan nazute,
etzera piña portatu.

7/ Amoriyoa deklaraturik
arizuala firmia: (*sic*)
“Arren lenbailen prebeni zaitez,
Jaungoikuaren semia!”
Dilijentzi (y) oik egin nituen
abisaturik jendia,
ongi batetan mudatu zaigu
zure kariño noblia.

8/ Eskarrik asko, dilijentziyaz
ez gera egongo aztuak,
neri pena eman nai dian orrek
pasa ditzala gustuak;
garizuma len irago biar du
etortzekotan Pazkuak,
Jaunak goguan izan ditzala
nik egindako pausuak.

9/ Bost kontu eder jakin biar du
munduan bertsolariyak,
alare ezin atrebitu naiz
deklaratzia guziyak;
ondoren ona ekarriko'izu
or darabiltzun falsiyak,
nik emantako arroia oriyek
ez dira oraindik autsiyak.

10/ Naparruatik Probintziyara
pasatu ziñan orduan,
buru ori bajuagotik
erabillitzen zenduan;
ezer ez eta banidadia
sobra dezu buruan,
zure berriyak jakin ditugu
tratua artu onduan.

11/ Dama orren berri jakin dezaten
Españiyan ta Frantziyan,
beste olako predarik ezta
eguzkiyaren azpiyan;
neroni ere erabilli nau
engañatuta falsiyan,
sentimentuak paratzen dizkat
eskarmentatu dediyan.

* * *

Amabi bertso auek ere *Bertsolariya* astekarian argitaratu ziran, 42 zenbakian, 1932-ko uztaillaren 3-an, or goiko izenburu orrekin berarekin.

Bertsoak ez dira beti ondo ulertzen. Okerrez josita daude. Makazaga, bertsoak txukun kopiatzen zekiana zan. Onek bertso-paperen bati artuko zizkion. Paper ori argitara atera zuan inprentak sartuko zituan, guk uste, utsegite oiek danak.

Pasadizoa Xenpelarri berari ala besteren bati gertatua dan ez dakigu.

Gure iritzirako, bigarrena izango da, eta gero beste orrek, Xenpelarregana joan eta bertsoak para araziko zizkion.

* * *

Inprentaren okerrak zirakoan, ikutu batzuk egin ditugu an eta emen. *Bertsolariya*-n beste onela zegoan: 2/8: eskarmentatu dedilla; 6/2: zedorri nizun galdetu; 6/3: gurasuan lizentziyare; 8/5: gaizuma len irago biar du; 9/5: ondoren ona ekarriko dizu; 10/1: Naparruatik probintziya da; 10/5: ezer ez ta banidadia; 11/4: eguzkiyen azpiyan; 11/5: neronire erabilli nau; 11/10: eskarmentatu dedilla; 12/5: zuregatik izandu ditut.

PASAI SAN JUANGO ZEZENAK

Pasaiko zezenei buruz bi bertso-sail arkitu ditugu: bata, Loiolako Aita Jose Inazio Aranaren bertso-bilduman; bestea, Bonaparterenean. Ez batak eta ez besteak ez dute esaten zein urtetakoak diran.

Ala ere, izan degu aurren eta bigarren zein diran jakiteko era. Sail bateko amairugarren bertsoan onela esaten baita:

esan nuen ote zan
lengo Almirante.

Almirante zezenaren izena zan. Eta bestearen amabigarrenean:

Ayuntamentubari
eman diye parte
balkoyian jarrita
daguela Almirante.

Nabarmen dago, beraz, bi bertso-sail auek zein zeinñen ondoren jarri bear diran.

Sail auei buruz argibide auek eman zizkigun ainbeste denboran Xenpela-

rren illobarekin bizi izana zan Florentina Perez Salaberriak:

“Pasai San Juango plazak aieka batetik itxasoa du, baiña bestetik etxeak. Eta mendi-aiekatik dute sarrera ango etxerik geienak.

Santiago egun batez, zezenak iges egin zuen barrera tartetikan, eta mendi aldera jo.

Jendea, ura libre ikusi zuanean, etxe barrenetara sartu zan; baita zezena ere atzetikan. Orduan danak, nun izkutatuturik etzekitela, oi azprietan eta aal zuten tokietan sartu ziran. Teillatura igoak ere izan bear zuten.

Baiña zezenak usaia-edo aditzen zuan, eta sobrekama eta maindireei tira eta tira asi zan. Traba billatzen zuan, eta orduan eta larriago zezena.

Gero, ixpillu baten aurrera joanda, ura txikitu bearrean asi zan adarrekin kolpeka, an beste zezen bat zuelakoan.

Urrena, balkoira atera omen zan, bere maindire ta sobrekamarekin, eta jende dana kaletik karraxika.

Andik beera noizbait ere jetxi eta jendeari segika asi zan. Batzuek beren burua putzura bota zuten, eta bai zeze-

nak ere berea atzetikan.

Andik atera egingo zuten nola edo ala arakiñak edo norbaitek, baiña ez dakit ori.

Gu ere, neska koxkorretan, Pasaira joaten giñan Santiagotan ango zezenak ikustera, eta Joxepa Antonik, Xenpelarren illobak, onela esaten zigun:

- Gaur ere San Juana al zoazte? Joan, joan! Leen ere an festa pollita pasea da eta zoazte! Or ibilli bearko dezute itxasora zeuen burua bota eta larri! Joan bestela mendira; ikusiko dezute zer daukazuten atzetik: zezena!

Pasaiko gertaera ori bein baño geiagotan kontatu zigun”.

Agian, kontaera polit ontan bi jarri-aldietako gertaerekin bat egiten da.

Baiña Xenpelarren illobak ola kontatzeak bertsoak bere osabarenak izango dirala pentsa arazten digu. Eta ori ondo kontuan artzekoa da, bertsoak ez baitute esaten aita nor duten.

Bigarren saillarengatik, ainbeste alditan bezela, Makazagak esan zuan leenengoz Xenpelarrena dala, 1931 urte inguruan *Xenpelar'en bertsuak* izenarekin argitaratu zuan liburuan.

Seguru aski, orrela jasoko zuan garai artako errenteriar zaarren aotik.

Ondoren, 1958 urtean, *Xenpelar bertsolaria* izeneko liburuan, onela esaten du Luis Jauregi apaiz jaunak:

“Pasaian, Santiago-egunez, xexenak izan oi dira. Orretarako, erriko enparantza Nagusian, esia ipintzen dute. Beste zenbait urtetan bezela, ba, juan zan gure Xenpelar xexenak ikustera egun ortan, ta ara nun esitik salto egin, ta jende-tartera jotzen dun zezenak.

Ango zalaparta ta iskanbilla...! Leen ere, beste urteen batean ori bera gertatu omen zan, ta orduko zezenak Almirante izan izena. Ara emen, leengo Almirante ote zan kezkaz, Xenpelar'ek egindako bertsuak”.

Ez dago, beraz, dudarik bigarren bertso-sailla Xenpelarrena dala esateko. Bañan leenengo bertso-saillaz ez degu iñoren testigantzarik. Ala ere, liburu ontan sartu degu, gai bera daukatelako eta Xenpelarrena izango ote dan susmo egiteko motiborik pranko bada-la iritzirik.

* * *

Jose Manuel Arrizabalo zanak, bere *Baso-mutillak* liburuan (*Auspoa*, 134), beste argibide batzuk ematen dizkigu:

“Gure aititak Andutz mendiko zezenaren istoriak ere kontatzen zituan. Zezen ori Pasaira eraman zuten Andutz menditik, Santiago jaietan.

Pasaian, plazatik barrera tartetik iges egin zuan da oso ixtillu txarrak. Ango kinkilleroak eta jendeak gaizki ibilli zituan; askok itxasora salto egin zuten.

Gure aititak ondo ezagutu zuan zezenaren jabea. Ermu baserria, Arrua errekan dago, Olaberritik bera datorren erreka txikiaren alboan. Baserri txiki xar bat da; oraindik zutik dago, baiña ez da iñor bizi.

Zezen-jabeak bi anai ziran, mutil-zarrak; zapateroak beren ofizioz.

Andutz mendian iru txabola egin zituzten: bat, ardiekin ibiltzeko; alboan beste txabola txiki bat ere bai, ar-

tzaiak lo egiteko; Saletxeko baserriaren parean beste txabola bat, abere aundientzat: zezenentzat eta larre-beientzat. Orain txabola oiek, suerte txarrez, tellatutik bera lurra jota daude.

Anai bi oietan zarrena joan zan Pasaira zezenarekin, eta, zezenarekin allegatu zanean, eman zizkioten iru libra ogi ta litro t'erdi ardo; aiekin asi errezioa artzen, tableroaren gaiñean exerita.

Ala zegoala, zezena eskapatu plazatik, eta jende guzia zezenaren ondolik arrapatu naiean. Zezenak itsasora salto egin eta adarrak bakarrik ageri.

Baiña bakero mutilzar ori lasai tablero gaiñean; ogiak danak jan eta ardoak danak edan arte, ezta mugitu ere. Orregatik esaten du bertso batek:

Arrokatik putzura
sartu da igeri,
adarrak besterikan
etzituz ageri;
bakerua begira
bere zezenari,
exerita jan ditu
iru libra ogi.

Gure aititak ondo zekizkin mutilzar aien ixtilluak. Andutz mendian ere askotan alkarrekin ibiltzen ziran, da alkarri laguntzen zioten zezenak beren txabolara inguratzen-eta.

Ermu zapateroaren bertso oiek gure aititak askotan kantatzen zituan; Xenpelarrek jarriak omen ziran.

Mutilzar oiek oso lasaiak zirala esaten zuan, da ondo ateratzen zutela dirua, zapatak egiñez.

Eun urte pasa badira istori ori ger-tatu zala”.

* * *

El Diario Vasco egunkarian, 1982-ko maiatzaren 30-ean, idazlantxo bat argitaratu zuan Jose Maria Busca Isusi zanak, *El toro “Almirante”* izenarekin; eta, itxura danez, Xenpelarrek aitatzen duan *Almirante* izeneko zezen ori bera da. Onela dio:

“La Tauromaquia Vasca, como Tauromaquia completa que es, tiene además de sus singularidades en el arte de lidiar, raza de toros de lidia e historia, un anecdotario acumulado, en un mundo tan accidentado como el taurino a lo largo de los siglos.

Ahora que ha comenzado la temporada taurina vasca con las festividades de San Juan Bautista, me han venido a la mente algunos hechos peregrinos ocurridos en nuestros cosos, como es el que sucedió en un 15 de agosto de 1858 en la plaza de Pasajes de San Juan.

Ese día se celebraba una corrida en Pasajes de San Juan y se dio en el transcurso de la lidia un hecho curioso que ha pasado a las Tauromaquias.

Fue que el toro navarro “Almirante”, en el curso de la lidia, salió del coso y por la puerta y escalera principal del Ayuntamiento subió al balcón de sesiones y apareció por el balcón.

No causó daño alguno entre el personal.

El erudito José María de Azcona, “el caballero de Tafalla” como le

llamaban los estudiantes vascos con los que se reunía en Madrid hacia los años 35 y 36, decía que, una vez en el balcón, arengó dando mugidos a la muchedumbre.

En este hecho hay dos circunstancias a notar: una es que el festival se celebraba el día de la Virgen de agosto, patrona de San Sebastián; y la otra, que el toro era navarro y no de Jaizkibel, como solían ser muchos de los toros que se lidiaban en la zona por aquella época.

También en la plaza de Vitoria un

toro llamado “Arbolario” saltó al tendido en una corrida de las “blancas” y se paseó por él. Pudo ser sacado a la calle, donde fue rematado a tiros; no causó mayores males, aunque sí grandes sustos.”

Bi bertso-sail auetaz zerbait adierazi digutenak, berriz, Pasai San Juango zezenak Santiagoetan izan oi zirala esan dute. Baiña ori, bearbada, geroko oitura izan diteke; eta Almirante zezenarena, Jose Maria Busca Isusi zanak dionez, agian abuztuko Ama Birjiñetan gertatuko zan.

BERTSO BERRIAK

PASAIKO ZEZENARI JARRIAK

1/ Bertso berri batzuben,
konsola gaitezen,
orain jarri ditugu
oker edo zuzen;
pasatako kontuba
errez da aztutzen
paperian ez bada
ongi apuntatzen.

2/ Pasaiako jendia
ez da biarran,
funtziyo onak egiñez
dago indarrian;
ekusi degunian
festak nola dian,
orra bertso berriyak
zortziko zarrian.

3/ Ez degu bada esan nai
pasatu ez danik,
sekulan ez det ikusi
orlako zezenik;
kontzejubaren onduan
balloian jarririk,
aiuntamentukua
zala uste nuben nik.

- 4/ Nai dubena egiten
obe zaio utzi,
iñork ere nai badu
erri (y) ontan bizi;
elkar botiaz dijua
jendia igesi,
Santiyagoz Pasaian
zezena nagusi.
- 5/ Eskelleretan aisa
jasotzen du anka,
dirurik izan ez da ere
zezenak arrunka;
jendia eziñ eskapatuz
itzulirik kaka,
iñori barkatzeko
mutur ona dauka.
- 6/ Salberarik egin bage
salara isillik,
bat beintzat lagatzian
jarri zan zintzilik,
geldi al bazitekian
sikiera bizirik,
orla saiatu ezker
zerbait merezirik.
- 7/ Bestia an zeguan
oiaren azpiyan,
eztul asko egin bage
nere iritziyan;
orlako konturikan
juan dan aspaldiyan
ez dala pasa nago
gure probintziyan.

8/ Orlako konturikan
ez da iñon pasatzen,
laugarren bizitzara
zezena igo zen;
zergatikan beñere
ez dan konfesatzen,
arrapatzen dubenari
ez diyo barkatzen.

9/ Esplikatu bear det
ekusi dedana,
isillik eziñ egon,
au da gure lana;
Pasaiarako beti
bada zer esana:
irugarren balkoyian
daukate zezena.

10/ Etxi artan ziranak
arriturik daude,
bastante sustatubak
dudarikan gabe;
konfiantzarik iñon
etzuten batere,
eziñ fiyaturikan
telltuban ere.

11/ Batek oju egin zuben
denak sangratzeko,
bazala motibua
sustotik iltzeko;
zezena etzeguan
berriz barkatzeko,
lanzeta zorrotubak
tripatik sartzeko.

12/ Ayuntamentubari
eman diye parte,
balkoyian jarrita
daguela Almirante;
sententziya bereala
atera diyote:
jetxi dedilla andik
inmediatamente.

13/ Aterikan geiago
ez dute irikiko,
eskarmentatu dira
orainguan pijo;
maindiria ostuta
juan da nerekiko,
jakiña zan utsikan
etzala etorriko.

14/ Balkoyian ziranak
ez dira errez gorde,
franko arrapatu ditu
aberats ta pobre;
maindiria ostuta
juan da gero ere,
asaltuan sartuta
sakiua libre.

* * *

Bertso-papera, moldiztegi-izenik
gabea, Bonaparteren bertso-bilduman,
New Library, Chicago.

BERTSO BERRIAK

"PASAIKO PLAZATIK DATOR NOTIZIYA..."

1/ Pasaiako plazatik
dator notiziya:
zezen bat atera da
jenioz biziya;
kantatutzera nua
bistan ikusiya,
konsolatzeko triste
daguén guziya.

2/ Santiago eguna
Pasaian siñale,
allegatu eztanak
egin beza galde;
asiyerañ jendia
zezenaren alde,
azkenian etziran
arrimatu-zale.

3/ Lendabizi plazari
eman diyo jira,
ate baten ondora
joan da ensegida;
al duenak igesi,
bestiak erida,
obia dalakuan
engañatu dira.

4/ Torilletik atera
zuten lendabizi,
bei zar bat giyariya
bandera ta guzi;
arrapatzen zuena
purrakatzen asi,
azkenian plazatik
kanpora igesi.

5/ Gure Pasaia beti
sonatua dago,
errepiñ gabe ezta
urte bat igaro;
urrenguan jarriko
dituztela nago
barrerak estu edo
zezena aundiyago.

6/ Torillo-bazterreko
barrera tartian
zezena pasatu da
kolera batian;
plazatikan kanpuan
zeudenak pakian,
erdiyak purrakatu
ditu anka-pian.

7/ Batek txapela falta,
bestiak txaketa,
lurrian zilipurdi
negar eta buelta;
biria libratzeko
non zeguen beta?
Zezena sartu zaie
kala baioneta.

8/ Iru komerziante
plazatik kanpuan,
fosforo ta barkillo,
labaña tratuan;
parea egon arren
amar oñ altuan,
panparroi juanak dira
putzura saltuan.

9/ Oriek orrela ta
geiago ere bai,
lurrian zilipurdi
egin dute lasai;
ezkon-berriyak eta
zenbat dama-galai,
zezenaren mendean
etzuten jarri nai.

10/ Zezenak laja ditu
lau lagun elbarri,
gañerako erida
jendiak elkarri;
batzuek anka-pian,
al zuenak korri,
urrenguan obe da
segurutik jarri.

11/ Deskuidokua zuten
aurtengo okerra,
etzaie suertatu
ganadu alferra;
orra Pasaiarentzat
onra bat ederra:
zezenak jokatu du
puñalean gerra.

12/ Bi adar badaukazki
bere konturako,
puñal oberik ezta
orren bururako;
jolas-bidia jarri
digu kanturako,
gañera jendiaren
eskarmenturako.

13/ Plazatik atera ta
gatzelura arte
bide zakarra dago
bastante aparte;
begiyak erne zeuzkan,
belarriyak tente,
esan nuen ote zan
lengo Almirante.

14/ Saiatu naiagatik
ori umiltzera,
igual sartuko zan
legoia iltzera;
egiyak esan gabe
ez nua ixiltzera:
arrokkara joan zaie
lanpernak biltzera.

15/ Arrokatik putzura
sartu da igeri,(1)
burua besterikan
etzuen ageri;
bakerua begira
bere zezenari,
eserita jan ditu
libra ta erdi ogi.

16/ Beiarekin kalera
ark zeukan damua,
Lasturkoa zezena,
fiña ta sanua;
geiegi esan gabe
ixiltzera nua,
graziak, Pasaiako

* * *

Bi doiñu bildu ditugu, Pasaiako zezenaren bertso-sail au kanta al izateko.

Lendabizikoa, Erreteriko Makazaga-ren *Xenpelar'en bertsuak* liburuxkatik artu degu.

Bigarrena, berriz, Tolosako Jesus Elosegiren kuaderno batetik.

Pa - sai - a-ko pla-za-tik
da - tor no - ti - zi - ya: ze - zen
bat a - te - ra da je - ni - yoz - bi - zi -
ya; kan - ta - tu - tze - ra nu - a
bis - tan i - ku - si - ya, kon - so -
la - tzeko tris - te da - gu - en - gu - zi - ya.

Pa - sai - a-ko pla-za - tikda - tor no - ti - zi -
ya: ze - zen bat a - te - ra da je - ni - yoz - bi - zi -
ya; kan - ta tu tze - ra nu - a bis - tan i - ku - si -
ya, kon - so - la - tze - ko tris -
te da - gu - en gu - zi - ya.

* * *

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Loiolako Aita Jose Inazio Arana zanaren bertso-bilduman.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren eskuz idatzitako bilduman ere arkitu ditugu bertso auk.

Aldaketak: 3/6: bestiak erdira; 9/1: Jendia ibili du; 9/2: ez biziro lasai; 9/3: udian zilipurdi; 10/1: Zezenak utzi ditu; 13/1: Pasaiatikan Lezo; 13/2: oien bitarte; 13/3: bide zakar bat dago; 14/6: ez nua gelditzera.

Gerra aurreko *Argia* astekarian ere agertu ziran bertso auk, 1931-ko uztaillaren 26-an; baiña aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

Bertso-papera, *Imp. "La Económica, Calle-jón de Arroca, letra B, bajo (Amara)*, Usurbilko Egiluze-txiki baserriko bertso-bilduman.

Onek aurren eta bigarren onako bertso aukeratu:

Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
Pasaian gertatu dan
komeriyari orri;
festak zelebratzeko
zuten eakarri,
makina bat badira
ibilliyak larri.

Ikusi zutenian
zezen ori plazan,
ango konsuelua
ez liteke esan;
Santiagoren onran
erakarriya zan,
erakutsi diyote
jendiari dantzian.

Ondoren, or goien jarri diran bertso aukeratu: 2, 4, 6, 8, 9, 7, 13, 15 eta 15-garrena, orden ortan.

Aldaketak: 4/6: porrokatzen asi; 6/7: erdiyak porrokatu; 7/8: a la bayoneta; 9/1: Oiek guziyak eta; 13/6: bi adarrak tente; 15/1: (Papera zikinduta dago eta ezin irakurri.) 15/2: urian igari; 15/3: bi adarrak besterik.

Urrena, beste bertso bat, baiña papera zikin-duta dago, leen esan degunez. Ezin irakurri dana puntuz idazten degu:

Kanalian pasa zan
Ulia mendira,
Alza aldian...
egiña da jira;
ezin... atu
nai...
azkenian...
ibilliyak dira.

Azkenik, or goiko 10, 5 eta 16-garren bertso-ak, orden ortan. Aldaketak: 5/3: errepaiñ gabe ez-ta; 5/6: urrenguan egingo; 10/3: gañerako eridak;

10/8: seguruan jarri; 16/1: Deskuidua pasa; 16/2: daukadan damua.

Makazaga-ren *Xenpelar'en Bertsu-ak* liburu-
an, onako bederatzi bertso aukeratu: 1, 2, 5,
4, 6, 8, 9, 15 eta 13-garrena, orden ortan.

Aldaketak: 1/1: Pasaia'ko erritik; 1/3: zezen
bat izan dala; 4/7: azkenian kanpora; 4/8: plazatik
igesi; 5/7: barrera estuago edo; 6/1: Torillotik
bazterreko; 6/3: zezena pasa zaie; 8/3: poxpolo ta
barkillo; 8/7: panparroi pasatu zan; 13/1:
Torillotik asita; 13/3: bire kaxkarra dago; 15/1:
Plazatik itxasora; 15/2: salta da igari; 15/3: ada-
rrak besterikan; 15/8: iru libra ogi.

Bertsolariya astekaria, 36-gn. zenbakian,
1932-III-22. Aurrekoa bezelaxe.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertso-laria*,
Kuliska-Sorta, Itxaropena, Zarautz, 1958.
Aurreko biak bezelaxe.

Manuel de Lecuona: *La Poesía Popular
Vasca, Quinto Congreso de Estudios Vascos*,
1930, 1934 urtean argitaratua. Onek zazpi bertso
ditu: 1, 2, 5, 4, 6, 8 eta 15-garrena, orden ortan.

Aldaketak: *Xenpelarren Bertsuak* liburuan
daudenak, aukeratu izan ezik: 1/6: nik an ikusiya;
5/7: barrera estuago edo; 8/7: panparroi pasatu
zan; 8/8: kanpora saltuan.

Tolosako Jesus Elisegi zanaren bertso-bildu-
man, sail ontako amabi bertso. Geiegi ez luzatze-
arren ez degu aldaketarik jartzen. Baiña papera-
ren zikiñagatik erdizka idatzi degun bertsoa emen
onela dago:

Zezen ori pasa da
Ulia mendira,
arraldian barrena
egiña du jira;
ezin erretiratu
bear zan tokira,
azkenian tiroka
ibilliyak dira.

1. Bertso-papera *igesi* dio; baiña gainontze-
ko puntuekin ondo etorriko bada, *igeri* bear du
noski, eta ala idatzi degu.

"FRANTZESAREN IDEAK ..."

1/ Frantzesaren ideak
beti aldrebes,
gaur lau baldin badira
biyar baterez;
aragiya len eltzian,
belar billa baratzian,
kardaberak jate'ituzte
dirubak aitzian.

2/ Frantzesak apetitu
onian daude,
piskatxo bat eginda
lurrera auspez;(1)
aragiya freskua nai,
ardua're arekin bai,
kafia're gustatutzen
diruba baluke.(2)

3/ Arakiñak daukate
marka etxian,
frantzesak emango du
kintzena artzian;
betor, betor egun ura,
pagatzeko milla dura,
badakite nola egin
gorputzaren kura.(3)

- 4/ Kantinera gaisua,
bestiak beste,
alperrik bete'ituzte
amaika este;
asko dabil pegatzeko,
frantzesari fiyatzeko,
alabari jan diote
gero pagatzeko.
- 5/ Polainak badituzte
arroa biña,
lepoan gorbeta ta
kasaka urdiña;
galtza pana moratuak,
alkandora baratuak,
txapela ta relojua
gutxi pagatuak.
- 6/ Frantzesak langilliak
dirala ustez,
pikatxoian asita
lurrera auspez;
gero altxa, txutik jarri,
pipa bana sutu sarri,(4)
egunian ezin ausi
katillu bana arri.
- 7/ Soziedadia're
berak daukate,
Barrabas polsero ta
Judas alkate;
emakume sobatuak,
frantzesakin oratuak,
itz batian esateko
abandonatuak.

- 8/ Goizian jeiki eta
frantzesen lana:
pikatxoiak artu ta
lanera juanda,
segi, segi zeren lanari,(5)
egin arte fuerte ari,
aitormena emango diot
portatzen danari.
- 9/ Oien deboziyua
juduen gisan,
ez dute enredorik
eman elizan;
gogorik ez an sartzeko,
toki txarra mozkortzeko,
bildur dira erori ta
azpiyan artzeko.
- 10/ Frantzesak ibillitu
dirade ongi,
neskatxak engañatuta
aldegiñ emendi;(6)
ikustian jarduten du
ziñukara, aditzen du;
frantzesak jua, neskak emen
bizirik alargun.
- 11/ Lengo egun batian
zan komeriya:
putzura erorita
ito zan iya;
iru txiki sobre erana,
urak berriz beregana,
Antoniok izandu du
ateratzen lana.

12/ Lonjinosek au ziyon:
“Ez juan billa;
frantzesa baldin bada
ito dedilla!”.
Antoniok jun ta eldu,
etzuen nai iñor galdu,
jendiak gaizki esango zun
atera ez balu.

13/ Orra bertsuak jarri
frantzesarentzat,
parterik ez dubenak
ez artu beretzat;
frantzesari beren fama
izango da nork emana,
gorrotorik ez eduki
Senpelarregana.

* * *

Onako au eta urrengo bertso-sailla frantzesen kontra jarriak dira. Frantzes oiek burnibidea egitera etorriak ziran.

Burnibide orri Tolosatik eta Donostiatik eman zioten asiera, 1858-VI-22-an. Andik bost urtera, 1863-IX-1-ean, Beasaindik Donostiraiñokoa estraiñatu zan; urte bereko urriaren 22-an, Bidasoatik Donostiraiñokoa; eta 1864-VII-20-an, Beasaindik Altsasuraiñokoa. Bertso auek, eta bai urrengoak ere, urte oietan moldatuak izango dira, beraz.

Frantzesen oiturak eta emengo jendearenak alkar jotzen zuten nunbait. Ori da Xenpelarren gaia.

Bertsoak, Tolosako Fakundo Adurriaga zanaren eskuz idatzitako bertso-bilduman dauden bezelaxe idatzi ditugu. Adurriaga jaunak txapel-fabrikari egiten zuan lana. Egun batez, min artu

eta eskubiko besoa galdu egin zuan. Andik aurrera *Besamotza* deitu zioten. Ezkerrarekin kopiatuz, bertso-mordo bikaiña osatu zuan.

Iñoiz ere ez du esaten bertsoak nundik artu dituan, eta oraingo ontan ere ez. Ezin jakin, beraz, bertso-papereen batetik ala norbaiten aotik bereganatu zituan.

Adurriagak amabi bertso ditu: 12-garrena ez beste danak; 12-garren ori Erreteriko Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* deritzaion liburutik artu degu.

Beste oar bat: Adurriaga, 11-garren bertsoarekin asten da; itxurarik ere ez du. Guk bertso ori 11-garren tokian jarri degu; urrena, Makazagarena; eta, azkenik, Adurriagaenean 11-garren datorrena, bertso-saillaren erre-matea baita.

Leenengo doiñua Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* liburutik artu degu.

Fran-tse-sa-ren i-de-ak
gaur lau bal-din ba-di-ra

be-ti al-dre-bes a-ra-gi-ya
bi-yar ba-te-rez;

len el-tzi-an, be-lar bi-lla

ba-ra-tzi-an, kar-da-be-rak ja-

te i-tuz-te di-ru-bak ai-tzi-af.

Bigarren doiñua, Arizkunen jaso, Azkueren esku-idatzietatik artua degu:

Fran-tse-sa-ren le-ge-a

be-ti al-re-ves e-gun lau ba-

di-tuz-te bi-ar bat e-re ez

gal tza pa nak ra-ya-tu-ak alkando-ra

bor-da-tu-a txape-la ta er-lo-ju-a

on-gi pa-ra-tu-a.

Irugarren doiñua ere, Otxandion jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Aire de mazorca

Fran-tse-sa-ren le-ge-a

be-ti al-re-ves e-gun lau ba-

di-tuz-te bi-ar bat e-re ez

gal tza pa nak ra-ya-tu-ak alkonda-ra

bor-da-tu-a txape-la ta er-lo-ju-a

on-gi pa-ra-tu-a. Tsintsin

tsin vi-va la Chon-ta vi-va la

Chon-ta Tsintsin tsin vi-va la

Chon-ta vi-va la Prin.

* * *

Txirritaren illoba zan eta berarekin Altzako Gazteluene baserrian amasei bat urtean bizi izan zan Jose Ramon Erauskin Lujanbio zanak beste iru bertso auk eman zizkidan:

Zelaiera juan eta
galtzak erantzi,
dozen erdi bat atso
ejuka asi;
ipurdia azaldua,
beltza eta bizartsua,
inposible etzeukala
alkitranatua.

Frantzes ori asi da
atzia joka,
orduan da geiago
aiek ejuka;
bere ura azalduta,
aietara bueltatuta,
atsu oiek moztutzero
labaña artuta.

Zer pentsaten dezute,
neskatx gaztiak?
Orrela engañatzen
frantzes trastiak;
emakume loratuak
frantzesakin txoratuak,
itz batian bukatzeko:
abandonatuak.

* * *

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bertso-bilduma: 12-garrena ez beste bertso guziak.

Xenpelar'en bertsuak liburua, Errenteria, Makazaga, 1931 urte inguruan argitaratua. Onek sei bertso dakartzki: 1, 3, 5, 11, 12 eta 9-garrena, jarri degun orden ortan. Aldaketak: 1/3: gaur lau baldin baditu; 3/2: taia etxian; 3/3: frantzesak pagatzeko; 3/5: ia betor egun ura; 3/8: gorputzai kura; 5/4: brusa urdiña; 5/5: galtza plana barratuba; 5/6: alkandora loratuba; 5/8: gutxi pagatuba; 9/1: Oien relijiyua; 9/3: konfiantza txikiya, 9/5: itz batian bukatzeko; 9/6: gogorik ez an sartzeko; 11/3: bat putzura erori ta; 11/5: iru txiki sobre dana; 11/6: ura tira beregana.

Bertsolariya astekaria, 1931-XIII-13. Onek aurrekoari kopiatu dio itzez itz.

Berto-papera, *Imp. Macazaga*. - *Rentería*, aurreko biak bezelaxe.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958. Onek ere sei bertso oiek, eta aurreko irurak bezelaxe, toki auetan izan ezik: 3/5: betor, betor egun ura; 3/8: korputzaren kura; 5/5: alkandora barratua; 5/6: galtzak, pana mudatuak; 5/8: gutxi pagatuak; 11/5: iru txiki sobra edana; 11/6: urak tira beregana; 12/6: Longinos'ek auxe zion.

Aita Donostia zanaren bertso-bilduman, makinaz kopiatuta, sei bertso: 5, 1, 3, 11, 9 eta 10-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/1: Frantzes hoiien idea; 1/3: gaur lau balin baituzte; 3/1: Arakiñak baituzte; 3/2: taia etxian; 3/5: pagatuko tuztela; 5/3: gorbata lepoan ta; 5/5: galtza panak mudatuak; 5/6: alkandora loratuak.

9. Frantzes hoiien idea
gaizki den gisan,
traba guti ematen
ditek elizan;
emakume zorratuak,
horiekin doratuak,
hitz batian akabatzeko:
abandonatuak.

10. Josepa Antoni, orain
zer pentsatzen dun?
Kaskoin hoieri segi
goan behar ahal dun?
Hitza eginta ondo jardun,
keñuka're aditzen dun,
zenbeit neska gelditzen dun
bizirik alargun.

Aita Donostia zanaren bertso-bilduman, beste orri batean, iru bertso: 9, 1 eta 5-garrena, orden ortan. Irurak, aurreneko lerroan, aldaketa gogoangarri bana dute: 1/1-2: Kaskoin hoiien ideia bethi alrebes; 5/1-2: Kaskoin hoiiek dituzte arropa finak; 9/1-2: Kaskoin horiek dira yuden gisan.

Onek zera esan nai du: bertso auek Bidasoaz iparraldera ere pasa zirañala. Baita gustatu eta kantatu ere. Denbora berean, arakosoak auzoko zukurrari nola pasa ere ederki eta errez asmatu zuten.

1. Gure iritzirako, puntu au etzuan Adurriagak ondo kopiatu: bearbada 6/3-4 puntua-rekin naastu zan.

2. Puntu au ere duda egin diteke ondo kopiatuta dagoan.

3. Adurriagak emen *gorputzarentzako* idazten du.

4. *Xenpelar Bertsolaria* izeneko liburua argitaratu genduanean, *Auspoa*-ren 88-89-90-ean, 1969 urtean, onela esaten genduan: "Puntu ontan ez da Adurriagaren letra ondo irakurtzen. Dagoan bezela, poto da; ez det uste Xenpelarrek orrela esango zuanik".

Ondoren, 1969-ko abenduaren 8-ko eskutitz batean, onela idatzi zigun Donostiako Enrike Barandiaran jaunak:

"...siempre que la versión que a continuación voy a consignar coincida con el original, y de

ello no puedo aportar desgraciadamente ninguna prueba, salvo que se quiera tomar como tal el hecho de haberlo yo recogido de labios de un tío mío ya fallecido hace cerca de veinte años, está Vd. en lo cierto al afirmar que Xenpelar no habría hecho poto.

Sea de ello lo que fuere, he aquí dicha estrofa tal como ya la conozco..."

Ondoren bertsoa ematen zidan, guk or goien jarri degun bezela. Gure 1969-ko argitaraldian seigarren lerroa *pipa bana lurrez jarri* idatzi genduan, bertso auetarako genduan iturrian ala zegoalako, baiña bertsoan poto egiñez. Orain, berriz, *pipa bana sutu sarri* aldatu degu, Enrike Barandiaran jaunak esan bezela, *poto* ori kenduz.

5. Lerro au luze xamar dago eta duda egin diteke Adurriagak ongi kopiatu zuan.

6. Adurriagaren bilduman: *alde egiñ emendik.*

BURNI-BIDEAK EGITERA ETORRI ZIRAN FRANTZESARI JARRITAKO BERTSOAK

1/ Dozena bat bertsotan
nai nuke esplikatu
zenbat estranjero dan
Españian sartu;
lanbide au oraindik
gutxi det usatu,
uts-egiteak arren
argatik barkatu.

2/ Frantzes asko ill dala
diote Austrian,
beraz ez da onezkero
frantzesik Frantzian;
danak emen ditugu
oraingo aldian,
burnizko bide traste
oien aitzakian.

3/ Frantzes da italiano
kasta oiek nasi,
onera etorri ta
dabiltza nagusi;
pegoiari ederki
lana egin arazi,
berak pikoarekin
beñere ez asi.

4/ Dala listero edo
dala sobrestante,
enpleo eroso bana
geienak badute;
jornalik aundienak
frantzesak dauzkate,
nunbait español danok
tontotzat gauzkate.

5/ Lenago etortzen ziran
ofizialeak
ziran txorrotxalle ta
pertz-konpontzalleak,
titiri-mundi eta
santu-saltzalleak,
gizonik formalenak
txikiratzalleak.

6/ Orain etorri dira
klase danetatik,
bai gizonetzko eta
emakumetatik;
ezin bialdurikan
oriek emendik
ibilli bear degula
deizkiot oraindik.

7/ Badira oien artean
gizon onraduak,
batzuek aberatsak,
besteak bajuak;
baita beste batzuek
erale majuak,
garestitu digute
beñepeñ arduak.

8/ Aspaldian ezin det
kendu nik buruti
urrengo frantzesada
ez degula urruti;
oiek ateratzea
gure erreñuti
kosta bear zaigula
uste det larruti.

9/ Ezagunak dirade
guziak trajean:
lebita ta erlojua
beti gorputzean,
pantaloi lasaiak ta
bizarra okotzean,
beñere etzaie falta
pipa bat ortzean.

10/ Oien lenguajea
ona da berentzat,
munduan dan txarrena
nere ustez guretzat;
ikasiko ez degula
sekulan deritzat,
itzik ere entenditzen
ez diot nik beintzat.

11/ Iñori ere predarik
ez diot nai artu,
argatik aurrerago
ez nuke nai sartu;
baña al daneraño
garbi esplikatu,
egia ez du bear
iñork ere ukatu.

12/ Azkeneko bertsoa
orra allegatu,
esan baño naiago
ez det nai luzatu;
norbaiti ez bazaio
bertso oiek gustatu,
frantzes a ez bada beintzat
bear dit barkatu.

* * *

Izenburuak dionez eta aurreko sail-
larenatik esanda daukagunez, bertso
auek ere frantzesei jarriak dira.

Bertso auek Bilboko *Ibaizabal* al-
dizkarian arkitu genituan, 46-garren
zenbakian, 1902-ko azaroaren 16-ko-
an.

Gero, 1931 urte inguruan, Errente-
riko Makazaga moldiztegiak, bere
Xenpelar'en bertsoak liburuan, sail
ontako iru bertso argitaratu zituan: 2, 4
eta 5-garrena.

Makazagak bertso oiek norbaiten
aotik jasoko zituan Errenterín-edo;
baita Xenpelarrenak zirala ere. Agida-
nean, leengo zaarretatik orrela ikasia
izango zuten garai artako bertsozaleak.

Baiña *Ibaizabal*-en, bertsoen atze-
an, firma bezela, izen-deitura auek da-
toz: *Jose M^a Eleizegi*. Aurretik gurutze
bat dago, seguru asko Eleizegi dalako
ori illa zala adierazteko.

Errenterín galdetu degu *Eleizegi* ori
nor zan; ondo alperrik ordea. Orrela
zeritzan gizonik izan zanik ere ez da
iñor oroitzen. Arritzekoa da, bertso
auek eskatzen duten tamaiñako bertso-
laria mundu ontatik oroipenik utzi ga-
be joana izatea.

Ibaizabal-en urrengo zenbakian,
1902-ko azaroaren 23-koan, beste
bertso-sail bat dator *Eleizegi* orren ize-
nean. Baiña bertso txarrak dira; ez du-
te aurrekoen antzik. Nik ez det uste bi
bertso-sail auek buru batetik sortuak
diranik.

Dana dala, duda pixka bat barrena
sartua degu bertso auek norenak diran.
Baiña, gure iritzirako, *Eleizegi* orren
tajuzko bertsoarik geiago azaltzen ez
dan bitartean, ezin kenduko zaio sail
au Xenpelarri.

Argi geiago bertsoetatik atera gene-
zakela uste det. Bigarrenean onela esa-
ten baita:

Frantzes asko ill dala
diote Austrian...

Frantzia eta Austriaren arteko gerra
ori 1859 urtekoa da, Napoleon iruga-
rrenak iparraldeko Italia Austriaren
mendetik ateratzen italianoei lagundu
zienean. Orregatik, bertso auek gerra
ori ari zala edo bukatu berrian para-
tuak izango dira.

Ain zuzen, 1859 urte ortan Xente-
larrek ogei ta lau urte zituan. Bertsoan
asi berria, beraz, nolana ere; eta ori
oso egoki dator leenengo bertsoan esa-
ten danarekin:

lanbide au oraindik
gutxi det'usatu...

Beste gauza bat: aurreko saillaren bostgarren bertsoan eta beste ontako bederatzigarrenean, frantzesen erlojuak aitatzen dira; ango seigarrenean eta emengo bederatzigarrenean, berriz, pipa, frantzesak nunbait beti ezpaine-tan zeramakitena; ango seigarren eta zortzigarrenean pikatxoia, eta emengo irugarrenean pikoa.

Are geiago: ango zenbait bertsoan Xenpelarrek mozkortzat jotzen ditu frantzes jende oiek; emengo zazpigarrenean, berriz, ardoak ere garesti arazi dituztela esaten da.

Esan bearrik ez dago aukerak danak noren alde dijoazen. Orregatik, dalako *Eleizegi* orren alde beste argibiderik ageri ez dan bitartean, auziaren irabazletzat Xenpelar artu bearrean gaudela derizkiogu.

Leenengo doiñua, Makazaga'ren *Xenpelar'en Bertsoak* liburutik artu degu; eta bigarrena, *Barón de Montevilla*'ren kuaderno batetik.



Do-ze-na bat ber-tso-tan



nai nu-ke es-pli-ka-tu



zen-bat ex-tran-je-ro dan



Es-pa-fii-an sar-tu



lan-bi-de au o-rain-dik



gu-txi det u-sa-tu,



uts-egi-te-ak a-rren



ar-ga-tik bar-ka-tu.



* * *

Ibaizabal astekaria, 46-garren zenbakia, 1902-XI-16-an.

Xenpelar'ren Bertsuak liburua, Makazaga moldiztegia, Errenteria, 1931 urte inguruan. Onek, leen esan bezela, iru bertso: 2, 4 eta 5-garrrena. Aldaketak:

2/ Gizona ta emakume
oraingo aldiyan

geienek emen dira
gure Españiyan,
tren-bire edo traste
oien aitzakiyan,
onezkero iñor asko
ez dago Frantziyan.

Eta: 4/3: zerbait ofiziyo on; 4/7: nunbait es-
pañol danak; 4/8: tontotzat dauzkate; 5/3: txo-
rroskilliak eta; 5/5: tutulumendi edo.

(1867)
BERTSO BERRIAK
SENPELARREK JARRIAK

1/ Bajatu gera graduan,
lengo egunak goguan,
gustora giñan orduan;
bertso berriak jartzera nua
euskeraz eta klaruan;
pasiak dauzkit buruan,
jakin ditzaten munduan,
komeni diran moduan.

2/ Miseriyaren adarrak
dauzkat itzegin biarrak,
eragin ditzadan farrak;
jornal-biderik sanuak eztu,
eskasagua elbarrak;
fameliyetan negarrak,
bajatu dira indarrak,
mantenduko nau gitarrak!

3/ Etsaiak naute tentatu,
obe deala kantatu,
badaukagu zer kontatu;
jan da eran ongi eta gañera
biziyuetan altatu,
lenago gaizki usatu,
orain jornalak bajatu,
askori zaigu gertatu.

4/ Biziyuak galantziyan
daude, nere iritziyan,
mantenuan da jantziyan;
tripak koleran sakeletatik,(1)
ez daude pazientziyan;
jornalak diferentziyan,
len ogei orain zortziyan,
gerrara guaz ontziyan.

5/ Daukagun trantze estua,
lenguak eziñ aztua,
burutik iya nastua;
urte oietan jornaleruak
ebilli degun gustua,
biziyoz aberastua,
jokuak eta kastua,
oraiñ sakela ustua.

6/ Galan nindurin markesa,
maiz tabernarako presa,
oraiñ daukanak ar beza;
nun degu lengo irabaziyak
ematen zigun grandeza?
Falta degunak pobreza,
daukanak utzi nai-eza,
bizi-modu aldrebesa.

7/ Goizian diru kontatzen,
tabernarako plantatzen,
bazkari ona jokatzten;
kafia artuta kopak eranaz
erari fiñak jokatzten;
egiñik eztet ukatzen,
oraiñ ezpañak nekatzen
zardiñ-ezurak txupatzten.

8/ Egin da zenbait kamiyo,
korputzak milla jeniyo,
trabajantiak au diyo:
“Biziyoetan altatu gera
oiek dirala meriyo;
lengo diruak ariyo,
nondik-nai zarpa jariyo,
eztu gezurak baliyo”.

9/ Alperria ta sekantza,(2)
billarreko makil-dantza,
jendiaren alegrantza;
tabernariak ezagutzen du
urte oriyen mudantza;
falta duenak arrantza,
mingañarekin fiyantza,
gero izain du kobrantza.(3)

10/ Zarra bezela gaztia,
bat beziñ oker bestia,
beti barrendik eskia;
lenago janak eztu beteko
utsa dagueen estia;
au gure pena tristia,
nai degu irabaztia,
orrekiñ dago nastia.

11/ Lenago errotariyak,
urrena panaderiyak,
gañera tabernariyak,
gauza eman da kobrantzarik ez,
olian markak jarriyak;
jornalak daude urriyak,
bajatu dira neurriyak,
negarrez gaude erdiyak.

12/ Erraziyua bakandu,
bat eman eta bi kendu,
fameliya eziñ mantendu;
goizetik baru, bazkari txarra,
afari ona berandu;
sakelatik alargundu,
begiratua illundu,
orra gustuak atzendu.

13/ Ezkondu eta ezkongai,
guztiyak ondo bizi nai,
dirua degunian jai;
fameliako buru-zariak
pena geiago ere bai;
len ardua eraten lasai,
oraiñ urrutitik usai,
etxian gaude andre zai.

14/ Miseriyaren artia,
askok badegu partia,
penagarrizko urtia;
iñork nai badu libersiyorik
zabaldu degu atia;
bertsuen errematia,
txanponian billetia,
nork dauka borondatia?

* * *

Bertso auetan, bigarreanean dionez, “miseriyaren adarrak” nolakoak diran azaltzen du Xenpelarrek. Leen ondo bitutua zan langille-jendea; baiña gero, bertso auk jarri ziranean, gaizki zebillen.

Orra zergatik, gure iritzirako: Xenpelarrek frantzesen kontra paratu zituan bertsoak, ain zuzen, or aurrean eskeiñi dizkiogu irakurleari. Frantzes oiek, tren-bidea egitera etorritako teknikoak ziran. Emengo jendea, berriz,

peoitzan jardungo zan. Ori esan naiko dute bertso-lerro auk:

Jornalik aundienak
frantzesak dauzkate,
nunbait español danok
tontotzat gauzkate.

Ala ta guztiz ere, irabazbide politik jasoko zituzten emengotarrak. Baiña langintza ori bukatu zanean, leengo bizimodu estura jetxi bearrean arkitu ziran.

Zortzigarren bertsoan onela dio Xenpellarrek: “Egia da zenbait kamiyo...”. Kamio ori, guk uste, trenbidea da.

Basarrik, *El Diario Vasco* egunkarian, 1979-ko abuztuaren 15-ean, *Mixeriaren adarrak* izenarekin bertso auei buruz idazlan bat argitaratu zuan. Bertatik pasarte auek bereizten ditugu:

“Izenburu egoki au ezarri zien Xenpelar zanak bere bertso ezagun batzuri. Orain baiño lenagotik ere gorabera ederrak izan oi ziran langille artean: urte onak eta txarrak, alegia.

Iparreko (*Norte*) trenbidea egin zanean, Errenderi ta ingurumaritako langille jendea ondo zebillen. Irabazten bazekiten, eta kastatzen ere ikasi egin zuten.

Gero, lantegi ura bukatu ta ezaldia etorri zanean kontuak; orduan agertu zituan mixeriak bere adarrak...

Eziña etorri zanean, “lengo egunak goguan”. Orduan ondo samar oitu, ta denborak aldatu ziranean lenean jarraitzerik ez.

Aspaldiko esaera: “Dagoenean bon bon, ez dagoenean egon”.

Bizioz aberastu ziran nunbait zerbait ugaldimen ikusi zutenean; jokora ta kastura jarri. Sakelak ustu ziranean, utzi egin bear derrigor lengo bizimoduari...”

Xenpellarrek olako mixeririk ezagutu ote zuan? Ez dakigu. Zerbaiten kontra bertsoak moldatzen zituanean, bere burua ere beti tartean sartzan baitzuan. Oitura ori izan dute beti edo geienean

gaiñontzeko bertsolariak ere, iñoren esamesetatik libratzearren-edo.

Moldiztegi-izenaren ondoan esaten denez, bertso auek 1867 urtekoak dira.

Leenengo doiñua Errenteriko Makazagaren *Euskal Erriko Kanta Zarrak* liburuaren *Suplemento Musical*-etik artu degu.

Ez-kon-du e-ta ez-kon-gai gu-zi-yokon-do bi-zi nai;
di-ru-a de-gu-ni-an jai; fa-me-li-ya-ko bu-ru-za-gi-yak gau-za ge-ya-go e-re bai; len ar-du-a e-dan la-sai,
o-raiñ u-rru-ti-tik u-sai; e-txi-an na-go an-dre zai.

Bigarrena eta irugarrena, Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno batetik.

Ba - ja - tu ge - ra gra - du -
 an, len - go e - gu - nak go - gu -
 an, gus - to - ra gi - ñan or - du -
 an; ber - tso be - rri - ak jar - tze - ra
 nu - a eus - ke - raz e - ta kla - ru -
 an; pa - si - ak dauz - kit bu - ru -
 an ja - kin di - tza - ten mun - du -
 an, kome ni di - ran mo - du - an.
 Ba - ja - tu ge - ra gra - du -
 an, len - go e - gu - nak go - gu -
 an, gus - to - ra gi - ñan or - du -
 an; ber - tso be - rri - ak jar - tze - ra

nu - a eus - ke - raz e - ta kla - ru -
 an; pa - si - ak dauz - kit bu - ru -
 an, ja - kin di - tza - ten mun - du -
 an ko - me - ni di - ran mo - du - an.

Laugarrena, berriz, Azkuek dakar bere *Cancionero popular vasco* kantu-tegian, 116 zenbakian.

Goi - ze - an di - ru kon - ta -
 tzen, a - rra - tse - ra - ko gas - ta -
 tzen, baz - ka - ri o - na yo - ka -
 tzen; ka - fe - ak ar - tuzkopak e -
 da - nez e - da - ri fi - nak gar - bi -
 tzen; e - gi - nik ez - tet u - ka -
 tzen, o - rain ez - pai - nak ne - ka -

tzen sardin e - de - rrezbe - to - tzen.

Bostgarrena, Arbizuko Tomas Zabalari jaso, Azkueren esku-idatzietatik artua degu:

Goi - ze-an di-ru kon-ta -
 tzen ta - ber-na - ra-ko pres-ta -
 tzen baz - ka-ri o-nen to-ka -
 tzen ka - fe - a ar - tu
 ko - pak e-danez e - da-ri fi-nak
 joka-tzen e - gi-nik ez-tut u-ka-
 tzen o - raiñ ez - pa-ñak ne-ka -
 tzen txar - di-ña ezurrak txu-patzen.

Seigarrena, ere, Elgoibarren jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Allegretto

Ez - kon-du e-ta ezkongai

guz - ti - ok on - gi bi - zi nai
 rit. Tempo
 di - ru - a de - gu - ne - an jai.
 Fa - mi - li - a - ko bu - ru - za - ri - ak
 e - ta ge - ia - gok e - re bai
 len ar - doa e ra - ten la sai
 o - rain u - rru - ti - tik u sai
 c - txe - an na - go an - dre zai.

Zazpigarrena ere, Oiartzungo Bonifazio Baraibarri jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Allegretto

Ez - kon-du e-ta ezkongai

guz - ti - ok on - do bi - zi nai,
 rit. Tempo

rit. Tempo

di - ru - a de - gu - ne - an jai;

fa - mi - li - a - ko bu - ru - za - ri - ak

e - ta ge - ia - gok e - re bai

len ar - do - a e - ra - ten la - sai

o - rain u - rru - ti - tik u - sai,

e - txo - an gau - de an - dre zai.

da - go gu - re a - gin - ta - ri

o - be - di - tu bear ' be - ra - ri

dau - ka - gu - la - ko gi - a - ri

e - ra - kus - ten fa - mi - lia - ri.

* * *

Bertso-papera, *Irun 1867: Imp. Internacio-nal, a cargo de Santiago Ugarte*", Parisko Liburutegi Nazio-naletik.

Argitaraldi au, 1867-koa izanik, Xenpelarrek berak argitara araziko zuan.

* * *

Argitaraldi osorik ez degu beste iñun arkitu; an eta emen bertso banaka batzuk bai.

Euskal Erriko Kanta Zarrak bildumak, leendabiziko tomoan, 68 orrialdean, iru bertso ditu: 7, 8 eta 13-garrena. Aldaketak: 7/1: Goizian dirua kontatzen; 7/3: bazkari ona topatzen; 7/4: kafiak artu, kopak eranez; 7/5: erari fiñak jokatzen; 7/6: ez dek egiñak ukatzen; 7/8: txardin-ezurra txupatzten; 8/1: Agindu zerbait kamiyo; 8/3: langille danai au diyo; 8/4: biziyueta gertatu gera; 8/5: zu zeralako meriyo; 8/7: non-naitik zarpa jariyo; 13/1: Ezkonduak eta ezkongai; 13/4: familiako buruzalia; 13/5: kontu geiago ere bai; 13/8: etxian nago andre zai.

R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*, 116 zenbakian: zazpigarren bertsoa dakar, bere donuarekin, Naparroako Larraungo Baraibarren jaso. Aldaketak: 7/2: arratserako gastatzen; 7/3: bazkari ona yokatzen; 7/4: kafeak artuz, kopak edanez; 7/5: edari fiñak garbitzen; 7/8: xardin ederrez betetzen.

Zortzigarrena ere, Etxalarko Perpetua Irisarriri jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Allegretto

Be - gi - ra gu - re plan - ta - ri

ber - tso - ak jar - tzen ai - ta - ri

as - te - ra no - a kan - ta - ri

A - rra - zoi - ri - kan ez - pa - da e - re

Aita Donostia zanaren bertso-bilduman, Arjentinatik bialdutako kuaderno batean, sail ontako bi bertso daude, 8 eta 13-garrena, aldaketa auekin: 8/1: Egin da zenbeit ganbio; 8/3: trabajatzia adio; 8/4: bizi moduak altatu dire; 8/7: nondik-nai galtzak jadio; 13/2: guziek ongi bizi nai; 13/3: dirua dugunian jai; 13/6: len ardua eraten nasai; 13/ orai urrutitik usai.

Aita Donostia zanaren bertso-bilduman, makinaz idatzitako orri batzuetan, sail ontako bi bertso, 7 eta 13-garrena, aldaketa auekin: 7/4: bazkaldu eta kafiak hartuz; 7/5: edari finen jokatzen; 7/7: orai ezpainak nekatzen; 7/8: xardin hezurak xupatzen.

Gure iritzirako, beste toki auetan ez daude bertsoak iñongo bertso-paperetik kopiatuak, norbaiten aotik jasota baizik; eta emale auetako iñork ez du esaten bertsoak Xenpelarrenak diranik. Orregatik, pozik egon gindezke bertso-papera Parisen gorde izanaz.

1. Bertso-paperak: *tripa coleran saquelaetatik*.
2. *Alperria* ez dakigu zer dan. Baiña *Sekantza*, Azkuek bere iztegian dionez, zera omen da: "*cierto juego de naipes*".
3. Bertso-paperak: *izani*.

"ASTEN DANIAN FABRIKA..."

1/ Asten danian fabrika,
lenengo nere tunika,
kanposantuan bizituzeko
uraxe jantzita.
Ai zer biaje polita!
Entero nago etsita,
biatza moztu, begiya itxutu,
zankua iraulita.

2/ Illaramendi atzian,
irriyo biren artian,
jendiak fuerte trabajatzen du
fabrika batian,
txit intentziyo latzian,
beatza moztu artian,
larunbatetan sendatzen dira
jornalak artzian.

3/ Orra bestia lazarez, (*sic*)
zapataria da berez,
jira ta bira beti or dabil
gauaz ta egunez;
saiatzen da egiñalez
bere nekian meserez,(1)
gizagaixua bere kargua(2)
galdu bildurrez.

4/ Don Juan Olabiaga jagero, (*sic*)
biotz onekua da entero,
ojos muy finos, cuerpo derecho,
listo ibili gero,(3)

.....
.....
.....
.....

* * *

Iru bertso ta erdi auk Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zana-
ren eskuz idatzitako bilduman arkitu
nituan.

Adurriagak ez du esaten bertso
auk norenak diran. Baiña Erreteriko
Monika Galarragak, Juan Zabaleta
bertsolariaren alargunak, bigarren
bertsoa eman zidan, Xenpelarrena zala
esanez. Bostgarren lerroa beste onela
esaten zuan andre onek:

aritzen dira ardatzian...

Eta urrena, gaiñontzeko bertsoak
guk irakurrita entzutean, oso argibide
jakingarriak eman zituan.

Bertsoetan aitatzen dan fabrika,
Erreteriko Fabrika Aundia omen da,
Xenpelarrek lan egiten zuana.

Fabrika ori, bigarren bertsoak dion
bezela, "irriyo biren artian" dago: ba-
ta, Ugaldetxotik barrena eldu dana,
Oarso edo Oiartzun ibaia deritzana;
bestea, Xamaoko erreka esaten diote-
na. Ez da berez erreka, kanala baizik,
Oarso ibaiari Aranguren baserrian ar-
tzen diotena.

Ur ori, garai artan, Fabrika Aundia-
ren barrena zijoan. Xenpelarren den-
boran, eta gero ere bai, arropak, fabri-
kan euten ziran oialak alegia, uretan
zuritzen ziran. Ortarako bear zuten
erreka ori. Ortaz gañera, oialak mendi-
ra eraman eta iru gautan intzetan eu-
kitzen zituzten. Gero, ordea, kloruroa-
rekin-edo asi ziran zuritzen, eta erreka
ori Papelerak erosi zuan.

Bigarren bertso ortan, "Illarra-
mendi atzian" esaten da. Fabrika orren
bukaeran, Beko Kanean, Illaramendi-
ren panaderia omen zan. Monikak
etzuan ezagutu, baiña entzun bai or
panaderia izana zala.

Irugarren bertsoak onela dio:

Orra bestia lazarez, (*sic*)
zapataria da berez...

Au entzutean, onela esan zuan
Monika Galarraga andreak:

- Lazaro zapataroa da seguru aski.
Aien denborakoa zen ori. Bera aitona-
aitona ezagutu nuen nik. Lazaro zapa-
teroenak esaten diete gaur ere ondo-
rengoci. Bengoetxea dute apellidua.

Erreteriko Jose Goñik esan dida-
nez, berriz, Lazaro zapataroa erriko

kontzejala izan zan 1911 urtean.

Laugarren bertsoan Juan Olabiaga aitutzen da. Ez Monika Galarragak eta ez Jose Goñik etzekiten nor izan zan jaun ori.

* * *

Orioko Andu baserriko Maria Josefa Lertxundi zanari, berriz, sail ontako diruditen beste bi bertso auek jaso nizkion:

Bertso berriyak Tolosan,
Leitzako mutillen bozan,
dibertsiyo bat para dezagun
Eguarriyetan.

Ardua edan plazotan,
dirua guardatu poltsan,
kreditu on bat izan dezagun
taberna zulotan.

Don Joakin ori kajero,
biotz onekua entero,
ojos muy finos, cuerpo derecho,
listo y ligero;
cuando va a dar el dinero,
cuenta clara sin enredo;
yo de mi parte a este hombre
mucho le quiero.

-
1. Esku-idatzian: nekiaren.
 2. Esku-idatzian: gizaixua.
 3. Esku-idatzian: listo ili gero.

BERTSO BERRIAK

MUTIL ZARRAREN BENTAJA

ETA EGI GARBIAK

1/ Dozena bat bertso berri
gaztien konsolagarri
nere mingaña sano dan arte
nai nituzke jarri;
begiratuaz alkarri
andrerik ezin ekarri,
mutil zarraren despeida zer dan
esango det sarri.

2/ Egon zaitezte aditzen
zartuta nola gabiltzen,
gazte denboran ezkondu gabe
erraz da gelditzen;
oraiñ ajiak berritzen,
indarrak ere urritzen,
soldata gabe oraiñ jarri naiz
anaia serbitzen.

3/ Anaiak nauka mendian,
koñata aldamenian,
gazte denboraz akordatzen naiz
sasoia joanian;
ez det gularik janian,
gau ta egun beti lanian,
ondo egin da esker gaiztua
gero azkenian.

4/ Illobak nauka arrotza:
“Ua emendik orrontza!”.
Nekia franko, esker gaiztua,
alimentu otza;
soldata gabe morrontza,
begiratua zorrotza,
animosua ez dago mutill
zarraren biotza.

5/ Iñork nai badu ikasi,
nere librua ikusi:
mutill zarraren testamentua
irakurtzen asi;
illobak dauzkat nagusi,
indarrak juan igesi,
onez aurrera orien mende
biarko det bizi.

6/ Ezurrak zaizkit gogortu,
belarriak ere gortu,
modu onetan mutill zarraren
enbidia nork du?
Andrerik ez nuen artu,
oraiñ anparo biartu,
fraile naita're ezin niteke
komentuan sartu.

7/ Engañatu naiz ederki,
merezi baño obeki,
neskatxak ere ez dirate nai
aterik iriki;
badute milla aitzaki,
gaztiaguak izaki,
estimaziyo txarra nola dan
mutill zarrak daki.

8/ Mutilla bere zarrian,
neskatxak ere indarrian,
egun guzian aien pardelak
nere bizkarrian;
gero illunabarrian
estimaziyo txarrian
ibiltzen naute soñeko galtzak
kendu biarrian.

9/ Lenago erromerian
dama gaztien erdian
jira ta bira ibiltzen nitzan
panparroikerian;
oraiñ tristura begian,
nago estadu erorian,
pipa bat artu ortzian eta
suaren guardian.

10/ Mutill zarraren pobreza
iñork ikusi nai-eza,
eskarmentua duenik bada
konsidera beza;
bakardadeko tristeza,
nork izango ez du pereza:
illobarentzat utzi bearra
bere interesa?

11/ Nik daukadan ganantzia
badaukat nori utzia:
bi alkandora, galtza pare bat,
anaiak autsia;
au da esperientzia,
munduko diferentzia,
mutil zarrari tokatzen zaio
orlako jantzia.

12/ Orra iloba gaztiak
 nola dauzkadan trastiak,
 irabazirik ez du izango
 oiekin sastriak;
 enredo eta nastiak
 orla dagoen tristiak,
 ala ere ezin eskarmentatu
 nerekin bestiak.

13/ Onekin amairugarren,
 premizia edo amarren,
 ondorenguen eskarmentua
 egongo da emen;
 ezkon zaitetze lenbailen,
 sasoia juan baño len,
 orra nik esan mutill zarraren
 istillua zer den.

* * *

Aldaketa bat sartu degu sail ontako izenburuan. Guk eskuratutako bertso-paperik zaarrenetan onela dio: *Bertso berriak mutil zarraren bentaja egi eta garbiak*. Dudarik ez da egi eta eta itzak tokiz aldatuta daudela, esan-naia naaspillatuz.

Sail ontako guregana eldu diran argitaraldiak, Xenpelar il eta askoz geroagokoak dira, zoritxarrez. Oietako zenī kopiatu diogun eta abar, aurreraxea-go adieraziko degu.

Bertso auek Xenpelarrenak dirala, Makazagak esan zuan leenengoz, berak egindako argitaraldietan. Seguru asko, garai artako errenteriar zaarrei orrela entzungo zien. Geroztikako argitaraldi guziak ori bera esan dute.

Leenengo doiñua, Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* liburutik artu degu.

Do ze - na bat ber -
 tso be - rri gaz - ti - en kon - so -
 la - ga - rri ne - re min - ga - fia
 sa - no dan ar - te nai ni - tuz - ke ja -
 rri; be - gi - ra - tu - az al - ka - rri
 an - dre - rik e - zin e - ka - rri,
 mu - til za - rra - ren des - pei - da zer dan



Bigarrena, berriz, Ondarroako Jose Maria Etxaburu jaunaren kuaderno batetik artua da.

Do - ze - na bat ber -

tso be-rrri gaz - ti-en kon-so - la-ga-rrri

ne - re min-ga-fia sa - no dan ar-te

nai ni-tuz-ke ja - rri be - gi-ra-tu-az

al-ka-rrri an - dre-rik e-zin e-ka-rrri

mu - til za-rra-ren des - pei-da zer dan

e - san - go det sa - rri.

* * *

Bertso-sail au ere askotan argitaratua izan da. Baiña argitaraldi guziak bi taldetan banatu ditezke: bata, amairu bertso dituztenak; bestea, Erreteriko Makazagak ateratakoari kopiatu eta amabi bertso dituztenak.

Leenengo taldearen argitaraldiak:

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "Imprenta y Librería de Elosu - Durango", Joakin Ganborena Zabala, Erreteria.

Bertso-papera, "Imp. de S. de Diego. - Eibar", Jertrudis Arrieta Urdanpilleta, Erreteria.

Bertso-papera, "Rentería - Tip. Vda. Valverde", Anizeto Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donostia.

Bertso-papera, "Guernica. - Imp. de Goitia y Compañía", Gregorio Mujikaren bilduma, Donostia.

Bertso-papera, "Guernica: A. de Goitia y Compañía", Pepe Bolunburu, Soraluze.

Bertso-papera, "Guernica. - Imp. de Goitia y Compañía", Erreteriko Enrike Elizetxearen bilduma.

Bertso-papera, "Guernica - Imp. Artística Goitia y Hormaechea", Sebero Altube, Gernika.

Argitaraldi aukeratu berdin dauzkate bertso guziak, irugarren aitatu dan Eibarko orrek azken puntuan izan ezik. Onela du: *izpillua zer den*.

Eskuratu ditugun argitaraldirik zaarrenak auetan dauden ezker, auei kopiatu dizkiegu bertsoak, lau tokitan izan ezik. Onela diote: 7/5: banuen milla adiski; 7/6: kastiguak zaizkit asi; 8/1: Mutillak beren sasoian; 11/4: anaiak utzia.

Leenengo irurak puntua galtzen dute; irugarrenak, berriz, pote egiten du. Ala, dudarik ez da, moldiztegiaren utsegitez-edo, oker daudela. Orrengatik, beste argitaraldiak dioten bezela jarri dugu toki auetan.

Bigarren taldearen argitaraldiak:

Xenpelar'en Bertsoak liburua, Makazaga, Erreteria, 1931 urte inguruan.

Bertsolariya astekaria, 17 zenbakian, 1932-I-10.

Bertso-papera, "Imp. Macazaga - Rentería"; ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "Imp. Macazaga - Rentería", Adelfina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia.

Euskal Erriko Kanta Zarrak bilduma, Tomo I.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958.

Euskal Kantak bilduma, Donostia, 1959.

Talde ontako argitaraldien aldaketak:

1/7: mutill zarren despeida zer dan; 2/5: ajiak zaizkit berritzen; 2/6: eta indarrak urritzen; 2/7: orain jarri naiz soldata gabe; 4/1: Koñatak nauka arrotza; 4/4: ta alimentu otza; 5/1: Iñork nai badu ikusi; 5/2: nere librua ikasi; 5/3: nekia pranko esker gaiztua; 5/4: ta alimentu gutxi; 5/5: anaia daukat nagusi; 5/6: indarrak juanak igasi; 5/7: ontaz aurrera oien mendian; 6/4: inbiriya nork ditu; 7/1: Orain galdu naiz ederki; 8/2: neskatxakin indarrarian; 8/3: egun guztiyak oien pardelak; 9/3: jira ta buelta ibiltzen nitzan; 9/6: nago estadu urriyan; 10/5: auxen da nere bajeza; 11/2: badago zeñi utziya; 11/8: olako jantziya; 12/2: mutill zarraren trastiak; 12/5: zimurtu zaizkit estiak; 12/6: begiyak dauzkat tristiak; 12/7: eskarmentua izan zazute.

Gure iritzirako, aldaketa auek zera esan nai dute:

Makazagak etzituala bertso auek iñongo pa-peretatik kopiatu, norbaiten aotik jaso baizik.

Esan bezela, talde ontako argitaraldiak amai-rugarren bertsoa falta dute. Ontaz gañera, besteak orden ontan dauzkate: 1, 2, 3, 5, 6, 4, 9, 7, 8, 10, 11 eta 12-garrena.

Badira beste iru argitaraldi, gauza guziak bigarren taldekoak bezela dauzkatena, toki auetan izan ezik: 1/7: mutill zarraren despeida zer dan; 2/3: gazte dan arte ezkondu gabe; 4/2: Ura emendik arontza; 5/2: nere bertsoak ikasi; 6/4: inbiriya nork du; 9/6: nago estadu larriyan; 10/7: illobentzako utzi bearra.

Ona emen zein diran argitaraldi oiek: Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Lasarteko dultzaiña-jotzaille zaarraren etxetik.

Euskal Kantak bilduma, Bilbo, 1960.

Goiz-Argi aldizkaria, 95 zenbakia, 1967-XI.

* * *

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zarenaren eskuz idatzitako bilduman lau bertso auek arkitu ditugu: 1, 8, 6 eta 7-garrena, orden ortan eta aldaketa auekin: 1/3: nere mingañoak al badezake; 1/6: andrearik ez nun ekarri; 6/2: belarriak biak gortu; 7/1: Amolatu nauate ederki; 8/1: Mutillak bere gaztian; 8/2: neskatxakin indarrarian; 8/4: bere bizkarrian; 8/7: ibiltzen dute soñeko galtzak.

Eta bestetan arkitu ez degun onako bertso auere bai:

Mutill zarraren bentia
ezer badauka kentzia;
galtza zarraren zulotik maiz da
larrua agiri,
konpontzallia urruti,
ala ez iñor erruki;
estimaziyo txarrian dabil
mutill zarra beti.

Ziur aski au ez da bertso bat, biren puskak alkarri erantsiak baizik.

Irugarren lerroan *naiz* zion; ala bear dualakotan, *maiz* idatzi degu.

BERTSO BERRIAK

"NERE SENARRAREKIN DAUKADAN BIZITZA"

1/ Bertso berri batzuek
euskeraz jartzia,
gustua det neki au
neregan artzia;
ezpanaiz suertatzen
gazterik iltzia,
penagarria daukat
munduko zartzia.

2/ Nere senarrarekin
daukadan bizitza,
kantatuko det iñork
ikasi balitza;
fiña izango zala
eman ziran itza,
akerraren adarrak
bezela gabiltza.

3/ Goizian tabernara
joanda alperrian,
begiyak zintzilikan
erdi negarrian,
ziraldoka etxera
illunabarrian.
gaiztotzen asiya da
ondu biarrian.

- 4/ Tabernatik etxera
orren pausajia,
irrintzi egiteko
badu korajia;
errespetua biar
zuen parajia,
amaren sabelian
aztuta lajia.
- 5/ Lotsak errespetua
dakar jui ziyuan,
laga zuen amaren
abitazi yuan;
salduko nuke nere
ernegazi yuan,
iñork artu nai badu
bere prezzi yuan.
- 6/ Ni engañatu arte
zintzo eta umill,
mingaiñ ederrarekin
berrogei maratill;
oraiñ lana egin bañan
naiago luke ill,
bere ta besterenak
zurrupatzen dabill.
- 7/ Etxian kanporako
aguro kejatu,
daukan ofizi yuan
eztu nai nekatu;
jan da eran ongi eta
jokuan jokatu,
biziyo txarrak iñork
eziñ debekatu.

8/ Mozkortuagatikan
gaitza da erortzen,
lagun gabe etxera
badaki etortzen;
andriak egon biar
bizkarra berotzen,
gizonaren eskutik
azotiak artzen.

9/ Gizon gaztiarentzat
ai zer jeniyuak!
Eztu gustorik gure
matrimoniyuak;
maniya txarrak dauzka
burura iyuak,
eman biarko zaizka
ebanjeliyuak.

10/ Baldin bazenakite
lengo egun batez
nola ekusi deran
gizona suertez...
Neskatxak kortejatzen
dabil borondatez,
andriari jipoia
diruaren partez.

11/ Umiak negarrez ta
nedoni antsika,
gizona mozkortzian
etxian musika;
crantzuten badiyot
kontrako itzika,(1)
nere bizkarrak eztu
sentitzen otzika.

12/ Berez jeniyo txarra,
erariyak nasi,
kanpuan itz ederrak,
barrendik itxusi;
arrapatzen duena
purrakatzen asi,
etxia mugitzen du
zimendo ta guzi.

13/ Barrendik animoso
erdi mozkortzian,
korajia sartzen da
orren biotzian;
gabian eztu emain
pakerik etxian,
luak errenditzen du
pultsuak iltzian.

14/ Gizon ederra daukat
munduan legia,
fandangolaria da
parerik gabia;
lanian gogorik ez,
agindu zalia,
jokalari ona ta
ardo eralia.

15/ Ederra zalakuan
engañatu nitzan,
orain askok badaki
gu nola gabiltzan;
orra bertso berriyak
daukagun bizitzan,
lengo jeniyo txarrak
desanpara ditzan.

Bertso auek, "*Vergaran: Francisco Machain'en moldiztegiuan*" inprentatutako bertso-paper batetik artuak ditugu. Bertso-paper ori Parisko Liburutegi Nazionalean dago, D'Abbadie jaunaren paperetan. Eskuz erantsia, oar gogoangarri au dauka: *reçu en 1869*. Dakigunez, Xen-pelar il zan urtea da ori; argitaraldia aren denborakoa da, beraz.

Irugarren bertsoak "goizian tabernara joan da alperrian" dio. Ez du *alperkerian* esan nai. *Alperrian* karta-jokoren bat edo olako zerbait zan. *Bajatu gera graduan* asten da saillaren bederatzigarrenean *alperrian ta sekantza* aitatzen dira, eta *sekantza* karta-joko bat omen zan.

Bertso-paper ontan ez da Xenpelarren izena agiri. Arenak dirala leenengo esan zuana, Errenteriko Makazaga

izan zan, 1931 urte inguruan *Xenpelar'en Bertsuak* izenburuarekin argitaratu zuan liburutxoan. Arrezkeroztik, ala esan dute Makazagari kopiatuta bertso auek publikatu dituzten argitaraldi guziak. Auek zein diran aurrerago esango degu.

Bergarako paperak, irakurleak ikusi duanez, amabost bertso ditu; Makazagak eta beraren kopiatzailleak, amabi bakarrik. Oietatik zortzi, leenengo zortziak alegia, Bergarako 2, 9, 10, 6, 3, 4, 8 eta 11-garrena dira, beste orden ortan eta, aurrerago azalduko degunez, aldaketa askorekin. Gaiñontzekoak berriak dira; Bergarakoan ez daudenak, alegia. Ona emen bertso oiek, orain artekoak 15-garren zenbakiarekin bukatzen baziran, emendik aurrerakoak 16-garrenarekin asita.

16/ Beste lau lagunekiñ
bat aguazilla,
jokuan galdutako
txerriaren billa;
ate baztarretikan(2)
oien eskamilla:
"Andria etxian bada
azaldu dedilla!".

17/ Arriturik begirik
ez niyoten jaso,
odolak ur biyurtu
zitzaizkidan oso;
nere txerri gaxua
ostatura preso,
senarraren jokua(3)
izan dala kaso.

18/ Ixillik pasa nuben
nere barrenian,
au ere egin biar
zuben azkenian!
“Beste jaberik badu,
bire zuzenian,
jaunak, eramazute
nai dezutenian!”.

19/ Esku-aldaba zuen
txerriyak izena,
bost arrua ta erdi,
bastante gizona;
ura jokuan galdu,
gañera kintzena,
orra nere senarra


Gure iritzirako, lau bertso auek beste sail batekoak dira; eta bai leengoak eta bai auek, ez ditu Makazagak paperetatik kopiatuak, norbaiten aotik jasoak baizik. Eta, guziok ongi daki-guna, uste gabean bada ere, memoriak gauzak naastu eta aldatu egiten ditu urteen buruan.

Makazagak bertsoen aurretik doi-ñua dakar. Ori ere kopiatu diote geroztikako zenbait argitaraldik. Baita guk ere gaurko ontan.

* * *

Leenengo doiñua, Errenteriko Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* liburutik artu degu.

Bigarrena, berriz, Oiartzungo Inazio Pikabeak kantatu eta Manuel Yaben eta Anbroisio Zatarain jaunak magnetofonotik entzun eta paperean idatzia da.



Ber - tso be - ri ba -
tzu - ek eus - ke - raz jar - tzi - a, gus -
tu - a det ne - ki au ne - re - gan ar - tzi -
a; ez - pa - naiz su - er - ta - tzen gaz -
te - rik il - tzi - a, pe - na - ga - rri - ya
daukat mun - du - ko zar - tzi - a.

Ber - tso be - rri ba -
 tzu-ek eus - ke-raz jar-tzi - a,
 gus - tu - a det ne - ki au ne -
 re - gan ar - tzi - a;
 ez - pa-naiz su-er - ta-tzen gaz-
 te - rik il - tzi - a,
 pe - na-ga - rri - ya dau-kat mun-
 du - ko zar - tzi - a.

* * *

Bertso-papera, "Vergaran: Francisco Maria Machain'en moldiztegiuan" Parisko Liburutegi Nazionalen, D'Abbadie jauna zanaren papere-tan.

Xenpelar'en Bertsuak liburuska, "Makaza-ga'ren Irarkolan / Biteri, 32 / Errenderi", uste degunez, 1931 urte inguruan argitara emana.

Aldaketak: Izenburua: Andre gaxuen penak. Bere leenengo zortzi bertsoen aldaketak, Bergarako bertso-paperearen zenbakiekin: 2/4: ikasi al ba litza; 2/5: piña izango zala; 3/2: juan da alperrian; 3/3: begi bat txintxilikan; 3/7: gaiz-

totzen asi da; 6/2: txintxo eta umill; 6/5: oraiñ la-na egin baño; 8/2: zalla da erortzen; 8/3: bakarri-kan badaki; 8/4: etxera etortzen; 8/7: senarraren eskutik; 9/1: Nere senarrak daukaz; 9/2: ki ijeni-yuak; 9/5: mani gaiztuak dauzka; 10/3: nola ikusi dedan; 11/1: Umiak karraxiyan; 11/2: neroni an-tsika; 11/3: senarra mozkortzian; 11/8: izaten ot-zika.

Besterik esaten ez bada, liburuxka oni kopia-tu diote beste argitaraldi auk:

Bertsolariya aldizkaria, Erretereria, 12 zen-ba-kia, 1931-XII-6.

Bertso-papera, "Imp. Macazaga / Rentería", Makazagarenean jaso. Onek beste aldaketa auk ere bai: 3/5: okertuta etxera; 3/7: gaiztotzen asi da oi; 9/1: Nere senarrak ditu; 9/2: bere jeni-yuak.

Euskal Erriko Kanta Zarrak bilduma, biga-rren tomoa, 147 orrialdea, Makazagarenean in-pretatua.

Jauregi'tar Luis - Jautarkol: Xenpelar Bertsolaria, Kulixka Sorta, Itxaropena argitalda-ria, Zarautz, 1958. Onek beste aldaketa au ere bai: 3/7: gaiztotutzen ari da.

Euskal Kantak bilduma, Donostia, 1959.

Euskal Kantak bilduma, Bilbo.

* * *

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Mikaela Labayen, Astaitzaga, Leitza.

Onek amaika bertso ditu, orden ontan: lee-nengo, bertso berri bat; ondoren, 3, 4, 5, 19, 16, 17 eta 18-garrena; urrena, beste bertso berri bat; eta, azkenik, 2 eta 11.

Ona bi bertso berri oiek eta gaiñontzekoen al-daketak:

Bi bertso berri oiek leenik:

Kantatutzeroa nua
 milla sentimentu,
 nere mingaňak balu
 ainbeste talentu;
 bizi-modu berri bat
 al baneza artu;
 aurtzen senarrarekin
 ez nabil kontentu.

Umiak ezin ditut
jantzi ta mantendu,
errentarentzat neukan
txerriya oraiñ kendu;
orra gaztetasanak
ederki atzendu,
biar eluke frankok
andria artzen du.

etorri; 16/6: aien iskamilla; 16/7: andria etxian
bazan; 16/8: atera zedilla; 17/1: Lotsatuta begi-
rik; 17/2: ezin nuben jaso; 17/5: txerriya damate-
la; 17/6: ostatela preso; 17/8: izan zala kaso;
18/4: ziran azkenian; 18/5: baldin badamazute;
19/1: Nere txerriyak zuben; 19/2: ezcura izena;
19/3: sei arrua t'ardi.

Gaiñontzekoen aldaketak: 2/3: kantatu nizka-
ke; 3/6: iñulabarrian; 4/2: arren pausajia; 5/5: or-
diyuta etxian; 5/6: beti sesiyuan; 5/7: salduko nu-
ke pozik; 5/8: kosta prezियuan; 11/1: Aurra kan sies-
kan negarrez; 16/2: zan aguazilla; 16/5: atietara

-
1. Bertso-paperak: *kontrarako*.
 2. Makazagarenean: *ate baztarretatikan*.
 3. Makazagarenean: *senarren jokua*.

ANDRE TXARREN BENTAJAK

Bertso auek iru tokitan arkitu ditugu: Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren eskuz idatzitako bilduman; Erreteriko Makazaga moldiztegiaren argitaraldietan; eta Irungo Jerardo Ezenarro zanaren bertsoz idatzitako sortan.

Alkarren artean aldaketa aundiak dauzkate. Orregatik, gure iritzirako beintzat, iruretatik inork ere ez du esku artean eduki egilleak atera arazitako bertso-papera; norbaitek buruz zekizkian bezela jaso dituzte bertsoak.

Or goien jarri degun izenburua, *Andre txarren bentajak*, Makazagak bere argitaraldi bati eman ziona da. Izenburutzat zerbait ipiñi bear eta ori aukeratu degu.

Bertso auek Xenpelarrenak dirala, Makazagak esan zuan leenengoz bere *Xenpelar'en Bertsuak* liburuxkan.

Aurrena, Adurriagarenean dauden bertsoak eskeiñiko ditugu, guzira berderatzi, iturririk zaarrena bera baitegu.

Doiñua Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* liburuxkatik artu degu.

'E-gu - na pa - sa ne - ke -
an e - ta e - txe - ra na - to - rre - ni -
an su - baz - ta - rri - an kan - ta -
ri da - go be - ti e - do gei - e - ni - an; a - la -
ba dau - ka be - su - an e - ta se - mi -
a al - de - me - ni - an, ba - da -
ki ba - fian ez du go - go - rik tra - ba -
ja - tze - ko la - ni - an.

- 1/ Eguna pasa nekean eta
etxera natorrenian,
su-baztarrian kantari dago
beti edo geienian;
alaba dauka besuan eta
semea aldamenian,
badaki bañan ez du gogorik
trabajatzeko lanian.

- 2/ Josten da plantxan, bordatzen ere,
nere andreak badaki,
sala frotatzen ikasia da
erdiak bañan obeki;
kozinaria nor alakua,
gauza guzitan egoki,
oiera joanda amarretako
iñork ezin du eraiki.(1)

- 3/ Amarretako jeikitzen bada
armariyua iriki,
arropak artu, amaiketako
apainduko da ederki;
katillu-salda ardoarekin
gorputza sano eduki,
bere burua gobernatzen du
gizona bañan obeki.(2)

- 4/ Seme-alabak mundu onetan
biok ginduen sortu,
nola bear dan badaki bañan
lanerako zait alpertu;
neroni berriz indarrak junda
ajiak zaizkit agertu,
andre-zalia banintzan ere
orra ederki aspertu.

5/ Lengo batian, esango det noiz,
igande-iñulabarra,
nere andria dantzan zebillen,
begira zeudenen farra!
Lanerako gogorik ez bañan
pandangolari azkarra,
baldin neronek ikusi banu
autsiko nion bizkarra.

6/ Dantzatu eta erretirua
gabeko beratzik aldean,
etxera etorrita kantari dago
eserita sukaldean;
ume gaizuak negarrez daude
apariaren galdean,
artua errotan, ogia falta,
jakia berriz kalean.

7/ Maldeziyoka asten naitzaio
koleratzian berari,
txorakeriak utzi ditzala
segitutzeko lanari;
parra ta burla egiten dio
gizonaren esanari,
leziyo ona nork erakutsi
buru gogorra dunari?

8/ Kopeta illun, begia triste
fameliara sartzian,
porru-salda oliorik gabe
gizonarentzat eltzian;
kortesiarik aurrian ez du,
errespetua atzian,
onelakuak maiz izango du
gobiernu txarra etxian.

9/ Aitak egiña nuen ezkontza,
amak nai zuan artzea,
neronek berriz pensatu nuan
aien eskuan jartzea;
andre ederra ezin geiago,
umilla eta dultzea,
surtan jarri ta ezagutzen dek
nolakua dan eltzea.

* * *

Makazagak, bertso auen lenengo argitaraldia, bere *Xenpelar'en Bertsoak* liburuxkan egin zuan.

Urrena, berriz, bertso-paper batean. Ontan aldaketa bakarra arkitu det, eta ura aurreneko bertsoan. Onela asten da:

Milla bederatzireun kunplitu eta berrogei ta zortzi gañera...

Dudarik gabe, urte ori bertso-pape-

ra publikatu zana izango da.

Luis Jauregi apaiz jaunak ere argitaratu zituan bertso auek bere *Xenpelar Bertsolaria* liburuan; baiña Makazagarenean dauden bezelaxe. Orregatik ez ditugu alkarrengandik bereizten.

Makazagak amabost bertso publikatu zituan. Oietatik bost, 2, 3, 5, 6 eta 9-garrena, Adurriagarenean ere daude-nak. Beste amarrak, berriak. Emen guziak eskeintzen ditugu, baita Adurriagak dakarzkianak ere, oso diferente baitaude.

1/ Milla zortzireun irurogei ta laugarren urtian gera, publikatutzen atera nua(3) fameliyaren galera, andre ederra gustatu eta ekarri nuen aldera, bire berriya egiña dauka ganbaratikan kalera.

2/ Aitak egiña nuan ezkontza, amak nai zuen artzia, neronek ere pentsatu nuen aien eskura jartzia; andre ederra eziñ geiago, umilla eta dultzia, surtan jartzian probatutzen da nolakua dan eltzia.

3/ Griña gaixtua, jeniyo txarra
biyotzeraño sartua,
ganbaran daukat kuarto txiki bat(4)
olarekiñ zerratua;
etxiak dauka aldamiyua,(5)
bajuan du tellatua,
andriak andik ateratzen du
tabernarako tratua.

4/ Kapa sonbrero oiek salduta,
etxeko alajeriyak,
gañera berriz ganbaratikan
artuak eta gariyak;
iru eman da zazpi kontatu
auzoko andre Mariyak,(6)
tratuan asko ez dute galdu
orrekiñ tabernariyak.

5/ Andriarekin aserre nabill,
penarik gabe ez nago,
inozentia ezkondu nitzan
engañatuta lenago;
biziyo txarrik ez du deus ere
biar dan baño geiago,
alperra eta apaindu naia,
jolas batian akabo.

6/ Nere andriak josten da plantxan,
bordatzan ere badaki,
sala frotatzen ikasiya da
erdiyak baña obeki;
nekazaritzan orrelakua,
lan guzietan eroki,
oiera juanta amarretako
iñork ezin du eraiki.

7/ Amarretako jeikitzen bada
armariyua iriki,
arropak artu, amaiketako
apainduko da ederki;
katillu-salda arduarekiñ
gorputza sano eduki,
bere burua gobernatzan du
gizona baño obeki.

8/ Alegiñian ari natzaio
pazientziya prestatzen,
dauzkidan penen amarretik bat
ez dizkat minifestatzen;
nere andria ikasiya da
irabaziya gastatzen,
dantzan igual preparatzen zait
baztar guziyak puskatzen.

9/ Lengo batian, esango det noiz,
igande-illunabarra,
nere andria dantzan zebillen,
begira zeudenak parra;
lanian ez du gogorik baña
pandangolari azkarra,
baldiñ neronek ikusi banu
autsiko niyon bizkarra.

10/ Ofiziyo bi onak badauzkat:
igeltsero ta argiña;
irabaziya guardatzeko
andriak buru ariña;
ondo esan da aditu nai ez
emakumiaren griña,
arratserako eskall-buruan
askotan total egiña.

- 11/ Eskall-burutik amildu eta
goitikan beraño zuzen,
lendabiziko pentsatu nuen
eltze zarren bat ote zen;
anka bat zeukan Bitoriyan da
bestia berriz Londresen,
gaur ere ala egongo ziñan
iñor etorri ezpazen.
- 12/ Eldu niyon da an ari nitzan
andria ezin jasorik,
esan ziraten: “Erana dago,
ez egiñ orri kasorik!”.
Total egiña zegoen baño
alare ezurak osorik,
galdetzen zuen: “Plakiyak nago,
ez al da ardo goxorik?”.
- 13/ Egun guziya kanpuan pasa,
etorriko da gabian,
kopeta illun, begiyak zorrotz
sartutzen da sukaldian;
ume gaxuak negarrez daude
apariyaren galdian,
artua errotan, ogiya falta,
jakiya berriz kalian.
- 14/ Uda-partian aita-semiak
aritzen giñan labrantzan,
andria berriz tabernarako
ganbaratikan ardontzan;
nere buruaz erneatuta
Euskalerritik jua nitzan,
orra umiak amaren paltan
gaxuak nola dabilzan.

15/ Arduarekin adiskide ta
gizonarekiñ zapuztu,
gaur ere nere andriarekin
egingo nuke apustu:
botilla aundi bat basorik gabe
baietz seguru ark ustuz;
orretan dago sufiziente,

Irungo Jerardo Ezenarro zanaren bilduman, bertso auetatik zazpi arkitu ditugu: Makazagaren 2, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14-garrena, aldaketa auekin, Makazagaren bertsoekin konparatuta:

2/1: Aitak egiña zuen ezkontza; 2/3: eta nik ere pensatu nuen; 2/4: aren esanan jartzia; 2/7: sutan jarrita ezagutzen da.

10. Etxe bizitza berriya nuen
esposatzeko egiña,
soiñ bat ere bai oialezkua
sastrietan eragiña;
nere isillik oriyek saltzen
emakumiaren griña,
arratserako eskall-buruan
txutik ibilli eziña.

11/1: Eskall-buruan amildu eta; 12/6: ezurrak zeuzkan osorik; 13/1: Dantzatu eta erretirua; 13/2: bederatziaz aldian; 13/3: nere andria kantari dago; 13/4: exerita sukaldian; 13/5: ume gazuak negarrez dare; 14/1: Aita-semiak aritzen giñan; 14/2: uda-partian labrantzan; 14/3: andria berriz ganbaratikan; 14/4: tabernarako arrantzan; 14/7: orra umiak amaren paltaz.

* * *

Luis Dassance zanaren bilduman, berriz, onako lau bertso auek agertu dira eskuz idatzita. Ondotik, firma bezela-edo, onela irakurtzen da: *Perceval Henri*.

Etxe bizitze berri bat noa
esposatzeko egina,

drake bat ere bai oialezkua
sastrietan eragina;
hoikien saltzen ene ixilik
emakumearen grina,
arratserako eskail buruan zagon
xutik ezin ta etzina.(7)

Aita-semiak aritzen ginen
uda partian laborantzan,
andria berriz ganbaratikan
tabernarako arrantzan;
neure buruaz arnegaturik
Eskual-herritik gan nintzan,
horra umiak amaren faltan
gaxuak nola dabilzan.

Gaineko eskailaren burutik
beheko ondorat jo zuzen,
lendabiziko pentsatu nuen
eltze tzarren bat ote zen;
anka bat zaukan Bitorian eta
bertzia berriz Londresen,
orañik ere han egongo zen
nihor etorri ez bazen.

Ene andria andre ona da
gosiaren asetzeko,
eltzekaririk ez du egiten
azarik ez duelako;(8)
merkatuetan esaten diot
landarerik erosteko,
buru sariak ez ditu aski
agorbentzen erosteko.

* * *

Euzkadi egunkariak ere argitaratu zituan ber-

tso auetako batzuk, 1932-ko martxoaren 2-an, baiña oso aldatuta. Bizkaiko bertsozale baten aotik jasota, dudarik gabe. Onela diote:

Atta egiña neban ezkontza,
amak nai zuten artzia,
gero neronek pentsatu nuben
orrek eskura artzia;
orain sei urte ezkondu nintzan
attaren obediente,
andra ederra etxian daukat
ura dala mediante.

Andra ederra ezin geiago,
umilla eta dultzia,
sutan jarritta ezagutzen da
nolangua dan eltzia;
neure andriak probetxurik ez,
maleziya dau sobrate,
seme-alabak sartu leizakez
monja edo estudiante.

Josten da plantxan, bordaten ere,
nire andriak badaki,

.....
erdija baño obeki;
koziñeria nor alangua,
lan guztijan da egoki,
oera juanda amarretako
iñork ezin dau ireki.

Jagitten bada amarretako
armarijua edeki,
erropak artu, apainduko da
amaiketako ederki;
katillu salda ardau fiñakin,
bere gorputza sano euki,
bere burua gobernatzan dau
gixona baño obeki.

Ofeziyo bi onak dittudaz
igeltseru ta argiña,
irabazijak aurreratzeko
andria buru ariña;
bixi-modua ateratzeko
konforme eldu bagiña,
mundu onetan ixango zala
matrimoniño bardiña.

Neu lanetikan etxera noia
bederatzijak aldian,
etxera junda kantatzen dago(9)
jezarririk sukaldian;
ume gaxua negarrez dago
aparijaren galdian,
artua errotan, ogija palta,
jakija berriz kalia.

Agiraketan asten naiako
kolera-aldian berari,
zorokerijak itxi detzala
segittutzeko lanari;
buria ta barrre egitten diyo
gixonaren esanari,
leziño ona ezin ikasi
buru txarra dabenari.

Lanian ondo jakiñagaitik
beti alperren legera,
despedida txarra zeutzako dago
luzaro bixi bagera;

.....
.....
.....
.....

1. Adurriagak *eduki* idazten du; Makazagak
eraiki. Dudarik ez da onela bear duala.

2. Adurriagarenean: *gizonak*.

3. Makazagak: *publikatzen*.

4. Bearbada *dauka* bearko luke.

5. Makazagak: *dauzka*.

6. Makazagak: *azokio*.

7. Esku-idatzian: *etzana*. Punturako *etzina*
bear du noski eta orrela idatzi degu.

8. Bi lerro auek beste onela daude esku-ida-
tzian: *eltzekarik ez du egiten azari ez duelakotz*.

9. *Euzkadi-k nago* idazten du emen. Baiña
dudarik ez da *dago* bear duala, eta orrela ezarri
degu.

BERTSO BERRIAK

SENPELARREK JARRIAK

1/ Bertso bi Euskal-erriyan
jartzeko nago abiyan,
bere andria nola dabillen(1)
beti fanfarroikeriyan,
dantzan ta erromeriyan,
eskarmentatu deriyan,
mudatuko da agiyan.

2/ Kantatzen bear det asi,
nola diraden ikasi;
len interesa franko banuen,
oraiñ juan zaizkit igasi;
andria daukat nagusi,
saltzia luke merezi,
iñork nai balu erosi.

3/ Aparte bizi gerade,
ni izaten naiz mirabe;
len banituen lur da etxiak,
orain gelditu naiz gabe;
andria egin zan jabe,
ganbiyatuak dirade,
ito bear nau alare.

- 4/ Andriak gaitu penatzen,
asi zait abandonatzen;
pazientziya eziñ arturik
bizi naiz ernegatutzen;
nere diruak ondatzen,
errezago da banatzen,
ez nau gaizki engañatzen.
- 5/ Aizazu, Mari Aldarte,
farrandan gastatu arte,
etxiak saldu, diruak urtu,
orain guziontzat kalte;
andria daukat alkate,
errespetua aparte,
engañatua naukate.
- 6/ Badauka kortejantia,
pillo bat balientia;
iñork soñurik aditu gabe
irikitzen du atia,
berak nai duen artia;
atsegin da izatia
orlako borondatia.
- 7/ Ni nago morroi serbitzen,
besteren kargak berdintzen;
andria orla ametitzea
ez du legiak agintzen;
asiyagatik urdintzen
gaztiak diyo segitzen,
nork daki nola dabilten?
- 8/ Matrimoniyo autsiya,
bakarrik nauka utziya;
gizona morroi galtza zarrakin,
andria galaz jantziya;
au gure diferentziya,
nork artu pazientziya?
Nik daukat penitentziya!

- 9/ Eztu tatxa bat bakarra,
mingaña dauka azkarra;
auzora juanta pregonatzen du:
“Erua daukat senarra”.
Aditzen duenak farra,
ai au pena ta negarra!
Asko sufritu bearra!
- 10/ Lenago gabe egondu,
akordatu naiz berandu;
mundu onetan suerte onik
ez da neretzat izandu;
mutillzartu ta ezkondu,
oraiñ andria gallendu,
gaztia bear omen du.
- 11/ Etxera natorrenian,
beti edo geienian
enbusteriyan engañatzen nau
dirua senti dianian;
maleziya barrenian,
eta gero azkenian
jartzeko arren mendian!
- 12/ Kontzientziya garbiya,
entendimentu argiya;
posada y café artu-emana
dauka ikaragarriya;
komerzianta jarriya
sostenitzeko erriya,
nik dakit orren berriya.
- 13/ Andria daukat tratuan,
emanean da artuan;
bere bototik salduko luke
gizona iru kuartuan,
isla batera barkuan,
entregatzeko portuan;
ezta preziyo altuan!

14/ Orra andria koplatu,
Indiyak zaizka tokatu;
gizona ondo ekusi baño
naiago luke urkatu,
iñori eziñ trukatu;
ongi nai degu bukatu:
gaizki esanak barkatu.

Bertso auek, or goiko izenburu orrekin, Donostiako Baroja moldiztegian argitara eman ziran paperetan. Ale bat Barojaenean bertan jaso genduan, eta andik kopiatu ditugu.

Errenteriko Enrike Elizetxea zana-ren bilduman ere arkitu genduan beste ale bat.

Bertso-paper ori Xenpelar il eta ge-roagokoa da, baiña naiko zaarra ala ere.

Sail onek ere senar-emazteen arteko komeriak adierazten dizkigu.

Doiñu au, berriz, Azkuek Orbaize-tan jaso zuan, Jeronimo Erroren aotik, eta bere *Cancionero popular vasco* izeneko kantutegian argitaratu, 644 zenbakian.

an - dre - a e - gin zaut na - gu - si
sal - tze - a lu - ke me - re - zi,
i - flok nai ba - lu c - ro - si.
* * *

Juan Martin Mendikoak, Arizkunen norbaiten aotik jasota, sail ontako bederatziti bertso bialdu zizkigun: 1, 2, 10, 3, 7, 9, 6 eta 14-garrena, orden ortan.

Aldaketak: 1/2: jartzeko nago menian; 1/3: nere andria nola dabilen; 1/4: beti panparroke-rian; 2/4: orai gan zaizkit igesi; 6/7: saltzia badu merezi; 3/2: ni izaten naiz nerabe; 3/3: len bani-tuan lurra ta etxiak; 3/4: orai gelditu naiz gabe; 3/5: andria egin zaut yabe; 3/6: kanbiatuak gera-de; 6/2: pillua balientia; 6/4: edekitzen du atia; 6/7: ai aren borondatia!; 7/2: bertzeren karga ber-dintzen; 7/7: nork daki nola gabiltzen; 9/3: auzo-ra ganta pregonatzen du; 10/2: akordatuaz beran-du; 10/3: mundu onetan neretzat ezta; 10/4: suer-te onik izandu; 10/6: orai andria gallendu; 14/3: gizona ungi ikusi bañan; 14/5: ni ori ezin trukatu; 14/6: unekin nai det bukatu.

Azkuek Orbaizetako Jeronimo Erroren aotik jaso zuan doiñua or goien ezarri degu. Baiña iru bertso ere baditu: 2, 7 eta 11-garrena, aldaketa auekin: 2/2: nola bear den ikasi; 2/5: andrea egin zaut nagusi; 7/3: andrea ola ametitzea; 7/6: gazte-ak dio begitzen; 11/3: enbustieriaz engañatzen nau; 11/4: dirua asmatzen duencan; 11/7: jartzeko aren ganean.

Kan - ta - tzen be - ar det a - si
no - la be - ar den i - ka - si,
len in - te - re - sa fran - ko ba - nu - en,
o - rain joan zaiz - kit i - ga - si.

* * *

Sail ontako sei bertso, 8, 13, 5, 7, 10 eta 6-garrena, orden ortan eta asieran beste bat dutela, bertso-paperetan publikatuta arkitu ditugu.

Baiña or aurrean jarri degun eran sei puntu baldin bazituzten, oraingo ontan zazpi dituzte. Orixe daukate aldaketarik gogoangarriena. Gaiñontzean berdin samar daude.

Ona emen bertso oiek beren izenburuarekin:

- 1/ Andre-zalea naiz nerez,
eta protxua nai berez,
bikaña daukat itxurez;
oiek gogoan dauzkeala
nabil egunez ta gauzez;
ona bai abilidadez,
sasoikua ta edadez,
atso zartutakoa ez.
- 2/ Matrimonio autsia,
bakarrik nauka utzia,
bizi biarko etsia;
gizona morroi zarpa zarrakin,
andria galan jantzia;
ai, au zer diferentzia!
Nork artu pazientzia?
Nik daukat penitentzia!
- 3/ Andrea dabil tratuan,
emanean da artuan,
legorrian da portuan;
bere bototik salduko luke
senarra iru kuartuan,
isla batera barkuan
entregatzeko kontuan;
ez da prezio altuan.
- 4/ Ari zan, Mari Aldarte,
parrandan gastatu arte,
bizi txarrakin parte;
etxea saldu, diruak urtu,
orain guztiontzat kalte;
andrea daukat alkate,
errespetoa aparte,
engañatuta naukate.

5/ Ni nago morroi serbitzen,
besteren kargak berdintzen,
gorputza asko nekatzten;
maitea orla ibillitza
ez du legeak agintzen;
asiagatik urdintzen,
gazteak dio segitzen,
nork daki nola dabilten.

6/ Lenago gabe egondu,
akordatu naiz berandu,
ezin gerade konpondu;
mundu onetan suerte onik
ez da nerretzat izandu;
mutill-zartuta ezkondu,
orain andrea gallendu,
gaztea bear omen du.

7/ Badauka kortejantea,
alperra ta tunantea,
pikaro balientea;
gabetan inork sentitu gabe
irikitze'io atea,
berak nai duen artea;
atsegin da egotea
orlako borondatea.

Esan bezela, zazpi bertso auek paperetan publikatu ziran. Moldiztegiaren izena: "*Imp. Macazaga. - Rentería*". Ondarrabiko Elizgarai baserrian eskuratu genduan.

Beste argitaraldi batzuk:

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Balentin Muguruza, Elosiaga, Azpeitia.

Bertso-papera, "*Imp. Echenagusta. - María Muñoz 8 - Bilbao*", Jose Maria Etxaburu, Ondarrea.

Euskal Erriko Kanta Zarrak liburua, leenengo tomoa, Makazaga, Errenteri.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Euskal Kantak, Bilbao, 1960.

1. Bearbada emen *nere* esan bearko luke; eta *bere* moldiztegiaren utsegiteren bat izango da.

BERTSO BERRIAK SENPELARREK JARRIAK

1/ Agoztuaren ogei ta biyan
para dirate lazua,
kantatutzeko ia daukadan
memoria animosua,
Ondarrabian txalupa bati
gertatu zaio kasua;
bertso berriyak jartzera nua,
badago zeñek jasua.

2/ Probentziyako gobernadore
Gipuzkoako burua,
legiak ongi dakizkiyena,
au da gizon segurua;
onen ordenaz artu genduen
txalupa bat agurua,
guziyak ala izan balute
ametitzeko gogua.

3/ Probentziyako portu geienak
abisatuak ziran-ta,
deliberatu degu jartzia
korajetsua izanta;
alkate jaunak agindu zigun
ofizioak esanta,
amabost lagun Getariyara
presentatzeko *sin falta*.

4/ Amabost lagun txaluparekin
Ondarrabiyan jarriyak,
Getariyara abiyatzian
bederatzi ta erdiyak;
gure txalupa ekusi zuten
zuzen dauzkala neurriyak,
zumaiatarren kontra jartzeko
agindu zigun erriyak.

5/ Txalupa ontzat juzgatu eta
nai bagenduen artzeko,
esan ziguten Zarautza joan ta
geren puntuan jartzeko;
zumaiatarrak izan zirala
gure kontra jokatzeko,
beldur ziraden aiek baño len
premiyua ekartzeko.

6/ Getariyatik Zarautza joan ta
kayian giñaden jarri,
“Ia, mutillak, korajez asi!”
esan geniyon alkarri;
gero mudantza partikular bat
ezpaligute ekarri...
Azkenian zer gertatu zaigun
esango dizutet sarri.

7/ Elkar artuta dudarik gabe
aitzaki billa zebiltzen,
gizon bat deika kaia gañetik
etzen beñere isiltzen;
lagun bi joanta jarri giñaden
aren esanak aditzen:
“Zuen txalupa ametitzia
eztit barrenak agintzen”.

- 8/ Guk beriala esan geniyon:
“Aizazu, adiskiria,
onekiñ ere ezta pasatzen
eragiñ gabe biria”.
Beste batekiñ jokatzeko
utzi nezala neria,
naiago zuen bitorioso
ateratzia beria.
- 9/ Munduan askok agindu naia
badu besteren mayian,
gure txalupa, eztet ukatzen,
ona da bere gayian;
joan dan urtian jokatua da
Donostiyako playian,
aurten orrela erabiltzeko
desanparatu nayian.
- 10/ Askok badegu besteren ona
begiz ekusi eziña,
gure txalupa desanparatu
Ondarrabiyan egiña;
laguntzalliak izan ezkeru
lijerua ta ariña,
kontrariyuak jarriko ziran
motelak izan bagiña.
- 11/ Ondarrabiyan bizi gerade,
iñork nai badu ikasi;
esan goguan daukazutena,
arrokeriyan ez asi;
joan dan urtian galdu zuena
aurten gutxi galerazi,
oraingua zen orduan ere
nai bazuten irabazi.

- 12/ Bizkaiatik bi ekarri eta
badira ontzat emanak,
geiago're bai guriak bañon
luziyaguak ziranak;
probentziyako portuetatik
txalupak ziran esanak,
kanpokuaren biarrik eztu
etxian ona daukanak.
- 13/ Gure txalupa abilla dala
au jendiaren mingaña!,
indarrarekin artutzen zaio
urian bere tamaña;
arraungilliak onak jarrita,
patroia berriz bikaña,
bestela zeñek ondu biar du
aurten egin dan azaña?
- 14/ Getariarrak ontzat emanta
oraiñ oiek debekatu,
irabazteko beldurra zuten,
bestela eziñ kejatu;
barku igualak, eskuak berdiñ,
kondeziyuak markatu,
amabost lagun jarriko gera
iñork nai badu jokatu.
- 15/ Desafiyo au botatzerako
ez naute gutxi biartu,
txalupa jarri berdiñak eta
león-castillo zeñ artu;
probentziyako erri batetik
iñork nai badu agertu,
amabost lagun jarriko gera
zeñ nekezago aspertu.

16/ Gure txalupe subiyeta da (*sic*)
jabiak nai du armatu,
joan dan urtian Atxularrek du
auziya bereganatu;
amasei bertso Ondarrabian
orra euskeraz paratu,
obligatuta esanak dira,
ez inñor inkomodatu.

Bertso auetan, estropada bati buruz
sortutako ixtillu eta esamesak adieraz-
ten dizkigu Xenpelarrek.

Bertso-papera, “*Vergara'n: Fran-
cisco Maria Machain-en moldizte-
guian*” argitaratua, Gregorio Mujika

zanaren bilduman arkitu genduan.

Moldiztegi-izenaren ondotik beste
argibide jakingarri auek ematen dira:
“*Se pueden imprimir / Vergara 23 de
Setiembre de 1865 / El promotor-fiscal
/ Agustín de Villachica*”.

BERTSO BERRIAK

SENPELARREK JARRIAK

1/ Esplikatzera nua
asunto guziya,
kantuz jakin dezaten
Patxiren graziya;
estimaziyo txarra
nago ikusiya,
bañan ez orrengandik
ala mereziya.

2/ Bertso bi paratzeko
artu det ordena,
Manuel Artasoro,
zuretzat aurrena;
kantuz eman didazu
makiña bat pena,
ordañak bialtzia
gauzarik onena.

3/ Arrazoi gabetandik
esan dezun itza
sinistatu duena
etzeguen gaitza;
oraindik ez naiz izan
zure aprendiza,
oriek inprentatzen
zertako zabilta?

4/ Deban jokatzeko
giñan lendabizi,
gizon prudente oiek
dute eragotzi;
biyok alkar artuta
maizter ta nagusi,
nere partetik eztu
iñork galerazi.

5/ Obia zan orrela
jarri ezpazendu,
Motrikuko jendiak
kolera artzen du;
gaizki nai duen batek
gezurra esan du,
ezta gure musika
Markinan izandu.

6/ Bat edo bi ziraden
ekustera juanak,
erriyan geldituak
gañerako danak;
goguan daukazkite
kantuzko esanak,
kulparik gabe autan
ebilli diranak.

7/ *A pecho ta a media*
bentaja neurtua,
oriyetan ninduzun
mendian artua;
zankabera dezula
indar sobratua,
bañan ezta faltako
zeñek jokatua.

8/ Zu Manuel Artasoro,
ni naiz Olabarri,
orra errespuesta
bertsuetan jarri;
zankabe omen zaude
ona izugarri,
badakizu non naizen
nai banazu neurri.

9/ Berrogei ta launa oñ
iru aziyotan,
arruako palanka
tira dezu ortan;
nik ere zuk bezela
aukera baneukan,
galdu nuen ainbeste
allegatu faltan.

10/ Ogei ta zazpi ontza
gutxi gora-bera,
diferentzi onetan
ebilliyak gera;
zuk irabazi eta
neretzat galera,
bañan kantan jartziak
eman dit kolera.

11/ Okela libre dezu,
ardua ere bai,
sozio orrek zuri
eztizu gutxi nai;
indarrarian jarrita
kontrariyuen zai,
fortuna egin dezu
bizitzeko lasai.

12/ Elgoibartar oriyek
aurtengo urtian
gustora irten dira
askoren artian;
motrikoarrak galdu
gerentzat kaltian,
zuen txanda izango da
urrengo batian.

13/ Plazan alkarren kontra
jokatutzen asi,
arriskua zijuan
galdu-irabazi;
Manuel Artasoro
orduak nagusi,
bañan kantak jartzia
ez nuen merezi.

14/ Zerbait esanagatik
izketan elkarri,
nork jakin biar zuen
kantuz gure berri?
Pasatu ez diranak
bertsuetan jarri,
ordañak aditzeko
denbora da sarri.

15/ Bertsolariyak eztu
faltarik izandu,
agindu diyotena
kantuan esan du;
bati graziyak eman,
bestiari kendu,
utsa litzake ala
merezi bagendu.

16/ Debatik asi eta
etxera bitarte,
diruz desafiyoka
asi zaizkit fuerte;
zure lagunak ziran
erregularmente,
injuria aundiyak
egin dizkirate.

17/ Au da nere koleran
esaten dedana:
“Artzekorik al dauka
iñork guregana?
Galdu nuen ta nago
diruak emana,
ondo bizi dedilla
aberastu dana”.

18/ Gizon bat atsegin da
beti ondragarri,
Manuelek badaki
palenkaren berri;
orra emezortzi bertso
amodiyoz jarri,
graziyak Artasoro
eta Elgoibarri.

* * *

Bertso auen gaia, irakurleak ikusi duanez, palanka-apustu bat da.

Manuel Artasoro izeneko batek irabazi du. Galdu duana, Olabarri. Onek zor zuana zintzo pagatzen du: “galdu nuen ta nago diruak emana”. Baiña irabazleak, bertsolari batengana joan eta bertso batzuk jarri arazten dizkio: “agindu diyotena kantuan esan du”. Olabarririk pena artzen du: “bañan kan-

tak jartzia ez nuen merezi”. Eta Xenpelarregana joan eta beste bertso batzuk moldatzea eskatzen dio: “ordañak aditzeko denbora da sarri”.

Zoritxarrez, leenengo bertso-sailla, Manuel Artasorok atera arazi zuana, ez degu osorik arkitu. Sei bertso bai, ordea. Ondoren eskeiñiko dizkiogu irakurleari.

Bigarren saillaren bertsoak, Xenpelarrek moldatuak alegia, Parisko Libu-

rutegi Nazonalean arkitu genituan, "Vergaran 1868. - Imp. de Francisco M. Machain" moldiztegian argitarata emandako paper batean.

Jesus Maria Leizaolak ere argitaratu zituan, bere "1808-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios" liburuan, Editorial Vasca EKIN, Buenos Aires, 1865, 142 orrialdean.

Basarrik, Xenpelarren bertso oiek oiñarri arturik, bi idazlan argitaratu zituan *El Diario Vasco* egunkarian, 1984-eko otsaillaren 8 eta 9-an.

* * *

Gorago adierazi degunez, Xenpelarren bertso auk ordainetan jarriak dira. Leenengo saila Manuel Artasorok jarri zuan, eta sei bertso iritxi dira gure eskuetara.

Oiek 1956 urtean jaso genituan, Leitzako Gorritieneko Maria Josefa Zestauk bialduta. Artean amairu urte zituan onek; eta, aitonak esan eta billobak kopiatuta, iru kuaderno bete zituan bertso zaarrez.

Dudarik gabe, bertso auk papere-tan zabalduko ziran, eta geiago ere izango ziran.

Apustu ontaz onela dio Rafael Agirrek bere *Juegos y deportes vascos* liburuan, 340 orrialdean:

"Palankaris que llegaron a ser figuras de leyenda en el País Vasco fueron Manuel Juaristi "Artazo", del barrio de San Lorenzo, en Elgóibar, y Francisco Olabarrieta, de Motrico. El 31 de marzo de 1868 celebraron en

Marquina una memorable apuesta con la barra de 25 libras de peso. El resultado fue el siguiente:

Manuel Juaristi:

a media vuelta.....43' 3" 1/2

a pecho...50' 2" 1/2

entre piernas...38' 3" 1/2

Francisco Olabarrieta:

a media vuelta..42' 8" 1/2

a pecho...46' 8" 1/2

entre piernas...40' 3"

Resultó ganador en el cómputo total Manuel Juaristi "Artazo".

* * *

Baiña ona emen, besterik gabe, Artasororen sailletik gorde diran sei bertso oiek:

1/ Palenkan goraintziak utzi ditut, Patxi, gure banidadeak bera dira jetxi; gauza ortatik dator alebio gutxi, oraindik nai nioke txapelari eutsi.

2/ Orain sei urte neukan estimaziua, Patxiri erakusten nere apiziua; maiz artutzen genduen ejerziziua, orain azaldu degu operaziua.

3/ Manuel Artasoro,
askok dakiguna,
iru aziotara
berrogei ta launa;
ontz erdi baten faltan
izango da juana,
arroako palenkak
neurtzen du gizona,
badauzka indarra ta
egokitasuna,

4/ Markiñera jua da
giñanean asi,
suerteak emanik
a pecho lenbizi;
ogei ontza bentaja
nezkion ereki,
ortaraño zer naizen
ez naute ikusi,
bajoan uste zana
irten da nagusi.

5/ Motrikotik joan ziran
musika ta guzi,
asi baño len zuen
ustez irabazi;
ikusi duanean
Manuel nagusi,
zortziko eder asko
ez digue asi,
nunbait ark bezela nik
ez nuen merezi.

6/ A median genduan
urrengo asia,
artan ereki nion
bentaja bizia;
irabazten nuela
neukan ekusia,
ankabe ori nuen
erretzxo utzia,
ogei ta zazpi ontza
bentaja guzia.

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berriyak jartzen
orain naiz abiyen,
predikatzeran nua
Euskalerriyen;
betroi bat artu nuen
Ernanin feriyen,
galantziya egingo
zuela agiyen;
tristura begiyen,
beti auleriyen,
ez aren premiyan
nere fameliyan;
Senpelarrek dakizki
Errenteriyen.

2/ Ostegun joan daniaren
amabost Ernaniñ
betroiaren tratua
genduen egiñ:
Inaziyo saltzalle,
erostuna Fermiñ,
emeretzi ezkutu
geniyon eragiñ;
sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuari muziñ,
eztu nai edoziñ;
atzetik biar ditu
zazpi medeziñ.

3/ Informe txarrak dira
orrentzat auzotik:
espalda ateriya,
urgun besotik;
eztula ta antsiya
ukullo zokotik,
desterratuko nuke
nik nere bototik;
amarra lepotik,
grilluak orpotik,
makillaz ondotik
jotzen det gogotik;
etzaio ajolarik
ezerengatik.

4/ Oraindik gaztia da:
ogei ta sei urte;
ernari omen ditu
bost illabete;
nik eztiyot igertzen,
ala esan dute,
gezurra baldin bada
engañatu naute;
aragiya aparte,
ezurretan torpe,
zañak dauzki fuerte,
zeñek nai du merke?
Zikiro baten truka
emango nuke.

5/ Kara iguala du
aurrian ta atzian,
basurdia diruri
zutik jartzian;
konsuelo bat daukat
nere biotzian:
bizirikan gelditzen
bada ilbeltzian,
ori umatzian,
esnia etxian,
gazta abatsian,
gazura arratsian...
Belarrak gizenduko
du maiatzian.

6/ Zure arboletikan
datorren loria,
frutua konserbatzen
pare gabia;
umatzen baldin bada,
ai zer poderia!
Guardatuko diot
bere onoria;
orren koloria
beltza ta moria,
juan zaio floria,
lenago obia;
nere fameliyaren
ondadoria.

7/ Begi bat itxua du,
adar biyak motzak,
krisellua diruri
aren kokotzak;
ikaratutzen gaitu
eztularen otsak,
burlaka asi zaizka
elizatik ontzak;
sano dauzka ortzak,
agiña zorrotzak,
tristura biotzak,
dantzan dabill otzak;
eztiyo onik egin
leku arrotzak.

8/ Borroka dabilela
juan zaizka adarrak,
eziñ sujetaturik
bere indarrak;
lurrera botatzen du
euliyaren kargak,
talentu onak dauzka
nere betroi zarrak;
jendiaren farrak
ez dirare txarrak;
ganaru elbarrak
juntura igarrak;
burruntziya diruri
aren bizkarrak.

9/ Nere betroiak ez du
auko loalia,
egunero nai ezik
ogi-alia;
alare eziñ jaso
lepoko jualia,
buruba makurtuta
zerbaiten galdia;
aren zaldalia
ezta debaldia,
gauza onen zalia,
bizkotxo jalia;
malezi asko duen
arrantzalia.

10/ Buruba jarri zaio
lurrera begira,
belarriyak zintzillik,
ai zer segira!
Albaitero guziyak
ikaratzen dira,
zeñek sendatuko du
orlako erida?
Bajatzen ari da
irutatik bira;
au nere perdira,
nork nai du erdira?
Bañan eztet eman nai
Euskal-errira.

11/ Urtiak gallendu ta
ajiak azaldu,
daukanak obe zuen
artu ezpalu;
etxetikan kanpora
eziñ det bialdu,
joka asten naiz bañan
laister urrikaldu;
aragiya galdu,
larrua ona du,
ezurrak onradu;
frantzesak nai badu,
laban-kirtenetako
obe det saldu.

12/ Orra bertso berriyak
Senpelarrek para,
askok jakin dezala
nere euskara;
ustez alabatu det
betroiaren kara;
ukulluan eztulka
pasatzen du gaba;
au gure ikara,
sano du ijara,
guzi-ya tripara,
orlakua zara;
desterratu nazazu
gezurra bada.

* * *

Betroiaren bertso auk oso ezagunak dira Euskalerrri guzian. Zorionez, argibide gogoangarri batzuk jaso aal izan ditugu Erreterin kanta auei buruz.

Bigarren bertsoan onela esaten da:

Inaziyo saltzalle,
erostuna Fermiñ...

Inaziyo ori nor izan zitekean ez dit iñork ere esan. Bai, ordea, Fermiñ ori nor zan. Fermiñ Errazkin Abalgada omen zituan izen-abizenak. Itzaia zan, eta Xenpelarren etxe berean bizi zana; Madalen kaleko 26-garrenean, alegia.

Ain zuzen, Xenpelarren koiñadua, Jabier Aranberri, aritzen omen zan ukuillura joan eta aren aziendak gobernatzen.

Ostegun batez, peri eguna Ernanin, erri ortara joan omen zan Fermiñ ori, eta Inaziyo dalako orri betroi bat erosi zion.

Batek esan didanez, betroi ona omen zan; baiña bidean, betroia kanpoan utzi eta Fermiñ taberna batean zalarik, trukatu egin zioten.

Erreteriko Enrike Elizetxearen seme Manuelen esku-idatzkitxo batean ere onela irakurtzen da:

“Los compuso Xenpelar a consecuencia de que regresando un anochecer de la feria de Hernani con una hermosa “betroya” que había adquirido en la misma, y habiéndola dejado atada a la puerta de una taberna de Ergobia, mientras estaba refrescando dentro con unos amigos, no se fijó al salir, ya cerrada la noche, que unos ladinos gitanos le habían dado el cambiazto, lle-

vándose su hermosa bestia y dejando en su lugar un verdadero espectro vacuno.

Fue grande su estupefacción a la mañana siguiente, cuando al bajar al establo se encontró con aquella birria de animal que tan magistralmente describe...”

Betroi trukatu orrekin eliz ataritik pasatzean, parra egin zioten apaizak. Alakoxea izanazienda ura! Orregatik esaten omen du Xenpelarrek zazpigarren bertsoan:

burlaka asi zaizka
elizatik ontzak...

Fermiñ Errazkin Abalgada ori 1891 urteko maiatzaren 12-an il zan, Erreterian bertan, Madalen kalean, berrogei ta amalau urterekin, *neumonia*z gaizkituta.

Argibide auk Monika Galarraga, Florentina Perez Salaberria eta Fermiñen ondorengoan aotik jasoak ditugu.


Doiñua, berriz, Makazagaren *Xenpelar'en Bertsuak* liburutik artu degu.



Ber - tso be - rri - ak



jar - tzen o - rain naiz a - bi - yan, pre -



di - ka - tze - ra nu - a Eus - kal - e - rri -



yan; be - troi bat ar - tu nu - en Er -

<h1 style="font-family: cursive;">Herzog Herriak</h1>		
<p><u>1.</u></p> <p>Ulcero berriak jantzien, Crani ungu haliyan, Folicularia nudi, Escal carizyan, Petra bot lanta nuen, Herbanaria fuyans, Calancia trunps, Zuela haquigan, Tristura laguytan, Bot. aulidayan, La sen. perimian, Spha filmeliji, Sempellatae daquirqui, Pecten herian.</p> <p><u>2.</u></p> <p>Chilium jura herian, Aphrodis Hermanian, Petrorian tratur, Gaudium equin, Typho salsabile, Pantana ghermin, Emerita eradic, Panicum magin, Sabotian da min, Mere ase eun, Panicum mucin, Panicum caprin, Stachis bar. ditin, Raspis medicin.</p> <p><u>3.</u></p> <p>Informis characari dya, Opuntia auctic, Equisetum atepiyan, Vegum boetic, Stula ta arbiyan, Urtica uretica, Destortatus nuque, Nix nese rotic, Amara leptic,</p>	<p>Pailuac opotic, Chamaejasme eradic, Fotobulb. gogatic, Equisetum isolanic, Erb. en gatic.</p> <p><u>4.</u></p> <p>Urtica gatica pa, Opuntia sei lante, Equisetum emendic, Bot. illadete, Nix erijot. iguerian, Nix erin dilla, Quercus bot. bada, Equisetum pante, Tragus apante, Equisetum lopye, Tanacetum pante, Ciner. uald. magne, Quercus bot. lante, Equisetum nuque.</p> <p><u>5.</u></p> <p>Copa iguala du, Aurum ta atrian, Prussia dinuic, Zula portian, Convolv. bot. drucal, Mere biotician, Panicum quod d. tron, Panicum ill. collician, Opi unat. dian, Equisetum echian, Sarta abatician, Sarcocolla naraluan, Polanacia quiconduo, Nix Herpetician.</p> <p><u>6.</u></p> <p>Dux arbotalian, Panicum Loria, Panicum consuetian,</p>	<p>Panicum galin, Urtica baldin bada, Acer paderia, Quercus bot, Panicum honoria, Urtica colyca, Panicum la. merical, Panicum rayo floran, Panicum dia, Panicum famelician, Panicum dia.</p> <p><u>7.</u></p> <p>Panicum bot. chua du, Mere bagei mistic, Convolv. drucal, Panicum eritic, Panicum trun. gatic, Panicum loran. mistic, Panicum an. raica, Panicum mistic, Panicum dalill. mistic, Panicum mistic equin, Panicum an. mistic,</p> <p><u>8.</u></p> <p>Panicum tabulata, Panicum raica adharic, Panicum vegetat. mistic, Panicum indiaric, Panicum bot. trondu, Panicum gogatic, Panicum mistic. daurque, Panicum bot. p. rari, Panicum f. mistic, Panicum ch. p. rari, Panicum abharic, Panicum. igaric, Panicum. dinuic, Panicum. mistic.</p>

Esku-idatzia, Bonaparteren esku-idatzietatik.

9.

Nixi tetragae ardu,
 Quis barba,
 Egnoro sui sui,
 Uen alia,
 Ha ene uen jaw,
 Supra pialia
 Nixiuba macrotuta,
 Conpaitin galbia,
 Aren salbalia,
 Lata uolubia,
 Quia onen zalia,
 Pucicho jalia,
 Uglen uera duen
 Inmoralia.

10.

Pucuba jaram zayo,
 Quicra bogura,
 Petramiae cincellie,
 Uer sequora,
 Nixitro quoyae,
 Lecratam uin,
 Uen uen uen uen,
 Urao hunda,
 Pucialon gaida,
 Uentahie tira,
 Ha uera perdia,
 Uen uen uen uen,
 Pucan ardet uen uen,
 Uiscal uen uen.

11.

Uatire gallendusa,
 Ugie al albu,
 Quicraoe de uen,
 Uatu capulu,
 Uehetican campora,
 Uen uen uen uen,
 Uoca arden uen uen,
 Uaiter uen uen uen,
 Uaquiya galbu,
 Uadua oha uen,
 Uuome honadu,
 Uanuciae nai badu.

Lolan quistinetes
 Ue del Uabu.

12.

Com apuo berriae,
 Sempelapae piam,
 Uere jagu uerale,
 Uen uen uen uen,
 Uter alasitidit,
 Uetocpore com,
 Uen uen uen uen,
 Uatzen de gaba,
 Au quae uera,
 Uano de uera,
 Uicija uen uen,
 Ualacua uera,
 Ueterata uen uen,
 Uequeuic badu.

na-nin fe-ri-yan, ga-lan-tzi-ya e-
gin-go zu-e-la a-gi-yan; tris-
tu-ra be-gi-yan, be-ti au-le-ri-
yan, ez a-ren pre-mi-yan ne-
re fa-me-li-yan Sen-pe-la-rrek da-
kiz-ki E-rren-te-ri-yan.

* * *

Donostiako Diputazioan, Bonapar-teren esku-idatzietan, betroiaren bertso aukeratuak idatzita dauzkan orri bat arkitu genduan. Bonaparte 1891 urtean il baitzan, orri au leenagokoa degu; eta arkitu ditugun bertso-paper guziak ge-roagokoak diran ezker, Bonaparteren orri ori degu bertso auen iturririk zaarrena. Bertsoak berari kopiatu dizkio-gu, beraz, falta dituan lerro aukeratuak izan ezik: 7/10, 7/11 eta 8/9.

* * *

Erreteriko Enrike Elizetxearen bilduman ere beste esku-idatzi bat arkitu degu bertso aukeratuak. Aldaketak: 1/1: Bertsoak jarritzeko.

Bertso-papera, Altzoko Olazabal-berri base-rriko Inazio Zabalen eskutik jasoa. Paper onek

puska bat kenduta dauka, eta iru bertso, 4, 8 eta 12-garrena, falta ditu.

Moldiztegi-izena ere puska orrekin batera kendua izango du. Aldaketak: 2/10: iñork esi eziñ; 6/7: guardatu nai diot; 7/7: burlaka ari zaizka; 7/9: sano dauzki ortzak; 9/3: egunero naikua; 10/13: bañan eztet emango; 11/13: labain-kirre-netako.

Bertso-papera, "Imp. de B. Valverde. - Irún", Jertrudis Arrieta Urdanpilleta zana, Erreterria. Aldaketak: 4/5: nik eztet ezagutzen; 4/9: zañak dauzke fuerte; 4/10: lerro au falta du; 4/11: aragi-ya aparte; 7/6: ezulazko ortzak; 7/7: burlaka ari zaizka; 7/9: sano dauzki ortzak; 9/3: egunero naikua; 10/13: bañan eztet emango; 11/13: labain-kirre-netako.

Esku-idatzia, Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman. Aldaketak: 1/1: Bertsoak jarritzeko; 1/3: publika al banitza; 1/8: nubela ari-yan; 1/9: beti lanterian; 1/10: tristura begiyan; 1/13: Sempelarrek daukazki; 2/5: saltzalle Inaziyo; 4/3: ernari omen dauzka; 4/8: enkañatzen naute; 4/9: aragiya korte; 4/11: zañak dauzka fuerte; 6/1: Orren arbolatikan; 6/3: frutubak konserbatzen; 6/5: alabatu nai diyot; 6/6: bere onoria; 6/7: umatzen baldin bada; 6/8: ai zer poderia; 7/7: elizatik burlaka; 7/8: ari zaizka ontzak; 8/5: talentu onak dauzka; 8/6: nere betroi zarrak; 8/7: lurrera botatzen du; 8/8: euli baten kargak; 8/9: ganadu elbarrak; 8/10: junturak igarrak; 8/11: jendiaren parrak; 8/12: ez dirade txarrak; 9/1: Betroiyouk ez dauka; 9/4: gari alia; 9/9: orren zaldalia; 10/13: bañan eztet emango; 11/2: egiak azaldu; 12/3: jendiak jakin dezan; 12/9: sano du ijara; 12/10: guztiya tripara; 12/11: juango zaio ikara.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Getariko Garro baserrian jasoa. Onak bertso guziak aurrekoak bezelaxe.

Bertso-papera, "San Sebastián. - Imp. de C. Salón" Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman. Aldaketak, aurreko paperak dauzkanak.

Manuel de Lekuona: *Literatura oral euskérica* liburua, Euskaltzaleak, Donostia, 1936. Aldaketak, aurreko paperak dauzkanak eta beste aukeratuak: 1/1: Milla zortziregun ta; 1/2: irurogei ta biyan; 1/3: bertso bi jarritzeko; 1/4: nua abiyon;

1/8: nubela agiyan; 1/9: beti auleriyan; 1/10: tris-tura begiyan; 1/13: Xenpelar'ek daukazki; 2/5: saltzalle Inaziyo; 3/9: amarrak lepotik; 4/3: ernari omen dauzka; 4/9: ezurretan torpe; 4/10: zañak dauzka fuerte; 4/11: aragiya aparte; 6/1: Orren ar-bolatikan; 6/3: frutuak konsebatzen; 6/5: Alabatu nai diyot; 6/6: bere onoria; 6/7: umatzen baldin bada; 6/8: ai zer poderia; 7/7: elizatik burlaka; 7/8: ari zaizka ontzak; 7/10: agiñak zorrotzak; 8/5: talentu onak dauzka; 8/6: nere betroi zarrak; 8/7: lurrera botatzen du; 8/8: euli baten kargak; 8/9: ganadu elbarrak; 8/10: junturak igarrak; 8/11: jendiaren parrak; 8/12: ez dirade txarrak; 9/1: Betroi onek ez dauka; 9/4: gari-afia; 9/9: orren zaldalia; 9/11: gauz onen zalia; 10/13: jen-diak jakin dezan; 12/9: sano du ijara; 12/10: guz-tiya tripara; 12/11: juan zaio ikara.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, Donostia, 1966: aurrekoa bezelaxe.

Lekuona'tar Manuel: *Idaz-lan guztiak, I, Aosko literatura: aurrekoa bezelaxe*.

Aita Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, Amorebieta-Larrea, 1954: aurrekoa bezelaxe.

Xenpelar'en bertsuak, Makazaga, Erreñteri, 1931 urte inguruan: 1/1: Milla zortzireun da; 1/2: irurogeita biyan; 1/3: bertso berrik jartzera; 1/4: nua Euskal Erriyan; 1/5: betroi bat erosi det; 1/8: nuela ariyan; 1/10: beti miseriyan; 2/3: betroi ba-ten tratuba; 3/1: Notizi txarrak dira; 3/3: besua ateria; 3/13: eztiyo ajolarik; 4/3: ernari omen dauzka; 4/10: ezurak txit torpe; 4/11: zañak dauzka fuerte; 5/7: bizirik aterako; 6/1: Orren ar-boletikan; 6/7: alabatu nai diyot; 7/7: farra egiten dute; 8/7: gure betroi zarrak; 8/14: orren bizkarrak;

9/9: orren zaldalia; 10/7: ikusi dutenian; 10/8: ark daukan erida; 10/13: baña ez det emango; 11/1: Urtiak juan eta.

Ontaz gaiñera, bertsoak beste orden ontan daude: 1,2,4,6,3,10,7,8,9,5,11 eta 12-garrena. Emendik aurrera aitaturko diran beste argitaraldi guziak ere, orden ortantxe dauzkate bertsoak.

Bertsolariya astekaria, Makazaga, Erreñteri, 1932-I-3: aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, *"Imprenta Macazaga-Rentería"*, Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia: aurrekoa bezelaxe.

Euskal-Kantak, Donostia, 1959: aurrekoa be-zelaxe.

Euskal Erriko Kanta Zarrak, Tomo I: aurre-koa bezelaxe, auek izan ezik: 1/3: bertso bi jarri-teko; 1/4: nua abiyan; 1/8: nubela agiyan; 1/13 Xenpelarrek daukazki.

Jauregi'tar Luis: Xenpelar bertsolaria: aurre-koa bezelaxe, auek izan ezik: 2/5: saltzalle Inaziyo; 3/3: espalda ateria; 8/8: euli baten kar-gak; 12/3: jendiak jakin dezan.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, baiña ziur aski Erreñteriko Makazagarenean inprentu-tua, Orioko Gregoria Ibarгойen zanaren eskutik jasoa. Onek bertso guziak Euskal Erriko kanta zarrak liburuan bezelaxe, auek izan ezik: 12/3: nai duenak erosi; 12/4: badu aukera; 12/12: igo da ganbara; 12/13: an dauden pipar gorri; 12/14: danak jatera.

Zenbait bertsotan lerroak tokiz aldatuta dauz-kate argitaraldi auek. Baiña ori emen esateak leku aundia bearko luke.

(1865)
BERTSO BERRIYAK

1/ Milla zortzireun irutan ogei
au da bostgarren urtian,
dibersiyo bat jartzera nua
gazte jendien artian;
Azentziyoz zan erromeri bat
ermita txiki batian,
bi damatxo an ikusi ditut
ezin pasarik atian.

2/ Eleizan sartu ziradenian
parrez neguen atzetik,
dudarik gabe promesa eginda
juanak ziraden etxetik;
majo on bana eskatzen zuten
lendabiziko itzetik:
“Salbadoriak libra gaitzala
neska zarraren gaitzetik!”.

3/ Manifestatu ziyotenian
zer nai zukien barrendik,
Salbadoriak bere goguan:
“Juan zaitezte emendik!”.
Desiuaren faltan ez dira,
egiya esango det nik:
iñork nai badu oien esposo
ezkongai daude oraindik.

- 4/ Eleiza ortako pasada eginda
eseri ziran soruan,
beren burubak errespetatzen
aundimendiyen moduan;
abanikurik zuten edo ez
orain ez daukat goguan,
zikiñ mantxarrik etzan arkitzen
oriyen belar onduan.
- 5/ Zapatatxuak txabolezkuak,
sedazko soñak gorriyak,
lasaitasunak galdu ez ditzan
kortsiatubak gerriyak;
dremantezko belarrikuak,
begi engañagarriyak,
buruban berriz pañolituak
frantzes moduan jarriyak.
- 6/ Gorputz guziya seda ta zinta,
gerriyan berriz kortsia,
arritzen giñan damatxo oiek
kotxe gabe etortzia;
gustatzen zaigu aundimendiyen
moda berriyak artzia,
baiña oraindik gerta liteke
beste modatan jartzia.
- 7/ “Ara -nigatik esango dute-
pikaro begi luzia!
Gure orduko banidadiaz
kokotzeraño asia!”.
“Aizazu: ez det gezurrik esan,
ala berian pasia;
pobriarentzat ez da komeni
aberatsaren klasia”.

- 8/ Galaz beteta ikusi ditut
erromeriyen bi dama,
eleizarako erropa gabe
etxian aita ta ama;
zori gaiztuan sortu ziraden
alajak eta kabana,
banidadiak familiara
errenta gutxi darama.
- 9/ Birian topo egin nituben,
esan niyoten ariyo;
korresponditu zuten ez dakit,
juan ziraden seriyo;
bati beiñepein gorputz guztitik
sedatu zinta dariyo,
oiek guztiyak kendu ezkerro
koarto bat ez du baliyo.
- 10/ Beste gauzarik ez det gallendu
lupika ta pikardiya,
banidadiak galdu biar du
mundu onetan erdiya;
bestiak beste, oiek daukate
galani izugarriya:
“Lenguen moda juan da eta,
ama, ekatzu berriya!”.
- 11/ Ama gaiztuak au adituta
nola artu pazientziya?
Nekerik asko berekin dauka
alabak ezin jantziya;
egun bateti bestera dator
galaren diferentziya,
modu orretan bajatuko da
pobriaren ganantziya.

12/ Begiyak beltxak, musu biribill,
zuri-gorriya larrua,
batek sudurra galanta zuben,
ai zer oliyo-jarrua!
Berinajia zabaldu eta
gañian jantzi arrua,
oien bultuak baziruriyen
galera edo karrua.

13/ Neke trabaju penaz beterik
alabak munduan azi,
gurasuari esker gaiztua,
orra nik adierazi;
beren burubak aundi-puntuan
nai lituzkete ikusi,
lenago maiztar bizitzen dana
ez da jarriko nagusi.

14/ Jantziya bere errespetuan
artu dezagun egoki;
orra nik esan nola biar dan,
iñork ez baldin badaki,
banidadiak engañatuta
gero ez dediñ erruki;
gorputzak ez du gala biarrik,
anima garbi eduki.

15/ Batek zintura biar duela,
bestiak berriz kordoia,
anbat etxetik salduko dute
amoko edo txorroia;
gorputzarentzat apainduriya,
animak dauka erdoia,
garizumaren printzipiyotik
au da galaren sermoia.

16/ Asteasuko danboliña naiz,
gañera ezkon berriya,
oraiñ itxutzen ari naizena,
lenago nitzan argiya;
damatxo biren pasadizua
libruan daukat jarriya,
amasei bertso txanpon batian,
moldezko letra garbiya.

Bertso-sail ontako leenengo bertso-an onela esaten da:

Azentziyoz zan erromeri bat
ermita txiki batian...

Ermita ori, Erreteritik Irun aldera goazela, ezkerretara zegoan, trenbidea pasata. Erreteritik gertuago, baiña Oiartzungo partean. Salbatoreko ermita zeritzan.

Izanak gera tokia ikusten. Ermita kaxko batean zegoan, gaur Juanitanean deritzaion etxea dagoan ondoan. Lizantzi baseritik oso gertuan. Irungo kamioa eta trenbidea beetik dijoaz. Alde guzietara bista ederra dago: Oiartzun, Urkabe, Aiako Arria, Bianditz, Bunaniar, Zaria, Aldura, Urdaburu, Adarra, Erreteriko erriaren puska bat... Zoragarria da leku ura, eta zoragarriagoa izango zan noski garai artan, inguruan etxe-mordo eta fabrikarik bat ere etzanean.

Ermita ontaz argibide jakingarri batzuk bildu aal izan ditugu.

Santiagoko erromesak, oiñez zetozenak, ortik barrena omen zuten bidea: Irundik Lezora, emendik Errerara txalupaz, eta urrena Donostiara.(1)

Azentziyoz egiten zan festa ermita ortan. Inguru guziko erromeririk ederrera izaten omen zan: ttuntuna, dantzeta eta erruzko jendea.

Erretereri eta Salbatore bitartean, gaur Papelera dagoan ortan, zumardi ederra omen zan. Oso arbola luzeak; beetik asi eta astiro gora begiratu, bukatzen etziranak. Eguzkirik etzan lurreraiño irixten. An eta emen alkiak. Aieka batetik ibaia, orduko ibai garbia.

Festa-egunean su aundi bat egiten zuten zumardian. Gaiñean tupi aundi batzuk jartzen zituzten. Eta etortzen zan jende guziari katillu bana salda ematen zioten.

Urte batez, Xenpelarrek bi dama gazte ikusi zituan ermitan, beren miriñakeekin "ezin pasarik atian". Besteri arropak eskatuta etorriak omen ziran. Ondo arrotuak ala ere. Eta Xenpelarrek bertso auk jarri zizkien.

Andik urte batzuetara gerra sortu zan. Eta ermitak, ain toki agerian baitzegoan, etzuan pakerik izan. Liberalak eta karlistak txandaka etortzen zitzaizkion. Liberalen buruzagia Arzeluz zeritzan; oso ona omen zan familiarientzat.

Gero, liberalak parapetua jarri omen zuten ermita baiño goraxeago, Olalde baserriko zelaian.

Ermita ondoan ataka txiki bat zegoan. Eta egun batez, ataka ortaraiño etorri, burua atera ta oju egin zien karlista batek liberaleri:

- Arta-jale arraioak!!!

Liberalak tiroa bota eta kopet erditik sartu zioten. Gizarajoa bertan gelditu zan illotzik.

Ixtillu aietako batean ermitak su artu zuan. Sakristia, dana erre zan. Baita aldarea ere. San Frantzisko bat kearekin beltz-beltz eginda gelditu zan. Gaiñontzeko iduriak Oiartzungo parrokira eta abar eraman zituzten gero.

Korua ondo gelditu zan. Gure berri-emale batek, Antonio Ezpondak, onela esan zigun:

- Ni ermitako koruan jaioa naiz. Gure ama ermitako serora zan; eta, ermita erre zanean, aieka artara pasa ziran. Ermita erre eta andik zortzigarren urtera ni jaioa. Aldarea izan zan tokian sukaldea genduan. Onera, Lizantzin baserrira, emeretzi urterekin etorri nintzan.

Gerra ondoren, ermita purrukatuta egonagatik ere, jendeak zintzo segitu zuan Azentzio egunez etortzen, beren errezoak egitera.

Astigarragako andre alargun bat urtero-urtero etortzen zan. Eta ermitaren jira guzian ankutsik bueltaka-bueltaka ibiltzen zan, garai artan egun orrekin egiten zanez, berrogei kredo errezatu arte.

Errenteriarrak, ermita beren kontu berrituko zutela esaten omen zuten.

Baiña oiartzuarrak etzuten nai izan. Orduko bikario zaarrak onela esan omen zuan:

- Gazteak ez dute or pikardia besterik ikasiko!

Ala, ermita etzan berritu. Jende zaarrak pena aundia artu zuan. Paretak an egon ziran urte askoan. Gero, Oiartzungo erriak saldu egin zituan, eta aiekin etxe berri bat eraiki zan Errenteriko partean, leengo lekutik urruti gabe. *Salbatore* jarri zioten izena.(2)

* * *

Basarrik, *El Diario Vasco* egunkarian, 1989-ko martxoaren 1-ean, *Nere bordatxotik* saillean, komentario auek egiten zituan bertso-sail oni buruz:

“Salbatore izeneko ermita bat bazan Oiartzun’en. Ez atzo goizekoa. Erdi Arokoa baizik. Zutik iraun zun bigarren gerra karlistara bitarte. Noiz desegin zuten?”

1870’garren urtean, D. Manuel Lekuona’re lanetan ikusten degenez. Au galdetzen nion nere buruari:

Salbatore izen ori zergatik ote zait orren ezagun, ain aspaldikoa izanik eta gaur bizirik ez dularik?

Xenpelar bertsolariarengatik, irakurle. Gazterik asi bainintzan errenteriar maixu aundiaren bertsoak eskuratzten eta buruz ikasten.

1865’garren urtean zan Xenpelar’ek bertso auek jarri zitunean. Orduan ere, palta zunak zerbait nai izaten zun. Mutillak neskaten ondoren, neskatak mutillen ondoren.

Xenpelar'en begiak etzeuden lo. Ark ikusi egiten gauzak, eta gero bertsoz adierazi."

Ondoren, Xenpelarren sail orren lau bertso eskeintzen ditu Basarrik, bukaeran onako auek esanez:

"Konforma gaitezen au Salvatore ermitan gertatu zala jakiteakin. "Dibertsio" bat jartzeko aukera eman zioten damatxo aiek Xenpelar'i. Urte pilla galanta jun da igesi. Alare, bertso auek kantatzen dituztenak ugari samar dira pertsona elduetan.

Arrokariak eta aundikeriak etzion on aundirik egiten errenderiar bertsolariari. Are ta gutxiago aundi usteko txikiak."

* * *

Azken bertsoan onela esaten da:

Astiasuko danboliña naiz,
gañera ezkon berriya,
oraiñ itxutzen ari naizena,
lenago nitzan argiya...

Garai artan, Asteasuko errian, *Itxutarrak* izengoitia zuan famili bat bizi zan. Famili ortan lagunik geienak itxuak ziran. Jaiotzez argiak izanik, urteen buruan, gizon edo emakume egin eta gero itxutu egiten ziran. Bizimodua ateratzearren, danboliña jotzeari eta bertso-paper saltzeari ekin oi zioten. Altzoko Imaz bertsolariaren liburuan argibide asko arkituko ditu irakurleak famili ortaz (*Auspoa* 68-69-70, 317 orrialdean). Baita beren buruari jarri arazitako zenbait bertso ere.

Azken bertso ortan *Asteasu* irakurtzeak kanta auek Pello Errotarenak dirala sinistarazi zion bati baño geiagori. Orregatik, nik uste, *Argia*-n argitaratu ziranean, *Asteasu'ko Pello Errotak jarriyak* erantsi zioten izenburuari.

Baiña ez da oraindik azaldu Pello Errotak bere erriko itxuei paratutako bertsorik. Bai, ordea, esan bezela, Altzoko Imazek moldatutakorik. Era berean, bertso auek Xenpelarrek jarriak dira.

Bertsoetan ez da onen izenik ageri, baiña ortan dudarik ez dago. Or degu Errenteriko bertsozale zaar guzidengandik datorkigun testigantza, pasadizua zein ermitatan gertatu zan eta abar esanez.

Beti bezela, eskuratu degun bertso-paperik zaarrenari kopiatu diogu, oraingo ontan Xenpelar il eta askoz geroagokoa bada ere.

Leenengo doiñua, Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburutik artua degu.

Mi-lla zortzireun i-ru-tan
o-gei au da bost-ga-rren ur - ti -
an, di-ber - si-yo bat jar-tze-ra
nu - a gaz-te jen-di-en ar - ti -

an; A-zen - tzi-yoz zan e - rro-
 me-ri bat er-mi - ta txi-ki ba - ti-
 an, bi da - ma-txo an i - ku-si
 di-tut ezin pa-sa-rik a - ti - an.

an bi da - ma-txo an i - ku-si
 di-tut e-zin pa-sa-rik a - ti - an.

Irugarrena, Lekarotzen jaso, Aita Donostiaren *Euskal-eres-sorta* (1921, 316 zenbakia) bildumatik artu degu.

Bigarrena, Ereñozuko Akola base-riko Gregorio Santa Krutzek kantatua da, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain adiskideak papereratua.

Ga - laz jan - tzi-ta i-ku-si

di-tut e - rro - me - ri - yan bi da -
 ma, e - li - ze - ra - ko a - rro - pa
 ga - be e - txi - an ai - ta e - ta a -
 ma. Zo - ri - gaiz - tu - an a - zal - du
 zai - gu lu - ju - a e - ta gal - ba -
 na: ba - ni - da - di - ak e - rren - ta
 gu-txi fa-mi-li-e-ra de-ra - ma.

Mi-lla zor-tzi-reun i - ru-tan
 o-gei au da bost ga-rren ur - ti-
 an, di-ber - tsi yo bat jar-tze-ra
 nu - a gaz-te jen-di-en ar - ti -
 an; A-zen - tzi-yoz zan e - rro-me-
 ri bat er-mi - ta txi-ki ba - ti -

Laugarrena, Zumaiko Frantziska Erkiziari jasoa, Azkueren esku-identzietan azaldu da.

Ermitan sartu zidenean parrez nengoa zetik dudarik gabepromes egin da jona ziran etzetik nobio on bana eskatu zidenean len dajizko itzetik Salbadorerak libragai tzalaneska zarrengaitzetik.

* * *

Bertso-papera, "Imprenta y Litografía de V. Iraola", Usurbilko Egiluze-txiki baserria.

Zenbait tokitan aldatu egin degu paper onek diona, moldiztegiaren utsegiñen bat zalakoan, beste paperetan dagoen bezela jarritz, Ona emen toki oiek, paper ontan nola dion esanez: 1/5: Azentziyo zan erromeri bat; 6/5: gustatzen zaku

aundimendiyen; 7/6: ala beria pasia; 8/6: alabak eta kabana; 10/4: mundu onen erdiya; 12/7: oien bueltuak baziruriyen (gañontzeko paperak, batzuek *buluak* eta besteak *bueluak* diote); 13/5: beren burubak aundi-puntua; 13/7: lenago maizlan bizitzen dana.

Bertso-papera, "Guernica - Imp. Angel de Goitia", Zezilio Agirre apaiz jauna, berak Bizkaiko Ean eskuratua.

Xenpelar'en Bertsuak liburua, Makazaga, Errenteria, 1931 urte inguruan. Onek zortzi bertso bakarrik: 1, 8, 2, 7, 5, 12, 5 eta 6-garrena, orden ortan. Aldaketak:

1/ Milla zortzireun irurogeita irugarrengo urtian, Azentziyoz zan erromeriya ermita txiki batian; mundu onetako arrokeriya animentzako kaltian, bi dama gazte ikusi ditut ezin pasarik atian.

2/1: Barrena sartu ziradenian; 2/4: juanak ziran etxetik; 2/5: nobiyo on bana eskatzen zuten; 4/1: Salbadoria bixitatuta; 4/2: prestatu diran soruan; 4/3: beren burua errespetatzen; 4/8: oien belarri onduan.

5/ Meriñakia azpitik eta gero soñeko berriya, lasaitasunak galdu ez ditzan kortsiatua gerriya; zapatatxuak txarolatuak, begi engañagarriya, eta buruko pañuelua frantzes modura jarriya.

6/5: gustatzen zaie aundimendiyen; 6/7: oraindik oiei gerta liteke; 6/8: beste moduban jartzia; 7/1: Neregatikan esango dute; 7/3: aien orduko arrokeriyan; 7/5: ez det batere gezurrik esan; 7/7: pobriarentzat ezta tokatzen; 8/1: Lujoz jantzita ikusi ditut; 8/5: zorigaizto jarri zituzten.

12/ Meriñakia azpitik eta
gañetik traje arrua,
oien bueluak bazirudien
galera edo karrua;
gorputz ederrak alta ta liraiñ,
zuri gorriya larrua,
batek sudurra galanta zuen,
a ze oliyo jarrua!

Bertsolariya aldizkaria, 52-garren zenbakia, 1932-IX-11. Onek aurrekoari kopiatu dio.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1958. Onek bertso guziak aurreko biak bezelaxe, toki auetan izan ezik: 8/7: banidadiak familitara; 12/7: aien bueluak baziruditen.

Bilboko *Euzkadi* egunkariak ere argitaratu zituan bertso auek, 1932-ko urriaren 12-an, Zarautzik Basarrik bialduta. Onek bi bertso falta ditu: 10 eta 11-garrena; eta besteak beste orden ontan dauzka: 1, 2, 3, 4, 6, 5, 8, 9, 7, 12, 13, 14, 15 eta 16-garrena.

Aldaketak: 1/4: gazte guztien artian; 2/3: du-darik gabe promesa ein da; 3/1: Zer nai zukian manifestatu; 3/2: ziyotenian barrendik; 3/5: de-siuaren paltan ez daude; 4/1: Ermita ortako pasara einda; 4/2: prestatu ziran soruan; 4/3: zikiñ mantxarrik etzan arkitzen; 4/4: orien belar onduan; 4/7: beren buruak errespetatzen; 4/8: aundi-mendien moduan; 5/1: Zapatatxuak txarolezkuak; 5/2: sedazko soña gorriyak; 5/5: diaman-tezko belarritako; 6/1: Batek zintura bear duela; 6/2: bestiak berriz kortsia; 6/8: beste modutan jartzia; 7/1: Neregatikan esango dute; 7/7: po-briarentzat ezta tokatzen; 8/6: alabak eta kabana; 9/3: erantzun zuten ere ez dakit; 9/6: seda ta zinta dariyo; 12/7: oyen bultuak bazirudien; 13/1: Neke trabaju penaz beteta; 13/5: beren umeak aundi puntuan; 13/6: nai lituzke ikusi; 14/2: artu

dezala egoki; 15/4: amua edo txorroia; 15/5: kor-putzarentzat ganantzirik ez; 15/6: animarentzat erdoia; 15/8: au da gabaren sermoia; 16/6: libu-ruan det jarriya; 14/7: amalau bertso txanpon ba-tian.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun; Arrasku-larre, Karrika, Oiartzun; Joseba Gurutze Arrieta, Erretereria.

Onek izenburua onela du: *Bertso Berriyak Xenpelar'ek jarriyak*. Bi bertso palta ditu: 10 eta 12-garrena; eta besteak beste orden ontan: 1, 2, 3, 4, 6, 5, 8, 9, 7, 12, 13, 14, 15 eta 16-garrena. Aldaketak *Euzkadi*-k dauzkanak.

Argia astekaria, 1933-VI-25 eta 1933-VII-2. Onek bertsoak beste orden ontan dauzka: 1, 2, 3, 4, 6, 5, 8, 9, 7, 12, 15, 11, 13, 14, 10 eta 16-garre-na. Aldaketak, berriz, *Euzkadi* egunkariarenak eta beste auek: 8/6: alajak eta kabana; 10/1: Beste gauzikan ez det gallentzen; 10/2: lupika edo bar-niya; 10/5: gorputzarentzat apainduriya; 10/6: animak dauka erdiya; 10/7: garisumaren asiera-tik; 10/8: orra galanen sermoia; 11/6: galanen di-perentziya; 15/3: ainbat etxetik salduko dute; 15/4: ama edo morroia; 15/5: Bestia oiek berriz daukate; 15/6: galani izugarriya; 15/7: lenguen moda juan da eta; 15/8: ama, ekatzu berriya; 16/7: amasei bertso txanpon batian.

Argia-ren argitaraldi onek onela esaten du izenburuan: *Bertso Berriyak Asteasu'ko Pello Errotak jarriyak*. Baiña, asieran esan degunez, *Xenpelarrenak* dira bertso auek.

1. Manuel de Lecuona: *Del Oyarzun Antiguo, San Sebastián*, 1959.

2. Antonio Ezponda, Lizantzin, Oiartzun; Florentina Perez Salaberria, Erretereria; Monika Galarraga, Erretereria.

BERTSO BERRIYAK XENPELARREK JARRIYAK

1/ Denen partetik laguntza on bat
galdetzen diyot Jesusi,
pekatariyen bizi tristia
nai nuke adierazi;
bataiatu giñan momentutik
genduen zerua irabazi,
anima garbi iduki dezagun,
eztu galtzerik merezi.

2/ Mantxarik gabe dijuazenentzat
badira toki ariñak,
bera amatuaz dabillenentzako
gure Jainkuak egiñak;
arrosaiuak debozioz esan
eta guardatu dotriñak,
zeruko erreinuan sartu gaitezen
egiñ ditzagun alegiñak.

3/ Oraziyo onak egiñaz obe
degu denak umiltzia,
Jesusek berak e asko nai digu
mantxarik gabe ibiltzia;
betiko ez gera mundua onetan,
etorriko da iltzia,
pena izango da nork bere faltan
anima ona galtzia.

4/ Asko alditan aditzen degu
jeniyu txarrak uzteko,
konfesatu ta damua artu
aurrera ez geiago asteko;
garbi apaindurik jarri gaitezen
mundua onetan besteko,
aingeruak dauzkaten pozak
guk beurekiñ ikusteko.

5/ Pekatu egin-ta galduak giñan
erremeryorik ezpazen,
konfesatuta barkatzen dira,
premiya degunak guazen;
damutasun egiazko batekiñ
penitentziya egiñ zuzen,
azken orduan mantxarik gabe
garbi presenta gaitezen.

6/ Billeratako disimuluan
dauden soñu ta baltsiak,
animarentzat kaltian dator
gorputzen gustora ibiltziak;
ondore txarra berekiñ dakar
toki gaiztora biltziak,
ai zer lastima emango duen
betiko ditxa galtziak!

7/ Erretira txarrian gabiltzanak
askotan gaban gau erdi,
iñork ikusten ez gaituelakuan
egiñaz edozeiñ pikardi;
orlako jeniyuak dauzkaunak
uzten baditugu garbi,
zeruko birian aingeruak
egingo digute argi.

- 8/ Obra onak egin nai dituenentzat
badaude komenientziyak,
dakigulikan asko ditugu
zabarkeriyaz utziyak;
alferrik gero izango dira
negarrak eta antsiyak,
luzarokuak ez gerala emen
egon giñazke etsiyak.
- 9/ Gutxina eztanian etorriko da (*sic*)
oso sententzi tristia,
egunez edo gabaz igual,
ordu jakiñak eztia;
gure anima ainbesteraño
Jesus onari kostia,
azkenian ba pena izango da
Luzifer orri uzta.
- 10/ Etsai gaixtuen kalabozuan
sartutzen bagera baldiñ,
betiko sutan aien mendian,
egon bearra ezta atsegiñ;
katez loturik penatzen beti,
iñundik eziñ igesi egiñ,
denbora dala zuzen gaitezen
orlakorik gerta ez dediñ.
- 11/ Umildadian ibilli bada
Jesus onan izenian,
bire okerrak utzi alde bat
eta segi zuzenian;
konformaturik jartzen bagera
garbi beran esanian,
estimaziyo ona izango degu
emendik guazenian.

12/ Denbora dala mudatutzia
obe degula gogotik,
denen maisuak orlako ordenak
biraltzen ditu zerutik;
odol guziyak ixuri zituen
denak salbatutziagatik
pentsa dezagun Jesusek zenbat
sufritu zuan gugatik.

13/ Ainbeste pena sufriaztia
ai zer gauza itsusiya!
Azotez ebaki ta intzi bat gabe
artu zuen pazientziya;
iru iltzekiñ lau tokitatik
gurutze bati josiya,
gure onagatik modu onetan
utzi zuan bere biziya.

14/ Jesus maitia kulparik gabe
orra guregatik illa,
Josefatarra etorriko zaigu
anima justuen billa;
azken juiziokoak duanara (*sic*)
juango gera zenbait milla,
beste ordenarik eztigu ematen:
gaiztua ondu dedilla.

15/ Amabostgarren bertsuarekin
orra azken errematian,
relijiyua aumenta dediñ
garbi ibilli gaitian;
justuak dauka konsuelua
mundua ontatik juatian:
betiko glori ederra gozaten
aingeruakiñ batian.

* * *

Bertso auk, *Imprenta de "La Voz de Guipúzcoa"*-n argitara emandako bertso-paper batetik artu ditugu. Errenterian jaso genduan, Jertrudis Arrieta zanaren eskutik. Ez da paper zaarra, Xenpelar il eta askoz geroago-koa baizik.

Irakurlea oartuko danez, bertso auk ez datoz neurrian juxtu, bear baiño geiagotan. Xenpelar, berriz, ortan oso nekez deskuidatzen zana zan.

Bestetik, berriz, bertso auk ez dira, gure iritzirako beintzat, Xenpelarren maillaraiño irixten. Aren bertso-gintza txukunagoa, garbiagoa eta sakonagoa izaten zala derizkiogu.

Orregatik, errezeloa datorkigu ez dirala agian arenak izango. Paperak *Xenpelarrek jarriyak* badio ere, ori gezurretan erantsia izan diteke, errezago saltzeko.

Korapillo ori askatzeko modurik oraingoz beintzat ez degu ikusten.

BERTSOAK

JESUSEN BOST LLAGARI JARRIAK

1/ Bost llaga sagraduen
adorazioa,
biotzetikan bada
zer orazioa!
Egunean bi aldiz
ejerzizioa,
egingo baldin balitz,
au bai lezioa!

2/ Jesus, zure bost llagak
zer nola diraden,
esaten asitzera
noa oraiñ emen;
Zeruko Aita, lagun
egidazu arren,
zure bear naiz beti
ni oraiñ eta len.

3/ Ezkerreko oñean
dadukazun llaga,
Jesus biotzekoa,
lastimosoa da;
gu ez galtzeagatik
ori baldin bada,
ibilli-era gaiztoai
beaiegu laja.(1)

4/ Eskuieko oñean
daukazu bestea,
ori da iltze batez
oin biak jostea;
oi au penagarritzko
lastima tristea
orrenbeste dolore
zuk padezitzea!

5/ Ezkerreko eskuan
daukazun erida,
asko da ekusteko
jartzea begira;
manifestoan dago,
klaro ageri da,
gutziz tormentu portitz
gogorra ori da.

6/ Eskuieko eskuan
dezu laugarrena,
ematen dizu zenbait
oñaze eta pena;
aiñ zitala izanik
etsai txarren tema,
zu zera iru iltzez
josi zinduztena.

7/ Lanza bat sarturikan
bular sagraduan,
orra bostgarren llaga
zure kostaduan;
gurutze santu orretan
zauden estaduan
guregatican jarri(2)
nai izan zenduan.

8/ Gure defensora
zergatik zera zu,
padezitu zenduen
ainbeste tormentu;
bizi gaitean zutzaz
akordatuaz gu,
gurutze orretatik
zaitzagun libratu.

9/ Nere bekatua da
eralle fortitza,
zu para zaituena
orrela josita;
tristeza onetan gu
emen ikusita,
eman zenduen, Jesus,
zuk zere biritza.

10/ Zu ofenditzen beti
nere pensamentuz,
itzez, obraz, deseoz,
oñaz eta eskuz;
nola bizi naiteke
onela deskantsuz,
anima loiturikan
badaukat pekatuz?

11/ Ai zeñek leukakean
anima garbia,
zeruan ekusteko
zure arpegia!
Oraindaño egin det
zenbait pikardia,
arren izazu nitzaz
misericordia!

12/ Zeruko abisoak
ditugu mandatuz,
etsaia bentzitzera
saiatzeko kontuz;
bete gaitzazu zure
bendiziyo santuz,
au gerta dakigula,
biba, amen, Jesus!

* * *

Bertso aukeratuak askotan argitaratuak izan dira paperetan. Baiña oietako batek bakarrik esaten du Xenpelarrenak dirala.

Bertso-paper ori argitara arazi zua-na etzan nornai, ordea, Xenpelarren illoba baizik. Ala esan digu urte asko-an berarekin bizi izan zan Florentina Pérez Salaberriak.

Illobak izenburu au ipiñi zion pape-rari: *Bertso Zar Berriak Francisco Petriarena Shempelar zanak jarriak.*

Ala ere, xuxen esateko ez dakigu zergatik; baiña duda egiten degu bertso auen aita Xenpelar izango dan. Ez dirudite Xenpelarrenak: errimaz beintzat ez; izkeraz ere ez.

Esan degunez, bertso aukeratuak argitaraldi asko izan dituzte. Besterik ez da bear, beraz, Euskalerrian oso ezagunak izan dirala jakiteko.

Baiña zabaldu eta ezagutu ez-ezik, baita euskaldunen biotzeraiño sartu ere, Florentina orrek berak kontatu digun urrengo gertaera onek ederki asko adierazten duanez.

Donostiako bere ezagun batek, eriotzako orduan, andreari bertso aukeratuak kanta arazi omen zizkion. Orrela pres-tatu nai izan zuan bere biotza, konfe-

satu eta Jaunaren aurrera garbi azaltze-ko.

* * *

Doiñu au, Oñatiko Uribarrin jaso-a, Azkueren esku-idatzietatik artua degu:

Andante

Bost Ila-ga sa-gra-du-en a-
do-ra-zi-o-a bi-o-tze-ti-kan
ba-da zer o-ra-zi-o-a e-
gu-ne-an bi-al-diz e-je-r-zi-zi-o-
a e-gin-gobal-din ba-litz au
bai-le-zi-o-a e-gin-gobal-din
ba-litz au bai-le-zi-o-a.

VERSOAC.

JESÚS-EN BOST LLAGARI JARRIAC.

Bost lлага sagraduen
Adoracioa
Biotzetican bada
Cer oracioa:
Egunean bi aldiz
Ejercicioa
Eguingo baldin balitz
Au bai lecioa.

Jesús zure bost llagac
Cer nola diraden
Esaten asitzera
Noa oraiñ emen:
Ceruco Aita lagun
Eguidazu arren
Zure bear naiz beti
Ni oraiñ eta len.

Ezquerreco oñean
Daducazun lлага
Jesús biotzecoa
Lastimosoa da:
Gu ez galceagatic
Ori baldin bada,
Ibilli era gaiztoai
Beaieu laja.

Ezcuieco oñean
Daucazu bestea
Ori da iltze batez
Oin biac jostea:
¡Oy au penagarrizeo
Lástima tristea
Orrembeste dolore
Zuc padecitzea.

Ezquerreco escuan
Daducazun eridá
Asco da ecusteco
Jartzea beguirá:
Manifestoan dago
Claro agueri da
Gutziz tormentu portis
Gogorra ori da.

Ezcuieco escuan
Dezu laugarrena
Ematen dizu cembait
Oñace eta pena:
Aiñ citala izanic
Etzai charren tema
Zu cera iru iltzez
Josi cinduztena.

Lanza bat sarturican
Bular sagraduan
Orra bostgarren lлага
Zure costaduan:
Gurutze santu orretan
Zauden estaduan
Guregatic jarri
Nai izan cenduan.

Gure defensorea
Cergatic ceran zu
Padecitu cenduen
Aimbesto tormentu:
Bici gaitean zutzaz
Acordatuaz gu
Gurutze orretatic
Zaizagun libratu.

Nero becatua da
Eralle fortiza
Zu para zaituena
Orrela josita:
Tristeza onetan gu
Emen ecusita
Eman cenduen Jesús
Zuc cere bicitza.

Zu ofenditzen beti
Nere pensamentuz,
Itzez, obraz, deseoz,
Oñaz eta escuz:
Nola bici naiteque
Onela descantuz
Anima loiturican
Badaucat becatuz.

¡Ai ceñec leucaquean
Anima garbia
Ceruan ecusteco
Zure arpeguia:
Oraindño eguin det
Cembait picardia
Arren izazu nitzaz
Misericordia.

Ceruco avisoac
Ditugu mandatuz
Etzaya ventzitzera
Sayatzeco contuz:
Bete gaitzazu zure
Bendiciyo santuz
Au guerta daquigula
Viva amen Jesús.

* * *

* * *

Bertso-papera, “*Donostiyan: Juan Oses-en moldizteguian*”, Parisko liburutegi nazionalan.

Paper onek itz auek dauzka goiko aldean eskuz idatzita: *Manterola, 1878: 8/16*; eta beeko aldean: *1876*. Ez dakigu zer esan nai duan; agian, papera argitaratu edo Manterola dalako orrek, ziur aski Donostiako Jose Manterolak, bertso-papera eskuratu edo norbaiti bialdu zion urtea izango da.

Bertso-papera, “*Donostiyan: Juan Oses-en moldizteguian*”, beste argitaraldi bat. Ez nuan kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, “*Imp. de B. Valverde. - Irún*”, Bodleyan Library, Oxford. Aldaketak: izenburua: Bost lлага sagraduen versoac; 3/7: ibillera gaiztuai; 3/8: bear diet laga; 5/5: manifesto dago ta; 6/8: josi ziñuztena; 8/3: padezitu zinduzten; 8/5: bizi gaitezen zugaz; 9/2: eraile portitza; 10/4: oñazez ta eskuz; 10/5: nola bizi nindeke; 11/1: Ai zeñek leukekien; 12/3: etsaiak bentitzera.

Bertso-paper oni koptiatu diote itzez-itze beste auek danak:

Bertso-papera, “*Oñate: Imp. de M. Raldua*”, Segundo Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donostia.

Bertso-papera, “*Durango - Imprenta y Librería de F. Elosu*”, Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-papera, “*Imprenta y Librería de F. Elosu. - Durango*”, Jertrudis Arrieta Urdanpilleta zana, Erreterria.

Bertso-papera, “*Guernica. - Imp. Angel de Goitia*”, Juan Garayalde, Orendain; Zezilio Agirre apaiz jauna, Ea.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, baiña beste dana, baita letra ere, aurrekoarekin berdindaukana, Gernikako Sebero Altube zana.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Patxi Labandibar zana, Larria, Oiartzun; Arantzazuko liburutegia, Oñati; Isidoro Baztarrika beneditarra, Lazkao.

Bertsolariya astekaria, 28 zenbakia, 1932-III-27.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Parisko liburutegi nazionalan.

Paper onek, eskuz erantsita, itz auek dauzka: *Reçu du. P. de Arana en 1873*. Ezagutzen degun argitaraldirik zaarrena degu, beraz. Ala ere, ez diogu beroni koptiatu, utsegitez josita dagoalako eta, irakurleak ikusiko duanez, bizkaierara itzultita dagoalako. Baiña onek zera esan nai du: bertso auek oso zabalduak zeudela, Xenpelar il eta laugarren urterako ere.

Aldaketak: 1/3: biotzetikan balitz; 1/8: au bai orazioa; 2/1: Jesus zeure bost llagak; 2/4: noa ni orain emen; 2/5: Zeruko Aita laguna; 3/2: darukazu lлага; 3/5: gu ez galtzeagaiti; 3/7: ibillera gaiztoari; 3/8: bear diu laga; 4/1: Eskubiko oñean; 5/4: jarriaz begira; 6/1: eskubiko eskuan; 7/4: zeure kostaduan; 7/6: zeure estaduan; 8 eta 9-garrena alkarrekin tokiz aldatuta daude; 8/1: Neure defensora; 8/2: zergaiti zeran zu ; 8/3: padezidu zenduen; 8/5: bizi gaitian zugaz; 9/1: Neure pekatua da; 9/8: zuk zeure bizitza; 10/5: nola bizi neintege; 11/4: zeure arpegia; 11/5: oraindaño in dot; 11/7: arren indazu nizaz; 12/3: ecera avensuzera (*sic*); 12/7: au geure degigula.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Don Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren berso-bilduman. Aldaketak: 1/3: biotzetikan balitz; 2/1: Jesus zeure bost llagak; 3/7: ibillera gaiztoari; 3/8: bear diogu laga; 4/1: Eskumako oñean; 6/1: Eskubiko eskuan; 7/4: zeure kostaduan; 8 eta 9-garrena alkarrekin tokiz aldatuta daude; 8/1: Nere defensora; 8/3: padezidu zenduen; 8/5: bizi gaitian zugaz; 9/8: zuk zeure bizitza; 10/5: nola bizi neindeke; 10/8: badet nik bekatuz; 11/4: zeure arpegia; 11/6: ainbat pikardia; 11/7: arren indazu nizaz.

* * *

Leen esan degunez, Xenpelarren illobak berriro argitara arazi zituan bertso auek.

Izenburua onela ipiñi zion: “Bertso zar berriak Francisco Petriarena Shempelar zanak jarriak”.

Aldaketak: Leenengo eta bigarren bertsoak alkarrekin tokiz aldatuta daude; 3/7: ibillera gaiztuai; 3/8: biar degu laja; 4/1: Eskubiko oñian; 4/7: gugatik orrenbeste; 5/3: basta da ikusteko; 5/7: guztiz tormentu gogor; 5/8: fortitza ori da; 6/1: Eskubiko eskuan; 7/1: Lantzaz pasaturikan; 7/2: bular sagradua; 7/4: zure kostadua.

Beste bertso au zortzigarrenaren tokian:

Pentsatzen degunian
Jesus gurutzian,
zer oñaziak dauzkan
iltze bakoitzian,
kostadu sagradua
lantzaz pasatzian,
odol-tanto bat ez da
bere gorputzian.

Urrena, 10 eta 8-garren bertsoak dakarzki:
8/1: Gure Salbadoria; 10/2: gure pensamentuz;
10/5: nola bizi gindezke; 10/8: daukagu pekatuz.

11-garrena, beste bertso au:

Ezpadegu jetxi nai
betiko infernura,
aienatu gugandik
moda ta pintura;
begiratu zaiogun
Jesusi burura,
zerekin pintatua
daukan buru ura.

12-garren tokian, beste paperetan 9-garrena
dana. Aldaketak: 9/1: Gure pekatua da; 9/2: era-
kille portitza; 9/5: Ebagandik galduak; 12/8: zuk
zure bizitza.

-
1. Guk kopiatutako bertso-paperak: *beaieu*.
 2. Guk kopiatutako bertso-paperak: *gurega-
tik*.

BERTSO BERRIAK
SENPELARREK JARRIAK
DIOSKODOK BERE ALABARI LEPOA KENDUTAKO
BIZITZA SANTA BARBARARI

1/ Santa Barbara, zure bizitza
kantuz bear det zabaldu,
argitasun bat memoriyara
nai badirazu biraldu;
biotzak poza, mingañak ere
zerbait itzegingo al du,
ejemplo ori aditu faltan
iñor eztedien galdu.

2/ Iñork nai badu atentziorik(1)
desioarekin para,
aren bizitza kantatuko det
munduan legerik bada;
milla sei eun urte pasiak
jaiorik Santa Barbara,
aitak lepua kendu ziona,
Bitiniako alaba.

3/ Barbarak aita zuen pagano
Jaunaren bildur gabia,
alabak berriz naiago zuen
kristiandadeko legia;
orientalen bataiatu zan
izanik umildadia,
orain zeruan gozatzen dago
bere eternidadia.

4/Barbara zuen aitak lenago
estimatua izana,
kolejiyo bat berak eginta
estudiatzen zeukana;
argitasun au memoriyara
ango maisuak emana,
orientalen kristau egin zan
Bitiniatik joana.

5/ Andik etxera etorri eta
aitari zion eskatu
iru leioko obra berri bat,
berak nola egin juzgatu;
alabak esan zuan moduan
agudo zuan prestatu,
bañan oraindik zertarako zan
etzuen manifestatu.

6/ Iru leioak Trinidadiak,
au da señale klarua,
personak dira diferentiak,
Jaungoiko bat egiazkua;
Barbarak oiek adoratzeke
beregana zeukan gogua,
munduan obra onak eginta
gero betiko zerua.

7/ Orra Barbarak agindutako
ermita txikiya egiñ,
ustez etzuen alabarentzat
orretarako eragiñ;
esaten zion ezkon zedilla
aitak nai zuen batekiñ,
erreino artan guztiyen buru
jarriko zala erregiñ.

8/ Barbarak eztu gogorik izan
jolas oiek aditzeko,
erantzun zion zartu zala ta
umillago ibiltzeko,
Jesus zeukala bere maisua
nola bizi agintzeko;
orduan aita asi zitzaion
desafioka iltzeko.

9/ Alaba igesi, aita ondotik
obeditzeko argana,
mendia lertu milagrozt eta
ezkutatu zan barrena;
arrapatuta jo ta errira
gubernadore batena:
aren legera muda zedilla,
bestela biziya pena.

10/ Joka golpatu, gañera preso
idolo oien mendian,
Barbara beti Jaunari deika
zeguen fede onian;
Jesus zerutik bisitatzera
etorri zitzaionian,
kartzelan kura egin ziyon ta
sano bidaramonian.

11/ Birtutearen indarra zeukan
enemigoak austeko,
kriatura bat mundura sortu
orrenbeste ikusteko!
Milagro ori egiñagatik
etzeuden libre uzteko,
aien legera biur zedilla
edo bularrak mozteko.


- 12/ Orduan ere lengo itzian
firme zeguen jarriya,
Jesusengana entregatua
izanik fede garbiya;
gero bularrak moztu zizkaten,
au zan lastimagarriya,
kulparik gabe ikusi zuen
tormentu oien berriya.
- 13/ Bularrak moztu eta eraman
kalabozuan barrena,
Barbara bere itzian firme,
aitak ori zuen pena;
gubernadore batek eman du
erremateko ordena:
ezpatarekin lepua bertan
kentzia zala onena.
- 14/ Santa Barbara eriotzian
egiten zitzaion asi
barkazioa eskatu eta
orazio bat Jesusi;
barbaro oiek begien bistan
illta nai zuten ikusi,
bañan etzuen aitarengandik
orrelakorik merezi.
- 15/ Guraso batek umiarentzat
izan olako biotza!
Aitak esan du: "Nik egingo det
alabaren borrarotza!"
Deseo ori logratu eta
artu ezpata zorrotza,
bertan lepua kendu ziyon da
lagatu zuen il otza.

16/ Esan biar det nola izan zan
gizon oien ondoria,
biyak tximista erre zituen,
au da milagro obia;
lendabiziko aita kiskali,
gero gobernadoria,
orreatatik da Santa Barbara
suaren defensoria.

17/ Konzepzioko donzellatasun
birjindadia zeukana,
ogei urtean aita lepua
ezpataz kendu ziyona;
abenduan zan martiri ori,
illak laugarren eguna,
gorputzak penak, animarentzat
gero betiko fortuna.

18/ Bertso berrien errematian
eskatzen dizut zedorri:
iltzian zure konpañiyara
al baniteke etorri;
martiri onen penak zer ziran
orra atentzioz jarri,
ejemplo ori izan dedilla
munduan oroipengarri.

Norbaitek, apaizen batek-edo,
Santa Barbararen bizitzaren berri
emango zion Xenpelarri, eta onek
bertso aukeratuak jarri. Leenengo doinuak
Makazagaren *Xenpelar'en Bertsoak* li-
burutik artua degu.



zi-tza kan-tuz be - ar det za-bal-
ya-ra nai ba-di - ra-zu bi-ral-
du; bi - o - tzak po - za,
min-ga-flak e-re zer-bait i - tze gin-

San-ta Bar - ba - ra, zu-re bi -
ar - gi - ta - sun bat me-mo - ri -

zi - tza kan - tuz be - ar det za - bal -
ya - ra nai ba - di - ra - zu bi - ral -

du; bi - o - tzak po - za,
du;

min - ga - fiak e - re zer - bait i - tze gin -

go al du, e - jen - plo o - ri

a - di - tu fal - tan i - fi - or ez -

te - di - en gal - du.

Bigarrena, Elizondon jaso, Aita Donostiaren *Euskal-Eres-Sorta* kanta bildumatik, 1921, 221 zenbakitik.

San-ta Bar - ba - ra, zu-re bi -

zi - tza kan - tuz bi - ar det za - bal -

du; ar - gi - ta - sun bat me - mo - ri -

a - ra al - ba - di - da - zu bi - al -

du: bi - o - tzak po - za, a - ri - mak

e - re zer - bait i - tze - gin - go al -

du, e - jen - plu o - ri a - di - tu

fal - ta, i - fi - o - rez da - di - en gal - du.

* * *

Basarrik, bere *La Voz de España* egunkariaren saillean, 1977-ko abenduaren 3 eta 4-ean, idazlan bat argitaratu zuan, bertso auek gai artuta eta asieran onela esanez:

“Gure lagun zintzo Prantzisko Larrañaga, “Patxi Barbero”k”, bertso batzuk bidali dizkigu.

Bertsoekin batera paper mutur bat. Au irakurtzen degu bertan:

“Nik bertso auek asko estimatzen ditut, neure aita zanari ikasi nizkion da. Bederatzi-amar urte nituan orduan.

Zuk dakizun bezela, Zarautz’en ere Santa Barbarari badiote askok jaiera ta maitasuna.

Ermitan ematen dan meza nagusira jende asko joaten da.

Gabean ere, emen, kalean, egiten da zerbait bere gorantz.”

VERSO BERRIAC

SEMPELARREC JARRIYAC.

1
Comeni diran verso berriac
esplicatu albanitza,
aditutzia desio duen
bati eman diot itza:
baileac eta soñu ederrac
engañaturic gabilza,
animarentzat caltean dator
gure munduco bicitza.

2
Abenduaren lendabico
goiceco zazpiyetan zen,
templo santuban egonduba naiz
sermoy ederbat aditzen:
Jesusen lllaga preciosoac
astera nua berritzen,
ceruco aita lagun zadazu
entendimentua arguitzen.

3
Pecatariaic artu dezagun
doloria biotzean,
Jesus cembat sufritu zuan
gugatic eriotzean;
firme gabiltzan faltatu gabe
fede santuco itzean,
guero anima izan ez dedin
infernuraco itzean.

4
Nere cristabac birian dator
azquen juicioo eguna
jaquiña dago beguiyen bistan
icusi biar deguna;
Josefateco celay santuan
trompeta soñu illuna,
galduac pena eramango du
justoarentzat fortuna.

5
Munduco gausen errematia
dacar azquen juicioo,
autz biurtu ta utzico ditu
erri ta palacioac;
mendiac lertu alcarren contra
erreinu eta nacioac,
sentenci ori botaco digu
Jesusen bendicioac.

6
Ichasoac su eguzqui illun
illarguia odolacaxtu,
lurrac icara eta gañera
errio danac agortu;
munduco gausa baliosoac
erre ta icatz biurtu,
pecatariaic umil gaitecen
bada cerequin bidurtu.

Es Propiedad.

7
Eriotzaren larritasuna
suspirioa barrundic,
nai ez degula bertan ill bear
amparo gabe ñondic;
Josefateco celay santura
juango guera emendic,
ez da Ceruan sartu Jesus
desamparparen duanic.

8
Jesus cerutic Josefatera
aingueruaquin batean,
pecatarien artzay umilla
badator oyen artean;
celay santura juango guera
bire guztiaic betean,
gure orduco larritasuna
sentenciya eman artean.

9
Alcarren vistan emango digu
sentenciya bat zorrotza,
gure obrac an azaldu bear
gaistoarentzat cer lotza;
pecatariaic alcha dezagun
Jesusen gana biotza,
consideratu gu gatic nola
pasa zuan eriotza.

10
Josefateco celay santuan
asco degu icusico,
Jesus nola dan sentencia bat
guri ematen asico;
gaistuac danac-infernuraco
onac ez du merecico,
justuarentzat ceruan silla
eternidade guztico.

11
Aita santu ta erregui oyec
obispo ta apaiz guztiaic
pobre ta aberaz dianac berdin
mais u orren justiciaic;
diruaz ez du an balioo
ori gaude icasiaic,
ceñi berea emango dio
Jangoicoaren graciaic.

12
Anima galdu baten tormentu
eta nai gabe aundiic,
cer diran eciñ consideratu
guizonaren memoriaic;
eternidade gustico penac
ez ayen mende jarriac,
orra munduco gustuac eta
egun engañagariac.

13
Gucioo guera pecatariaic
deseos ero obretan,
tentacioac guretaz dira
ezta dudanic orretan;
gorputz argala erortzen bada
bere biciyo charretan
guero anima entregatzen du
etzayen atzaparretan.

14
Bi bire daude esquer ta escubi
comeni da icastia,
auqueran daude bata cerura
iafernuraco bestia;
gure anima Jaungoicoari
aimbesteraño costia,
ia cer pena artuco duen
Luciferrentzat uzta.

15
Infernua da calabozo bat
mortal icargarria,
an sartzen danac icasico du
tormentu oyen berriya;
Lucifer dago erregue
espatarequin jarriya,
arren mendeen egon bearra
animac dauca larriya.

16
Ceruac ditu amabi ate
aingueru bana guardiyan,
urrez murallac eguiñaceta
alhaya finac erdiyan;
gloriyac daucan edertasuna
musicaren alegriyan,
ia gabiltzan fede garbiyan
an sartutzeco iltzean.

17
Aita Santua Erroman dago
icena Leon deritza,
aren contraco enemigoac
inguraturic gabilza:
Jaungoicoaren virtutea da
beti errenditzan gaitza,
cristau fielac cumpli desagun
evangeliyoco itza.

18
Verso berriyen errematian
cer datorquigan jaquiña,
orra nic esan nola bear dan
eguiñ justu esamiña;
premiyo ori alcanzatzera
empeñatu aleguiña,
zu bitarteco escatzen zaitut
aingueruen erreguiña.

Egia dio "Patxi Barbero'k".

Biar degu Santa Barbara eguna, ta ez derizkiogu gaizki dagoanik bertso auk argitaratzea.

Xenpelar'enak dira ta oso ezagunak.

Urtez aurrera dijoazen irakurle askotxok ezagunak izango dituzte.

Xenpelar'en bertsoak buruz ikasten zutuan jendeak. Ez irakurri bakarrik, ikasi baizik. Argatik dira ain ezagunak, urteak joanik ere.

Beste denbora batzuk ziran; beste giro bat zan ordukoa."

Idazlanaren bukaeran, berriz, onela esaten du Basarrik:

"Beste denbora batzuk ziran; beste giro bat zan Xenpelar bizi izan zaneke ura. Garaian garaiko prutuak.

Xenpelar'i aitormen au egin bear zaio: erriaren biotzera irixten jakin zuala. Oso gutxik bezela jakin ere.

Aozabalka egon oi giñan gu mutil koskorretan, agure zarrek kantatzen zituztenak entzuten. Xenpelar gora ta Xenpelar beera somatzen genituan etxean genduan tabernan.

Aientzat Jainko txiki bat zan errenderiarra. Etziran aspertzen aren talentua gortzen.

Buru argikoa zala nork uka?

Berezko argitasun arrigarri bat zua-na, iñun ezer ikasi gabe."

Esan bearrik ez dago, Basarrik emen esaten dituanak, Santa Barbararen bertsoentzat ez-ezik, Xenpelarren sail guzientzat balio dutela.

* * *

Bertso-papera, "*Vergaran: Juan Lopez-en moldiztegiuan*", Tolosako Baleriano Mokoroa zanaren paperetan beraren seme-alabak arkitua.

Paper onek moldiztegi-utsegite batzuk baditu, eta berdin urrengo bertso-paparak ere, baiña aitatzerik merezi ez dutenak dira, gure iritzirako beintzat.

Beste argitaraldi auk berdin dauzkate bertsoak:

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde. - Irún*", Antonio Ezponda, Lizantzin, Oiartzun; Arantzazuko bilduma, Oñati; Egiluze-txiki base-rria, Usurbil.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde. - Irún*", Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde Irún*", beste argitaraldi bat, Juan Maria Arbelaitz, Intxaurren, Oiartzun.

Bertso-papera, "*Rentería: Tip. Vda. Valverde*", Fernando Artola *Bordari*, Ondarrabia.

Bertso-papera, "*Imprenta y Librería de Elosu. - Durango*", Florentina Pérez Salaberria, Erreterria.

Bertso-papera, "*Guernica. - Imp. de Goitia y Compañía*", Isabel Zuaznabar, Basoaundi, Lasarte.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Segundo Agirrezabalaga, Azpeitia; Garro base-rria, Getaria; Adelina Sarasola, Lexo bertso-larri-aren alaba, Antigua, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Antonio Arsuaga, Oiartzun. Paper onek ere aurre-nekoak bezelaxe ditu bertso guziak, lerro auk izan ezik: 2/1: Aditzeko gogorik duenak; 2/2: arreta aundiya para; 2/4: munduan legerik baldin bada; 9/7: aren legera muda dedilla.

* * *

Xenpelar'en Bertsoak liburua, *Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi*, 1931 urte inguru.

Onek 14 eta 17-garren bertsoak falta ditu. Ortaz gaiñera, beste aldaketa auk: izenburua: Santa Barbara'ren Martiriya; 1/5: biyotza pozaz,

mingañak ere; 2/1: Atentziorik iñork badauka; 2/5: milla ta seireun urte pasian; 2/6: jayo zan Santa Barbara; 2/7: aitak lepua moztu ziyona; 3/1: Barbarak zuan aita pagano; 4/3: kolejiyo bat berak egiñik; 4/5: argitasun bat ango maisubak; 4/6: memoriyara emana; 5/1: Kolejiyotik etorri eta; 5/3: iru leyoko obra txiki bat; 5/4: nola egin berak juzgatu; 5/5: alabak esan ziyon moduan; 5/6: aguro ziyon prestatu; 5/7: bañan artian zertarako zan; 5/8: etzizon manifestatu; 6/1: Iru leyua, Trinidadia; 6/2: orra siñale klarua; 6/4: Jainko bat egiazkua; 6/5: Barbara ayek adoratzeko; 7/2: ermita txiki ura egiñ; 7/7: erreinu artan jarriko zala; 7/8: guziyen buru, erregiñ; 8/2: arren itzak aditze-ko; 8/3: esaten ziyon zartu zala ta; 9/1: Alaba iges aita ondotik; 9/3: mendiyak lertu milagros eta; 9/5: arrapatuta joka errira; 9/7: arren legera muda dedilla; 10/3: Barbara beti Jaunarengana; 11/3: kriatura bat mundura jayo; 11/5: milagru ori eginda ere; 11/7: aren legera muda dedilla; 12/1: Barbara beti bere itzian; 12/3: Jesusengana entregatu ta; 13/7: ezpatarekin bertan lepua; 13/8: kentzia dala onena; 15/2: izan alako biyotza; 15/7: bertan lepua moztu ziyon da; 15/8: an utzi zuen ill otza; 18/5: martiriyuen penak zer diran; 18/7: ejemplu ori izan dediyen.

Makazaga moldiztegian egindako argitaraldi guziak aldaketak oiek berak dauzkate:

Bertsolariya astekaria, 19 zenbakia, 1932-I-24, Makazaga, Errenteri.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga / Rentería*", Balentin Muguruza, Elosiaga, Azpeitia; Resurrezion Maria Azkueren paperetan, Euskaltzaindia, Bilbo.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga / Rentería*"; ez nuan kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga - Rentería*", Maria Oiartzabal, Makutso baserria, Oiartzun; Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia.

Jauregi`tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria* liburu, Itxaropena, Zarautz, 1958. Onek ere Makazagak bezelaxe ditu bertso guziak.

* * *

Eskuz idatzita ere jaso ditugu bertso auek: leenengo, Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren bilduman; bigarren, orri txiki batzuetan. Ez nuan kontuan artu orri auek nork eman zizkidan. Bañan bukaeran onela irakurtzen da:

"Bukatu det eta agur urrengo arte eta, auek artzen dituzunean, eskribitu laste. An egongo naiz ni Pamplona aldian. Mendizabaltar Iñaki. Señak len ere ipiñi nituan, bañe berriz emen ipintzen dizut: *Regimiento Carros de Combate N° 4, 3ª Compañía, 2º Batallón, Pamplona*".

Esku-idatzi auen aldaketak ez det uste jartzerik merezi dutenik, bestela ere naiko luze dijoa eta.

1. Bertso-paper zaarrenetan: *Iñork badu atentziorik*. Nabarmen dago itzen bat falta dala. *Nai* erantsi diogu, orrela bear dualakoan.

BERTSO BERRIAK

SENPELARREK JARRIAK

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua
iñork nai badu ikasi,
nere burua sartu bear det
ortarako lendabizi;
mundu ontako pasadizua
nai nuke adierazi,
asko gabilta arrokeriyan
elizagandik igesi,
geren animaz oroi gaitezen,
eztu galtzerik merezi.

- 2/ Eskolarikan eztaukat bañon
esango ditut egiyak,
zer sententziya ekarriko duten
munduko arrokeriyak;
elizarikan ikusi nai ez,
beti festara begiyak,
beren buruak apaindu eta
“nun dira erromeriyak?”;
gaztiak nola ibiltzen diran
badaki bertsolariyak.

- 3/ Festara jua ta gau ta gaberdi
beren buruak ondatzen,
zarrak igual ikusten dira
kriantza txarrak banatzen;
mundu ontako bizi moduaz
jartzen naiz konsideratzen:
anima galdu kulparik gabe,
gorputzak abandonatzen;
despeida txarra guretzat dator
ezpagerade mudatzen.

4/ Funtziyo eta erromeriyak
mundutarrentzat egiñak,
bañan ez dute konsideratzen
nola den buru-ariñak;
errespetua guardatzera
enpeñatu alegiñak,
edo bestela guretzat dira
eternidadeko miñak,
bere eskutik arren iruki
gaitzala Ama Birjiñak!

5/ Elizarako deboziyoric
ez degu artzen erdiyak,
orregatikan eldu zaizkigu
kastigu izugarriyak;
asko onela egoten dira
meza entzuten jarriyak:
ausentzian ta arguriyuan
mingañaren pikardiyak;
aditu nai eztuenik bada
itxi bitza belarriyak.

6/ Elizatikan ateratzian
junta alkarren ondora,
bi debozios baldin badaude
iru murmuraziora:
“Meza luzian egondu gera
eziñ pasarik denbora”;
beren animak desanparatu,
etsaiarentzat mejora,
oiek orrela gertatzen dira,
guazen konfesiyyora.

7/ Asko onela ikusten ditut
esanez: “Konfesatzera?
Naiago nuke pausoa egiñ
aurrera bañan atzera”.
Urtian beingo jornara dute
mundua engañatzera;
modu orretan, pekatariya,
konbertituko etzera,
bere anima entregatzen du
fariseoen etxera.

8/ Urtian beingo konfesiya
geienak gogo txarrian,
“Egunez askok ikusten gaitu,
guazen illunabarrian”.
Damurik gabe prestatzen dira
sazerdotien aurrian,
txikiak esan, aundiak utzi,
irutatik bi gordian,
beste munduan ageriko da
orrelakuak nor dian.

9/ Konfesatu ta au esateko
kanpora atera artia:
“Munduarekin kunplitu degu,
urtebeteko pakia!”.
Bañan orrela ezta serbitzen
Jaunaren borondatia,
ordu batetik bestera dator
emengo errematia,
pekatuentzat itxiya dago
zeruetako atia.

10/ Barrabas dabill gu toriatzen
galtza gorriyak jantziya,
desanparatu dezagun ori,
artu dezala etsiya;
infernurako izan ez dediñ
animaren sententziya,
konfesiyo on bana egiaz egiñ,
kunplitu penitentziya,
obra onakin logra dedilla
zerurako lizentziya.

11/ Pekatariya sartutzen bada
etsai gaiztoen artera,
ura andikan libratutzeko
bitartekorik ote da?
Ordu bi daude mundu onetan
konparaziyo batera,
oriyek nola pasako diran
kontuak ongi atera,
biziyo txarrak engañatzia
animarentzat kalte da.


12/ Bataiotikan artu genduen
Jaungoikoaren graziya,
kontu eztediñ galdu zerua
lenago irabaziya;
guregatican lagatu zuan
Jesusek bere biziya,
ekusten degu nola dagan
gurutzari josiya,
bera serbitzen pasa dezagun
eternidade guziya.

13/ Zar eta gazte, pobre ta aberats,
maizter eta nagusiyak,
ez gaitzala arren desanparatu
Jaungoikoaren graziyak;
animarentzat kaltian datoz
gorputzaren maleziyak,
zertako dira tratuak eta
munduko irabaziyak?
Emen utzita juaten dira
oraindañoko guziyak.


14/ Bertsolariyak bere burua
zertako egiñ justua?
Bestela pobre bizi naiz bañan
pekatzuz aberastua;
alde batera utzi dezagun
mundu ontako gustua,
edo bestela etorriko zaigu
sententziren bat estua;
Jesusengana biur gaitezen,
eztago gutzaz aztua.

* * *

Konfesioarenak esan oi die erriak
bertso auei. Oso ezagunak dira Eus-
kal-Errian. Erljio-gaia du. Baiña kon-
fesioa ez-ezik, dotriñaren beste alderdi
batzuk ere erabiltzen ditu. Doiñua,
Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria
zanaren esku-idatzi batetik artua degu.



Ber-tso be- rri-yak jar- tze-ra
nu- a i- fiork nai ba- du i- ka-



si, o- rre- ta- ra-ko ne-re bu-
ru- a sar- tu bi- et len- da- bi-
zi, mun-du on- ta-ko pa-sa- di-
zu- a nai nu- ke a- di- e- ra-
zi, as- ko ga- bil-tza a- rro- ke-

ri-yan e - li - za - gan - dik i - ge -
si, ge - ren a - ni - maz o - roi gai -
tezen, ezdugal - tze - rik me - re - zi.

* * *

Gure eskuetara iritxi dan argitaraldirik zaarrena, Errenteriko Enrique Elizetxearen bilduman arkitu degu. Moldiztegi-izena onela du: "Donostiyan: Osés-en moldizteguien". Moldiztegi ori Bilintxen denborakoa da; onen zenbait bertso-paper ortxe leenengoz inprentatu ziran. Baditeke, beraz, argitaraldi au Xenpelarren denborakoa izatea.

Moldiztegiaren utsegiteak ziralakoan, iru ikutu egin dizkiegu bertsoei. Onela zegoan berez bertso-paper ontan: 4/1: Funtziyo ta erromeriyak; 6/9: oiek orla gertatzen dira; 8/3: egunez askok ikusiko gaitu.

* * *

Guk eskuratutako urrengo argitaraldia, Don Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduman arkitu degu. "Vergara: Imp. de J. López" moldiztegiaren argitara emana da. Puska batzuk falta ditu, eta 1, 2, 3 eta 5-garren bertsoak ez daude osorik. Eta gaiñontzeko bertsoetan aldaketa auek ditu: 7/1: Asko onela ekusten dira; 13/9: Emen utzita juanak dira; 14/7: edo bestela guretzat dator.

Ortaz gañera, izenburuaren puska aundi bat falta du, eta ez da au besterik irakurtzen: lerro batean BERRIAC; eta bestean EC JARRIAC. *Sempelarrec jarriac* esango zuan, aurreko paperak bezela.

* * *

Ona orain guk ezagutzen ditugun gaiñontzeko argitaraldiak eta beren aldaketak:

Argia astekaria, 1927-IV-24: Izenburua: Bertso berriak munduko arrokeriyak zer sententzi ekarriko duan erakusteko Sempelar⁷ek jarriyak. 1/3: orretarako nere burua; 1/4: sartu biet lenda-bizi; 1/10: ez du galtzerik merezi; 2/3: zer sententzi ekarriko duan; 3/3: zarrak berdintsu ikusten dira; 3/4: oitura txarrak banatzen; 3/6: jarri naiz kon sideratzen; 3/8: gorputza abandonatzen; 3/9: bukaera txarra guretzat dator; 3/10: ezpage-rade aldatzen; 4/3: bañan ez degu kon sideratzen; 4/4: nola geran buru-ariñak; 4/6: beti egin alegi-ñak; 4/7: edo bestela guretzat datoz; 5/3: orregatik an eltzen zaizkigu; 6/1: Eleizatikan atera eta; 6/7: geren animak desanparatu; 7/1: Asko onela ikusten gera; 7/2: esanaz: "¿konpesatzera?"; 7/3: naigo degu pausua eman; 7/4: aurrera bañio atzera; 7/5: Urtian beingo jornada degu; 8/5: Damurik gabe prestatzen gera; 9/1: Konpesatuta au esaten da; 9/8: munduko errematia; 9/9: peka-tuarentzat itxia dago; 11/2: etsai gaiztuen tartera; 11/3: ura andikan ateratzeko; 11/8: ondo kontu-bak atera; 12 eta 13-garrena tokiz aldatuta daude; 12/5: Guregatikan lajatu zuen; 13/9: Emen utzita juanak dira; 14/1: Bertsolariyak zertako egin; 14/2: bere burua justua!; 14/8: sententzien bat estua.

Eta 15-garren bertso bat ere badu:

15/ Animak garbi jarri ditzagun
al bada kristau guziyak,
eta irabazi gogor egiñaz
etsaiakiko auziyak;
pekatutikan zer datorkigun
ondo gaude ikasizak,
gero damurik ez du izango
munduan ondo bizi yak,
orretarako lagun deigula
gure Jaunaren graziyak.

Argia astekaria, 1933-VI-4 eta 11: aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Gabino Huizi zana, Goizueta. Aldaketak: 1/3: orretarako nere burua; 1/4: sartu biet lenda-bizi; 2/3: zer sententziya ekarriko duen; 3/3: zarrak

igual ikusten gera; 3/4: krianza txarra banatzen; 3/5: mundu ontako pasadisua; 3/6: jarri naiz kon sideratzen; 4/3: baña ez degu kon sideratzen; 4/4: nola geran buru ariñak; 4/6: beti egin alegiñak; 4/7: edo bestela guretzat datoz; 4/9: beren eskutik arren iduki; 5/3: orregatikan sortu zaizkigu; 5/5: asko ondo ikusten gera; 6/1: Elizatikan atera eta; 6/3: bi debosiyoz baldin bagaude; 6/7: geren animak desanparatu; 7/1: Asko onela ikusten gera; 7/3: nayago degu pausua eman; 7/5: urtian beingo jornara degu; 7/6: jendia engañatza; 7/7: pekatariya modu orretan; 8/4: guazen inulabarrian; 8/5: damurik gabe prestatzen gera; 8/9: beste munduban agertuko da; 9/1: Konfesatuta au esatia; 9/8: munduko errematia; 9/9: pekatuarentzat itxiya dago; 10/9: obra onakin logra dezagun; 11/2: etsai gaiztuen tartera; 11/3: ura andikan ateratzeko; 11/5: bi ordu daude mundu onetan; 11/8: ondo kontubak atera; 11/9: biziyo txarrez engañatsia; 12/3: begira galdu ez dedin zeruba; 12/5: guriagatik bajatu zuen; 13/9: emen utsita juanak; 14/1: Bertsolariyak zertako egin; 14/2: bere burua justua; 14/3: beztela bizi naiz baño; 14/7: edo bestela guretzat dator; 14/9: Jesusen gana oroi gaitzen.

Amabostgarren bertsoa badu onek ere, baiña aldaketa onekin: 15/10: gure Jaungoikoaren graziyak.

Bertso-papera, “*Imp. Macazaga. - Rentería*”, Patxi Labandibar, Larria, Oiartzun. Aurrekoa bezelaxe eta 15/10: Jesus onaren graziyak.

Bertsolariya astekaria, 27 zenbakia, 1932-III-20. Aldaketak: 2/3: zer sententzia ekarriko dun; 3/3: zarrak berdintsu ikusten dira; 3/4: oitura txar rak banatzen; 3/6: jarri naiz kon sideratzen; 3/8: gorputza abandonatzen; 3/9: bukaera txarra guretzat dator; 4/3: bañan ez degu kon sideratzen; 4/5: errespetua guardatutza; 4/6: beti egin alegiñak; 4/7: edo bestela guretzat datoz; 5/3: orregatikan eltzen zaizkigu; 6/1: Eleizatikan atera eta; 6/7: geren animak desanparatu; 7/1: Asko onela ikusten gera; 7/3: naiago degu pausua eman; 7/4: aurrera baño atzera; 7/5: urtian beingo jornada dute; 8/5: damurik gabe prestatzen gera; 9/1: Konpesatuta an esateko; 9/8: munduko errematia; 9/9: pekatuarentzat itxia dago; 11/2: etsai gaiztuen tartera; 11/3: ura andikan ateratzeko; 11/8: ondo kontubak atera; 12/5: guregatikan lajatu

zuen; 13/9: emen utzita juanak dira; 14/1: Bertsolariyak zertarako egiñ; 14/2: bere burua justua!

Amabostgarren bertsoa ere bai, aldaketa onekin: 15/10: gure Jaunaren graziyak.

Bertso-papera, “*Imp. Macazaga - Rentería*”, Juan Maria Arbelaitz, Intxaurren, Oiartzun. Onek bertso guziak *Bertsolariya* astekariak bezelaxe.

Jauregi`tar Luis: *Xenpelar bertsolaria* liburua, Itxaropena, Zarautz, 1958. Onek ere bertso guziak *Bertsolariya* astekariak bezelaxe, eta 5/9: aditu ez duenik bada; 10/7: konfesio on bana egiñaz, gero; 14/7: edo bestela etorko zaigu.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Inazio Otamendi, Bentzalaga, Bidania; Arraskularre, Karrika, Oiartzun; Elizgarai, Ondarrabi; Frantzisko Labandibar, Larria. Ugaldetxo, Oiartzun. Paper onek iru bertso falta ditu: 2, 11 eta 12-garrena. Beste guziak *Bertsolariya* astekariak bezelaxe, onako auek izan ezik: 7/1: Asko onela ikusten dira; 7/3: nayago dute pausua eman; 7/5: urtean beingo jornada dute; 7/8: dijua konfesatza; 7/10: fariseuen antzera; 8/5: damurik gabe prestatzen dira; 8/6: konfesorien aurrin; 9/9: pekatarintzat ichia dago; 10/7: konfesio on bana egiñ dezagun; 15/10: Jaungoikuaren graziyak.

Bertso-papera, “*Artes Gráficas Pasajes S.L.*”, Loita-azpikoa, Errezil; Juan Maria Arbelaitz, Intxaurren, Oiartzun. Izenburua Bertso Berriyak Senpelarrek jarriyak. Bertsoak *Bertsolariya* astekariak bezelaxe.

Bertso-papera, “*Tip C. Berroya. - Vergara*”, Joakin Ganborena Zabala, Errenteria. Onek 15-garren bertsoa falta du. Gaiñontzeko bertsoen artean beste auek sartzen ditu:

Konfesiua ona izateko sarritan entuzten degu: Jaungoikuari lendabizirik bere grazia eskatu, eta norberak kontzientzia ondo-ondo esamiñatu, pekatu txiki eta aundiak dan bezela akusatu, Jaungoikuaren ofensak dira, biar zaiguz ba damutu.

Da propositu firmia ere aurrerantzerako artu, ipintzen deuskun penitentzia ainbat lasterren kunplidu; konfesorien kontseju onak memorian ondo artu, pulpituetatik ere sarritan klaru dute predikatu, onek onela egin bear dira, bestela ezin salbatu.

Personarik onenarekin beti peleatutzen du; zeren gaiztuak berekin beti daduzkalako katigu; doskoitatuek kalabozuan ondo loturikan ditu, errebañutik kanporakuak gura lituke arrapatu, bere grilluan jausi baño len arren bada akordatu.

Demofñiuen izketarekin ez gaitian engañatu, bestela bere enbusterialaz betiko galduko gaitu; bere antzeko aguazil batzuk munduan ere baditu, ardiz jantzita dabiltzaz eta ezin leizkez ezagutu, euren barruak otsuak dira da asko dute engañatu.

Nabarmen dago bertso auek Xenpelarrenak ez dirala, norbaitek -bizkaitarren batek ziur asko-aren saillari erantsitakoak baizik.

Bañan bertso berriak erantsi ez-ezik, aldaketa asko sartu ere bai Xenpelarren bertsoetan: 1/4: orretarako lenbizi; 1/7: nola gabiltzan arrokerian; 1/9: gure animaz kontu eduki; 2/1: Estudiorik ez-taukat baño; 2/3: zer sententzia izango duan; 2/6: beti piestan begiak; 3/1: Fiestara juanda gau ta

gaberdi; 3/4: krianza txarra zabaltzen; 4/5: errespetua guardatutzero; 5/2: ez dadukagu erdiak; 5/3: orregatikan etorri zaigu; 5/5: asko onelan egoten dira; 5/7: gogorazio ta nasaikeriak; 5/9: aditu nai ez duenik badago; 5/10: itxi beza belarriak; 6/6: ezin pasaurik denpora; 6/7: beren anima desanparatu; 6/9: onek onela gertatzen dira; 7/1: Asko onelan ikusten dira; 7/2: isanas konfesatzero; 7/3: naiago luke pausu egin; 7/4: aurrera baño atzero; 7/7: pekataria, modu orretan; 7/8: konbertiduko etzero; 7/10: fariseuen antzero; 8/2: geienez gogo txarrian; 8/3: egunez asko begira dago; 8/5: damurik gabe jartzen dirade; 8/8: irutai bi gordian; 8/9: beste munduan agiriko da; 8/10: tranposuak nortzuk diran; 9/1: Konfesatuta an esateko; 9/2: kanpora urten artian; 9/5: baño orrelan ez da kunplitzen; 9/9: obe izango da geure fabore; 9/10: jartzia Jesus maitia.

10/ Luzifer dabil gu toriatzen praka gorriak jantzia; ondo esanaz da inbusterialaz galtzen dau mundu guztia. Bere izketa labanetara arrimatzen da jentia, guztia berak preso artzeko zabaltzen ditu sariak, katigatu ta ipintzen ditu gure anima tristiak.

11/3: ura andikan ateratzeko; 11/7: oiek nola pasauko diran; 12/1: Batiotikan artu genduan; 12/7: ikusten dogu nola daguan; 12/8: kurutzitari josia; 12/9: pekatariak salbatziagatik; 12/10: artu du eriotzia; 13/1: Pobre ta aberats, zar eta gazte; 13/3: ez deiguzala arren desiau; 13/4: munduko interes andiak; 13/5: animarentzat kaltian dira; 13/6: gurari ta maliziak; 13/7: zerta dira tratuak eta; 13/9: bertan utzita juan oi diraz; 14/1: Bertsolariak zertako egin; 14/2: bere burua justua; 14/7: edo bestela etorriko da; 14/8: sententzian bat estua; 14/10: ez dago gugaz aztua.

BERTSO BERRIAK

JESU-KRISTOREN PASIUARI JARRIAK

1/ Fedeko egia bat
kantuko moduan:
zer pena pasa zuan
Jesusek munduan;
ia, nere kristauak,
aditu kontuan:
izan bearko genduan
zerutik kanpuan,
Jesukristo ill ez balitz
gurutze santuan.

2/ Pazkuaren aurreko
ostegun-gaba zan,
Jesus odol isurtzen
egona baratzen;
baldin bere Aitaren
borondatia bazan,
eriotzatik libratzia
posible ote zan,
ezetz esan zion da
oso bildurtu zan.

3/ Jesus ordurako zan
Judasek saldurik,
baita bere anima
betiko galdurik;
judu odol-zaliak,
gaizki informaturik,
etzioten arkitu
iñun pekaturik,
preso eraman zuten
sokakin loturik.

4/ Ogei ta amar dirutan
egiñik tratua,
Judasek saldu zuan
Jaungoiko justua;
bere gaizki egiñaz
txit ernegatua,
piko batetik soka
lepotik lotua,
ostiral goizian zan
Judas urkatua.

5/ Ainbeste soldadu tzar
Jesus lotutzer, a,
andik eraman zuten
Anasen etxera;
gero berriz Kaifasi
presentatutzer, a,
zer dotriña zedukan
kargu artutzer, a,
zerutik jatxi zala
gu salbatutzer, a.

6/ Pensatu zuten, Jesus
zalako erua,
buruan sartutzia
arantzaz korua;
ainbestez etzan ase
Kaifasen gogua,
Pilatosi biraldu
Jaun Soberanua,
onek egin zezala
iltzeko modua.

7/ Pilatos jarririkan
Jesus juzgatzeko,
bañan ezin billatu
kulparik iltzeko;
gero agindu zuan
azotatzeko,
eriotzarik gabe
ala libratzeko,
bañan agindu zuten
gurutz-iltzatzeko.

8/ Bost milla ta geiago
azote lenbizi,
alako martiriorik
ez du iñork ikusi;
tormentu oiek danak
emanik Jesusi,
gero eraso zioten
berriz Pilatosi,
gurutze baten puntan
bear zala josi.

9/ Ainbeste desafiyo
aditu onduan,
Pilatos bildurtu zan
alako moduan;
jartzeko gurutze bat
Berari lepuan,
Kalbarioko mendira
arekin dijuan,
Pilatosek sententzia
ala eman zuan.

10/ Gurutze bat emanik
Bera jositzeko,
Kalbarioko puntan
an ikusitzeko;
Jesus konformatu zan
danak sufritzeko,
borondatez biziya
emen utzitzeko,
munduko pekatuak
erremeditzeko.

11/ Jerusalengo kale
orietatikan
mendira artu zuten,
sokaz loturikan;
pauso bat ezin eman
gurutze-petikan,
Jesusen enpeñuak
ziran gugatikan,
libratziagatikan
gu pekatutikan.

12/ Kalbarioko mendi
bide gogorrian
iru bider erori zan
Jesu-Kristo lurrian;
bere Ama Santisima
zijuana aurrian,
ikusirik Semia
ezin egiñian,
zer pena egongo zan
aren barrenian!

13/ Laguntzeko artu zuen
Simon Zirineo,
ojala pensatuko
balitz egunero;
ibilli ez gaitezen
damututa gero,
Simonen pausuetan
jarraitzia dago,
bost aldiz aditzen da
kulpitotik klaro.

14/ Allegatu ziranian
mendi santu artan,
iltziakin josi zuten
esku ta oñetan,
zeru-lurren jabea
gurutze orretan,
gure salbazio-eske
Aitari benetan,
zeñi etzaio jartzen
biotza penetan?

15/ Amabietan zuten
kurutzian jarri,
zorrak pagatutzeko
pekatariari;
erregu egin zion
aita Eternuari,
arren barkatutzeko
aren etsaiari;
orra zenbat nai zigun
Jesu-Kristok guri!

16/ Zer pena pasa zuan
 Jesusek gugatik:
 zintzilika iru ordu
 gurutze batetik;
 lantza sartu zioten
 bular sagradutik,
 ala ere biziko zan
 oiek danakgatik,
 borondatez il zan gu
 salbatziagatik.

17/ Kunplimentu emanik
 Jesusek lanari,
 pekatariakgatik
 artu zuanari,
 San Juan utzi zion
 bere ordez Amari,
 espiritua berriz
 Aita Eternuari,
 despeira egin zion
 mundu guziari.

* * *

Bertso-sail au Xenpelarrena dala Errenteriko Makazaga moldiztegiak esan zuan leenengo aldiz, bere *Bertsolariya* astekarian, 27 zenbakian, 1932-ko martxoaren 20-an. Ori bera esaten dute geroztik bertso auek argitarara eman dituzten guziak. Baiña argitaraldirik zaarrenak, Makazaga baiño leenagoko bertso-paperak alegia, ez dute egillaren izenik batere aitatzen. Ala ere, Makazaga'ren esana ontzat ar genezakeala uste degu, garai artako Errenteri aldeko bertsozaleen aotik ala jasoko baitzuan.

* * *

Doiñu au Ondarroako Jose Maria Etxaburu jaunaren kuaderno batetik artua da:

Fe-de-ko e-gi-a bat
 kan-tuz-ko mo-du-an zer
 pe-na pa-sa zu-an Je-
 su-sek mun-du-an I-a

ba - da kris - tau - ak a -
 di - tu kon - tu - an i -
 zan be - ar gen - du - an
 ze - ru - tik kan - po - an Je -
 su - kris - to ez - pa - litz
 gu - ru - tze san - tu - an.

* * *

Bertso-papera, “*Imp. de P. M.*”. Segundo Aguirrezabalaga, Azpeitia; Aita Agirretxe, Errezil; Larraburu baserria, Oiartzun; Inazio Zabala, Olazabal-berri, Altzo-azpi.

Bertso-papera, “*Azpeitia. - Imp. de P. Martínez*”, Bodleyan Library, Oxford. Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, “*Imp. de Quintanilla. - Zarauz*”, Egiluze-txiki baserria, Usturbil. Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, “*F. Muguerza ta Semeen moldizteguian*”, Joakin Ganborena Zabala, Errenteria. Aldaketak: 5/1: Ainbeste soldadu zan; 7/10: gurutzian iltzeko; 10/4: au ikusitzeko.

Bertso-papera, “*Tip. Ereña, Buen Pastor 2*”, Fernando Artola Bordari, Ondarrabia. Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, “*Imp. de S. de Diego. - Eibar*”, Don Fidel Uria apaiz jauna zana, Azpeitia; Isidora Mokoroa, Tolosa. Aurreko biak bezelaxe.

Bertsolariya astekaria, 27 zenbakia, 1932-III-20. Izenburua: Jesukristoren Pasiua Xenpelar'ek jarriyak. (Leen esan bezela, onek esan zuan leenengo aldiz bertso auk Xenpelarrenak dirala.) Gaiñontzeko aldaketak: 1/1: Fedeko egiya da; 1/2: kantuzko moduan; 3/6: gaizki formaturik; 4/5: bera gaizki egiñaz; 5/1: Ainbeste soldadu zan; 11/6: gurutze betikan.

Bertso-papera, “*Imp. Macazaga - Rentería*”, Juan Jose Beltza, Aginaga; Arrasku-larre, Karrika, Oiartzun. Aurrekoa bezelaxe.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria* liburua, Zarautz, Itxaropena, 1958. Aurreko biak bezelaxe.

Euskal-Erriko kanta zarrak, Número 4. Ez da izen orrekin Makazagak argitaratu zuan liburua, moldiztegi orrek berak atera zituan orri batzuk baizik. Aurreko irurak bezelaxe.

(1866)
BERTSO BERRIAK

1/ Milla zortzireun irurogei ta
seigarren urtian guaz,
bertso berriyak jartzera nua
munduko pausa galduaz;
bire gaiztoko galaniyarik
ez artu geren buruaz,
anima garbi para dezagun
mantxa guziyak kenduaz.

2/ Zeruko Aita, zure biar naiz,
eskaten dizut graziya,
fedea santura biurtu dediñ
dudan dagueen guziya;
oponiyua bire askotan
zabaltzen dago asiya,
etsai gaiztuen atzapparretan
tentaziyuak josiya.

3/ Nere burua santu egin ta
ez naiz asiko ezertan,
guziyak gera pekatariyak,
ezta dudarik orretan;
asko desioz engañatzen da,
bestiak berriz obretan,
fedea gaiztoko mandamentuak
animarentzat sobretan.

- 4/ Aita Santua Jaungoikuaren
urrengo agintariya,
mandamentuak nola guardatu
erakusteko jarriya;
mundu guziyan predikatzen du,
au da fedeko egiya,
aren kontrako pekatariya
dago lastimagarriya.
- 5/ Nola biar dan dakigula're
kontra gabiltza erdiyak,
aditu eziñ litezkeenak
mingañaren pikardiyak;
mundu ontako interes eta
egun engañagarriyak
konsideratzen jarrita negar
egiñ lezake arriyak.
- 6/ Etsai gaiztuen tentaziyuak
ezpaninduke josiko,
pekatuaren lasatasuna
nuke adieraziko;
gorputzak diyo biziyo txarrak
ez dituela utziko,
gero anima kondenatua
eternidade guziko.
- 7/ Jaungoikoaren kontra gabiltza
gerentzat zori gaitzian,
fedea au eziñ sarturik nabill
jendiaren biotzian;
Barrabas bere Satanasekin
presente eriotzian,
egun bi emen gustora pasa,
infernurako iltzian.

8/ Gorputza il da anima bizi,
arentzat mantxa gaiztuak,
orra munduko Indiyak eta
interesaren gustuak.
Zenbat dirade komeni eztan
moduan aberastuak?
Eternidade guziyan gero
tormentu kruel estuak.

9/ Zer izango da pena geiago
anima baten galera?
Enterratzen du kalabozora
etsai gaiztuen aldera;
denbora jua ta ezta biguntzen
Jaungoikuaren kolera,
sententzi ori jakiña dago
deskuidatutzen bagera.

10/ Utzi munduko arinkeri ta
bire gaiztoko pausuak,
nola diraden esaten digu
Jaungoiko amorosuak;
gorputzagandik apartatzeko
pekaturako lazuak,
betiko pena izan eztezan
gero anima gaisuak.

11/ Jolas oiekin biotz gogorrik
ez baldin bada mugitzen,
iruritzen zat salbatutzeko
bire gaiztoan gabiltzen;
damutasun bat artu dezagun
asi gaitezen umiltzen,
guregantikan lastimagarri
Jesus gurutzian il zen.

- 12/ Tunika zuri penagarri bat
jantzi ziyoten soñian,
azotaturik burlatu zuten
berak nai zuten añian;
iltzeko jarri Ama negarrez
gurutziaren ofñian,
ainbeste pena sufritu zuten
Galbarioko gañian.
- 13/ Guregantikan pasatu zuen
eriotzako ordua,
iltzez josi ta gero arantzez
egiñ zioten korua;
au da zeruko eta lurreko
gauza guziyen burua,
zure legia burlatutzeko
zeñek biar du gogua?
- 14/ Ai, nere Jesus redentoria,
maisú bat obeditua,
etsai gaiztuen eskuetara
iltzeko errenditua,
gure anima izan derilla
tribunalera deitua;
damu det, Jauna, biotz guztitik
bedori ofenditua.
- 15/ Pekatariyak izan bagera
geren animen kaltian,
damutasun bat artu dezagun
munduan geran artian;
Aita San Pedrok sartu gaitzala
zeruetako atian;
Jesus onaren konpañiyara
aingeruakin batian.

16/ Gero gloria gozatutzeko
sartu gaitezen zeruan,
beste gauzarik ez desiatu
biotzian ta goguan;
amasei bertso nere graziya
jakin dezaten munduan,
eskola gabe jarriyak dira
entenditzeko moduan.

* * *

* * *

Bertso-sail oni buruz dakiguna auxe bakarrik da: Xenpelarrek moldatua dala. Ala adierazten baita bertsoen bukaeran, firma bezala: Senpelarrek jarriak.

Xenpelarrek ainbeste alditan oia duan bezela, bertso auek ere erlijio-gaia erabiltzen dute.

Bertso-papera, "*Vergara'n: Francisco Maria Machain-en moldizteguien*", Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduma, Loidola, Azpeitia.

Moldiztegiaren utsegitez gaizki zeudelakoan, zuzendu egin ditugu an eta emen itz batzuk. Onela dio bertso-paperak: 5/1: Nola biar dakigula're; 5/3: aditu eziñ litezkenak; 6/3: pekatuaren lasatasunak; 6/5: gorputzak diyo biziyo txarra; 14/7: damu det jaun biotz guzitik; 14/8: bedor ofenditua.

(1867)
BERTSO BERRIAK
SENPELARREK JARRIAK

TONKIN'EKO OBISPO JAUNAREN BIZITZA
BALENTIN BERRIOTXOA, ZENTURIA-N MARTIRIZATUA,
1861-GARREN URTIAN, SANTU GUZIEN EGUNEAN,
ELORRIO-KO NATURALA.

1/ Milla zortzireun irurogei ta
au zazpigarren urtia,
Kristo zerutik jetxi zanetik
oneraño bitartia.
Iru obispok pasatu duten
martiriyuaren fuertia!
Penagarriya izan da oien
munduko errematia.

2/ Baten bizitza kanta dezadan
au da bigarren bertsoa,
Elorrioko naturala da
Balentin Berriotxoa;
aita ta ama Bizkaian daude,
semia an il da gaizoa,
salbajietan kunplitu zaio
eriotzako plazoa.

3/ Amairu urtetik amabostera
estudiyo bat ikasi,
gero aitaren ofizioa
erakusten zuten asi;
gogoa zeukan apaiz eginda
naiago zuela bizi,
tormentu gutxi mundu onetan
eztu beregan ekusi.

4/ Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bizirik,
ogei ta zazpi lendabiziko
estudiatzen asirik;
seminario batera joan zan
karpintero ikasirik;
negarrez nabil aren pausoak
ezin adierazirik.

5/ Seminario eder batian
Logroñon apaiz egiña,
beste guziak bañan lenago
ikasirik esamiña;
buru abilla izanik eta
fede santurako fiña;
negarrez urtu laitake artaz
akordatuko bagiña.

6/ Ogei eta lau urte zituan,
etzeukan memori illa,
kolejiyoko maisuak beziñ
estudiante abilla;
obispo jaunak ezagaturik
justua eta umilla,
agindu zuen meza emanta
erretiratu zerilla.

7/ Goizeko labak jotzian meza
eman ta konfesiyoa,
barau egiñez obra onetan
pasatzen zuen denbora;
pobrerik iñoiz etortzen bazan
eskian atal ondora,
bere ogia ari emanta
deboziyua gogora.



- 8/ Logroñon meza eman zuen ta
Elorriora etorri,
predikatzen da konfesiyan
bere erriyan zan jarri;
Azpeitiyako San Inaziyon
bisita egin du sarri,
azkenerako aren pausoak
ziraden lastimagarri.
- 9/ Suertatu da gure Balentin
San Inaziyon sartzia,
pensatu zuen ango Padria
adbertentzian jartzia
nola nai zuen Santo Domingok
zeukan jantziya artzia,
ia fabore egingo ziyon
al bazuen ekartzia.
- 10/ Ango Padriak maite izanik
ipiñi zuen kontuan,
agindu ziyon sartu zerilla
Ocaña-ko komentuan;
bire guziyan eskian joan zan,
gaubak askotan kanpuan,
bere korputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.
- 11/ Allegatu zan Ocaña-ra ta
eman zioten jantziya,
berak nai zuen korputzarentzat
alako penitentziya;
munduko gauza guztiyak beti
alde batera utziya,
neke trabaju naigabietan
artu du pazientziya.

- 12/ Gure Balentin Berriotxoak
egin zituen pausoak,
konsideratzen jarri ezker
dirade lastimosoak;
beti negarrez Jesusengana
zabaldurikan besoak,
aren biotza konsolatzen du
zeruko usai gozoak.
- 13/ Pasiatzera etzan joaten
komentuko lagunakin,
etxian zeukan tertulia ona
errosario birekin,
bere korputza martirizatzen
azote disziplinakin,
oraziyoak baliyo badu
zeruan dago Balentin.
- 14/ Bakardadian oneraño zan
Balentiñen istoriya,
Ocaña-tikan Manila ziran
zortzi ministro abiya,
barkuan ere sufritu dute
makiña bat komeriya,
biotza penaz urtu laitake
ez baldin bada arriya.
- 15/ Ocaña-tikan Manila-raño
barkuan bost illabete,
jakiña dago izango zala
asko leguaz aparte;
zortzi ministro oien artian
au zan sobresaliente,
gure Balentin ango maisuak
obispo nonbratu dute.

- 16/ Ango Padriak agindu ziyon
esku-bidia artzeko,
predikatutzen asi zerilla
kristandadian jartzeko;
konfesiyo ta barau-egunak
animaz akordatzeko,
pekatuaren mantxa Judasen
kalabozuan sartzeko.
- 17/ Artua jan da ura erari,
arri gañian lo egin,
beti Jesusi erregututzen
gutaz akordatu dedin;
kristandadia nai zuenari
konfesiyoak eragin,
jakiña dago salbajiakin
etzeguala atsegin.
- 18/ Erreinu artan gobernadore
salbajien nagusiya,
Jaungoikoaren bildur gabia,
estranjeriyan aziya;
relijiyoko fede santuan
jarri nai duen guziya,
agindu zuen plazan kentzeko
ezpatarekin biziya.
- 19/ Garagarraren lendabiziko
goizian ziraden asi,
arratserako bost milletatik
etzan granorikan bizi;
fede santuko kristabak iltzen
zituenian ekusi,
Balentin bere lagunetara
abiatu zan igesi.

- 20/ Pedro Almato eta bestia
Jeronimo Hermosilla,
gero Balentin Berriotxo
saltatu zan oben billa;
iru obispo juntatu ziran,
zeukaten biotz umilla,
aien bizitza laster izan da
martirizatuta illa.
- 21/ Arrapatuta kate gogorrez
lotuak zeuden elkarri,
iltzeko eman sententziya ta
kartzela banetan jarri;
soldadu-tropa baten erdiyan
gero plazara ekarri,
ezpatarekin lepuak moztu
dizkate lastimagarri.
- 22/ Orretarako eskatu zuten
ordu beteko lekua,
Jaungoikoari egin artian
beren ofrezimentua;
governadore batek eman du
pena kastidarekua,
iñor oietaz damutzen bada
bertan kentzeko lepua.
- 23/ Iru obispo oien korputzak
ogei eta lau orduan
iduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan;
Orientalko probintziyan da
Jeu-dat deitzen dan lekuan,
erregutzen det aien animak
gerta ditezen zeruan.

24/ Orra ogei ta lau bertso berriyak
ejemplo eder batian,
oroipengarri kanta ditzaten
pektarien artian;
ai, gure Jesus, eskatzen dizut
grazi (y) au errematian:
komeni da ta sartu gaitzazu
zeruetako atian.

* * *

Balentin Berriotxoaren bertso auk,
Azken Juizioarenak bezela, Xenpela-
rrek jarritako bertsorik ezagunenak
izango dira.

Berriotxoia 1861 urtean il zuten;
Xenpelarrek andik sei urtera jarri zi-
tuan bertso auk, 1867-garrenean.

Argibideak nundik jaso zituan ez
dakigu. Agian, ordurako bertso-jar-
tzaille bezela oso ezaguna baitzan,
eliz-gizonen batek emango zizkion.

Bigarren bertsoak dionez, euskal
martiri berriaren gurasoak artean bizi
ziran, eta aien eskuetara ere iritxiko zi-
ran bertso auk.

Jainkoak bakarrik daki zenbat aldiz
argitaratu izan diran. Ala ere, ez dago
batetik bestera esaterik merezi duan
aldaketarik. Gure iritzirako, oso gutxi-
tan gertatu izan da bertso-sail bat ain-
beste aldiz argitaratu eta ain gutxi al-
datua izatea.

Bertso auk Euskalerriko azken zo-
koetaraiño zabaldu ziran. Ala, ez dakit
geiegizkoa botako degun, baiña ber-
tsolari baten bertsoak geiago ezagutu
arazi dute bearbada Berriotxoaren ize-
na Euskalerrian, eliz-gizonen sermoi,
idatzi eta gaiñerako egiñaal guziak
baiño.

Leenengo doiñua Errenteriko Ma-
kazaga'ren *Xenpelar'en Bertsuak* li-
burutik artua degu.



Mi-lla zor-tzireun i - ru-ro gei ta



au zaz-pi-ga-rren ur-ti - a,



Kris-to ze-ru-tik je-txi za-ne-tik



o - na-ra-ño bi-tar-ti - a;



i - ru o-bis-pok pa-sa-tu du-ten



mar-ti-riyu-a-ren fuer-ti - al



pe-na-ga-rr-i-ya i-zan da oi-en



mun-du-ko e-rre-ma-ti - a.

Bigarren doiñua, Erasungo Migel Elizalderen aotik jaso, Azkueren esku-idatzietan agertu da:

Allegretto

Mila zortzireun i-ru ro-
gei ta au zaz - pi-ga-rren ur - te -
a Kris-to ze-ru-tik je - tsi
ze-ne-tik o-ne - rai-fio bi-tar - te -
a i-ru o-bis-pok pa-sa-tu
du-te mar-ti - ri-o bat fuer - te -
a pe-na - ga-rr-i - a i - zan
daaien mundu - ko e-rr-e ma-te - a.

Irugarren doiñua ere, Ondarribian jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Andante con motto

Ba-ten bi - zi - tza kan-ta de-
za - gun au da bi - ga - rren ber - tso -

a E - lo - rri - o - ko na - tu - ra -
la da Ba - len - tin Be - rri - o - txo -
a Ai - ta e - ta a - ma Biz - ka - ian
dau - de se - me - a il da gai - xo -
a sal - ba - je - e - tan kon - pli - tu
za - io e - ri - o - tze - ko pla - zo - a.

Laugarrena ere, Erasunen jaso, Azkueren esku-idatzietatik:

Allegretto

Ba-ten bi - zitza kan - ta de-
za - gun au da bi - ga - rren ber - tso -
a E - lo - rri - o - ko na - tu - ra -
lada Balen - tin Be - rri - o - txo - a.

* * *

Leen esan bezala, bertso-sail au ere aldi askotan argitaratua izan da. Ala ere, batetik bestera oso aldaketa gutxi dago; edo, obeto esateko, aitzateko diña dan aldaketarik ez dute alkarren artean.

Baiña bata besteari kopiatzen ibili dirala nabarmen ikusten da, moldiztegi-utsegiñak eta okerrak ere alkarri artzen dizkiote eta.

Ona eman gure eskuetara iritxi diran argitaraldiak:

Bertso-papera, "*Vergaran: Francisco M^o Machain-en moldizteguien*", Parisko Liburutegi Nazionalan.

Bertso-paper au, eskuratu degun zaarrena da, eta Xenpelarren denborakoa. Orregatik berari kopiatu diogu, moldiztegiaren utsegite auek zuzentzeko izan ezik; 1/4: oneraño bitaryan; 5/8: akordatu bagaña; 6/1: Ogei ta lau urte zituan; 10/7: bere korputzak azotatuaz; 11/6: alde batera utziyak; 13/2: komentu lagunakin; 14/3: Ocaña-tikan Manilara ziran; 16/3: predikatzen asi zerilla; 18/7: agindu zuen plaza kentzeko; 19/3: arratsera bost milletatik.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, New Library, Chicago.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduma, Loiola, Azpeitia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manterola zanaren bilduma, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Egiluze-txiki baserria, Usurbil.

Bertso-papera, "*Tolosa: Imprenta de E. López*", Aita Agirretxeren bitartez eskuratua.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Maria Mujika, Intza, Naparroa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Berrizko etxe batetik, Aita Santiago Onaindiaren bitartez.

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde. - Irún*", Don Fidel Urija apaiz jauna zana, Azpeitia.

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde. - Irún*", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Rentería Tip. Vda. de Valverde*", Alkiza; Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Eibar. - Imprenta de P. Orúe*", Erreteriko Enrique Elizetxea zanaren bilduma.

Bertso-papera, "*Eibar - Imp. de P. Orúe*", Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduma.

Bertso-papera, "*Imprenta y Librería de Elosu. Durango*", Maria Oiartzabal, Makutso baserria, Oiartzun; Juan Arbelaitz, Donostia; Juan Garayalde, Orendain.

Bertso-papera, "*Durango. - Imprenta y Librería de Elosu*", Joakin Ganborena Zabala, Erreterio.

Bertso-papera, "*Durango. - Imprenta y Librería de Elosu*", Eugenio Bidea Agirre, Zabale, Leioa.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego. - Eibar*", Josefa Aizarna, Aizarna; Munitibarko emakume baten eskutik, Erramun Gerrikagoitia-ri bitartez.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego. - Eibar*", Garro baserria, Getaria; Frantzisko Lasa, Zaldibarren, Bidania; Pepe Bolunburu, Plazentzia.

Bertso-papera, "*Imp. de S. de Diego. - Eibar*", Loita-azpikoa baserria, Errezil; Inazio Ugartemendia, Bentzalaga, Bidania.

Bertso-papera, "*Durango. - Imp. de Roberto Soloaga*", Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza.

Bertso-papera, "*Guernica. - Imp. de Goitia y Compañía*", Don Manuel Lekuona apaiz jauna zana.

Bertso-papera, "*Guernica. - A. de Goitia y Compañía*", Urtia baserria, Elgoibar, Antonio Arrillaga zanaren bitartez.

Bertso-papera, "*Guernica. - A. de Goitia y Compañía*". Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Erreterio.

Bertso-papera, "*Guernica. - Imp. Artística Goitia y Hormaechea*". Ez nuan idatzi noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Guernica. - Imp. Angel de Goitia*", Abel Muniategi, Ereño, Bizkaia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteriko Makazagarenean eskuratua.

Bertso-papera, "*Imprenta Macazaga. - Rentería*", Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Munitibarko Gontze baserritik, Erramun Gerrikagoitiaren bitartez.

Xenpelar'en Bertsuak liburua, Makazaga, Errenteria, 1931 urte inguruan.

Bertsolariya astekaria, 17 zenbakian, 1932-I-10.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral euskérica*, Beñat Idaztiak, Donostia, 1936.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, San Sebastián, 1965.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar Bertsolaria* liburua, Itxaropena, Zarautz, 1958.

(1867)
BERTSO BERRIAK
SENPELARREK JARRIAK

1/ Komeni diran bertso berriyak
esplikatu al banitza,
aditutzia desio duen
bati eman diyot itza;
bailiak eta soñu ederrak
engañatuta gabiltza,
animarentzat kaltian dator
gure munduko bizitza.

2/ Abenduaren lendabiziko
goizeko zazpiyetan zen,
templo santuan egondua naiz
sermoi eder bat aditzen;
Jesusen llaga preziosuak
astera nua berritzen,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
entendimentua argitzen.

3/ Pekatariyak artu dezagun
dolori au biotzian:
gugatik zenbat sufritu zuen
Jesusek eriotzian;
firme gabiltzan faltatu gabe
fedea santuko itzian,
gero anima izan eztedin
infernurako iltzian.

4/ Nere kristabak, birian dator
azken juizioko eguna,
jakiña dago begiyen bistan
ikusi biar deguna;
Josefetako zelai santuan
tronpetak soñu illuna,
galduak pena eramango du,
justuarentzat fortuna.

5/ Munduko gauzen errematia
dakar azken juiziyuak,
auts biurtuta utziko ditu
erri ta palaziyuak,
mendiyak lertu alkarren kontra,
erreino eta naziyuak;
sententzi ori botako digu
Jesusen bendiziyuak.

6/ Itxasuak su, eguzkiya illun,
illargiya odolak artu,
lurrak ikara eta gañera
erriyo danak agortu;
munduko gauza baliyosuak
erre ta ikatz biurtu,
pekatariyak umill gaitezen
bada zerekin beldurtu.

7/ Eriotzaren larritasuna,
suspiriyuak barrendik,
nai eztegula bertan il biar
anparo gabe iñundik;
Josefetako zelai santura
bilduko gera emendik,
ezta zeruan sartuko Jesus
desanparatzen duenik.

8/ Jesus zerutik Josefetara
aingeruakin batian,
pekatariyen artzai umilla
badator oroi tartian;
zelai santura bilduko gera
bire guztiyak betian,
gure orduko larritasuna
sententziya eman artian!

9/ Alkarren bistan emango digu
sententziya bat zorrotza,
gure faltak an agertu biar,
gaiztuarentzat zer lotsa!
Pekatariryak altxa dezagun
Jesusengana biotza,
konsideratu nola gugatik
pasa zuen eriotza.

10/ Josefetako zelai santuan
askok degu ekusiko
Jesus nola dan sententziya bat
guri ematen asiko;
gaiztua dana infernurako,
onik eztu mereziko,
justuarentzat zeruko silla
eternidade guziko.

11/ Aita Santu ta errege oiek,
obispo ta apaiz guziryak,
pobre, aberats dianak berdiñ,
maisur orren justiziryak;
diruak eztu an baliyoko,
ori gauden ikasiryak,
zeñi beria emango digu
Jaungoikuaren graziryak.

12/ Anima galdu baten tormentu
eta naigabe aundiyak,
zer diran eziñ konsideratu
gizonaren memoriyak;
eternidade guztiko pena,
etsaien mende jarriyak,
orra munduko gustuak eta
egun engañagarriyak!

13/ Guztiyak gera pekatariyak
desioz edo obretan,
tentaziyuak gureztat dira,
ezta dudarik orretan;
gorputz argala erortzen bada
bere bizio txarretan,
gero anima entregatzen du
etsaien atzaparretan.

14/ Bi bire dira ezker ta eskui,
komeni da ikastia,
aukeran gaude, bata zerura,
infernurako bestia;
gure anima Jaungoikoari
ainbesteraño kostia,
ia zer pena izango duen
Luziferrentzat uztia!

15/ Infernua da kalabozo bat
mortal ikaragarriya,
sartutzen danak ikusiko du
tormentu oien berriya;
Luzifer dago ango errege
ezpatarekin jarriya,
orren mendian egon biarrak
animak daukan larriya!

16/ Zeruak dauzka amabi ate,
aingeru bana guardiyan,
urrez egiñak murallak eta
alaja fiñak erdiyan.
Gloriyak daukan edertasuna
musikaren alegriyan!
Premiyu ori alkantatzera
gabiltzan fede garbiyan.

17/ Aita Santua Erroman dago,
izena Pio deritza,
aren kontrako enemiguak
inguratuak dabilta;
Jaungoikoaren birtutia da
beti errenditzen gaitza,
kristau fielak, kunpli dezagun
ebanjeliyoko itza.

18/ Bertso berriyen errematia
zer datorkigun jakiña,
orra nik esan nola diraden
gustuak eta samiña;
zeru eder au alkantatzeko
enpeñatu alegiña,
zu bitarteko eskatzen zaitut,
aingeruen Erregiña.

* * *

Azken juizioko bertso famatu auen argitaraldirik zaarrena, guk eskuratu ditugunetan, beste zenbait aldiz bezela, Bergarako Frantzisko Maria Matxain-en moldiztegikoa degu. Parisko Liburutegi Nazionalean dago eta mikrofilmez etxeratu genduan.

Zorionez, urtea ere badakar: 1868. Urte berean jarria ote zan? Izan degu ori somatzeko biderik.

Bigarren bertsoan onela dio:

Abenduaren lendabiziko
goizeko zazpiyeta zen,
tenplo santuan egondua naiz
sermoi eder bat aditzen...

Danok dakiguna, bi abendu dira: bata, urtearen azken illabetea; bestea, eliz-urtearena; Gabon aurreko lau igandeak alegia. Ain zuzen, azken juizioko ebanjelioa igande oietako leengoan irakurtzen zan.

Bertsoetatik ateratzen danez, Xenpelar zazpietako mezetara joan zan,

VERSO BERRIAC

Sempelarree jarriac Dioscodoc here alabari lepoa quendutaco
bicitza Santa Barbarari.

1

Santa Barbara zure bicitza
cantuz beardet zabaldu
arguitasun bat memoriyara
nai badirazu biraldu;
biotzac poza mingañaac ere
cembait itzenguigo aldu
ejemplo ori aditu faltan
ñor eztedi galdu.

2

ñorc badu atencioric
desioarequin pasa
aren bicitza cantutaco det
munduan legueric bada;
milla sei eun urte pasac
jayoric Santa Barbara
aitac lepua quendu ciona
Bitiniaco alaba.

3

Barbarac aita zuen pagano
jaunaren beldur gabia
alabac berriz nayago zuen
cristiandadeco leguia;
orientalen batayatuizan
izanic humildadea
orain ceruan gozatzen dago
bere eternidadea.

4

Barbara zuen aitac lenago
estimatusa izana
colegiyoco bat berac eguinta
estudiatzen ceucana;
arguitasun au memoriyara
ango maisuac emana
orientalen cristau eguin zan
Bitiniatiz joana.

5

Andic echera etorri eta
aitari cion escatu
iru leyoco obra berri bat
berac nola eguin juzgatu;
alabac esan zuan moduan
agudo zuan prestatu
bañan oraindic certaraco zan
etzuen manifestatu.

6

Iru leyocac trinidadiaac
au da señale clarua
personac dira diferentiac
Jaungoico bat eguiaczcoa;
Barbarac oyeac adoratzeco
beregana ceucan gogoa
munduan obra onac eguinta
guero betico cerua.

7

Orra Barbarac aguindutaco
ermita chiquiyan eguin
ustez etzuen alabarentzac
orretaraco eraguiñ;
esaten cion escon cedilla
aitac naizuen batequiñ
erreino artan guztuyen buru
jarrico zala erreguiñ.

8

Barbarac eztu gogoric izan
jolas oyeac aditzeco
erantzun cion sartu zala ta
humillago ibiltzeco;
Jesus ceucala bere maisua
nola bici aguintzaco
orduan aita asitzayon
desafiaco iltzeco.

9

Alaba iguesi aita ondotic
obeditzeco argana
mendia lertu milagroac eta
escutatutzan barrena;
arrapatuta jo ta errira
gobernadore baena
aren leguera inuda cedilla
bestela biciya pena.

10

Joca golpatu añera preso
idolo oyen mendian
Barbara beti Jaunari deica
cegñien fede onian;
Jesus cerutic vicitazera
etorri citzayonian
carcelan cura eguin eiyon ta
sano bidaramonian.

11

Virtutearen indarra ceucan
enemigoac austeco
criatura bat mundura sortu
orrembeste icusteco;
milagro ori eguiñagatic
etzende libre uzteco
ayen leguera biur cedilla
edo bularrac mozteco.

12

Orduan ere lengo itzian
firme cegñien jarrita
Jesusengana entregatua
izanice fede garbiya;
guero bularrac moztu cizcaten
au zan laudina garriya
culparic gabe icusi zuen
tormentu oyen berrian.

13

Bularrac moztu eta eramana
calabozuan barrena
Barbara bere itzian firme
aitac ori zuen pena;
gobernadore batec emandu
erremateco ordena
ezpatarequin lepua bertan
quentzia zala onena.

14

Santa Barbara eriotzian
egñiten citzayon asi
barcacioa escatu eta
oracio bat Jesusi;
barbaro oyeac beguier vistan
ill ta nai zuen icusi
bañan otzuen aitaren gandie
orrelacoric mereci.

15

Guraso batec umiarentzac
izan olaco biotza
aitac esandu nic eguingodet
alabaren borrorota;
deseo ori logratu eta
artu ezpata zorrotza
bertan lepua quendu ziyon
lagatu zuen ill otza.

16

Esan biar det nola izan zan
guizan oyen ondoria
biyac chimistac erresituen
au da milagro obia;
lendabico aita quizcali
guero gobernadoria
orregatic da Santa Barbara
suaren defensoria.

17

Concepcioco doncellatasun
virgindadia ceucana
oguei urtean aitac lepua
ezpatac quendu ciyona;
abenduan zan martiri ori
illac laugarren eguna
gorputzac penac animarentzac
guero betico fortuna.

18

Verso berrien errematiain
escatzen dizut cedorri
iltzian zure compañiyara
albaniteque etorri;
martiri onen penac cer ciran
orra atencioz jarri
ejemplo ori izan dedilla
munduan oroipengarri.

eta sermoian entzun zituaneakin bertso auek paratu zituan.

Berak dionez, abenduaren leendabiziko eguna zan. Ori kontuan arturik, azterketan asi giñan Xenpelarren denboran zein urtetan egokitu zan aurreneko abendu-igandea illaren leendabiziko egunarekin. Eta ori 1867 urtean gertatu zala arkitu genduan.

Bertso auek urte orretan jarriak dira, beraz; ain zuzen, Xenpelarrek iltzeko bi urte palta zituanean.

Gero, bertsoak inprentara bialdu eta onek bere lana egin bitartean, urte berria sartuko zan.

Orregatik, 1868-an inprentatua bada ere, Bergarako bertso-paper ori izango da leenengo argitaraldia.

Eta bera eskuratzeaz, oso suerte ona izan degu. Orrela, izan ere, ainbeste eta ainbeste argitaraldi artean, zeñi kopiatu bear genion aurretik jakin degu.

* * *

Amazazpigarren bertsoak onela esaten du:

Aita Santua Erroman dago
izena Pio deritza...

Pio IX degu bera, 1792-an jaioa, 1846-an Aita Santu egiña eta 1878-an illa.

Ondoren, onela jarraitzen du bertso onek:

aren kontrako enemiguak
inguratuak dabilta...

Izan ere, orduantxe ari ziran jo ta ke lanean Italia batu nai zutenak. Aita Santuaren lurraldeak ere, *Estados Pontificios* izenekoak alegia, menderatu nai zituzten, eta lortu ere egingo zuten ori, 1870-eko iraillean Erroman sartuz. Oietxek dira, beraz, "aren kontrako enemiguak".

* * *

Leenengo doiñua Erreteriko Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburutik artu degu.

Ko - me - ni di - ran ber - tso
 be - rri - yak es - pli - ka - tu al ba - ni -
 tza, a - di - tu - tzi - a de - si -
 o du - en ba - ti e - man di - yot i -
 tza; bai - li - ak e - ta so - fiu
 e - de - rrak en - ga - fia - tu - ta ga - bil -
 tza, a - ni - ma - ren - tzat kal - ti -



an da-tor gu-re mun-du-ko bi-zi - tza.



A-ben - du-a-ren len - da-

Bigarrena, irugarrena, laugarrena
eta bostgarrena R. M. Azkueren
Cancionero popular vasco bildumatik,
600 eta 644 zenbakitik.



bi-zi-ko goiz-e - ko zaz - pi - e - tan



zen ten-plu san-tu-an e - gon-



du nintzan sermoi e - der bat a - di-



tzen. Je - su - sen lla - ga pre - zi-



o - so - ak as - te - ra no - a be - rri-



tzen: ze - ru - ko Ai - ta, la - gun



zaidazu enten - di - men - tu - a ar - gi tzen.



A - ben - du - a - ren len - ta -



bi-ziko goizeko zaz-pi-e-tan



zen ten-plo santu-an e-go-




tu-anaiz sermoie - der bat a-di -



tzen. Bai-lek e-tasoifu e-de -



rrak enga - fia-tu-a ga - bil -



tza, a - ri - ma-rentzat kal-te -



andator mun-du on - ta-kobi-zi-



tza.



Konbe - ni di - ran bertso



be-ri-ak es-pli - ka - tu al ba-nin -



tza, a - di - tu - tze - a de - sc -



o nu-en ba-ti e-man di - ot i -

tza. Bai-le - ak e - ta soi - fiu
e - de-rrak en-ga - fia - tu - rik ga-bil -
tza, a-ni - ma - ren - tzat kal - te -
an da-tor gu-re mun-du - ko bi zi - tza.

ma-ren-tzat kal - te - an da-tor gu-re
mun-du-ko bi - zi - tza.

Seigarrena, Arraiotzen jasoia Aita Donostiaren *Euskal-Eres-Sorta* bildumatik, 1921, 225 zenbakitik.

Kon - be -
ni di-ran ber-tso be-rrak es-pli-
ka-tu ál - ba-nin - tza, a - di -
tu-tze-a de-se - o nu-en ba-ti
e-man di - ot i - tza. Bai-le-
ak e-ta soi-fiu e-de-rrak en-ga-
fia-tu - rik ga - bil - tza a - ri

Kon - be - ni di - ran
ber - so be - rri - ak es -
pli - ka - tu ahal ba - ni - tza, a -
di - tu - tze - a de - se - o du -
an ba - ti e - man di - ot i -
tza. Bai - li - ak e - ta
so - fiu e - de - rrak en -

ni-ma-ren-tzat kal - te-an da -
tor gu - re-mundu-ko bi - zi - tza.

tza a - ni - ma - ren-tzat kál-te - an
da-tor gu-re mun-du - ko bi-zi - tza.

Zazpigarrena, Ondarroako Jose Maria Etxaburu jaunaren kuaderno batetik:

Zortzigarrena, Azkainen bildua, Azkueren esku-idatzietan azaldu da:

Ko-me-ni di-ran ber-tso ba-
tzu-ek es-pli - ka - tu al ba - ni-
tza a - di - tu - tzi - a de - se - o
du-en ba-ti e - ma - ten di - ot i-
tza bai - li - ak e - ta so - fiu e -
de - rrak en - ga - fia - tu - rik da - bil-
tza a - ni - ma - ren - tzat kal - ti - an
da - toz gu - re mun - du - ko bi - zi -

A - ben - du - a - ren len - da -
bi - zi - ko goi - ze - ko zaz - pi - e - tan
zen ten - plo san - tu - an e - gon
du nintzan sermoi e - der bat a - di -
tzen. Je - su - sen la - ga pre - zi -
o - so - ak as - te - ra no - a be - rri -
tzen: ze - ru - ko Ai - ta la - gun
zaidazu enten - di - men - tua ar - gi - tzen.

Bederatzigarrena, Aita Donostiaren
Euskal-Eres-Sorta bildumatik, 1921,
224 zenbakitik, Arraiotzen jaso:



A bendu - a - renlenda bi-zi-
ko goi-ze-ko zaz - pie - tan zen;
ten-plo san-du - an e-gon-du gi -
fien sermo e-der bat a - di - tzen:
Je-su-sen lla - ga pre-zi - o - su -
ak as - te - ra nu - a be - rri -
tzen, ze - ru - ko Ai - ta, lagun di - da -
zu en - ten - di - men - tu ar - gi - tzen.

Amargarrena, Aita Donostiak *Gure Herria* aldizkarian argitaratua, 1931 urtean:



Ko - me - ni di - ran
ber - tso be - rri - ak es -
pli - ka - tu al - ba - ni - tza, a -
di - tu - tzi - a de - si - o du -
en ba - ti e - man di - ot i -
tza. Bai - le - ak e - ta so - fiu e - de -
rrak en - ga - fia - tu - rik ga - bil -
tza; a - ni - ma - ren - tzat
kal - te - an da - tor gu -
re mun - du - ko bi - zi - tza.
* * *

Bertso-papera, "Vergara 1868. - Imp. de Francisco M. Machain". Auxe da Xenpelarren denborako argitaraldi bakarra, gure eskuetaraiño iritxi diranetan beintzat. Bertsoak oni kopiatu dizkiogu noski.

Jaungoikoak bakarrik daki geroztik bertso aukerak zenbat aldiz argitaratu eman diran. Guk ezagutzen ditugun argitaraldiak izendatze utsarekin, errenkada luzea osatu degu, irakurleak ikusiko duenez. Orregatik, luzetxo litzake bakoitzaren aldaketak emen jartzea. Ori egin bearrik ere ez dago aldi ontan, argitaraldi guztiak aldaketa berberak dauzkatelako. Bata besteari kopiatzen ari izan dirala esan nai du orrek. Aldaketa oiek leenengo sartu zituana ez dakigu nor izan zan; baiña bai ondo eta sakon itsatsita utzi zituala.

Orregatik, egokiena auxe iduritu zaigu: aurrena aldaketa mordo ori jartzea, eta urrena argitaraldien berri ematea. Batzuek beste aldaketarik ere badute, baiña oso gutxi. Oietatik nabarmen-txoenak bakarrik jarriko ditugu.

Ona, beraz, aldaketa mordo ori: 1/6: engañaturik gabiltza; 2/7: Zeruko Aita, lagun zadazu; 3/2: doloria biotzian; 3/3: Jesusek zenbat sufritu zuan; 3/4: gugatik eriotzian; 4/6: tronpeta soñu illuna; 6/2: illargia odolaxkatu; 7/2: suspiriaoa barrrendik; 7/6: juango gero emendik; 8/4: badator oien artean; edo bestela: badator oien tartean; 9/3: gure obrak an azaldu bear; 9/7: kon sideratu gugatik nola; 10/2: asko degu ikusiko; 10/5: gaiztuak denak infernurak; 10/6: onak ez du mereziko; 10/7: justuarentzat zeruan silla; 11/3: pobre ta aberats dianak berdiñ; 11/7: zeñi beria emango dio; 12/5: eternidade guztiko penak; 12/6: ez aien mende jarriyak; 13/1: Guzioak gera pekatariyak; 14/3: aukeran daude bata zerura; 14/7: ia zer pena artuko duen; 15/3: an sartzen danak ikasiko du; 15/7: arren mendean egon bearra; 15/8: animak dauka larriya; 16/1: Zeruak ditu amabi ate; 16/3: urrez murallak egiñak eta; 16/7: ia gabiltzan fede garbiyan; 16/8: an sartuzeko iltzean; 17/2: batzuek: izena Pio deritza; eta beste batzuek: izena Leon deritza; 17/4: inguraturik dabilta; 18/1: Bertso berriyen errematian; 18/3: orra nik esan nola bear dan; 18/4: egiñ justu esamiña; 18/5: premiyo ori alkanzatzera.

Gogoan artzekoa da 16/7 eta 16/8 lerroetan gertatua. Norbaitek ontara aldatu zuan:

ia gabiltzan fede garbiyan
an sartuzeko iltzean.

Utsegite aundi samarra zan, puntua ere aldatzen dio ta. Ala ere, geroztikako argitaraldirik geienak etziran ortaz oartu, eta ori ere artu egin

zioten. Nabarmen dago, beraz, itxu-itxuan kopiatzen ziotela alkarri. Baiña denborarekin oartu ziran oker ortaz, eta orduan asi ziran bertso-bukera ori itxuraz jartzen.

Luze samarra litzake argitaraldi bakoitzak le-
rro oiek nola dituan adieraztea, eta esan deguna-
rekin naikoa izango da.

Argitaraldiak:

Bertso-papera, "*Vergara 1868: -Imp. de Francisco M. Machain*", Parisko liburutegi nazionallean.

Bertso-papera, "*Tolosa: Imp. de E. López*", Bofleyan Library, Oxford; Jose Maria Satrustegi apaiz jauna, Luzaide.

Bertso-papera, "*Imp. de Eusebio López*", Manuel Lekuona apaiz jauna zana, Oiartzun.

Bertso-papera, "*Imprenta y librería de Osés*", Manuel Lekuona apaiz jauna zana, Oiartzun.

Bertso-papera, "*Eibar. - Imprenta de Pedro Orúe*", Florentina Pérez Salaberria, Errenteria.

Bertso-papera, "*Eibar. - Imprenta de Orúe*", ez nuan kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Eibar. - Imprenta de Pedro Orúe*", Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-papera, "*Eibar. - Imprenta de Pedro Orúe*", Parisko liburutegi nazionallean.

(Eibarko Orueneko aukerak argitaraldi diferente-
ak dira, naiz eta modiztegi-izena berdiña izan.)

Bertso-papera, "*Imprenta y Librería de F. Elosu. - Durango*", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Irun: Imp.....erde*", Jertrudis Arrieta zana, Errenteria. (Papera zikinduta dago eta puntuz idatzi deguna ezin irakurri da.)

Bertso-papera, "*Irun: Imp. de B. Valverde*", Aita Donostia zanaren bilduma, Lekarotz.

Bertso-papera, "*Irún: Imp. de B. Valverde*", beste argitaraldi bat. Ez nuan idatzi noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Imp. de Vda. de B. Valverde. - Irún*", Isaak López-Mendizabal zana, Tolosa; Segundo Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donostia.

(Valverdeneko iru bertso-papera aukerak ere argitaraldi ezberdiñak dira.)

Bertso-papera, "*Imp. S. de Diego. - Eibar*", Eulojio Mujika, Ipiñarri, San Prudentzio, Bergara; Garro baserria, Getaria; Arantzazuko liburutegia, Oñati.

Bertso-papera, "*Imp. S. de Diego. - Eibar*", Inazio Ugartemendia, Bentzalaga, Bidania.

Bertso-papera, "*Tip. de S. de Diego. - Eibar*", ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, "*Imp. de Saturnino de Diego. - Eibar*", Inazio Zabala, Olazabal-berri, Altzo-azpi; Isidora Mokoroa, Tolosa.

Bertso-papera, "*Iñaki Deunaren irarkola, Garibai, 28. - Donostia, 1928*", Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oartzun.

Bertso-papera, "*Imp. de Quintanilla. - Zarauz*", ez nuan kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Argia astekaria, 1926-X-17.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Eleizgarai, Ondarrabia; Juan Maria Arbelaitz, Intxaurren, Oartzun.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Jose María Ariztondo, Muñoz, Bidania; Jose Antonio Salegi, Kortatxo-berri, Azpeitia.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia; 1/5: soñubak eta baile ederrak; 13/6: zenbait biziyo txarretan; 18/7: bitarteko eskatzen zaitut.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Fernando Artola *Bordari* zana, Ondarrabia; 13/6: zenbait biziyo txarretan; 18/7: bitartekotzat eskatzen zaitut.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Balentin Muguruza, Elosiaga, Azpeitia; Jose Korta, Epelarre, Urrestilla; Goenaga baserria, Azkoitia.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Makazagarenean jaso.

(Makazagaren sei argitaraldi auek ere ezberdiñak dira.)

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Inazio Zabala, Olazabal-berri, Altzo-azpi; Nikolas Unanue, Azpeitia.

Argitaraldi onek bi bertso falta ditu: 13 eta 15-garrena.

Beste aldaketa batzuk: 7/8: ofenditutzen duanik; 17/3: aren kontrako etsai gaiztoaz; 17/4: inguraturik gabiltza; 18/7: zu bitarteko jarri nai zaitut.

Argia astekaria, ez dakigu zein egunetakoa, erreorte batean jaso.

Argia astekaria, beste erreorte batean, au ere zein egunetakoa dan ez dakiguna, Manuel Beraza apaiz jaunaren eskutik jaso.

Argia astekaria, beste erreorte bat, zein egunetakoa dan eta noren eskutik jaso genduan ez dakiguna.

(Lau bider aitatu degu *Argia* astekaria. Laurak argitaraldi ezberdiñak dira.)

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Juan Basurko olerkaria zana, Irun; baita ere Oartzungo etxe batetik, Basarriren bitartez. Beste aldaketa batzuk: 3/4: gugatik oroitzian; 7/8: ofenditutzen duanik; 13/7: gero anima entregatzen da; 15/3: an sartu danak ikasiko du; 17/3: aren kontrako etsai gaiztoaz; 17/4: inguraturik gabiltza; 18/7: zu bitarteko jarri nai zaitut.

Xenpelar'en bertsuak liburua, Makazaga, Errenderi, 1931 urte inguruan. Beste aldaketa batzuk: 6/1: Itxasoa, su, eguzki, illun; 12/6: ez aien mende jarriyak; 13/6: bere guziyo txarretan.

Bertsolariya astekaria, 18 zenbakian, 1932-I-17. Aurrekoa bezelaxe.

Manuel de Lekuona: *Literatura oral euskérica* liburua, Beñat Idaztiak, Donostia, 1935. Beste aldaketa batzuk: 3/4: gugatikan oroitzian; 4/4: azken juizio-eguna; 12/6: ez aien mende jarriyak; 13/6: bere kutizi txarretan; 15/1: Infernua da kalabozo bat; 18/7: zu bitarteko ipintzen zaitut.

Jauregi tar Luis: *Xenpelar bertsolaria* liburua, Itxaropena, Zarautz, 1958. Aurrekoa bezelaxe.

Manuel de Lekuona: *Literatura oral vasca* liburua, Auñamendi, San Sebastián, 1964. Aurreko biak bezelaxe.

* * *

Bertso-papera, "Tolosa: Imprenta de Eusebio López", Aita Agirretxeren eskutik jaso.

Argitaraldi onek ere besteak dakarzkiten aldaketa oiek berak ditu, iru edo lau lerrotan izan ezik. Baiña baita ere besteetan arkitzen ez diran argitaraldi batzuk ere. Orregatik, naiz eta argitaraldien berri ematea: 2/2: goizeko zazpiretan zen 4/5: Josefetako zelai santuko; 5/1: Mundu guziaren errematia; 6/7: kristau fielak umil gaiten; 7/3: nai ez duala bertan il bear; 8/4: or dator oien tartian; 9/3: gure faltak an arkitu bear; 10/3: Jesus sententzi tokatzen dana; 10/4: ematen zaigu asiko; 10/6: onak ez deu mereziko; 11/7: zeñi berria emango dion; 12/7: orra zer diran munduko gusto; 13/3: tentazioa guretzat dago; 13/4: ez dago dudarik orretan; 13/6: berez bizio txarretan.

* * *

Bertso-papera, "Imp. de Pozo y C^a", Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduma. Aldaketak: 1/6: engañaturik gabiltza; 3/2: doloria biotzean; 3/3: Jesusek zenbat sufritu zuan; 3/4: gugatik eriotzean; 4/6: tronpeta soñu illuna; 5/2: dakar aizken juizioa; 5/6: erreinu ta nazioak; 6/1: Itxasoak su, iguzki illun; 6/2: illargia odolakaxtu; 6/3: lurrak ikarak eta gañera; 7/6: juango gera emendik; 8/4: badator oien tartian; 8/5: zelai santura juango gera; 9/3: gure obrak an azaldu bear; 9/7: kontsideatu gu gatik nola; 10/2: asko degu ikusiko; 10/5: gaiztuak danak infernuako; 10/6: onak ez du mereziko; 11/6: ori gaude ikasiak; 11/7: zeñi berca emango dio; 12/5: eternidade guztiko penak; 12/6: ez aien mende jarriak; 13/2: deseoz ero obretan; 14/3: aukeran daude bata zerura; 15/3: an sartzen danak ikusiko du; 15/5: Luzifer dago errege; 15/7: arren mende an egon bearra; 15/8: animak dauka larriya; 16/1: Zeruak ditu amabi ate; 16/3: urrez murallak egñiak eta; 16/7: ia gabiltzan fede garbian; 16/8: an sartutze ko iltzean; 17/2: izena Leon deritza; 17/4: inguraturik gabiltza; 18/3: orra nik esan nola bear dan; 18/4: egñi justu esamiña; 18/5: premiyo ori alkantatzera.

* * *

Zazpiak bat - Eskualdun kantuak, Santiago de Chile, Imp. Y Enc. "Central" - Bandera 171, Telé. Ing. 5158, 1916.

Liburu au, oker ez bagaude, Jose Mendiage bertsolariak prestatu eta argitara arazi zuan.

Aldaketak: 1/1: konveni diran bertsu berriak; 3/1: Neri kristaubak artu dezagun; 3/3: Jesusek zenbat sofritu zuen; 3/4: gu gatik heriotzean; 4/1 Bekatariak bidean dator; 4/6: tronpeta señu illuna; 5/5: mendiak estu alkarren kontra; 5/7: sententzi oiek botako ditugu; 6/1: Itsasoak su, eguzki illun; 6/2: illargiak odola artu; 6/3: lurrak ikaran eta gaiñera; 6/7: humil gaitetzen pekatarioak; 7/6: yoango gera emendik; 8/4: badator oien artian; 8/5: zelai artara joango gera; 8/6: bide guzian bertian; 8/8: sentitzia eman artean; 9/1: Alkarren bistan emango ditu; 9/3: gure obrak an azaldu bear; 9/5: pekatoriak altxa dezagun; 9/6: Jesusen ganat bihotza; 9/7: kontsideratu gu gatik nola; 10/5: gaiztoa dena infernurat ta; 10/6: onak ez du mereziko; 10/7: justuarentzat zeruan silla; 11/3: pobre ta aberats direnak berdin; 11/7: señu berean emango dio; 12/6: etzan menden jarriak; 12/7: orra munduko gostuak eta; 13/1: Guziok gera pekatoreak; 13/7: gero arima entregatzen du; 13/8: etzaien aztaparretan; 14/1: Bi bide daude ezkerta ezkun; 14/3: aukerran daude bata zerura; 14/5: gure arima Jangoikoari; 14/6: ainberzterario kostea; 14/7: ia zer pena artuko duen; 15/1: Infernua da kalabozoa; 15/3 an sartzen denak ikasiko du; 15/7: aren mende an egon bearra; 15/8: arimak daukan larria; 16/1: Zeruak dite amabi ate; 16/7: iha gabiltzen fede onean; 16/8: gu an sartzeko iltzean; 17/4: ingurutikan dabilta; 17/7: kriztau fidelak kumpli dezagun; 18/2: zer dakarkigun jakiña; 18/3: orra nik esan nola bear den; 18/4: justo egin etzamiña; 18/5: premio oiek alkantatzera; 18/6: empleatu alegiña.

* * *

Beste argitaraldi batzuk ere badira, baiña ez dauzkat nere mende. Oiek aztertzeak denbora asko bearko luke, probetxu gutxi ateratzeko, oso aldaketa berri gutxi arkituko genituzke eta.

(1869)
BERTSO BERRIAK

1/ Milla zortzireun eta
irurogei ta zortziyan
asunto bat asi da
gure probintziyan;
gerra kalte degunak,
nere iritziyan,
euskal erriyak gauden
lengo dezentziyan.

2/ Orain urte berriyan
sartuak gerade,
bañan lengo zarrian
asiyak dirade;
lege onetan gauden
ganbiyatu gabe,
iñor egin eztedin
euskaldunen jabe.

3/ Araba ta Bizkaiak
legezko indarrak,
Gipuzkoan ez gaude
laguntzalle txarrak;
ona iru probentzi
kantabriatarrak,
sostenitu ditzagun
lengo fuero zarrak.

4/ Guk pakia nai degu,
ez gerrarik emen,
zarrak eman ziguten
giyamentuan len;
mudantzak asi dira
egun gutxi barren,
anparatu gaitzala
Jaungoikuak arren!

5/ Nere kristau fielak,
legi au guardatu,
mudantza berririk ez
memoriyan artu;
zer egin bear degun
orra enkargatu,
bizirik ez gaitezen
infernuan sartu.

6/ Orra klaruan esan
nere ditamena,
umiltzia nai nuke
gaizki dabillena;
gerrak askorentzat du
ondorian pena,
pakian konpontzia
gauzarik onena.

7/ Liberalak diyote
egoteko umill,
lengo lege zarrikan
eztutela nai ill;
gu tontuak bagiña
oiek beti abill,
oraindik asuntua
fandangan dabill.

8/ Erregiña emendik
bialdu ta sarri
asunto bat digute
askorentzat jarri;
zertarako dabiltzan
kausari igarri,
begiratu nola dan
asiera orri.

9/ Notiziya gaiztuak
dirade azaldu,
kristau fielak ori
egin bear al du?
Lengo legerikan nai
ezpazuten saldu,
jesuitak zertako
kanpora bialdu?

10/ Legiaren kontrako
makiña bat etsai,
azi txarrak banatzen
kanpuetan lasai;
sazerdoterik iñork
eztu ikusi nai,
pikardiyen dabiltzan
majaderuak bai.

11/ Debaldekua dala
aur bataiatzia,
gañera iltzen dana
enterratutzia;
ezpazaie tokatzen
jornalik artzia,
alferrik da orduan
estudiatzia.

12/ Barbero, mediku ta
letraduai galde
ia ote dabiltzan
jornalikan gabe;
lanian trabajatzen
gorputza debalde,
iñor ezta alferrik
enpeñatu zale.

13/ Jornala irabazten
daukan enpleuan,
apaizak ere ala
dirade munduan;
zeñi beria kendu
biar dan moduan,
oientzat zer esanik
eztago orduan.

14/ Nastuta gabiltzanak
alkargana bildu,
Jaunaren justiziyari
obe da umildu;
gerrari laga eta
pakiari eldu,
inozente gaudenak
ez gaitezen galdu.

15/ Alkar ezin ikusi,
-au mundu argala!-,
uste degu betiko
jaiuak gerala;
alferrik da artzia
indarraren gala,
aingeru guardakuak
anpara gaitzala.

16/ Kortian jarri bedi
gizon bat umilla,
berari entregatu
ezpata ta silla,
etsaiaren indarra
utzi dezan illa;
ori deseatzten det,
ala izan dedilla.

* * *

Sail ontako zortzigarren bertsoak
onela esaten du:

Erregiña emendik
bialdu ta sarri...

Erregin ori Isabel II da, 1868 urte-
ko agorraren 30-eko iraulketak kanpo-
ra bialdu zuana. Ain zuzen, zalaparta
ura sortu zanean, Donostian zan bera
udararako etorria, eta Irundik barrena
erbesterratu zan.

Orregatik, onela dio lenengo ber-
tsoak:

Milla zortzireun da
irurogei ta zortzian,
asunto bat asi da
gure probintzian...

Baiña bertsoak ez daude urte ortan
jarriak, urrengoaren asieran baizik.
Orra zer esaten duan bigarrenak:

Orañ urte berriyan
sartuak gerade,
bañan lengo zarrian
asiyak dirade...

Eta irakurleak gogoan artu bearko
luke 1869-garren ori Xenpelar il zan
urtea dala.

Bertsoak iru burutapen dituzte: fue-
roak, pakea eta, irugarrena, apaizak eta
jesuitak.

Euskaldunak aspalditik beren fue-
roengatik kezketan zeuden. Kendu nai
zituztenak bazirala ondotxo zekiten.

Erregiña kanpora bota zuan iraul-
ketak ere ez ote zuan olako asmorik
izango?

Pakea ere kolokan zebillela adie-
razten digute bertso auk. Ain zuzen,
1869 urteko uztaillean, Kataluñako
Figeras eta Naparroako Iruñea Don
Karlosen alde altxatzeko asmotan zi-
ran. Baiña liberalak aurretik jakin eta
azpi-lana garaiz desegin zuten.
Partida batzuk ere agertu ziran La
Mancha-n, Extremaduran, Toledon eta
beste zenbait tokitan, baiña mendera-
tuak izan ziran.

Rada karlista jeneralak Bera aldetik
mugaz onuzko aldera sartu eta
Euskalerria armetan ipin arazteko as-
moak zituan. Baiña ontan ere libera-
lak arek zer zerabilkian alde aurrez ja-
kin zuten, eta Radak Frantzian gelditu
bearra izan zuan.

Auek guztiak uztaila ezkeroztik
gertatu ziran.

Bertsoak, berriz, urte asierakoak dira. Eta gerra etzan Euskalerrian benetan eta indarrean asi, 1872 urtea baiño leen. Ondo aurretik aditu zuan, beraz, Xenpelarrek gerra-usaia.

Iraulketak urriaren 8-an osatu zuan gobernu berria, eta onek andik lau egunera, illaren 12-an, jesuitak erbestera bialdu zituan. Ontaz ere zerbait esaten du Xenpelarrek.

Beste zenbait bertsoan adierazten denez, gobernu berriak apaizak beren lanak debalde egitea nai zuala ematen du. Orren kontrako iritzia ematen du gure bertsolariak.

Bertso auek kanta-paperetan zabaldu ziran, baiña egille eta moldiztegi-izenik gabe. Ez da arritzekoa, emen esaten diran guziak etziran gobernuaren gustokoak izango eta.

Bertso-paper ori, dudarik gabe Xenpelarren denborakoa, Donostian arkitu genduan, Joakin Yrizar jaunaren liburutegian.

Bertso auek Xenpelarrenak dirala, beste ainbestetan bezela, Makazagak esan zuan leenengo aldiz, 1932 urtean, *Bertsolariya* astekarian. Geroztikako argitaraldi guziak ori bera diote. Makazagak, seguru aski, Errenteriko garai artako bertsozaleen aotik jasoko zuan berri ori; eta, nik uste, ontzat ar genezakeana da.

Makazagak amaika bertso eskeintzen ditu, eta aldaketa askorekin. Gure iritzirako, bertso oiek norbaiten aotik jasoko zituan. Esan ere, aretxek esango zion bertso auek Xenpelarrenak dirala.

Geroztikako argitaraldiak ere ori bera dute: bertso gutxi eta aldaketa asko. Iñongo paperetatik ez, baiña norbaiten aotik jasoak dirala seiñale garbia, noski.

Yrizar jaunak papera erakutsi ezetan, ez genduke, beraz, bertso-sailla osorik argitaratzerik izango. Milla esker berari.

* * *

Leenengo doiñua Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno batetik artua degu.

Mi - lla zor - tzi - reun
 i - ru - ro - gei ta zor - tzi - yan, a -
 sun - to bat sor - tu da gu -
 re pro - ben - tzi - yan; ge -
 rra kal - te de - gu - la ne - re i - ri - tzi -
 yan: Eus - kal e - rri - yak
 gau - den len - go de - zen - tzi - yan

Bigarrena, Juan Zabaletaren alargu-
na zan Monika Galarragak kantatu eta
Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain
jaunak solfeoz idatzia.

Mi - lla zor - tzi - reun
i - ru - ro - gei - ta zor - tzi - yan, a -
sun - to bat a - si da gu -
re pro - ben - tzi - an; ge - rra kal - te de -
gu - la ne - re i - ri - tzi - yan: Eus -
kal e - rri - yak gau - den len -
go de - zen - tzi - yan.

Irugarrena, Ondarribian jasoa,
Azkueren esku-idatzietan arkitu degu:

A - la - ba ta Biz - ka - ia
lo - gezko in - da - rra legez koin darra Gi -
puz - ko - ak ez - tau - ka la - gun ta sun tra -

rra, o - rra i - ru pro - bin - tzia
kan - ta - bri - a - ta - rrak sus - ten - di - tu di - tza - gun
len go fue ro zarrak, o - rra i - ru pro bin tzia
kan - ta - bri - a - ta - rrak, sus - ten - di - tu di
tza - gun len - go fue - ro za - rrak.

* * *

Bertsolariya astekariak, bere 29 zenbakian, 1932-IV-3-koan, sail ontako amaika bertso argitaratu zituan: 1, 2, 7, 4, 9, 10, 15, 11, 12, 3 eta 16-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 2/3: bañan lengo zarretik; 2/5: lege oietan gauden; 3/1: Alaba ta Bizkaia; 3/5: orra iru probentzi; 4/3: zarrak juramentua; 4/4: eman ziguten len; 7/4: ez nai dutela ill; 7/7: oraindik asuntuan; 9/1 Notiziya berriyak; 9/5: nai ez bazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 10/3: jolas txarrak banatzen; 10/4: kalietan lasai; 10/5: apaizarikan eztu; 10/6: iñork ikusi nai; 11/3: bai eta iltzen dana; 12/5: lana egin gogotik; 12/7: alperrik ez da iñor.

Iruñean, *Barón de Montevilla* zanaren bilduman, sail ontako bederatz bi bertso arkitu ditugu: 1, 3, 7, 9, 10, 11, 12, 4 eta 16-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat pasa dute; 1/7: iya, mutillak, gauden; 3/1: Araba ta Bizkaian; 1/3: Gipuzkoatik ez gaude; 4/3: zarrak juramentua; 4/4: eman ziguten len; 7/3: lengo fuerorikan; 7/6: aiek beti abili; 9/1: Notiziya berriyak; 9/5: nai ez pazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 10/3: kanpuetan kontari; 10/4: dabiltzanak lasai; 10/5: sazerdoterik ere; 10/6: ez dute ikusi nai; 10/7: pi-

karditan dabilizan 11/6: jornalak artzia; 11/7: orduan alperrik da; 16/6: atzera dedilla.

Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanak, eskuz idatzitako orri batean, sail ontako zazpi bertso zituan: 1, 4, 11, 12, 3, 7 eta 9-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat para dute; 1/7: iya, mutillak gauden; 3/1: Alaba ta Bizkaiak; 3/5: orra iru probintzi; 4/3: zarrak giyamentua; 4/4: eman ziguten len; 9/1: Notiziya berriyak; 9/5: nai ez bazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 11/7: orduan alperrik da.

Errenteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanak sail ontako zazpi bertso buruz zekizkian: 1, 2, 7, 10, 11, 12 eta 15-garrena. Aldaketak: 1/2: irurogei ta zazpiyan; 1/3: asunto bat sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 2/3: bañan lengo zarretik; 2/5: lege oietan gauden; 7/7: oraindik asunto au; 10/3: jolas txarrak zabaltzen; 10/4: kalietan lasai; 10/5: apaizarikan ez du; 10/6: iñork ikusi nai; 10/7: pikarditan dabilizan; 11/3: bai eta iltzen dana; 12/3: aber ote dabilizan; 12/5: lanian nekatuz; 12/7: alperrik ez da iñor.

Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan, sail ontako bi bertso azaldu dira, 11 eta 12-garrena, paper zaar xamar batean kopiatuak, aldaketa auekin: 11/2: aurrak bataiatzia; 11/3: eta gañera illak; 11/7: orduban alperrik da; 12/1: Barbero, sendakiñai; 12/5: lanian nekatuta; 12/7: iñor ez da orreta; 12/8: saiatzeko zale.

Bertso bakoitzaren azpian onako *estribillo* au dakar:

urra yabiru yabiru yabirule,
urra yabiru yabirulete.

Ortiz gaiñera, besteetan arkitu ez ditugun bi bertso auek dakarzki:

Tabernarik taberna
dabilizan sagubak,
bigote ta perilla,
bizar zerratubak;
oiek baldin badira
fedea-ukatubak,
guk adora dezagun

Jaungoiko Santuba.
Urra yabiru...

Kartzela egifa da
gizonarentzako,
gaizki egin guziyak
ajola uzteko;
ez bada libertaderik
karlistarentzako,
debeka dezatela
liberalentzako.
Urra yabiru...

Bertso onen erdia gaiñetik tatxatuta dago, eta saietsean beste onela irakurzen da:

libertadea dute
nai duna egiteko,
debeka bada orduban
liberalentzako.

Jauregi' tar Luisek, *Xenpelar Bertsolaria* liburuan, sail ontako lau bertso ditu: 1, 4, 15 eta 6-garrena, orden ortan. Aldaketak: 1/2: irurogei ta zazpiyan; 1/3: asuntua sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 1/7: Euskal-erriyak daude; 1/8: bere dezentziyan; 4/4: giyamentu emen len; 6/1: Orra nik klaro esan; 6/8: litzake onena; 15/1: Alkar ikusi nai ez.

Eta besteetan arkitu ez degun bertso au ere bai:

Orain ikusten dira
zenbait tuno bakar
kalietan ijuka:
"Viba la libertá!".
neonek galdetu det:
"Gauz onek zer dakar?".
Gezurra esan didate
amabitik amar.

Baiña bertso au Larrabururena dala dirudi, aurrerago esango degunez.

"IYA GURIAK EGIN DU..."

1/ Iya guriak egin du,
badegu zeñek agindu;
ez oraindik umildu,
alkarregana bildu;
gerra nai duben guziya,
berari kendu biziya.

2/ Okasiyua prestatzen,
lotan daudenak esnatzen;
etzait neri gustatzen
maliziyan jostatzen
iñorekin ibiltzia;
ark merezi du illtzia!

3/ Gerraren billa gau t'egun
etsaiak arturik lagun;
arrazoi ote degun
edo zer datorkigun
asitzerako pentsatu
fusillak nola dantzatu!

4/ Ez naiz ni gerraren zale,
baizik pakearen alde;
zeñek nai duen galde,
berari tira dale,
bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan!

- 5/ Umildadean alkarri
errespetua ekarri;
lege eder bat jarri
bizi gaitezen garbi;
ori deseon nuke nik.
ixuri gabe odolik!
- 6/ Gaitzak gerade umiltzen
eta pakean unitzen;
ez da errez ibiltzen
anaiak alkar illtzen,
zer dan entenditu gabe;
ortan galduko gerade!
- 7/ Gu gera iru probintzi,
lengo legerik ez utzi;
oieri firme eutsi,
naiz anka bana autsi;
jaioko dira berriyak,
gu gera euskal erriyak!
- 8/ Alabes eta bizkaino,
gu gera gipuzkoano;
aitak il ziran baño
semeak oraindaño
legea degu guardatu;
letra zarrrik ez ukatu;

Frantzisko Petriarena
(*Senpelar*)

* * *

Bertso aukeratuak gaitzen gaitzen du-
te: pakea eta lege zarrrik.

Luis Jauregi apaiz jauna zanak one-
la esaten du bertso auengatik *Xenpelar*
bertsolaria liburuan:

“Gerrazale jauntxoak, *Xenpelar*’ek
bertsoekin egiten zuten kaltea -beren
asmoak aurrera eramateko, alegia-

ikusirik, beren begien aurretik kentzea
erabaki zuten.

Jaungoikoak eraman ez bazuan ga-
xotasunez, edo Iparragirre’k bezela
atzerriara jo bearra izango zuan, edota
ilko zuten noski baño noskiago”.

Ainbeste denboran *Xenpelar*ren
illobarekin bizi izan zan Florentina
Pérez Salaberriari txetasun ontaz gal-
detu genion eta onela erantzun zigun:



KANTA ZARRAK

1

Iya guriak egindu
badegu zeñek agindu
ez oraindik humildu
alkarregana bildu
gerra nai duben guziya.....
¡berari kendu biziya!

2

Okasiyua prestatzen
lotan daudenak esnatzen
etzait neri gustatzen
malizian jostatzen
inorekin ibiltzia
ark merezi du iltzia.

3

Gerraren bila gau t'egun
etsayak arturik lagun
arrazoi ote degun
edo zer datorkigun
asitzerako pensatu
fusillak nola dantzatu.

4

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde
zeñek nai duen galde
berari tira dale
bala bat sartu buruan
aspertuko da orduan.

5

Humildadean alkarri
errespetua ekarri
lege eder bat jarri
bizi gaitezen garbi
ori deseo nuke nik
ishuri gabe odollik.

6

Gaitzak gerade humiltzen
eta pakean unitzen
ez da errez ibiltzen
anayak alkar iltzen
zer dan entenditu gabe
ortan galduko gerade.

7

Gu gera iru probintzi
lengo legerik ez utzi
oyeri firme eutzi
naiz anka bana autzi
jayoko dira berriyak
gu gera euskal-erriyak.

8

Alabes eta bizkaino
gu gera gipuzkoano
aitak ill ziran baño
semeak oraindaño
legea degu guardatu
letra zarrak ez ukatu.

† FRANCISCO PETRIARENA
(Sempelar)



- Ez dut aditu. Bestela esaten zuen gureak -Xenpelarren illobak alegia-, emen manifestazioak eta abar izaten ziranean: "Gaur bizi izan bazen nere osaba, ilko luteke! Ez litzake ixilduko; berak onela esaten zuen: "neregatikan esango dute pikaro mingaiñ luzia". Ura etzen ixilik egongo; esango lituzke orain ere esatekoak, eta onez-kerokero il zuten!

Xenpelarren illoba oso karlista baitzan, esan bearrik ez dago zer manifestazio izango ziran oiek.

Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna zan Monika Galarragari ere galdetu genion, baiña ez omen zuan olakorik ezer entzun; Jauregik dionik, alegia. Onela esan zigun:

- Nere amona Xenpelarren edade-edadekoa zan, eta auzo-auzokoa gaiñera, Bordatxo baserrikoa. Alkar asko ezagutzen omen zuten. Ta gure amona orrek esaten zuen bertso batzuek bazi-tuela Xenpelarrek, liberalak gogor artu eta jarri araziak. Baiña ez dakit zer bertso diran oiek.

Ez genduan, beraz, galdezka ibilli ondoren, gauza garbirik atera. Eta orain berandutxo izango da, nik uste, iñondik argibiderik ateratzeko.

Batzuek Xenpelarrek politika-gauzetan zer oponio edo zer iritzi izan zuan galdetzen dute.

Aurreko bertsoetan, zazpigarrean, onela dio berak:

Liberalak diyote
egoteko umill,
lengo lege zarrikan
eztutela nai ill;

gu tontuak bagiña
oiek beti abill...

Ez du, beraz, bere burua liberaltzat jotzen.

Oraingo sail ontan, berriz, gerra eta edozein indarkeriren kontra itzegiten du. Eta dudarik ez da karlistak obeto asmatuko zutela, aren esana egin izan balute.

Ez bat eta ez beste, beraz. Gure iriztirako, Xenpelarrek bere burutik sortzen zituan bere irizpideak. Esate baterako, iturria etxean zuan, eta etzeukan uretara kanpora irten bearrik.

Orregatik, ez derizkiogu Xenpelar zer koloretakoa zan begiratu bear diogunik, baizik-eta zer esaten duan ondo gogoan artu. Aren bertsoak ikasbide ona dute gu danontzat ere.

* * *

Bertso auen ituririk zaarrena, guk arkitu ditugunetan, Irunen, Valverdearen alargunaren moldiztegian inprentatua da. Baiña Xenpelar il eta askoz ge-roagokoa da. Izenburuan ere onela dio: *Kanta Zarrak*.

Arrezkeroztik makiña bat aldiz argitaratu dira, baiña batetik bestera al-daketarik batere ez dutela. Orregatik, ez degu oarretan argitaraldi oiek izen-datzea beste lanik izango.

Xenpelarrenak dirala, berriz, paper guziak diote. Ez, ordea, besteetan bezela izenburuaren ondoan egillearen izena idatziz, beeko barrenean firma bezela izen-abizenak eta izengoitia erantsiz baizik. Eta izenaren aurretik

gurutzetxo bat ipintzen diote, illa zala adierazteko-edo.

* * *

Leenengo doiñua Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburutik artua degu. Oni kopiatu diote bertso auen doiñua argitaratu duten guziak.



I - ya gu - ri - ak e - gin -



du, ba - de - gu ze - ñek a - gin - du;




ez o - rain - dik u - mil - du, al -



ka - rren - ga - na bil - du; ge - rra nai du - ben




gu - zi - ya be - ra - ri



ken - du bi - zi - yal

Bigarrena, Goizuetan jaso, Azkueren esku-idatzietatik artu degu:

Andante mosso



I - a gu - re - ak



e - gin du ba - de - gu ze - ñek a - gin -

Allegro




du ez o - rain - dik u - mil - du,



el - ka - rren - ga - na bil du ge - rra nai



du - en gu - zi - ak a -



ie - ri ken - du bi - zi - ak.


Irugarrena ere, Azkueren esku-ida-tzietatik artua:



Ba - ge - ra i - ru pro - bin -



tzi len - go le - ge - ai ez u -



tzi o - rain in - da -



rraz eu - tsi naiz an - ka ba - na au - tsi ja - io - ko



di - ra be - rri - ak gu - ge - ra



eus - kal e - rri - ak.

Bertso-papera, “*Imp. de B. Valverde. - Irún*”, Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, “*Rentería: Tip. Vda. Valverde*”, Florentina Pérez Salaberria, Errenteria; baita ere bertako Enrike Elizetxea.

Bertso-papera, “*Imp. “La económica”, Callejón de Arroca, letra B, bajo (Amara)*”, Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-papera, “*Imp. Macazaga. - Rentería*”, Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Maria Esnaola, Tolosa.

Xenpelar'en bertsuak liburua, Makazaga, Errenteri, 1931 urte inguruan.

Bertsolariya astekaria, 16 zenbakia, 1932-I-3.

Euskal-Erriko kanta zarrak, Tomo I, Makazaga, Errenteria.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria* liburua.

Itxaropena, Zarautz, 1958.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Euskal kantak, Bilbo, 1960.

Mariya, Imprimerie M. Mendiburu, Bordeaux.

SEGURAKO ITXUA JOAKIN LUZURIAGA ORIA (1824-?)

Andik eta emendik eskuratuta, lau bertso-paper ditugu, *Segurako itxua* deritzan batek jarriak.

Paper oiek itxu orren izen-abizenak esaten dizkigute: Joakin Luzuriaga. Eta emaztearen izena ere bai: Manuela.

Eldubide oiekin Segurako eliz artxibora joan giñan, zerbait geiago aterra ote genezakean, eta aztarren asko arkitu genduan.

Segurako itxuak bere bizitza kontatzen digu bertso-sail batean, danetan aurrena jarri degun ortan; eta berak bertso oietan diona oso egoki dator guk artxiboetan arkitu degunarekin.

Bertsoetan, Seguran jaioa zala esaten zaigu, eta bataio-agiria arkitu degu: Segurako itxua 1824-eko ilbeltzaren 15-ean jaio zan. Joakin Pablo izenak jarri zizkioten. (1)

Gurasoak Manuel Luzuriaga, Segurakoa, eta Frantziska Inazia Oria, Zeraingoa, izan zituan. Seguran bizi ziran.

Aitaren aldeko aiton-amonak, berri, Juan Bautista eta Joakina Ariztimuño izan ziran, biak Idiazabal-

koak. Amaren aldekoak, Martin Joakin eta Ana Maria Arrieta, Zeraingoa.

Aurrena zapataritzan saiatu zan. Onela dio berak:

amabost urterekin
nenguan zapatari...

Baiña laster utzi zion lantegi orri:

gero soldadutzara
juan nintzan andi...

Garai artan euskaldunak etzeuden soldaduskara beartuak. Nai zuana bere borondatez joaten zan.

Joakiñek amaika urte ta erdi egin zituan bizimodu ortan. Baiña, Habanan zala, itxutu egin zan:

Joakin Seguratikan
Habanara joan zen,
deskalabro aundi bat
neretzat izan zen...

Medikuak etsipena eman zion:

etzeguala geiago
nigaz soldadurik...

Ala, ontzi batean sartu eta onuntz
bialdu zuten. Segurara iritxi zan giza-
rajoa. Sarrera nolakoa izan zan berak
esaten du:

bazetorren negarra
ugari begira...

Erriak arrera ona egin zion:

askok artutzen zuten
nigaz errukia,
gero jaso ninduen
miserikordira.

Bertako neskatxa bat artu zuan
emazte: Josefa Inazia Loinaz Garmen-
dia. Onen gurasoak, Martin eta Ma-
nuela.

Ezkontza-eguna: 1856-ko martxoan
26-garrena. (2)

Andregai 1827-ko uztaillaren 18-
an jaioa zan (3). Ogei ta zortzi urte zi-
tuan, beraz, ezkondu zanean.

Bost seme-alaba izan zituzten:
Maria Kandelaria, 1857-II-2-an jaioa;
Patrizia, 1858-III-17-an; Benantzia,
1859-III-1-n; Isabel, 1860-VII-1-ean;
eta Juan Maria, 1861-VIII-29-an. (4)

Oietako bat, Patrizia, 1861-II-9-an
il zan, iru urte osatu gabe. Eriotz-agi-
riaren ertzean, izenaren azpian, onela
esaten da: “*de la casa de beneficien-
cia*”. Erruki-etxean bizi ote ziran, be-
raz? Ala gaixotu eta ara eramana izan
ote zan aur ori?

Ama ere andik laster il zan, 1861-
XI-11-n, ogei ta amalau urterekin (5).
Eriotz-agiriak bi txetasun auek emat-
ten dizkigu: “*No testó*” eta “*se le ce-
lebró el funeral de pobre de solemni-
dad*”. Mundu onek begitarte pozgarri-
rik erakutsi zien gizarajo aiei!

Eriotz-agiriak ez du esaten zer
gaitz-mota izan zuan. Senarrak, be-
rriz, onela dio bertsoetan:

il zan difuntia
trabajuarekin...

Besterik gabe ere, aien mixeria nai-
ko gaitza izango zan noski.

Itxuak onela adierazten du familia-
ren orduko egoera penagarria:

Lau kriaturarekin
nenguan alargun,
nere onen ongilliak
eiten ziran lagun;
bañan ume gaixuak
negar eta lantun:
aita itxua eta
ama kanposantun.

Onela jarraitzen du:

beste alarguntxo bat
senti nun errian...

Eta arekin ezkondu zan bigarren al-
dian, 1861-eko abenduaren 17-an.
Leenengo emaztea il eta andik illebete
ta sei egunera, beraz. Ez degu zertaz
arritu bear. Izan ere, itxuak dionez:

biarra're bazeguan
nere familian.

Andregaia Manuela Etxarri zeri-
tzan. Bertsoak onela diote:

Nere emaztea da
jaiotzez naparra...

Ezkontza-agirian, berriz, Leitza-
n jaioa zala esaten zaigu. (6)

Leen esan bezela, Manuela ere
alarguna zan; beraren senarra zana
"Ascensión de Telleria" zeritzana,
Zegamakoa.

Itxuak seme bakarra zuan: Juan
Maria. Andik piska batera il zan,
1862-ko maiatzaren 24-ean, bederatzi
illabeterekin.

Bigarren andre onengandik etzuan
itxuak seme-alabarik izan. Obeto esa-
teko, guk ez degu olako iñoren bataio-
-agiririk arkitu.

Itxua eta bere bigarren andre onek
bertso saltzeari ekin zioten, bizimodua
ateratzearen. Itxuak onela dio bertso-
etan:

arrek panderua jo,
nik berriz gitarra...

Eta beste batean:

nik gitarria jo ta
zuk papelak saldu...

Konfirmazioak izan ziran Seguran
1863-ko maiatzaren 17-an. Sakramen-
tu ori artu zutenetako bat itxuaren ala-
ba zaarrena izan zan: Maria Kandelaa-

ria. Zazpi urte zituan orduan. Eta, agi-
rian esaten danez, goiko arrabalean bi-
zi ziran: *viven en el Rabal de arriba*.

Andik aurrera ez degu famili onen
aztarrenik batera arkitu: ez eriotz-agi-
ririk eta ez bataio eta ezkontzakorik.

Onek, gure iritzirako, gauza baka-
rra esan nai du: famili ura beste erriren
batera joango zala bizi izatera.

Ain zuzen, itxu onen aztarrenak
biltzen asi giñanean, leenengo lana
Segurako aiton-amonei galdetzea izan
genduan. Alperrikakoa izan zan, or-
dea. Iñork ere etzekian Seguran itxu
bertsolaririk izan zanik ere. Eta orre-
txengatik izango da: famili ori beste
norabait joana zalako, Segura utzita.

* * *

Segurako itxuaren berriak *Auspoa*-
ren 106-garrenean eman genituan,
1971 urtean. Andik laster, 1972-ko il-
beltzaren 23-an, Arantzazuko Aita
Jose Inazio Lasak eskutitz bat bialdu
zigun, onela esanez:

"...Segurako Itxuaren gain notizitxo
bat arkitu det. Bearbada zuri interesa-
tuko zaizula-ta, pentsatu det zuri adie-
raztea.

*En el Registro de las Juntas
Generales celebradas en Segura -en el
pueblo de nuestro ciego-, por el año
de 1861, pág. 24, se nos informa que
la Junta, adoptando por decreto lo
propuesto por la Comisión de Sres. re-
conocedores de memoriales sobre va-
rios de estos que le habían sido pre-
sentados: acordó, a saber, en el núme-*

ro 4: “que por hallarse prohibida en la Provincia la industria de músicas ambulantes, no podía accederse a la solicitud que había presentado Joaquín de Luzuriaga, vecino de Segura, suplicando se le permitiese vender coplas de versos con acompañamiento de guitarra.

En el memorial que presentó para las Juntas es posible aportase datos que le pudiesen interesar. Los reconocedores de las solicitudes se limitaban a extractar lo substancial del memorial, y luego algunos solían archivar el original; pero también había quienes echaban al cesto de papeles viejos. En la primera oportunidad que tenga procuraré hacer una búsqueda. Choca la dureza de nuestros viejos legisladores con seres privados de poder ganar el pan de cada día por medios ordinarios. ¿Qué actividad más adecuada se les podía exigir a los ciegos, que recrear y alegrar con sus “coplas” y “versos”, con acompañamiento de guitarra, a la vecindad? No faltarán quienes digan que estaban contagiados del jansenismo.”

* * *

Argi eta garbi dagoana zera da: Segurako itxu onek etzuala berezkoa bertso-zaletasuna, bizi bearrak erantsia baizik.

Orregatik, galdera au egin genezake: bertsoak berak jartzen al zituan ala beste bertsolariren bati eskatzen zizkion? Asteasuko itxuei Altzoko Imazek moldatzen zizkien. Onen liburuan itxu aientzat paratutako zazpi

bertso-sail arkituko ditu irakurleak (7); baita beste argibide asko ere. Eta Xenpelar berak ere moldatu zien beste sail bat, Salbatoreko ermitaren bertso-sail famatua alegia.

Gauza bera izan ditekete, beraz, Segurako itxuaren bertsoekin: besteren batek bertsoak jarri eta bera ibili pape-rak saltzen.

Itxurak ere ala dira, bertso auen euskerari begiratzen badiogu. Bi euskera baitaude itxu onen bertsoetan.

Leenengo saillean, itxuak bere bizitza kontatzen digun ortan, euskera-mota bat ikusten da: *urtegaz, ditudaz, bistia, nigaz, difuntia, andra, genduzan, eztot...* Bizkai aldeko erak dira oiek.

Eta beste iru sailletan onela irakurtzen da: *aski, aieka, ebillera, ebilli, ekusi, zen, juanin dira...* Auek Erretereri eta Oiartzun aldeko erak dira.

Oiek danak gogoan artuta, bertso-jartzaillea besteren bat zala esan bearra dagoala derizkiogu.

Baiña, alde batetik, azkeneko iru paperetan Erretereri eta Oiartzun aldeko euskera degunez, eta bertso onak diran ezkerero, jartzaillea Xenpelar izan ote zan? Au ere garai artakoa da eta izan ditekena iruditzen zaigu.

Orregatik, beraz, bertso auek agian Xenpelarrenak izango diran itxurak badiralako alegia, sartu ditugu bertso auek liburu ontan.

Beste testigantza bat badegu auzi ontan Xenpelarren alde, Txirritaren illoba zan eta berarekin amasei bat urtean Gazteluene baserrian bizi izan zan Jose Ramon Erauskin Lujanbio zanari jaso. Onela esan zigun:

“Baziran bertsoak Xenpelarrek jarri eta itxuak saltzen zituanak. Oietako bat onela zan:

Balitz aditu nai'tunik,
kantu politak ba'tut nik;
itxua naiz ta eztaikit zeñek
papertxu au eman dit
bizimodua ateratzeko
al baldin badet iñundik;
berak kalterik ez omen du ta
neri mesede egin dit.

Osabari ikasia det bertso ori:
Txirritari edo Xaturninori.

Itxuak negar egin omen zuan,
Xenpelar il zanean.

- Nere ogia orain galdu da! -esaten zuan.

Bertso asko ematen baitzion
Xenpelarrek, saltzeko.

Fabrikan lanean ari zala, Xenpelar beti kantari.

Aspertu eta batek esan:

- Motel, ago ixilik!

Igual teillatura igo eta andik ere aritu izan zan Xenpelar kantari, ikus-ten zuan gauza guziari bertso boteaz.”

Bertso au *Argia* astekarian ere agertu zan, 1932-ko abuztuaren 21-ean. Gaiñontzeko lerroak berdin ditu, baiña asierakoak beste onela:

Balitz jakin nai duanik,
bertso batzuek ditut nik,
itxua naiz ta ez dakit zein dan,
papertxuan esan dit...

* * *

Segurako itxuaren aitamenak Pedro Migel Urruzunoren ipui batean arkitu ditugu. Ikus: *Auspoa* 47, 39 orrialdean. Merezi du emen jartzea. Onela dio:

“Bazuan Praiskok adiskide bat oso maitea, ona ta jakintsua, Aita Santuaren urrengotzat zeukana. Probintzi guziak ezagutzen zuana zan, baiña alare elikio iñork igarriko nor zan. Gizon au zan Segurako itxua; gizon argia adimentuz, bada esan oi zuan Praiskok begietako argiak burura iges egin ziola jaun oni. Itxuaren esanak artikulu fedekoak ziran Praiskorentzat”.

Eta geroxeago:

“Anemarik ondo zekian Kaiser-en kañoi guziak baiña indar geiago zuala itxuaren erretolikak Praisko menderatzeko”.

* * *

El Día egunkarian, berriz, 1933-XII-17-an, onela esaten zuan *Artiz-tar Xabier* dalako batek:

“Aurreko egunetan baserri batzuetan ibilia nazu ipui zarren bat edo beste ikasi nai-miñez; ta billatu dedana igorri nai nizuke idaz-lan ontan.

Orain berrogetamar urtetik gora gaur ez aña zaletasun bazenuan, ni bizi naizen erri onetan, bertso berrietarako. Itxuak ibilli oi ziran neurtitz oiek zabaltzen. Asteasuko itxua ezagunetako koa zan bertso berri abesten; eta esan didatenez, “Txamaokoan” -Zubieta kalean, 32-garren zenbakian- lo egi-

ten-da gelditzen zan. Bazendun Segurako beste itxu bat ere; au napar-pikatu bat omen zan eta Juana Manuela bere andriarekin etorri oi zan. Jai egunetan batez ere, erriak meza entzute lanak bukatuz bat, an arkituko zituan eleiz aurrean andra-aguretxo biak alkarri egundoko bertsoak jaurtitzen eta giz-osteari parre eragiten”.

* * *

Ona orain Segurako itxuaren lau bertso-saillak. Leenengo, berak bere bizitza kontatzen diguna eta iñola ere

Xenpelarra ez dana; urrena, Xenpelarrenak izan ditezkeanak.

-
1. Segurako 7-garren bataio-liburuan, 198-garren orrian.
 2. Segurako 8-garren ezkontza-liburuan, 8-garren orrian.
 3. Segurako 7-garren bataio-liburuan.
 4. Segurako eliz artxiboan; ez nuan idatzi zein liburutan.
 5. Segurako 8-garren eriotz-liburuan, 104-garren orrian.
 6. Segurako 8-garren ezkontza-liburuan.
 7. *Auspoa* 68-69-70, 317 orrialdean.

BERTSO BERRIAK

ITXU BATEN GAÑIAN JARRIAK

1/ Orain kantu berri bat
biar nuke jarri
itxu baten kontuak
esateko garbi:
ogei ta zazpi urtegaz
izan nintzan argi,
neure pasadizua
esango det sarri.

4/ Gertatu nintzarian
bistia galdurik,
fakultatibuak
etsipena emanik,
etzeguala geiago
nigaz soldadurik,
bialdu ninduen
ontzian sarturik.

2/ Seguran jaio eta
gaztetatik asi,
amabost urterekin
nenguan zapatari;
gero soldadutzara
juan nintzan andi;
gerozti nola naizan
Jaungoikuak daki.

5/ Allegatu nintzarian
nereonen errira,
bazetorren negarra
ugari begira;
askok artutzen zuten
nigaz errukia,
gero jaso ninduen
miserikordia.

3/ Ibilliaiti gazte
eta panparrorik
ez dago zer fiatu
munduan geiegi; (1)
soldadu egin ditudaz
amaika urte t'erdia,
aizkenian Habanan
itxutu nintzan ni.

6/ Neure errian ala
errezibitzia,
gizon pobriarentzat
ai zer suertia;
baña nola nenguan
persona gaztia,
goguak eman ziran
andra bat artzia.

- 7/ Ezkondu nintzan gero
neskatxa batekin,
sei urte egin genduzan
biok alkarrekin;
il zan difuntia
trabajuarekin,
erakutsi dezala
Kristok bere glori.
- 8/ Lau kriaturarekin
nenguan alargun,
nere onen ongilliak
eiten ziran lagun;
baña ume gaixuak
negar eta lantun:
aita itxua eta
ama kanposantun.
- 9/ Bost pena pasatzeko
jaio nintzan mundun
biotza triste eta
begiyetan illun;
neure sentimentuarekin
osasunian bigun,
konsuelo andirik
ez nedukan iñun.
- 10/ Neronek pena eta
tristuren erdian
beste alargunto bat
senti nuen errian;
berakin ezkondu naiz
bigarren aldian,
biarra ere bazeguan
nere familian.
- 11/ Nere emaztea da
jaiotzez naparra,
buruz abilla eta
oñazko azkarra:
arrek panderua jo,
nik berriz gitarra,
eztegu zartzaruan
bizimodu txarra.
- 12/ - Neure senar maitia,
eskerrikan asko,
itxuak gauza bat
ustez biarra du:
lazarillua ona
laguntzeko badu,
bestela pasauko du
miseria franku.
- 13/ - Itxu aurreko txarrakin
ezta fiatzeko,
nik andra ona daukat
zuzen giatzeko,
gauza onikan badu
laister billatzeko,
illuntzian goiz ogera
erretiratzeko.
- 14/ - Munduan badirade
itxuak eroso,
len aitzen banuan
orain dakit oso.
Bañan zer egingo det?
Pazientzian paso,
zuretako badet nik
kariñorik asko.

15/ - Neure andria ez da
buruti mankia,
erderaz ere badaki,
euskaldun garbia;
adiskide danian
kopeta argia,
eta etxian daukat
txit agintaria.

18/ - Itxuaren artian
argia alkate;
kontu egizu geugaz,
nonbait ala gaude;
batzuetan tristura,
bestietan alegre,
osasuna badegu
kontentu ala ere.

16/ - Nik itxuarentzako
daukat errukia,
zergaiti dan gauza txarra
ezin ikusia;
sartzen da pozuan da
jotzen dau arria,
argaiti laguntzeko
biar du argia.

19/ - Ni naiz Joakin eta
zu berriz Manu,
zurekin ezkondua
eztot bada damu;
nik gitarria jota
zuk papelak saldu,
oraindi perra asko
bear degu artu. (2)

17/ - Bistarik ez duena
beti illunpian,
sarritan gertatzen da
argiaren mendian;
ala ere lanik asko
gaurko egunian,
ongi konpontzen gera
gauza degunian.

1. Bertso-paperak: *guciequi*.

2. Bertso-papera, "*Tolosa: Imp. de E. López*", Gregorio Mujika zanaren bilduma, Donostia.

BERTSO BERRIAK
SEGURAKO ITXUAK ETA BERE ANDRIAK
ELKARRI JARRIAK

1/ - Segurako itxuak
bere andriari
pensatu du jartzia
bertso bat edo bi;
bañan, esan dutenez,
gauzak badiruri
ordañak bialduko
dizkala berari.

2/ - Itxuaren andriak
orra errespuesta,
ordañak bialtzia
etzait asko kostatzen;
paperak salduzko
jarri zagun festa,
bestela sakelian
txanponikan ezta.

3/ - Andria daukat bizi-
modua sortzeko,
bañan ezta baliyo
paperak saltzeko,
ezta ere bertsuak
sustantziz jartzeko;
ai zer alibiyua
txanponak artzeko!

- 4/ - Segurako itxua
ernegatzen dago,
eztala gauza diyo
andria geiago;
nonbait gaztiagua
ni bañon naiago,
oraiñ bestien billa
asi dala nago.
- 5/ - Ederra bota digu
oraingo ditxua,
bañan etzait ajolik,
artzen det petxua;
gaztien billa asi
zaiola itxua,
errezelo txarrian
jarri da atxua.
- 6/ - Klaro esango diyot
oni beriala
errezelo txarrikan
ortan ez derala;
artu naiagatikan
gaztiekin gala,
nik eztet uste iñor
onen zale dala.
- 7/ - Andre leiala daukat,
ni fijo natzaio:
au baño oberik ezta
neretzako jaio;
itxua ere ongi
portatuko zaio,
zurrutarentzat diña
ematen bazaio.

8/ - Juan dan egun batian
koleran dit esan:
duro bat plantatzeko
zurrut egiñ dezan;
jakiñ izan banuen
au nolakua zan,
egundaño nerekiñ
ezkonduko etzan.

9/ - Jolas onekiñ beti
demandan gabilta,
atso guziyak ere
burlaka dabilta;
denbora jua onduan
orrenbeste itza;
pozik ezkondu ziñan,
alferrik zabilta.

10/ - Sagardotegirako
onek daukan griña!
Astelenetan egun
guziya jakiña;
klaro esan biar det
nik daukadan miña:
iñola eziñ sortu
onentzako diña.

11/ - Astiartian egun
guziya kantatzen,
andik aurrera ere
eztiyot faltatzen;
orreatik korputza
nik alimentatzen,
lana franko bestela
orla aguantatzen.

12/ - Zenbat baso sagardo
eraten zituen
erreparatutzeko
asmoak nituen;
egun artan iya bost
pitxar bazituen,
arriturikan nago
non sartzen dituen.

13/ - Galduko lizkirake
milla bat kreditu,
gezurrik esan gabe
ainbeste banitu;
baldin nai badezute
egiya aditu:
pitxar bat eran ta bost
kontatutzen ditu.

14/ - Begira zaiozute:
au gilbor aldia!
Gobernatutzen dala
badu siñalia;
orrela esateko
ezta ain jalia,
bañan beti mokadu
onaren zalia.

15/ - Egiya esango det,
gañera arrazoiz:
berak maiz jaten ditu,
neretzako iñoiz;
alimentua fiña
biat zenbait sasoiz,
eskatzen diyot bañan
eman eztakit noiz.

16/ - Goizero baso bat ur
esponjaz nastuta,
gañera bi kopatxo
berari ustuta;
bestela plantatzen zait
kopeta beztuta,
ain da atrebidua
lotsarik ezta.

17/ - Ebilli gabetanik
emen farragarri,
obe luke ixildu,
orra esan garbi;
koleratzen erraza
nago izugarri,
gitarra lertuko det
anka-pian sarri.

18/ - Zerbait esanagatik
elkarren artian,
okasiyorik gabe
konpondu gaitian;
bañan gitarra laja
ezazu pakian,
baldin austen badezu
zeretzat kaltian.

19/ - Orra emeretzi bertso
eta milla grazi,
elkar estimatuaz
nai genduke bizi;
txapon bana paperak
artuta ikasi,
ontatik bear degu
zerbait irabazi.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manterola zanaren bilduman, Donostia.

Azken bigarren lerroan, 19/7-garrenean alegia, zuzenketa bat egin degu. Bertso-paperak onela zion: *ontatu bear degu*.

Paper onek onako itz auek dauzka bertsoen ondoren eskuz erantsita: *4 de Agosto, 500 ejs*. Papera egun ortan eskuratu zuala edo olako zerbait esan naiko zuan itz oiekin Jose Manterola zanak edo ori idatzi zuanak. Urterik ez du esaten, ordea.

BERTSO BERRIAK

1/ - Bertso berri batzuek
bear ditut jarri,
nere andriarentzat
eskarmentagarri;
iñork jakin nai badu
itxuaren berri,
nola bizi geraden
esango det sarri.

2/ - Bizimodu oberik
iñork ere al du?
Zuk gitarra jotzen da
nik paperak saldu;
zori onian ziñan
mundura azaldu,
Manurekin tratuan
etzenduen galdu.

3/ - Tratu ona dedala
andriak esan du,
zu ere nai bezin len
etziñan ezkondu;
festaz erromerian
alkarri lagundu,
itxuaren giari
naiago omen du.

- 4/ - Itxua giarien
bearrian dago,
argatik jarri nintzan
ni zure anparo;
nai duenak aditu
orra esan klaro:
zutzaz urrikalduta
ezkondua nago.
- 5/ - Anparatzalle ona
daukat giariya, (1)
belarri biak ere
gortu dizkit iya;
upela baterako
ai zer kantariya,
itxuaren kontrako
fandangolariya!
- 6/ - Segurako itxua
da nere senarra,
kantatzeko badezu
Manuren bearra;
zorro bat galtzarbean,
besoan gitarra,
etzenduen ikasi
ofizio txarra.
- 7/ - Joakin Seguratikan
Habanara joan zen,
deskalabro aundi bat
neretzat izan zen;
ikasi ez banuen
gitarra dantzatzen,
Manu itxuarekin
ezkonduko etzen.

8/ - Oraiñ esan didazu
egia klarua,
gitarrak bearako du
zure anparua;
buruz abilla zera,
ankaz agurua,
gaztelu baterako
ai zer soldadua!

9/ - Nik esaten dedana
zaudezte aditzen,
dantzan ere badaki
lijero ibiltzen;
damurik asi zaio
illia urdintzen,
ordu bete bear du
alkitik mugitzen.

10/ - Urdintzen asiya naiz,
belarri bat gortu,
lijero ibiltzeko
ezurak gogortu;
zedorrek ezkontzeko
ninduzun beartu,
gazteagua zertan
etzenduen artu?

11/ - Gaztea artu banu
ez negoen gaizki,
Manu Joakinentzat
obea da noski;
neretzat izandu da
aukerarik aski,
ollo zarraren saldak
sustantziak dauzki.

12/ - Zertan ari zerade
andria tentatzen?
Olo zarraren saldak
du alimentatzen;
enpeñatu ziñaden
gaztea billatzen,
bestarik izan balu
nere zale etzen.

13/ - Lau andre alargunak,
iru dama gazte,
aukeran neukazkien
bata bezin beste;
aiek ezkongai daude,
gu senar da emazte;
bisita egitera
etorri zaitezte.

14/ - Gizona, ortaraño
txoratu al zera?
Zertako konbidatu
oriek etxera?
Etortzen badirade
gu bisitatzera,
tragorik egin gabe
juanin dira atzera.

15/ - Datorrena ikusi,
itz egiñ onrado,
projimoa amatzen
egizu kuido;
jarduten nuelako
aiekin lenago,
zeloak dituzula
pentsaturik nago.

16/ - Itxuak dituztenak
dirade ezagun:
begia triste eta
kopetea illun;
orrelako gaitzari
Jaungoikoak lagun,
biok bata bestea
anpara dezagun.

17/ - Orañ eskerrik asko
eta milla grazi,
gaizki esana barka,
Manuela Inazi;
gure berri oraindik
ez dute ikasi,
alkar estimatuaz
bear degu bizi.

18/ - Orra emezortzi bertso
berri mundurako,
konbeni diradenak
gure modurako;
bere andriarekin
Joakin Segurako,
izan bitez orien
eskarmenturako. (2)

Bertso auek moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean arkitu genituan, Donostiako Jose Manterola zana-ren bilduman.

Itz auek erantsi dizkiote eskuz paperari: *4 Agosto 1874, 500 ejs.* Manterolak-edo egun ortan papera eskuratu zuala esan naiko du. Xenpelar illa zan 1874 urte ortarako. Baiña ber-

tso auek bein baiño geiagotan argitaratuko ziran seguru asko, senar-emazte auentzat bertso saltzea ogibidea izanik.

1. Bertso-paperak: *dauka giariya.*

BERTSO BERRIAK

1/ - Bertso berri batzuek
aurtengo urtian,
zabaldu al banitza
askoren artian;
kantatutzera noa
instante batian
itxuak zenbat pena
sufri lezakian.

2/ Itxuaren bizitza
penagarritzua:
non dabillen jakiñ ez,
beti arriskua;
luzatuagatikan
andriak eskua,
anbat irukiko du
kariño freskua.

3/ Au da nere penaren
bigarren partia:
aski det ostatuan
maiera jutia;
itxuaren aieka
ezurrez betia,
andriak egingo du
aragi jatia.

4/ Gizona engañatzeko
badu baloria,
etzaio mudatuko
asko koloria;
luzatuagatikan
nik tenedoria,
andriak ezpañetan
nik baño obia.

5/ Nere bizi moduaz
asi naiz tentatzen,
mayian eztirate
gustorik ematen;
itxua ezurrarekin
agiñak nekatzen,
andria berriz farrez
ezpañak txupatzen.

6/ Maleziyan sartu da,
urtez aberastu,
kantuan laguntzeko
petxutikan estu;
ardo zarra erateko
boladua nastu,
ori bakarrik beste
biziyorik eztu.

7/ - Tamañan eraten du
ematen zaiona,
ardo piska batekin
esponjak txanpona;
gorputzaren gustua,
alimentu ona,
gastuak galdu dezan
beldur det gizona.

8/ - Gizonarentzat badu
makiña bat tatxa,
itxua naizelako
onenbeste mantxa;
berak ankarik eziñ
lurretikan altxa,
konpasion ontzen du
bariaren martxa. (1)

9/ - Bireko ebilleraz
esan det klaruan:
piska bat mugitzen da
nere anparuan;
eztago itsusiya
bere estaduan,
nai duenak ekusi
ona non daguan.

10/ - Lengan Andoañen
bertan gosalduta,
etxerako ustian
paperak salduta,
panparroi juana da
sokari elduta,
gizona ta astua
birian galduta.

11/ Abiyatu giñaden
Andoaindik gora,
andriak atera du
onelako moda:
astua erdiyan da
ni arren ondora;
biyak galduta joan da
eztakigu nora.

12/ Andriaren atzetik
isillik astuak
burutikan atera
ditu krabestuak;
soka lengo birian
zeraman eskuak,
itxuak eztakazki
giyari gaiztuak!

13/ Astua kamiyotik
agudo atera,
gosiak zeguen ta
belarra jatera;
ni ondotik ojuka:
"Ura non ote da?",
beldurrak erortzeko
lezeren batera.

14/ Bizitzian baneukan
milla sentimentu:
andriari ojuka:
"Astuari kontu!"
Onenbeste naigabe
gorputzian artu,
nai beziñ len ez giñan
Billabonan sartu. (2)

15/ Falta obserbatuta
andria ori jira,
astua an ote zen
sokari begira,
maldeziyua eginta
moñuari tira;
orra bizi modua
sortzeko segira!

16/ - Joakin Luzuriagak
Manuela emazte,
bizioz berdin gera
bata beziñ beste;
kantuz eztizut esan
merezi ainbeste,
ala ere emen nator
barkaziyo eske.

17/ - Orra bertso berriyak
nik errematia,
eder al deritzazu
oiek esatia?
Biyok biarko degu
geren suertia,
gure espirituak
dirauen artia.

Bertso auek Donostiako Jose Manterola zanaren bildumatik artu ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik. Eskuz itz auek erantsi dizkionte: *reçu en 1869*. Urte artan eskuratua zuala esan naiko du.

1. Bertso-paperak: *konpatzian eta barriaren*.

2. Bertso-paperak: *sortu*.

**XENPELARREN INGURUKO
BERTSOLARIAK**

LARRABURU
MIGEL ANTONIO OTAMENDI OLASKOAGA
(1829-1876)

BASERRIA ETA FAMILIA

Larraburu bertsolariaren aditzera Oiartzun eta Errenteri aldeko bertsozalerik geienak badute noski.

Xenpelarrek eta berak Txikierdin bein batez alkarri kantatu zizkioten bertsoak irakurleari leenago eskeiñi dizkiogu.

Larraburu ontaz zerbait geiago ikastearren, aalegiñean saiatuak gera. Etzaigu damutu lan ori artua. Zer atera degun, urrenge orrialdeetan adieraziko da.

Bigarren bertsoan esaten danez, biak, bai Larraburu eta bai Xenpelar, lanik gabe zeuden. Ala ere, sagardotegira joan eta ekin bertsoan...

Larraburu bertsolaria Larraburu baserriko semea zan noski. Baserri ori Oiartzungo Ugaldetxo baillaran dago, Errenteriko mugatik oso urbil.

Ara joateko, Oiartzundik Ernanira kamioz goazela, Txikierdiko ortan eskubitara eta gora artu bear da.

Larraburura joateko eskubitara; eta Xenpelarrera joateko ezkerretara. Biak ere gain batean daude. Baiña, ala ere, Xenpelarre zoko batean, bistarik gabe alegia.

Larraburu, berriz, oso agerian, bista aundiko tokian: Oiartzungo erria eta inguru guzia, bere zelai eta mendi guziekin, ederki ikusten dira andik.

Gaur famili bakarra bizi da an; baiña garai batean bi omen ziran. Baserriak ere ezagun du.

Ori, baserriari dagokiona. Baina bertsolariari buruz zer esan genezake? Aren izen-deiturak, jaio eta il-eguna eta abar, ezagunak al ditugu? Izan da, Jaunari eskerrak, ori jakiteko modu.

Ortara iritxi bagera, Jose Etxeberria jauna zanari zor diogu geienbat. Jose Etxeberria au Errenteriko Añabitarte baserrian bizi zan, baiña Larraburu baserrian jaioa zan. Ona zer esan zigun:

“Larraburu bertsolaria gure arrazakoa etzen. Aiek izango ziran bi anai ta aita zarra. Ori, nik gure aitari aditua”.

Artxiboetan ezertxo ere billatzen asteko, eldu-lekuren bat bear izaten da; ari-muturra, alegia, matatsa aterako bada. Orregatik, Jose Etxeberria oni izenik-edo bai ote zekian galdetu genion. Onela erantzun zigun:

“Bat zen Migel Inaziyo; ta bestea Migel edo... Zerbait ola ziran. Bat zen



Larraburu baserria, Oiartzun.

beñepein Migel Inaziyo. Ori izan bear zuen eiztaria gañera. Ala uste dut. Migel Larraburu ezagutzen ziran gero oiek. Bertsolaria, Migel Larraburu. Ala uste dut. Larrabururen aita, Joxepe. Ta Migel Inaziyo beñepein bitan bat. Migel Antoniyo ia zan bestea! Batzuek Migel Larraburu ere esaten zuten. Iru ziran: aita ta bi seme”.

Zalantza asko itz auetan. Ala ere, ekin genion artxibo-lanari. Eta, Oiartzungo 1857 urteko *Censo de Población* deritzaionean, auxe arkitu genduan:

Caserio Larraburu:

	Edad	Estado	Profesión
Josepe Otamendi			
Cartesi	50	casado	labrador
J. Ignacia Olascoaga	50	casado	
Migel Antonio Otamendi	27	soltero	
Ignacio	25	soltero	
José	.2	soltero	

Jose orren urteak ez dira ondo irakurtzen. Leenengo lumeroa zer dan ezin somatu. Baiña seguru asko “2” izango da; ogei ta bi urte, alegia.

Izen auek oso egoki datoz Jose Etxeberria’k emandakoekin: aita, Josepe; ori zalantzarik gabe esaten zuan. Semeen izenekin korapillatzen zan: Migel Inaziyo, Migel Antoniyo, Migel... Baina beti ere bertsolaria Migel zala, Migel Larraburu... Bi Migel zirala uste eta bakarra izaki. Migel ori degu, beraz, Larraburu bertsolaria.

Eta, ain zuzen, ara zer izenburu jarri zuan Erreteriko *Bertsolariya* al-

dizkariak, Larraburuk Ardotxi atera zizkion bertsoen gaiñean: *Barka zaizkiguzu gure zorrak... Migel Antonio Larraburu zanak Ardotx zanari jarritako bertsoak”*

Bi bidetatik abitu eta toki berera iritxi. Ez dago, beraz, zer duda egin. Larraburu bertsolaria Migel Antonio zeritzan izenez, eta Otamendi Olaskoaga deituraz.

Ori ikasirik, urrengo saioa eliz artxiboan egin genduan. Ona emen arkitutakoak:

Migel Antonio Otamendi Olaskoaga ori 1829’ko otsaillaren 3-an jaio zan, gaueko zortzietan. (1)

Gurasoak: Jose Otamendi, Oresa’koa, eta Juana Inazia Oloskoaga. Amaren deitura orrelaxe idazten du: Oloskoaga; ez Olaskoaga.

Aitaren aldeko aitona-amonak: Mariano Otamendi, Ordizikoa, eta Maria Josefa Cartegui. Aitaren bigarren deitura Cartesi zan Oiartzungo 1857-ko *Censo de Población* dalako ortan; emen, berriz, Cartegui.

Amaren aldekoak, Juan Luis Oloskoaga eta Teresa Antonia Mendiburu.

Migel Antonio senideetan zaarrena zan. Ondoren, onako auek arkitu ditugu Oiartzungo eliz artxiboan: Inazio Mari, 1831-V-24-ean jaioa; Mikaela Inazia, 1834-IX-10-ean; Jabiera, 1839-II-11-n; eta Manuela Josefa, 1841-VII-28-an (2).

1857-ko *Censo de Población* ortan, ez da iru arreba oien aitamenik egiten. Ez dakigu zergatik izango dan. Eta beste anai bat ere aitatzen da: Jose. Onen bataio-agiria ez degu Oiartzunen

arkitu. Agian, Errenterin-edo bataiatu-ko zuten.

1. Oiartzungo 14-garren bataio-liburua, 146 orria.

2. Oiartzungo 14-garren bataio-liburua, 200 orria; eta 15-garren bataio-liburua, 3, 44 eta 68 orriak.

ZENBAIT GERTAERA

Jose Etxeberria orrek berak onela kontatu zigun:

“Ugaldetxon bertsotan ari beste norbaitekin, ta bastante berandu.

Joxepa izena zuena omen zan tabernaria, ta Joxepa orrek esan omen zion zerbait ere: beti ala etzela bear; zerbait ere ola.

Ta Larraburu orrek zerbait ere erantzun ba, ta Joxepa orrek zerbait ere arrazoi txarra beñepein eman zion, da Larraburuk orduan:

- Ai, Joxepa, Joxepa! Gaur zergatik esan didazu ola?

Ta:

- Kariñoz!

Ta Larraburuk:

- Bai; gauza itxurazkoa da arrazoi txarra kariñoz!”.

* * *

Jose Etxeberria orrek berak:

“Indar aundiko gizona omen zen. Zentolene ortan (1) taberna-ta omen zen denbora aietan. Ta Larraburu ori

itzaia omen zen, eta or utzi zerak, idiak, atarian, ta bera barrena sartu.

Ta, tabernan zegoela, idiak aspertu gaxoak, eta alako batean martxa, alde egin etxera.

Ta Larraburuko bidean arri-tranko aundiak eta bide txarrak; eta, ala zijoa-zela, perrillak galdu bidean, gurdi-perrillak. Kurpillak zuek deituko diezute?

Eta Larraburu ori eldu omen zen ondotik, eta perrillak bidean.

- Gaixoak! Ez dizkitek danak eramán!

Ta perrill oiek artu bizkarrean eta etxera. Ea indarrrik bazuen! Gizajoa!”.

* * *

Larraburu baserriko Joxepa Arbelaitzek, berriz, beste onela kontatu zigun gertaera ori bera:

“Egun batez, gurdiaekin Errenterira joan, eta, zerbaitekin bueltan zetorrela, Zentolenen gelditu ta beiak eskapo egin.

Etorri zan gero bera ta:

- Pusketia falta dute emen!

Bidean karobia ta antxen kurpillak amilduak. Beiak kurtetxearekin baka-rik etxera.

Ta beiak bertan utzi ta bera joan, kurpillak bizkarrean artu ta ekarri.

Kurpilla, dana egurrezkoa izaten zan orduan, ardatza ta guzi”.

* * *

Jose Etxeberriak beste gertaera au ere kontatu zigun:

“Bi anai oiek, mutilzarrak. Biak mutilzar eta aita zarra, nere oraingo gisa.

Aitak, errenta pagatzera, Tolosara joan bear. *Vizconde del Cerro* ta oiek nola dira? Oiena etxe ori ere, Larraburu. Ta aita zarra errenta pagatzera zijoanean, beti etxeoandreak -alargun bat zen orduan- erritan ematen zion: etxean pulamentu txarra zeukatela ta emakume bat etxeratzeko, etxean martxa ohea jartzeko.

Etixerakoan, ba, esaten omen zien semeei, baiña aiek kaso aundirik ez.

Berriz ere ari omen zen errenta denbora alderatzen, da esan omen zien semeei:

- Aurten ere erritan aditu bearko dit nik!

Ta Larraburu bertsolari orrek:

- Ez, aita, ez! Aurten ez du erritik adituko! Dirua sobratu al du?

- Ori bai; dirua sobratu dut.

- Ongi dago! Ongi dago! Ni joango naz!

Joan omen zen zera ori, Larraburu ori, etxeoandre orrengana. Esan zion nola errenta pagatzera joana zen, da:

- Lotsagarriak zuek! Familia mar-txa geiago gabe! Emakume bat gabe!

Ta ola aritu omen zitzaion. Ixilik egon omen zen puska batean Larrabu-ru ori, ta gero esan omen zion:

- Etxeoandrea, ni alegiñak egiten ditut, baiña iñork ez du nai orixe. Baiñan, gaian dagoen kasoan, berorri ere besteei bezela adieraziko diot: Nai du nerekin ezkondu?

Ta arek ezetz ta ezetz.

Ta Larraburuk:

- Nik orduan zer egitea nai du ba? Beti ori esaten didate denak!

Ura gizon jator oietako bat izan be-ar zuen.

Olako istori asko gure lengo zarrak, baiñan guk pulamenturik ez gauza oie-tarako!”.

1. Zentolene, Erreteritik Larraburura dijoan bidearen bazterrean dago.

LARRABURU ETA ARDOTX

Ardotx bertsolariaren aitamenak liburu ontako Xenpelarren zatian egin dira. Baita zenbait bertso eman ere. Ta esana degu Xenpelarrek zer esan zion bertso batean Txikierdin: “Ardotx paregabe”.

Larraburuk ere izan zuan Ardotx orrekin artu-emanik; bere kalterako, ordea.

San Inazio arrats batean aparria egin zuten bi bertsolari auek. Ori, orain urrengo jarriko ditugun bertsoetan esaten da. Beste argibide auek, berriz, Ugaldetxoko zaarren aotik jaso ditugu.

Ugaldetxoko Mikelentxone base-rrian sagardotegia omen zan; ortxe egin zuten beren apari ori. Ta apalondoan bertsoetan asi ziran. Baiña Ardotx ez izan Larraburu aiña, eta onek menderatu bestea.

Jose Etxeberriak onela esan zigun:

“Larraburu gizon gustagarria izan bear zuen. Ta beste ori xitala ta giza-txarra. Beti iñor tentatzen ari bear.

Baiña Larraburu, bertsolari jatorra ta prestua, ta aixa tapatzen bestea. Ta inbiria bai gauza txarra dala!

Ta Ardotx ori, berak nai zuen bezela bere gustoa egin etzuenean, kanpora atera zen. Ta Larraburu segi sagardotegian...”.

Ardotx kanpora atera bai, baiña baita ere urrutira gabe bide-bazterrean zai gelditu.

Ta Larraburu atera ta Ardotx izkutatuta zegoan tokira eldu zanean, onek arri batekin buruan jo zuan. Ez, ordea, arria tirata; arria eskuan zuala baizik. Ta kopeta ebaki, dana larrutu...

Ondorengo bertsoak garbiro adierazten dute nolako kolpea izan zan:

iturritik bezela
zetorren odola...

ez du edozeñek egiten
olako sangriya...

Nere denborako señaia
sekulako erida...

Oraindik ere esaten dute zein tokitan gertatu zan ori. Mikelentxonetik bereala, Itxaso baserria dago. Bien bi-



Mikelentxone baserria, Oiartzun.

tartean, bost bat arri-eskallera, bide-bazterrean. Antxe itxogin omen zion Ardotekek Larrabururi, eta antxe arriarekin buruan jo.

Errenteriko Altamugarri-erdiko baserriko Jose Manuel Mendiburuk onela esan zigun:

“San Inazio bezperan egiña, bai, pikardi ori Larraburu gizarajoari. Etxera joan eta nik aditu izan nuen nola egin zioten arrebak-eta kura: oriñalean trapua busti eta oriñaleko zerarekin garbitu zuten ura, zauria. Orduan etzen *agua oxigenada*-rik izaten. Gero, edan gabeen deus ere ez omen zuen izaten. Baiña edaria edatean, burura jotzen”.

Laugarren bertsoak urrengo egunaren berri ematen digu:

Aita San Inaziyo
biyamon-goizian,
auspez erori nintzan
meza entzutian;
lau lagunek artuta
kanpora airian...

Biaramon-goizean mezetan baldin bazan, igandea izango zala dudarik ez

da. Etzan bestela joango; are gutxiago, berriz, bezpera-arratsean olako kolpea artuta. San Inazio eguna larunbatarekin, beraz. Zein urtetan egokitu zan orrela, Larrabururen denboran?

Begiratu degu leengo egutegi zaarretan; eta, Larraburuk ogei ta lau urte bete zituanetik aurrera, iru aldiz gertatu zan ori: 1858, 1869 eta 1875 urteetan. Azken urte ontan, karlisten bigarren gerratea zebillen. Girorik etzan izango bertsotarako eta sagardotegirako. Beste bietatik batean, beraz. Ain zuzen, 1869-an, abenduaren 8^ogarrena Xenpelar il zan eguna izan zan.

Andik aurrera etzan Larrabururekin gizonik izan. Onela esan digu Jose Etxeberria'k:

“Larraburu gizajoa burutikan galdu egin zen. Nunbait ere, buruan odol asko joan edo kolpe aundia izan-edo, ta gizajoa burutik nastua geratu omen zen.

Batzuetan tankeraz egoten zen, baiña beste batzuetan burua galdu egiten zitzaion, zer egiten zuen etzekiela.

Ardotekek geroztik negar egiten omen zuen. Negar egingo zuen, baiña gizon bat ondatua...”.

BARKA ZAIZKIGUZU GURE ZORRAK... MIGEL ANTONIO LARRABURU ZANAK ARDOTX ZANARI JARRITAKO BERTSOAK

Larraburuk bertsoak jarri zizkion
Ardotxi, barkazioa eskeñiz.

Errenteri-ko Makazagak bere
Bertsolariya aldizkarian argitaratu zi-

tuan, or goien ipiñi degun izenburua-
rekin, 5-garren zenbakian, 1931-ko
urriaren 18-koan. Ez du esaten berak
nundik jaso zituan.

1/ Aita San Inazio
Gipuzkoakoa,
Loiolako etxe eder
palaziyokua,
munduan gustable da
zure ejenplua,
arren argi zadazu
entendimentua,
nola maitatu biar dan
lagun projimua.

2/ Aita San Inazio
arratseko obra
nere buru gajuak
sentitzen du sobra.
Gizona izatia
aiñ biyotz gogorra,
iturritik bezela
zetorren odola,
projimuen legiak
ez dirade orla.

3/ San Inazio arratsian
ai ura afariya!
Nere suerterako
zegoan jarriya.
Lagun maite batek
burura arriya,
ez du edozeñek egiten
olako sangriya,
Jaunak digula arren
miserikordiya.

4/ Aita San Inaziyo
biyamon-goizian,
auspez erori nintzan
meza entzutian.
Lau lagunek artuta (1)
kanpora airian,
pena asko zegoen
nere barrenian,
goguan idukiko det
eternidadian.

5/ Nere denborako señaia
sekulako erida,
ikusten nauten guziyok (2)
burura begira.
San Inazio zala
oraindik berri da,
arriyaren golpiak
itsusiyak dira,
nere pekatuentzat
nunbait konbeni da.

6/ Oroitzen naizenian (3)
ni San Inaziyoz,
erregutuzten diyot
beti deboziyoz.
Nere lagun maitia,
ik ere egiyok,
alkarren konpañiyan
giñukian biyok,
orlako aziyoric
ez dik egiñ iñork.

7/ Amoriyua diyot
beti lagunari,
nere buruarentzat
sobra ta geiegi.
Erregutuzten diyot
San Inaziori,
arren barkatuzteko
pekadoriari,
gustua kunplitu ta
ongi bizi bedi.

8/ Nere pasadizuaz
orra zortzi bertso,
nai dituenak ikasi
ez dirade asko.
Legiak agintzen al du
gizona jotzeko?
Esamiñatuak badaude
gu korrejitzeko,
ez daukat desiorik
zorra au pagatzeko.

* * *

Bertso auek kantatzen dira gaur
egunean ere Oiartzunen.

Bi doiñu agertzen ditugu emen: lee-
nengoa, Ugaldetxoko Portugal baserri-
ko Inazio Pikabeak kantatua; bigarre-
na, Ugalde-txoko Larria baserriko
Patxi Labandi-bar zanak kantatua.



Ai - ta san I - na - zi - o



Gi - puz - ko - a - ko - a, Loi - o - la -



ko e - txe e - der pa - la - zi - yo - ku - a;



mun - du - an gus - ta - ble da zu - re e -



jen - plu - a, a - rren ar - gi za -



da - zu en - ten - di - men - tu - a,



no - la mai - ta - tu biar dan la - gun pro -



ji - mu - a.

Ai - ta san I - na - zi-yo Az -
 pei-ti - ya - ku - a, Lo - yo-lan e - txe
 e - der pa - la - zi - ya - ku - a; mun -
 du - an gus - ta - 'bleda zu - re e - jen - plu -
 a, zu - re a - la - ban - tzan ni kan -
 ta - tze - ra nu - a: bas - ta da zai - tu -
 da - la pro - bin - tzi - a - nu - a.

Esan bezela, *Bertsolariya* astekariak ez du esaten berak bertso aukerarik ez zituan. Guk uste, Juan edo Pello Zabaleta edo olakoren baten atotik jasoko zituan.

Oiartzungo Iturriozko Robustiano Urkiak ere eman dizkigu bertso aukerarik, zortzigarrena ez beste danak.

Aldaketak: 2/3: nere buru gaixuak; 2/5: gizonak izatia; 2/6: oiñ biotz gogorra; 3/7: Ez du edozeñek eingo; 3/9: Jaunak arren dizula; 4/9: goguan izango det; 5/3: ikusten nauten guztiyak; 6/1: Oroitzen naizenian; 6/10: ezti eiten inork; 8/7: badauzkagu jarriyak; 8/10: zor au pagatzeko.

Oiartzungo Karrika auzoko Lekungarai baserriko Kosme Mitxelenak, bigarren bertsoa eman zidan, Aldura Zaarrari ikasia. Aldaketak: 2/3: nere buru gaixuak; 2/5: ola nai lukiena; 2/6: mundu ontan nor da? 2/7: Iturria bezela; 2/8: zizuan odola.

1. *Bertsolariya*'k: lau lagunak artuta;
2. *Bertsolariya*'k: ikusten naute guztiyak.
3. *Bertsolariya*'k: Oroitan naizenian.

KARLISTEN GERRATEA

Jose Etxeberriak onela esan zigun:

“Buruko kolpe artatik askotan erotu egiten omen zen.

Eta kutxa aundi bat omen zen, eta an zerbait ere jarri oia bezela, ta giza-joa an eukitzen omen zuten mikeleteak; kateekin lotuta eukitzen zuten.

Burua galtzen zuen, ba. Gizajoa! Eta, burua galtzen zuenean, edozer gauza igual egin.

Baztanga ere ez dakit, ba, arrapatu zuen.

Baztanga-denbora nunbait ere; eta, Oiartzuna ia allegatuan bere buru nas-tu arekin, nola ara zijoala akordatu za-nean, berriz jira ta etxera etorri zen.

Ta Larraburun mikeleteak, eta Buenaundi ortan karlistak, Txakurtxulo ta... Txakurtxulo zen komandan-tea edo ez dakit zer zuten (1). Or para-petuak eta denak. Oraingo gerran ere uste dut aprobetxatu dituztela.

Ta Larraburuko bi mugaren erdian arbol aundi bat omen zen, eta arbol ura mikeleteak edo or zeudenak bota omen zuten surtarako; eta, ondoa pix-ka bat garbituta, bere artan zegoen.

Sagar-arbol aundia zen, eta Larraburu orri esan omen zioten:

- Ekarriko al ukek arbol ura?

Ta baietz iruditzen zitzaiola.

Gizajoa joan; an belauniko sartu arbolaren azpira, etzanda zegoen tokira; bizkarrean artu, ta arrastaka etxe-atari-ra ekarri zuen.

Ura ala ikusi eta negar egiten omen zuten soldaduak:

- Au onela ondatu duen gizonak zer pikardiya egin duen!

Ainbesteraiño maite omen zuten. Gero, zutenetik ere jaten-eta ematen omen zioten.

Gure aita difuntuak ere askotan esaten zuen:

- Gizon arek gero ainbeste indar zuenean, zenbat indar izango ote zuen tankeraz zegoen denboran?

Olako asko kontatzen zituzten len-go zarrak”.

* * *

Bertsoak ere badira Larraburuk gerra artan jarriak.

Iruñen arkitu genituan, *Barón de Montevilla* zanaren bertso-bilduman. Asieran onela dio erderaz: “*Del bertsolari “Larraburu” de Oyarzun*. Eta ondoren iru bertso auk:

1/ Oiartzunen zaizkigu
gizonak etorri,
neronek ikusiyak
zeinbat galtza gorri;
Don Karlos jauna ere
emen degu sarri;
Mariya Santisimak
egingo du argi,
Jaungoikuak badaki
mundukuen berri.

2/ Karlosek bear badu
emen soldarurik,
gure artian bada
gizon segururik;
berekin ekarritzen
ezpadu oberik,
ez du, ez, ipiñiko
nai duen legerik;
egunak mudatuko
al dira oraindik.

3/ Kalietan ojuka
zenbait *tuno* bakar,
otsegiten dutela:
“*!Viva la libertad!*”.
Galdia egin diyot:
“Gauz orrek zer dakar?”.
Gezurra esan didate
amabitik amar. (2)

Don Luis Jauregi zanak ere badu bertso au bere *Xenpelar bertsolaria* liburuan, 47 orrialdean. Xenpelarren sail batekoa dala dio, baiña ez da ola. Sail ori liburu ontan leenago eskeiñi diogu irakurleari. Papera, Xenpelarren denborako papera, Don Joakin Yrizar jaunaren liburutegian arkitu genduan; eta paper ortan bertso ori ez dago.

Errenteriko Jose Goñi zanaren aotik ere jaso nuan bigarren bertsoa, pis-ka bat aldatuta noski:

Karlosek biar badu
soldadu berririk,
gure artian badu
gizon segururik;
berarekin ekartzen
ezpadu oberik,
kontserbatuko al da
kristauen legerik?
Egunak mudatuko
al dira oraindik!

1. *Txakurtxulo* izengoitia zuan; Santiago Irazu izen-deiturak. *Txakurtxulo*, bere etxearen izena. Ostatua zan; Donostian, kale nagusiko sarreran, leenengo etxea ezkerretara. *Teniente coronel* izan zan; Gipuzkoako irugarren batallioaren buruzagia. Munuaundin -Buenaundi ori bera izango da- zauritu omen zuten; Azpeitiko Loiolan, karlistak an antolatatu zuten ospitalean alegia, il zan.

2. *Amarrek* edo bearbada *amark* bearko luke emen.

ERIoTZA

Larraburuko Joxepa Arbelaitzek onela esan zigun:

“Larraburu, illa arkitu zuten belar gainean-edo”.

Txeetasun onetzaz Jose Etxeberriari galdetu eta onela erantzun zigun:

“Ez, ez dut uste illa billatu zutenik. Karlista gerra bukatu ta aguro illa izango zan ura”.

Oiartzunen, berriz, batez ere Ugaldetxo aldean, beste zerbait entzuna nago bein baiño geiagotan, ango bertsozaleen aotik: Larraburuk, iltzera zijoala, lau bertso kantatu zituala. Eta onek eta beste arek bazekizkitela esaten zidaten, baiña jakitun danak illak...

Etsita geunden bertso oiek arkitzeaz. Baiña, gutxiena uste genduanean, Ugaldetxoko Portugal baserriko Inazio Pikabeak kantatu zizkigun. Bi baka-rrik, ordea. Ala ere pozik jaso genituan. Ardotxi jarritako bertsoen doiñuaz kantatzen dira. Inazio Pikabeak aitona zaar bati ikasi omen zizkion:

Bi aingerun erdiyan
nago geldi-geldi,

auek esaten dute:
“Preparatu bedi;
adios egin zaiozu
mundu guziyari,
senidetxuak eta
lagun urkoari,
eskuan muñ emanaz
aita ta amari!”.

Aingeruak jo dute
tronpeta-soñua,
adios, adiskidiak,
martxatzera nua;
adios, lagun urkoak,
adios, mundua,
adios, aita ta ama,
ekarri bostekua.
adios, aiton-amonak,
zerura nijua!

Bigarren bertsoan aita ta ama aita-tzen ditu. Ama illa zan, ordea, eriotz-agiriak dionez: *“hijo de Jose y de Juana Josefa Olascoaga ya difunta”*. Baiña Juana Josefa ez; Juana Inazia esan bearke luke. Amaren eriotz-agiria billatzen aalegindu gera, baiña alpe-rrik.

Aiton-amonak ere aitatzten ditu; baiña olakorik bizi ote zuan ez degu aztertu.

Larraburu bertsolaria 1876-eko otsaillaren 25-ean il zan, arratsaldeko bostetan, berrogei ta zazpi urterekin (1).

Tamalez, eriotz-agiri ori oso motza degu; ez du esaten nun il zan, ezta ere zer gaitz izan zuan.

Jose Etxeberriak, gerra bukatu eta aguro illa izango zala zion. Ain zuzen, eriotz-agirian ikusten danez, gerra bukatu zan egunetan il zan: Larraburu otsaillaren 25-ean itzali, eta Don Karlos 28-an Arnegitik barrena Frantzira pasa. Baiña Oiartzun aldean leentxea-

go paketuko ziran bazterrak; Jose Etxeberriak esan bezela ondo dago, beraz.

* * *

Larraburu bertsolaria il ondoren, familiak zer egin ote zuan?

Ez degu geiago familikoen berririk Oiartzungo artxiboan arkitu. Ez aitarren il-agiririk, ez anaiarenik, ez beste ezertxo ere.

Onek, guk uste, familia beste nora-bait joan zala esan naiko du; beste erriren batera aldatu, alegia. Nora, ordea? Ezin jakin ...

ARDOTX
JOSE ANTONIO BENGOETXEA LEKUONA
(1826-1878)

BI ANAI BERTSOLARI

Ardotx bertsolariak leen ere itzegi-ñak gera liburu ontan. Baiña beste berri batzuk ere jaso ditugu berari buruz, eta egoki izango da oiek orain emen jartzea.

Gure berri-emaleak onako jaun aukeratu dira: Oiartzungo Ugaldetxo baillaran dagoan Garro baserriko Jose Rekalde; erri bereko Iturriozko Arbidena jaio eta Errenteriko Altamugarri-erdikoan bizitako Jose Manuel Mendiburu; eta Eusebio Zabala, Errenteriko Baringarate-goiko (Bainketa-goiko) baserrian jaio eta bertan bizi dana.

Iru jaun aukeratu dituzte, Ardotx bertsolaria Oiartzungo Ugaldetxo baillarako Ardotxene baserrian jaio omen zan, eta ortikan zetorkion izengoitia.

Ardotxen anai bat ere bertsolaria izan omen zan. Anttoniyo zuan izena, eta Errenteriko Altamugarri-erdikoan bizitu zan.

Ontaz ere badegu zer kontaturik. Baiña leenengo Ardotxen berriak emango ditugu eta gero Anttoniyorenak.

Ardotx bertsolariaren aditzera edozein Oiartzun aldeko bertsozalek badauka. Baiña aren izen-abizenak inor-

txok ere etzekizkian. Ala, artxiboetan nundik azterketan asi etzegoan.

Illuntasun ortatik Ugaldetxoko Garro baserriko Jose Rekaldek atera ginduan. Jaun onek irurogei ta emezortzi urte zituan arengana jo genduan, 1974 urtean. Berak ere etzekian Ardotxen izen-abizenak nola ziran, baiña ori somatzeko bi bide eman zizkigun.

Leenengoa, Ardotxen biloba bat, seme baten semea, Errenteriko Santa Klara kalean, alako etxetan, bizi zala eta Luis Bengoetxea Aizpurua zeritzala.

Bigarrena, Ardotx bertsolaria bere osaba baten aita-pontekoa izan zala eta osaba ori Jose Luis Olaziregi zeritzala; eta au Oiartzunen jaioa eta bertan illa zala, Iturriozko Torres baserrian, larogei ta iru bat urterekin, 1949 edo 1950 urtean.

Leenengo pausoa Ardotxen biloba orrengana egin genduan. Baietz esan zigun: bere aitona, aitaren aita alegia, Ardotx bertsolaria izan zala. Arek ere Bengoetxea abizena, beraz; baiña etzitzaion izenik oroitzen.



Ardoxene baserria, Oiartzun.

Orregatik berdin zan, ordea. Bearrezkoa bagenduan, eta ortik aurre-rakoa errez billa zitekean.

Ardotxen billoba orrek esan zigunez, bera Irungo Katean, Txatenea baserrian jaioa zan, 1900-eko otsaillaren 15-ean; baiña bere gurasoak, Juan Jose Bengoetxea eta Frantziska Aizpurua, Oiartzungoak ziran eta bertan esposatuak. Orregatik, Iruna joan gabe ere, azterketa guzia Oiartzungo eliz-artxi-boan egin zitekean, eta ala egin genduan.

Aurrena, Juan Jose eta Frantziska oien ezkontza-agiriaren billa asi giñan: 1885 urteko garagarrillaren 6-an esposatu ziran, eta Juan Joserren gurasoak Jose Antonio Bengoetxea eta Amalia Beobide izan ziran.(1)

Jose Antonio Bengoetxea ori degu, beraz, Ardotx bertsolaria.

Izen-abizenen ondoren, *propietario*, *arriero* zala esaten da.

Besterik gabe ere naikoa genduan; etzegoan zer duda egin Ardotx bertsolariak izen-abizenak zer zituan. Baiña bada-ezpada ere, Jose Rekaldek emandako bigarren bidea ere probatu nai izan genduan, ortik zer aterako zan ikusteko.

Esan bezela, Ardotx bertsolaria Jose Rekalde orren osaba baten aita-pontekoa zan; osaba ori Jose Luis Olaziregi zeritzan, oiartzuarra zan eta larogei ta iru bat urterekin 1949 edo 1950-ean illa.

Leenengo, Jose Luis Olaziregi orren eriotz-agiria billatu genduan; eta 1950-eko otsaillaren 1-ean il zala arkitu, larogei ta bi urterekin. (2)

Urrena, bataio-agiria eskuratuta, 1868-ko irailaren 1-ean jaio zala ikusi genduan. Larogei ta bat urterekin il zan, beraz, eta ez larogei ta birekin, eriotz-agiriak dionez. Eta aita-pontekoa nor izan zuan adierazteko, onela esaten du bataio-agiri orrek: "...*padrinos: por José Luis Olaciregui, José Antonio Bengoechea, arriero, ambos casados...*".(3)

Aita-pontekoa ez, beraz; aita-pontekoaren ordekoa baizik.

Jose Antonio Bengoechea au degu, beraz, batere dudarik gabe, Ardotx bertsolaria. Bi bidetatik abitu eta gauza bera arkitu. Etzebillen oker Jose Rekalde adiskidea. Milla esker berari!

Urrengo pausoa, berriz Jose Antonio Bengoetxea orren bigarren abizena billatzea genduan. Andrea, len esan bezela, Amalia Beobide baitzuan, ezkontza-agiria billatu genduan. An esaten danez, 1856-ko apirillaren 14-ean esposatu ziran, Oiartzungo elizan; eta Jose Antonioren bigarren abizena ere ematen zaigu: Lekuona.

Gurasoak, Nikolas Bengoetxea eta Josefa Inazia Lekuona izan zituan, biak oiartzuarrak. Andrearenak, berriz, Inazio Antonio Beobide eta Nikolasa Arbide izan ziran. (4)

Urrena, bataio-agiria billatu genduan: Jose Antonio Bengoetxea Lekuona, Ardotx bertsolaria alegia, 1826-ko apirillaren 12-an jaio zan. (5)

Gurasoen izenak eman ditugu. Aiton-amonenak, aitaren aiekatik: Juan Jose Bengoetxea eta Maria Joakina Portu; amaren aiekatik: Juan Jose Lekuona eta Manuela Retegi.

Bataio-agiriak ez du jaiotetxearen izenik esaten. Baiña, leen esan degunez, Ugaldetxoko Ardotxene baserrian jaioa omen zan, eta ortik izengoitia.

Etzan bakarra izan; senideak bazituan. Onako aukerak arkitu ditugu: Markos, 1814-IV-24-ean jaioa; Josefa Antonia, 1816-VIII-18-an; Juan Antonio, 1819-V-31-n; eta Juana Ramona, 1828-VIII-12-an. (6)

Leen esan bezela, Juan Antonio ori ere bertsolaria izan zan. Baiña orrekiok gero esango ditugu.

Ardotx bertsolariak, Jose Antonio Bengoetxea Lekuona orrek alegia, eta bere emazte Amalia Beobidek, onako seme-alaba aukerak izan zituzten: Jose Inazio, 1856-XI-9-an jaioa; Benijno, 1858-II-12-an; Juan Jose Zeferino, 1859-VIII-26-an; Luis Inazio Kalisto, 1861-X-14-ean; Migel Antonio, 1863-X-1-ean; Maria Karmen Mikaela, 1865-VII-15-ean; Martzelina Josefa Mikaela, 1867-I-2-an, eta Pedro Seberino, 1870-I-7-an. (7)

Ardotx zein etxetan bizi zan ez dakigu; iñork ez digu ori esan, eta agirietan ere ez da olakorik adierazten.

Ardotxene baserria erre egin omen zan karlisten leenengo gerratean (1833-1839). Ala esan digu Jose Manuel Mendiburuk.

Ardotx bertsolaria 1878 urteko azaroaren 4-ean il zan, "*de neumonia crónica*", eriotz-agiriak dionez. Agiri orrek berrogei ta amairu urterekin il zala esaten du. Baiña berrogei ta amabi zituan, 1826-an jaioa baitzan. (8)

1. Oiarzungo 11-garren ezkontza-liburuan, 220 orrian.

2. Oiarzungo 19-garren eriotz-liburuan, 86 orrian.

3. Oiarzungo 17-garren bataio-liburuan, 20 orrian.

4. Oiarzungo 10-garren ezkontza-liburuan, 242 orrian.

5. Oiarzungo 14-garren bataio-liburuan, 83 orrian.

6. Oiarzungo 13-garren bataio-liburuan, 21, 45 eta 72 orrietan; eta 14-garrenean, 135 orrian.

7. Oiarzungo 16-garren bataio-liburuan, 51, 79, 121, 175, 229, 300 eta 356 orrietan; eta 17-garrenean, 56 orrian.

8. Oiarzungo 12-garren eriotz-liburuan, 90 orrian.

EXKERRA BERATARRA

Batean, onako desapio au bialdu zion Ardotxek Berako Exkerrari. Doiñua, Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno batetik artu degu.

Exkerra Beratara,
zuretzat goraintzi,
lengo kostunbre zarrak
etzaizkigu antzi.
Sakelak utsak eta
poltsan diru gutxi,
inbusteriz mantendu,
bertsuetan jantzi ...
Orla bizi denak eztik
iltzia merezi.

Exkerra, nai badezu
nerekin jarduna,
señalatu itzazu
illa ta eguna;
erritikan artzazu
nai dezun laguna,
bertsutan jokatzer
atoz Oiartzuna;
etzaizu paltatuko
zeñek erantzuna. (1)

Ez-ke - rra be-ra - ta-rra

zu - re - tzat go - rain - tzi

len - go kos - tun - bre txar-rak

e - tzaiz - ki - tzu an - tzi

en - bus - te - ri - yan jan da

ber - tsu - e - tan jan - tzi

or - la bi - zi da - nak ez - tik

il - tze - rik me - re : zi.

1. Manuel de Lecuona: *Literatura oral euskérica*, Donostia, 1936.

Manuel de Lecuona: *Literatura oral vasca*, Añamendi, Zarautz, 1965.

Tolosako Estanis Urruzolaren kuadernoan, bigarren bertsoa bakarrik, aldaketa onekin: 2/7: bertsutan egitera.

Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola, Azpeitia. Onak ere bigarren bertsoa bakarrik, aldaketa auekin: 2/1: Desiatutzen dute; 2/3: izentatu egin zak; 2/5: artu zak erritikan; 2/6: nai dekan laguna; 2/7: bertsutan aritzera; 2/9: an etzaik faltatuko.

BESTE ZENBAIT BERTSO

Ardotx bertsolariaren bi bertso leenago eskeiñi ditugu, Xenpelarren bertsoen artean: bat, Exkerrari botia; eta bestea, Xenpelarri Lezon kantatua. Oiek ez ditugu emen ostera jarriko.

Beste batzuek geroztik jaso ditugu, ordea, eta oiek emango dizkiogu orain irakurleri.

Onako auek Errenteriko Baringarate-goiko (Bainketa-goiko) baserriko Euxebio Zabalaren aotik ditugu. Onela esan zigun:

“Bein bear eta Ardotx bertsolaria tabernatikan etorri zan berandu xamar.

Goizean mezetara joan eta uste gabeen eguna pasa tabernan, bere lagunartean eta bere komeri, eta etxeratu zan gabeen; berak esaten duenez, amarrak eta erdi alde orretan.

Baiña onoko patxara eder onekin etorri zan; da, etxera allegatu zanean, ez dakit andreak atea edeki nai etzion edo itxia zegoen. Beiñepeñean, Ardotx modu ontan mintzatu zitzaion kanpotik emazteari:

1/ Andria erritan ai da
arrazoiarekin,
ola ezin liteke
onela gurekin;(1)
jaia pasatu eta
diru gutxirekin
Ardotx tabernatikan
iru semerekin.

2/ Amarrak ta erdiyak
oraindakian goiz-ta, (2)
gu ezkerade ibiltzen
orrela noiznaiz-ta(*sic*)
atia iriki zazu,
neure andre maixtra,
kaballero moduan
ibilliya naiz-ta.

3/ Andria aserratzen
asiya det kasoz,
arrazioa berekin du
nere uste osoz;
“Amar t’erdiya jota
etxera al zatoz?
Famili dana ondatzen
zere buru gaitoz!”

4/ Astelenian jaiki
gerade berandu,
aziendak markatzen e
ez gera izandu;
jaten emain ziguten
lana egin bagendu;
gose-xamartu gera,
tripak ezagun du.

5/ Egunian bi aldiz
au da ixtillua,
alare ezin bete
esnez katillua;
askotan aitatutzen
dedan ikullua:
beiak adarrak dantzan
ta nik akullua.

Leenengo bertsoak “iru semerekin”
esaten du. Leen esan degunez,
Ardotxek sei seme zituan, eta bi alaba.

Bigarren bertsoa Artzai-Txikia
bertsolariarena dala esaten dutenak ere
badira. Eusebio Zabala onek, berriz,
Ardotxena dala dio. Nork arrazoi?
Onezkeru zailla izango da auzi ori era-
bakitzea.

Bostgarren bertsoa Bilboko
Ibaizabal aldizkarian ere argitaratu
zan, 1903-XI-22-an, amalau bertso di-
tuan sail bateko aurrena eta Kepa
Enbeitarena zala esanez.

Eusebio Zabalari esan genion ori,
eta berak beti bere aita zanari bertso
ori Ardotxena zala entzun ziola eran-
tzun zigun. Ontan ere nork arrazoi?
Ibaizabal-en beste onela dago bertso
au:

Komedi-tokia du
gure okoillua,

beiak adarra dantzan
ta ik akullua
gaur bigarren aldian,
mutil kantallua,
esnez bete eziñik
eure katillua.

* * *

Beste bertso auek, berriz, Oiartzun-
go Juan Mari Lekuonak bialduak ditu-
gu. Onela zion gure adiskide onek:

“Orain dala ogeiren bat urte, ar-
tzantzako jakingarriak biltzen ari nin-
tzala, nun eta nori ez dakidala, jasoak:

Ardotx:

Asko presonagatik
ala det aditzen:
al dutenian ari
dirala kojitzen;
an egon biarko dute
denak padezitzen,
inpernuko iguri (*sic*)
gaixtuak sufritzen,
orra zer peligruan
geraden bizitzen.

Eta beste bertso baten puska:

... Demoniyu zarrak,
luzatzen dituztela
beren atzaparrak,
ai, zer egin dezaken
anima bakarrak!”.

Bertso bat osorik eta bestea erdiz-
ka, beraz. Leenengoa ez degu beste
iñun arkitu; bigarrena, berriz, *Auspoa*-

ren 56-garrenean, 106 orrialdean, argitaratu genduan, zenbait aldaketarekin, Udarreregirena zala esanez.

* * *

Beste bi bertso aukeratuak Errenteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanaren aotik jaso genituan. Onela esan zigun: “Errenterian Fabrika Aundia jarri zutenean, Oiartzunen ere fabrika jarri nai zuten, baiña galerazi nunbait.

Errenterikoa jartzen frantzesak ibilliak ziran.

Bertso aukeratuak Ardotxek orduan jarriak dirala uste det:

Biba Oiartzuarrak!
Orra Errenteriya,
alabatzera nua
fabrika berriya;

len relijiyo santuan
bizi zan erriya,
oain ortxen pasatzen da
zenbait pikardiya,
gaztiaren artian
dago lujuriya.

Lujuriyan trebe daude
oraingo gaztiak
dakiyenak erakutsi,
ikasi bestiak;
emakume abandonatu,
gizon tunantiak,
gorputz malezioso
pekatuz betiak,
sekulako kondenatzen
anima tristiak”.

-
1. Bearbada beste onela izango da: “ola ezin liteke burutu gurekin”.
 2. Goiz-ta: goiz da.

JUAN ANTONIO BENGOETXEA LEKUONA
(1819-1899)

BIZITZA

Leen esan bezela, Ardotxen anai bat ere bertsolaria izan zan. Juan Antonio zuan izena, eta 1819-ko maiatzaren 31-n jaio zan, goizeko zortzietan.(1)

Baiña Juan alde bat utzita, *Anttoniyo* deitzen omen zioten. Ala esan digute beintzat aren berri eman digutenak: Oiartzungo Iturriozko Altamugarri-erdiko baserriko Jose Manuel Mendiburuk eta Erreteriko Baringarate-goiko (Bainketa goiko) baserriko Eusebio Zabalak. Guk ere *Anttoniyo* esango diogu.

Anttoniyo au ere, bere anaia bezela, Ardotxene baserrian jaioa omen zan. Baiña oni etzioten Ardotx esaten. Guk beintzat ez degu olakorik aditu. Zergatik ote? Erriak gogoak nundik jotzen dion jartzen ditu izengoitiak, eta alperrikan da zergatik galdetzea. Ala ere, arrazoi bat esango genduke.

Juan Antonio au 1841-eko otsaillaren 3-an ezkondu zan. Ogei ta bi urte osatu gabe, beraz; eta, gaiñera, kanpora ezkondu. Onek zera esan nai du: gazte xamar alde egin zuala Ardotxenetik; esate baterako, Ardotx izengoitia bereganatzeko denborarik gabe.

Andrea Josefa Inazia Oiartzabal zeritzan. Oiartzungo alaba zan, baiña Donostiako partean bizi zana.

Anttoniyo eta Joxepa Iñazi alkarrekin zerbait aaide egiten ziran, laugarren graduan-edo. Orregatik, Erromatik baimena eskuratu bear izan zuten, ezkonduko baziran. Onela dio ezkontza-agiriak:

"...habiendo obtenido de su santidad Gregorio XVI la dispensa del cuarto grado de consaguinidad el día siete de Julio de mil ochocientos cuarenta, como también la competente autorización del Señor Provisor de esta Diócesis, Dr. Dn. Miguel José de Irigoyen, concedida el día diez y seis de setiembre último...".(2)

Altamugarri-erdiko baserrian bizi izan ziran senar-emazte auek. Beste bi Altamugarri ere badira: goikoa eta bekoa.

Erreteriko partean daude iru baserri auek, baiña mendi-mendian, Aldura kaskoaren azpian. Erreteriko kalera ordubete eta iru laurden oiñez, eta Oiartzungo plazara ordu ta laurden edo or nunbait. Alderago beintzat Oiartzun, eta orregatik onera zuten jo-

era guzia.

Seme-alaba auek izan zituzten: Jose Nikolas, 1841-XII-29-an Errenteriko partean jaioa, baiña Oiartzunen bataiatua (3); Jose Antonia Silbestra, 1846-XII-31-n; Jose Inazio, 1849-III-13-an; Felipa Inazia, 1851-XII-28-an; Josefa Teresa, 1855-V-8-an; Jose Antonio, 1858-III-13-an; eta Juana Josefa, 1861-IX-22-an.(4)

Juana Joxepa ontaz ere badegu zer kontatua. Baiña orrekikoak gero esango ditugu.

Bataio-agiri auetan, amaren aldeko aiton-amonak Landarbason bizi zirala esaten da beti. Eta Jose Manuel Mendiburuk, galdetu eta baietz erantzun zigun: Landarbasoko Larratz baserria zala beren bizilekua.

Anttoniyo bertsolari au, bere emazte Joxepa Iñazi eta aurrak emen utzita, Ameriketara joan omen zan. Gero, an denbora puska bat eginda, onera etorri eta ostera alkarrekin bizi izan zirala.

Anttoniyo 1899-ko garagarrillaren 12-an il zan, goizeko bederatzietan,

“*de muerte natural*”, eriotz-egiriak dionez, irurogei ta emeretzi urterekin. Il zan etxearen izena ere esaten du agiriak: Artamugarri-erdikoa.(5)

Emaztea, Joxepa Iñazi, 1902-ko martxoaren 15-ean il zan larogei ta bi urterekin, “*de muerte natural*” au ere eriotz-agiriak adierazten duanez, Artamugarri-erdikoa etxean.(6)

1. Oiartzungo 13-garren bataio-liburuan, 72 orrian.

2. Oiartzungo 10-garren ezkontza-liburuan, 112 orrian.

3. Oiartzungo 15-garren bataio-liburuan, 73 orrian.

4. Errenteriko 13-garren bataio-liburuan, 27,56,99 eta 153 orrietan; eta 14-garrenean, 6 eta 72 orrietan.

5. Errenteriko 10-garren eriotz-liburuan, 160 orrian.

6. Errenteriko 10-garren eriotz-liburuan, 344 orrian.

ZENBAIT BERRI ETA BERTSO

Leen esan degunez, Jose Manuel Mendiburu eta Eusebio Zabala izan ziran Anttoniyo onen berri eman zigutenak. Jose Manuelek esanak jarriko ditugu orain.

Jose Manuel onek larogei ta bat urte zituan, guk arengana argibide-eskejo genduanean. Oiartzungo Iturriotz baillaran jaioa zan, Arbide baserrian, eta Altamugarri-erdikora esposatua; Anttoniyoren etxera alegia.

Etxerako gelditu zana, Anttoniyoren alaba gazteena izan zan: Juana Joxepa. Ezkondu ere egin zan, baiña familirik etzuten izan. Orduan seme eta alaba ordekoak kanpotik ekarri zituzten; eta alaba ordekoa, Lorentxa, etxerako gelditu. Eta Lorentxa orrekin Jose Manuel ori esposatu.

Orregatik, Jose Manuel onek zerbait ere jakin zezakean Anttoniyo bertsolariatz. Onela esan zigun:

“Emengo Anttoniyo au an jaioa zen, Ardotxenen; gero, esposaturik onera etorria, ta emen bizitu ta emen il; baiña Ardotxenen jaioa.

An esposatu ta gero onera etorri. Andreak ezin etsi an, Larratz-koa baitzen. Jakiña, ba: mendian usatuak beti, eta ardiak-eta gustatzen; ta an bat ere ez, ta gero emen artalde aundia izaten.

Errejidore ta errian maite zutena Anttoniyo ori. Ura, ia meza emateraiño apaiz-eskola ikasia omen zen. Jakiña, gero ezin sostenitu-edo, beñe-pein utzi karrera, ta gero mendian langilleekin-ta ibiltzen zena. Ta joan ta aiuntamentuarekin bazkaldu-ta egiten omen zuen.

Joxepa Iñazi andrearen izena; ta ura, gaxoa, umeekin-ta emen, ta gizona bertsoan”.

Larratz esan zuan Jose Manuelek Anttoniyoren andrearen etxea. Baserri ori Donostiako partean dago, Landarbason. Leen ere aditzera eman degunez, ori bera esaten dute eliz-agiriak ere.

* * *

Anttoniyorenak, bi bertso eman dizkigu Jose Manuelek. Bi bertso, bai-

ña osorik ez; erdizka baizik. Onela zion:

“Larraburu bertsolaria Goierrira joan alegia. Goierria, Astigarragako bentatik aurrera, eta orrera atera goikoak, eta zer egin diote? Bera bakarrik sumatu dutenean, zer bait ere burla egin Larrabururi, ara joan ziran aik; eta gero nik ez dakit Anttoniyo botia zen edo Larraburuk botia zen:

Goierriko gizon oiek goian ditek galtza-gerrikua,
nunbait etziten
beren neurrikua,
aixax menderatu ditek
gure errikua.

Anttoniyok botia da beste au:

Enbustero zuriya,
iztun lañua,
ik zertan jo dek gabian
besteren leiua?
Biorren tarterako
a zer garaña!”.

* * *

Urrengo au ez da bertsoa, baiña bertsoarekin zer ikusirik duana. Jose Manuel Mendiburuk kontatua degu.

“Iru bei koxkor; eta, menditik etxera eldu ziranean, iru joalerekin, buelta-ka-bueltaka emen malda beiti etortzen, eta arek, Anttoniyok, ederki bere doiñuan kantatzen zuen; joaleen otsa bezela kantatzen zuen.

Batek:

-Orain poliki! Orain poliki!

Ta besteak:

-Laixter ongi! Laixter ongi!

Ta besteak:

-Gero obeki! Gero obeki!”

* * *

Eta Anttoniyo il zaneko oroipena ere bazuan Jose Manuel Mendiburu onek. Onela esan zigun:

“Gu umeak orduan; nik lau edo bost urte; ta Arbiden, ni Arbidekoa bainaz. Ta an beste aiekatik jeixten zen gorputza, menditik; eta ara etorri ziranean, muntto batean utzi kaja, munttoaren gañean, atsedean egiteko, ta:

-Or aiton bat il da Altamugarrin!

Gu umeak, eta:

-Ori nora eraman bear dute, ama?

Eta jakiña umeai zer esango zieten gurasoak:

-Zerura! Zerura!

Berak ala esaten omen zuen, entierro guzietara joaten omen zen eta:

- Ni iltzen naizenean, iñor ez da elizara joango!

Eta etxe denetara abixua bialdu alabak, Juana Joxepak. Aren faltan etzela jendea joan gabe geldituko, eta propiyo bi gizon etxez etxe ibilli omen ziztuzten alabak-eta.

Ta jendea, kantidadea! Denak arri-tuta geratu omen ziran.

Alaba, Juana Joxepa oi, ala aritzen zen esaten”.

* * *

Eta Anttoniyoren seme-alabak zer egin zuten, onela aditzera eman zigun Jose Manuelek:

“Zarrena Ameriketara joan zen.

Bestea, etxean biotzeko miñez egoten zen; atakeak izaten zituen, ta illa billatu zuten. Gazterik illa ura.

Bestea, Teresa, Pikorrenera esposatua.

Beste alaba, Ameriketari. Amerikatari ori Panplonari illa da, andik buelta eginda. Ameriketari adiskidetu ta gero elkarrekin ezkondu; orko semea zuen senarra, Panplonakoa. Aien alaba

emen izandu zen; bere ama nun jaiola zen ikusi nai zuela, ta emen zortzi egun pasa zituen, onara etorrita. Baña ura emen izandu zela, badira berrogei ta bost urte bai.

Beste alaba, Erreteriko Fabrika Aundian ibiltzen zen, ta jendea erreparatzen ta maixtra egoten zena; ta ura soltera il zen Erreterin.

Bestea, senideetan gazteena, Juana Joxepa, etxerako gelditu zena”.

Sei senideren berri eman zigun Jose Manuel Mendiburuk. Baiña batena falta, zazpi baitziran. Etxuen uste gure berri-emale onek besterik zanik. Bearbada, gazterik illa-edo izango zan.

"BESTEK APLIKATU DIT..."

Leen esan bezela, Errenteriko Baringarate-goiko (Bainketa-goiko) baserriko Eusebio Zabalak ere Anttoniyoren zenbait berri eta argibide eman zizkigun; baita bi bertso-sail ere.

Eusebio au, bizi dan baserrian jaioa da. Bere aita zana ere ala omen zan. Aitona, berriz, Bedaiotik etorria, baiña Baringarate-goiko baserri ortan bizi izana. Baserri au eta Anttoniyorena, Altamugarri-erdikoa alegia, auzo-etxeak dira. Auzo-etxeak bai, baiña mendi-baserrietan izan oi dan auzotasuna: ordu laurden bateko bidea batetik bestera. Ala ere, artu-emanak maiz eta ugari alkarrekin.

Eusebiok etzuan Anttoniyo ezagutu; bai, ordea, bere aitak. Onek bertso zaarra erruz omen zekian, bai Anttoniyorenak ere: eta semeak guri esan zizkigunak, aitari ikasiak.

Leenengo bost bertso auek, Anttoniyok neska bati-edo ezkongaietan jarriak omen dira. Oso gazterik jarriak, beraz; leen esan bezela, Anttoniyo ogei ta bi urteak osatu gabe esposatu baitzan.

Onela esan zigun Eusebio Zabalak:

“Anttoniyo Altamugarrikoa zegoen andregaiaren faltan, eta onela eman zion aditzera bere lagunen batek:

- Nik bazakit nun legoken iretzat moduko emakumea, neskatxa. Egin akiok bixita bat!

Anttoniyo joan zan, arrek esan zion bezela, bixita ori egitera, bere damatxo orrengana; eta ondorenean bertso auetxek Anttoniyok antolatu zizkan damatxo orreri:

1/ Bestek aplikatu dit
neronei andria,
zarra eta itxusiya,
juiziyoik gabia;
ortzak ere juanak,
alperra ta dongia,
ura ere nere gisa
arlotte pobria.

2/ Bixita egin niyon
lengo arratsian,
zizon aritzen zala
iñoiz ardatzian;
orduan lan aundirikan
etzeukala etxian,
etzanda egondu zan
denbora luzian.

3/ "Emakumia, zaude kristaban moduan, juiziyoik baldin badezu beintzat buruan; artzaia ardi-kontu dagan orduan, olaxe egoten da ziarka soruan".



4/ Gau artan argirik ere pixtu etzenidazu, aizeka lau txikortari eman nioten su. "Txantxetan edo alai etorri al zeran zu, jakin nai nuke eta esan biar dirazu".

5/ Illia urdinu eta kolore oriyak, atzaparrak motel eta zankuak nagiyak; xoxo bat ainbat badira dam'orren begiyak, gezur aundirikan gabe esan ditut egiyak".

* * *

Bertso auetatik iru, 2, 4 eta 3-garre-na, orden ortan, leen ere bagenituan, Iturriozko Robustiano Urkiaren aotik jasota. Baiña bertsoak ez daude berdintsu, eta berriz ere jarri egingo ditugu. Onela zion aurretik Robustiano onek:

"Neskagana joan ta neska zera xamar izaki. Ez dakit zeñek jarriak izango diran; mutillak jarriak ziran neskarri. Oik badira dozen erdiren bat, baño nik aditu bakarrik egin baiditut:

2/ Bisitan izandu naiz lengo arratsian, aritzen zala ziyon iñoiz ardatzian; orduan gaiarikan etzaukala etxian, etzanda egondu zan denbora luzian.

4/ Gaua artan etzuten
argirikan piztu,
aizeka arraziak
lau txikortari su,
“Ziñetan eo txantxetan
etorri zeran zu,
jakin bear det eta
esan biar nazu”.

3/ Ibilli bear dezu
kristauen moduan,
baldin juiziorikan
badezu buruan;
artzaia dagonian
ardien kontuan,
olaxen egoten da
etzanta soruan”.

* * *

Bertso auek Oiartzungo Juan Mari
Lekuona adiskideak ere bialdu zizki-
gun, beren doiñuarekin eta adierazpen
onekin:

“Aitona difuntuak, Joan Marik,
kantatzen zituen, umeak belaunen ga-
ñean artuta, su ondoan”.

1/ Bestek aplikatu dit
neretzat andria,
beltza ta itxusiya,
zarra ta dungia;
ortzak ere joanak,
juiziyo gabia,
ura're nere gisa
arrote pobria.

2/ Ikusten izandu naiz
lengo arratsian,
iñoiz aritzen zala
ziyon ardatzian;
orduau etzaukala
lanikan etxian,
etzinda egondu zan
denbora luzian.

3/ “Emakumia, zaude
presonen moduan,
juiziyorik batere
badezu buruan.
Artzaia dagonian
ardiyen kontuan,
olaxen egoten da
ziarka soruan”.

4/ Gaba artan etzidan
argiyikan pixtu,
lau txikortari aizeka
eragin ziyen su;
“Txantxetan ala ziñez
etorri zeran zu
jakin nai nuke eta
esan bear diazu”.

5/ Muñoa zurittua,
kolore oriyak,
atzaparrak motelak,
zankuak nagiyak.
Ave Maria bezela
oik dira egiyak,
zozu ainbat baziran
dama orren begiyak.

* * *

Bertso auen beste era bat badegu.
Baiña ez dakigu noren eskutik edo ao-
tik jaso genduan:

1/ Bestek etxeratua
det nik emaztea,
alperra ta itxusia,
zarra ta dongea;
ortzak ere joanak
juizio gabea,
bestetik nere gisa
arrote pobrea.

2/ Ekusten izandu naiz
lengo arratsean,
aritzen zala zion
noizbait ardatzean;
lanikan etzeukala
orduan etxean,
etzanda egondu zan
denbora luzean.

3/ Gau artan etzuen
argirikan piztu,
aizeak erazeki zion
lau txekortari su.
"Txantxaz ala ziñetan
etorri zeran zu
jakin nai nuke eta
esan bear didazu".

4/ "Artzaia dagoenian
ardien kontuan,
orlaxe egoten da
etzana soruan;
emakumea, zaude
kristauen moduan,
batere juiziorik
badezu buruan".

5/ *Ave Maria* bezela
dira auek egiak,
arrautza ainbat badira
andre orren begiak;
illea urdiña ta
kolore oriak,
atzaparra motela,
zankoak zoliak.

ARDIAI

Iru bertso auk ere Anttoniyorenak omen dira, eta Eusebio Zabala orren aotik jaso genituan. Onela esan zigun:

“Garai aietan ere negua izaten, eta Anttoniyo orri ardiak egin zitzaizkan auldu; batzuak, danak ez noski, baño geienak. Eta pentsatu zuen bere artean, ardiai begira jarri ta nola bertsolaria baitzen: “Nik bertsoak jarriko dizkio-tet ardia oiei!”

Eta asmo orrekin onoko bertso auk atondu zituen Anttoniyo Altamugarrikoak, Ardotxen anaiak:

Oraindik gaz - ti - ada: be-do-ra-
 tzi ur - te; i - bil - pi - ri - a
 gal-du zo-rru-a e - zin be-
 te e-tzan-ta e - go - ten da
 a-le-gin du ar - te, ge-ro be-

lau - ni - ko - ka bar - ka - zi - yo es - ke.

1/ Oraindik gaztia da:

bederatzi urte;
 ibilpiria galdu,
 zorrua ezin bete;
 etzanta egoten da
 alegindu arte,
 gero belaunikoka
 barkaziyo eske.

2/ Geiago ere badituz orren modukuak,
 ezurrez gizenak bañan
 aragiz flakuak;
 inoiz tokatzen baira
 pauso bi altuak,
 amilka ta boteka
 madarikatuak.

3/ Askotan egoten naiz
 neregana pentsatzen,
 ardiyak ez diratela
 bererik ematen;
 berririka azi ez ta
 lengo zarrak iltzen,
 aurtan bapo ari naiz
 putriak mazkatzen”.

AMERIKETARA

Anttoniyo, familia emen utzi eta Ameriketara joan omen zan, eta gero atzera etorri. Joan-etorri ontaz onela esan zigun Jose Manuel Mendiburuk:

“Semea lenago joana, ta gero seme-agana joan ori. Ori Ameriketara alaba batekin joan.

Ta semea ogei ta bost milla abereekin arrapatu omen zuen.

Ameriketara orain ez dakit urte bete edo bi edo zer pasa zuen; semeak beñepein diru pixka bat eman ta pamilira biali”.

Batzuek diotenez, andrearekin aserretuta joan zan Anttoniyo Ameriketara. Gertatuaren berri Jose Manuel Mendiburu orrek iñork baiño obeto jakin zezakelakoan, leen esan bezela Anttoniyo bere amagiarrebaren aita baitzuan, andrearekin asarretuta edo nola joana zan galdetu genion, eta onela erantzun zigun:

“Ori ez jakin nik, baño an izandu zela bai. Beren purrustadak-eta izaten omen zituzten; bera Errenterian errejiodore-eta ibiltzen omen zen, ba, ta andrea etxean umeekin”.

Ondoren onela jarraitu zuan Jose Manuel onek:

“Ura pamilira etorri zenean, pentsatu omen zuten emengo bezindadeak, Suantzan sagardotegia ta bear zutela ara joan eta saio bat egin bertsoan; broma jarri bear zutela arratsalde batean.

Duro bat bota omen zuten *león-castillo*, eta Anttoniyori tokatu aurrena astea, ta arek orduan, ba, bota bertsoa:

Frailek ereiñ omen du
anea bat baba,
baliatuko zaio
urtabia bada;
zozuak eta beliak
joaten zaizka ara,
obe luke andre beltza
izugarri para.

Urrengoa Frailiaren txanda, ta:

Adituak aditu,
ekusiak ez ekusi,
nere andre beltzakin
kontentu nak bizi;

andriak eta umiak
emen gosiak utzi,
eta i juan intzan
Amerika igesi.

Ta Anttoniyok, il egin bear zuela orduan Fraile ori, ta publikoak utzi ez”.

Bi bertso oiek berriz ere aitaturko dira liburu ontan, *Frailia* bertsolari orren berri ematerakoan.

Baiña obeto ulertuko dira, Eusebio Zabalak dionarekin:

“Fraile orrek omen zuen, nik ez nuen ezagutu, oso andre itxusia; zera, beltza ta oso seriya, iñon parrik egingo etzuen.

Ta Anttoniyo ori, berriz, andrea polita arrek, baño aserretu andrearekin ta Ameriketera joan”.

Frailie izengoitia da noski. Errenteriko Iturralde baserrikoa omen zan. Altamugarritik ara, ogei bat minutu oiñez.

Oso bertso ezagunak dira auek Errenteri eta Oiartzun aldean. Leenengo berdintsu ematen dute danak; bigarrena ez, ordea. Bigarrena onela jaso genion Eusebio Zabalari:

Adituak aditu,
ikusiak ikusi,
olako arrazoirik
ez nien merezi;
ni nere andre beltzakin
kontentu nak bizi,
bañan i juan intzan
Frantzira igesi.

Frantzira esaten da emen, baiña Ameriketara joan zan, leen esan degunez.

* * *

Bertso oien ondotik, obeto ulertuko da urrengo gertaera au. Eusebio Zabalak kontatu zigun:

“Altamugarriko bi auzoetan gertatutako gauza, Altamugarri-beko eta Altamugarri-erdiko baserrietan.

Nola ziran auzoak, bizitzen ziran elkarrekin ondo; baño auzoen artean, umeak dirala edo olloak dirala edo ardiak dirala, asarreak ere tokatzen dira. Eta onoko kasua tokatu zen batean Altamugarriin:

Altamugarri-erdikoan nagusia zen Anttoniyo Bengoetxea, ta andrearekin aserretu eta Ameriketara joan zen andreagandik igesi; baño aserrea ez da izaten betirako, eta, aserrea bukatu zenean, atzera andreagana etorri zan ta elkarrekin bizitzen ziran.

Ta egun batean tokatu zitzaizoten olloengatik edo ez dakit ardiengatik edo umeengatik, zerbaitengatik aserretzea bi Altamugarri oietako etxeoandreak.

Baño aserretzea bakarra ez da aski izaten. Aserretu ziran, beren sesioaldia egin zuten ta beren etxeetara erretiratu ziran. Bañan Altamugarri-beko baserriko andrea etzen kontentu:

- Aserretu gaituk, baño nik bazekat zorra Joxeta Iñazirekin!

Iriña eskas taloak egiteko, eta joan zan batean Altamugarri-erdikora iriñaren billa, aber serbituko zuten iriñare-

kin, eskas zuela ta. Ta Joxepa Iñazik eman zion bere iriña ari, ta eramán zuen; baño bueltan entregatu gabeak ziran oraindik.

Esan bezela, aserretu dira, beren sesio-aldia egin dute, baño Altamugarri-bekoko andrea etzegoen konforme bere iriña entregatu gabe. Eta pentsatu zuen: “Ba! Nik zorra pagatu egin bear hit!”.

Eta Altamugarri-erdikora etorri zen, bere zaku ori artu buruan eta *ttaka-ttaka ttaka-ttaka* atondora, ta onela mintzatu zen:

-Abe Maria! Nun zera, Joxepa Iñazi?

Eta Joxepa Iñazik onela erantzun zion:

- Emen naz, emen! Zer nai zenuen?

- Onoko iriña au zurea da, ta jaso egidazu!

- Bai, bai! Jasoko dizut!

Joxepa Iñazik bere iriña jaso zion, eta bestea Altamugarri-bekokoa bueltatu zen bere etxera. Baño orduan Joxepa Iñazi, Altamugarri-erdiko Anttoniyoren andre ori, etzen kontentu gelditu: “Orrek bere zorra pagatu dik, eta nik orreri zorra bazioat!”.

Altamugarri-erdikoak, ez dakit bere gisan edo eztabaidan autsi ta zerbitzura zuten ekarria uztarria Altamugarri-bekotikan; eta, entregatu gabea baitzeukaten oraindik beren etxean, onela pentsatu zuen Joxepa Iñazik: “Ba! Orrek entregatu zidak neri bere zor zidana, bere zor zidan iriña ori; eta nik ere uztarri ori entregatu egin bear zio-

at!”.

Eta Joxepa Iñazi, bere uztarri ori artu eta badijoa Altamugarri-bekora; buruan artu uztarria trabeska eta an dijoa.

Eta Anttoniyo leiotikan begira zegoen garai artan.

Jakiña, len esan dutena, Anttoniyo Ameriketán izandua zen aserretuta lenago, ta orain etxera etorri ta etxean bizi zen; baño emazteak oraindikan gogoan zekan. Joxepa Iñazik gogoan zekan.

Anttoniyok onela deitu zion atzetik:

- Joxepa Iñaziii !!!

Baño andreak etzion kasorik egin.

Bigarren txandan deitu dio:

-Joxepa Iñaziii !!!

Baño andreak etzion kasorik egin.

Irugarren txandan deitu dio:

- Joxepa Iñaziii !!!

Irugarren deian Joxepa Iñazi bere uztarriarekin jiratu da, bere uztarria buruan duela, ta erantzun zion bere senarrari:

- Zer daaa?

Anttoniyok:

- Nora zoaz?

Andreak bueltan:

- Ameriketaraaaa!!!

Eta Anttoniyo leiotik sartu zen barrera, eta Joxepa Iñazi bere uztarria entregatzera Altamugarri-bekora an joan zen”.

JUANA JOXEPA BENGOETXEA OIARTZABAL (1861-1943)

Leenago esan degun bezela, Anttoniyoren alaba gazteenaz, Juana Joxepaz alegia, zer kontaturik badegu.

1861-eko azaroaren 22-an jaio zan; eta, uste degunez, Altamugarri-erdikoan jaio ere. (1)

Bera izan zan etxerako gelditu zana. Jose Manuel Mendiburuk Anttoniyoren seme-alabak zer egin zuten leen esan digu; bakoitzak nundik jo zuan alegia.

Juana Joxepa 1889-ko apirilaren 23-an ezkondu zan. Gizongaia Jose Frantzisko Petriarena Retegi zuan. (2)

Jose Frantzisko au, 1860-ko uzta-
ren 23-an jaioa zan, Erreteriko Xenpelarre baserrian seguru aski. Aita Xenpelar bertsolariaren anaia zuan; eta aita-pontekoa, Xenpelar bera.(3)

Esan bezela, Altamugarri-erdikoan bizi izan ziran.

Etzuten seme-alabarik izan, eta seme-alaba ordekoak kanpotik ekarri zituzten.

Alaba ordeko ori Lorentxa Etxaburu Urmeneta zeritzan. Aita bizkaitarra omen zuan; baiña aurra ezin manten-

du-edo eta Juana Joxepak-eta artu zuten.

Lorentxa au gelditu zan etxerako, eta berarekin ezkondu zan ainbeste argibide eman zizkigun Jose Manuel Mendibutu ori.

Juana Joxepa amaika arrua pisatze-
ra iritxi omen zan. Orregatik, *Andre-
Aundia* esaten zioten.

Jose Frantzisko 1925-eko apirilaren 10-ean il zan, arratsaldeko ordu-
bietan, Altamugarri-erdikoan, pulmo-
niaz, irurogei ta lau urterekin.(4)

Juana Joxepa, berriz, 1943-ko irai-
llaren 6-an il zan, arratsaldeko sei-
etan.(5)

Orain, urrena, Juana Joxepa onen bi gertaera kontatuko ditugu.

1. Erreteriko 14-garren bataio-liburuan, 72 orrian.

2. Erreteriko 10-garren ezkontza-liburuan, 124 orrian.

3. Erreteriko 14-garren bataio-liburuan.

4. Erreteriko 14-garren eriotz-liburuan, 15 orrian.

5. Erreteriko 15-garren eriotz-liburuan, 113 orrian.

GOROTZA ALA IRATZEA

Leenengo gertaera au Errenteriko Baringarate-goiko (Bainketa-goiko) baserriko Eusebio Zabalak kontatua da.

“Altamugarrin, egun batean, gorotza-ateratzalleak ziran. Altamugarri-erdiko ortan zen gorotza-ateratze ori, Juana Joxepa orren etxean; da juntatu ziran kuadrilla aundia.

Juana Joxepak bere lengusu zuen Epizkarko Joxe Antonio Oiartzabal; eta Joxe Antonio orreri nunbait gorotza iduritu zitzaion arin xamarra zela, ta esan zuen:

- Au gorotza al da? Iratzea duk au!

Ta baita Juana Joxepa edo *Andre-Aundi* orrek egin zuen aditu zer esan zuen Epizkar Zarra itzaiak, Joxe Antoniok.

Ala, beren gorozketa ori egin dute urte artakoa. Eta berriz ere, jakiña, eguna joan, eguna joan, berealaxe etorri zaie berriz ere urte-muga gorotzak ateratzeko.

Enkargua egin bear berriz ere auzoko baserrietara gorotza ateratzera etortzeko, eta Juana Joxepa edo

Andre-Aundi orrek gogoan zeukan Epizkarrek egin zuen burla. Burla-edo, alegia etzela gorotza ura esan zuen Epizkarrek; ura etzela gorozketa, ura iratzea zela. Eta gogoan zeukan Juana Joxepak, eta Epizkarrera enkargua ola bialdu zuen:

- Abixatu Epizkarkoai iratzea ateratzera etortzeko!

Ala, enkargu-egillea gazteren bat bialduko zuen Juana Joxepak Epizkarrera, ta onek esan zien Epizkarren:

- Altamugarri-erdikoan iratze ateratzea dela eta iratze ateratzera etortzeko biyar!

Bai Epizkar zarrak ere jan zuen: “Aaaa !!! Au nik gorotza etzela, iratzea zela esan nian, eta andik ateratako mandamentua duk au! Bai? Ordainduko dit!

Epizkar zarrak zer egin zuen? Bere lanak utzi, aizkora artu ta basora joan zen, ta basotikan ekarri zuen biyurra. Orain gutxi egiten da; baño egurrarekin egiten ziran denbora batean sokak iratzea lotzeko.

Irazketa aik ala egiten baitziran,

gorozketa bezela, auzoz; eta iratzea ekartzera zijoanak, joan bear izaten zuen bere soka edo bere biyurrekin; eta gorotza ateratzera zijoanak, bere saskiarekin. Jakiña, bere erremintakin. Eta: “Ba! Irazketarako duk enkargu au, eta nik biyurak egin bearko ditik!”, esan zuen bere artean Epizkar Zarrak.

Eta basora joan zen, bere aizkora artuta, eta billatu zituen biyurak egiteko moduko egurrak. Ez dira nonai izaten oik; oik tartean-tartean izaten dira. Billatu zuen zama bat biyur-gai, eta ekarri zuen etxera.

Etxera ekarri, denak biyurtu eta jarritu bear bezela irazketarako; eta bere zama, zama biyur ori artu bizkarrean eta patxara ederrean badijoa Altamugarri-erdikora.

An presentatu da, saskiaren partez bere biyur oiekin irazketarako. Esan zion Juana Joxepa edo *Andre-Aundi* orrek:

-Zer? Biyurrekin etorri al az?

Ta:

- Bai! Nik irazketarako enkargua niñen!

Epizkarrek saskirik etzuen eraman, da biyurrekin. Gorotza lenago ariña zela, baño biyurrekin ezin lotu goro-

tza; ura eramateko saskia bear.

Ortxe zabaldu dute eundalako ixtillua Juana Joxepak eta Epizkar zarrak. Eta Anttoniyok esan zuen:

- Bueno, bueno! Emen diskuidoa izango da!

Anttoniyok tapatu zuen, Anttoniyok bertsolariyak, *Andre-Aundi* orren aitak:

-Bueno, bueno! Emen aski da jaleo onekin! Emen izango dira beste saski batzuek, eta utzi itzazu biyur oik or!

Eta gero Epizkar Zarrak ere an segitu zuen, besteak bezela, besteen tartean, bere gorozketan”.

* * *

Gorozketari buruz berri auek eman dizkigu Jose Manuel Mendiburuk:

“San Juan illean-edo, arto landarean, pagotxak-eta egin baño len izaten zen gorotza ateratze ori, eta gero aforia: zikiro bat edo arkume aundi bat edo bi il, eta jendea bildu; eta arratsean tobera jo ta kantatu ta broma ederra denak pasa.

Jornalik etzen izaten; dena auzo-lan. Egun batean bat egin, eta bestean bestea; eta abixoak eman elkarri. Ola izaten zen”.

ESPONJAK

Beste gertaera au ere Errenteriko Baringarate-goiko baserriko Eusebio Zabalak kontatua da.

“Altamugarri-erdikoan gertatutako kaso polit bat.

Errenteritikan atera ziran iru apaiz jaun: bikario jauna, Don Frantzisko; eta beste bi, bat Don Pedro eta bestea Don Santiago.

Atera ziran erritik, eta egualdi ederra zegoela ta egin bear zutela buelta bat Errenteriko baserri ziran urrutienetan barrena.

Ala, bueltaka-bueltaka bueltaka ibillita, allegatu ziran Altamugarrira. Altamugarri-erdi ortako etxeoandreak Juana Joxepa zuen izena; Anttoniyo bertsolariaren alaba zen, eta bera ere bertsolari gisakoa izan; bertsolari tipokoa izan.

Bazakiten apaizak ondo asko bera ere txaskoak egiten zituen edo txistek ateratzen zituen olakoa zela, eta penttsatu zuten beren artean:

- Pixka bat toriatu bear diagu!
- Ta zer esango zioagu orain orri?
- Orrek guri zerbait eskeñiko ziguk,

eta zer eskatuko zioagu?

- Esponja eta ura eskatu bear zioagu!

- Bai! Orixe egingo zioagu!

Orrela itzegin zuten elkarren artean iru apaizak, eta konforme denak.

Jo diote atea Juana Joxepa edo *Andre-Aundi* orreri: *dan-dan-dan!*

Badator Juana Joxepa ori. Etzakien arrek apaizak ziran edo beste norbait zen. Etorri da ateondora ta an arkitu ditu iru apaiz uste gabeen atearen aurrean.

Da, iru apaiz ikusi dituenean, jakinña, arritzekoa ez da baserriko emakume bat edo gizaseme bat, iru apaiz ateondoan ikusita, pixka bat sustatzea edo pixka bat izutzea. Aik ikusi dituenean, ala jarri zen emakume ori, ta esan zien apaiz oieri:

- Oi! Beok al ziran?

- Bai! Gu gera, gu!

- Pasa bitez, pasa bitez aurrera!

Ala, atea ireki zien da sartu ziran apaiz oik aurrera. Joan ziran barrena, eta Juana Joxepa orrek, *Andre-Aundi* orrek, galdetu zioten:

- Zer artuko luteke, ba, orain beok?

Arek kunplitu egin nai zuen apaiz jaun oiekin. Da apaizak bazakiten seguru asko an etzela esponjarik izango.

Esponja jakingo dezute noski zer den denak: ura gozatzeko azukre gisako olako gauz bat, zera luze bat.

Eta apaizak esan zioten Juana Joxepari:

- Egarriak gaude ta esponja ta ura artuko genduke guk geren gustorako.

Ta Juana Joxepak onela esan zien:

- Bai, bai, bai! Pasa, pasa onera! Pasa aurrera!

Pasa ditu, ba, aurrera, salara, Juana Joxepa orrek; eta, an zeukan mai batean, jarri dizkate sillak eta mai artan exerita jarri ditu irurak:

- Exeri bitez, exeri bitez emen!

Iru apaiz oiek jarri dira exerita, ta Juana Joxepa joan da andikan.

Etorri zen serbilleta edo bere zapi batekin, ta mai-gaña igurtzi zioten. Bere maia igurtzi ta Juana Joxepa atzera joan da.

Apaizak onela zioten elkarren artean:

- Zer egin bear ziguk gaur guri orrek?

Juana Joxepa, berriz, berriro an dator iru baso aundirekin. Iru baso aundi ekarri zituen eta irurei bana jarri diote aurrean. Baso oik utzi eta berriz ere Juana Joxepa, *Andre-Aundi* ori, joan da.

- Zer egin bear ote ziguk? -berriz ere apaizak zioten elkarri-. Zerbait ere egin naiko ziguk guri orrek!

Bai-baitzakiten esponjarik etzela izango an.

Juana Joxepa orrek egin du jarro bat artu ta bere jarroarekin iturrira; iturriko uraren billa joan zen. Bide puska bat bazuen, baño etzuen biajeak izutu.

Joan zen iturrira, ta bere kristalezko jarro eder batean ekarri zuen iturriko ura, ta iru apaiz jaun oieri bete dizkate basoak: *ra-ra-ra!*.

Jarroa, sobratu zan urarekin, bazterrean utzi zioten, geiago nai bazuten ere; eta berriz ere Juana Joxepa orrek martxa egin zuen. Da apaizak elkarri esan zioten:

- Orain ere norabaitera joan duk!

Urrengo bueltan etorri zen iru kutxarillarekin; iru kutxarilla ekarri zituen ta sartu zizkan baso danai iru apaizei, bakoitzari kutxarilla bana, ta alde egin diote.

Apaizak an zeuden beren basoak aurrean, kutxarillak ere bai baso barreanean, baño esponja falta.

Ta Juana Joxepa orrek, *Andre-Aundi* orrek, urrengo kolpea ganbarara egin zuen; eskallerak betik gora ganbarara igo zen, eta apaizak esan zioten elkarri:

- Ganbarara zia! Or izango ditik esponjak!

Ta, ala, an zauden apaiz oik.

Juana Joxepa ori joan zen ganbarara, ta iru artaburu, ederrenak iduritu zitzaizkanak, artu zituen. Ta *kirkildu* esaten diogu guk, *kirkildu*, alea kendu eta *txikorta* utsa gelditzen da gero. Batzuek *txikorta* esaten diote; bestea,

lokotsa; ta esponjaren gisakoa da kolorez eta bueloz *txikorta* edo *lokots* ori.

Ta iru txikorta oiek artu eta etorri da eskallerak goitik bera, eta sartu diz-

kate bakoitzari, *zarta-zarta-zarta!*, beren basoetan bana, eta esan zioten:

- Edan orain, motillak! Baserriko esponjak oitxek dituk!”.

BEKOETXIA
MANUEL MARIA OLAZIREGI IRIBARREN
(1824-1904)

BIZITZA

Bekoetxia izengoitia zuan bertsolaria ere izan zan garai batean Oiartzunen.

Bekoetxia baserria da; bertsolari ori bizi izan zan etxea. Iturriotz baillaran dago, Saroe errekan. Etxe orren gaurko egoera onela aditzera eman ziguten:

- Iñor gabe dago aspaldiko urteetan. Tellatuak, geienak eroriak; paretak ere erorixeak; larrak artuta dena. Errekaren kontra-kontran dago, euriarrekin ura pixka bat altxatzen bada, barena sartzen zaiola.(1)

Baserrri orri *Bekoetxia* esaten dio erriak; baiña eliz agirietan *Saroe-Fernando* edo *Saroe-bekoa* esaten zaio. Erriko-etxean ere galdetu genduan bada-ezpada ere, eta baietz esan ziguten: paperetan modu batera eta erriak bestera esanagatik, baserrri bera dala.

Bekoetxia bertsolariak izen-deiturak nola zituan, beraren billobak esan digu. Bertsolari orren seme baten semea, Ramon Olaziregi, Errenterin bizi baitzan, Olaziregi-enea etxean, irurogei ta amabost urterekin, gu arengana

joan giñanean.

Bere aitona Manuel Maria Olaziregi zala esan zigun, eta noiztsu il zan ere bai: bera ume koskorra zala, bost bat urtekoa.

Urrengo saioa Oiartzungo eliz artxiboan egin genduan. Eriotz-agiria berealaxe azaldu zitzaigun: 1904-eko maiatzaren 6-an il zan Manuel Maria Olaziregi Iribarren deitzen zan jauna, larogei urterekin, Saroe-beko baserrian.(2)

Urrena, bataiokoa arkitu nai izan genduan. Arretaz eta bein eta bitan saiatu giñan, baiña Bekoetxiaren baitaio-agiririk ez genduan Oiartzungo eliz-artxiboan arkitu.

Senide pilla ederra bai, agertu zan: Maria Josefa Joakina 1811-IV-28-an jaioa; Josefa Ramona, 1812-VI-2-an; Pedro Ramon, 1813-XI-15-ean; Martin Jose, 1815-V-4-ean; Josefa Teresa, 1817-III-11-n; Jose Esteban Maria, 1919-XII-25-ean.(3)

Gurasoak, Sebastian Olaziregi eta Maria Josefa Iribarren izan zituan. Aitaren aldeko aitona-amonak: Sebas-

tian eta Ana Maria Portu; amaren aldekoak: Tomas eta Maria Frantziska Retegi, dan-danak oiartzuarrak.

Aitaren aldeko amonari, agiri bazuetaan *Portu*, bestetan *del Puerto*, eta batean *Portugal* esaten diote.

Baiña zergatik ez da azaldu bertsolari onen bataio-agiria Oiartzunen? Edo nun ote da?

Bearbada, *guerra realista* esaten zaionagatik izango da. Gerra ori 1822 urtean asi zan, eta 1823-an bukatu. Andik amar urtera karlistak bezela, aldi artan *realistak* deitzen ziranak jo zuten mendira.

1823-ko apirillaren 7-an, *los cien mil hijos de San Luis* esanda ezagutzen ziranak, frantzes soldatu-talde aundixko bat alegia, Bidasoaren alde batetik bestera pasa zan, realista oiei laguntzearren.

Andik bi egunera, *realistak* Oiartzunen jarri zuten beren gobernu-etxea. Frantzesak, berriz, Pasaia eta Ondarrabia berealaxe artu zituzten. Apirillaren 18-an Getarian sartu ziran; maiatzaren 24-ean, Madriden; da urriaren 1-ean, Kadizen.

Donostiako erriak, berriz, etzuan amor eman agorraren 27-garrena arte; egun ortan tratutan asi eta urriaren 3-an frantzesak bertan sartu. (4)

Onek zera esan nai du: XIX mendean ainbeste alditan bezela, orduan ere gerrak gure bazter auek naaspillatuta zeuzkala. Bitartean, gure baserrietako familiak aal zuten bezela biziko ziran.

Ain zuzen, Bekoetxia bertsolaria

garai ortantxe jaioa izango zan. Il zanean, 1904-eko maiatzaren 6-an, larogei urte baldin bazituan, 1824-ean jaioa izango zan. Baiña bazitekean larogei ta zenbait illabeterekin iltzea; eta orduan aren jaioteguna 1823 urtean gerta zitekean. Eta, gerragatik Oiartzungo bidea trabaturik-edo egonda, umea auzo-erriren batera eramango zuten agian bataiatzera.

Ori bera gertatu zala dirudi, leen esan degunez, Xenpelarrekin ere: Errenterin jaiio eta Oiartzunen bataiatu; baita Kaskazurirekin ere: Oiartzunen jaiio eta Errenterin bataiatu; baita Saibururekin ere: Ernanin jaiio eta Aranon bataiatu.

Bekoetxiaren bataio-agiria Oiartzungo auzo-errietan billatu bearko litzake, beraz. Baiña zein erritara eraman zuten ez dakigu; zein baserritan jaiio zan ere ez; eta, orregatik, aurra eramateko erosoena zein erri zuten ere ez. Ortaz gañera, Oiartzunek auzo-erri asko ditu. Gauzak ala izanik, denbora ugari bearko litzake azterketa ori egiteko, eta utzi egun degu.

Esan bezela, bataio-agirietan ez da azaltzen famili ura zein etxetan bizi zan. Baiña Bekoetxia au, senideetan gazteenetako bat izanik, eta bearbada gazteena, etzan etxerako gelditu zana izango. Ala, Bekoetxia baserrian etorkiña izango zan. Ezkondu ere, bera baiño zortzi urte zaarragoko emakume batekin ezkondu zan. Onek ere, nik uste, gauza bera adierazten du.

Bekoetxiaren emaztea Manuela Joakina Mitxelena Bengoetxea zertizan; Oiartzungo alaba zan, eta 1849-ko ilbeltzaren 22-an ezkondu ziran.(5)

Ezkontza-agirian ez dira ezkon-
gaien urteak esaten. Andrea zortzi bat
urtez zaaragoa zala, aren eriotz-agiri-
tik atera degu.

Oiartzungo bataio-agirietan, lau se-
me-alaba izan zituztela arkitu degu:
Jose Manuel, 1849-XI-18-an jaioa;
Maria Josefa, 1852-VII-11-n; Pedro
Maria, 1854-X-24-ean; eta Maria
Karmen Justa, 1857-V-28-an.(6)

Bekoetxiaren andrea 1896-ko uztai-
llaren 5-ean il zan, larogei urterekin,
arratsaldeko lauretan, Saroe-Fernando
baserrian, “*por catarro pulmonar*”.
eriotz-agiriak dionez.(7)

Eta Bekoetxia bertsolaria andik
zortzi urtera il zan, 1904-eko maiatza-
ren 6-an, goizeko irurretan, Saroe-beko
baserrian, “*a consecuencia de enteri-
tis*”, eriotz-agiriak dionez.(8)

Bekoetxiaren bertso bat edo beste
arkitu degu, baiña gutxi. Ez guk nai
ainbat beintzat. Alde batetik, izan ere,
urte asko dira ura mundu ontatik joan
zala; eta, bestetik, ez dirudi bertso-
rik paperetan jarri zuanik. Ez daukagu,
beraz, zer arriturik, beraren bertso gu-
txi iritxi bada guregana.

Bizi izan zan urteei begiratuta, be-
rriz, aren bertso-lagunak Larraburu,
Ardotx, Xenpelar, Patxi Bakallo,
Eperra, Fraile, Bordondo, Panderi eta
abarrak izango zirala ikusiko degu.
Oiartzun inguruko bertsolariak baka-
rrik aitatu ditugu. Ez baitegu entzun
erririk erri kantuan ibiltzen zanik;
Goizuetara-edo bai, baiña besterik ez.

1. Koxme Mitxelena, Oiartzungo Karrika bai-
llarrakoko Lekungarai baserrikoa.

2. Oiartzungo 15-garren eriotz-liburuan, 22
orrian.

3. Oiartzungo 12-garren bataio-liburuan, 202
orrian; eta 13-garrenean, 5,16, 31, 51 eta 78
orrietan.

4. Antonio Arrue: *El bertsolari Bordel en el
castillo donostiarra (1823), San Sebastián, 1971.*

5. Oiartzungo 10-garren ezkontza-liburuan,
175 orrian.

6. Oiartzungo 15-garren bataio-liburuan, 176
eta 225 orrietan; eta 16-garrenean, 8 eta 64 orrie-
tan.

7. Oiartzungo 14-garren eriotz-liburuan, 45
orrian.

8. Oiartzungo 15-garren eriotz-liburuan, 22
orrian.

EZAGUTU ZUTENAK DIOTENA

Urte asko dira Bekoetxia bertsolaria mundu ontatik izkutatu zala. Ala ere, izan genduan ura begiz ezagutu zuten bi jaunekin itzegiteko era: Jose Manuel Mendiburu eta Ramon Olaziregi.

Leen ere esan degun bezela, Jose Manuel Mendiburu ori, oiartzuarra jaiotzez, Iturriotz baillarako Arbide baserrian jaioa, larogei ta bat urtekoa zan guk berarekin itzegin genduanean, 1970 urtearen inguruan, eta Errenteriko Altamugarri-erdikoan bizi zan. Onela esan zigun:

“Bai; ezagutu nuen Bekoetxia zarra. Aren semeak eta aren illobak ere ezagutu nituen.

Zortzi egun-ta, etxetik joan mezetarra ta etxera gabe pasatzen zituen. Gu, mutil koskorrak, or ibiltzen giñan ardiakin; aitonarekin-da ibiltzen giñan. Emen lenago etxero bastante izaten zen ardia. Ta bein batez, ura, Bekoetxia, ongi gogoan daukat, bidean zialdo egiten ta zubia ola medar-medar bat izaki ta korrika nola pasa zuen.

Aren bertsoak gure aitonak, bai, bazekizkien. Gu ere aitonarekin emen

aritzen giñan, ba, lanean; ta, egualdi txarrak ematen zuenean, orduan kantatzen.

Bekoetxia ori ibiltzen omen zen emen, Gabonetan-ta, eskean. Ta Arraldeko ortan emakume bat ola bertsotan zekiena, bertsolaria. Oraindik nik somatu deten emakume irrintzilaririk ederrena. Guk osaba genduen aren anaia.

Orduan kriselluak izaten ziran, olioarekin, lumerarekin argi egiten zutenak; eta ura eskalleratik txintxilik jarri, eta asi eskalleraren mallan exerita bertsotan, ta bertan eguna zabaldu. Batek kanpotik eta besteak barrendik bertsoak. Makiña bat botako zuten! Denbora batean dena bertsolari izaten zen!”.

* * *

Bestea, Ramon Olaziregi, leen ere aitatu degu. Bekoetxia bertsolariaren semearen semea, Bekoetxia baserrian jaioa eta irurogei ta amabost bat urtekoa 1970 urtearen inguruan.

Ramon onek bere aitonaren gauza asko eman zizkigun: bertsoak, gertaerak eta aren bizitzaren eta familiaren zenbait berri ere bai. Auek esango ditugu orain, bertsoak eta gertaerak gerorako utzirik.

Familitik asiko gera. Leen ere esan degunez, bi seme eta bi alaba izan zituan Bekoetxia bertsolariak. Semeetan gazteenak Pedro Mari izena zuan. Pedro Maria ortaz onela esan zigun Bekoetxiaren billobak:

“Ni adituta nagoenez, gure aitak bazuen beste anai bat.

Aurreko gerra denboran, Santa Krutzen gerra denboran, ibiltzen ziran gure aita eta aitona, biak, espia bezela. Gure aita, etxerako izendatua baitzan ura, etxetik ibiltzen zen espia bezela.

Beste anaia, berriz, ibiltzen zen frentean Santa Krutzekin; aren mutilla eta frentean ibiltzen zen.

Gerra guzia ala bukatu ta Santa Krutz Frantzira joan zanean, batzuek egin zirala onera etorri, mutil batzuek; eta beste batzuek esan zutela:

- *Ya que*-ta gerran asi geran, gerran bukatu bear diagu! Kubara joango gaituk; eta, an irabazten badiagu, etorriko gaituk.

Ta Kubara joan zela gure aitaren anai ori, ta etzala geiago etorri”.(1)

Bere aitonaren jazkeraz onela esan zigun Bekoetxiaren billoba orrek:

“Jeneralean aren jazkera izaten omen ziran galtza urdiñak edo *mahón* edo olakoak, bere abarkak, txapela bu-ruan eta makil bat eskuan.

Soñean elastiko bat; Frantziko elas-

tiko batzuek izaten ziran, idikiak, aurrean botoi batzuekin, beren boltsilluak. Gure aitona zana kontrabanduan-edo aurretikan gidari ibiltzen omen zan, ta andik kontrabanduan ekarria izaten omen zuen.

Ta, elastikoaren gañetik, brusa beltxa ibiltzen omen zuen jeneralean.

Naiz ferira etortzen zanean, naiz edozein lekutara joaten zanean, etxetik ateratzen zanean ura ibiltzen zuen, elastiko ura. Etxean ere bai askotan, pixka bat zartxeagoa edo alakoa, lanean aritzen zanean.

Txaketik ez nion sekulan ikusi izandu; beti bruxa, azpitik elastiko ura zuela, edo bere alkandorarekin bakarririk”.

* * *

Iru toki izaten omen zituan Bekoetxiak bertsoarako: mendiko bentak edo kantineak, urtean bein edo bitan; Oiartzungo tabernak, peri-egunetan; eta etxea. Billobak onela esan zigun:

“Gure aitona zana orrek, esaten zutenenez, egiten omen zuen urtean ateraldi bat edo bi, etxeko lanak menderatzen zituenean. Mendan tabernak edo bentak izaten ziran garai artan, da kantina txiki oietara joaten zan. Aietan pasatzen zituen sei bat egun. Orduan, egun aietan, bertso asko kantatzen omen zuen. Bere zera guzia ori izaten zuen. Ixildu ere gabe aritzen omen zan.

Oiartzunen, astelenetan, peria izaten zan. Etzan beti etorriko, baño askotan beintzat perira etortzen zan aste-

len oietan; eta tabernan sartu ta bertsoak. Bertsorik kantatu gabe etzan ura etxera etorriko.

Ta gero, etxean. Lanean ari zala, ar-tajorran edo zeran, beti bere modura kantari aritzen zan.

Ni gogoratzen naz: ni mutil koxkorr-a; nik bost urte orduan; eta juxtu-juxtu gogoratzen naz ura nola aritzen zan beti kantari, ta nola zan gizon mozkote zabal bat.

Arpegi gorria zuela dakat nik bu-ruan. Nola izaten dira aiton muxu-go-rriak? Ola gorria zuela. Ura, ia kasik il

arteraño, beti nik fuerte ta zera ezagu-tu nuen.

Ta gogoratzen naz, ni besoan edo belaunaren gañean artu ta nola aritzen zan kantari”.

1. Bekoetxia au Santa Krutz apaizaren bizi-tza-liburuan aitatzen da, agoztuak 30 zituan bate-an, 1872-an, gertatutakoa kontatzerakoan. Onela dio: “*Habíamos colocado centinelas: por la parte de Aranaz a Luxia, y por la parte de Goizueta a Bekoitxe...*”. Eta ez litzake batere arritzekoa ai-tamen geiago izatea. (*Juan de Olazabal y Ramery: El Cura Santa Cruz guerrillero, Vitoria, 1928, 33 orrialdean.*)

ZENBAIT BERTSO

Oiartzungo Lekungarai baserrian
jaiotako Koxme Mitxelenak onela
esan zigun:

“Bekoetxia orrek ez dakit izena no-
la zuen, baño fumatzallea izaki, pipa
artzallea, eta toxa ibiltzen omen zuen
txaketaren portsilluan; eta batenbatek,
Iturriotzen tabernan zaudela, toxa ken-
du ta satorra sartu zeran, portsilluan,
eta Bekoetxiak bertsoa bota:

Zurrut-tintta bat egin det bañan
ez nago oraindik mozkorra,
neri par edo burl'în nai dîna
barrena ontan asko da;
lenagoztikan sentitzen nuen
bultua edo koskorra,
nor demoniñok sartu ote dit
portsillu ontan satorra?

Gero, etxera zijoala, Anatxuritik
aurrera joanta, zeratu bidean: ankak-
-edo fallatu. Alako bidea da, izan ere,
ura, esaten zuten tokian erori bazen.
Orain piñua dago ta zakarrakin-ta de-
fenditua, baño orduan ez. Bidexiorre-
tik, estrapozoren bat eginta, goitik be-

ra amilka joan beko errekarano, ta or-
duan:

Tonto samarra banitzan ere
ez naiz askorik abildu,
anka biretik bera juanda
iñola ezin det bildu;
estrapozo bat egin det eta
erroitzak bera amildu,
panparroi xamar banitzan ere
orra ederki umildu”.

* * *

Satorraren bertso eta gertaera oiek
aditutakoan, argibide auek eman zizki-
gun Oiartzunen jaio eta Zubietan bizi
zan Don Frantzisko Aranburu apaiz
jaunak:

“Satorra izaten zen, ba, toxa-gaia.
Satorra erditik idiki, tripa idiki; mutur
aldea moztu, eta barrena tabakoaren-
tzat.

Tabakoa etxean egiten zuten, arta-
soroan, galerazita baitzegoen, ba.
Arta-soroan, karabineroak ez ikustea-

rrren, utsune bat egin, eta an tabakoa egiten zuten.

Gero, etxean, ganbaran moztu landarearen kimu edo emaitzak; egur-malluarekin jo-jo egin da ganbaran legortu itzalean.

Gero, illunabarrero, edo maizago ala bear izatera, aizkora txorrotx batekin txikitzen zuten urrengo eguneko erre-gaia, ta toxa betea geratzen zen.

Toxa au nola eratu? Lenago esan bezela, satorra bururen-buru ebaki, bi muturrak lotu, ta geratzen zen zoko-unea, toxa-leku edo tabako-leku.

Gero, erdiko aldean, toxa orren alde bati soka-mutur bat lotzen zioten; ta soka-mutur orreri altzairu-burni xapaldutako bat ipiñi.

Gero, burni orrekin eta karaitz-arriarekin, metxa arri gañean jarrita, su-izpia ateratzen zuten, metxak su artu zezan. Ta metxa arrekin pipa piztu.

Toxa ta pipa ta denak buruko txapel barruan eramaten zituzten. Gure aitona beintzat ala eramaten zituen. Ori da toxaren istoria. Toxa biribilla izaten zen”.

* * *

Ta Bekoetxiaren billobak, Ramon Olaziregik, onela esan zigun:

“Gure aitona zana ori, jeneralean edo ia igandero, goizeko bostetako mezetara Oiartzuna etortzen zen. Jakiña, goizeko meza entzun ta gero bere gosari txikia-edo egiten zuen; eta zazpiak aldera edo zortziak aldera etxera joaten zen.

Etxera joaten zen, baño urtean bein, bere lanak aurreratzean, baserriko lanak aurreratzen zituenean, egiten omen zuen parrandatxo bat. Jeneralean, igandean atera ta urrengo larunbaterako etxera allegatzen omen zen.

Aste guzia beti bentetan edo baserri-tabernetan pasatzen omen zuen; emendikan, Oiartzundik Goizueta aiekara, Lesaka aiekara edo Ernaniko buelta ortan, Donostira ta olako lekutara joan gabetanik ibiltzen omen zen.

Bein batez, ola zabilleta, orain ez dakit nik edo Portugaldik edo Bainketatik ateria zen; tabernatik atera ta an beintzat besteren bat ere izango zuen berekin laguna, eta bertsoan asi omen ziran da esan omen zuen:

- Bai; badik orrenbeste egun etxera azaldu ez naizela!

Ta bertsoan esan omen zuen:

Nagon lekutik ageri dira
iru Bainketa ta Aldura,(1)
onezkero esan dute:
“Bekoetxia galdu da”.

* * *

Bekoetxiaren billobak, Ramon Olaziregi orrek, etzekian ortik aurrerakoa. Bertso osoa, itzak zerbait aldatuz, Lekungaraiko Koxme Mitxelenak eman zigun:

Altamuarriko iru etxiak,(2)
Epizkar eta Aldura,
gauza obeto disponitzeko
denbora orain eldu da.

Nai duenak e eju ein zala
“Bekoetxe zarra galdu da!”.
Andrian mende dagon gizonak
maiz izango dik malura!

* * *

Onako beste bertso au Bekoetxia-
ren billobak, Ramon Olaziregik alegia,
eman zigun:

“Or, Goizuetan, bertsotara-edo joa-
nak ziran. Gizon argal xamarra eta
euntalako bertso ona bota besteak, oso
bertso ona; eta gure aiton orrek, jarri
omen zen begira-begira ta au kantatu
zion:

Zer diabru dirate
au neri ekarri,
nere animaren
kondenagarri?
Illepian eztu
larrurik agiri,
larruan barrenian ez ditu
ontza bi aragi;
errekan dek sarri;
landan para leiteke
txori-izugarri”.

* * *

Beste gertaera au ere Bekoetxiaren
billobak emana da:

“Gure aitona zan ori, etzan askotan
etortzen garai oietan, baño goizeko
amaiketan eldu omen zen Oiartzungo
plazatik etxe aldera igande batez.
Jeneralean, ura zazpietarako pasatzen
omen zen etxe aitatik; Oiartzabal iru

baserri dira, arek pasa bear zuen le-
kuan.

Iru oietan ez dakit nik zein, bañoan
aitako batean bizi ziran iru aizpa, iru-
rak edadean pixka bat pasiak, eta gure
aiton ori beti toriatzen aritzen ziranak.

Esan omen zioten:

-Zer? Gaur orren berandu joateko
zer dezu?

Ta:

- Zer duten? Bai, egin bear batzuk
izan ditut, eta... plakiak ementxe nijoa!
Naiago nuke salda emango bazendute-
ke!

-Emanen dizugu, ba! Igo zaite go-
ra!

Igo zen gora, da ola, salda emateko
moduan, erreparatu zen aiton ori:

- A! Burruntzali orrek txuluak diz-
kik!

Ta, ain zuzen, iru neskazar ta iru
txulo buruntzaliak; txikiak baño pasa
egiten. Ta aren gañean bertsoak jarri
omen zituen; iru edo lau bertso jarri.
Ez ola publikatuak paperetan ta ezer
ere; berak jarri ta zakitenak baziran
garai aietan.

Oik nik, bertso oik, aditu izan ditut,
baño Oiartzunen sagardotegian, zarrak
kantatuta: arek nola bota izan zituen
iru bertso, ta nola neska oiei geiago to-
riatzeko gogoak kendu zizkioten. Beti
toriatzen ibilli bear, ba, aiton orreri.
Arrunt txistosoia izan bear zuen bestela
ere”.

* * *

Onako bertso au, edo bertso-puska, Bekoetxiarena omen da. Erreteriko Baringarate-goiko baserriko Eusebio Zabalarri zor diogu:

Andik onuntzian,
Sastarrrian,
musian aitu zian
amabi erregian;
bertako alabak ere
an zian mayian,
danak umore onez
gure konpañian.

* * *

Beste au ere Bekoetxiaren billobak kontatua da:

“Gure aitona ta oik etziran beti eiztariak, baño ibiltzen ziran batzuetan eiztariai laguntzen.

Auzoko Aldura guardamontea zen Oiartzunen; eta Erbiti, Erreteriko guardamontea.

Oiekin batera juntatu egiten zen ura ere, gure aitona, basurdetan edo erbitan; ta, zeozer arrapatzen zutenean, batzuetan jan-aldiak egiten zituzten.

Ta Erbiti ori arrunt nabarmena izan bear zuen; apetitu aundikoa ta nabarmena izan bear zuen oso jaten. Ateratzen ziranak, azaldu ordu, barrena pasiak arek.

Gure aitona ori, batean, jarri omen zen begira, ta kantatu omen zion:

Naiz dela erbiya ta
igual dek axeri,
ire tripak ikusten dik
amaika mixeri;

ogi bat osua ar zak,
bein benik ase'di!(3)

Or puntu bat falta dela uste det, baño nik ez dakit geiago.

Orduan ogiak izaten ziran buelta aundikoak, sei librako ogiak, eta izaten zituzten bueltan sei kozkor, da jeneralean ala egiten ziran partitu ere: lenengo, kozkor aik bueltan kendu, eta gero egiten zituzten, zenbat lagun ziran, ainbeste puska. Baño, lenbiziko kozkor aiek bueltakoak kentzen ziran. Opillak ziralakoan-edo, goxoagoak idurituko zitzaizkioten nunbait ere. Ala egiten zuten”.

* * *

Urrengo bertsoa ere Bekoetxiaren billobaren aotik jasoa da:

“Askotan, ola sagardotegian-daritzen giñalarik, esaten zuten gure aitona berton bertsoa zala, ta guk kantatzen genduen askotan bertso ori. Au da bertsoa:

Batzuek ezkondu ziran,
bestiak ezkongai,
ni ere ementxe nago
txanda etorri zai;
baditut bost arrea,
geranak lau anai,
bederatzi senide,
galda zazue nonai;
igual zait artzai,
apaiz edo itzai,
mutilzar ere bai,
bañan andrian mende
ez det egon nai.

Baño nola ez baitzituena arek bederatziz senide, orregatikan ez det uste nik arena danik; baño batzuek esaten dute baietz, arena dala”.

* * *

Beste bertso au, berriz, Bekoetxiaren billoba orrek berak emana degu:

“Badu beste bertso bat ere; orain ez dakit gogoratuko naizen.

Astelena, Oiartzunen peria, edo ez dakit zer izango zen. Bertsoan ari ziran.

Eta Don Felix Mitxelena medikua, Oiartzungoa, parra-ta aiton orreri or aritzen zen. Batek au ta besteak ura, bertso botzen omen zioten, da beintzat ildako pertsona batengatik zer edo zer esan.

Da gure aiton orrek kontestazioa bertsoan:

Ildako pertsonarik
ez autara ekarri,
gauza partikularra
izaiñen dek ori;
gogoratzian errezatu
iru abe mari,
anima gaxua
sokorra al baleri.

Don Felix Mitxelenak aditu ta:

- Oi da bertsoa, oi! Ildako pertsona ondo dago! Ez; ura ez da nolanai aita-tu bear! Oi da bertsoa!

Ta merienda ateratzeko aren kontura gure aiton orrentzat”.

* * *

Don Felix Mitxelena medikua zana, *Kaskazuri bertsolaria* liburuan aitatu genduan leenengo aldiz, *Auspoaren* 114 zenbakian, 35 orrialdean. Ramon Olaziregi orrek aren aitamena berriro egin zigun, bere aitonaren bertso eta gertaera oiek ematerakoan. Baiña zerbait geiago ere kontatu zigun:

“Don Felix Mitxelena, Oiartzungo mediku zana, izugarri ona zen. Fama aundia zuen.

Bera, bere jenioz, bizia edo ola zen, baño erriak asko maite zuen; ta asko zakiena esaten zuten garai aitarako mediku ura.

Oiartzunen bazen iturri bat; oraindik ere an dago ura, edo orain dela urte batzuek beintzat an zegoen oraindik. Iturri artan etortzen da udaran ura otz-otza; eta neguan, berriz, beroa.

Ta don Felix orrek bialtzen zuen garai aitan, apetitua egiteko, andik ura ekartzeko; ta ur ura edateko goizean baraurik esaten zuen. Ala, askok edaten zuten baraurik ur ura, eta on egiten omen zioten.

Lenago zuen izena iturri arek *Lekun-iturri*, ta gero jarri zioten *Don Felix iturri*.

Arek beste kaso bat ere bazuen, beste askoren artean.

Oiartzungo baserritar bateri, emakume bateri, il omen zitzaizkan bost seme-alaba. Orain ez dakit bost seme-alaba oik lenbizi il zitzaizkan eta gero gizona, edo gizona il da gero bost seme-alabak, edo gizona tartean il zan. Nola izan ziran ez dakit, baño beti don Felix Mitxelenarekin denak il omen ziran.

Eta beti aditzen omen zion emakume orreri esaten:

-Jaungoikoak salba gaitzala aundiagotik! Jaungoikoak libra gaitzala aundiagotik!

Emakume orrek ala esaten omen zuen beti; ta, koñe, beti arritu egiten mediku ori: "Orixe emakumearen zera!"

Ta, atzenekoa il zitzaionean, orain ez dakit gizona edo semea zen, bañan atzenekoa il zitzaionean, esan zuen berri:

-Jaungoikoak libra gaitzala aundiagotik!

Eta don Felix orrek orduan:

- Zer karajo bear dezu, ba, aundiagoa, emakumea? Zer bear dezu aundiagoa?

Ta:

- Bai, jauna! Bada aundiagoa!

- Zer dezu aundiagoa? Sei gorputz biali dituzu etxetik, eta zer bear dezu aundiagoa?

Ta esan omen zion:

- Juizioa galtzea! Entendimentua galtzea! Neretzako ori da kristauak duen desgrazirik aundiena!

Ta don Felix Mitxelenak esaten omen zuen beti iñori ere iñon etziola alako arrazoirik aditu. Arrituta utzi zuela".

1. Iru baserri dira, Errenteriko partean, Bainteta edo Baringarate izenarekin: goikoa, bekoa eta erdikoa.

2. Dakigunez, iru Altamugarri dira: goikoa, bekoa eta erdikoa. Baserri auek ere Errenteriko partean daude.

3. ase'di: ase adi.

BERTSO JARTZEA

Bertsoak jarri eta paperetan zabaldu ote zituan inoiz Bekoetxia bertsolariak? Galdera ori ere egin genion bere billobari, Ramon Olaziregiri alegia, eta onela erantzun zigun:

“Gure aitona zana orrek ere, berak etzuen oiturikan bertsok jartzeko; baño batek eta besteak, jakiñikan ola bertsolari franko ona zela, eskatzen zioten arren gañean edo onen gañean bertsok jartzeko.

Ala, ba, askotan asten omen zen bertsok jartzen; baño jartzen asi ta segituko kontua izaten omen zuen:

- Arraioa! Neri etzait ola ondo etorriko! Amalau milla demonioak! Bertsok jarrita, gorrotorik eta olako gauzik eztit nai! Ez; eztit begien bista txarrik jarri bear!

Ta etzuen geiago jartzen. Ola, beintzat, bein batez asi omen zen, ba, emakume bati edo emakume batzuei bertsok jartzen. Orduan ere toriatu omen zuten, da bera zeratu omen zen; asi omen zen bertsok jartzen.

Eta, bi bertso jarritakoan edo botatokoan, batzuek esaten zuten anaia

etorri zela: ea zertan ari zen bere arrebari bertsok jartzen. Beste batzuek esaten zuten, berriz, bera konturatu zela. Ez dakigu zer izango zen, baño bi bertsotik aurrera etzuen pasa.

Auek dira bertsok:

Sulla buruan iturrira juan,
kalian pasa seriyo;
datorrenari ongi-etorri,
dijuanari adiyo;
arrazoi aundi airosoren bat
norbaitek aitu omen diyo:
“Diru gabeko mutil kaskarrak
guretzat ez tin baliyo!”.

Erromerira prebenitzeko
bear dituzte orduak,
naiz zentimorik boltsan izan ez
aberatsaren moduak;
aurrian titi aundien muestrak,
atzian berriz zakuak,
emakumi oien diñ ez tira
etxi ontako trapuak.

Onela esan zigun Bekoetxiaren billobak. Baiña leenengo bertsoan, *ka-*

lian esan bearrean, *bidian* esaten omen dute batzuek: *bidian pasa seriyo*.

Batzuen iritzirako, bertso auek ez dira Bekoetxiarenak, Txirritarenak baizik. Au ere Ramon Olaziregiren ao-

tik entzun genduan.

Aalegiña egin degu gure artxiboan bertso auen billa; bertso auek dituan bertso-paperik bai ote degun alegia, baiña ez degu olakorik arkitu.

KONTRABANDOAN

Bekoetxia bertsolaria kontrabandoan ere ibiltzen omen zan, eta arratseko lan ortan gertatu zitzaizkion pasadizo batzuk ere kontatu dizkigute. Onela esan zigun beraren billoba Ramon Olaziregik:

“Gure aitona zana ibiltzen zen aurretikan, espia-edo deitzen zioten, kontrabandoan.

Gau batez illetargia omen zegoen, eta aurretikan bere seña edo kontraseña eman omen zioten atzekoai, karabinteroak edo zerbait bazela ta geratzeko. Geratu omen ziran; ez dakit zein menditan nik. Eta arboleria omen zen.

Gero aurrera segitu omen zuten. Joan omen ziran beren puntuetara aiek, eta bat falta. *Txantxangorria* esaten zioten; izena zuen Luis, baño izen-goitiz *Txantxangorri* esaten zioten. Luze bat zen.

Ta gure aiton orrek esan omen zuen:

-Amalau milla demonioak! Apustu egingo nuke *Txantxangorri* ori enborraren bateri begira or geratu zaigula!

Aurreko itzalaz egiten ziran giatu;

eta, aurreko laguna zuelakoan, enborraren bateri begira geratuko zala.

Etorri omen ziran, ba, beren kargak utzita bueltan, da *Txantxangorri* ura an begira arbol bateri”.

* * *

“Ez dakit nik arako paketea, *Txantxangorri* orrena, ura zuen edo nola zen. Beintzat, pakete bat omen zeukan etxean entregatzeko, bere puntura entregatu gabea.

Ta olako pakete oik egiten zituen, orduan Oiartzungo agintariak baitziran, ba, kontrabandoko nagusiak, aiei entregatu ta aiek arreglatzen ziran beste lekura eramateko.

Perira zijoan astelen batean or gogoratu zaio:

-Ba! Nik pakete au eraman dezadan! Urrengo berriz ere beste paketeak izango ditit, eta aik eraman! Nik pakete au eraman dezadan eta an entregatuko dit!

Bere pakete orrekin eldu zela perira, baño bi karabinero betik gora, ta:

- ¡Ah, coño! ¡Ya has caído! ¡Ya teníamos ganas! ¡Ven aquí! ¿Qué llevas ahí?

- ¡Nada!

Ikusi zioten, da kontrabandoa. Ea, eramateko bere paketea bizkarrean! Ta artu ta bere paketea bizkarrean zuela, an zeramaten.

Ta berarekin ibiltzen zen mutil bat zelaiean lanean ari zala ilusi zuen an bideantean, eta esan zion:

-Zer pasa zaizu, Bekoetxia?

Erantzun zion:

-Motell, etzakit zer pasa zaiten! Eldu nak perirako asmoan, eta pakete au bizkarrean eman zidatek eta ekartzeko, bestela il egingo nautela! Emen eldu nak armaren mendean! Badakit zer egin bear deken? Aguro ibilli adi eta esan errian zer pasa den.

Ta karabineroak esaten omen zioten:

- ¿Qué dices? ¿Qué dices?

- Nada. Me dice que va a ver a dónde voy, y le digo que me llevan ustedes.

Etzuen, ba, orren ondo esango arrek, baño al zuen bezela esan zioten.

Da mutil arek bai aguro beste laster-bidetik joan zen errira, eta bere nagusiai edo agintariai, alkatea edo orduan errian agintzen zutenak izaki, ta aiei esan zioten:

- Ola ta ola eldu da Bekoetxia! Ola ta ola, ta au ta ura esan du.

- A! Ondo da, ondo da! Arreglatu-ko dugu au!

Eraman dute ara, ta alkateak eta

aiek, arriturik bezela, esan diote karabineroai;

-¿Qué traen ustedes?

-Venía con este paquete y es de contrabando, y le hemos pillado. ¡Ya teníamos ganas!

Galdetu omen zioten berari ea zer zen, da arek lengoa berriz ere: nola eldu zen kalera perira, ta paketea bizkarrera eman ziotela. Ekartzeko ura, bestela ilko zutela!

Karabineroai esan zioten:

- Baño zer ari zerate esaten? Gizon au zuek kargatu dezute!

Koñe! Aiek biak ezetz, eta besteak baietz. Gañera testigua zuela olako lekutako gizona. Antxe zuela testigua; arek ikusi zuela belar-sorotikan nola zeratu zuten.

- Ura deitu ta arek gauza bera: nola berak ikusi zuen bizkarrera nola eman zioten karga, ta nola ekarri zuten.

Ta bi karabinero oiek Oiartzundik biali omen zituzten, ta Bekoetxia libre.

Gure aitonak olako gauz oiek izan-go zituen noski bere pekatu aundienak egiñak mundu ontan”.

* * *

Onako beste gertaera au ere Bekoetxiaren billoba Ramon Olaziregik kontatua da:

“Beti bezela, beste batean, eldu omen ziran beren kontrabandoarekin. Azukrea omen zuten kontrabandoa, ta beren zaku azukrearekin.

Oraindikan artu berria omen zuten kontrabandoa; ta karabineroak, nun-

bait ere zitaren bat izan-edo, beintzat *alto* egin omen zioten.

Ta gure aiton orrek:

- Ea, mutillak! Korri gure etxeraño!

Denak artu ta eraman ditu etxera. Etxean sartu ta ateak itxi ditu.

Bai karabineroak ere aguro atzetik. Aiek, ateak idikitzeke; ta gure aitonak, etzala aterik idikiko goizeko seirak ar-teraño.

- ¡*Abre la puerta, tú!*

- ¡*No abres puerta hasta las seis mañana!*

Garai artan, karabineroak ez omen zuten libre iñoren etxean sartzea goi-zeke seirak baño len.

Besteak ere, ba, jakin lege orren berri, eta bertan *alto* egin dute. Jendea barrenean sentitzen, eta *alto* egin dute ta orduan gure aitonak pentsatu omen zuen:

- Bueno, nik bazeukat kupel bat sa-gardo.

Aterako zuen pixka bat, eta ara bo-ta zuten azukrea.

Zakuai ez dakit zer egingo zioten; zakuak an geratuko ziran, baño azukre ori ara bota zuten.

Eta gero esan zioten:

- Goizeko seirak arte luze zio! Etorri onera! Baziok gure ganbaran ar-to-mordoskada bat!

Auzoak aritzen omen ziran orduan artoak txuritzen. Auzoak bata besteai, joan gabeen ta artoak txuritzen aritzen omen ziran.

Artoak txurituaz, etxean zen zer edo zer janez, bertsotan-da, beren ze-

ran aritu dira.

Goizeko seiretan, *rau!*, berriz ere ate ondora karabineroak. Ea zer bear zuten, ta etxea ikusi.

- Bueno, goazen gora!

Ea zertan zebiltzan aiek; gizon aiek ea zer egiten zuten, karabineroak.

Auzo-lana egitera etorriak zirala; artoak txuritzen aritu zirala! Etortze-ko! Artoa nola zegoen zuritua! Lan orretarako zela! Bata besteai laguntzea libre izango zela!

Etxe guzian, gorotz-pilletan da de-netan ibilli omen ziran *riski* ta *raska* beren zerakin, da ezer ez billatu. Esaten omen zioten gure aiton orrek:

- Gorotz orren azpian zillarrezko mina dagoela edo zer uste duzute?

Ta karabineroak, arek burla egiten ziotela antza eman da martxa. Ezta ezertxo ere billatu iñun, da joan dira ernegatuta.

Andikan denbora puska batera, be-re karabinero oik betik gora. Zerbaiten ari omen zan gure aitona etxe ondoan lanean, da andik pasatzen zirala beren guardiara joateko eta esan diote:

- ¡*Eh! ¿Mucho cargados? ¿Otra vez también ya buscaréis vosotros contrabando! ¿Llevar también algo hacéis!*

Zerbait esan omen zioten aiek, eta onezkero egarritu zirala; etortzeko sa-gardo pixka bat edatera.

Ta egin omen zioten sagardo gozo ura eman; jarroan edo ez dakit nola emango zioten. Sagardo gozo ura eman da batek:

- ¡*Esto está muy dulce!*

Ta gure aitona orrek:

- *¡Si no puede ser que esté dulce!*

- *¡Esto está muy dulce! ¡Esto no se puede beber!*

- *¡Ah! ¡A ver si está ahí el contrabando!*

Ori aditu zutenean, segituan zera oiek: karabinero oiek an joan omen ziran andikan ernegatuak...”.

* * *

Erreteriko Baringarate-goiko baserriko Eusebio Zabalak, berriz, onela esan zigun:

“Garai aietan, Pikoketan artu kontrabandoa eta Tolosara joaten ziran, bide luzea ta nekosoia.

Bazijoazen, bein batez, Pikoketatik Tolosara gabaz kontrabandistak, jakina; eta, Ollokira allegatu ziranean, bateri egin zitzaion mareoa, eta esan zion bazterreko lagunari:

- Zerbait ere pasatzen zaidak!

- Zer dek?

Eta:

- Gora-naia zeukat!

Bekoetxia an zegoan aurrean, eta jira ta galdetu zion:

- Zer da? Zer da, alajainkoa?

Eta erantzun zion besteak:

- Oni zerbait pasatzen zaiola... Gora-naia dakala ta ...

Andikan goiko Berastegiko gaña arrapatzeko aldapa izugarria, ta Bekoetxiak esan zuen orduan:

- Gora-naia dekela? Eztek, alajainkoa, komenentzi txarra, nai badek gora igo!

Ta Bekoetxiak aurrera segitu zuen bere kargarekin; baita ere besteak, gizarajoak, gora-naiarekin baño gora joateko gogo aundirik gabe.

Gero eldu dira Tolosatikan kamioz oñez; eta, bidean eldu zirala, ikusi zuten soroan baserritar bat. Artoa ezin jaio eta igitariaren muturrarekin artolandareai muturra ateratzen ari zen, lenbailen jaio zitezen.

Ta Bekoetxiak ola esan zion an ari zan baserritar orreri:

- Adiskidea, dolorez eldu da, dolorez!

Ta baserritarraren erantzuna:

- Bai; ez da ederra eldu kolorez!

Bekoetxiak:

- Ez daukazu orrekin erria osaturik laborez!

Baserritarrak:

- Nai ez badu ez!

Bekoetxiak:

- Adiskidea, tolosarra al zera paborez?

Baserritarrak:

- Leno bai, bañan orain ez!”.

TXANTXANGORRI

Gertaera oietan, *Txantxangorri* esaten zioten bat aitatu degu, Luis izena zuana. *Txantxangorri* ortaz eta bere familiaz zer kontaturik badegu.

Txantxangorri orren ondorengoak Ergoinekoko Garate etxean bizi ziran 1971 urte inguruan: Sebastiana Mitxelena, larogei ta amaika urtekoa, eta abar. *Txantxangorri* izengoitia nundik zetorren onela adierazi ziguten:

“Kontrabandoan ibiltzen ziran, ta izengoitiak jarri bear, ba, mendian zebiltzala elkarren artean entenitzeko.

Egun batez, beren paketeakin bazi-joazen, da deskantsatzeko geldialdi bat egin zuten.

Otz izugarria omen zen: elurra ta orma. Ta denak txuri-txuri egiñak; Luis orren aitak, berriz, kolore ederrak.

Orduan batenbatek onela esan omen zuen:

- Denak emen gaudek otzak akabatzen, txuri-txuri egiñak, eta txantxangorriaren paparua baño kolore gorriagoak zeuzkak onek!

Arrezkeroztikan, *Txantxangorri* esan zioten beti; baita semeari ere, ta gaur bizi diran aren ondorengoai ere ala deitzen diete”.

Luis orrek Gaztelumendi omen zuen abizena; ta, leen esan bezela aundia zalako, *osaba luzia* esaten omen zioten illobak.

* * *

Bekoetxia baserrian bertan bizi izan zan Martina Makulegik onela kontatu zigun:

“Gaztelumendi dira oik; izengoitia zuten *Txantxangorri*. Sebastian zuen izena gazteak; eta zarrak, *Txantxangorri* zarrak, nik ez dakit nola zuen izena.

Garbia zuten andrea, ta amona ere ala zen.

Urte batean, gu ume koxkorak giñala, gogoia artu ta egin-egin zuten oiek: gogoratu zitzaioten bi anaiak amonarekin urtezar egunean kantak kantatzen auzoetara ateratzea, ta amona ta oik atera ziran.

Guk bi balkontzillo genituen, da
antxe egondu giñan begira.

Amonak *alabatua* kantatu zuen:

Alabatua, bedeinkatua
da sakramentu santua;
pekatuaren mantxarrik gabe
zerade kontzebitua.

Baño nola kantatu *alabatua* amo-
nak larogei ta lau urterekin!

Bi anaiak eta amonak kantatu zuten
gañerakoa:

Dios te salve, ongi etorri,
gabon Jainkuak diyela;
legiarekin kunpli dezagun
Urte Berrien bezpera.

Egin zuten zelebrekeria, ta denak
antxe txaloka.

Goikoetxiatik asi ziran; andik gure
etxera ta Legatzenera joan ziran; gero
Kabiolarara ta atzera etxera.

Afizio aundia zuela badakit; nola
kantari egoten zen *Txantxangorri* zar
ori, ori gogoratzen naz.

Ikazkille bateri jarri zizkion orrek
bertsoak: zera, ikatz karraitzen ibiltzen
zenari. Nik ez dakit zeñeri, baño ikaz-
kille bateri. Neri musika asko gusta-
tzen:




Mandua gia eten da
astua leno illa,
karretero aundi ori
gelditu duk iya;
oiu eta karraxi
errekatik ontzak,
lurrera botatzen du
euli baten otsak.

Arrek, amona arrek, aurrai ere beitu
zer doñurekin kantatzen zioten seaska-
rako. Orain ez da olako musikarik
ibiltzen. Zer polita den musika ori!



Ez e - gin negar, nik eman-



go bai sagar bat ximel-xi-me-la,



a-mo-ña bezin go-xu-a c-ta



xi-mu-rra be-ra be-ze-la.

Ez egin negar, nik emango bai
sagar bat ximel-ximela,
amoña bezin goxua eta
ximurra bera bezela”.

* * *

Martina Makulegi ori argibide eta kanta auek ematen ari zitzaigula, beraren adiskide eta txiki- denborako laguna zan Joxepa Oiarbide ere an zan gurekin.

Joxepa au, Karrikako Zaria base- rrian jaioa, Ugaldetxoko Ibarren bizi zan orduan.

Eta Martinaren seaska-kanta ori entzundakoan, berak ere beste bat kantatu zuan. Bertsoa askok dakitena da, *Aurtxo txikia negarrez dago* alegia; baiña doiñua ez det uste ezaguna danik. Arrunt berria izango da, gure iri- tzirako beintzat.

Kanta onek ez dauka emen, egia esan, zer ikusirik. Baiña orain argitara ateratzen ez badegu, denbora asko jo-

ango da euskaldunei doiñu polit au es- keiñi gabe. Orregatik, ori ere orain ja- rriko degu:

Aurtxo txi-ki-a ne-garrez dago,
a-ma emai-o-zu ti-ti - a; ai-ta
gaix-tu - a ta-bernan da-go, pi-ka -
ro jo - ka - la - ri - a.

Aurtxo txikia negarrez dago,
ama, emaiozu titia;
aita gaixtua tabernan dago,
pikaro jokalaria.

EPERRA
MANUEL JOSE MITXELENA KAMIO
(1825 - 1906)

BIZITZA

Eperra bertsolariaren berri Pello Errotaren alaba Mikela zanak eman zigun leenengo. Andre onek esanak Pello Errotaren bizitzaren liburuan arkituko ditu irakurleak.

Geroztik, Oiartzungo aiton-amonen aotik eta ango eliz-artxibotik beste zerbait geiago bildu aal izan degu.

Leenengo korapilloa Eperraren izen-deiturekin izan genduan. Zein baserritakoa zan askoren aotik entzunda geunden: Aiendola. Baiña aren izen-abizenik iñork etzekian. Eperra esanda entenitzen zan ura.

Azkenean, Txarondo baserriko Jose Domingo Pagadizabal jaunak eman zigun bear genduan argitasuna. Beste ainbesteri bezela, Eperraren izena-eta nola ziran galdetutakoan, onela erantzun zigun batere zalantzarik gabe:

- Manuel Mitxelena.

Eta, urrena, bertso baten erdia eman zigun:

Manuel Mitxelena
berorren konduta,
onik batere ez dauka
gaiztua kenduta...

Bertso ori beste norbaitek Eperrari botea omen zan, eta orri eskerrak izen-deiturak gogoan eduki.

Gero agertuko zanez, ordea, bertso ori Eperrak berak bere arrebari jarria da:

Sotera Mitxelena
berorren konduta...

Orduan, Jose Domingok ziona gaizki al zegoan? Ez dakigu, bada, zer esan. Bertso ori Eperrak bere arrebari *jarria* esan degu; eta, Jose Domingok zionez, batenbatek Eperrari *botea*. Baiña biak izan ditezke. Izena aldatu eta berdin kanta zitekean bertso ori Eperragatik ere. Ez ote zioten, adarra jotzearren-edo, ori egingo? Norbaitek ori egin eta Jose Domingo orrekin gelditu. Dana dala, jaun oni eskerrak jakin aal izan ditugu, esan bezela, Eperraren izen-deiturak, jaio eta il-egunak eta abar.

Jose Domingo onen etxea, Txarondo, alde samar dago Eperraren etxetik, Aiendolatik. Txarondo goraxeago, Aiendola beeraxeago, baiña bi baserriak alkarren bistan, erreka-zuloa tar-

tean dutela.

Urteak ere, irurogei ta amabost zitu-
tuan Jose Domingok argibide auek
eman zizkigunean, 1973-an. Orrega-
tik, Eperrari buruz iñork zerbait jakite-
kotan, Jose Domingo onek bear lukea-
la pentsa zitekean; eta bai ala izan ere.

Urrena, Eperra nola edo nun il zan
ba ote zekian galdetu genion. Aren
erantzuna:

- Gabaz etxera etorri ta etxean ater-
rik iriki ez. Ta etxean aterik iriki etzio-
tela-ta, ortxe irurogei bat metro bide-
an-edo aruntzago joanda, goiti-beiti
amildu; ta beko ondoan juxtu-juxtuan
bizia arrapatu zuten biaramon-goize-
an. Gero jaso zuten, baño andik beñe-
pein il zen; artatik il zen. Ordurako
edade aundia; izango zitun larogei urte
baño geiago.

Eta noiztsu il ote zan ba ote zekian
galdetutakoan, auxe izan zan Jose
Domingoren erantzuna:

- Bai; oker aundirik gabe, nik onen
edadea orduan -an sukaldean zegoan
billoba batengatik-. Onak amairu urte
ditu; amairu urte orain laister eldu
zaizka apirillean, San Marko inguruan,
San Marko biaramonean oneri; ta nik
geienaz ere, ura il zenean, aik izango
nituen noski. Baño enun ezagutu;
enintzen ikusterà suertatu.

Urrengo gure galdera:

- Barkatu, baiña orain zenbat urte
dituzu?

Erantzuna:

- Irurogei ta amabost urte laister;
irurogei ta bi bai beñepein ura il zela.
Olaxe negu-partea zen.

Ala, 1973-ri irurogei ta bi kenduta,

1911 urtea genduan. Garaitsu ortan,
beraz, gutxi gora-beera, Eperra illa.
Eta izen-deiturak: Manuel Mitxelena.

Argibide oiekin, urrena Oiartzungo
eliz-artxibora joan giñan, eta oso lan
erreza izan genduan angoa. Berealaxe
azaldu zan Eperraren il-agiria. Baiña
Txarondoko Jose Domingok esan zuan
baño bost urte leenago il zala agertu
zan. Orregatik etzitzaion ikustea ego-
kituko: berak zortzi urte besterik etzi-
tualako, ura il zanean. Baita ere ondo-
ren bataio-agiria, ezkontzakoa eta
abar, oso errez billatu genituan.

Oneraiño zein bidetatik iritxi giñan
adierazi degun ezkerro, artxibo ortan
arkitu ditugunak esaten asi nai gendu-
ke orain.

Manuel Jose Mitxelena Kaminos
zeritzan, eta Oiartzunen jaio zan,
1825-eko azaroaren 3-an, goizeko iru-
retan. Zein etxetan mundura etorri zan
ez du bataio-agiriak esaten.

Agiri ontan, bigarren deitura
Caminos esaten da; ondorengo agiri
geienetan, ordea, *Camio* irakurtzen da.

Gurasoak: Manuel eta Maria Klara
Inazia. Aitaren aldeko aiton-amonak;
Sebastian eta Maria Joakina Olosko-
aga. Amaren aldekoak: Jose Frantzis-
ko eta Juana Bautista Erroyza. Danak,
bai gurasoak eta bai aiton-amonak,
oiartzuarrak.

Aita-ama pontekoak: Manuel
Inazio Mitxelena eta Josefa Antonia
Berrondo. Auek ezarri zizkioten, be-
raz, Manuel Jose izenak. (1)

Oiartzunen ezkondu zan, 1851-ko
ilbeltzaren 20-an. Andregaiia Maria
Jabiera Bengoetxea Arzak zeritzan. (2)



Aiendola baserria, Oiartzun.

Ezkontza-agiriak orrelaxe dio: Maria Jabiera. Baiña oker dagoala uste degu. Beste agiri guzietan, seme-alaben bataio-agirietan, gizonaren eta beraren eriotz-agirietan, ezkontzakoan ez beste danetan alegia, Maria Gabriela esaten baitzaio.

Guk arkitu deguez, bost seme-alaba izan zituzten: Pedro Antonio, 1852-VI-29-an jaioa; Maria Josefa Modesta, 1854-X-3-an; Josefa Joakina, 1858-II-7-an; Jose Joakin, 1860-VIII-31-n; eta Maria Klara Salbadora, 1863-VII-13-an.(3)

Sailpuru baserriko Antonia Otxotekok, Balentin bertsolariaren arrebak alegia, Eperraren alabak ezagutu zituela esan zigun, eta bai aietako batzuen izenak eman ere: Joxepa Joakina, Klara ta Joxepa. Lexoti zaarraren alaba Maurixik ere ezagutu omen zituan, eta izen auek eman zizkigun; Maria, Maria Klara, Joxepa Joakina; eta anai batena ere bai: Jose Joakin. Eliz artxi-boa eta erriaren oroipena bat datoz, beraz.

Eperraren eriotz-agiriak, berriz, urrengo argibide auek eman dizkigu.

Eperra 1906-ko azaroaren 19-an il zan, goizeko zortzietan, Aiendola baserrian, “*a consecuencia de congestión pulmonar*”. Pulmonia, alegia.

Eta urrena: “*No recibió los Santos Sacramentos por haber muerto repentinamente, ni testó*”.(4)

Emen esaten dana eta Txarondoko Jose Domingok esana, alkarrekin ondo uztartu ditezkeela uste degu.

Aiendola baserria aldapa-aldapan dago. Bidea ere alaxe dijoa: malda za-

kar artan zearka, alde batera mendia eta bestera, an becan, erreka dituala.

Bidetik erre kara bitartean arkaizte-girik ez da; larrea da, baiña oso aldapa trinkoa. Bein andik bueltaka asi ezkerro, sasoikoa ere nekez geldituko litzake; larogei ta bat urtekoa, berriz, jakiña dago noraiño joango zan.

Ez dakigu Eperra erre karaiaño joan zan. Baiña, agian, kolpeak baiña kalte geiago egingo zion erreka ondoan edo errekan bertan gaua pasa bearrak. Gaiñera, azaroa zan, eta berak larogei ta bat urte... Eta biaramon-goizean jaso eta medikua ta apaiza-edo etorri ziranerako, gizarajo arenak egin...

Zer ogibide zuan ere esaten du eriotz-agiri orrek: *mendigante*. Bai; beste babesik izan ezean, orixe da adin ortan egin ditekean lan bakarra, eta ori ere gaizki.

Bertsolarien batek bein batez bota zion bertsoak, ederki adierazten du nola ibiltzen zan:

zakua bizkarrian,
makilla eskuan...

Errenteriko Jose Goñi zanak ezagutu omen zuan. Onela esan zigun:

“Eperra agure zar bat zan, baiña ijito-planta alakoa. Zaku batekin eskean ibiltzen zan. Emen, Errenterian, askotan izaten zan.”

Eperraren andrea larogei ta sei urte-ekin il zan, 1910-eko garagarillaren 18-an, Aiendola baserrian, “*de debilidad senil*”.(5)

Urteen buruan seme-alabak il ziran,

eta fameli ura galdua dala esan didate.

Bukatzeko, Aiendola baserria nun dagoan esango degu: Oiartzundik Lesakara kamioz goazela, Ergoin pasa ondoren, Aritxulegiko aldapa asten dan ortantxe, an ikusten da, errekaz beste aldera, malda-maldan jarria, baserri txiki bat. Uraxe da. Garai artan bi bizitzakoa omen zan; gaur, berriz, bakarrekoa.

1. Oiartzungo 14-garren bataio-liburuan, 73 orrian.
2. Oiartzungo 10-garren ezkontza-liburuan; ez nuan orria apuntatu.
3. Oiartzungo 15-garren bataio-liburuan, 224, orrian; eta 16-garren liburuan, 9, 79, 144 eta 224 orrian.
4. Oiartzungo 15-garren eriotz-liburuan, 52 orrian.
5. Oiartzungo 15-garren eriotz-liburuan, 110 orrian.

BERTSO PARE BAT

Lexoti zaarraren alaba Maurixik
bertso au eman zigun; Joxe Mari izena
zuan mutil batek Eperrari botea omen
da:

Eperra ortxen dabil
beti ostatuan,
biltzen ditun guziak
ia gastatuan;
zakua bizkarrian,
makilla eskuan,
alakoren batian
joko'ute kaskuan.

* * *

Beste bertso au, berriz, Eperrarena

omen da; Eperrak berak botea-edo.
Txarondoko Jose Domingok eman zi-
gun:

Ikazkille gaxuak
dijuaz basora,
anua bizkarrian,
eskuan aizkora;
amaika ta erdiyak
bastante *deshora*,
magiraren zokuan
ipurdiaz gora.


Anua zakotea omen da; *magira* edo
maira, berriz, taloak egiteko azpilla
edo maia, bere tapa eta guzi zituana.

SENIDEEI

Bertso auek Ugaldetxoko Iyeru baserriko Manuel Lekuonari jaso genizkion. Eperrak bere senideei jarriak omen dira. Onela esan zigun Iyeruko Manuel orrek:

“Senide-partearekin egin ziran oik aserretu; senideak elkarren partizioarekin, erentzi-pizarrarekin.”

Ona bertsoak, beren doiñua aurretik dutela. Doiñu ori, Iyeruko Manuelek kantatu eta Ambrosio Zatarain eta Manuel Yabenek magnetofonoz entzun eta solfeoz idatzia da.



1/ Milla zortziregun da irurogei ta lau, Kristo mundura zala orain dijuan au; bertso bi paratzeko kausak biartu nau, orain abiatzen den mingañak badirau.

2/ Nik nai nituen beti kontuak garbitu, berreun bitartekokin ez naute obeditu; euskeraz esan eta ondo konprenditu, Satanasek animak aixa eramain ditu.

3/ Eramanak eraman,
bestiak geroko,
mal pecado bazion
orrelako franko;
nik egin dizkiñet ba
egiañalik asko,
hermano ta *hermana*,
eskerrikan asko.

4/ Sotera Mitxelena
da orren konduta,
onik batere ez dauka
gaiztua kenduta;
korrituan ipiñi du(1)
neri arrapatuta,
ezin leike garbitu
lixiban sartuta.

5/ Frantzisko Mitxelena
du sozidantia,
estimatu lezake
zerbait esatia;
zenbat familietan
egin du kaltia?
Au da asto guzilyen
errematantia.

Azken bertso onengatik onela esan
zuan Iyeruko Manuelek:

“Anaiaren astoari lepoko zaiña
moztu orrek. Anaiak aserre, ta anai
baten astoa bestearen barrotira joan; ta
joan ta arrapatu du, ta lepoko zaiña
moztu ta astoa il anaiari; gero bertsoak
jarri.”

Bertso oiek nori ikasiak zituan gal-
detu eta onela erantzun zigun
Manuelek;

“Amari adituak; auzoak baitziran
aik, Eperra ori ta gure ama. Gure ama
Bereiñotz baserrikoa. Orain pareta za-
rrak daude. Aiendolako ezkerreko al-
dera, minako ezkerreko maldan, antxe;
Bereiñotz.”

1. Orrela eman zigun lerro au Iyeruko
Manuelek; baiña besteren aotik ere jaso degu
bertso au, eta beste oiek “korrituan ipiñi” esaten
dute. Esan-naia berdin eta neurria obeto. Orrelaxe
izango da, guk uste.

KARLISTEN GERRATEA

Karlisten bigarren gerratean (1872 - 1876), Eperra liberalen aldekoa izan omen zan. Aldekoa ez-ezik, ixpia ere bai. Gauzak ala dirudi beintzat.

Txarondoko Jose Domingok onela esan zigun:

“Ixpiaren famakoa izan bear zuen.

Emen, barrio ontan da Olaundito: Aiako Arria ta Aritxulegi baño beraxego or zabal bat. Ta Olaundito ortan, zera, tropa egongo zen or, ta apaiza etortzen meza ematera, ta ura iltzeko agindu omen zion norbaitek Eperra orreri. Ta gero jarri omen zen guardian, ta egun artan ez etorri apaiza.

Karlisten tropara etortzen apaiz ura, ta beste ori, Eperra, liberalen aldekoa edo beste aiekakoa izaki; beltzetakoa izaki.

Gero apaiza, Santa Krutz denbora aitan pamatua zen. Ura orrara etortzen zen; uta etzen apaiz ura izango, baño Santa Krutz buru karlistetan; graduko gizona izango zen ura. Santa Krutz ura emen denean ibilia izango zen: Aritxulegi ta Olaundito ortan ta emen ibilia. Oraindikan ez da urte asko ere...

Zenbat? Gure ezagueran illa da beñe-pein”.

Errenteriko Jose Goñi zanak, berriz, onela esan zigun:

“Gu ume koxkorrak giñan orduan; eta, ikusten genduanean, burlaka asten giñan, oju egiñez:

- Eperra, gerratian ixpiya! Eperra, gerratian ixpiya!

Guk ez genekien orduan zer esaten genduen ere; ixpiya zer zan alegia. Baño bera, bere onetatik atera eta arrika asten zitzaigun; ta gu, berriz, korrika itzuli...”

Esaera zaar batek diona izango zan: “Umeen zentzuna, etxean entzuna”.

Izan ere, karlistak, Santa Krutz-eta, Olaundito eta Aritxulegin; eta Aien-dola, Aritxulegiko aldaparen asieran... Aukera-aukerako tokia zuan, beraz, Eperrak ixpia izateko. Pagatu ere egingo zioten eta...

Baiña bestela ere, berez alegia, liberala izango zan ura. Bertsoak beintzat jarri zituan aien alde, eta bertso onak, gure iritzirako.

Bertso oien aditzera zenbait oiar-tzuarren aotik bagenduan, eta bertso bat edo bi jaso ere egin genizkien. Danak, ao batez, Eperrarenak zirala zioten. Baiña sailla ezin osaturik genbiltzan. Azkenean, ordea, Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldu da. Zortzi bertso dira, eta bi paperetan idatzita daude: bata eskuz eta bestea makinaz.

Makinaz dagoana bestearen kopia utsa da. Eskuzkoa bietan zaarrena. Eskuz idatzitako oni gaiñetik zuzenketak egin dizkiote; geienak ortografia berritzearren, eta iru aldiz *oke-rrak zuzentzearren*: 4/5: “osasunaren konserbatzeko” zegoan, eta “osasun ona konserbatzeko” zuzendu dute; 4/8 “liberalaren eskura” zion, eta “liberalen eskura” jarri; 8/5: “asko sujetok desio zuben” zegoan, eta *zuben ordez zuten* idatzi.

Guk, noski, leengo era zaarra artu degu beti, berria baiño askoz jatorragoa baita. Bere arriskutxoa badu, izan ere, leengo bertsolari zaarren itzak eta esaerak *zuzentzen* asteak; eta oraingoenak ere berdin.

Bertso auk ez dira gerra-denboran jarriak, gerra ondoan baizik; gerra bukatu berrian, gure iritzirako.

Doiñua Oiartzungo Berinberri berreriko Ines Berasategi zanak kantatua da, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarainek magnetofonoz entzun eta solfeoz idatzia.



Mi - lla zor-tzi-reun i - ru -

ro-gei ta a-mar-ga-rren-go ur-ti -
 an, gi-zon a-bi-llak be-re -
 xi zi-ran Gi-puz-ko - a-ko par-ti -
 an; jun-ta e-rric-la e-gin
 zu-ten A-ri-txu-lei - fia-flo tar-ti -
 an, Car - los sép-ti-mo bi - ar
 zu-te-la len-bai-len pa-ra kor-ti - an.

1/ Milla zortzireun irurogei ta amargarrengo urtian, gizon abillak berexi ziran Gipuzkoako partian; junta erriela egin zuten Arritxuleiñaño tartian, (*sic*) Carlos séptimo biar zutela lenbailen para kortian.

2/ Fede santua aumentatzera atera ziran mendira, obra ederrak egin dituzte, denboraz agertuko dira; motibo gabe eman diyote bosti negarra begira, mantxa gabeko gizon justuak orretan ibilltu dira.

3/ Kañoi ederrak Madrillen eta
kastillo piñak Zaldiñen,
Calle Mayor ta *Café Marina* (1)
iskribiturik Beriñen;
alondegiya bere sisakin
para zuten Aizkorriñen; (2)
asi baño len bagenakiyen
etzutela deus egiñen.

4/ Belaunak pisu, estiak zimur,
begiyetako tristura,
zer deabrutako atera ziran
goiko mendiyen kaskura?
Osasunaren konserbatzeko
artziagatik preskura,
bazter guztiyak ondatu eta
liberalaren eskura.

5/ Galtzak urdiñak, kapote piñak,
asto-kolorez egiñak,
opiniyuaz ez gera arkitzen
munduan denak berdiñak;
errentaturik geldi zitezken
kaskarro buru-ariñak,
alderaxio ez balituzteke
zortzi ortz eta agiñak.

6/ Erreziyuak nonai atera,
pagamentua paperez,
bata zutela sarjentua ta
bestia berriz alferrez.
Zenbat sujeto ote ziraden(3)
lan egiteko alferrez?
Guretzat danak nagusi ziran,
gobiernuentzat baterez.

7/ Destimoniyo falsorik gabe
destiguz zaie probatzen:
diputaduan ordenik gabe
kontribuziyo kobratzen;
egiya klaro itzegiten det,
ez det batere dudatzen:
boltsak beteta zenbait or dabill
kalian pasiatutzen.

8/ Gerra zibilla orren despeida
etzen berela ikusi,
egiya klaro esan nezake
iñork nai badu ikasi;
asko sujetok desio zuben
Carlos séptimo nagusi,
Peña Platian konjuratuta
antxen juan uben igesi.(4)

* * *

Olako bertsorik moldatzen zekia-
nak, bertso geiago ere jarri zezakean
noski. Jarri ote zuan? Baditeke, baiña
gauza garbirik ez dakigu. Errenteriko
Jose Goñi zanaren iritzirako, arenak
dira onela esaten duten bertsoak:

Esku batean Santo Kristo ta
beste eskuan pistola...

Baiña Jose Bernardo Otañorenak
ote diran ere aditu izan degu. Orregat-
tik, kontu au geiago garbitu arte, ez
derizkiogu bertso oiek iñori erantsi be-
ar zaizkionik.

1. Elizetxearen paperetan: *Calle Mayor de
Café Marina*.

2. Zaldin eta Berin Oiartzungo bi mendi-ba-
serri dira. Aizkorrin, berriz, Berinberri baserriko
borda xaar bat.

3. Elizetxearen paperetan: *zenbait*.

4. Gerra artako azken burrukaldia, Euskal-
Errian, Peña Plata-n izan zan. Peña Plata-ren eus-
kal izena Artxuria omen da.

GERRA-ONDOA

Txarondoko Jose Domingok onela esan zigun:

“Karlisten kontrarioa izaki, ta Ameriketara eskapo joan zen emendika.”

Eperra Ameriketan ibilia omen zan. Eta atzera bueltan etorri eta Juan Krutz Elizegi Pello Errotaren anaiarekin topo egin, tabernaren batean-edo. Bakoitzak bina bertso kantatu omen zioten alkarri; danetara lau bertso. Errenteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanak eman zizkigun, aurretik onela esanez:

“Juan Krutzek, Pello Errotaren anaiak, eta Eperrak bertso auek bota zizkaten egun batean alkarri. Juan Krutz artean ezkongai zegoen garaia zan, eta andregai billa ibilliko zan nunbait. Eperrak, berriz, Ameriketan egona izan bear zuen. Nik nere aita zanari ikasiak ditut.”

Juan Krutz asi omen zan:

Amerikatik buelta eginda
onuntzian Burdeoson,
Eperragandik ango fondetan
propiña ederrik joan zen;

etxera etorri, sillan exeri,
eztu dirurik azaltzen,
jango bazuen aizkora artuta
ikatzkitera joan zen.

Eperrak:

Errotaria asi omen dan
agure zarrak mendratzen,
diruan galik ez daukat bañan
badakit itzez pagatzen;
oriek orla baldin badira
egiñik ez det ukatzen,
lau probintziyak jira ta alare
andrerik ez dek topatzen.

Urrena Juan Krutzek:

Lau probintziyak jira ta alare
andrerik ez da neretzat,
nunbait e berak desiako nau
sui izatia beretzat;
orren alaba zarrena ori
neri asko gustatzen zat,
orpuak eta gerri-aldiak
lirañak zeduzkak beintzat.

Ezagutu zutenak esan zigutenez, Eperraren alaba zaarren ori lodi samarra omen zan; eta orpoak ere latzak izango zituan, ankutsik ibiltzen baitzan. Mezetara ere ankutsik etorri, eta elizan sartzeko alpagatak jantzi.

Eta Eperrak:

Neskatxa eder paregabiak
Maria eta Kontxezi,
oik kortejatzen errotariak
etzuen oraintxen asi;
ustez disimuluan ibilli,
gero jendiak ikasi,
uso politak eskuetatik
aixa joan zaizka igesi.

Ondoren, onela jarraitu zuan Pello Zabaleta zanak:

“Bein batean usotara joan giñan Naparroara, Santestebanera. Taberna batera sartu ta agure xar bat an ikusi genduan, sukalde-zokoan exerita. Gure kuadrillan oiartzuar bat zetorren, eta arek ezagutu ta esan zigun:

- Aizue: Eper zarra dek ori!

Ta nik bertso oiek banekizkien eta lenengoa bota nion. Ura bakarrik kantatu nion; etzan geiago kantatzeko denborik izan. Ordurako larogei urte bazituan, baiña sukale-zokotik altxa ta makillarekin ni jo bearrez asi zan. Bertso ura iñork zekienik arek ez uste, ta kolpean entzundakoan izugarri asarretu”.

* * *

Lau bertso auetatik leenengoa Azkuek ere badakar bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 477 zenbakian, doiñu eta letra ekarri ere, Lesakako Sebastiana Mitxelenari jasota:

A-me - ri - ka - tik - buel - ta e - ginda
o - nun - tze - an Bur - de - o - sen,
an - go fon - de - tan e - pe - rren - ga - tik
pro - pi - na e - de - rrik o - men - zen.
An - dik i - tre - ra e - to - rri e - ta
di - ru - rik e - tzen a - gertzen;
yan - go ba - zu - en, aizko - ra ar - tu - ta
las - ter sa - si - ra yo - an zen.

Amerikatik buelta eginda
onuntzean Burdeoson,
ango fondetan eperrengandik
propina ederrik omen zen.

Andik itxera etorri eta
dirurik etzen agertzen,
yango bazuen, aizkora artuta
laster sasira yoan zen.

Azkuek *eperrengandik* minuskulaz
asten du. Etzuen jakingo aldi ontan
egaztia etzala, izengoitia baizik.

Urrena, segidan, Eperrak karlistei
jarritako laugarren bertsoa eskeintzen
du.

* * *

Leendabiziko bertsoa Aita Donos-
tik ere badakar bere *Euskel-Eres-Sorta*
bilduman, 310 zenbakian letra eta doi-
ñua, Lesakan jasoak:



A - me - ri - ke - tik



buel-ta e-gin ta on-tze-an Bur-de-



os-en an-go fon-de-tan e-pe-rren-



gan-dik pro-pi-na e-de-rrik o-men



zen: an-dik e-txe-ra e-to-rrri



e-ta di-ru-ri-kan ez o-men



zen jan-go bai zu-en aiz-ko-ra ar-



tu-ta las-ter sa-si-ra jo-an zen.

Ameriketik buelta eginta
ontzen Burdeos-en,(1)
ango fondetan eperrengandik
propina ederrik omen zen;
andik etxera etorri eta
dirurikan ez omen zen,
jango bazuen aizkora artuta(2)
laxter sasira jua zen.

* * *

Nori jaso genion kontuan artu ez
genduan bertso au ere Juan Krutz
Elizegik Eperrari kantatua edo molda-
tua omen da:

Motibotxo bat eman didate
bertso berriyak jartzeko,
Eperra bera bastante degu
bazter guziyak nasteko.
Ez da beldurtzen koleratuta
iñork ezurak austeko...
Etorkizunan berri jakin-ta
zertan joan ziñan eskapo?

* * *

Lexoti zaarraren alaba Maurixik
beste gertaera au kontatu digu:

“Ni askotan, etxeoak siestan zeudela, Galtzaretatik Aiendolara jeixten nintzan. Ango alabak asko ezagutu nituen. Egun batez kantari ari ziran:

Karlos kirlis, kirlis Karlos,
ekarri nai ziguten onera,
ortik ibilli, ortik ibilli,
Maria Pandango;
konpontziziorik gurekin
ez dezu izango.

Nik orduan bereala ikasten nituan olako gauzak; baita ura ere. Ta ikasi ta etxean kantatu. Ta aitak:

- Nun ikasi dun ori?
- Aiendolan.

- Ume onek, aditzen dituen guziak ikasten ditu!

Urrena Aiendolara joan nintzanean, onela esan nien:

- Pekatu izango da kantu ori!

- Pekatu? Zergatik?

- Aitak erritan eman zidan!

Aiek orduan parra egin zuten. Ta gero:

- Kanta ori, zure aitarentzat txarra; guretzat ona!”

1. Nabarmen dago emen, *onuntzean* bear duala.

2. Emen, berriz, *bazuen* bearko luke.

BUKAERA

Leen esandako gauza batzuk orain batera bildu egin bear genituzke, zer pentsaturik emango digute ta.

Leenengo, bertso ura:

alakoren batian
joko'ute kaskuan.

Bigarren, senideen arteko aserrea.

Irugarren, ixpi-fama. Ori, sinistu modukoa da. Baiña apaiza iltzeko zai egon zala, ez ote da geroko eraskiñen bat izango? Ala ere, liberal purrukatua zala ez dago zer duda egin, bertsoak irakurri ondoren.

Urrena, Juan Krutz Elizegiren bertsoak.

Eperra liberalen aldekoa izaki eta aien alde saiatu bazan ere, gizarajoak ondo pagatu zuan gero. Etzioten errian

barkatu.

Izan ere, Oiartzunen, garai artan, geienak karlistak ziran. Santa Krutz apaizak ere bere mutillak, danak ez bada ere asko beintzat, oiartzuarrak zitu.

Liberalak ere, politiko geienak egin oi duten antzera, bein gizarajo artaz aalik ondoen baliatu ondoren, etzioten andik aurrera zakur bati ainbat kaso ere egingo.

Ez gera gu iñor Eperrarena pekatu izan ote zan juzkatzeko. Baiña bai gizarajoak penitentzi latza eraman zuala: bere denbora guziko mixeria, Ameriketara joan bearra, eskean atez ate ibiltzea, erriaren kariño-eza, umeen burlak...

Arritzekoa ote da bere azken urteetan erretxinduta egotea? Eta, azkeneko, olako errematea...

PATXI BAKALLO
JUAN FRANTZISKO BELAUNZARAN ZABALA
(1832-1896)

BIZITZA

Patxi Bakallo bertsolaria, “Juan Francisco de Belaunzarán Zabala”, Erreterian jaio zan, 1832 urteko urriaren 31-n.

Gurasoak “Miguel Josep”, ernaniarra, eta Juana Maria, aranoarra, izan zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, “Joseph” eta “Francisca de Erausquin”, biak ernaniarrak; amaren aldekoak, “Joseph Domingo”, aranoarra, eta “Maria Gregoria de Senosiain”, euskeraz Gares eta erderaz *Puente la Reina* deitzen dan errikoa. Emen ere euskeraz egingo zan garai artan.(1)

Ezkondu, 1856-ko abenduaren 26-an egin zan, ogei ta lau urterekin, Ernanin, bertako alaba zan Maria Ramona Iraolarekin.

Etxea, Oianabarren edo Oianeder izenekoa, Ernaniko Osiñaga baillaran izan zuten. Izen berarekin bi etxe dira. Bata, antziñako etxe aundi eta ederra da. Ontan nagusia bizi zan. Bestea, txikia, Patxi Bakallorena. Aldamenean, berriz, ola zan. Orain urte asko ez dala, sutegia, ikaztegia, lantokia eta abar zein tokitan izanak ziran garbi asko ikusten omen zan.

Patxi, esan zigutenez, bizimodua irabazten era askotara saiaturako gizo-

na izan omen zan: etxean taberna izan zuan, mineral-karraio ibili zan, nekaritzan zerbait bada ere aalegindu zan... Eta, bati entzun diodanez, itxas-arrantzara ere ateratzen omen zan, ba-kaillotara, Ernanitik artara iñor joaten etzalarik; eta, ain zuzen, orregatik ezarri omen zioten *Bakallo* izengoitia. Baiña nork jakin ola ote dan?

Oiartzunen bada oraindik *Bakallotarra* izengoitia duanik. Gure artean izengoiti bera bi erritan eta irutan ere izaten baita, onek ez luke berez ezer esan nai. Baiña oiartzuar oiek, izengoitia ez-ezik, deitura ere Patxirena dute: Belaunzaran. Gure bertsolari onen familikoak izango dira, beraz, nolabait ere.

Oiartzuar oiek esan zigutenez, izengoitia beren leengo jatorri-etxetik datorkie. Etxe orri Bakalloenea esaten zitzaion, eta Oiartzungo Iturriotz baillaran zegoan. Etzekiten, ordea, beren aurrekoetan bertsolaririk izan ote zan.

Patxiren izengoitiaren sustraia nundik datorren oso kontu illun eta naas-tua da, beraz. *Bakallo* ez-ezik, *Bakallero* eta *Bakallotarra* ere esaten omen zioten.



Oianabarren edo Oianeder, Patxi Bakalloren etxea, Ernani.

Patxiren bizitzak bi zati ditu: bata, Euskalerrrian pasa zituan urteak; eta bestea, Ameriketara, il zan arte, egin zituanak.

Seme-alabak ere batzuk emen eta besteak an jaio zitzaizkion. Emengoak, guziak Ernanin argia ikusi zutenak, onako auek izan ziran: Frantsizka Ramona, 1859-I-23-an jaioa; Joakina Inazia, 1860-I-31-n; Juan Pedro, 1861-VIII-24-ean; Juana Josefa, 1865-I-27-an; Pedro Maria, 1867-VII-4-ean; eta Jose Maria Eusebio, 1873-III-4-ean.

Baiña emen bizimodua ezin atera eta Arjentinara aldatu zan famili guziarekin. Ernanin esan zigutenez, karlisten bigarren gerrate inguruan joana izan bear zuan. Itxurak ere ala dira: esan degunez, emen jaiotako seme-alabetan gazteena, Jose Maria -Eusebio, 1873-an sortu zan. Arrezkeroztik ez da Ernaniko eliz- artxiboan Patxiren beste seme-alabarik ageri, eta urte oietan piztu eta sutu zan gerra ori: 1872-1876.

Arjentinan beste iru seme-alaba izan zituan: Joakin, Domingo eta Ana. Ana au il zala ez dira oraindik urte asko. Euskalerrian ere izaten zan, Zarautzen, bere seme baten etxean. Zer kontaturik asko izango zuan arek bere aitaz. Baiña, gerta oi danez, iñork galdetu eta jaso ezean, berekin eramango zituan zekizkian guziak.

Ana onen semea ez da bere lau osaba-izebaz baizik oroitzen. Bere amarekin bost senide, beraz, Patxiren seme-alabak: Frantziska, Josefa, Joakin, Domingo eta Ana. Besteak agian illak izango ziran. Ain zuzen, txeetasun au oso egoki dator gure bertsolari onek bertso batean esaten duanarekin:

Kriaturak izandu
ditut bederatzi,
lau il zitzaizkidan ta
bost ditut bizi...

Arjentinan zer lanetan saiatu zan, suerterik izan ote zuan eta abar, geroago, bertsoetan alegia, arkituko du irakurleak. Andikan bertsoak bein baiño geiagotan bialdu baitzitan, bere ango bizitzaren berri argi eta garbi adieraziz.

Auxe bakarrik esango degu orain: obe ustean joan zala noski, baiña an ere zakurrak ankutsik zebiltzala ikusi zuala. Damutu zitzaion joana. Bertso batean onela dio beintzat:

dirua banu juango nitzake
Europara ere ostera...

Baiña, bati entzun diogunez, emen egindako zor guziak andik pagatu omen zituan. Agidanean, azkenerako kukuak zuzen jo zion.

Beraren billobak esan zigunez eta Ernanin ere jaso genduanenez, Arjentinako erri auetan beintzat bizi izan zan: Buenos Aires, 25 de Mayo, Trenquelauquen eta Mercedes.

Askori entzun diogunez, oso bertsolari ontzat jotzen zan garai artan Patxi. Emen gelditu izan balitz, Xenpelar eta Txirrita aiñakoa izatera iritxiko omen zan. Larogei urtetik goragoko ernaniar batek esan zigunez, bere aita zanari bein baiño geiagotan entzun omen zion nola ikusi izan zituan Xenpelar eta Patxi Bakallo alkarrekin bertsotan, Ernaniko plazan, kale nagusiko kantoian.

Ain zuzen, Xenpelar 1835 urtean eta Patxi 1832-an jaioak ziran; eta erri



Patxi Bakallo eta bere emaztea.

berean, Erreterian alegia, jaió ere. Orregatik, alkarren lagunak, edo alkarrekin artu-eman aundia zutenak, edo-ta alkarren berri ondo zekitenak izango zirala, ezin dezakegu, nik uste, dudarik egin.

Irakurleak leenago ikusi duanez, Patxik bi bertso bialdu zizkion bein batez Xenpelarri, bertsoarako egokiera eskeñiz. An esaten genduan bezela, bertso pare ori desafiotzat artu izan da beti. Bertso batean bai, *desapiyo* esaten da: “desapiyo ori da Bentaberrirako”; bestean, ordea, gonbidatutzen: “gonbidatutzen ditut nai badute etorri”. Gure iritzirako, bertso oiek ez dute kontrarioari izaten zaion amorruren izpirik; bai, ordea, adiskidearekin izaten dan umore-kutsua.

Dana dala, Patxi Bakallo bere indarrak Xenpelar aundiarekin neurtzen zekiana zan.

Eta bertsolari saiatua zala berak adierazten digu Arjentinan jarritako bertso sail batean, onela esanez:

nik ainbat koplá botatakorik
gutxi da Euskalerrian.

Orregatik, eta jaso ditugun aren bertsoak irakurrita ere bai, Euskalerrriaren kaltetarako izan zala esan dezakegu ura emendik Ameriketara joatea.

Patxi Bakallo 1896-ko martxoaren 4-ean il zan, Buenos Airesko San Karlos kaleko 268 zenbakian, andik onera bialdutako eriotz-agiri onek adierazten duanez:

“En la Capital Argentina a cinco de Marzo de mil ochocientos noventa y seis, a las doce y cuarto de la tarde, anti mí Jefe de la Quinta Sección del Registro Civil: Manuel Fabeiro, de treinta y

ocho años, casado, domiciliado calle Acevedo doscientos sesenta y ocho, declaró: Que el día de ayer a las cinco de la tarde, en la casa calle San Carlos doscientos sesenta, falleció su padre político Juan Francisco Belaunzaran de neumonía, según el certificado médico del Doctor Francisco Sarmiento, archivado bajo el número de esta acta; que era del sexo masculino, de sesenta y cuatro años, casado con Ramona Iraola, español, comerciante, domiciliado en la casa en que falleció, hijo de Miguel José Belaunzaran y de Juana Zabala, españoles, fallecidos. No ha testado. Leída el acta, la firmaron conmigo los testigos: el exponente y Jose María Esnaola, de cuarenta y cuatro años, casado, comicialiado calle Rivadavia tres mil treinta y cuatro, quienes han visto el cadáver. Manuel Fabeiro / José María Esnaola.”

Neumoniaz il zan, beraz, irurogei ta lau urterekin. Ogibideaz, berriz, *comerciante* omen zan. Saldu-erosian zebillena, beraz, zer jenerorekin ez badakigu ere.

1. Erreteriko 12-garren bataio-liburuan, 40-garren orrian.

Agiri ontan, Patxiren deitura edo abizena *Belaunza* esaten da. Guk *Belaunzaran* idatzi degu, bere ezkontza-agirian eta seme-alaben bataio-agirietan orrela dagoalako, eta gaurko egunean ere ondorengoak orrela erabiltzen dutelako.

Eskerrak eman bear dizkiogu Ernaniko Justina Iraolari. Bera izan ez balitz, ez degu uste Patxiren abizena zer zan jakingo genduanik. Eta abizenik gabe, alperrikako lana genduan aren jaiotegunaren billa cliz-liburuetan astea. Baiña ara zergatik zekian berak: bere aitona, aitarek aldekoa, eta Patxiren emaztea anai-arrebak ziralak.

Abizena jakin ondoren, Ernaniko bataio-liburuetan begira asi giñan. Alperrik ordea. Patxi noiztsu jaióa izango zan bagenekian gutxi gorabeera, baiña urte aietan Belaunzaran deitura zuanik etzan iñor ere azaldu. Orduan, Patxiren seme-alabaren baten bataio-agiriaren billa asi giñan, abizenak Belaunzaran Iraola bear zituala kontuan artuta. Bai bereala arkitu ere; baiña aitarengatik Erreteriko semea zala esaten zuan.

LEIOTIK LEIORA

Oianabarren edo Oianeder ondo-
-ondoan etxe txiki bat dago. Txurdiña-
nea esaten zitzaion garai artan. Etxe
ontako alaba bat, neskatxa gaztea,
bertsolaria zan. Patxi eta biak askotan
jarduten omen ziran bertsotan alkarre-
kin. Goizean egun onak emateko, ber-
tsoa; eta bata besteari esan bear zioten
guzia esateko ere bai, kasik.

Jai-goizetan, Ernaniko Osiñaga al-
deko jendeak Oianabarren edo Oiane-
derko ataritik pasa bear zuan mezetara
joateko. Bein baiño geiagotan gertatu
omen zan, ordea, mezazale oiek andik
pasatzerakoan Patxi eta aldameneko
neskatxa bertsotan aritzea; eta, auen
bertsoak entzuteagatik, gelditu eta me-
zetara berandu irixtea.

Ala, gau batean, Patxiren emazteak
alaba bat izan omen zuan. Eta goizean,
aldamenekoei berria ematearren, leio-
tik kanpora muturra atera eta bertso au
bota zuan Patxik:

Bertsoa botako det
leiotik leiora,
bart gure etxe ontan
alaba jaio da;

iñork nai badu etorri
orren bataiora,
aur orren gurasoa
Patxi Bakallo da.(1)

Eta Xenpelarrek, bertso onen berri
izan zuanean, beste au kantatu omen
zuan Bakallorentzat:

Beraz andria dezu
ezur-berritua,
ala eman didazu
neri mandatua;
bankete bat eiteko
badet desiua,
abisatu zaidazu
noiz dan bataiua.(2)

1. Justina Iraola, Txurdiñaenea.

Auxe da Patxi Bakalloren bertsorik ezagune-
na. Orregatik, aldaketa askorekin jaso izan degu.
Ona emen batzuk:

Erreteriko Juan Lujanbiok: 1: Izketan ari ge-
ra; 5: danak etorri zaitezte.

Jose Elizondo zanaren esku-idatzietan:

Bertsua botako det
leiotik leiora,
ongi entera dedin
aurra ta auzoa;
bartarratsian gure etxian
seme eder bat jaio da,
iñork nai baldin badu
betor bataiora,

aur onen gurasoa
Pello Bakallo da.

- Errenteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanak:
1: Kantari astera nua; 5: nai duenak etorri.
2. Errenteriko Pello Zabaleta bertsolaria zana.

“KRIATURAK IZANDU...”

Leenago esan degunez, Arjentina-
tik onera bein baiño geiagotan bialdu
zituan Patxik bertsoak. Iru sail oso-
-osoak aurrerago arkituko ditu irakur-
leak. Bederatzi puntuko onako bertso
au ere andik etorri ziran oietakoa
omen da:

Kriaturak izandu
ditut bederatzi,
lau il zitzaizkidan ta
bost ditut bizi;

Jaungoikoai zor dizkat
ogei milla grazi,
berak lagundu eta
danak ditut azi;
gozo eta gazi;
mantendu ta jantzi,
ez txarrera utzi,
dotriña erakutsi...
Bost egi esan eta
ilko dek Patxi.(1)

1. Antonino Pagola zana, Ernani.

“GOIZIAN JEIKI ETA...”

Garai artan, minerala egosteko ola asko omen ziran Urumea ibaiaren baztarrean, Ernaniko partean: Oianabarrren, Osiñaga, Epele, Pagollaga, Ereñozu, Amillaitz, Olazar, Olaberri, Pikoaga, Añarbe...

Minerala aaletan karreatzen omen zan. Beerakoan urak eramaten zuan aala; gorakoan, idi-pareak tiratzen zioten aalari, ibaian sartuta.

Leku askotan, ur lodia zegoen tokietan alegia, igari bezela ibiltzen ziran idiak; ur meea zegoanetan, berriz, aala arrastaka bezela joaten zan, ia ondoa joaz.

Martuteneko baserritar bati bein batean entzun nionez, mineralketan aberastutako gizon batek onela esaten omen zuan eriotzako orduan:

-Berriro bizitzeagatik, emango nuketik, ba, pozik asko, txanela bat bete urre!

Beste gertaera au, berriz, oraindik ere urte asko ez dala pasatakoa da. Garai aietan minerala gaizki egosten omen zan. Aundiena kendu eta gaiñerakoa bota egiten zuten. Olako botakin-pilla aundi bat zeukan baserritar

batek bere lurretan. Saldu egin zuan, txanpon mordoska polit bat jasota. Baita erosleak ere minerala gaurko moduz berriro egosi eta burni edergarbia atera.

Patxi Bakallo, etxea ibai ondoan baitzeukan, mineral karraio ere ibiltzen omen zan.

Egun batez, ortan omen zijoan, bera aalaren erdian eserita eta idiak uretan sartuta. Alako batean, Zikuñagako eskiñan ijito bat ikusi zuan ibai bazterrean, emakumezkoa, eta aalatik bertso au bota omen zion:

Goizian jeiki eta
onen abiyara:
iñun ezer senti badu
lapurreriya da;
gezurrik gabetandik
ori egiya da,
kontzientzi gaiztoko
Judasen kriyada.(1)

1. Eduardo Egaña, Ernaniko Portu baillaran jaioa eta ogeigarren urtea ezkerotik Donibane Lohizunen bizi izan zana.

PROMESA

Donostiako Aieteko Oriamendi baserrian jaio eta bertako Iraolan bizi zan Segundo Kalonje bertso-jartzaille ugaria zanak onela kontatu zigun bein batez:

“Gure aita zanak esaten zuan Patxi Bakallo Xenpelarrekin ondo konpon-tzen zala.

Batean, senar-emazteak Lezora joa-teko asmoarekin abiatu dira. Baiña Errenterira allegatu diranean, Xenpelar-ren etxe-atariraiño iritxi, geratu eta bertsoa bota arek, Patxi Bakallok. Bai besteak ere erantzun, eta ez dirala ixil-duko.

Andrea puska batean gustora egon-go zan bearbada, baiña gero:

- Goazen Lezoraiño eta bueltakoan ariko zerate berriz ere.

Baiña aiek segi eta segi. Andreak ostera:

- Goazen, gizona, goazen!

Aiek luzatzen, ordea, eta:

- Goazemazu, gizona! Ez al dakizu Lezorako promesa egin genduala?

Orduan Patxi Bakallok:

- Lezorako promesa egin al zen-duan?

- Nik bai. Ez al dakizu?

- Nik Errenterirako egin nuan ba.

Eta Xenpelarrekin *fuego* bertsotan.

Azkenean, andrea gizonik gabe Lezora bere umeekin.

Ori gure aita zanari bein baiño geiagotan entzuna. Beste au ere kon-tatzen zuan, Patxi Bakalloreana:

Espartzuzko sokakin ganaduren bat lotzen ari omen zan. Bateonbateg, etxe-atarian pasaeran eta:

- *¿Qué hay, Patxi?*

- *¿Qué hay?*

- Zer: espartzuzko ediak?

- Bai; ok tia neriak.

- Donostian saltzen dira Santo Tomasetan obiak.

- Aik ere ezagutzen dizkik jabiak, ta beirok geio itzik ateratzen ba-diak!”

“ATZO SANTIYAGO ZAN...”

Urte batean, Patxi Bakallo Billabonara eraman omen zuten bertsozara, Santiagotan, erriko festetan alegia.

Joan omen zan, baiña bai kantuan irabazitako diru guziak bertan gastatu ere.

Biamonean, artean Billabonan zala, sagardotegira joan eta sagardoa saltzen ari zan amonari onako bertso au kantatu omen zion:

Atzo Santiyago zan,
gaur biyaramona,
laneko gogo gutxi,
erateko ona;
erariya pagatzen det
basoko txanpona,
salduko badet ere
andriaren gona,
beste baso bat bete
biezu, amona.(1)

1. Antonino Pagola zana, Ernani.

BERE BURUARI

Bederatzi puntuko iru bertso auk
Patxi Bakalok bere buruari jarriak
omen dira.

Ala esan zigun bertsoak buruz ika-
sita gorde zituanak: Oartzungo Oki-
llegi baserriko etxejoaunak, Jose
Zugarramurdik.

Bertso geiago ere izango zituan sail
onek, baiña iru aukin konformatu be-
arke degu, besteak galduak izango di-
ra eta.

1/ Iñor etortzen bada
Bakaloren galdez,
exkiñan ortxen dago
ardo edanez;
gerta laiteke zenbait
euskaldun ta prantzes,
ori egiya dala
egin zazu trabes;
lanetikan iges
txit nabil aldrebes,
andria dolorez,
egiyak esanez,
alare konforme da
bere gizonez!(1)

2/ Mundu guzian dago
gauza ageriya,
nola aberasten dan
bertsolariya;
nekez etxeratze'itu
arto ta gariya,
igual dendatikan
soñeko berriya;
badaukat premiya
artzeko neurriya,
diruz naiz urriya,
deus ezin baliya...
Au da nere pesta ta
erromeriya!

3/ Nere bizimodua
nua deklaraten,
erozein jarri bedi
erreparaten:
zorrak errez egin ta
neketan pagatzen,
oraiñ aldian ori
zait neri gertatzen;
laboriak artzen,
kontuz dira neurtzen,
errotan lajatzen,
an ere bajatzen,
nork bere deretxorik
eztik barkatzen.

Bigarren bertsoa Pernando Ametz-
ketarraren liburuan ere argitaratu gen-
duan, zenbait aldaketarekin: *Auspoa*,
54, 61 orrialdean.

I. Bertso au beste onela jaso nion Oartzungo
Berinberri baserriko Ines Bersategi zanari:

Iñor etortzen bada
Bakaloren galdez,

eskiñan antxen dago
ardoa eranez;
ori egia dala
egizute trabes,
gerta diteke bada
español ta frantzes;
txit nabil aldrebes,
lanetikan iges,
andria dolorez,
egiak esanez;
alare konforme da
bere senarrez.

PATXI BAKALLO ETA BERE SEMEA

Aita Donostia zanaren bertso-bilduman, beste gauza askoren artean, *Cuaderno de la Argentina* deritzaion bat ere bada.

Kuaderno ortan, izenburua onela duten bi bertso-sail arkitu ditugu: “Patxi Bakallero eta bere semea” batetik; eta “Bertsuak Patxi aita emanak” besteak.

Dударик gabe, bertso oiek Patxi Bakallorenak dira.

Bertso auek Gipuzkoako euskeraz moldatuak dirala dudarik ez da. Baiña kopia ori egiterakoan, lan ori egin zuana lapurtarra-edo izanik, Bidasoaz arunzko euskeraz piska bat kutsatu egin zituan.

Leenengo saillean, izenburuak dienez, aitak eta semeak alkarri itzegiten diote:

Semeak:

Milla zortzireun larogei ta bat
orai dijuan urtea,
azienda bat erosi dut nik
iduritu-eta merkea;

ongi kuidatu bear genduke
ori umatu artea,
bertze orrentze ezta izango
nere senide-partea.

Aitak:

Kanta berri bi kanta ditzagun
jendea konsolatzeko,
semeak aunts bat erosi digu
sosa adelantatzeko;
lengo neguan agertua da
primaderan umaitzeko,
azienda onaren jabe egin gera
familia mantentzeko.

Semeak:

Leku onetik etorria da
bost kuarta esneren itzean,
laur errealen pastoa janda
mantenduko da etxean;
txakurra baizik ez ginuen len,
sartu gerade auntszean,
aitak eta amak edango dute
erreberoa zartzean.

Aitak:

Auntzak ez dizu kreditu onik
sekulan iñon izandu,
kinta batean sartutzen bada
arbola asko galtzen du;
grifia gaiztoko animalia
ezin liteke zuzendu,
nahigo nuen orren dirua
jokoan galdu bazendu.

Semeak:

Kreditu txarra seguru nuke
asiko banintz jokoan,
gaur edo biar animaliak
balioko du kanpoan;
berriz okerrik egiten badu
sarturen degu zepoan,
auntz ori merke eresia da,
nik ez dut galdu tratoan.

Aitak:

Tratu ederrak egiñagatik
suzeditzen da galtzea,
gauza txikia iduritzen zait
gizona deskuidatzea;
multa multaren gañian dator,
arriskatzen du eltzea,
okasionetik apartatzeko
obe zenduke saltzea.

Semeak:

Perdida aundia eldu zait neri
asitzen banaiz saltzera,
artzen duenak dudarik gabe
bueltatuko dit atzera;
pikardia asko dakizki orrek,
ereman zazu etxera;
gostu duenak arriska beza,
banoa errifatzera.

Aitak:

Bara ta erdi luze baditu
buruan dauzkan adarrak,
itxuraz ere arki lezake,
kolore zuri nabarrak;
egunsentian marrakaz asi,
ixildu orduko amarrak,
amairu libra pisatuko du
orren lepoko kalparrak.

Semeak:

Oraindik ere etzait damutu
tratu orretan asia,
azienda ortaz gustatutzen da
ikusten duen guzia;
alanbrea aise pasatzen du orrek,
zer animalia bizia!
Munduan bertze askoren gisa
gaztetan gaizki ezia.

Aitak:

Agoztuaren ondar egunak
Santa Rosa eta San Ramon,
motibo orrek berotu gaitu,
ez ginezke ixilik egon;
gure porfiak ez du balio,
ene semea, lau txanpon,
zure gostua egizazu eta
gañerakoak or konpon.

Semeak:

Animali bat nola daukadan
yakin dezaten kanpuan,
len ere badut.....
..... munduan,
.....
.....
kontrariorik agertzen bada
jarriko diot saltuan.(1)

Aitak:

Errifatzeko soziedadea
ederki egiña dute,
Jose Manuel bere primoa
artu du eskribiente;
dotor batekin itz egiteko
dabiltza sufiziente,
artzen duena kopetan gasta,
ala kontatu diate.

Semeak:

Kintero denak ernatzen ditu
zenzerroaren otsera,
alanbraduran jarritzen dira
lazoan arrapatzera;
baña ori aise eskapatzen da
aurrera edo atzera,

lapurrerian tripa beteta
or etortzen da etxera.

Aitak:

Bertsu berriak errematian(2)
nik erranen dut egia,
adarrak zorrotz, begiak erne,
gañera saltalaria;
mundu guzian jenero orrek
libre du lapurreria,
diruarekin ez da pagatzen
orlako animalia.

1. Bertso au ezin osorik irakurri.

2. Bearbada, emen beste onela esan bearko
luke: *Bertso berrien errematian...*

BERTSUAK PATXI AITAK EMANAK

Ernaniar askok gogoan dituzte oraindik ere bertso auk, batez ere zazpigarrena eta amaikagarrena. Aita Donostiaren bilduman gordetzen dan *Cuaderno de la Argentina* ortan dau den bezela idatzi ditugu emen.

1/ Hirur urteko pasadizua
asi bear det kontatzen,
beti ixilik balin bagaude
antzuren zaiku kantatzen;
asi bear det bear bezela
ote ditudan plantatzen,
neronek pruebak egin artian
enintzen eskarmentatzen.

2/ Hirur urtean Once-ko plazan(1)
aritu nintzen lanean,
justu-justua jateko ainbat
irabazitzen zenean;
errespetuko lekua nuen
gobernuaren menean,
andik atera nintzenaz geroz
enabil planta onean.

3/ Andik irten da korralietan(2)
bederatzi ilabetian,
irabaziak geroko eta
gau ta egun beti nekian;
español fonda *Esquina Gaucho*
deitzen dioten batian,
etxe artara sartu nintzaden
familiarren kaltian.(3)

4/ Cuarto bat bertan arkilatu eta
asi ginen trabajatzan,
txanga batzuek irabaziez(4)
ladrikoa desparbatzen;(5)
modu ortako proportzioak
neri zeraizkit suertatzen,
uda guziko lana bazela
ez baginen aserretzen.

5/ Lenguajia diferentia,
ezin konpreni esanik,
asi orduko pentsatu nian:
“Ez duk orrekin gauz onik!”.
Geiegi ere esango nuke(6)
esango banu izenik,
nik orlakorik ez dut ikusi
bataiatuko gizonik.

6/ Lau milla peso antxe ditugu
desparban irabaziak,
bertze munduan kobratutzeko
esperantzeta utziak;
ni bezelaxe gelditu ziren
koadrillan ziran guziak,
langilerikan pagatu gabe
ihes egin du nausiak.

7/ Labe-zalian kiebra eginta(7)
or yuan zaiku ihesi,
“biar artio” esan zuen ta
geroztik ez dut ikusi;
neure koleran elduko nion
borroka ere Judasi,
erreta ere ez da pagatzen
zenbeit olako nagusi.

8/ Pasto pikatzen aritu gera(8)
gero ilabete bian,
ardiki errea gatzikan gabe,
galleta panaderian;(9)
belaunak pisu, kopeta illun
eta tristura begian;
etzantza berriz ikusgarria:
oherik gabe aterian.

9/ Ez diru eta ez lan gelditu gare
uda pasa ta neguan,
jatekoa iñork fiatu nai ez,
an estiloa zeguan;
familia ere gaztexko eta
oso alrebes neguan,
orain kanpora ateria naiz
ogei eta sei leguan.

10/ Zerbeit geiago ateratzeko
etorri nintzen kanpora,
ber tamañetan arkitzen nazu
ezer gutxiren ondora;
interesetan beti bajatzen,
urtietan berriz gora,
beti geroko esperantzeta
dijua nere denbora.

11/ Sei arroba t’erdi nituen len,
biurtua naiz bostera,
au da mudantza gizon sanoak
urte batetik bestera;
dirua banu joango nintzeke
Europara ere osterera,
zer tamañetan arkitzen naizen
gorputza erakustera.(10)

1. Once-ko plaza Buenos Airesen omen da. Oar au eta sail ontako beste guziak, Patxi Bakaloren etxe ondoan jai, Arjentinan urte asko egin, atzera etorri eta berriro jaiotetxean bizi zan Pedro Iraolari zor dizkiot. Patxi au Patxi Bakaloren famili tartekoa egiten da.

2. Korralak, erderaz *corrales*, ganadu-materiak omen dira. Gaur egunean ba omen dira milla langille enpleatzen dituzten korralak: aragia izoztu eta mundu guzira bialtzen dutenak.

3. Oiartzungo Berinberri baserriko Ines Berasategi zanari, bertso onekin naiko antza daukan beste bertso bat jaso nion, berau ere Patxi Bakallorene zala esanez:

.....
.....

Jai eta aste, gau eta egun
orla aitzezkeroz lanian,
gizonik ezin bizi laiteke
luzaro zure mendian,
ni beintzat laster juango natzaizu
ill au kunplitzen danian.

4. Txanga, ain zuzen, lan bat bukatu arteko enplioa omen da; portuetako karga-deskargak, adibidez.

5. Enparbatu, erderaz, *emparvar*, pilla edo meta egin da; desparbatu, berriz, erderaz *desparvar*, pilla edo meta desegin.

6. *Cuaderno de la Argentina* ortan beste onela dago lerro au: *zein den geiegi ere esango nuke*. Luzeegia, beraz; Patxik jarriko etzuan bezela, noski. Laburtu egin degu, *zein den* kenduta.

7. Labe-zalia, ladrilloak egiteko labea duana, alegia.

8. Pasto pikatzen: belar edo alpapa ebakitzen.

9. Galleta: ogi-mota bat, emengo opillak bezela, baiña denbora askoan irauteko egiña. Iru illabetean ere irauten omen du.

10. Azken bertso au Udarregiren aitarena dala esaten da *Auspoa*-ren 56 liburuan, 20 eta 21 orrialdeetan. Baiña Patxi Bakalloreana izateak

itxura geiago du.

Udarregiren aitarena dala batek bakarrik esan zigun, eta etzekian bertso au baizik. Patxi Bakalloreana dala diotenak, berriz, mordoska dira eta bertso asko ematen dituzte onekin batera.

Bertso au beste onela artu nion Ernaniko Abalabiden jaio eta Donibane-Lohizunen bizi zan Eduardo Egañari:

Len sei arrua t'erdi banitzan,
bajatua naiz bostera,
kristau sanuak au du mudantza
urte batetik bestera!
Sosa baneuka juango nitzake
lengo lekura ostera,
zer tamañetan gertatzen naizen
gorputza erakustera.

(1889)

“DESGRAZIA BAT SUZEDITU ZAT..”

Bertso auek Arjentinan argitara arazi zituan Patxi Bakallok. Kanta-papera Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanak bialdu zidan andik.

Onako moldiztegi ontan inprentatua da: “*Tipo. Lito. La Nueva Central Piedad 1041*”. Paper onek utsegite eta oker asko ditu bertsoetan, eta ez dago ortaz zer arriturik.

Nabarmenenak eta errezenak gerok zuzendu ditugu. Baiña nola zuzendu ditezkean antzematzen zailtxoak diran beste batzuk or gelditu dira oraindik ere. Oiekiko lana irakurleak berak egin beza, derizkion eran.

Bertsoen egillea nor dan amabostgarren bertsoan esaten zaigu:

izenetikan jakin dezaten:
Patxi Bakallok jarriak.

Bertsoen gaiaz argibiderik eman bearrik ez dago. Guri, irakurtzerakoan, garai bateko bertso zaar batek diona gogoratzen zitzaigun:

Beti gustora biziko danik
ez da jaioko mundura.

Paperak izenbururik ez dauka. “Desgrazia bat suzeditu zat” gerok jarria da, leenengo bertsoetik artuta.

- 1/ Milla zortzireun larogei eta bederatzigarren urtean, desgrazia bat suzeditu zat Buenos Airesko partean; egun artaz oroituko naiz biziya dedan artean, mediku ona ez banu izan sartua nitzan lurpean.
- 2/ Alanbre batek enredatuta makur bota det pausua, kostea zitzaidan nere gorputza lurretik ezin jasua; espalda atera bi tokitatik, ausia neukan besua, asko pentsatzen ez nuen bañan zer ordu lastimosua!
- 3/ Pedro San Martin deitzen dioten mediku kuranderua, ez da posible arrapatzia gizon bat leialagua; puñu azkarrak, jakintsua da, kariñoz ere berua, nere partetik bizi bedi ongi, iltzen danean zerua.

- 4/ Lastimatuta dagon gizonak
dauzka alderdi laburrak,
Don Pedro jaunai abisatu diot
ausi ditudala ezurrak;
alde batera etortzia nai,
bestetik berriz bildurrak,
pasa bezela kontatzen ditut,
oiek ez dira gezurrak.
- 5/ Etorri eta abiatu zat
"Zer dezu, Patxi?" galdezka.
"Len zuzen zeuden ezur pobriak(1)
ona nun dauden trabeska".
Ikusi eta kontestatu dit:
"Ez ikaratu, deuz ezta".
Nere goguan: "Naiago nuke
atzo bezela baneuzka".
- 6/ Pedro San Martin famatua da
Amerikako lurrian,
neonek prueba ikusia naiz
nere begien aurrian;
probatu eta jakiten dira
mediku azkarrak nor dian,
zenbait lekutan gertatu banitz
ez negon leku txarrian.
- 7/ Akordatzeko moduan ditut
egun artako pausuak,
sufritutzeko sortua naiz ni
samiñak eta gozuak;
ez izan arren prezisamente
terreno peligrosuak,
uste ez diran parajietan
badaude estrapozuak.
- 8/ Arras batian gertatu banitz
beste askotan bezela,
testimonioz sortuko zuten
Bakallo mozkorra zala;
egun argitan suzeditu zan
lanian ari nitzala,
ordu gaiztuan allegatzetik
Jainkoak guarda gaitzala.
- 9/ Bertutiaren indarrak dira
gugandik diperentiak,
ori sinisten ez duten denak
dirade inozentziak;
naiz izan bitez gizon azkarrak,
igual komertziantiak,
gure Jainkoak nai duen artean
gerade balientiak.
- 10/ Esan dirade alanbre orri
eskapatu izan banio,
..zi galduak izaten ditu(2)
edozein erremedio;
datorrenari ongi etorri,
dijuanari adio,
pazientzia artu biarko det,
bestenaz ezto balio.
- 11/ Bestek jana eman, bestek bestitu
lotuta nagon lekuan,
geienaz ere ala jartzen da
lapur andi bat zepuan;
besua ausita, triste burua,
nenguan klase bajaran,
iñoiz aisago kaminatu det
Buenos Airesko kanpuan.

12/ Amaika salto ibiliya naiz
errioan ta legorrez,
askok bezela banidaderik
ez det izandu indarrez;
franko manejuz gobernaturik
gorputza obeto biarrez,
familia dena aunditua det,
ez daukat aurrik negarrez.

15/ Paper batian ortxen dabilta
amasei bertso berriak,
marka aundirik ez lezake egin
gizon beso elbarriak;
bestela etzuten ikasiko ere
parientien erdiak,
izenetikan jakin dezaten:
Patxi Bakalok jarriak.

13/ Berrogei ta emezortzi urte
kunplitzen zaizkit urrian,
asko ikusteko sortua naiz ni
mundura larru gorrian;
ni gertatu naiz mendian eta
igual plazaren erdian,
nik ainbat kopla botatakorik
gutxi da Euskalerrian.

16/ Azkenerako karkulatu det
bertso batzuek saltzia,
nai det jendeak zertako diren
abertentzian jartzia;
mediku eta botika eta
sangijuela eta partxia,
bentaja aundia dator nerretzat
orrekin pagatutzia.

14/ Ezurra ausita lastimosoa da
gizon zarraren erida,
ni bezela iñor gertatzen bada
egon zaitezte begira;
istanpatian atrasatu det
bizimoduko segida,
paseak pasa, konforme nago,
orain sendatzen ari da.

1. Bertso-paperak *lenago* dio. Luzeegia noski. Patxik etzuan orrela jarriko. Orregatik, *len* idatzi degu.

2. Leenengo itza ezin degu bertso-paperean osorik irakurri. *Auzi* izango ote da?

PEDRO SANTA KRUTZ ETXEBESTE
(1839-1905)

BIZITZA

Pedro Santa Krutz bertsolaria andoaindarra zan jaiotzez, baiña bere bizitzaren zati aundi bat Ernanin egin zuan, Ereñozu baillaran. Xenpelar bertsolariarengandik gertuan, beraz. Ortaz gaiñera, adíñez kide samarrak ziran alkarrekin biak. Orregatik, Pedro Santa Krutz au ere errenteriar bertsolari aundiaren taldean sartu bearra zegoan.

“Pedro Antonio de Santa Cruz y Echeveste” esaten zaio bataio-agirian. Andoaiñen jaio zan, 1839-ko ilbeltzaren 30-ean, goizeko ordu bietan. Gurasoak Jose eta Maria Krutz izan zituan, biak andoaindarrak. Izena aita-pontekoak erantsiko zion: Pedro Antonio Galardik alegia. Baiña bere denbora guzian etzioten Pedro besterik esan.(1)

Bataio-agiriak ez du esaten zein etxetan jaio zan. Baiña, beraren seme Gregoriok esan zigunez, Antzizu baserrian etorri zan mundu ontara. Baserri au Andoaingo estaziotik Urnieta alde-ra dago, kamiotik eun bat metrora, eskubitara, burnibideaz beste aldean. Gaurko egunean ere Santa Krutz dira abizenez an bizi diranak.

Ain zuzen, Pedrok berak onela esaten du Andoaingo dantzari-erri jarri zizkien bertsoetan:

ni ere Andoaiñen naiz
jaio ta azia,
ogei ta zazpi urtean
Antzizun bizia.

Bost senide izan omen ziran: Juan Bautista, Pedro gure bertsolaria, Martin Jose, Josefa Joakina eta Madalena.

Pedro ogei ta zazpi urterekin ezkondu zan, 1866-ko irailaren 25-ean. Andregaiia “Ramona de Carrera” zeritzan, Andoaingo alaba, gizongaia baiño urtebetez zaarragoa.

Adunan jarri ziran bizi izaten, Pagake edo Paake deritzaion baserrian. Baserri au Adunako zubia pasa eta eskubitara joanda dago. Gaztaiñadi bikaiña omen zuan garai artan atarian.

Iru seme izan zituzten: Juan Bautista Kalisto, 1867-X-14-ean jaioa; Jose Juan, 1870-I-15-ean; eta Esteban Florentzio, 1871-XI-7-an.

Esteban Florentzio au, jaio eta iru urte ta erdira il zan.



Paake edo Pagake baserria, Aduna.

Santa Krutz bertsolariaren ondorengoak etzuten Juan Bautista Kalisto orren berririk. Orregatik, umetan illa izango zalakoan, Adunako eliz artxi-boa aztertu degu. Baiña aren eriotz-agiririk ez degu arkitu.

Emaztea gazterik il zan, ogei ta emezortzi urterekin, 1876-ko otsaillaren 24-ean, *de una afección pulmonar*, eliz-agiriak dionez.

Pedro berriro ezkondu zan, 1876-ko uztailaren 19-an, Amasako Larre baserriko alaba zan Manuela Antonia Arregirekin. Onek ogei ta bost urte zituan. Ezkontza andregaiaren errian, Amasan, egin zuten.

Sei seme-alaba izan zituzten: Martin Jose, 1877-V-26-an jaioa; Jose Domingo, 1879-XII-13-an; Jose Agustin, 1882-XI-26-an; Antonia Josefa, 1885-VI-13-an; Blas, 1888-II-2-an; eta Gregorio, 1891-IV-18-an.

Guk Pedro Santa Krutz bertsolari oni buruzko azterketa egin genduanen, 1967 urtean, bi senide bakarrik bizi ziran: Antonia Josefa alaba ori eta Gregorio, danetan gazteena. Ematen ari geran argibideak, Andoain, Aduna, Amasa eta Ernaniko eliz-liburuetatik artuak diranak izan ezik, beraiei zor dizkiegu, Gregoriori batez ere.

Pedroren anai bat, Martin Jose, Adunan bizi izan zan, Zabalberri baserrian. Baita bertan il ere, 1926-ko uztailaren 3-an, irurogei ta amazpi urterekin.

Arreba bat ere, Madalena, Adunan bizi izan zan, Pagoaga baserrian, bertara ezkondata; eta larogei ta zazpi urterekin il zan, 1928-ko maiatzaren 15-ean.

Nekazaritzaz gaiñera, beste irabazbide bat ere izan zuan Pedro Santa Krutzek: palanketa, tiroa sartzeko arri zulatzea alegia. Ain zuzen, Pedroren denboran egin zan Irundik Madrida bitarteko burnibidea. Dakigunez, Xenpelarrek bertsoak jarri zizkien ura egitera etorri ziran frantzes langilleei. Burnibide ori ibaiaz beste aldetik badago ere, Paake baseritik urbil samar igarotzen da, eta Pedro ere an jardun zan lanean. Arrobietan ere aritzen omen zan.

Pedro Santa Krutz ez omen zan plazetan bertsotan jarduten. Bai, ordea, sagardotegi eta lagunartean. Makiña bat bider kantatu omen zuan Pello Errota eta Jose Bernardo Otañorekin. Auek, bat Asteasukoa eta bestea Zizurkilkoa izanagatik, beren etxeak Santa Krutzen baseritik alde xamar baitzeuzkaten.

Are alderago oraindik garai artan, Adunako zubia artean egin gabe baitzegoan. Zubirik gabe, Adunatik Billa-bonara joaterik etzegoan ibaiaren bazter batetik baizik; eta ontatik barrena zijoana, ain zuzen, Otañotarren etxe ingurutik eta Karidadeko bentaren ate ondo-ondotik igaro bearra zeukan.

Karidadeko benta ontan izaten omen ziran inguru ortako bertsolarien billerak. Garai artan, txoko au bertsolari-baratz emankorra genduan. Emengoak ziran Otañotarrak -Errekalde Zaarra, Jose Bernardo eta Pedro Mari-, Agustin Zakarra, Pello Errota eta bere anai Juan Krutz, Juan Jose Ugarte eta abar. Zerrenda orri beste izen bat erantsi bear diogu: Pedro Santa Krutz.

Egun batez, Jose Bernardo, Pello Errota eta gure Santa Krutz au bertso-

tan ari ziran Zizurkilko edo Billabonako sagardotegi batean. Beste bien etorria zer zan bazekian nunbait jendeak; ez, ordea, Santa Krutzena. Orregatik, onen bertsoekin arritu eta gustaturik, onela esaten asi omen ziran entzuleak:

- Etzegok iñun olako Xenpelarrik! I aiz Xenpelar, i; ez Erreterikoa!

Biamamonean, onela esan zion auzoko batek, alkarrekin topo eginda:

- Kaixo, Xenpelar!

Pedrok:

- Zergatik Xenpelar?

Eta besteak:

- Zergatik? Ez al zizuten atzo esan Xenpelar baiño ohea zerala?

Andik aurrera Xenpelar izan zuan izengoitia. Berak, ordea, min artzen zuan, bai-baitzekian burla antzean esaten ziotena.

Egitazko Xenpelar andik laster il omen zan. Onen eriotza 1869 urtean gertatu zan. Orregatik, ogei ta amar urtetik beerako gazte sasoikoak izango ziran artean bertso-saio artako iru bertsolariak: Pello Errota, Jose Bernardo eta Santa Krutz.

Zoritxarrez, ez da Santa Krutzen aotik aorako bertsoerik gorde izan, bere seme Gregoriok eman digun bakarra izan ezik.

Bertso jartzen ere saiatzen zan, ordea, eta oietako batzuk eldu dira, Jaunari eskerrak, gure eskuetaraiño, batzuk bertso-paperetan eta beste batzuk beraren seme Gregoriok buruz zekizkian bezela.

Pedrok gorde eta bildu egiten omen

zuan, txukun asko, berak jarritako bertso-paper bakoitzetik ale bina edo iruna. Bera il ondoren ere etxean gordeta egon omen ziran urte askoan. Baiña egun batez beraren seme Martin Jose zanak, etxerako gelditu zanak alegia, eskaleren bati eman omen zizkion guzi-guziak. Jakindakoa, pena ederra artu zuten noski senideak.

Soroan ari zala ere bere artean argurioan, kantuan alegia, jarduten omen zan. Gero, etxera etorri eta gela batean sartzen omen zan. Seme-alabak ate-zirrikituetatik zeletatu omen zuten bein baiño geiagotan, eta idazten ikusten zuten beti. Somatu aala, berak idazten omen zituan bertsoak, eskola ona zuan eta.

Bertso-paperak saltzen, berriz, leenengo ezkontzako Jose semea ibiltzen zan. Abots lodi samarra eta oso garbia omen zuan. Donostiako Bretxa eta Tolosako Zerkausia toki jakiñak izaten zituan.

Abotsa ez-ezik, etorria ere bai omen zekarren Jose orrek bertsoerako. Artean mutil gaztea zala, peri egun batez, aitarekin Tolosara joanda, Jose Bernardo eta Pello Errotarekin bertsoetan egin omen zuan tabernaren batean. Ondoren, ala esan zioten auek aitari:

- Mutil onek, segitzen badio, ez du gure bildurrik izango.

Etzion segitu, ordea. Eta il ere, gazterik xamar il omen zan.

Emen dijoazen bertso-sailletaz gainñera, Andoaingo eta Amasa edo Billabonako Misioenak ere jarri omen zituan, baiña ez ditugu iñon arkitu.



Alkatxuin baserria, Ernani.

Pedro Santa Krutz bertsolaria, 1891 urtean, Adunako Pagake edo Paake ortatik Ernaniko Alkatxuin baserrira aldatu zan, gero esango degun arrazoia-rengatik.

Emen amalau urte egin zituan; il zan arte alegia.

Auzoan andre bertsolari gizatxar bat omen zuan; eta arekin ere, alkarrekin aserre-aizea egokiturik, bertso-saio bat edo beste egiña izan bear zuan.

Pedro Santa Krutz izu-aldi batetik il omen zan. Illunabar batean, gaizkiturik zegoan leengusu batengana joan zan, Fagollagara, gau erdira arte gaixoari kontu egitera. Ordu biak inguruan, erreleboa etorri zitzaionean, etxe aldera abitu zan. Alako batean, ordea, bide erdian zakur aundi bat azaldu zitzaion, eta ezin andikan iñola ere uxatu.

Parte gaiztokoa izango zalakoan, eta sorgiñak pigura aurrean eta bera atzean izaten dutela gogoraturik, makillarekin kolpea atzera tira zion. Baiña orduan makilla eskutik kendu egin ziotela esaten zuan. Orrekin zakurra bistatik galdu egin zitzaion, baiña bera ikaragarri izutu.

Baita bereala gaizkitu ere. Dana aunditu egin omen zan. Izuarekin biotza mugitua zuala esan zuan medi-

kuak. Illabete bat iraun zuan; 1905-eko azaroaren 17-an il zan, irurogei ta zazpi urterekin, gau erdiko ordu batean, Alkatxuin baserrian, *por insuficiencia mitral*, eliz-agiriak dionez; biotzetik, alegia.(2)

Baiña eriotz agirian oker aundi bat dago. Pedro alarguna zala esaten da: “*Estaba viudo de D^a Manuela Arregui, natural de Amasa-Villabona, de esta provincia, en el acto del fallecimiento*”. Etzuan au irakurri emazte gajoak. Andik bi urtera il baitzan; eta, senarra bezela, izu-aldi batetik il ere.

San Tomaseko bezpera aurreko goizean etxeak su artu omen zuan. Itzali zuten, baiña andik aurrera ura baldarka-baldarka asi zan, eta il ere artatik egin omen zan, “*por insuficiencia mitral*”, eliz-agiriak dionez. Biotzetik, beraz, senarra bezela. Eguna, 1907-ko azaroaren 29-garrena zan, eta berrogei ta amasei urte zituan.(3)

1. Andoaingo 8-garren bataio-liburuan, 190-garren orrian.

2. Ernaniko 9-garren eriotz-liburuan, 167-garren orrian.

3. Ernaniko 9-garren eriotz-liburuan, 253-garren orrian.

BERTSO BERRI BATZUREK PEDROK ERBIYARI ZEÑEN POLIKI DIYON PEGATU BERARI

- 1/ Para biar nituzke
zenbait bertso berri,
Adunan zer pasa dan
itz egiñez garbi;
nola pegatu diran
erbi batek neri,
jakin nai dituena
atenditzen jarri.
- 2/ Birjiña Konzepzio-
ko arratsaldian,
rejistruan nebillen
geren sagastian;
erbi bat ikusi det
antzaz bazterrian,
lo etzanda dagola
patxara ederrian.
- 3/ Etxera juan ta ekarri
nuan eskopeta,
baita ustez erbiyari
ederki apunta;
benakai tira niyon
ta ederki salta,
surikan ez dit artu
pistoia ez lertu ta.
- 4/ Benakak uts egin du
tximeneta jorik,
erbiyak lo egiteko
etzeukan gogorik;
belarri erniak zeuzkan,
ez du gorreririk,
San Gregoriora ez du
promesa egin bearrik.(1)
- 5/ Tximenetaren otsa
entzun duanian,
denbora asko ez du
pasa sasi pian;
beldur enemigoren bat
ote dan gañian,
gutxienez saltatu da
larogei oñian.
- 6/ Goitik bera aldapa
andiya zeguan,
bazirurin abitu
ote zan eguan;(2)
sagarraren gañetik
barrena saltuan,
geiago lurrik joko
etzuela uste nuan.

7/ Lurra jo duanian
ai aren abira!
Junturak sano zeuzkan
itxurak badira;
aldapa gorai egin
diyo ensegida,
ez da luzaro egon
atzera begira.

11/ Alako martxarikan
zuanik erbiak,
sinistuko ez nuan,
orra esan egiak;
ariñ zeramazkiyen
anka eta epurdiyak,
laister egin ditu nere
bistako aldiyak.

8/ Amor ematen zuan
erbi orrek moduz,
tiratutzen zan bapo
anka eta buruz;
ni ondoren segika
oju eta marruz,
etengo zala uste nuan,
luzatzen zan erruz.

12/ Neri suak uts egin da
ez du egiñ negarrik,
ondorian atera
bai salto ederrik;
junturak bigun dauzka,
listo anka gorrik,
bolara ontan ez dauka
perratu biarrik,

9/ Itxoiteko esan niyon
bañan etzan jira,
errespuesta eman balu
utsa zan sikira;(3)
ni mugitu baño len
juan zat urrutira,
ez agur da ez adio
egin dit partira.

13/ Preziso ez naiz ari
eizian erronkan,
su artu izan balit
seguru nedukan;
arrapatu ezkerro
balitzake nork jan,
zer kazuelakada
ederra dadukan!

10/ Sagastiyan jetxi ta
laister zan soruan,
golde bat lur pasa du
lenengo saltuan;
gero boteka asi da
apia puntuan,
“enatxiok iretzat”
ark bere goguan.

14/ Erbi ura ez dago
nigana koleran,
sano utzi deralako
orduko bolaran;
esango du ark: “Pedro
zer gizon ona dan!”
Ain gaizki tratatua
apenas juana dan.

15/ Seko il biar nuen
nik aisa ala ere,
suetan egon banintz
zenbait beziñ trebe;
nik arma txarra izana
arrentzako obe,
eziñak gelditu nau
arrapatu gabe.

16/ Orra amasei bertso
para erbi bati,
iltzia uste nuen baño
sano da nigati;
zerri aulak ezkurra
amets oi du beti,
jan nai genduke baño
egin digu tati.

Amasei bertso auk Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldu dira, “*Eibar. - Imprenta de Orúe*” moldiztegian argitara emandako bertso-paperean.

Egilearen izena ematen da bertso auetan: Pedro; abizenik ez, ordea. Pedro Santa Krutzenak dirala beraren seme Gregoriok esanda dakigu.

Baita gertaeraren berri eman ere, onelatsu esanez:

“Ama Birjiña Kontzezioko egun batez, bere lurrei begiratu bat ematen zijoala, sagastian erbi bat lotan ikusi zuan Pedro Santa Krutz bertsolariak.

Etxera etorri, bere pistoizko esko-peta artu eta sagastira itzuli zan berri-ro, ixil-ixilik.

Erbia lengo tokian arkitu zuan, lotan oraindik ere. Tira zion, baiña su artu ez; eta tximinetaren otsarekin erbia esnatu eta alde egin zuan, tximista be-

zin azkar, eiztaria esku utsik gelditzen zala.

Andik, naigabea kentzera-edo, sagardotegira joan zan gure bertsolaria. Erbiarekin zer pasa zitzaion lagunei kontatu zien; eta auk, gertaera arek bertsoak merezi zituala, eta arren eta arren jartzeko asi zitzaizkion.

Baita jarri eta paperetan argitara arazi ere. Lenengo txandan milla ale atera omen zituan. Oiek artu eta Donostira joan zan seme zarrena, Jose. Paperak bosna zentimo kobratzen zituan, eta egun artan bertan guziak saldu.

Orduan beste milla paper inprintatu zituan, eta Tolosara joan zan saltzera. Baita emen ere guziak saldu”.

* * *

Orain ogei ta sei urte, Pedro Santa Krutzen bizitza eta bertsoak argitaratu genituanean, *Auspoa*-ren 66-garrenean, bertso-papera eskuratu gabeak giñan; eta bertsoak Tolosako Baleriano Mokoroa zanak eta Pedro Santa Krutzen seme Gregoriok buruz zekizkiten bezela agertu genituan, bien artean amaika bertso eta beste baten erdia osatuz.

Bertso-oiek: 1, 2, 3, 5, 7, 10, 11, 9, 14, 12, 13-garrenaren bigarren erdia eta 16-garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/4: nere sagastian; 2/6: sasi-bazterrian; 5/5: beldur enemigon bat; 5/6: ote zun gañian; 5/7: gutxienaz salta da; 7/3: junturak bigun zeuzkan; 7/5: aldapai gora ekin; 7/7: etzan luzaron egon; 9/6: joan zan urrutira; 10/6: *a pieka juntuan*; 12/1: Neri suak utsegiñ; 12/5: belarriak erne dauzka; 12/7: San Gregoriori ez dauka; 12/8: promes in biarrik; (12/5-8 lerroak aldatu gabe esaten zituan Mokoroa jaunak); 13/1-4: falta; 14/5: ark esango du; Pedro; 16/1: Orra amasei bertso.

* * *

Ona, azkenik, bertso auen doiñua,
Baleriano Mokoroaren seme Aita
Justo Marik bialdu zigun bezela:

1. San Gregorio belarrietako miña kentzeko
santua.

2. Bertso-paperak: *egoan*. Punturako, *eguan*
bear du noski.

3. Bertso-paperak: *sikiera*. Onekin ere berdin
gertatzen da: punturako *sikira* bear duala.



Pa - ra - bi - ar - ni -
tu - ke - zen - bait - ber - tso - be - rri, A -
du - nan - zer - pa - sa - dan - itz
e - gi - fiez - gar - bi; no - la - pe -
ga - tu - di - dan - er - bi - ba - tek - ne -
ri, ja - kin - nai - di - tu - a - na - a -
ten - di - tzen - ja - ri.

BERTSO BERRIAK

PEDRO SANTA KRUTZEK JARRIAK

(SAN PEDROREN BIZITZA)

San Pedrotan festak izaten dira Andoingo Kale-txikin. Pedro Santa Krutz kale onen baillaran jaioa zan, Antzizu baserrian. Orregatik, San Pedro egunarekin jaiotexera joaten zan bazkaltzera, Andoingo elizan meza nagusia entzun ondoren. Batean, San Pedroren bizitzari buruz sermoi ederra egin zuan apaizak Gogoan jaso zuan, Pedrok, eta bai gero bertsoak moldatu ere. Seme zaarrena, Jose, ibili zan paperak zabaltzen. Bi milla saldu omen zituan.



Ber- tso be - rri ba - tzu-ek
ni nu - a jar - tze - ra,
Bir - ji - ña so - be - ra - na
a - toz la - gun - tze -
ra; san - tu ba - ten bi - zi - tza



nu - a ai - ta - tze - ra
en - tzun nai du - nik ba - da
be - tor a - di - tze - ra
ze - ru - ko gil - tzen ja - bi - a
nu - a ko - pla - tze - ra.

1/ Bertso berri batzuek
ni nua jartzera,
Birjiña Soberana,
atoz laguntzera;
santu baten bizitza
nua aitzera,
entzun nai dunik bada
betor aditzera,
zeruko giltzen jabia
nua koplatzera.

- 2/ Nere izeneko santu
glorioso Pedro,
zure laguntza eske
nago orduero;
zer bizitza zenduan
munduan igaro,
eziñ esan nitzake
guztihak ziara,
batzuek irakortzen
egirazu anparo.
- 3/ Gure Aita San Pedro
galileatarra,
arrantzale pobrea,
ez duke erreala;
Jesus topo egin du
koston datorrela,
eskama bat aña're
txalupan etzuela,
esan zion sareak
zabaldu zitza.
- 4/ Jesusek aginduta
Pedrok obeditu,
txalupatik sariak
laister bota ditu;
beriala pildutzen
ziraden abitu,
puntaraño betiak,
geigo ezin kabitu;
Pedro milagro orrek
txit zuen arritu.
- 5/ Pedrok milagro ori
ala ikusita,
fedia jarri zaio
firme itsasita;
Jangoikuaren Semia
zala igarrita,
txalupa, arrai, emazte,
ama eta aita,
berai segitu zion
guztihak utzita.
- 6/ Jesusek ikusirik
Pedroren fedia,
denboraz eman zion
bere eskubiria;
predikatzen asi zan
Jaunaren legia,
Zenakuloko atariyan
bildu zan jendia,
bi sermoitan bost milla
gonbertitu dia.
- 7/ Kontu oiek entzunda
liteke arritu,
baten memoriyan eziñ
litezke kabitu;
lenguaje guztitakuak nai
sermoia aditu,
Pedrok batera itzegin,
danak entenditu,
Jaunaren grazihak zuan
ala dirijitu.

8/ Zenbait predikaderek sermoia asten du, eta atentziyua askok paratzen du; belarriyak aldia artara zuzendu, bekatariyai: “Zuk au egingo bazendu!”, gogoz dagonak erraz entenditutzen du.

11/ Fariseuak Pedro sartu zuten itxiyan, an ere egon zan alferrik denbora gutxiyan; presionero-saill aundiyak ura zan tokiyan, aieri nola itzegiñ ark bazerekiyan, denak gonbertiturik bataiatu zian.

9/ Kristoren Bikariyo Simon zan aurrena, Elizaren zimendu badakit zaudena; argatikan du Pedro bigarren izena, ori da arrantzale munduan izana, lenbizi arraien da gero kristauena.

12/ Fariseuak ziyoten ori ekustian: “Preso eduki degu gerentzat kaltian; jendia gonbertitu du kartzela betian, iltzia merezi du gurutze batian”. Sententzi au izan du Pedrok atzenian.

10/ Munduz-mundu zebillen Pedro predikatzen, Jesusentzako anima asko irabazten, gure obligaziyuak zuzen erakusten; batzuek begi onez etzuten ekusten, supritu ezin zutenak preso sartu zuten.

13/ Kartzelatik irten zuten San Pedro iltzeko, borrreruai esan ziyen itz au aditzeko: buruz bera ta oñaz gora gurutzian josteko, etzala diña Jesus bezela jartzeko, mundu guztiyan bistan ala agertzeko.

14/ Borreruak txit ontzat
ziyoten au artu,
geigo penatuko zala
ziraden kontentu;
pazientziyan pasarik
oinbeste tormentu,
bere anima Jaunari
diyo enkomendatu,
penatik gloriyara
ala zan aldatu.

15/ San Pedro Aita Santu
Erroman lenbiziya,
fede katolikua
zabaltzen asiya;
orain gozatzen dago
grazi ugariya,
justuairi egiñaz
ongi etorriya,
zeruko atian dago
portero jarriya.

16/ San Pedrok justuai
arrera alaia:
“Ongi egorri -esango’io-,
arriba edo anaia;
zerura sar zaitetz orra
atia irikiya,
Jesusek emango’izu
obra onen sariya,
silla eder bat or dauka
zuretzat jarriya”.

17/ Pedrok nai du guztiyok
ara juatia,
gustora irikiko
liguke atia;
bidera irten ere bai
Birjiña maitia,
ingurua duela
aingeruz betia;
ala gerta dedilla,
orra errematia.

* * *

Bertso-papera, moldiztegi-izenik
gabea, Altzo-azpiko Olazabal-berri ba-
serriko Inazio Zabalaren eskutik.

BERTSO BERRIAK PEDRO SANTAKRUTZ-EK ANDOINGO DANTZARIARI JARRIAK

- 1/ Para biar nizkake
zenbait bertso berri,
Andoaingo erri
noble leialari,
eta an bizi diran
jende prestuari,
prestatu dutelako
ainbeste dantzari.
- 2/ Biba Andoaingo
Aiuntamentua,
eta bezindario
firme sonatua;
dantzari eskuadra
dago formatua,
lengo kostunbria oiek
ez daukate aztua.
- 3/ Dantzari ederrak ziran
len ere Andoañen,
aspaldiko urteetan
ez baita izaten;
sonatuak ziraden
probintzi guztien,
erri askotara aiei
deitzen zitzaien.
- 4/ Gaztiak asi dira
lenguen legera,
mobimentuak listo
gora eta bera;
saietsetara igual,
aurrera eta atzera,
orien junturetan
ezurrik ote da?
- 5/ Kabriolak txit zuzen
guztiak batera,
kuatropeluak igual
batetik bestera;
saiatuko dira firme
ondo ikastera,
juan gabe ezin egon
oiek ikustera.
- 6/ Leziaturik daude
zortziko danetan,
ezpata-dantza igual
eta makilletan,
zintak lotu-askatu,
arkuak eskuetan;
ikusgarriak daude
tablero gañetan.

- 7/ Amabi mutiko gazte
launaka jarriak,
kapitana amairu,
oraingo berriak;
dantza lenengoetan
ondo ikasiak,
batera bukatzen dituzte
konpasa guztiak.
- 8/ Kabriolak txoill gora,
zer dardarizuak!
Saietsetara salto
izugarrizkuak;
atze-aurrera igual,
daude guztizkuak,
oiek dirade mutill
fundamentuzkuak.
- 9/ Dantzari kasta baita
Andoaingo jendia,
aspaldian atzenduak
sobra egon dia;
esaera zarra da:
“kastatik kondia”;
lenguen ordezkua
or azaldu dia.
- 10/ Biba, gazte nobliak,
alegra zaitezte,
askok nai dizute eta
ezin egon triste;
zuen parekorikan
danik ez det uste,
zenbaitxe lekutara
deitutzeko zaute.
- 11/ Andoañen dantzariak
kostunbre zarrían,
ikusitzen dezute
nola azaldu dian,
berén jantzi ederrakin
tablero gañian;
orixen da ibiltzea
formalidadian.
- 12/ Ondo portatzen dira
oraindañokuan,
begira oien sona
noraño dijuan;
biba andoaindarrak
berén zortzikuan,
ederki ematen dute
plaza publikuan.
- 13/ “Ai, oiek dantzariak!”
askok esaten du,
musikak ere txandan
akonpañatzen du;
orrelakorik ez da
lenago izandu,
Saldiasek sistema
onik asmatzen du.
- 14/ Dantzariak, alkate jauna
bere igualakin,
osasuna diela
urte askorekin,
Jesusen bendiziua
dutela berekin;
au deseatzen diet
pake onarekin.

15/ Erritar maitiak, milla
onra eta grazia,
festa onak egitea
dute arrazoia;
ni ere Andoañen naiz
jaio eta aziya,
ogei ta zazpi urtean
Antzizun bizia.

16/ Antziñetatik ere
an dago esanik:(1)
ez dala Andoañen
faltako gizonik;
egiztatu derien
errepañña oraindik,
urte oro segitzeko
agintzen diet nik.

Bertso-papera, “Tolosan: Pedro
Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen
Moldiztegian, 1892-garren urtean”,
Errenteriko Joakin Ganborena Zabala-
ren eskutik jaso.

1. Bearbada, emen *au dago esanik* bearko lu-
ke.

(1887)
PELOTA PARTIDUARENAK

Donostiako *Jai-Alai* pelota-plazan, 1887-ko azaroaren 6-an leenengo bertsoak esaten duanez, pelota-partidua jokatu zuan Billabonako Mankuak, Pedro Yartzak, iru frantzesen aurka; beso bakar batek seiri, bertsoetan adierazten danez. Baita irabazi ere.

Falta zuana eskubiko besoa omen zan, txikitan segarekin ebakita.

Partidu ori zala-ta, Pedro Santa Krutz bertsolariak bertsoak jarri zituan.

Oi zuan bezela, seme zaarrena, Jose, joan zan Donostiara paperak saltzera.

Baiña aguazillak galerazi egin zion. Beste zenbait erritan saldu zituan, ordea. Leenengo, milla paper atera omen zituan, eta aitu egin ziran. Urrena, beste millako bat inprentatu, eta mordoska bat ezin saldurik etxean gelditu zan.

Ala ere, ez degu ale bakar bat ere eskuratu aal izan.

Amasei bat bertso omen ziran. Baiña Pedro Santa Krutz bertsolariaren seme gazteena, Gregorio, etzan bost auetaz baizik oroitu:

- 1/ Milla ta zortzireun da larogei ta zazpi, azaruaren seia izango zan noski; *Jai-Alai*-n partidua jokutzen dira asi, Billabonako Yarza beste iru prantzesi, beso batekin seiri die irabazi.
- 2/ Zuk beso bakarra ta iru prantzes kontra, ta aiek aña birian pelota nork bota? Karrillian pasarik *Jai-Alai*-tik jota; ala ere Pedrori etzaio inporta, marka ederra para du irabazi du ta.
- 3/ Prantziyan diran onenak Españira eldu, Mankuak kontra eiteko korajia badu; iruren kontra bakarrik, alare ez galdu, jaun orrek pama aundiya merezi ez al du? Orrelakorik ez da oraindik azaldu.

4/ Barreretan prantzesak
au argumentua:
“Deabruia ori eztuk
parte onekua;
nundik-nai irteten du
beriala tantua,
maña aunitz baitauka,
eztago tontua,
deabruia orrek baleuka
ori're moztua!”

5/ Fuerte jokatu dute
prantzes-españolak,
tranpa aundirik gabe
saia egiñalak;
irurak jotzalle aundik,
kasikan igualak,
galdu arren merezi
dituzte jornalak,
danak portatu dira
txit gizon formalak.

MUTILZARREN BERTSOAK

Bertso auek ere inprentatu eta pa-peretan zabaldu omen ziran, baiña ale-rik ez degu iñon ere arkitu. Pedro Santa Krutzen seme Gregoriok buruz zekizkian eta berari kopiatu dizkiogu. Beste bertso bat ere ba omen zan, bai-ña ura aztuta dauka.



Ber- tsu-ak pa-ra-tze - ko ar-
 tu det or-de - na au da pre-
 ten-tsi-yu - a mu - til zar ba-te - na
 i - ra-kur - tze-ko on - do bi - zi-tza
 a - re - na Jau - na zu - re la - gun -
 tza bi - ar det au - rre - na.

1/ Bertsuak paratzeko artu det ordena, au da pretentsiyua mutilzar batena; irakurtzeko ondo bizitza arena, Jauna, zure laguntza biar det aurrena.

2/ Gaztetan nitzan oso mutil ugariya, gorpuz delejentia, kolore gorriya; zenbaitek izan zuben nere inbiriya, amaika damak bota ziraten begiya.

3/ Sasoiak itxogingo zubela ustian, ibazin ibilli nitzan bat eta bestian; orain arkitutzen naiz estadu tristian, neskatxak ikusi nai ez naute aldian.

- 4/ Nere poltsan badago
zenbait begi-gorri,
aien pozian ez du
iñork nai etorri;
arrimatzen asitzen
banatzaio iñori,
despreziyua azkar:
“Ortik zikiñ ori!”.
- 5/ Bein batez neskazar bat
pretenditu nuan;
esan ziran: “Zu ta ni
alkarren onduan
oyik ezin berotu
biar dan moduan,
otzak ilko giñuke
datorren neguan”.
- 6/ Ark ere etsipena,
nik daukan trantzia!
Au da estimaziyua
batetan galtzia!
Esan dit sasoyian
nagola pasia,
eztala nere zale,
alapekotxia!
- 7/ Etsiyan egon biarko
det bat ere gabe,
jaiotexian bada
nere danen jabe;
kuarto batzuk baditut,
aiek eman noble,
anaiak ta koñatak
artuko al naue!
- 8/ Satispaziyoz bildu
niztan aietara,
orain probatutzen det
bost aieketara;
oiekin bizitzerik
eztago naiera,
bost aldiz juaten naiz
zaputzez oiera.
- 9/ Zaputzez oira juanda
mutilzar tristiak
asarretxo daduzka
tripako estiak;
lorikan ezin egin
nagola gosiak,
ta gañera baditut
persegidoriak.
- 10/ Zikiñak iya jan nau,
azienda ugaritu,
garbitzallerik iñon
ezin det arkitu;
denboraz balitzake
oik zeñek garbitu,
bakoitzak eun errial
baliyo balitu.
- 11/ Illoba bat badegu,
alaba bakarra,
lotsagabia oso,
gaiztua ta azkarra;
aren dotriña neri
burla eta parra,
judiyuetan ere
obegorik bada.

12/ Gabian esertzen naiz
etxian sartuta,
gure illoba trastia
ez luak artuta;
kokotzian bizarra
daukat luzatuta,
atzera botatzen nau
andikan elduta.

13/ Orduantxen artzen det
bastante kolera,
jipatzeko asmuan
abitzen naiz bera;
zer belaun gozo dedan
ortan siñale da:
bereal erortzen naiz
muturrez aurrera.

14/ Silla ta guzi oi nau
ankaz gora bota,
apariyaren ordezt
balenziano buelta;
ezer esaten badet
aba zabalduta,
illatiya sartzen dit
eskuba sartuta.

15/
.....
.....
.....
ezer esaten badet
kontra anaia bera,
koñeta erriyetan
datorkit aurrera.

1. Alapekotxia esaera bat omen da, *alajaña*
bezela, orduan asko esaten zana.

(1891)
ETXE ALDAKETA EDO BERTSO
BATZUEN ONDORENA

Leen ere esan degun bezela, Pedro Santa Krutz bertsolaria Adunan bizi zan, Pagake edo Paake deritzaion baserrian.

Maizterra zan, eta Aduna bertako Etxeberrri baserriko iru anai mutilzar zituan nagusiak.

Aiek, ordea, mutilzarren bertsoekin izugarri asarretu omen zitzaizkion, berentzat jarriak ziralakoan.

Pedrok ezetz eta ezetz esaten zien; bertsoetan illoba bat agertzen zala eta berak illobarik etzutela eta abar. Baiña etziran konformatu.

Mengantzaz, Pedrok erabiltzen zituan lurretan sagastia jarri eta orrelakoak egiten asi zitzaizkion. Despatxatu ez alegia; bai, ordea, aal zuten enbarazu guzia egin.

Ala, modu artan an bizitzerik etzegoala eta beste baserri baten billa asi zan; eta Alkatxuin deritzaiona arkitu zuan.

Alkatxuin baserri au Ernaniko partean dago, Naparro aldera, Ereñozu baillaran, emendik ogei bat minutura, goi xamar, malda batean.

Aldaketa egiten ari zan egunean

-San Martiñak alde ortan, ain zuzen-, Fagollagako tabernan Goizuetako Xardia bertsolaria egotea suertatu zan.

Xardia onek erdiko iru beatzak falta zituan esku batean, beatz txikia eta lodia ez beste guziak alegia; eta orregatik esaten zioten Xardia, aren eskuak sardea zidurialako.

Ala, *Xardia* orrek, tabernatik Pedro gurdiairekin ikustean, onela kantatu omen zion:

A- dix-ki - di - a An-
do-ain - di - kan za- toz E - fia -
zu al - de - ra, nik a - di -
tu dc - da-nez nos - ki Al-
ka-txu - in - go la - rre - ra;

Pedrok onela erantzun zion:

The musical score consists of five staves of music in a treble clef with a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes. The lyrics are: e - gu-nen ba - tez goa - tu-ko ze - ra noiz e-gin de - zun sa- rre - ra bi - zi-mou o - na pa- sa - tu - tze - ko e - tza - toz le - ku txa - rre - ra.

Adixkidia, Andoaindikan
zatoz Eñazu aldera,
nik aditu dedanez noski
Alkatxuingo larrera;
egunen batez goatuko zera
noiz egin dezun sarrera,
bizimou ona pasatutzeko
etzatoz leku txarrera!

Adixkidia, tabernatikan
egin dirazu ijua,
nunbait etzazu zuri gustatzen
orain nijuan lekua;
ontzai egatzeko gustatzen zaio
beti paraje altua,
lenago ere ez nazu beti
erriberan usatua.

Dakigunez, Pedro andoaindarra zan
jaiotzez, eta andoaindarrei *ontzak* esa-
ten zaie izengoitiz. Orregatik aitatzen
ditu bertso ontan egazti oiek.

Xardia-k beste bertso bat ere kanta-
tu omen zion. Baiña Pedrok, kasorik
egin gabe, aurrera segitu zuan. Kantu-
rako umorerik ez baitzuan izango.

Arrezkeroztik ez omen zuan geiago
bertsorik jarri eta saldu, andik bost ur-
tera Ereñozuko Misiorenak izan ezik.

ERNANIKO ERIÑAZUKO MISIO SANTUAREN OROIPENGARRIAK

Ereñozuko San Antonio eliza, Urumea ibai edo erreka-zuloaren parrokia da. Aren barrutia Ernanitik asi eta Naparroako mugaraiño irixten da. Eliz ori nola egiña dan, Txirritaren bizitzaren liburuan adierazten da.

Eliz ortan misioak izan ziran 1896 urtean, eta Pedro Santa Krutzek bertso auek jarri zituan oroipengarri. Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genituan, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean.



Mi - lla ta zor - tzi - reun - da
la - ro - gei ta a - ma - sei,
mi - xi - o san - tu on bat
jar - tzi - a da a - rra - zoi;
U - ru - mi - an ba - da - go



so - bra zen - bait pu - zoi,
bo - ti - ka ' pres - ta - tze - ra
da - duz - ka - gun gai - tzai
don Blas Pra - de - re el - du da
gu - re a - ni - men ar - tzai.

1/ Milla ta zortzireun
larogei ta amasei,
misio santu on bat
jartzia da arrazoi;
Urumian badago
sobra zenbait puzoi,
botika prestatzera
daduzkagun gaitzai
Aita Pradere eldu da
gure animen artzai.

- 2/ Aita San Antoniyo
da gure Patroya,
bera misionero
lenago ibilliya;
presentatu zaio orañ
lagun bat berriya,
zabaldu nairik gudan
grazi ugariya,
ongi etorri dala,
bazegoan premiya.
- 3/ Predikatzen asi da
nola dan fedia,
ukatutzen dutenak
naikoa badia,
erdi zorua baita
alako jendia;
aditu dutenian
nundik dan bidia,
burua makurtuta
ixil egon dia.
- 4/ Zer moduz iristen dan
bekatuan gaitza,
Aita Don Blas Pradere
ederki da mintza;
gaur bada biyarko ez da
munduko bizitza,
beti emengoak bagiña
bezela gabiltza,
utsak engañatuta
eruaren gisa.
- 5/ Etzaio egin biar
fediari burla,
gauza au konprenditutzen
txit dago samurra:
eternidade luzia,
bizitza laburra,
segitzen bada aurrera
bekatuan orrela,
laister da infernuan
anima illezkorra.
- 6/ Egiyak esaten ai da
misiyo guria,
aditu diyogu gogoz
bere languajia.
Lenian segitzea
al degu obia?
Pekatuaren mantxa da
neurrik gabia,
ark illerazo zuan
guztizon Jabia.
- 7/ Nere kristauak, pensatu
nork bere klasian,
oituran izan bada
denbora luzian:
pekatu mortala egin
degun bakoitzian,
atormentatu degu
Jesus gurutzian;
nori biyotza ez lertu
ori aditzian?

- 8/ Mantxa gabe ez gaude
persona klaserik
eta garbitu ondo
badegu lotsarik;
gaiztuen esanari
ez egin kasorik,
gaitzerako bidian
añ gutxi pausorik,
Jesusi enkomendatu
anima osorik.
- 9/ Blasfematzen askotxok
degu emen ikasi,
gauzarik zikiñenak
eskeñtzen Jesusi;
zer kastigu dakarren
nai det adierazi,
euskaldunen izena
zakua berezi, (*sic*)
lengo lege ederra
juan zaigu igesi.
- 10/ Kostunbrea euskaldun
askok daukaguna,
gaizkiyago mintzatu eziñ
balitz erdalduna;
lengo legea dago
emendikan juana,
asarretu dalako
gure Jesus ona,
kastigu au argatik
bota du gugana.
- 11/ Blasfematzia utzita
egin oraziyua,
zertako da entenditzen ez dan
gonbersaziyua?
Mariya Santisimari
izan deboziyua,
au da gure aurreko
zarren leziyua,
ortara benzituko da
gure biziyua.
- 12/ Gaiztua ontzen ez bada
beretzat du kalte,
kastigatuko da ura
infernuban fuerte;
bekatuban daudenak
ez gabilta aparte,
laister ezpadegu nai
etsaiakin parte,
orañ kontubak atera
denbora dan arte.
- 13/ Martiriyo aundikua da
infernuko labia,
emen borra dezagun
arako bidia;
konsideratu zer dan
eternidadia,
milloika urtiak juan arren
siñale garbia,
pensamentu onek santu
egiñak badia.

14/ Aita Don Blasen esanak,
kristaubak, ez aztu,
erakutsi digu ondo
nola preparatu:
esamiña kontuz egiñ,
doloria formatu,
proposituan firme,
zuzen konfesatu,
satisfaziyo osuan
gero Jauna artu.

17/ Etorri garizuma
sartu ta bereala,
bazekiyan seguru
premiyan geundela;
eziñ ordañ gentzake
guk orri iñola,
Jainkuak osasuna
munduban diyola,
ta gero gloriyarekiñ
pagatu dezala.

15/ Asarre edo gorrotorik
izan bazaio iñori,
amore eman biyotzez
bata bestiari,
ta aldegin Satanasen
sare gaiztuari;
miserikordiyazko
guztien Jaun ori,(1)
pronto dago ofensak
barkatzeko guri.

18/ Nere kristau maitiak,
biyotzak zuzendu,
maisutxarra ez da
gugana izandu;
obra onak bear ditugu
beti almazendu,
jaun orren konsejuak
ez geigo atzendu,
Pedro Santa Krutzek au
desiatutzen du.

16/ Aita Don Blasek Jesusen
legea badaki,
Ereñozuko elizan
mintzatu da ederki;
lengo oituren kontra
para gaitu egoki,
Jaunaren graziya zaio
mingañetik jalki,
gero're orren esanak
goguan eduki.

1. Bertso-paperak: *guztien Jaun orri*.

DESPEDIRA

Akola baserriko seme bat, Gregorio, Ameriketara joan zan soldaduskaren igesi, desertore alegia. Olako asko izaten omen zan garai artan. Alde batetik, kuardelean egon bearra iru urtekoa izaten zan; bestetik, berriz, Kubako eta Afrikako gerrak orduan izan ziran. Leenengo, Frantzira joaten ziran, mendiz edo itxasoz. Mutil-pasatzailleak ere baziran. Gregorio ori Epeleko beste lagun batekin joan zan.

Auzokoa edo laguna baitzuan, Pedro Santa Krutzek Epeleraiño lagundu omen zion. Gero karta bat bialdu zion bertsoan emendik Ameriketara, orduko despedira gogoratuz. Sei bertso omen ziran; baiña bakarria zuan gogoan Pedoren seme Gregoriok:

A-gur ba - na e - gi ñaz
 al - ka - rri be - gi - ra, E - pe - le -
 ko lan - gan zan gu - re des - pe - di -

ra; be - gi - ti - kan mal - ku - a,
 es - ku ai - ri ti - ra, juan bi - ar
 zen - du - be - la o - so u - rru - ti -
 ra.... bost al - diz o - roi - tzen zait
 or - du - ko par - ti - ra.

Agur bana egiñaz
 alkarri begira,
 Epeleko langan zan
 gure despedira;
 begitikan malkua,
 eskuairi tira,
 juan biar zendubela
 oso urrutira,
 bost aldiz oroitzen zait
 orduko partira.

PANDERITARRAK

JOAKIN MARIA JAUREGI SALABERRIA
(1844-1921)

JOSE MIGEL SALABERRIA IRAOLA
(1838-1905)

BIZITZA

Garai artan, Erreterian, gaur egunean Panderi pentsu-fabrika dagoan ortan, errota izan omen zan. Eta, oi danez, etxeari ez-ezik, bertan bizi ziranez ere *Panderi* edo *Panderitarrak* esaten zieten.

Familiko guziak, edo geienak beintzat, bertotan zekitenak omen ziran. Kantu-lan ortan geientxoan jardun ziranetatik bat, berriz, Joakin Mari izan zan. *Joakin Mari Panderi* esaten zioten. Beraren anai Jose Manueli, berriz, *Lairon* deitzen zioten. Au ere bertolaria zan.

Joakin Mari ortaz argibide asko bildu ditugu, beraren alaba Rufinak eta illoba Antonio Ugartek emanda. Auei zor dizkiogu orain emen esango ditugun guziak, besterik adierazten ez bada beintzat.

Joakin Mari 1844 urteko martxoaren 27-an jaio zan, goizeko seietan. Gurasoak “Manuel Francisco de Jauregui” eta “M^a Vicenta de Salavería”, biak erreteriarrek, izan zituan.

Joakin Marik oso bertso politikak omen zituan, arrats batez etxera-bidean zerri batzuekin topo egin eta aiekin

zer gertatu zitzaion esanez. Askotan kantatzen omen zituan gaiñera. Baiña gaur egunean bertso oiek galduak dira, alabak emandako lerro auek izan ezik:

Nijuala Panderi-bidian,
amabi zerri jarri zitzaizkian aurrian;
nik egin nuen gurutze fede onian;
libre gelditu nitzan bidian;
leiotik beira jarri nitzan
urrengo goizian,
zerriyak artale jaten ai ote zian;
sorgiñak dirala ez degu sinistu,
bañan ni ibilli nitzan bastante estu;
Joakin Marik fedia badu,
orregatik nitzan libratu.

Liberalen eta karlisten arteko bigarren gerra piztu zanean, Joakin Mari eta bere anai guziak karlistetara joan ziran, beren amak bialduta. Andre Bixenta esaten zioten oni; eta semeak ez-ezik, anaiak, illobak, adiskideak eta suigaia ere bialdu zituan. Guzira, emezortzi mutil.

Emezortzigarrena nola bialdu zuan kontu polita da. Lapurdikoa zan, eta Juan Jose Larre zeritzan. Frantzesen

eta prusiatarren gerra sortu zanean, 1870 urtean alegia, bera andik onera gerratik itzuli, desertore alegia, etorri zan. Erreterian jarri zan bizitzen. Emen, berriz, oso neskatxa ederra baitzan, Joakin Mariren arreba batez, Sebastianaz, maitemindu zan. Eta emengo gerra asi zanean, andre Bixenta orrek, bere amagiarreba-gaiak alegia, onela esan zion:

- Nere alabarekin ezkontzeko asmotan al zera?

Larrek:

- Bai noski!

Eta andre Bixentak:

- Ba, nere alabarik artu nai badezu, zu ere, besteak bezela, mendira gerrara!

Eta ala joan zan.

Au eta beste guziak joan ziran bezpera arratsean, apari ederra egin zuten Amulleta deritzaion etxean, goiko kalean. Biaramon goizean, berriz, meza entzun, Jauna artu eta segi mendira...

Joakin Mariren anai bat, Leandro, gerran il zan. Joakin Marik txira, zauria, izan zuan ankan. Larre, berriz, prisionero arrapatu eta Donostiako gazteluan euki zuten. Baiña gerra bukatzean, ain maitea zuan Sebastianarekin ezkondu eta Frantzian bizi izan ziran. Erreterira ere etortzen zan noizean bein bere emaztearekin.

Egun batez, Donostian, gazteluari begira jarrita, onela esan omen zuan:

- Nik egin nuen marka! Frantzitik onera gerratik itzuli desertore etorri, eta emen gerrara boluntario joan!

Joakin Mari Santa Krutz apaizare-

kin ibili zan. Onek, emendik alde egin zuanean, onela esan omen zion:

- I, Panderi: gerra galdua diagu! Ni baniak emendik, baiña bertan gelditzen zeraztenak, kanpokoen mende bizi bearko dezute! Bertan sortu zaizkiguk kontrariorik gogorrenak!

Bertsoak ere ba omen zituan Joakin Marik Santa Krutz apaizari jarriak. Bere alaba Rufinak askotan entzun zizkion, baiña orain puska au besterik ezin gogoratu izan zuan:

atian guardiyak,
aspertuta gelditu
ziran erdiyak,
tximinitik eskapo...

Onako lerro auk ere gerrate artan jarri zituan bertso batzuenak omen dira:

Gizon fiñak ill eta
faltsuakin bizi,
ni ere banua
emendik igesi.

Gerra bukatzean, Sebastianara Larrente Mendizabalekin ezkondu zan. Bertsoak ere ba omen zituan bere emazteari jarriak. Baiña auk ere galduak dira, alabak emandako lerro auk izan ezik:

Nere lendabiziko andria,
Astabizkarko arrosa,
usai onekua ta
oso hermosa...

Etzuten aurrik izan. Eta noiz eta nola ez dakigula il zitzaion emaztea.

Orduan Ameriketara joan zan, Arjentinara. Panpetan ganadu-zai ibili zan. Azienda besterik ikusten etzutela, denboraldi luzeak pasatzen omen ziztuzten. Gero, noizbait ere errira etortzean, irabazitako diru guziak gastatu eta atzera mendira... Orrela bizi omen ziran. Bere ango bizimoduari ere bertso polit askoak jarri omen zizkion. Ona emen alabari jaso dizkiogun lerroak:

Hotel de Buena Sopa-n
azkeneko jana,
bota biar genula
biña edo bana.

Ostatu ori Tandil errian zan. Ain zuzen, Pello Errota, Ameriketara joan zanean, erri ortan eta ostatu berean izan omen zan. Eskutitzak beintzat zuzenbide ortara bialtzen zizkieten etxetik. Baiña Pello ara joan zanean, 1895 urtean, Joakin Mari Euskal-Errian zan osteria ere, aspaldian etorrita.

Errenteriko Enrike Elizetxea zana-ren seme Manuelek makinaz idatzitako paper-mutur bat bialdu zigun, onela esanez:

“Nik ezagutu nuen gure etxian, osatua baizan, *Fonda de Elicechea*. Esan nai det gure etxian ezagutu nuela bertsolari bat. Deritzen zioten Joakin Mari, eta Ameriketara izandua zan. Eta gure etxian, beste asko bezela, tripa bete eta gero, bertsoetan asitzen ziran. Zure idaztarian (*Auspoa*-ren 74-75-garrean) badezu Joakin Maria Jauregi Salaberria, Panderitarra; eta artan jaritzen dezu: “Ona emen alabari jaso dizkiogun puntuak:

Hotel de Buena Sopa-n
azkeneko jana,
bota bear genuke
biña edo bana”.

Bigarrena:

Emen agertuko da
artakua dana,
jendia etzioken
diruakin joana,
Errenterik izandu dik
pagatutzen lana.

Eta bukaeran beti ala esaten zuen, oñazeztua:

- Amalau duro pagatu nizkin, ala Jaungoikua!

Ni gogoratzen naizenez, izango ziran lan gabe zegozten batzuek, elkar-eta, eta batek esan:

- Zer edo zer jan bear diagu!”

Oiartzungo Katalintxo baserriko Erramun Mujikak, berriz, beste onela eman digu bertso ori:

Hotel de Buena Sopa-n
azkeneko jana,
bestek konbidatuta
niztan ara juana;
nei pagatzeko utzita
bera eskapo juana,
amaika orrelako
allegatzen da nigana.

Ameriketako bertso batzuen puskak omen dira beste onako lerro auek ere:

Menditikan giñan jetxi,
berriz igotzeko algo gutxi;
atiaren onduan
zaldiyak irrintzi;
obia degu danak utzita
Euskalerrira igesi.

Bein batez, zaldi gaiñean zijoala, bi lapur atera zitzaizkion bidera. Baiña Joakin Marik zaldia bi oiñean zutitu arazi zuan, aien gaiñera salto eragin zion eta alde egin zien. Gertaera oni ere bertsoak jarri omen zizkion. Baiña oraingo ontan puntu bakarrarekin konformatu bearko degu:

zaldiya nedukan nik
erakutsiya...

Esne partitzen ere jardun omen zan. Egun batez, emakume batek onela esan zion:

- ¡Panchito, ven p'acá!

Eta Joakin Marik onela erantzun:

- Nere manduak esnea bâka,
baiño ez iretzako! Arre!

Ameriketatik onera bueltatu zanean, ezagun batek onela galdetu zion:

- Diru asko ekarri al duk, Joakin Mari?

Oni etzitzaion galdera ori batere gustatu, ondo igertzen baitzion burla antzean esan ziola. Eta onela erantzun zion:

- Ik asko aurreratu al duk, ni an nintzan bitartean?

Ondoren, onela jarraitu zuan:

- Aizak: ekarri dizkit, baiña pape-
rak zelaian jarri dizkit legortzen, eta
aizeak eraman zizkidak!

Eta gero segiran:

- Onek daukan andria *Kuxkuliña*
deritza;

kontua jakiten zertako zabilta?

Musua daukazu oso zikiña;

ondo garbitzen in zazu alegiña!

Ameriketatik etorri ondoren, bigar-
rrengoz ezkondu zan, 1885-eko apiri-
llaren 25-ean. Andregaia Maria Ursula
Isasa Ortiz zeritzan, eta ogei ta sei urte
zituan. Oiartzunen jaio eta Erreterian
bizi zan. Joakin Marik berrogei urte
zituan (2). Erreteriko Larrepitxi base-
rrian jarri ziran bizitzen. Baiña gero
kalera aldatu ziran.

Izan zituzten seme-alabetatik, ba-
tzuk aur txikitan il ziran: Tomas,
Anselma... Beste bi, gizon egin eta ge-
ro: Jose Manuel eta Inazio. Guk argi-
bide auk biltzerakoan, 1968 urte in-
guruan, bat bakarra bizi zan: Joakin
Mariren alaba Rufina, bere aitari bu-
ruz ainbeste argibide eman ziguna.

Erreterian ba omen zan garai artan
izengoitiz *Xoxua* eta izen-abizenak
Jose Antonio Loinaz zituan gizon bat,
liberaletako jauntxo xamarra. Egun
batez, Joakin Marirengana etorri zan,
eskuan berrogei duro zituala, botoa
erosi nairik. Joakin Mari pobrea zan;
duro aiek, garai artako berrogei duro
zillar aundi eta eder aiek, kalterik
egingo etziotela esan bearrik ez dago.
Andrea arren eta arren artzeko asi
omen zitzaion. Baiña Joakin Marik
etzuan bere burua saldu; etzuan sosik
artu.

Biamonean alkarrekin topo egin
zuten sagardotegian Joakin Marik eta
liberaletako beste jauntxo arek, eta

bertsotan asi omen ziran. Onako bertso erdi au eman digu Joakin Mariren alabak. Xoxuak kantatua dala ematen du. Onela dio:

Botoa emateko ez dezu
izandu borondaterik,
sagardua artu gabe
etzera juango emendik.

Ona emen Joakin Mariren beste bertso baten puska:

Erronda Mikaelita,
erronda Mikelez,
ori kantatzen nuen gabez.

Santa Agedara joan zan batean,
bertso au kantatu omen zuan:

Gure fraile gaxuak
eztitut mendratzen,
goizian jaiki eta
beti errezatzen;
askotan egoten naiz
oietaz pentsatzen,
oiek ere ez dirala
askorik gizentzen;
naiko lana badute
eroak zuzentzen.

Txistoso amorratua omen zan, eta parrandero xamarra ere bai. Bere parranda laguna Antero karteroa zuan, Manuel Urtxalle pelotariaren semea. Biak etxe berean bizi ziran: Antero atzeko aldean, eta Joakin Mari aurrekoan. Gauaz eskaratzeko atea itxi egiten zuten, tranka emanda.

Bein batean, Antero ori gau beranduan etorri zan. Eskaratzeko atea trankarekin itxita arkitu zuan. Orduan Joakin Mariri deitu zion, mesedez atea idikitzeko, bera etxean sar zedin.

Joakin Mari jeiki zan, jantzi ere bai, baiña gelatik irten eziñik gelditu zan, alabak, aita atera etzedin, atea kanpotik itxita zeukalako. Anterok, ordea, berantetsirik, onela esaten zion:

- Joakin Mari, idiki zak, ba, atea!
Zer egiten dek or?

Eta Joakin Marik:

- Nola idikiko dit, ba, neroni ere preso niok eta? (3)

Gerratik ekarri zuan txira, zauria alegia, etzizaion sekula sendatu. Bera bere gisa, belarrekin-eta, sendaketak egiten aritzen zitzaion. Etzion ez medikuari eta ez beste iñori uzten.

Egun batez, gazte-kuadrilla bat mezetara zijoan agustiñetara, mojetara. Bide-bazterrean, muntto batean eserita, Joakin Mari ikusi zuten, bere txira sendatzen ari zala. Guziak ezagunak ziran eta norbaitek onela galdetu zion:

- Zer da, Joakin Mari: kojo?

Eta onek:

- Bai; anketik niok flojo;

i ere jarriko aiz nere edaderako.

Eta txira artatik il omen zan. Orduan ere gaitz pegakorren bat bazan. Joakin Mari ere txertatzera derri-gorrean eraman zuten. Baiña etzion onik egin. Txirarik izan ez balu, denbora geiago iraungo zuala eta sendatu ere egingo zala esan omen zuan medikuak. Baiña, dana dala, txertu artatik gaizkituta il zan, 1921 urteko ilbeltza-

ren 19-an, irurogei ta amazazpi urterekin, *miocarditis* gaitzarekin, elizako eriotz-agiriak dionez.

* * *

Jose Migel Salaberria Iraola, berriz, 1838-ko garagarrillaren 3-an jaio zan. Gurasoak Migel Agustin eta Josefa Mikaela izan zituan, biak errenteria-rak. (4)

Oni ere *Panderi* esaten zioten, eta bertsolaria zan.

Joakin Mari Jauregi Salaberriaren osaba zan. Onen ama eta Jose Migel, anai-arrebak.

Ondarrabiko alaba zan Joakina Lekuonarekin ezkondu zan. Etzuten aurrik izan.

Jose Migelen bertso gutxi jaso degu: berarena danik ziur esateko, bertso-sail bakarra besterik ez.

Jose Migel au 1905-eko urriaren 14-ean il zan, Errenterian, Goiko-kaleko 10-garrenean, irurogei ta zazpi urterekin, *bronquitis crónica* gaitzarekin.

* * *

Xenpelarren bertso bat onela asten da:

Panderiyako onek
memoriya erne...

Bertsolari-kuadrilla ederra bildua zan, bertso orrek dionez: *Panderi*,

Lexoti, Ibarre, Xorrola, Bordondo, Ardote, Arotxa, Larraburu eta Xenpelar.

Panderi, beraz, orduko bertsolaririk onenekin bildurtzen etzana izango zan. Baiña zein da *Panderi* ori: Joakin Mari ala Jose Migel? Xenpelar il zanean, 1869 urtean, arek ogei ta bost urte zituan, eta onek ogei ta amaika. Txetasun oni begiratuta, Jose Migel izango dala itxura geiago du. Bata eta bestearen ondorengoei galdetu diegu, baiña ez digute auzia erabaki. Ez dakite.

Gure artxiboan baditugu bertso-paper batzuk izenburu onekin: *Bertso berriak Panderik jarriak*. Emen ere auzia, beraz, bertso oiek norenak izango diran: Joakin Marirenak ala Jose Migelenak.

Auzi au ere ez dute beren ondorengoak erabakitzen jakin. Bertso-paper oiek ziranik ere etzekiten.

Egillea nornai izanik ere, Joakin Mari ala Jose Migel alegia, bertso-sail oiek urrengo orrialdeetan arkituko ditu irakurleak.

1. Errenteriko 12-garren bataio-liburuan.
2. Errenteriko 10-garren ezkontza-liburuan, 106-garren orrian.
3. Gertaera au Errenteriko Jose Goñi zanak kontatua.
4. Errenteriko 12-garren bataio-liburuan.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bertso berri batzuek
biar ditut jarri,
San Migel eguneko
pasadizu orri;
asko gizon dirare
ebilliyak larri,
kasua zer nola dan
esango det sarri.
- 2/ Gauza pasa bezela
biaut esplikatu,
aurten kuadrilla bati
zer zaion gertatu;
aideko txingurriyak
ditu toriatu,
erlia dalakuan
dira engañatu.
- 3/ Zenbait gizoni zaie
txasku au pasatu,
ustez erlekume bat
digute bistatu;
eutza ekarririk (1)
dirare prestatu,
jabe asko azaldu zan,
bazen nork eskatu. (2)
- 4/ Jabiak berentzat nai
billatuak partxon,
sekulan ezta pasa
orlakorik iñon;
aisa engañatu dira
orrenbeste gizon,
kanpanaren azpiyan
txingurriya zegon.
- 5/ Ostatutik begira
jarri zan kuadrilla,
batek lendabiziko:
“Ura erle-pilla!”
Gutxienez bazela
irurogei milla,
estu ebilli dira
gero eutz billa.
- 6/ Nekez sartuko zela
eztirikan bage,
bat botikara billa
aguro alere;
estutasun aundiyan
ebilli dirare,
aseguratu zediñ
eskapo juan gabe.

7/ Erlia zelakuan
gizonen gustua,
kanpanaren azpiyan,
etzuten ostua;
txingurriya zebillen
aidian nastua,
etzaiote pasatu
txiripa gaiztua.

11/ Askotatik bat kontra
esatera nua,
gizon zarra delarik
memori sanua;
zuzen atera zuen
ark bere planua,
apostu egin nai ziyen
kantaro ardua.

8/ Bata bestien leian
korrika dira asi,
elizara juan dira
euntza ta guzi;
txingurriya danian
buelbaka ekusi,
kanpantorretik bera
umill ziran jetxi.

12/ Gauza txokantia da
gure erriyan pasa,
aiton erdi itxu batek
eraman du baza;
oraiñ ere engañatzen
eztago erraza,
erlia etzala laister
eman ziyon traza.

9/ "Mutillak, sekretuan
kontu au iruki,
kantak jarko lizkikek
zenbaitek baleki".
Ori itz egiten zuten,
Panderik badaki,
askok dakiyen gauza
zabaltzen da beti.

13/ Nola ebilli diran
au bestek esan dik,
geiago jakiñ biar
luteke oraindik;
enganiyo polita
pasa zaie agitz,
jabia franko bazan
erlia izan balitz.

10/ Goierriar bat bazen,
ez gizon motela,
esan zuen txapelan
sartuko zuela;
ardua ta azukria
biar zituela,
ori're engañatu da
bestiak bezela.

14/ Zer pasatzen ote dan
jendia bildu da,
gizon bat kargatuba
laisterka eldu da;
eutza bizkarrian
duela azaldu da,
beriarekin azkar
joan zan ostatura.

15/ Ostatuko nagusiya
ebilli da larri,
orri ere beste bat
biar diyot jarri;
inguratu zitzaion
milloi bat txingurri,
bizirikanen ezta
erazki etorri.

16/ Orra amasei bertso
egiyaz ipiñi,
erakutsiko dizkat
gustora edozeñi;
pentsatzen egondu naiz
esatia zeñi,
kreditua galtzia
etzaio komeni.

* * *

Bertso aukeraren Enrike Elizetxea zanaren bilduman arkitu ditugu, moldiztegi-izenik gabe kanta-pa-per batean.

Egillea nor dan bederatzigarren bertsoak salatzen digu:

ori itz egiten zuten,
Panderik badaki.

Baiña ezin berezi zein Panderi dan: Joakin Maria Jauregi Salaberria (1844-1921) ala Jose Migel Salaberria Iraola (1838-1905).

Bertsoak irakurritakoan, gaia zer duten ederki ikusten da: ostatuan-edo zeudela, kuadrillaren batek eliz-torrean, kanpaiaren azpian, eultza ikusi zuala; artaz jabetu nairik, guztiak aztoratu zirala; baiña joan eta aideko txingurriak izan.

Paperaren beeko barrenean, itz aukerak irakurtzen dira, eskuz erantsita: "*Año de 1869 Juan M. Elicechea*".

Paperaren itxura naiko zaarra da eta baditeke urte ortakoa izatea.

Juan M. Elicechea ori nor dan garbitu nairik, Enrike Elizetxearen seme Manuelek itz aukerak erantsi zitakion bertso-pa-perari orritxo batean:

"Juan M. Elicechea hoy es mi hermano mayor, del que hay algún verso. Pero este otro del año 1869 será el abuelo".

1. Bertso aukerak *eultza* esaten dute iru bat aldiz; eta beste batean *euntza*. Berez *eultza* bearko luke. Baiña egilleak idatzi bezela uztea obe izango dala pentsatu degu.

2. Bertso-pa-perak: *nor*.

(1872)

BERTSO BERRIAK PANDERIK JARRIAK

- 1/ Milla zortzireun irurogei ta
amabigarren urtian,
bertso berriak jartzera nua
ni amoriyomentian;
arrokeriyak erabat utzi,
arren umildu gaitian,
pekatua oso aborrezitu
bizi gaitezen pakian,
urrikirikan ez degun izan
eriotzako trantzian.
- 2/ Gauza onari desaidia egiñ,
elizatikan igesi,
modu onetan dabillen asko
nedorek ditut ikusi;
oraingo aldiyan aditzen degu
amaika kontu itxusi,
itzez ta obraz injuri aundiyak
egiten zaizka Jesusi,
nor bere txandan emango digu
zer kastigu degun merezi.
- 3/ Juez justuak sententziya du
zuzenbidean ematen,
gezurrarekin libratzerikan
ezta orduan izaten;
gaiztua bada ezkerretara
infernura da juaten,
pekatariyak gonbertitzera
saia gaitezen lenbailen,
orra munduko gusto zikiñak
zer ondorio dakarren.
- 4/ Fedeko gauza siñista zagun,
ziertua da egiya:
gaiztuarentzat kastigua ta
justuarentzat gloriya;
bat edo beste ikusi biar,
au da gure komeriya;
zu bitarteko jarritzen zaitut,
Birjiña Ama Mariya,
Seme Jaunandik logra iguzu
arren miserikordiya.
- 5/ Maiz konfesatu, obra onak egiñ,
penitentziyak gañera,
mundu ontako txorakeriyak
utzirik alde batera;
eriotz ori urbil daukagu,
denbora labor bire da;
anima garbi presenta zagun
Jaunaren tribunalera,
gusto aundiyak guretzat daude
ala juaten bagera.
- 6/ Eskandaloko pekatuakin
zenbat dagon infernuan,
gauz ori ongi ezin liteke
esaminatu munduan;
su ta gar daude padezitutzen
betiko destierruan,
Luzifer eta bere lagunak
arturikanen korruan,
gaiztuarentzat azkenerako
zer paradero daguan.

- 7/ Etsaia dabill beti tentatzen
otso gaiztua bezela,
gau eta egun nondikan digun
guri eragingo okerra;
pentsa dezagun, nere kristabak,
peligro aundiyan gaudela,
aren mendian jarritzen danak
dauka sententzi kruela,
denbora dela oroi gaitezen,
galduko gera bestela.
- 8/ Pekatuakin loiturikanen
tristura aundiyan dauena,
konfesiyo on bat sendatutzeko
dizu botikik onena;
bide gaiztuak renunziatu,
artu dezala zuzena,
alegriago jarriko zaio
milla alakozen barrena,
ori da gure Jaungoiko Jaunak
deseatutzen duena.
- 9/ Ejenplo onak aditu nai ez,
pikardiyari lagundu,
diabruak lan au dala meriyo
doble indarra artzen du;
biziyo txar ta lasaikeriya
argatik dira gallendu,
gure Jainkuak komeni bada
gauz au dezala zuzendu,
ez genduke orla flojiatuko
ondo pentsatzen bagendu.
- 10/ Etsaia dabill desesperatzen,
jartzen dizkigu lazuak,
persegidore gaiztuak dauzki
gure anima gaxuak;
siñistu naizik egongo dira(2)
kasta gogorren batzuak,
nere kristabak, izan gaitezen
arren deboziozkuak,
Jainkuagandik logra ditzagun
frutu-jenero gozuak.
- 11/ Kantuz nai nuke adierazi
kristau zabarrak zer duan:
iltzerikanen akordatzen ez
sano dabillen orduan,
pikardiya ta banidadia
beste gauzik ez goguan,
beti pentsatzen bere gogua
nondikan egingo duan;
alako gutxi sartuko dala
iruritzen zat zeruan.
- 12/ Jesus umilak mundu ontara
len egiñ zigun bisita,
nere kristabak, ez dudik jarri,
gu salbatziagatika;
gurutzian du biziya eman
iltze gogorrez josita,
biotz erdibi egiñ liteke
kontu oietan asita,
berarengana biar gaitezen
ibilli txarrak utzita.

13/ Relijiyua galdu nayian (3)
dabiltza asko traidore,
konseju on bat aditu nai ez
gau eta egun beñere;
orrelakuak izaten ziran
mundu onetan len ere,
zenbaitek eztu siñistatu nai
Jaungoikorikan bada're,
ustez abillak izanagatik
ekibokatzen dirade.

14/ Mandamentuak guarda ditzagun,
gaitzik ez egiñ iñori,
gure anima salbatzekotan
prezisia da lan ori;
bata bestia amatutzeko
agindu zigun denari,
biotzetikan eska zaiogun
umill Jaungoiko Jaunari,
grazi ugariyak emango dizka
ongi portatzen danari.

15/ Pekatariyak muda gaitezen,
asko gaude biarrian,
kontu aundiya eman biagu
Jaunaren tribunalian;
despeida motza guretzat dator
bagabiltza okerrian,
infernurako destinatua
bialiko du aurrian,
bueltatzerikan eztu izango
naiz juan gogo txarrian.

16/ Amasei bertso paratu ditut
komeni diran bezala,
ez gero pentsa kontu oriyek
txantxetakuak dirala;
zerura dago bire estua,
infernurako zabala,
geiago iñor deskuidatuko
ez baldiñ balitz ojala,
gure Jainkuak eriyotzian
errezibitu gaitzala.

Amasei bertso auek Parisko Libu-
rutegi Nazionaletik ditugu. Moldizte-
gi-izenik gabeko paper bat da.

Egillea nor dan izenburuak esaten
digu. Bertsoak noiz moldatuak diran,
berriz, leendabiziko bertsoak adieraz-
ten du.

Paperaren goiko aldean itz auek
irakurtzen dira eskuz idatzita: *Envoie
par le P. Arana en 1872.*

Loiolako Aita Jose Inazio Aranak
D'Abbadie jaunari-edo bialdu zizkiola
bertso auek, alegia, eta moldatu ziran
urte berean bialdu ere.

1. Bertso-paperak: *paradore.*
2. Gure iritzirako, *naizik* itz ori *nai ezik* bear-
ko luke.
3. Bertso-paperak: *naiyan.*

(1880)

BERTSO BERRIAK PANDERIK JARRIAK

- 1/ Milla zortzireun da
ta larogei urte,
Kristo etorri zanetik
onera bitarte;
bertso bi paratzeko
enkargatu naute,
nere iritzirako
ez dirade kalte,
alegiña egingo det
kapaz naizen arte.
- 2/ Bertso berriyak para
biar ditut oraiñ,
komeni diralako
misiyuan onran;
ezagutu ditugu
jaun oriyek obran,
mundu ontan ez dakit
oberika nor dan,
erakutsi digute
gauza ona zer dan.
- 3/ Jaun oiek presentatu
zaizkigu erriyan,
azaruko illaren
ogei ta zortziyan;
itz bi egin zituzten
meza nagusiyan,
asko jende erori
giñaden graziyan,
ongi portatu dute
nere iritziyan.
- 4/ Gauzak diran bezela
nua esatera,
asko gustatu zaigu
oien etorrera;
amar t'erdiyak ziran
gutxi gora-bera,
Justiziya ta apaizak
juan ziran bidera,
relijioso oiek
errezibitzera.
- 5/ Alegiña egin dute
oiek gugatikan,
asko nekatu dira,
ez dago dudikan;
galtzera ez dute utzi nai
pekatarrirkan,
ondo konfesatzeko
tokatzen dan gisan,
barkatuko dirala
naiz aundiyak izan.
- 6/ Zer egiñ biar degun
digute erakutsi,
orrelako askorik
ez degu ekusi;
pekaturrirkan lotsaz
ez dezagula utzi,
danak konfesatzeko
txiki ta aundi guzti,
Jaungoikoan graziyan
nai badegu bizi.

- 7/ Enkargatu gaituzte
juateko elizara,
deboziyo aundiyan
guztiyok al bada;
nere kristau maitiak,
konseju ona da,
zerurako bidian
nai gaituzte para,
prokura genezake
geok nor bagara.
- 8/ Egiñ dezagula arren
konfesiyo on bana,
ondo esamiñatu
lenbiziko lana;
egiyaz akusatu
gogoratzen dana,
damutasuna arturik
Jaungoikuagana,
garbi geldituko da
ala dijuana.
- 9/ Egindako pekatuz
artu doloria,
proposito firme bat,
zer gauza obia?
Ondo pensatu zer dan
eternidadia,
beñere aituko ez dena,
kaburik gabia,
obeto guarda zagun
Jaunaren legia.
- 10/ Kristau gaiztuarentzat
dagon eriotza
dala esan digute
bastante zorrotza:
iñon sosegurik ez
ta triste biotza,
sentitutzen duela
deabruan otsa,
mundu triste ontatik
zer despeida motza!
- 11/ Gaiztua infernura
juango da abiyan,
beti an egon biar
denbora guztiyan,
oñaze ta tormentu
kalore biziyan;
Jaunari erregutu
umildade aundiyan,
gurekiñ orlakorik
gerta ez deriyan.
- 12/ Gurasuak daukagun
obligaziyua,
umiari emateko
edukaziyua;
erakusten saiatu
ondo leziyua,
asko enpeñatu da
ortan misiyua,
Jaungoikoak emanik
inspiraziyua.

13/ Nola dan esango det
seme-alabana:
ondo errespetatu
aita eta ama,
jantzi ta alimentua
emanaz al dana,
umildadian egiñ
beraren esana;
au da relijiyuak
agintzen duana.

14/ Errespetua ondo
dezagun guardatu,
gauza biarra dala
dute predikatu;
erakutsi digute
zer nola giyatu,
gurasuen esanak
ez errebokatu,
alegiña egitera
gaitezen saiatu.

15/ Errenterian izandu
dira misiyo bi,
konbertitu gaituzte
zenbait pekatari;
Jaunak bigaldu digu
erregaliya ori,
eman biar dizkagu
graziyak berari,
ia zer mesedia
egñ digun guri.

16/ Funtziyo oietara
degu akuditu,
gauza oberik danik
etzait iduritu;
miserikordia aundiya
Jaungoikoak baitu,
guztiyak amoriyoz
konbidatu gaitu,
zer egiñ biar genduben
ez balitz oroitu?

17/ Misiyuak zaizkigu
errira etorri,
zer itz egiñ diguten
esango det garbi;
injuriya gaiztuak
barkatzeko elkarri,
danak jua biagula
mundutikan sarri;
zerurako birian
nai gaituzte jarri.

18/ Aita Oiartzun eta
Aita Etxeberria,
gauzak predikatzeko
orlako gutxi da;
asko gustatu zaigu
oien egokira,
gogoz egondu gera
guztiyok begira,
gure onagatikan
trabajatu dira.

19/ Erakutsi digute
zenbait ejenplu on,
juan dan aspaldiyan
premiya bazegon;
pekatuan luzaro
ez gaitezela egon,
ez daukala alakuak
sosegurik iñon,
oien faltan ez gera
kondenatuko iñor.

20/ Orain alegre gaude,
lenago txoll triste,
alabantza aundiyak
merezi dituzte;
maizago etortzia
guk obe genduke,
nola portatu duten
esan biar nuke,
makiña bat persona
konbertitu dute.

21/ Orra ogei ta bat bertso
ondradamentian,
zabaldur nai nituzke
jendien artian;
obra onak egiñez
gabiltzan pakian,
eriotza gurekiñ
degu instantian,
guztiyok zerurako
prebeni gaitian.

Bertso-papera, "*Donostiyan: Juan Oses-en moldizteguian*", Parisko Liburutegi Nazionalan, D'Abbadie zanaren bilduman.

BERTSO BERRIAK

PANDERIK JARRIAK

- 1/ Bertso bi paratzera
saiatu neriyan,
txit komeni zaizkigu
oraingo aldiyan;
Zarauzko fraile bat
daukagu erriyan,
predikatutzen digu
alegiñ guztiyan,
mesede franko egiñ
du Erreteriyen.
- 2/ Don Krispin Beobide
gizon ona da agitz,
lenbiziko sermoia
egin du austerriz;
konbertitu nai gaitu
guziyak, al balitz;
jaun orren itz gozuak
ez dira alferrik,
limurtu geradela
asko uste det nik.
- 3/ Garbi itz egin digu
zer egin biar den:
konfesiyo on bana
egiteko arren,
esaminatuzeko
premiya nola den,
ordu segururikan
ez daukagula emen,
prebenitzeko diyo
guziyak lenbailen.
- 4/ Frailia etorri zaigu
Erreteriyara,
asko enpeñatu da,
ori egiya da;
orren konsejuakiñ
alegratzen gara,
zerurako birian
nai ginduzke para,
galtzera ez ginduzke
utzi nai, al bada.
- 5/ Egin dezagula arren
esamiña ongi,
zertan faltatu degun
esateko garbi,
injuriya gaiztuak
barkatzeko elkarri;
danak zuzen-birian
nai ginduzke jarri,
anparatzalle txarra
etzaigu etorri.
- 6/ Ongi predikatu du
zer arrixku dagon,
geroko esperantzan
ez gaitezela egon;
erakutsi dizkigu
makiña bat gauz on,
juan dan aspaldiyan
premiya bazegon,
bedorrek ez luke nai
kondenatzia iñor.

7/ Bere partetikanen
alegiña egin du,
gaiztuak ondutzia
desiatutzen du;
gure animan mantxak
nai dizkigu kendu,
nola remediatu
garbiro esan du,
obe genduke ori
egingo bagendu.

10/ Pekatu mortalakiñ
juaten bagerade,
alferrik izango da
negar eginta're;
munduko egun aliak
zertan jua dirade?
Obra onetan asko
enpeñatu gabe,
Luzifer egingo da
orlakuen jabe.

8/ Frailliak egin digu
guri egiñala,
nork bere pekatuak
aitortu ditzala;
umildade aundiyan
biar dan bezala,
ori egiñ ezkeru
ez litzake txarra;
Jaungoikoak orretan
allega gaitzala.

11/ Munduan egun bi ta
bat segururik ez,
alere eziñ ase
iñor interesez;
besteri ostu eta
egiñak zenbaitek,
orrelakua franko
bada nere ustez,
nori beria eman ta
konbertitu bitez.

9/ Nere kristau maitiak,
gaitezen bildurtu,
sententziya kruela
ez dezagun artu;
infernura juateko
gogorikan nork du?
Jaungoikuen legia
dezagun guardatu,
gurekiñ okerrikan
ez dedin gertatu.

12/ Pekatu gaitza dala
ostutzia iñori,
frailiak esan digu
pulpitotik guri;
begiratzeko arren
konzienziyari,
lenguak bueltatzeko
bere jabiari,
prezisua degula
salbatzeko ori.

13/ Asko enpeñatu da
predikadorea,
okerrak zuzentzia
degula obia;
guri egin naian
dabill faboria,
erakutsi nai digu
zerura biria,
glorijan pasa zagu
eternidadia.

16/ Orra amasei bertso
onradamentian,
ez al da ofendituko
iñor gure artian!
Beti ibilli gabe
animen kaltian,
garizuma santuan
konberti gaitian,
biyar baño gaur obe
bitatik batian.

Bertso-papera, “*Donostiyan: Juan
Oses-en moldizteguian*”, Aita Jose
Inazio Aranaren bilduman.

14/ Usterik gutxienian
gerade akabo,
segurantzizarikan
batere ez dago;
asko juanak ditugu
aurretik lenago,
ezkerreko aldera
sobra, *mal pecado!*
Zer ikusi biagun
bildurtua nago.

15/ Iñork eskaporik ez,
ortan daude lanak!
Barrena lasai dauka
kulpik ez daukanak;
utsa serbitzen dute
munduko afanak,
egiñ obe ditugu
frailien esanak,
azertatuko dizu
prokuratzen danak.

BERTSO BERRIAK

PANDERIK JARRIAK

- 1/ Bertso bi jarritzeko badaukat biria, nola portatu zaigun esain det frailia. Gizon aditua da eta gustablia, konbertitu nai luke emengo jendia.
- 2/ Frailia etorri zaigu Zarauz aldetikan, eztigu erakutsi ejenplo txarrikan. Konfesatzeko diyo tokatzen dan gisan, bestela ez daukagula salbaziyorikan.
- 3/ Gauza nola biar dan digu irakurri, zerurako birian nai ginduzke jarri. Kondiziyo guziyak esan ditu garbi; nork egin biar diyo kontrarikan orri?
- 4/ Zenbait itz egin digu konfesiyo ortan, nola faltatzen degun jendiak askotan. Prokuratzeko diyo ongi mundu ontan zerurako biria alkantzatzekotan.
- 5/ Pekatu mortalian iñor bagerade, salbatuko ez gerala konfesatu gabe. Milla penitenziya egiñ arren ere, serbituko ez digute oriyek batere.
- 6/ Frailiak itz egin du guztiz animoso: konfesa ditzagula pekatuak oso, norbait egongo dala lotsetan akaso, ez izutzeko diyo izan arren asko.

- 7/ Askok aditu degu,
beorrek esanta,
garbitu dezagula
pekatuen mantxa;
konfesatzeko danak
oietara juanta
umildade aundiyan
zeñek bere falta.
- 8/ Izanagatikanen
pekatu grabia,
barkatzeko badute
oek potestadia.
Artu damutasuna
eta doloria,
au egingo bagendu
danontzat obia.
- 9/ Usterik gutxienian
akabo gerade,
segururik ez dago
minuto bat ere.
Frailiak itz egin du
gauz ortan dotore,
pronto egoteko diyo
deskuidatu gabe.
- 10/ Gauza txarretatikan
ibiltzeko aparte,
au egingo bagendu
ez genduke kalte.
Ez gerala emenguak,
bildurtzeko fuerte,
aprobetxatzeko diyo
denbora dan arte.
- 11/ Juiziyoko eguna
ikaragarriya,
frailia bera dago
bildurrak jarriya.
Mundu guziyan bistan
sentenzi garbiya,
ekusi biar degu
gauz izugarriya.
- 12/ Onak alde batera,
gaiztuak bestera,
presentatu biagu
danak ikustera.
Azken despeida ura
zer izango ote da?
Oek adituta ere
izutzen ez gera!
- 13/ Nere kristau maitiak,
gaitezen bildurtu,
guziyok biar degu
sentenziya artu.
Galduak esango du:
“Ai ez banintz sortu!”
Betiko infernuan
biarko du sartu.
- 14/ Jaunari eska zaiogun
miserikordiya,
zergatik egin degun
milla pikardiya.
Bitarteko ipintzen det
Birjiña Mariya,
alkantza dezaigula
zeruko gloriya.

15/ Frailia etorri zaigu
aurtengo urtian,
lenbiziko sermoia
austerri goizian.
Ongi predikatu du
onradamentian,
pekatari guziyak
konberti gaitian.

16/ Amasei bertsorekin
nai det despeditu,
atenziyuarekin
au ongi aditu:
Jaungoikoen legia
dezagun serbitu,
iltzian faltako ezta
nork errezibitu.

* * *

Bertso-papera, “*Donostiyan: Juan Osés-en moldizteguian*”, Parisko Liburutegi Nazionalean, D’Abbadie jaunaren bilduman.

Onako itz auek daude eskuz pape-rari erantsiak: *reçu Janvier 1879 (Arana)*.

Bertso-paper ori urte ortan Aita Aranak bialdu eta artua izango zala esan naiko du.

BERTSO BERRIAK

PANDERIK JARRIAK

- 1/ Garizuma santuan
zenbat bertso berri
frailea alabatuaz
bear ditut jarri;
eman bear nizkake
graziak bedorri,
predikadore txarra
etzaigu etorri.
- 2/ Austerriz predikatzen
egin zaigu asi,
nola portatu duben
nai det arierazi,
an etziranak ere
dezaten ikasi;
zer egin bear degun
digu erakutsi.
- 3/ Konseju ona franko
fraileak eman du,
ai bedorren esana
egingo bagendu!
Pekatuaren mantxak
nai dizkigu kendu,
gu salbatzeagatik
alegin egin du.
- 4/ Ez desengañatzeko
artzeko esperantza,
askok aritu degu
bedorrek esanta;
orrek merezi ditu
milla alabantza,
aitortutzeko diyo
zeñek bere falta.
- 5/ Danak pekatariak,
kontuak dira emen,
garbi erakutsi du
zer egin bear den;
utsegiñak aitortu,
dolorea urren,
barkatuko dirala
asko izan arren.
- 6/ Zer itzegin dizkigun
nik ditut esango,
konfesatzeko diyo
pekatuak ondo;
proposito firme bat
artutzeko sendo,
bestela ezkerala
zerura juango.

7/ Karga astuna utzita
jartzeatik arin,
konfesio on bana
nai digu eragin;
penitentzia umil
dezagula egin,
eskusa paratzeak
ematen dio min.

8/ Frailea esango det
nola enpeñatu den,
pekatu urkotikan
apartatzeko arren;
deskuida ginezkela
egun gutxi barren,
orra zer peligrotan
arkitzen geraden.

9/ Peligroko tokian
erori maizago,
orretan jarri digu
bastante kuidoaro;
alegiñ egitea
obe dela nago,
damu izan ez dezagun
alferrikan gero.

10/ Beste gauza bat digu
begietan jarri:
prezisoa degula
barkatzea alkarri;
frailea enpeñatu da
ortan izugarri,
ongi dakielako
gure arteko berri.

11/ Alkar amatutzeko,
gorrotoak utzi,
guziok nai ginduke
zeruan ikusi;
bere deseoa du
garbi erakutsi,
kulpitotik eskaka
gugatik Jesusi.

12/ An esplikatu digu
zenbat biarretan
ez dezagula egin
lanikan jaietan;
oberitzeko diyo
Jesusi orretan,
kastigu gogorren bat
botatu ez dezan.

13/ Blasfemi gaiztoakin
makin bat injuri
egiten dizkagula
Jesus maiteari;
fraileak eman digu
enkargu au guri:
euskaldunak uzteko
kostunbre txar ori.

14/ Aren esanak ongi
artzeko gogoan,
zer konseju ederra
ori eman duan!
Ezpagera umillatzen
bear dan moduan,
ez degula parterrik
izango zeruan.

15/ Zer egin bear degun
gaude ikasiak,
ongi esplikatu digu,
bedorri graziak;
munduan egin zigun
alegin guziak,
eztigu serbituko
geroko aitzakiak.

16/ Orra amasei bertso
euskeraz txit garbi,
frai Danielen onran
egin ditut jarri;
aurten Errenterira
digute ekarri,
ongi portatu zaigu,
graziak bedorri.

Jose Migel Salaberria

Bertso auek Errenteriko Enrike
Elizetxea zanaren bilduman arkitu di-
tugu.

Bertso-paper bat da, eta modiztegi-
izena onela du: "*Imp. Osés*".

Bertsoen ondoren egillearen firma
irakurtzen da.

Leen esan degunez, Panderitarretan
bi bertsolari baziran: Joakin Mari
Jauregi (1844-1921) eta Jose Migel
Salaberria (1838-1905). Bigarreno
au, beraz, bertso auen aita.

Bertsoetatik ateratzen danez, fraile-
ren bat izana zan Errenterian, frai
Daniel, garizumako sermoi batzuk egi-
tera etorria, austerre-egunarekin asita;
eta Jose Migel Salaberria onek ondo-
ren bertso auek jarri zituan.

BERTSO BERRIYAK

Auspoa-ren 74-75-garrenean, *Pan-deritar* bati buruz ari giñala, Jose Migel Salaberria Iraolari buruz alegia, onela esaten genduan:

“Jose Migelen bertso gutxi jaso degu; jarri-aldi baten berri ta bi bertso erdizka; besterik ez.

Orra jarri-aldi ori nola sortu zan: gerra-denboran -karlisten bigarrena: 1872-1876-, Errenteria liberalen mende gertatu zan. Orregatik, erria kanpoko soldaduz beterik egon zan. Auek majokeritan asi ziran erriko neskatxekin, baita auetako zenbaitek aurrerabidea eman ere. Jose Migelek bertsoak jarri zizkien.

Esan bezela erdizka jaso ditugun oiek onela zioten:

Neskatxetan ezikan
andrietan ere
badira gaizki xamar
dabiltzanak oaindik ere.

Kastillara juatian
majuak akabo,
ez dute ikusiko
sekulan geiago". (1)

Ondoren, ordea, Errenteriko Manuel Elizetxearen eskutitz baten bidez, bertso auek bagenituala oartu giñan. Iru kopia gaiñera, irurak makinaz idatzita.

Oietako bi Errenterian arkitu genituan: bata, Enrike Elizetxea zanaren bilduman; eta bestea, Joakin Ganborena Zabalarenean. Eta irugarrena Oiarzunen arkitu genduan, Soraburu base-rrian.

Iru kopia auek aldaketarik ez dute alkarrekin, kopiatzaillearen uste gabe-ko oker bat edo beste izan ezik.

Onela diote:

1/ Bertso berri batzuek
bear ditut para,
txit estadu txarrian
arkitutzen gera;
oraingo gartzietan
filda onik bada,
oso itxutu dira
soldaduetara.

- 2/ Errepara zazute,
aien gurasuak,
zer modutan dabilzan
alaba gaxuak;
ez ditut denak sartzen,
badira batzuak
soldadu zarretara
enamoratuak.
- 3/ Modu orretan dabil
zenbait neskak ero,
soldaduen ondolik
izugarri bero,
noizean bein bezela're
kasik egunero;
orain kontentu dira
naiz negarrez gero.
- 4/ Zenbait neskak gazte
badabil seriyo,
oker egiñ duena
ez da misterio;
zenbat tropa txandatu
ainbeste nobiyo,
bostek galdu bear du
au dala meriyo.
- 5/ “Zer pasa zaiñ, alaba?”
asi zaio ama.
Orduko nobiyua
aspertu ta juana;
ukatu naiagatik
agertuko dana,
nork berak jaso bear
azkenian txalma.
- 6/ Zer pasa bear zaien
esango det klaro:
egun ale batzuek
gustora igaro;
Kastillara joatian
majuak akabo,
ez dituzte ikusiko
sekulan geiago.
- 7/ Eztiro ateratzen da
oien aotik itza,
maliziya kolkuan
Luziferren gisa;
inbusteriya franko,
txit kariño pixka,
gaztiak engañatzen
ederki dabilza.
- 8/ Asten bazaio esaten
zerbait jolas ariñ,
orlako personari
ez kasorik egiñ;
belarriyak itxi ta
ankari eragiñ,
geroko okerrikan
etorri ez dediñ.
- 9/ Matrimoniotako,
zenbait dama gazte,
soldaduen ondolik
txoratzen zerate;
ardallan or dabilza
alkarrekin naste,
orren inozenterik
zanik ez nun uste.(2)

10/ Neskatarena utsa,
andrietan ere
badirala aditzen det
askotxo ala ere;
orla bizitzia ez da
posible ta alere
ez lirake aspertuko
batzuek beñere.

11/ Gizonak jakitian
artzen du kolera;
andriak beriala:
“Gezurti bat zera”.
Garbitasuna oiekin
nork bear du atera?
Orrela ibiltzia
beretzat kalte da.

12/ Neskata ongi litzake(3)
ura kontentu balitz,
mantenu ona luke
ogiz ta aragiz;
gero txokolatia
egunian bi aldiz,
sagardua ere bai
egarritzen balitz.

1. Inazio Odriozolari jasoia; bera, Jose Migel Salaberriaren ondorengoa.

2. Paperetan: *zan ez nuen uste*.

3. Paperetan: *Neskata bera ongi litzake*.

LEANDRO SALABERRIA ASTIBIA
(1845-1909)

BIZITZA

Leandro Bizente Salaberria Astibia Erreterian jaio zan, 1845-eko urriaren leenengo egunean.

Gurasoak Rafael Eusebio eta Maria Bizenta izan zituan, biak erreteriarrrak. Aitarean aldeko aiton-amonak, Migel Agustin eta Josefa Mikaela Iraola, erreteriarrrak. Amaren aldekoak, Martin Jose, irundarra, eta Maria Fermina Etxeberria, lezoarra.(1)

Leen aitaturtako Joakin Maria Panderi eta Leandro au leengusuak ziran. Onen aita eta aren ama, anai-arrebak.

Leandro ogei ta bost urterekin ezkondu zan, Erreterian, 1870-eko uztaillaren 19-an. Andregaiia, Josefa Antonia Mitxelena zeritzan. Ogei ta

lau urte zituan. Erreterian bizi zan, baiña Aranoko alaba zan.(2)

Leandro ofizioz eulea zan.

Gure artxiboan bi bertso-sail dauzkagu Leandrorenak. Bertso-paperak egillearen izenik ez dute. Baiña Erreteriko zaarrak arenak dirala esan digute. Baita sail bakoitzaren gertaera kontatu ere.

Leandro 1909-ko martxoaren 9-an il zan, arratseko zortzietan, Biteri kaleko 13 zenbakian, bigarren bizitzan, irurogei ta iru urterekin, buruko atake batez; *embolia cerebral*, eliz-agiriak dionez.(3)

1. Erreteriko 13-garren bataio-liburuan.
2. Erreteriko 10-garren ezkontza-liburuan.
3. Erreteriko 11-garren eriotz-liburuan.

BERTSO BERRIAK

ORAIN DELA 37 URTE PASATUTAKO

KONTUAK BI ANAIARI

“Amaiketan arrapatu niñuen Alkate Jaunak tabernatik aterata munta ematiatik, ta nik, nola eldu baizen kastigu aundiya gureztat, eniyon esan zein tabernatik atera nitzan; esan ziran etxera joateko arren begiyan bistatik”.

Au dana orrela dio itzez itz bertso-paper batek. Ondoren, bertsoetan, ori bera berriro kontatzen da. Baita urren-ego jai-gauean zer gertatu zan ere.

Bertso-paperak ez du egillearen izenik esaten. Baiña Erreteriko Pello Zabaleta bertsolaria zanak Leandrorenak zirala esan zigun.

Pellok berak adierazi zigun, eta idatziz adierazi ere, Leandroren bigarren gaueko ibillerak zer izan ziran. Bertsoetan berriro kontatzen dira, baiña Pellok idatzi zuanak ere merezi du onera aldatzea:

“Garai aietan, sagardotegietatik ondo serbituak ateratzen ziranean, nola errikoak ala kanpokoak, bulla eta eskanbillan ibiltzen ziran, sesiyo eta abar. Eziñ burutu zalako, alkateak bandua jo zuan, amaiketarik aurrera arra-

patzen zana kartzelan sartzeko. Alkatea bera ibiltzen zan serenuakin kaleak ekusten.

Egun batez, Leandro deskuidatu zan. Alkateak ekusi zuen. Baita Leandrok alkatea ere. Etxean sartu zan, eta anaiari onela esan zion:

- Iñor etortzen bada galdezka zein sartu dan etxe ontan azkena, esaiok i sartu aizela.

Anaiak, erdi lotan:

- Bai, bai, esango ziot.

Alkatiak *dan-dan* atea. Atera da Bizente, anaia. Galdetzen dio:

- Zein sartu da etxe onetan azkena!

- Ni, jauna.

- Goazemak nerekin!

- Nora?

- Etorriko aiz bereala!

Beko sotoan ekusi zuan serenua, eta orduan konturatu zan nora zijoa”.

Bertso-papera Erreteriko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso genduan. Moldiztegi-izenik ez du.

Ona emen bertsoak:

- 1/ Igande gau batian,
amaikak aldian,
pentsatu dut tabernatik
etxera joatia;
birian topo egin
nuen alkatia,
“Nun zabilta?” esan ziran
lenbizi galdia.
- 2/ Errespuesta eman nion
merezi bezela:
“Ez al nazu ikusten
geldik naguela?”
“Bai al duk korajia
mintzatzeko orrela?
Uari emendikan
etxera beriala!”.
- 3/ Oiek orrela pasata
urrengo jai gabian,
bederatzizietatik
amarrak artian,
alkatia ikusi dut
kolera batian,
sartzeko esan ziran
agudo etxian.
- 4/ Errespuesta eman
nion berriela:
“Ez al nazu ikusten
etxera nuala?”
“Nik arrapatzen baiat
lenago bezela,
bisitatuko dirak
agudo kartzela!”
- 5/ Koleran sartu nitzan
gaba artan etxera,
oraindik goiza zan ta
kanpora atera;
alkatia beriala
ni arrapatzera,
agudo juan nitzan
anaian oiera.
- 6/ Oiera juan eta
anaia esnatu:
“Arren faboretxo bat
egin biar nazu:
etxi ontan azkena
sartu zerala zu,
iñork galdetzen badu
esan biar duzu”.
- 7/ "Gizonan arpegirik
azaldutzen bada,
mutill, ez ikaratu,
emain ziot kara!”
Atia jo ta joan zan
eskalleretara,
zarpatik artu eta
gero kartzelara.
- 8/ “Arren, alkate jauna,
erruki zaitia,
kartzelara damazu
kulparik gabia”.
“Urrena eskusa zak
gezurra esatia,
orain preso pasa zak
anaian partia!”

- 9/ Ustez seguratu
zuten paketia,
kontrabanduen billa
pozez alkatia;
serenuak lagunduta
jo zuan atia,
anaiak artu zuen
nere gonbitia.
- 10/ Geroztikan anaia
dut estimatua,
guardatu zuelako
nere pekatua;
libre espero zuen
beraren burua,
bañon etzizon eman
asolbiziya.
- 11/ Eman etzizonian
asolbiziya,
gero biyamonian
neri sesiya:
“Maiz egiten badirak
orlako aziya,
auzuan izango dek
estimaziya!”
- 12/ Igande gaba pasa,
astelen goizian
aserre plantatu zan
anaia etxian:
“Ni kulpa gabe preso,
i berriz oyian,
eztirak peatuko
urrengo batian!”
- 13/ Igarri niyonian
nitzala lazuan,
estu nitzan ta zerbait
egin biar nuan;
anaia sartu zuten
preso kontzejuan,
kulpa zuena oyian
gero deskantsuan.
- 14/ Mintzatu izan banitz
biar dan bezela,
etzen engañatuko
jauna ori orrela;
kulpa zuena oyian,
anaia kartzela,
inozentementian
ai ura pastela!
- 15/ Amabost bertsoekin
nai det akabatu,
gure pasadizua
orra deklaratu;
alkatiak kartzelan
nai niñuen sartu,
nere zorrak anaiak
zituen pagatu.

KOMERIANTEAK

Egun batez, orain urte asko dala, komeriante batzuk Errenterira etorri eta beren abildadeak erakusten asi ziran. Aietako bat bere alabak jo egiten zuan, baiña arek etzuan, itxuraz beintzat, miñik artzen. Gero lurrean luze-luze etzan zan, eta bere alaba ori besoetan artu eta jaso egiten zuan.

Urrena, berriz, lurretik altxa eta, alaba karga ariña zuala-ta, publikotik bat edo bat etortzeko eskatu zuan.

Jende artean Leandro zegoan. Au mutil aundi bat zan, kalekoa, baiña erderaz tutik ere etzekiana, eta bertsolaria gaiñera.

Lagunak ura atera arazi egin zuten. “Oa, mutill, oa” esan zioten.

Komeriantea berriro ere lurrean luze-luze etzanda jarri zan, eta Leandrori bere besoetan jartzeko esaten asi ziztaion, jaso zezan.

Leandrok, ordea, etzion tutik konprenditzen, eta lagunei onela galdetu zien:

- Zer dio onek?

Eta lagunak:

- Muturrean jotzeko! Ez duala miñik artzen!

Leandrok etzuan ori leendabizikoan sinistu:

- Bai? Ori esaten al du?

- Baietz, motell, baietz! Muturrean jotzeko! Ez duala miñik artzen!

Leandrok orduan ostikoz muturrean jo zuan komeriantea. Batzuek diotenez, eskalaproiekin omen zan gaiñera. Garai artan jendea asko ibiltzen zan oiñetako oiekin. Komeriantea altxa zan segituan, tximistak zerizkiola, eta an asi ziran biak alkarri mutur joka, izugarritzko egiñalean. Bitartean, jende guzia parrez lertzen.

Gero, Leandro gizarajoa istillutan erabili zuten, alkatearengana-ta eramanetz.

Baiña bertsolaria izaki, eta pasadizo guzia bertsotan jarri zuan.

1/ Ofiziyo berri bat
bear degu artu:
Leandrok kantak jarri,
Arandiak saldu;
askotan patrikaran
sosik ez daukagu,
zerbait ofiziyotan
saiatu beagu.

2/ Gure Errenteriyen komediantiak igande gau batian txit balientiak; alabak eman arren dale fuertiak, etzuben miñik artzen nik jo bitartian.

3/ Gau arretan pailazok ura pantasiya! Astuak bezela egiten zuen irrintziya; alabari jotzeko nai zuen guziya, nik deklaratu nuen aien maleziya.

4/ Ortaz gora jarri zan ondradamentian, etzuen uste bañon beretzat kaltian; pailazok esan arren jartzeko gañian, publikua ejuka: “Jo zak muturrian!”.

5/ Pailazoren esanik nik ez konprenitzen, orduan asi nitzan jendiai galdetzen; berriz ere lengua zuten esplikatzten: “Jo eta ez omen dik miñikan artutzen!”.

6/ Aitak alaba zuen besuakin jaso, beste bat ere egingo lukela airoso; ni nonbratu niñuten koadrillan pailazo, egiñalakin joka nioken eraso.

7/ Asi giñadenian dili eta dale, intentziyo fiñakin tranpa aundirik gabe, orain komeri ederrak egiten dirade, bañan ez guriakin konparatzeko're.

8/ Alkatia etorri zaidan beriala, esan ziran merezi nuela kartzela: “Ik zer motiboz jo dek pailazo orrela?”. “Berak esan du miñik artzen ez dubela!”.

Ona emen bertso auen doiñua:

O-fi-zi-yo be-ri bat
bi-ar-de-gu ar-tu, Le-

* * *

an-drok kan-tak ja-ri A- rran-di - ak sal-
 du; as - ko-tan pa - tri - ka - ran so -
 sik ez dau-ka - gu: zer - bait o - fi - zi -
 yo-tan sa - ia-tu bi - a - gu.

1. Bertsoak, Pello Zabaleta bertsolaria zana-
 ren aotik jaso bezela jarri ditugu.

Baiña *Bertsolariya* astekarian ere arkitu ditu-
 gu, beraren 15 zenbakian eta 1931-ko abenduaren
 27-an argitaratuta, aldaketa auekin: izenburua:
 Komediantiak Leandro Salaberriak jarriyak; bert-
 soen ordena: 1, 2, 6, 4, 5, 7, 3 eta 8; 1/1:
 Bizimodu berri bat; 1/2: orain degu artu; 3/1: ga-
 baetan pailasok; 3/8: arren maleziya; 5/1:
 Pailasoren esana; 5/3: gero publikuari; 5/4: asi
 naiz galdetzen; 5/7: jo eta ez omen du; 6/1:
 Alabak grizuakin; 6/2: aita zuen jaso; 6/7: egiña-
 lakiñ jota; 6/8: niñuen eraso; 7/2: dili edo dale;
 7/4: tranpa aundi gabe; 8/2: zaiian beriela.

JOSE MARIA ELIZEGI BERASARTE
“FRAILIA”
(1859-1925)

BIZITZA

Jose Maria Elizegi Berasarte Erreterian jaio zan, 1859 urteko otsaillaren 7-an. Gurasoak, Kaitano, Oiartzunen jaio eta Erreterian bizi zana, eta Inazia, Ernaniko alaba, izan zituan.

Jose Mariari ez-ezik, familiko guziei ere *Frailiak* edo *Frailletarrak* esaten zieten.

Izengoiti ori leengo zaarretatik zertorkien. Oietako bat, baserritarra bera ere, inguruko baserrietako aurrei dotriña erakusten aritzen omen zan; eta orregatik *Frailia* deitzen asi.

Elizegi, garai bateko erreteriar pelotari famatua, famili orretakoa zan. Eta Altzoko Aundia ere, oiekin, aaide xamar egiten omen zan.

Jose Maria, Erreteriko alaba zan Antonia Aranbururekin ezkondu zan. Bertako Iturralde baserrian izan zuten beren etxea. Baserri orrek bi bizitza zituan. Batean berak bizi ziran; eta besteetan maizter batzuk. Jose Mari ondasunetan ongi xamar zegoana omen zan.

Aldi batez, maizterrak andik bota bear izan zituan, aiengandik xoxik ere jaso ezin zualako. Maizter oiek mandoeekin egur-ikatza eta iruria saltzen

ibiltzen omen ziran. *Iruria* ikatzaren kondarra da. *Auntxa* esaten zioten izengoitiz famili orri. Maizter oiek Iturraldetik ateratzean, Erreteriko Etxetxikira etorri ziran bizi izatera.

Etorri berrian, famili artako mutiko bati onela galdetu omen zioten kalean:

- Orain arte nun bizi ziñazten?

Eta mutikoak onela erantzun zuan:

- Nun bizi giñan? Iturralde!

Bederatzi illabetean egon gaituk debalde!

Izorra adi, Fraile!

Bere gurasoengandik-edo ikasia izango zuan ori; baiña mutikotan olako piper-miña zana gozoa izango zan zaartu eta gero!

Jose Mariren bertso gutxi jaso aal izan degu. Ala ere, bildu ditugunak orain eskeñiko dizkiogu irakurleari.

Jose Mari au Erreterian il zan, Iturralde baserrian, 1925 urteko maiatzaren 23-an, irurogei ta sei urterekin, *cirrosis hepática* deritzaion gaitzak jota.(2)

1. Erreteriko 14-garren bataio-liburuan.

2. Erreteriko 14-garren eriotz-liburuan, 18-garren orrian.

AOTIK AORA

Leen ere esan degunez, Jose Mari Elizegi edo Frailia onen emaztea Erreteriko Antonia Aranburu izan zan. Kolore beltz xamarra omen zuan.

Orregatik, egun batean, bertako Pello Zabaleta bertsolaria zanak kontatu zigunez, bertso au kantatu omen zion senarrari beste bertsolari batek:

Frailek ereiñ omen du
gaitziru bat baba,
baliatuko zaio
urtabia bada;(1)
zozuak eta beliak
joango zaizka ara,
obe luke andria
izugarri para.

Andre txori-izugarri jartzeko, alegia. Eta onela erantzun zion Jose Marik:

Adituak aditu,
ekusiak ekusi,
Praille bere andre beltzakin
kontentu da bizi;
ederrak esatia
(y) ukek ik merezi:

i zertara juan intzan
Prantzira igesi?(2)

Beste bertsolari ura, izan ere, gerratean ixpia izaki eta Frantziara igesi joana baitzan.

Bertso-pare au leenago ere eskeiñi diogu irakurleari, Altamugarriko Juan Antonio Bengoetxearen berriak emate-rakoan. Bera baitzan, diotenez, igesi joana zana; baiña ez Frantzira, Ameriketara baizik. Bertso auetan leenengoan, osorik ez bada ere, Aita Donostiaren *Euskal-Eres-Sortan* ere arkitu degu, Aranon jasoa:

Frailek ereiñ o -
mendu gai-tze-ru bat ba - da
o - rain be - li - ak jua-ten o -
men di - ra a - ra o -



* * *

Urrengo gertaera au Oiartzungo Berinberri baserriko Ines Berasategi zanari jaso nion:

“*Fraile* izengoitia zuan bat bazen Oiartzunen bizi zena.(3) Batean, iru mikelete omen ziran alkarrekin: *Barrena* izeneko bat eta beste bi. Zerbait izango zuten eta orduan *Fraile* orrek:

- Barrena,
inpernura sartuko al az aurrena!
Mutur okerra urrena,
bizardun xirpixua irugarrena!
Fraile bakarra erri guzian eta
au ola ibiltzeko zeñek eman dik or-
dena?

Beste batez, Naparroatik kontra-
bandua zekarrela, aguardinta txuria
alegia, mikeleteekin edo guardiazibi-

llekin topo egin zuan mendian, eta al-
karri onela esan zioten:

- ¡Alto!
- Nik aurrera salto!
- ¡Ocho pesetas pague usté!
- Battit, biño eztit uste!
- ¡Ocho pesetas pagar!
- Baita ni *escapar!*

Eta korri...

1. Urtabia: urte ona.

2. Bigarren bertso au beste onela jaso nion Oiartzungo Larria etxeko Patxi Labandibar zanari:

Adituak aditu,
ikusik ikusi,
ire pasadizua
nai det adierazi;
nik nere andre beltzak
kontentu nak bizi,
i berriz Frantziyara
joan intzan igesi.

3. Oiartzunen bizi bazan, duda egiten degu gure *Fraile* errenteriarra izango ote zan edo beste-
ren bat.

(1919)
BERTSO BERRIYAK
ERRENTEI-KO FRAILIAK JARRIYAK

- 1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
pekatariyentzako
oso penagarri;
neronek orain arte
eztiyot igerri;
juan tenplo santura
garbituta jarri,
nai ezantuanak ikasi
infernuko berri.
- 2/ Egin oraziyua
artzagun indarra,
bestela gurekin da
sua edo garra;
utzi alde batera
demoniño zarra,
mundu guziyan dago
lege bat bakarra,
Jesukristok jarriya,
ezta oso txarra.
- 3/ Esplikatu digute
misiyo santuak
erabat utzitzeko
munduko kontuak;
gu bezela len emen
izandutakuak
inpernuko zolera
badira sartuak;
orra zeñen mantxa gaiztua
duen pekatuak.
- 4/ Anima kulpa gabe
ikusiko da galtzen,
propositu firmerik
ezpadegu artzen;
gure anai Lutero
inpernura joan zen,
aren anima nola
daguena penatzen
batzuetan eztegu
askorik pensatzen.
- 5/ Daukazkit kunplituak
irurogei urte,
len banaka ta orain biñaka
martxa deramate;
Jesukristoren ordenak
nai nituzke bete,
iltzeko señaik ere
asi zaizkit fuerte,
fraile zarrak zerura
gonbidatzen naute.
- 6/ Jesus etorko zaigu
aingeru batekiñ,
Luzifer diabrua
arsanuaekin;
gure miseriyak klaro
biarko tuzte jakiñ,
konsejatu gaitezen
sazerdotiakin,
okerrikan etorri
ezteiyen gurekin.

7/ Jesusek gorde nai gaitu
bere biyotzian,
ala itz egin zigun
Ark eriyotzian;
diadarka egondu zan
denbora luzian,
zerbait erregutzeko
Beraz oroitzian,
pagatuko giñula
Artan biartzian.

10/ Misiyua kulpitotik
mintzatu da garbi,
ederrak esan dizkate
emakumiari;
endemas dendero
jostuna oieri,
gonak luzatutzeko
neska gazteari,
gurasuen kulpa
egin dute ori.

8/ Munduan izan dian
gauzarik onenak,
dana guziyak dira
Jaungoikuarenak;
pazientziyan pasa
mundu ontan penak,
relijjiyo santutik
diraden ordenak,
zintzo gorde lezake
munduan txit denak.

11/ Korsian bolantiak,
petxua ageri,
kamisa jantzi nai ezik,
gezurra diruri;
gonak betik moztuak
sobra ta geiegi,
sorgiñaren figura
nai luteke jarri,
dontzellarentzat planta
ederra da ori.

9/ Irtentzen geranian
mundu onetatik,
izango ote degu
geiago bueltik?
Mandatarari joanak
badira aurretik,
alerikan bialtzen
eztute orretik;
au bera esango dute
oraindik gugatik.

12/ Soñu edo batzarra,
dantza edo bailia,
orrekin kejatu da
mixiyo jendia;
neskatx arrosko samar
dantza orren zalia,
inpernura ikasi
zenduen biria;
eztakazu pasaturik
eternidadia.

13/ Juiziyoko eguna
eldu zaigunian,
a zer beldur-ikara
geren barrenian!
Erdiyak pekatuan
lotan onenian,
geren etsai gaiztuak
arturik mendian,
a zer diadar tristiak
iltzen geranian!

14/ Jesusen llaga tristiak
ai gera berritzen,
nola sendatuko diran
beti añaditzen;
pekatu egiteaz
eztira arritzen,
iya konfesatu gabe
geraden gelditzen,
ondo konsideratu
zer nola gabiltzen.

15/ Ostiral Santu egun
iru ta erdiyetan,
odola jatxitzen da(1)
Jesusen oñetan;
deusen kulpa gabia
gaxua ezertan:
“Ama, etsai gaiztoak
ilko naute bertan,
munduan pekataririk
salbatutzekotan”.

16/ Pekatua da gauza bat
oso itxusiya,
Jesus gurutze batez
or dago josiya;
misiyuak esan du:
“Au da desgraziya!
Odolez zikindua
zeukaten guziya,
egur iar batian
nerauk ikusiya”.

17/ Belendik juañ zanian Jesus,
Sinaingo basuan,
pekatariyagatik beti
errezua egin zuan;
beste penarik etzuen
.....(2)
animak sartu ziran
inpernuko suan,
an esplikatua zan zeren
egarriya zuan.

18/ Bataiatu giñanian
emandako itza
esaten erraz zan, baño
kunplitutzen gaitz da;(3)
projimua maitatu,
guardatu Eliza,
zerura joan ziran
santu aien gisa;
guretzat ezta faltako
zuzen bagabiltza.

19/ Amar gauza dirade
animako lanak,
misiyuak penitentzi orde
geroni emanak;
batere utzi gabe
egin biar danak,
erregutu dezala
Jaungoikuan Amak,
ai zer diar tristiak
deskuidatzen danak!

20/ Eskela bat egin du
zeruko Maisuak,
pronto irukitzeko
anima gaxuak;
deskuidatzen geranak
bagera batzuak,
egin penitentziyak
edo errezuak,
abrasatu ez gaitzan
infernuko suak.

21/ Au da atzenik eta
errematia emen,
gure fiñaren atzena
orra bada zer den;
deia eldu deneko
prestaturik gauden,
zerura joateko
emendik lenbailen;
denari deseatzan diyot,
ala gerta dedilla, amen.

“Errenteiko Frailiak jarriyak” esaten du paperak; eta famili ortan bertso-laria Jose Mari Elizegi ori baitzan, berarena izango da.

Irungo “*Tip. Pio Garmendia*” moldiztegiaren inprentatua dago. Oartzungo Altzibar auzoan jaso genduan, Olalde baserriko Jose Anjel Sarasola zanaren eskutik.

Bostgarren bertsoak esaten duanez, egilleak irurogei urte zituan bertso auk moldatu zituanean:

Daukazkit kunplituak
irurogei urte...

Jose Mari Elizegi au 1859-an jaioa baitzan, irurogei erantsi eta 1919 urtea aterako zaigu. Orduan paratutako bertsoak izango dira. Izenburuan ere orrela ezarri degu.

Misio-bertsoak ditugu; baiña zein erritakoak diran ez da esaten.

1. Bertso-paperak *jantzitzen* dio. *Jatxitzen* idatzi degu, orrela bear dualakoan.

2. Moldiztegiaren utsegitez-edo, lerro au falta da bertso-paperean.

3. Lerro ontan, bearbada, *kunplitutzen gaitza* bearko luke.

BERTSO BERRIAK

ERREENTERIKO FRAILEK JARRIAK

- 1/ Misiyuari ikasiya
naiz esplikatzeke asiya,
esan diguten guziya;
bat beñepeñ ez da(1)
aspertu eta jetxiya;
ai, Jaungoiko biziya,
amak gureztat utziya,
eman oieri graziya.
- 2/ Ez bada inozentziya,
bear da penitentziya,
artu guztiak etsiya;
doai eder bat bazan Jesusek
testamentuan utziya;
bota du zenbait graziya,
gero zerutik jetxiya,
maite du mundu guziya.
- 3/ Mixiyo amorosuak,
aingeruan gurasuak,
pekatu asko jasuak;
gurutze santua artu laztanka,
zabaltzen dituzte besuak;
txit dira kuriosuak,
ain dira animosuak,
Jesu-Kristoren usuak.
- 4/ Esamiña egin lenbizi,
kontzientziya ikusi,
pekatu danak berexi;
bere anima infernuetan
nork naiko luke ikusi?
Etsaiak nai du erosi,
egin zaiogun igesi,
ez du galtzerik merezi.
- 5/ Egin badegu okerrik,
konfesatzea bakarrik,
ibilli gabe alferrik;
motiboak bagenduen da
aditzen degu ederrik;
egin piska bat bederik,
gorputzak badu indarrik,
etorri gabe negarrik.
- 6/ Etsai gaiztoen leizia
zabala eta luzia,
okerreneko klasia;
zer balio du gorputz batian
anima bataiatzia?
Gero daukagun lantzia,
pena emain du galtzia,
oien eskura jartzia.

- 7/ Au kristandade nastua,
obra onetako oztua,
pekatuz aberastua!
Relijioai garraztasuna,
lujuriari gustua;
zer da itxumen gaiztua,
guztiyen juez justua
ez da egongo aztua.
- 8/ Erderaz maldiziyua,
Judasen oraziyua,
au euskaldunen leziyua;
blasfemiyakin aienatzen da
Jesusen bendiziyua;
triste dago Mixiyua,
utzitzeko biziyua,
nai bada salbaziya.
- 9/ Abe Maria bat erdiyan,
beraren Sortze Garbiyan,
iñor badago premiyan;
guztiyen Ama aldaretikan
or dadukagu guardiyan;
tristura dauka begiyan,
orain naiz bada abiyan
zerbait konsola dediyan.
- 10/ Jaunaren miserikordiya
oso da gauza aundiya,
kaso bat miragarriya;
deskuido batez bete ez dedin
pekatariyen neurriya,
aingeru bat da guardiya,
bada zerbaiten premiya,
bildur liteke arriya.
- 11/ Egiten duenak pekatu
egin bezela aitortu,
zorra nai badu pagatu;
kontriziozko akto eder bat
anparo ordetzat artu;
ez Jesus desanparatu,
biotzetikan maitatu,
nai badegu salbatu.
- 12/ Emen ondo ajustatu,
egiyaz manifestatu,
formalidadez prestatu;
ai pekatari miserabilia,
ez zaitezela jostatu;
biotzetikan eskatu,
ez du sekulan ukatu,
ez arren ortan dudatu.
- 13/ Konparaziyo au banuan:
lau urte pasa munduan,
tribunalera jo nuan.
“Nere biotzeko Jesus maitia,
ez dakit zenbat zor duan;
ez banaiz sartzen zeruan,
oroituko naiz orduan
zer egin dedan munduan”.
- 14/ Kasino eta tabernak,
teatroetan daudenak,
ordikerian geienak,
erari gauzez mantxaturikan
kanpoak eta barrenak;
utzirik bada txar denak,(2)
Jesuskristoren ordenak
kunpli ditzake txur denak.

15/ Jesus maitia neria,
zeru ta lurren jabia,
zuregan daukat fedia;
gure ongi naiz bere Biotza
elizan dauka paria;
ez dakit denak badia,
orra nik esan ordia
anima dedin jendia.

16/ Errege ta erregiñak,
enperadore jardiñak,
jeneral kapitan fiñak,
Jaungoikoari igual kostata
guztiak gera egiñak;
bataioz ere berdiñak;
santo eta Ama Birjiñak,
egin gutaz alegiñak.

17/ Itzegin badet geiegi,
“barkatu bada gaur neri”
esaten diyet denari;
zerbait itzegin arren nik ez diot
gorrotorikan iñori;
Bonifazio Baraibarri(3)
eta bikario jaunari
ez juaten utzi oieri.

18/ Goardatu mandamentuak,
konfesatu pekatuak,
maiz artu sakramentuak;
argatik didar egiten dute(4)
aingerrua eta santuak;
Jesusen odol tantuak,
gurutzetikan urtuak,
ematen dituzten frutuak.

19/ Seigarren mandamentua,
gabeko juntamentua,
nola dagon ondatua;
Jesus argatik il zan,(5)
artuko digu kontua;
San Agustin e santua,
gutxitik eskapatua,
zerurako eskojitua.

20/ Bizi gaitezen dolorez,
zertan gabiltza aldrebes?
Badirudigu Eroides;
Jesus maitiari lllagak berritzen,
anparorik iñor ez;
zikintzen degu odolez,
desmaiatua kolorez,
aitor dezagun faborez.

21/ Jaio giñanak mundura
biltzeko alkarren ondora
laister denbora eldu da;
gurasuaren krianztan faltan
zenbait anima galdu da;
erregu ordutik ordura,
mixiyu oien modura,
igo gaitezen zerura.

Bertso auk Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldu dira, “*Rentería: Tip. Vda. Valverde*” moldiztegian argitara emandako paper batean.

Egillearen izena izenburuak esaten digu: *Errenteriko Frailek jarriak*. Izengoitia ori onartua zeukala or ikusten da, bestela ez baitzion berak bere bertso-saillari erantsiko.

Gero, izenburu eta bertsoen tartean onela dago eskuz idatzita: *10 Mayo 1908*. Enrike Elizetxeak-edo bertso aukeratu ortan eskuratu zituala esan naiko du bearbada.

Gaia, irakurleak ikusi duanez, misio bat da. Nungoa ordea? Bertsoetan ez da ori esaten. Baiña Erreteriko Jose Goñi zanak buruz zekizkian sail ontako leenengo eta zortzigarren bertsoak osorik, eta amazapigarrenaren puska bat; eta, arek esan zigunez, Oiartzungo misioak omen ziran.

1. Lerro ontan nabarmen dago itzen bat falta dala, moldiztegiaren utzegitez-edo.
2. Bertso-paperak: *danak*. Punturako *denak* askoz obeto dagoala eta orrela idatzi degu.
3. Bonifazio Baraibar au, Erreteriko Jose Goñi zanak esan zigunez, alkate jauna omen zan.
4. Bertso-paperak *zute*. *Ala ere dite* idatzi degu; baiña zalantzarekin, *zuten* izatea ere baditeke eta.
5. Emen ere itzen bat falta da, baiña bertso-paperaren orrelaxe dago.

JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIARENA
(XENPELARREN ILLOBA)
(1865 - 1943)

BIZITZA

Joxepa Antoni Aranberri Petriarena Erreterian jaio zan, 1865-eko ilbeltzaren 7-an.

Aita, Jabier Inazio, Azkoitikoa zuan; ama, berriz, Maria Luisa, Xenpelar bertsolariaren arreba zan.

Orretxegatik sartu nai izan ditugu Joxepa Antoni onen bizitza eta bertsoak Xenpelarren liburuan, naiz eta bertsolari onen gizaldikoa ez izan: aren familikoa zalako.

Ain zuzen, beraren bataio-agirian onela irakurtzen da: “...*siendo testigo Franc. Petriarena, natural de Oyarzun, casado, tejedor*...”

Txeetasun au ondo gogoan artu bearko litzake: Xenpelar aundia aur orren bataioan izan zala. Etzan ondoren bertso-paltarik izango.

Au entzunik, bertsoarako griña osabak illobari itsatsi ziola pentsatuko du irakurleak. Egia noski. Baiña osaba ez-ezik, bazan familian doai ori erantsi lezaiokean beste bat ere: ama.

Bein baiño geiagotan jardun izan omen ziran bertsoan anai-arreba auek. Leen esan degunez, Erreteriko Fabrika Aundian lan egiten zuten. Bein ba-

tez, nagusiak Andoaña bialdu zituan eginkizun batera. An alkarri bertsoak kantatzen aritu omen ziran, eta bertako jendea zorutzen aiei entzuten.

Leen ere esan degunez, Xenpelarren arreba au oso buru argikoa omen zan. Irakurtzeko zaletasun aundia zuana. Egunez denborarik ez eta arratsean, oierakoan, jarduten zan, kinke bat piztuta. Batzuetan, ordea, lo artzen zuan, eta bere ille kixkurak erre egin omen zitzaizkion bein baiño geiagotan. Bestetan, berriz, senarrak argia itzali bear izaten zion.

Baiña 1869 urtean baztanga aundia sortu zan. Izurrite orrekin kutsatuta zeuden etxeak itxi egiten zituzten kanpotik. Barrukoak xexto bat jeixten zuten leiotik beera, soka edo lokarri batetik zintzilik, paper batean zer bear zuten esanez. Au ekarritakoan, xextoa atzera barrura jasotzen zuten, sokari tiraka.

Dakigunez, Xenpelar bertsolariaren familian iru eriotz izan ziran: aurrena, Xenpelarren emaztearena, 1869-ko urriaren 26-an; urrena, Xenpelarrena, abenduaren 8-an; irugarrena, onen arrebarena.

Xenpelar gaizkitu zanean, bere arreba Maria Luisa au kontu egitera joan zitzaion. Senarrak onela esan omen zion joan aurretik:

- Etzoazela, Maria Luisa, etzoazela! Bakarrik utzi bear al nazu aur txikiarekin? Kutsatuko zera!

Baiña emazteak onela erantzun zion:

- Ez naiz kutsatuko! Ondo aterako naiz!

Azken arnasa eman zuan arte lagundu zion anaiari. Baiña gaitzak etzion barkatu. Anaia, leen esan degunez, Ama Birjiña Kontzezioko egunean il zan ogei ta amalau urterekin. Arreba, berriz, abenduaren 18-an, amar eguneko tartearekin, ogei ta amasei urterekin.

“Alkar maite izan zazute” eskatu zigun Jesukristok, eta agindu ori bai ondo bete zuala Maria Luisa onek. Jesusek berak dionez, bizia lagun urkoagatik ematea baiño maitasun aundiagorik ez baita.

Joxepa Antoni, lau urte bete baiño leen gelditu zan, beraz, amarik gabe. Baiña etxetik alde-aldean Mationia zeritzaion ostatua zan; eta ango etxeko-andreak, aurraz kupituta, bere kontu artu eta berak azi omen zuan.

Andik iru-lau urtera liberalen eta karlisten arteko bigarren gerratea piztu zan. Liberalak Erreterian eta karlistak Oiartzunen baitziran, Mationia-n soldadu-buruzagi asko izaten omen zan. Bazkaria eguerdiero bialtzen zieten ostatu ortatik berak zeuden tokiraiño, abantzetaraiño alegia, orduan esaten zanez. Baita Sorgin-txulo zeritzaion

tokira ere, gaur Don Bosco dagoan ortara. Arako bazkari-eramalea Joxepa Antoni izaten zan.

Soldaduak bazekiten nexka kokkor aren familia beretakoa etzana, eta tentatzen asten zitzaizkion. Bai Joxepa Antonik aguro erantzun ere;

- Zuek danak inpernura joango zerazte, beltzak zerazte ta!

Baiña aiek etziran aserretzen. Parra egin ondoren, propina ere ematen zioten, eta Joxepa Antoni pozik bueltatzen zan etxera bere xoxekin.

Etxekoak onela esaten zioten gero:

- Au ume lotsagabea! Aiekin ola ariko zera ba?

Baiña Joxepa Antonik etzuan amor ematen:

- Bai; gaiztoak dira danak! Inpernura joango dira, beltzak dira ta!

Aren sententziz, beraz, bizirik kondenatuak zeuden danak.

Aita, berriz, bein baiño geiagotan bialdu zuten *partiakin*, mandatari alegia. Jabier, garai artan, erreuma-aizeak jota zegoan. Gogortua oso. Oietik mugitzeko gauza etzala, oiaren gaiñetik *polea* jarrita zeukan, sokari elduta gorputza mugi aal izateko. *Partia* eramateko agindua ematen ziotenean, onela esaten zien:

- Ni ez naiz ortarako gauza. Begira nola nagoan. Nik ezin nezake.

Baiña liberalen buruzagiak, Furundarena zeritzaion batek, onela erantzun izan zion:

- Zuk baiño lan geiago egin izan ez banu nere denboran, Matusalenek aiña urte arrapatuko nituzke munduan!

Jaiki eta joan egiten zan. Bearko! Jaungoikoak bakarrik daki bidea nola egiten zuan.

Bitartean, etxeokak beldurrak aidean gelditzen ziran. Bai-baitzekiten besteak *partiak*in arrapatzen bazuten, gorriak ikusteko zegoala. Zakurrak salatzen omen zuan bueltan noiz zetorren. Zakurra larriago eta ura alderago. Eta etxeokak pozik.

Joxepa Antonik, erriko eskolara joaten asi zanean, ikasteko gogo aundia agertu omen zuan. Ortan ere, bere ama zanaren antza aundia, beraz. Baiña aitak etzion eskola-libururik erosten.

Alabak onela esaten omen zion:

- Maistrak erritan emango dit!

Eta aitaren erantzuna:

- Ez dio inporta! Ez degu guk kastabelazko (*sic*) liburu bearrik! *Pregunt*a bear degu guk, *pregunta*! Ori ondo ikasi!

Pregunta dotriña zan.

Alabak negarrari ematen zion. Eskola-bidean iturri bat zan. Antxe, eskolara baiño len, begiak garbitzen zituan. Lagun batek onela esaten zion:

- Nik utziko dizut liburua!

Ala, lagunaren liburutik ikasten zuan.

Pregunta ez-ezik, bere gustoko beste liburu bat ere bazuan aitak: *Testamentu zarreko eta berriko kon-daira*. Askotan, bazkalondoan-eta, onela esaten zion alabari:

- Au letu, au! Oso polita da ta!

Alabak:

- Leen ere letu det nik ori, aita! Memoriz ere badakit!

Eta aitak:

- Bai, baiña oso polita da eta letu zazu berriz!

Joxepa Antoni amabi urterekin asi zan lanean, Fabrika Aundian, bere ama eta osaba ziranak lan egin zuten lantegi berean alegia.

Artean txikia zan, noski; eta eskola-liburua uzten zion lagun arek berak, zapata koxkordunak utzi zizkion, onela esanez:

- Aundiagoa emango duzu auekin. Bestela, nagusiak igual bialduko zaitu, txikia zerala ta.

Buruko *pañuelo*a ere janzten zuan, atso zaarrak bezela, errespeto geiagokoa zalakoan. *Pañuelo* orri *ttattarra* deitzen zitzaion.

Joxepa Antoniren aita Azkoitiko Urrategi baillarakoa zan, Oiaun baserrikoa. Anjo parienteak bisitatzera zi-joazenean, Elgoibarreraiño trenean joaten ziran, eta andik baserriraiño oiñez.

Bidearen bi aieketatik dana intxaur arbola omen zegoan. Joxepa Antonik intxaur biltzen asten zan, eta aitak onela esaten zion:

- Utzizu intxaur biltzeari; guziak biltzekotan, zakuka bildu bearco dezu ta!

Eta alabak:

- Baiña, aita, beitu zenbat intxaur! Beitu zenbat intxaur!

Ala, batek aurrera nai eta besteak ez, zelebrezko ibillaldia egiten omen zuten.

Urte askoren ondoan, Errenteritik Oiaun baserrira bi neskatxa zijozan



Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelarren illoba, eta Monika Galarraga, Errenteri.

Eguberri-festak pasatzera: bata, bertako alaba; eta bestea, beraren laguna. Aurretik, bidera ateratzeko eskatuz, bertso au bialdu zuan Joxepa Antonik:

Elgoibartikan pensatzen dute
egitia bi ajia,
batetik dala egokiyago,
bestetik berriz merkia;
eta gañera nai lutekela
bertsuetan esatia
astuarekin ateratzeko
artzera ekipajia.

Urteen buruan onela esaten zuan Joxepa Antonik Azkoitiko erriagatik:

- Alabie iñudie ta semie jesuitie, an ez dago besterik!

Aitak bi ofizio zituan: bata alparga-tagille -etzitekean bestela azkoitiar jatorra izan-; eta bigarrena, *kamiñero*.

Egun batez, Alaberga ondoan kamioan lanean ari zala, auntza ere ekarri eta bazterreko sasi-puntak jaten jarrita zeukan.

Alako batean, Alfonso XIII erregea, artean mutil koxkorra zala, alderdi artatik egokitu zan. Auntza ikusi eta arekin jostatzen asi zan. Jabierrek, ordea, okerrik gerta etzedin, auntzari adarretatik eldu zion. Orduan erregea bizarretatik tiraka asi zitzaion. Ori ikusita, erregeari lagun egiten zionak Jabierri oju egin zion:

- *¡Mucho cuidado, caminero!*

Onek, ordea, onela esaten zion erregeari:

- *¡No haces nada! ¡No haces nada!*

Jabier oso elizkoia zan. Urrategiko elizatxoan, bera eta bere aitak, batek

ezin bazuan besteak, berrogei ta amar urtean lagundu omen zuten igandeko meza, bein ere uts egin gabe. Iñor iñun gaizkitzen bazan, Jabierren aitari deitzen omen zioten, gaixoari lagun egin eta prestatzen asteko, apaiza kaletik etorri bitartean.

Errenterian ere sarritan laguntzen zuan meza Jabierrek. Egun batez, apaiza bakarrik, laguntzaillerik gabe alegia, atera zan aldarera. Baiña Jabier jende artean ikusi zuan; eta, beste aldi askotan bezela, ots egin zion. Jabierrek joan eta meza lagundu zuan. Baiña gero, etxera etorritakoan, onela esan zuan:

- Au lotsa pasatu det!

- Zer bada?

- Zer bada? Zapata-zolak autsita neuzkan eta ni meza laguntzen! Nik pasatu ditudan lotsak! Ez da nik nai ordurako meza bukatu!

Urteen buruan pixatik gaixotu zan. Oiñaze asko izaten zituan; eta, oian ezin egonik, jeiki egiten zan askotan, artean eguna argitu gabe zegoala ere. Orregatik, bein baiño geiagotan gertatu omen zan alabak aitari onela esatea:

-Aita, errosarioa esango al dugu?

Eta aitak:

- Bai, nai baduzu. Nik iru esan ditut goizeko bostetarako, Galtzara-bordako metaren ondoan.

Il ere, gaitz ortatik il omen zan.

Aita mundu ontatik joan eta bakarrik gelditu zanean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin asi zan bizi izaten. Leen ere etxeoak balira bezela ziran, baiña arrezkeroztik aiekin erabat jarri zan.

Famili ontan, amona Dolores, alaba Mikela eta bi illoba, Matilde eta Florentina -edo, esaten ziotenez, Pontiña- bizi ziran. Florentina au da idazlan ontarako argibiderik geien-geienak eman dizkiguna. Milla esker beraz.

Etxe ontan, Mikela ori maistra zalarik, jostundegia zuten. Neskatxa gazte asko izaten zan josten ikasten.

Mikela ori oso emakume alaia omen zan. Onela esaten zuan:

- Zerura joaten banaiz, espero detan bezela, kantari ibilliko naiz beti Santa Zeziliaren atzetik.

Jostundegiko neskatxei onela esaten zien:

- Kantu ona orazioa da, ta kantatu!

Ala, josteari utzi gabe, kantari ari- tzen ziran. Makiña bat euskal kanta eta bertso pasatzen zan aien eztarrietatik. Jenero ortan baratza ugaria izan da beti Erreteriko erria.

Mikelari, azkenerako, gorri aundia jarri zitzaion. Ala ere, laster iger- tzen omen zion, taldean iñork gaizki kantatzen bazuan. Baita aguro ixil arazi ere.

Erriko aguazillak kale-kantoi- an egoten omen ziran, ango umorea entzutearren.

Goiko bizitzara erdaldun famili bat etorri zan bizi izatera. Etxekoandrea, eskaileretan kuxkur-kuxkur eginda exeri eta aien kantuak entzuten egoten zan. Batean, era ortan ikusi zutenean, onela galdetu zioten:

- ¿*Qué hace usted aquí?*

Eta arek:

- *Ni el demonio os entiende lo que cantáis, pero lo hacéis tan bien...*

Mikela ori 1934 urtean il zan. Mintsu denbora luzean egin zuan, baiña oian egun bat bakarra.

Joxepa Antonik bertso jartzeari noiz ekin zion ez dakigu. Aren bertso- saillik zaarrena, guk ezagutzen ditugunetan, 1902 urtekoa da. Erreteriko euskal idazle saiaturia zan Enrike Elize- txeak, izan ere, bertsoak jarri zituan *Ibaizabal* aldizkarian neskazaarren kontra. Eta Joxepa Antonik, bera ere kopradikoa baitzan, bear bezelako erantzuera eman. Elizetxeak onela aitortu zion: “Progratu dezu bertso aube- kin aurrekoan ondorengoa zerala”. Gaiñerako bertso-saillak geroztikako- ak dira.

Joxepa Antonik bazekian jostunde- giko neskatxen umorean parte artzen. Erretratatu nai izan zuan batean, oso maitea zuan neskatxa bati, gero Juanito Zabaleta bertsolariaren emaz- tea izango zan Monika Galarragari, la- guntzeko eskatu zion. Alkarrekin erre- tratatu ziran; eta gero, argazkia eskura- tu zutenean, onela esan zion Joxepa Antonik bere lagunari:

- Begira: gure etxeko jostundegian ez dakite erretratatu naizenik. Au etxe- rako nai det; eta, zuk jarri bazenida bezela, erretratu onekin batera bertso bat bialiko det jostundegira.

Bertsoak onela zion:

Jeneralian erretratuan
ikusten da familiya,
jostundegi edo lantegietan
berriz jende gazteriya;



Goien, erdian: Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelarren illoba. Beean, erdian, Monika Galarraga. Besteak: jostundegiko neskatxak.

alde ortatik ez naiz ibilli,
esango diet egiya:
pensatu nuen neskazar bati
egitia konpañiya.

Erretratu ori zala-ta, beste bertso au
ere jarri eta bialdu zuan jostundegira:

Astiertian goiz bazkaldu eta
etxetikan irten nitzan,
nere goguan zer nebilkiyen
ez nizuten bada esan;
orra bada gaur bi kopetillun
Konstituziyoko plazan,
Mikelak bere diszipulakin
naiko farra egin dezan.

Esan bearrik ez dago, bertso auek
jostundegian jaso ziranean, algara-pal-
tarik etzala izan.

Jostundegi ortara kanpotik etortzen
ziran neskatzak bertan bazkaltzen zu-
ten. Baita oiekin batera denda batean
dependienta zebillen Altzako neskatzak
batek ere.

Jostundegiaren aurrean beste denda
bat zan. Emengo mutilla, kafe erretzen
askotan aritzen zana, Altzako neskatzak
ortaz gustatu zan. Ala, biak ezkondu
ziran. Joxepa Antonik, zoriona emate-
arren, bertso au bialdu zien:

Gure aldetik zorion asko,
Mendartetar familia,
pozkidaz gaude ikusitzeko
matrimonio berriya;
dantzatu dezu kafe-zartana
erabilliyaz begiya,
zure onduan pasatzen baitzan
damatxo umill argiya,
eta polliki-polliki biyok
egin dezute kabiya.

Olako bertsoak, banaka jarriak ale-
gia, erruz omen zituan. Ara emen, era-
kusbidetzat, oietako batzuk.

Musarro bertsolariaren erraiñari
bertso au bialdu zion bein batez, jaiot-
teguna zoriontzeko:

Osasun onarekin
zure zoriona,
biyotzetik deseo
dizut, Luxiana;
munduan igarorik
zeruko fortuna,
an ere izan nai det
zurekin laguna.

Altzako Mirazuene baserriko etxe-
koandreak botilla sagardoa erregalatu
zion bein batez. Eta Joxepa Antonik,
eskerrak ematearren, bertso au bialdu:

Alabak zintzo egin
ziran enkargua,
bertso batez eskerrak
ematera nua;
asko gustatzen baitzait
neri sagardua,
eskerrik asko, nere
andre onradua.

Pildain obispo jauna izango zana
kanonigo egin zutenean, bere errira,
Lezora, etorri eta bere jantzi moreak
gorde eta sotana beltza utsarekin ibil-
tzen zan. Orduan Joxepa Antonik ber-
tso au asmatu zuan:

Iturri baten aldamenian
agertu dan landaria,
bioleta da; ezagutzen da:
maite du umildadia;

ostotxo berde tartian dabil
gorde naian koloria,
bañan dakigu bioletatxo
loria dala moria;
agertu bedi bere erriyan,
pozez dago-ta jendia.

Beste onako au, berriz, Eguberri-
-festa batzuetan egiña izango da:

“Pakian lurrian ta
goietan zerua,
borondate oneko
pertsonen pagua”.
Au kantatzen jeisten da
zeruko aingerua;
Jesusek giyatzen du
pertsone onradua
ondo gobernatzera
gauza ta dirua;
ez diyo faltatuko
bere agindua:
pakia lurrian ta
goietan zerua.

Baiña bertso aukeratu berak
idazten, etxekoak baizik. Zergatik ote?
Bere azken urteak, ogei bat urte luze,
itxurik egin zitualako.

Bat-batean gelditu zan bistarik ga-
be. Erderaz *Hora de guardia del
Rosario perpetuo* deritzaiona erreza-
tzera zijoa. Ortarako, misterio bakoi-
tzaren aurretik egin bear dan errezoa
irakurtzeko, liburua idiki zuan, eta ez
ikusten! Begiak igortzi eta begiak
igortzi aritu zan, baiña dana alperrik.
Ezin ikusi!

Biaramonen okulistarengana joan
zan, eta onek beranduegi joana zala
esan zion.

Arrezkeroztik, pertsonen eta gau-
zen erraiñua bai, baiña besterik etzuan
ikusten. Ala ere, fabrikara joaten ja-
rraitu zuan urte mordo batean. Nagu-
siak ere ala nai zuan. Joxepa Antoni
kontramaistra baitzan. Baiña gero be-
rak bere burua gelditu zuan.

Orregatik, bertsoen bat edo beste
jarri nai zuanean, etxekoei ots egiten
zien:

- Mikela, eskribituko al dizkidazu
bertso batzuk?

Mikela sekretariotza egiteko pozik
izaten zan beti, bertsoekin parra egite-
ko. Bertso oiek edozein paper-punta-
tan eskribitzen zituzten, eta gero etxe-
ko zokoetan azaltzen ziran.

Idazteko ez-ezik, beste zenbait gau-
zatarako ere besteren laguntza-pre-
mian arkitzen zan noski. Orregatik,
anaiaren meza berrira gonbiratu zion
lagun bati, onela erantzun zion:

Beñere ez da berandurikan,
ordua da allegatu,
zure eskutiz kariñosua
lenguan genuen artu;
zure anaiak bere erriyan
nai zuela zelebratu,
egun eder au or pasatzera
gaituzula inbitatu,
zure parentel onragarriya
ez nuke nai desonratu,
zarra bainago, erdi itxua,
zuk orrekin ententidu.

Azken urteetan onela esaten zien
etxekoei:

- Ai, gure Jaungoikoak emango ba-
lirake ordu laurden bateko bista!

- Zertarako?

- Zuen arpegiak ikusteko, zenbat kanbiatu zeraten!

Azkenerako min bizia sortu zitzaion. Urtebete egin zuan oian. Ala ere etzion bertso jartzeari utzi. Bere azken gaixoaldi ontan jarria izango da, itxura danez beintzat, moja zijoan bati bialdu zion bertsoa.

Adios Juliana,
adios betiko,
Xenpelarrek etzaitu
geiago ikusiko;
bañan zu aztutzia
ori ez du naiko,
amak eskutitzxo bat
dizu bialiko:
Xenpelar il dela ta
enkomendatzeko.

Bertso ori jarri zuanean 1943 urtea zan. Urte berean, Madalenetan, uzta-
ren 22-an alegia, bertso au eskeiñi
zion sagardoa erregalatu zion bati:

Ez dizut nik esango
senti ez dedana,
baña bai sagardua
espero nuana;

Florentinari zerbait
zerorrek esana,
ondo kunplitu dezu
esandako dana,
eskerrik asko zure
borondate ona,
eta urte askuan,
erriko patrona.

Oian zala, Jauna bein baiño geiagotan ekarri zioten. Oietako batean, Ama Birjiña abuztukoaren egunean, Tangeren bizi zan etxeko batek eta onen anaiak lagundu zioten apaizari Jauna ekartzen. Gero, Afrikako orrentzat, bertso au jarri arazi zuan paperean:

Afrikara juatian
zeorrek kontatu
nola Errenterian
zeraden portatu:
zure anaitxuakin
Jauna akonpañatu;
Amaren eguna da,
pagatuko zaitu.

Andik lau illabete ta erdira il zan,
1943-ko abenduaren 29-an, Errenterian, Santxoenea kalean, 25-garren etxean.

NESKAZARRAK

Bilboko *Ibaizabal* aldizkariak sari-keta bat antolatu zuan 1902 urtean, bertso gille ez-ezagunentzat. Onela iragarri zuan bere seigarren zenbakian, 1902-ko otsaillaren 9-an.

“Euskalerrian bertsoetara dagoan zaletasuna, ta *Ibaizabal*-ek, urten dabenetik ona, alde guztietatik artu dabean bertso ugariak kontuan arturik, erabagi dogu batzaldiak egitea Euskalerriko bertsoгийн artean.

Onek egingo ditue bertsoak geuk emen ipiñiko dogun gei edo asuntoaren gañean; plazo edo epe bat emongo jake bertsoak egin eta ona bialtzeko; ta guztien artean onenak direan biai saria emongo jake. Ona emen baldintasunak:

1. Lenengo batzaldi onen geia edo asuntua izango da “Taberneruen bizimodua”; gauza onen gañean bakotxak esan bei deritxona ta dakiana.

2. Epe edo plazoa aste bete da; datorren domeka edo igandean beteko da beraz, ta gaur amabostean argitaratuko dogu *Ibaizabal*-en, emongo gizon euskera-zale batzuk emongo dabean erabagia.

3. Lenengoari edo onenari emongo jako saritzat *Parnasorako bidea* deritxon liburua, guztia bertso ederretan Eusebio Azkuek egin ebana, ta ganera *Ibaizabal*-en suskriizioña urte guztirako; bigarrenari, esan dogun liburu “Parnasorako bidea”.

4. Euskalerrian ia entzute andia dauken poeta edo bertsoгийнak ezin leikez sartu batzaldietan; ez-ezagunentzat asmatu dira onek.

5. Ez etorri, mutillak, negarrez edo serio; bertso alai edo alegreak egin eizuez. Barre egin daigun, negar geuk gura eztogula egin bear izaten dogu, gura dogun baiño sarrigo-ta”.

Andik amabost egunera, 1902-ko otsaillaren 23-an, irabazleak nor ziran esaten zuan *Ibaizabal*-ek.

Urrengo zenbaki batean, berriz, 1902-ko epaillaren 9-an, urrengo gaia zer izango zan adierazten zuan:

“Gaur iragarten doguz batzaldi bi. Lenengorako bertsoak artuko dira datorren aste guztian, orain arteko batzaldietan legez, eta gaur amabostean agertuko da nok irabazi dabean saria. Batzaldi onetarako geia da “Aguaziillaren bizi modua”.

Bigarren batzaldirako bertsoak bialdu leikez urren datozen aste bietan, eta gaurtik irugarren aste buruan esango da nortzuri saria emon jaken; geia da “Neskazarrak”. Batzaldi au iragarri nai izan dogu, asti geiago izan daien bertsoгийнak; amabost egun daukeez euren aldetik.

Nai lenengoan nai bigarrenean, lan bi izango dira sarizatuak; lenengo saria irabazi dabeanari, berak autariko bat bialduko jako liburu onetxen artean:

Parnasorako bidea bertsoetan Eusebio M. Azkue-k egiñikoa; *Auñemendiko lorea*, Domingo Agirre-n irakurgai edo *novela* bat; *Peru Abarka*, Moguel entzute andiko euskalzalearen irakurgaia; *Poesías eúskaras* coleccionadas por Jamar (izena erderaz euki arren euskerazko bertsoak dira).

Bigarren saria izango da liburu onen artean bat: *Eskuliburu*, Añibarro-rena; *Lora sorta espi-rituala*, berberarena; *Kristau dotriña*, Ubillos-ena”.

Ibaizabal aldizkari orrek, 1902-ko epaillaren 23-an, *aguazillaren bizimodu* gaiaren irabazleak nor ziran esaten zuan:

“Gaur amabost iragarri genduzan batzaldi bietatik lenengorako ainbat bertso etorri dira. Euren artean, Bilboko Jose J. Alberdik eroan dau lenengo saria, ta Errenteriako Elizetxeak bigarre-na. Eskatu beie gura daben liburua.

Alberdi-ren bertsoak gaur doaz; Elizetxearenak urrengoan”.

Eta laugarren gaia zer izango zan ere adierazten zuan:

“Gaur batzaldi barria “Mutilzaarrak” geitzat daroala; bialdu leikez mutilzarren bertsoak dato-zan aste bien barruan”.

Irugarren gaiaren irabaztunak nor ziran onela aditzera ematen zuan *Ibaizabal*-ek :

“*Neskazarren* ganean iragarri genduen batzaldira etorri direan bertsoгийн artean, lenengo saria Elizetxea Errenteriakoak eroan dau; bigarren saria, Bermeoko *Biargin bat*-ek.

Amargarren geian -aldizkariaren amargarren zenbakian, alegia- esan genduen zeintzuk liburuak autatu leikeezan sari-artzaillak. Eskatu beie nai dabeen liburua ta bialduko jakee.

Gaur argitaratzen dogu *Biargin bat*-en bertso-pilla, Elizetxearena baiño laburragoa dalako. Datorren astean joango da au”.

Agindu bezela, Elizetxearen bertso-ak urrengo zenbakian agertu ziran, 1902-ko apirillaren 13-an. Onako auek dira:

(1) Desenkusatu: *disimular*. (*Ibaizabal*-en oarra)

NESKAZARRAK

*Enpleatzen ez bada
gazte dala neska,
pasa bearko ditu
makiña bat kezka,
burutik zoraturik
senargairik ez ta...
Orra azkenerako
neskazarren festa!*

- 1/ Arpegi zimur, begi zorrotzak,
besterenak ortz ta agiñak,
ezurak gogor eta gañera
ankak ez daude ariñak;
ille txuria, naiz beltzatutzen
egin naiko alegiñak,
askok dituzten muño ederrak
dirade bestek egiñak.
- 2/ Gaztetasuna pasatzen dute
zartzaroko esperantzan,
gero oiekin zer gertatzen dan
orra emen garbi esan:
senargairikan ez dala etsita
beti dabilta elizan,
gure Jainkoak triste oientzat
zerbait kupida izan dezan.
- 3/ Penarik aski izaten dute
denbora joan ondorean,
baiña alegiña egiten dute
desenkusatu(1) naiean;
galdetu ezkeru zergatik dauden
orren bizia tristean,
diote: “Ezkondut nai bagenuke
ez gaude baten faltean”.

- 4/ Bat bakarrikan ez det bereizten,
berdiñak dirade denak,
nai duten ura ez egitean
biurtzen dira zitalak;
ondo bizitzen ez diote uzten
beren ernegazio txarrak,
orlakuakin ezkondu ezkeru
zer inpernua senarrak!
- 5/ Ez dira erraz ezagututzen
izketan ai diranean,
lengo kontuak aundiak dira
beti oien mingañean;
jostaketa bat ezin sufritu,
ain daude umore txarrean,
norbaitek ezer esaten badu
or dijoaz marmarrean.
- 6/ Orien jabe egiten dana
dago txit errukigarri,
bear dan pake orde ez etxean
gerra izango da sarri;
bere erara beti utzi bear
pakea nai badu jarri,
bestela arrazoi txarrak oso maiz
entzungo ditu ugari.
- 7/ Itz legunakin ta par-irrian
kanpoan dira ibiltzen,
oien barrenak nolatan dauden
ez da erraz ezagutzen;
aspertu eta diradenean
etxera allegatutzen,
arrazoi gabe okasiua
nolanai dute sortutzen.
- 8/ Beti elizan eta errietan
da beren ofiziuia,
orientzako egiñak dira
meza ta prozesiua,
bederatziurren, errosario,
sermoi ta konfesiua;
ta elizatik atera orduko
ere murmuraziua.
- 9/ Neskatz-mutillak kale iskiñan
izketan ari badira,
murmuratuaz denbora dute
pasatzen ara begira,
esanik onla: “Ajolgabeak
lotsatzen ere ez dira,
orrelakuak joango dira
inpernuaren erdira”.
- 10/ “Mutillen batek kalean neri
itza egingo balira,
kopeta illundu ta alde egingo
nuke beste alderdira”.
Bañan alperrik orlako ametsak
egiten aritzen dira,
oiek kalean ikusi eta
nork begiratu arpegira?
- 11/ Senargai asko zituzten denak
gazte denboran aukeran,
bañan etzuten sartu nai izan
Markos santuan balleran;(2)
naiago zuten bizi ezkongai
gurasoen bazterrean...
Ez det sinisten; inork ote du
izan bat bizi guztian?

12/ Monja joateko gogorikan ez ta iñor ez ezkontzeko, bein izan zuen gazte bat bañan etzan diña beretzako; ondo bizi nai, ez dago ori emen penak sufritzeko, ta sufrimentu oien bitartez zerua irabazteko.

13/ Ezkontzen bada pobre batekin asko bear du ikusi, baña ez du nai mundu onetan ibilli, al badu, itsusi; bere denboran ikusi eta asko du orrek ikasi, neskazar oiek izaten dute gordia franko malizi.

14/ Astean iru edo lau aldiz geinak dira konfesatzen, nere artean amaika bider egoten naiz ni pensatzen zer esatera apaizagana orren maiz diraden joaten; ta bereala zait gogoratzen: mingaiña dute dantzatzen!

15/ Elizatikan atera eta batutzen dira elkarrekin, oriengana joan liteke zerbait nai duena jakin! Zeru ta lurra nasten nasten dituzte beren mingaiñ luzeakin, biamonean konfesatzeko lana franko dute egin.

16/ Gaizki ematen dute munduan oik bezelako loreak, uste dezute gazte ta edertuko zaituztela aireak? Monja ezin bialdurikan dabiltz neskaxa gazteak, askoz ohea litzake berak baleude antxen gordeak.

17/ Neskazarretan badirade, bai, ondo bizi diradenak, baña oso gaizki oraiñ artean bizitzen dira geienak; jende guztia ikaratzen du neskazarraren izenak, erne, mutillak, ez bada ezkondu nai izan zerbait dutenak.

18/ Neskazarraren azken bizia da oso penagarria, aterik ate askok eskean pasatzen dute erria, iñork ez ditu ikusi nai ta gaixo oien mixeria!... Neskax gazteak, San Antoniori jaso lenbailen begia!

Enrike Elizetxea

AZALDEA

Josepa Antonik Dominikari:
“Aditu dezu orlakorikan?
Bertso batzuek jarri omen ditu
Enrikek guregatikan,

gauza aundiak esanaz noski
 neskazarrarengatikan.
 Ia joanian egon danean
 miñez mundu ontatikan,
 kupiturikan gizarajoaz
 ta biotzak jasorikan,
 eska diogu gure Jaunari
 biotzaren erditikan,
 komeni bazan, atera zezala
 aiñ trantze estutikan;
 ta Jaungoikoak, beti bezela
 otoitzxoak entzunikan,
 libratu du ta gaur arkitzen da
 osasunez beterikan;
 entzun ta gero gelditua naiz
 ni oso arriturikan,
 ez nuen uste aditutzia
 nik orrelako gauzikan.
 Ari zaitia erregutuzten
 orrelakuagatikan!...
 Sendatu eta orra pagua
 gure otoitzangatikan”.
 Konbersazio au entzutian
 kale kantoi batetikan,
 esango diot “Joxepa Antoni,
 ni jaio ezkerotzikan,
 ez det sekulan iñoiz ere esan
 gezurtxo bat bakarrikan;
 konfesatutzen dizut txit gogoz
 bada biotz-biotzetikan,
 ez detala izan iñorengatik
 far egiteko asmorikan.
 Ez, alajaña! Nik deus esan
 neskazarrarengatikan?
 Maitexu ditut zar eta gazte
 txit gazte-gaztetandikan,
 ta maite naute ni ere denak
 esan gabe gezurrikan.
 - Ala da, baña ez gure kontra
 jarri bada besterikan.
 - Nai dezu jakin zergatik dauden
 bertso aiek jarririkan?

Ez pensatu, ez, neskazarrak
 lotsatutzeagatikan,
 baizik *Ibaizabal*-en sari txiki bat
 irabazteagatikan.

Azalde au bertsoak *Ibaizabal* aste-
 kariari bialdu ondotik moldatuko zuan
 Elizetxeak, bere burua nolabait ere
 garbitu nairik, agidanean aren bertsoak
 ezagunak izango zituzten-ta Erreneri-
 ko neskazarrak.

Elizetxea, *azalde* ontan ageri da-
 nez, gaixo egona zan: “ia joanean
 egon danean miñez mundu ontatikan”.
 Orduan erriko neskazarrak, “kupituri-
 kan gizarajoaz ta biotzak jasorikan”
 otoitzari eman zioten aren alde. Ondo
 jarritakoan, berriz, bertsoak moldatu
 bere laguntzailleen aurka: “sendatu eta
 orra pagua gure otoitzangatikan”.

Etzan Elizetxea berak nai zuan be-
 zin errez libratu. Xenpelarren illobak,
 Joxepa Antoni Aranberri Petriarena
 onek alegia, bera ere neskazarren ko-
 fradikoa baitzan, bertsoak jarri zizkion
 ordaiñetan. *Ibaizabal* astekarian argi-
 taratu ziran, 1902-ko maiatzaren 11-n.

Aurretik, ordea, Elizetxearen idaz-
 lan luzetxo bat dakar itz-lauz, eta bes-
 tea atzetik, Xenpelarren illobaren ber-
 tsoak argitara baiño leen nola ezagutu
 edo irakurri zituan eta abar adieraziz.

Baiña ontaz argibide ederrak ema-
 ten dizkigu E. Bozas Urrutia-k, bere
Andanzas y mudanzas de mi pueblo li-
 buruan, 125 orrialdean:

“y nos explica cómo D. Enrique, hace unos
 treinta años, tuvo la humorada de escribir en el
 Ibaizabal una sátira en vascuence burlándose de

las solteronas. Diose por aludida D^a Josefa Antonia Arambarri, que frisaba casi en los 30 por entonces, y al punto escribió una respuesta digna de la sátira. Púsola bajo sobre y la colocó en el buzón de la casa de Elicechea, diciendo para sus adentros:

- Arrapa zak ori! (¡Agárrate ésa!)

D. Enrique abrió el sobre, leyó el verso y, aunque no tenía firma, reconoció a la Josepa Antoni. Y dando una nueva muestra de espiritualidad, Elicechea envió la respuesta a el Ibaizabal. He aquí un lance poético digno de pasar al comentario de los antologistas”.

Ona emen Elizetxearen itz-lauzko idazlanak eta Xenpelarren illobaren bertsoak, *Ibaizabal* astekarian dauden bezela:

NESKAZARRARI

Eztakit nola asi; aín dago nastua nere burua. Zeñek pensatu bear zuen, nik *Ibaizabal*-i bialdu nizkan bertsoakin, dauden bezela aserretuak geldituko zirala? Zori gaiztoan egin nuen lan ori! Jakin izan banuen gaur bezela zer gertatuko zan,... berealaxe asiko nintzan izkribatzen! Baña nork pensa zezakean? Nik beintzat ez nuen usteko sekulan orrelakorik. *Ibaizabal*-ek ditu erru guziak. Oni gogoratu zitzaion eskatzea bertsoak neskazarraren gañean, eta nik, beste askok bezela, antolatu nituen batzuek liburu polit bat irabazteagatik. Orra garbi-garbi aitortu. Eta zer zori gaiztoa! Nere bertsoak merezitu zuten lenengo saria eta irabazi det liburutxo. Baña zer balio du onek, baldin bera iritxizteagatik galdu badet sekulako neskazar denen edo beñepin geienen adiskidetasuna eta berak zida-

ten naitasun eta estimazioa?(1) Baze-nakiteke nola bizi naizen aditu nuen ezkeron nere kontra izketan ari ziñazte-la alde guzietan, kupituko ziñezteke, eztago dudarik, eta bertatik barkatuko zenizkidateke nere gaizki esan guziak -zuek diozutenez-.

Eztet jaten, eztet edaten, soseguzko lo bat eztet egiten. Beti neskazarrak dakazkit gogoan. Edaten edo jaten asitzean, iduritzen zait edontzian eta erretilluan daudela, eta ori bera gertatzen zait oeratzekoan gelan sartzen naizenean. Eta nola ez, baldin ni bizi naizen etxean bertan bizi badira bi edo iru gutxienaz!

Ez naiz kalera irtetzen illundu ezkeron, zergatik pensatzen det uste gabe edozein txokotatik norbaiten atzapar luze eta otzak zintzurretik eldu eta itotzeko zorian jarriko nautela. Ai, au bizimodua sortu da neretzat! Agian -*ojalá*- ezpazan iñoiz *Ibaizabal* ori nere begien aurrera azaldu! Gaur ez nuen damurik izango!

Badira neskazarrak, len nerekin beti adiskide ziranak, oraiñ bekoki illuna jartzen diratenak; badira diosalik egiten eztidatenak, eta bai omen dira beste batzuek esaten dutenak merezi nukela urkamendi batera arrastaka eraman ta... Jesus, Maria ta Jose, ori oien aserrea ta au nere bildurra! Baña zerk orren giar-giarrean ikutu ditu? Zergatik orrenbeste errenkura? Zergatik orrenbeste meatxa edo amenaza eta zergatik orrenbeste gorrotatu eta gaitzetsi ta iguitu nazute? Joxepa Antoni eta Dominika izena duten guziak ase-rreru dira, bi izen oiek izendatu nituelako eta iduritzen zaiotelako berenga-

tik jarriak dirala bertsoak; beste batzuek, beren aideak monja joan diralako, besteak, senargaia izan eta ezkondu etziralako; au, ortz-falta dalako; ori, maiz konfesatzen dalako; ura, mingañ luze xamarra duelako... Nik al dakit! Denak, bakoitzak beretzat, nere bertsoetan adiera edo enbidoren bat arkitzen dute.

Ederra egiñ det! Utsa neskatxa gazteak aserretu baziran; abengatik eziran ainbeste ajola; baña neskazarrak, orrenbeste maite nindutenak aserretzekak eman dit atsekabe bat!... Au izugarria da! Kiskaltzen nago eta eztakit zer egiñ!

Lengoan, esan zidanean nere lagun batek nere bertsoan ordañak jartzea gogoratu zitzaiola, sartu zitzaidan bildur bat!... Eta esan nuen nere artean: "Izan bedi Jaungoikoak nai duena".

Egunero egon naiz zalantzan noiz edo noiz artuko nuen karta ikaragarri okerreriz betetakoren bat, eta asteazken-eguerdian, lantegitik etxeratu nintzanean eta eman zidatenean karta bat, Errenterian egiña, kartestalki edo sobreak dionez,... "Emen dek, emen dek!" esan nuen nere artean; baña denbora berean otzikara bat igaro zan nere gorputzean eta agitz arrituta gelditu nintzan. Neregandu ondorean, zirt edo zart egiñ bear, bada, eta ez ikara gutxirekin, baña nolazpait idiki nuen, eta zer uste dezute topatu nuela? Letra polit batekin izkribatuak, itzik kendu eta iratxiki gabe, dauden bezela, oraiñ irakurriko dituzuten bertso abek.

- 1/ Ez nuben bada pensamenturik zuri bertsuak jartzeko, bañan lagunak esan dirate isillik ez egoteko; motiborikan ez degu eman zu orrela mintzatzeko, ez diran gauzak esan dituzu, diña da minberatzeko.
- 2/ *Ibaizabal*-en sari txiki bat irabazteagatikan, gogora etorri zaizun guztiya esan dezu gugatikan; nik esan bear banu munduban zaude gaur guregatikan, zu sendatzeko sendagarririk etzan iñungo botikan.
- 3/ Zenbait alditan zu sendatzeko egin ditugu errezuak, pena aundiya ematen zigun emazte eta gurasuak. Zeñek pensatu zuk gure kontra orrela jartzia bertsuak? Ez gera bada zuk uste dezun beziñ enbidiosuak.
- 4/ Gu ernegatzen bizi gerala senargairikanen ez ta, nere lagunen artean beintzat orrelakorikan ez da; neri sinisten ez badirazu etxian asi galdezka, nik baña obeto emango dizu Bizentak errespuesta.

5/ Zure amigo batek esan du
neskazar onik ez dela,
orren ederki gure gañean
egin dezute pastela.
Pruebarik asko berak baditu
ori egiya ez dela,
gure moduko persona ez da,
esango nuke bestela.(2)

6/ Gazteak monja juan dirala ta
gaur kulpa neskazarrari,
zure partetik nai gaituzula
danok erritik biali;
bokaziyo ori ez bazeukaten(3)
zertako ala ibilli?
Lagundutzia zuten etxean
aitari eta amari.

7/ Neskazarraren izenak denak
ditubela ikarutzen.
oriyen jabe egiñ ezkerro
egongo dela erretzen;
zerbait dutenak izanagatik
ez asteko oiek artzen,
gureztat beste disparaterik
ez al zaizu gogoratzen?.

8/ Eskian dela esan diguzu
geienan errematia,
ezta seguru ezkonduak ere
bide ortara ez juatia.
Ia ikusi degun ezkerroz
gaur zure borondatia,
eskusatuko degu jotzia
zure etxeko atia.

9/ Etzait gustatzen relijiyoko
gauzak autan ibiltzia,
errespetoko gauza guztiyak
serio tratatutzia;
arriturikan gelditu gera
zu orrela mintzatzia,
esperatzen det oinbesterekin,
Enrike, konprenditzia.

10/ Edadetxoko nere lagunak
nai nituben anparatu,
oriyei gusto emateagatik
dizut ordañak bueltatu,
nai badituzu *Ibaizabal*-en
oiek ere kopiatsu,
eta saririk ematen badu
gutaz ere akordatu.

Joxepa Antoni eta Dominika

Ederki daude, Joxepa Antoni, eta
milla esker *Ibaizabal*-en izenean.
Progatu dezu bertso abekin aurrekoan
ondorengoa zerala(4). Ta oraiñ buka-
tzeko itz bi. Aztiatu edo asmatu-
rik zer gertatuko zan, esan nuen *Azaldea*-n ez
nuela iñorengatik farra egiteko asmo-
rrikan; txit maite nituela neskazarrak
txikitandikan -maite ditudan bezela eta
bidez eskarrik asko denari zuen otoi-
tzangatik-; ez nituala lotsatu erazi nai;
baizik *Ibaizabal*-ek agindutako saria
nai nuela irabazi. Bañan zuek, dudarik
gabe, eztezute ondo irakurri bertso-
rik, edo bestela ofensik eztagon tokian ba-
dagola iduritu zaizute eta, zapla!, jarri
dituzute bertsoak. Ale, ale, bizirik laja
dirazutenean gaitzerdi! Zer egingo det
oraiñ? Ni guzira jartzen naiz eta sinis-
te osoan nago eskuratuko dedala, zer-
gatik, esanak esan, neskazarraren bio-

tzak biguñduko dirala iduritzen zait.
Egia baita?

Eztakizute kristau dotriñak esaten duela, norbaitek iraindu edo mindutzen gaituenean, mendekatu bearrean, barkatu egiñ bear diogula?

Umiltasun guziarekin eskatzen dituzet, bada, baldin egiazko kristauak bazerate, barkatu zaskidazutela nere gaizki esan edo ofensa guziak, eta orrekin lan errukitsu edo miserikordiazko bat besterik eztezute egingo.

Nik nere aldetik agintzen dituzet, ordañetan, eskatuko diodala Jaungoikoari eman dezaiola nezkazar guziari senargai on bana, edo aberastasunak(5) edo berak nai dituzten zori on denak, arkitzen diran bizitza... -esango ote det?- triste orretan doatsuak izan ditezen beti-betiko.

Utzi, bada, nigan daukazuten etsaitasuna, eta oraiñ artean bezela jarraiki dezagun pake onean ballera negarrezko onetan, bizi geran bitartean.

Agur, bada... eta urren arte.

Enrike Elizetxea

1. Eztezu, jauna, gauz aundirik galdu.
(Kajista batek) (*Ibaizabal*-en oarra)

2. Nik esango det, bada. Marka oiekin ez liteke izan apaizen bat besterik. Zuek nai dezutena esango dezute zeren buruak edertzeagatik... bañan ni apaizan alde ontan; eta ez aserretu orren-gatik. (id.)

3. *Ibaizabal*-en: *vocaciyorri*.

4. Leen ere esan degunez, Xenpelar bertsolariaren illoba zala, alegia.

5. Edo urteak bizkarretik kentzeko *balsamo* bat. (Leengo kajistak)

* * *

Baiña Joxepa Antoni etzegoan amor emateko. Eta Elizetxearekin, barkazioa eskatu zuan ezker, adiskidetu bazan ere, ez ala *Ibaizabal*-en kajistarekin, eta oni eraso zion urrengan, aldizkari orren 1902-ko maiatzaren 25-eko zenbakian, onako lau bertso aukin:

KAJISTA BATERI

- 1/ Neskazarraren adiskiden bat Bilbo aldean badegu, kajista dela *Ibaizabal*-en berak garbiro esan du; nai dizut bada errespuesta gaur zuri ere bialdu, zuk Enrikeri esan diozu: "Ez du, jauna, ezer galdu".
- 2/ Eliza santak sakramentuak jarriak daukazki zazpi, bost prezisuak dirade baña bi libre utziak dauzki; dudarik gabe kajista onek oiek aztuak daukazki, eta uste du neskazar denak bizi geradela gaizki.
- 3/ Sentitzen det gaur ez daukatela ezagutzeko onorea, kajista ori degun ezker orrelako adiskidea; eztaduzkagu ukatutzeko urteak eta umorea, bañan bai zenbait andre gizona eta gizonak andrea.

- 4/ Emen ez degu balsamorikan neskazarrak gaztetzeko, baiñan bai enplastera ederrak osasuna ekartzeko; Bilbo aldean baldin badago kajatxoren bat saltzeko, erosi ezazu ta ondo gorde zeori balsamatzeko.

Joxepa Antonik

* * *

Bilboko kajista dalako orrek itz-lauz erantzun zion Joxepa Antoniri, *Ibaizabal*-en 1902-ko garagarillaren 1-ean, onako idazlan onekin:

ERRENTERI-KO JOSEPA ANTONIRI

Bilbao aldean baldin badago kajatxoren bat saltzeko, erosi ezazu ta ondo gorde zeori balsamatzeko

(Kajista bateri Joxepa Anttonik)

Dama Joxepa Anttoni: Nere kajak moldiztegikoak dirade. Moldiztegiko balsamoa tinta beltza da; ijito neskaxa baten illea bezain beltza. Balsamo onezaz, neskazarrak gaztetu bearrean, gazteak zar-irudituko lirake. Etzazu, bada, dama Joxepa Anttoni, onlako balsamorika iñorentzat -ez zerorrenztat, baldin bear badezu- kupitu.

Ez dauzkat aztuak Elizaren zazpi sakramentuak, dudarik gabe aztuak dauzkadala zuk uste izan arren. Erli-

jioko eskribu gutxi erabiltzen degu kajibak beatz artean, baiñan nere gurasoai eskerrak badakit lenbiziko bost sakramentuak premiazkoak diradela ta beste biak -ordena ta ezkontza- borondatezkoak. Ta edo burua galdu det edo borondatezkoena atzeneko au da.

Zergatik? Ogei ta bat urtera iritxita-koan, edozein emakumek, begi onez, borondatez sakramento oni begiratzen diolako.

Dama Joxepa Antoni: neska... guztiak dakite, ta zuk ere jakingo dezu, ogei ta amaikako karta-jokoa. Ogei ta bat eskuetan dauzkanak, begiak pozikan diz-diz egiten diotela, *karta* eskatzen du; ta zalduna badator -uraxe poza!- ogei ta amaika. Orobat gertatzen da neskaxakin ere. Ogei ta bat urte dauzkatenean, zalduna eskatzen dute.

Baiñan *konparazio* au ezta guztietan berdiña. Kartetan ogei ta bi edo iru edo lau daukanak ezta nai izaten zaldunik, paso egiteko bildurrez. Ezkontzako joko ortan, berriz, ogei ta bost eukita ere, bildurrikan gabe *karta* eskatzen dute: zalduna. Kartetan ogei ta zazpi-zortzira iritxi ezker, *planto* esaten du sarri jokalaria. Ezkontzako joko ortan, ai nor plantatu al litzakean! Ezta ala, dama Joxepa Antoni?

Neronen errian ezagutu nuen dama bat, ogei ta bat urtetik gora zebillena ta *planto* egin zuena. Esango dizut -abogada bezela Errenteri aldeko neska... oriek konsola ditzatzun- nola jokatu zuen. Eskribau baten aurrera joan bear izan zuen bein *eskritura* bat egitera. Eskribauak noren alaba ta nungo erritarra zan jakin zuenean, galdetu zion ea zeinbat urte zeduzkan. Bi ma-

saillak Azpeiti-sagarra bezain gorri ta ezpaiñak itz egin nairik zituzten (1), baiño mingaiñak etzion barrenetik itzik atera.

- *Zeinbat urte?* -galdetu zion berriz ere eskribauak.

- *Mayor de edad*(1) -erantzun zion nere erriko dama urak.

Onelaxe *planto* egin zuen.

Baita beste gertaeraxo bat ere esango dizut. Alabaiña uste det eztezula premiarik izango zure lagunai au esateko; bada apostu egingo nuke, bizkar askotan geiegi dauden urteen kontra nere boltsan (2) gitxiegi dago dirua, apostu egingo nuke badakitela zure lagunak gertaera au, nik esan gabe ere. Zuk, dama Joxepa Anttoni, izan liteke ez jakitea. Dana dala, or dijoa.

Urtero joten du nere etxeko atea, Bilbo ontan bizi naizen ezkerre beintzat, albienteak -Gabiri, Oikina, Arrona aldean albienteari amabia esaten diote; Donostian, berriz, *aguazilla*. Nere koiñatak ere, donostiarra izan ez arren, aguazilla esaten du-.

Urtero dran-dran joten du onek atea eta ekartzen ditu bi paper, berdiñak biak; eta an ezarri bear izaten da bakoitzak zeinbat urte duen eta gaiñera eztakit zer besterik. Nere urteak urte bakoitzenean banaka geitzen dira ta paper aietan eramaten du albienteak. Nere koiñatarenak, ordea, orain bi urte ogei ta sei ziran paperetan -egia esateko, zaldunik etorri ez arren *passo* egin da zegoan, ogei ta amabitik gora zeduzkan- aurtan ogei ta lau izan dira.

Nere koiñataren balsamoa balsamo merkea da.

San Inazioz Azpeitira bazoazte,

sartu zaitezte erdi inguruko kale batean; denda txikitxo baten buruan itz auek irakurriko dituzute:

"Aquí se rejuvenece."

Balsamoa saltzen ote da an ere?

Ala bizargintza edo *barbería* ote da denda ura?

Zoazte ta ikusi ezazute.

Errenteriko Joxepa Anttoni

Santa Ritaren laguna,

Bilbo aldeko kajista oni

agindu nai diozuna.

Kajista batek.

* * *

Xenpelarren illobak bi bertso auekin erantzun zion *Ibaizabal* aldizkariaren kajista orri:

KAJISTARI

- 1/ Oso ederki esan diguzu koiñataren istoria, neretzat ere somatu dezu damaren izen berria. Zenbait algara eragin duen periodiko berriak, *Ibaizabal*-ek ez du kalterik guri bertsoak jarria.
- 2/ Gure errian beneratzen da txit imajiña polita, orain bi urte deklaratu Casia-ko Santa Rita; ori laguntzat eman dirazu, zerbait zaude igarrita; nere gustoko konpañia da, eskerrik asko, kajista.

* * *

Beste bertso au, berriz, Erreteriko Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna zan Monika Galarraga zanak eman zidala uste det. Neskazarren gaiari jarraitzen dio:

Kontseju txarrik eman dutela
apaizak ez det aditu,
bañan berorrek neskazarrentzat
obiak bai omen ditu.
Iruritzen zait oraingo ori
goitxotik duela neurtu,
neskazar batek au esatia,
Don Ramon, ez asarretu,
iñoiz ikusten baldin bagera
naiko dizkiot aditu.

* * *

Nezkazaarren auzi au bukatzeko, Enrike Elizetxearen seme Manuelek eskuz idatzi eta bialdu zigun oar au agertuko degu:

"...Joshepa Anthoni (Xenpelar), a la que yo conocí, era muy querida por nuestro padre (G.B), y alguna vez se enfadaron porque mi padre quiso enfadar a las neskazarras de Rentería.

Alguna que otra vez me repitió mi padre que, durante la polémica, el Ibaizabal se vendía en el pueblo como si fuera el honor. Hasta se peleaban con el que lo vendía."

1. Adiñ onekoa esan nai du. (Ibaizabal-en oarra)

2. - Kajista jauna, sakela esaten eztezu ikasi?

- Bai, artezkari jauna; baiñan aztu egin zait.
(Id.)

TOTA PULCHRA...

1/ Zer animoso gaur arkitzen dan
gu jaio giñan erria,
denak obeto entenditzeko
esan nai da Erretereria.
Lore ederrez inguraturik
dosel batean Maria,
guztiak bada merezi ditu
dalako oso garbia.
(*Tota pulchra es, Maria...*)

4/ Zer egin bear genduen bada
zu ez baziñan, Maria,
Ebak ekarri zizkigunean
onenbeste miseria?
Agertu ziñan gure esperantza
eta pakezko uztargia,
ondo egia zu zeradela
Israelgo alegria.
(*Tu laetitia Israel...*)

2/ Ordu luzeak pasiagatik
gure gorputzak nekatzen,
gogo aundian asitzen gera
zure alabantzak kantatzen;
gure biotzak pozez beterik
gaituela animatzen,
esaten digu: "Ez da mantxarik
Mariarengan arkitzen".
(*Et macula originalis no est in te...*)

5/ Jaungoikoaren urrena iñor
zu bañan geiago nor da?
Iñor ere ez... Au esateko
erri guztia gaur or da;
beragatikan izan zaitezaz
ardi gaixo aben borda,
eta guztiak deitzen dizugu
gure erriaren onra.
(*Tu honorificentia populi nostri...*)

3/ Beraren onran altxia dago
gure parroki aundia,
eta lorerik eskeñi gabe
gaizki zegoen Maria.
Zeruetatik biali digu
lurrera mandataria,
esan omen du onratutzeko:
"Jerusalengo gloria".
(*Tu gloria Jerusalem...*)

6/ Zerade abogada
pekatariena,
o Maria, zu zera
zeruan geiena;
bitarteko aundia
Jesu-Kristorena,
gu or izan gaitezzen
ken zaizu baimena.
(*Tu advocata peccatorum.*)

*Oh Maria!
Virgo prudentissima,
Mater clementissima, ora pro nobis.
intercede pro nobis
ad Dominum Jesum Christum.)*

Bertso auk *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziran, 1902-ko maiatzaren 25-ean. Firmaren tokian itz auk ditu: *Joshepa Anthonik - Erreteriyen*. Ez dago zer dudarik egin nor izan ditekean: Josefa Antonia Aranberri Petriarena, Xenpelarren illoba.

(1902)
AMA BIRJIÑARI

Diosala

*“Bedeinka bedi zure garbiera
betikotasun guztian,
bada alaitzen da Jaungoikoa bera
ain edertasun aundian.
Zeruko Erregiñ pare gabia,
birjiña guztien loria,
gaurtik dizkitzut zuri eskeintzen
bizitza, biotz ta anima;
begira errukiz; ez utzi, arren,
o gure Ama txit maitia!”*

1/ Españiako Patrona aundiya,
zure Sortzearen jaiera
zabaldu zaigu Erreterian,
juan gera guztiz aurrera.
Tronu eder bat egin dizute,
igo zaituzte gañera,
“Bedeinkatua izan dedilla
beti zure garbiera”.

2/ Luzbel gaiztoa sartu zanian
Jaungoikoaren mastiyan,
zeruko bide eta atiak
guretzako itxi ziran;
baña Mariak zanpatzen dio
burua bere oiñ-pian,
guri zerua eman nai digu
“betikotasun guztian”.

3/ Infernuak berak, ikaraturik,
egiten zuen galdera:
Zein da aur ori, ain indartsua?
Au al da bigarren Eba?
Onek bakarrik garaitu gaitu,
gogor egin digu gerra,
“non alaiturik ikusitzen dan
Jaungoiko aundia bera”.

4/ Ama Eliza santak urteero
jartzen digu ageriyen
Sortze Garbiko festa eder au
egin dezagula erriyan;
ontaz gañera aingerutxon bat
ibilli da Erreterian,
bestela zeñek zu orla jarri
“aiñ edertasun aundiyan?”.

5/ Gusto aundiyan jarriya zegon
txit ederki aldaria,
eguzkiari zuk diozula
erakutsitzen bidia;
bi aingerutxo esan nayian
“au da mantxarrik gabia,
eta gañera zeruetako
Erregiñ pare gabia”.

6/ Esan dirate izendatzeko obraren giatzallia, bañan ez nua ofenditzera jaun orren umildadia; badakit ondo maite duela birtute onen jabia, eta beraren Ama, zeña dan “birjiña danen loria”.

7/ Kristau fielak obra onetan nola baigeran batutzen, au pentsatzian nere biotza piska bat da konsolatzen; zure antzeko birtuterikan nola etzaigun arkitzen, bestien obra eder oriek “gaurti dizkitzut eskeintzen”.

8/ Beste gauza bat esan bear det asko gustatu zaiguna, alde danetan jakin dezaten euskera maite degula; euskeraz izan dira sermoiak ta bederatziurrena, pozturik utzi dizkigutenak “bizitza, biotz eta anima”.

9/ Ikusten dezu, Ama maitia, zenbat peligrotan gauden, etsai gogorrez ingurutuak euskera ta fediarene; Judit fuertia zu izan zaite beti gure erriaren, “errukiz begiratu zaiguzu, galtzera ez utzi, arren”.

10/ Eliz funtzio eder oietan izan degunak partia, espero degu zu ikustera zeruetara joatia; aingeru batek esan daigula zabaldukan atia: “Pasa zaitezte ikusitzera gure Ama txit maitia”.

Agurra

Agurra dala esan det baña ez guaz, ez, zu uztera, biotz banatan zaramazkigu bakoitzak geren etxera; bost illabete falta dirade emendikan maiatzera, bizi bagera etorko gera loriak eskeñitzera.

Bertso auek *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziran, 1902-ko abenduaren 14-ean, firmaren tokian *Josepa Anthoni Aramberrik* idatzita zeukala. Dakigunez, Xenpelarren illoba zan Joxepa Antoni ori.

Irakurle asko oartuko ziranez, asierako bertsoa, *Diosala* alegia, *Bendita sea tu pureza* otoitzaren itzulpena da. Gaiñontzeko bertsoak, berriz, otoitz beraren adierazpena dira.

Itxura danez, Erreterian aundikiro ospatua zuten *Sortzez Garbiko Amaren* eguna, eta elizkizun aien oroi-pengarriztat bertso auek moldatu zitan Xenpelarren illobak.

(1917)
GUERRA EUROPEA-RI JARRIYAK

I

*Ager zaitetz, zeruko
uztargi ederra,
pakia ematera;
akabatu gerra.*

- 1/ Orra masoikeri ta
pekatuak orra,
orra gure gañian
Jaunaren zigorra;
pakia eskatzen degu,
Ama ta Señora,
gure relijiyua
igo dedin gora.
- 2/ Zaragozara ziñan
etorri, Maria,
armatzat artzen degu
zure Pillaria;
zu gañetik zerala
daukagu fedia,
ez dezaigutela autsi
neutralidadia.
- 3/ Aditu zazu, Ama,
gure erregua,
eta baja zaiozu
Jaunari besua;
erakutsi zaiozu
Europa gaxua,

deika dagokizula
txit lastimosua.

- 4/ Esperantza daukagu
zuri aditzeko,
izar eder bat zera
danok giyatzeko;
ez da gure asmua
oiek itzaltzeko,(1)
bai Aita Santuari
obeditutzeko.
- 5/ Ezta besterik falta,
Jesus, zure naia,
geldituko dirade
kañoi ta metralla;
emaiozu Amari
Dabiden aballa,
akabatu dezala
munduko batalla.
- 6/ Gerr' au asi zanian,
ez genduen uste
luzatuko zuela
gauzak onenbeste;
ez ogei ta bi egun,
juan dira iru urte;
Jesus eta Maria,
urrikal zaitetze.

A-ger zaitetz ze-ruko uztar-gi e-de
 rra pa-ki - a e - ma - te-ra
 a-ka-ba-tu ge- rra pa ki - a - e - ma
 te-ra a-ka - ba-tu ge- rra.
 O-rra ma-soi-ke - ri ta pe - ka - tu-ak o-
 rra, o-rra gu-re gai - fi-an
 Jauna-ren zi-go - rra; pa ki-a es ka-tzen
 de-gu, A-ma ta Se - fio - ra,
 gure reli - ji - yua i - go dedingo - ra.

II

INGLATERRARI

Gerrate onen denboran, Frantziaren kontra ziranak onela kantatzen zuten: "Paris se quema, se quema Paris...". Eta Alemaniaren kontra ziranak, berriz, beste onela: "Berlin se quema, se

quema Berlin...". Ez omen zan beste kanta-otsik entzuten.


Joxepa Antonik bi bertso paratu zituan doiñu ortan kantatzeko. Leenen-go, Inglaterraren aurka; eta bestea, Alemaniaren alde. Ona emen bertso oiek:

- 1/ Etzera uste bezin altsua;
 ez da zuria, ez, itxasua;
 arriya tira, gorde besua,
 oraiñ artian ibilli zera
 orgullosua.
- 2/ Inglesa zegon gañez egiña,
 itxasuetan zala erregiña,
 etzela iñor orrentzat diña;
 urpeku orrek egiten dizu
 zaunga samiña.
- 3/ Baliñtiak berak lenbizi
 irten biar du ill edo bizi;
 ori zuregan ez da ikusi;
 bestiak lanak eginta nai du
 berak nagusi.
- 4/ Etorri zaizu txanda zerorri;
 zer dela uste dezu kasta ori?
 Ez badezu nai ibilli larri,
 bozala jarri biar diyozu
 urpeko orri.
- 5/ Lenbizi artu zaizu neurriya,
 irten ez dedin txikiyegiya,
 ankik ez duen animaliya
 zure etxian arrapatzia
 zer mirariya!

- 6/ Itxaso aundi eta zabala
uste al dezu zuria dala?
Ez badiyozu jartzen bozala,
esan biauzu: "Zori gaiztoko
intxaur-azala!"




E-tze-ra us - te be-zin al-tsu -



a; ez da zu-ri - a, ez, i - tx-a-su -



a; a - rri - a ti - ra, gor-de be-su -



a, o - raiñ ar - ti - an i - bi - lli



ze - ra or - gu - llo - su - a.

III

ALEMANIARI

- 1/ Alemaniko gizonak abill,
oraindik danak ez baitira ill;
bonbero onak baditu berdin;
su artzen badu itzaliko du
oraindik Berlin.

- 2/ Adelantua onbesteraño,
aleman oiek ara noraño;
zepelin eta aereoplano
txoriyen gisan ortxen dabilta
juanik goraño.

- 3/ Aleman oiek ara zer dian:
prestatzen dira danon aurrian,
iñor ez dabil oien lurrian;
dudarik gabe, ez dago lanik
Berlin aldian.

- 4/ Enemigua eskui ta ezker,
danon erdiyan or dabill Kaiser;
ikusiko da gauza ori laister:
zein gelditzen den bat nagusi ta
bestia maizter.

- 5/ Maizter gelditzen bada alemana,
esan lezake: "Auxen da lana!"
Zazpi edo zortzi nagusigana
ezkeñitzera juan liteke
bapore bana.

- 6/ Eta gertatzen bada bestia
nagusi edo irabazia,
eskatuko du bere kostia;
zer milagrua zazpien arte
bat pagatzia!

- 7/ Gerra batian oinbeste kalte,
aurreko zarrak ezetz diyote;
sentimentuan artzen det parte,
pakia nere partetikan
deseo nuke.

- 8/ Zazpi naziyo alemanari
gutxienian kontra dira ari;
zer da izutzen ez dan kasta ori?
Sumarinuak erakutsiak
dauzka igari.(2)

1. Frantzes batek erronka egiña omen zuan,
Frantziak zeruko izarrak ere itzaliko zituala.

2. Joxepa Antoniren etxean gordetako kua-
derno batetik kopiatu ditugu bertso aukerak.

(1926)

**ERREENTERIYAN UZTAREN LAUBEAN MILLA TA
BEDERATZIREUN TA OGEI TA SEIGARREN
URTEAN EGIN ZAN PROZESIYUARI
ERREENTERIYAN UZTAREN LABEKO PROZESIYUARI**

- 1/ Txinan, Japonen eta Afrikan e dauzkagula senidiak, bañan gaxuak errukarriyak relijiyorik gabiak; oraziyua eta limosna diyo predikadoriak anima oiek zeruratzeko oiek dirala bidiak.
- 2/ Esan digute nola milloiak dauden bataiorik gabe, estadu ortan iltzen badira infernurako dirade; bost zentimoko limosnatxu au ez gelditu egin gabe, emen jaio eta bizi geranak ondo pagatuak gaude.
- 3/ Paganu oiek beren umiak ez omen dituzte maite, erostunikan juaten bazaie saltzen dituztela merke, edo bestela kalian utzi animaliyak jan arte; orrengatikan Aita Santuak bataiatzia nai luke.
- 4/ Gezurra dala diruri bañan izan biar du egiya, txakurrak jaten omen dutela aur gaxuen aragiya; oiek erosten dabiltzan oiek dute merito aundiya, bañan gutxitxo izaten dute guk emendik bialiya.
- 5/ Prozesiyo bat Aita Santuak nola baitigun agindu, Errenteriko jende leialak ejenplo ona eman du; biyotz oneko persona asko dira alkarrena bildu, beren umiak ta besterenak ondo dituzte apaindu.
- 6/ Santu ta santa, japonese, txino, karmantar misionera, gure begiyak malkoz bustirik begira egondu gera; ama askoren biyotzak zeuden irten nayian kalera, beren alabak baidira juanak itxasoz beste aldera.

7/ Relijioso eta pagano
aien danen iruriyak,
denbora gutxi bazuten ere
aiñ zauden ondo jarriyak;
langillia ta leiala dala
fama du Erreteriyak,
laguntzallia aiekin dala
danoi esker ugariyak.

8/ Esan dirate kontentu zala
Aita misionerua,
asko gustatu omen zaiola
emengo atentziyua,
bai eta ere kalerik kale
egin dan prozesiyua;
eztakit zenbat bañan ederki
bildu omen da dirua.

9/ Limosna oiek amaikagarren
Piogana dira juango,
iya milloien izen tristi au
jexten al degun berago;
beti bezela asteko sosa
gustora degu emango,
eta gañera urteen buruan
pezetatxo bat geiago.

10/ Delegadua deitzen diyogun
gizon jaungoikozko ori,
Aita Santuak Erromatikan
mandatari du bialia;
bere esanak zintxo egiñaz
emen dabill erriz erri,
nai dituztela paganu oiek
gure legera ekarri.

11/ Gauza tristia iduritzen zait
izatia paganua,
eskerrik asko Jaungoikuari
naizela emen jaiua;
lendabiziko sakramentua
artzen degu bataiua,
gero beste sei emen dauzkagu
irabazteko zerua.

12/ Uztaren lauan izandu degu
prozesiyo eder ori,
zorion asko nere aldetik
lan egin duten danori;
iya zer poza emango zaion
amaikagarren Piori,
arretaz entzun diyogulako
bere mandariari.

Bertso auek moldiztegi-izenik ga-
beko kanta-paper batetik ditugu. Ale
bat Oiartzungo Altzibar auzoan jaso
genduan, Olalde baserriko Jose Anjel
Sarasolaren eskutik; beste bat, berriz,
Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren
bilduman arkitu degu.

Sermolari bat etorri zan 1926-ga-
rren urtean Erreterira, eta mixioen al-
de oso bero mintzatu zan. Mixioei la-
guntzeko alkarte berria sor arazi zuan:
artan sartzen ziranak, otoitz egin ez-
ezik, astean sos bana ere eman bear
zuten. Baita ere pezeta bana geiago ur-
tearen buruan. Prozesio bat ere egin
zan, erriko aurrak mixiolariz edo mo-
jaz jantzita. Ori dana aitatzen digute
Joxepa Antoniren bertso auek.

Gai ontaz onela esan zigun Errente-
riko Monika Galarragak, Juan Zabale-
ta bertsolariaren alarguna zanak:

“Ni Fabrika Aundian lanean asi nintzanean, iru errealetik asi eta gero eguneko pezeta bat ematen zidaten. Jornal artatik, berriz, astean bi xoxko bat gerentzat. Eta bi xox aietatik, *Propagación de la Fe* dalakoan amairu urteetarako edo amalau biño lenago sartu nintzan, eta arentzat astean xox bat botzen genduen. Astero bildu, gaiñera. Urtean amar erreal etzen allegatzen.

Biño neri ori gutxixko iruditu zitzaidan gero. Onera mixiolari bat etorri baitzan, eta esan zuen, alegia, nunbait ere aurrak, neskak, debalde izaten zituztela; nolanai billatzen zituztela. Baiña mutikoak erosteko bost erreal bear izaten zirala; amar errealekin bi mutiko erosten zirala bataiorako.

Jesus! Nik ori aditu nuenean, arrunt lenaz gaiñera berotu nintzan, eta Joxe Antoni Xenpelarrekin batean egin giñan sartu ortan. Ura bearbada lenagoztik sartua izango zen.

Nik egin nuen beste amarreko bat bildu. Biño ni nola gurasorik gabea nintzan, bildur piska bat banuen erritand-edo emango zidaten: alegia, zertarako sartzen nintzan oinbeste. Eta gurasoak zeuzkan beste lagun bateri esan nion:

- Begira: nik amarreko ori bildu dut, biño zu buru jartzen zaitut. Nik amar xentimo oiek bildu eta zuri emango dizkizut, eta zuk entregatu gero bear den tokian. Zuri lana kentzen dizut, biño ez dut nai buruzagi izan.

Eta gaur oraindikan ere nik jarri nuan arek berak biltzen ditu. Nere edadea du, biño segitzen du. Orain botzen dugu bost pezta edo sei edo zerbait ola. Aurten ere etorri zait eta esan nion:

- Oraindikan ere nik emandako ofizioa segitzen duzu.

Eta:

- Bai; segitzen dut, bai.”



AMA JENEROSARI

Joxepa Antoni Aranberri bizi zan etxeko alaba bat, Matilde, moja joan zan Iruñeko komenturen batera. Egun batez, bertso auk bialdu zizkion arek oni. Eskutitz bat dirala esan genezake, beraz.

Xenpelarren illobaren etxean gor-detako kuaderno batetik artuak ditugu.

1/ Jenerosaren izenarekin
egin zinduztela Ama,
juan dan martxuan notizi (y) ori
allegatu zan nigana;
nere biotza erdiratzen da
gogoratzian Pamplona,
orain bertsorik ez det ipintzen
triste baitaukat barrena.

2/ Izeba dabill aspalditxuan
katarro eta kiyua,
jaikitzen bada isten dizkigu
atiak eta leiua;
iya ituan ementxen gaude,
orra zer alibiyua,
nola nai dezu idukitzia
bertsuetako gogua?

3/ Pentsamentua egiñak giñan
udan zu bisitatzeko,
bañan ez gaude bi neskazarrak
etxetik ateratzeko;
izeba-illobak esan dirate
zuri bertsuak jartzeko;
umore ona dauka oraindik,
ez du asmorik iltzeko.

4/ Florentinaren gizentziakin
asko arrituak gaude,
badira emen esan dutenak:
“Ez al da ori Matilde?”
Jostundegiyan maestra dago,
sukaldian etxekoandre,
eta gañera goiz jeikitziak
egiten diyo mesede.

5/ Gu emen gaude iru neskazar,
iruak ajiatuak,
nunbait onela komeniko zen
ala nairik Jaungoikuak;
orain kantari ari naiz bañan
aldian dauzkat malkuak,
suerte txarra etzuen egiñ
gugandik eskapatuak.

6/ Relijiyoko bizi-moduak
ematen dizula poza,
munduan ditxa obeagorik
ez ditekeala goza;
santidadeko pruebak emanaz
egin ezazu profesia,
eta guretzat oraziyuan
akordatu, Jenerosa.

FABRIKAN BERTSO KANTARI

Leen ere esan degunez, Joxepa Antonik Errenteriko Fabrika Aundian lan egiten zuan. Kontramaistra omen zan.

Fabrika ortan, oiala egin bearrez, batzuek irazkitzen, besteak maxorkiten, edo txirrikiten, edo erre pasan, bakoitza bere lantegian alegia, aritzen ziran. Joxepa Antoni irazkitzen jarduten zan.

Xenpelarren illoba, oi zuan bezela, aldi artan ere txirriken billa *terraza* batera igo zan. Txirrikak, ain zuzen, ariz betetzen ziran *karrete* aundiak omen ziran. Lan au egin zezaten, beste langille batzuei eraman bear.


Terraza artara igo zanean, irazkitzen ari zan batek onela esan zion:

- Bota bertso bat ortik, Xenpelar!
Bota bertso bat ortik!

Eta arek orduan andik:

Terraza onetara
naizenian iyo,
bertsua botatzeko
Manuelak diyo;

Fanderitarrarentzat
nik ez det baliyo,
nere tokira nua
seriyo-seriyo.



Manuela ori ere Panderitarren tartekoa zan. Eta urrengo bertsoa, Manuelak botako balu bezela, aren ordeztalegia, onela kantatu zuan Joxepa Antonik berak:

Fanderitarra naiz ni,
ez dizut ukatzen,
bañan korta xamarra
bertsuak kantatzen;
damutu zait asiya
Xenpelar tentatzen,
ara emen Añabitar-
ta oni bat botatzen.

Aren ondoan zegoanari bat botatzeko alegia. Beste ori Erreteriko Añabitarre baserriko alaba zan. Eta urrenari kantatu zion. Baiña bukaera besterik ez digute eman:

naio nuke nik orren
boltxa baneukake.

Eta laugarren aldiz ere Joxepa Antonik berak kantatu zuan, Añabitarre orrek botako balu bezela. Baiña gurre emaleari azkeneko bi puntuak bakarrik gogoratu zaizkio:

Añabitarrek diyo
ez duela boltxik,
eta ez emateko
orrelako lotsik.

Atal ontako bertso auek Erreteriko Monika Galarragari, Juan Zabaleta bertsolaria zanaren alargunari, zor dizkiogu.


MARIAREN ALABA BATEK JAUNGOIKUAREN ETA BERE AMARI



Es-ka-ri-txo bat, A-ma,



es-ka-ri-txo-bat, Ama, nai di-zut e -



gin, nai di-zut e - gin;



e-ri-o-tzako or- duan galdu ez na-



din, gal-du ez na- din;



da-go-ki-zu zu- ri o-ran- tzu-ti-a nere



dei u- milla-ri, dei u- milla- ri.

1/ Eskaritxo bat, Ama,
nai dizut egiñ,
eriyotzako orduan
galdu ez nadiñ;
dagokizu zuri
erantzutia nere
dei umillari.

- 2/ Eriotza da berez
gauza tristia,
tristiagua berriz
da zuk uztia;
oroizaitetz, Ama,
betiko galtzen dala
bein galtzen dana.
- 3/ Askotan deitu dizut
mundu onetan,
laguntza prestatzeko
trantze arretan;
Zeruko Erregiña,
zabaldu zazu zure
manto urdiña.
- 4/ Deabruak nerekin
parterik eztu,
alaz guztiyaz ere
ekatzu esku;
zurekin zerura,
esperatzen det, Ama,
zorion ura.
- 5/ Zure alabetan ni
esker gabia,
bañan nik ere Ama
zaitut, Maria;
birjiñen onduan
baztertzo bat neretzat
gorde zeruan.

RIKARDO ARAKIÑA

Urrengo gertaera eta bertsoak, Joxepa Antoniren bizi-lagun izandako Florentina Pérez Salaberria zanaren aotik jasoak ditugu.

Altzako neskatxa bat, Martillun ostatuko alaba, Joxepa Antoni bizi zan etxeko jostundegira egunero etortzen zan. Etorri bakoitzean, edo geienetan beintzat, aragia erosi eta eraman egiten zuan bueltan etxeko ostatura Rikardoren arategitik.

Baiña Rikardo arakiñari izugarri gustatzen zitzaion jendea toreatzea, eta egun batez onela esan zion Altzako neskatxa orri:

- Zer moduz Martxiel?

Besteak:

- Zein Martxiel?

- Ez al dakizu Altzako Martxiel, oso gaizki dagoana, elizakoak eta danak emanda? Orixe jakin zaidazu beintzat, bisitatzera joateko.

Neskatxak, etxera eldu zanean, onela galdetu zion koiñatari:

- Eujeni, zein da emen gaizki dagoan Martxiel?

- Ez dakit ba nik.

- Rikardo arakiñak ola eta ola gal-

detzeko esan dit.

Orduan koiñatak, zer zan igarrita, onela esan zion:

- Etzaiozu kasorik egin, San Martzialgatik ari zaizu ta.

San Martzial Altzako patroia baita. Bere festa-eguna San Pedro bigarrean da.

Urrengo egunean, jostundegira etorrita, bildurrez zegoan neskatxa ori Rikardorengana azaltzeko. Onekin zer gertatu zitzaion kontatu zuan, eta Joxepa Antonik onela esan zion:

- Ez apuratu. Onela esan bear diozu: "Rikardo, esan nion Martxieli, ta... -Emen pixka batean ixildu bear dezu-. Ta... esan zidan asko estimatzen duala zure atentziyua, ta etortzeko San Pedro biaramonean bazkaltzera".

Rikardok onela erantzun zion:

- Ori ez da zure buruan jaiio!

Egun artan bertan, illunabarrean, Altzako ori eta beste bi neskatxa, Rikardoren arategira joan, zerbait eroatera bezela sartu eta Joxepa Antonik moldatu eta erakutsitako bertso auek kantatu zizkioten, *Markesaren alaba-ren* doiñuan:

1/ Apenas zure tablan
oña nuen jartzen,
“Martxielek zer dio?”
zenian galdetzen;
orain bazkaritera
zaitu konbidatzen,
asarretuko zaizu
ez bazera juaten.

2/ Martxielen etxera
atoz bazkaltzera,
auzuan antxen bertan
gu ere bizi gera;
maietik pollikitxo
altxatzen bazera,
lagunduko dizugu
jeixten maldan bera.(1)

3/ Sentitzen bazerade
zu bazkal-onduan
etzaudela bakarrik
jeixteko moduan,
aire sanua artzen
jar zaitez leiuana;
aixa jexkiko zera
gure anparuan.

4/ Leiuana ikustian
pensatuko degu:
Rikardok malda jeixten
laguntzia nai du;
bost aizpa ta bi anai,
auzuan gaude gu,
ez bildurtu, Rikardo,
naiz Altzan illundu.

5/ Bazkariya ori ez da
aixa uztekua,
estimatu zaiozu
bera dalakua;
uste det an izango(2)
dala parrokoa,
Martxiel ain da gizon
biotz onekua.

6/ Rikardo, zer poliki
nazu toriatu!
Bañan ni ere noizbait
nitzan konturatu;
ez dezu ezer galdu,
zerbait aurreratu:
bazkariya biñipin
dezu seguratu.

Rikardok ixil-ixilik entzun zituan
bertsoak. Eta neskatxak kantua buka-
tzean, onela esan zien:

- Koñe! Moldatu dituzute nunbaite-
tik!

Eta urrena Altzako neskatxari:

- Esaten nuan nik zure buruan jaioa
etzala!

Gero Telleri-Txiki bertsolariarenga-
na joan zan; eta, kontu guzia adierazi
ondoren, bertso batzuk jartzeko eskatu
zion. Baiña oso bertso itxusiak egin
omen zizkion.

Irakurritakoan, onela esan zuan
Rikardok:

- Ez nuan nik olakorik nai! Umorea
nai nuan nik, umorea!

Eta Rikardok ezin moldatu izan zitu-
tualako, Joxepa Antonik berak egin
zuan aren erantzuna, bertso auetan:

1/ Asko tentatu zaitut,
egiya da ori,
gaztiakin alegre
gustatzen zait neri;
esan biar diyozu
Martxiel jaunari
ez asarretutzeko,
juango naizela ni.

2/ Ez nuan asko uste
aurten Madalena
Altzako tontorrian
pasako nuena;
zu etorri baziñan
onera aurrena,
ez nuben idukiko
gaur daukaten pena.

3/ Nola Errenteriya
baitagoen bian,
abanikua erosi
nuen Donostian;
nere pensamentuak
orlakuak zian,
gaur sartu det baulian
erdi negarrian.

Rikardok Altzako neskatxari kanta-
tu zizkion bertso auk, urrena arategi-
ra etorri zitzaionean. Neskatxak onela
esan zuen gero jostundegian:

- Arrituta nago! Rikardok bertsoak
kantatu dizkit, oso politak gaiñera.
Nundik atera ote ditu?

Guziak parrari eman zioten, ondo
baitzekiten bertso aiek iturria nun zu-
ten.

1. Esku-idatzian: *jeixten malda bera*.

2. Esku-idatzian: *uste den an izango*.

MARKOLAKO PATATAK

Gerra ondoko gosete edo eskasia zan; 1941 edo 1942-garren urtea alegia.

Fabrika Aundiko nagusiak, Markola deritzaion mendi edo basoan lur-puska polit baten jabe baitziran, patata erein arazi zuten, gero langilleei partitzeko.

Baiña leenengo urtean etziran Joxepa Antoniz oroitu. Eta onek, bigarren urteko kosetxa baiño leen, lau bertso auk bialdu zizkion Bagues jaunari, fabrika ortako buruzagietako bati alegia.

Josepa Antoniren etxean gorde diran eta eskuz idatzitata dauden orri batzuetatik artuak ditugu.

1/ Esan dirate: "Markola aldian lur-zati aundiyak daude, gutxiyenian izango dira zazpi edo zortzi golde, lur-zati oien parte geiena patata ereñiyak daude". Juan den urtia igaro zaie gutaz akordatu gabe, Bagues jauna, orain oroitu, ez utzi gu aurten gabe.

- 2/ Irurogei bat urte aldian, oso ez badira ere, gure lantegi aundi orretan lana egiñak gerade, uste dedanez bi gizonekin bost bat emakume gaude; Bagues jauna, ez asarretu bertsuak gaizki badaude.
- 3/ Gure lantegi aundi orretan pasia urte geiena, Migel Mari da, orixen degu danetan zarren-zarrena; bigarren berriz izenik gabe denak ondo dakitena, urtiak utzi alde batera, auxen degu biarrena: naiko patata ollaskuakin pasatzeko Madalena.
- 4/ Nere denboran izandu diyot afiziyua kantari, iñon bertsorik azaltzen bazen eosi ta irakurri; umore ona lagun artean, ori gustatu zait neri; oraintxen iya eskapatu zait, alare bertsua jarri; eztakit nola erori zaizkan gure Bagues jaunari, barkaziyua eskatzen diyot itz egin badet geiegi.

MADALENA-KO ERMITA

Guziak dakitena: Erreteriko Zaindaria Santa Maria Madalena da. Erriaren saiets batean berari eskeiñitako ermita dago. Uztaren 22-an, santaren egunean, ermitatik parrokira eramaten zan iduria, prozesioa egiñez, eta an iru egunean euki, Santiago eguna arte alegia.

Joxepa Antonirekin lan egiten zuan emakume batek, onela esaten omen zion santari, parroki aldera zeramatela ikustean:

- Ai, gaixoa! Bazoaz! Ederrak aditu biauazu! Zure pekatu guziak ederki pregonatuko dituzte!

Gero, bueltakoan, onela esaten zion:

- Ederrak adituta etorriko zera gaixo ori! Ederki lotsatuta bueltatuko zaituzte!

Ermita onek parroki bezela serbitu zuan bi alditan: aurrena, karlista eta liberalen arteko bigarren gerratean; bigarrena, berriz, 1936 urtean, gerrerasieran, parrokia munizio-almazena biurtu zutelako. Auek dira Joxepa Antonik bigarren bertsoan aitatzten dituan bi gerrateak.

Gero, 1940 urte inguruan, oso utzia egon zan ermita. Orduan Joxepa Antonik, erreteriarak ermitaren alde zerbait egin zezaten, bertso auek jarri zituan. Beraren etxean agertu dira, iru edo lau paper-puntatan idatzita.

1/ Bertso berri batzuek
nai nituke jarri,
Erreteriko seme-
-alaba denari:
ermita bat daukagu
danon lotsagarri,
ia ipintzen degun
txukun edo garbi.

2/ Geienak zor diogun
ermita da ori,
guri mesede asko
egia da ori;
gerrateko denborak
pasatu ditut bi,
gure refujiyua
izandu zan ori.

- 3/ Kontzejutik asita
parrokira arte,
tunel bat egin zuten
liberalak fuerte;
orduan oiek ziran
juez ta alkate,
etziran deskansatu
eliza itxi arte.
- 4/ Itxi zituztenian
kontzeju ta eliza,
plazan utzi giñuzten
erejien gisa;
gu onla ikusita
jauntxu oien poza,
bañan ermitatxuan
asi zuten meza.
- 5/ Urtero egiten du
parrokira buelta,
bere alaja ederrak
barrakan utzita;
nola dibertitua
izandu zan santa,
bidera juaten zaio
orain makil-dantza.
- 6/ Iru egun pasata
buelta barrakara,
gogoraziak berak
ematen du ikara;
santa bat an jartzia
pekatu ezpada,
neretzako beñepin
falta aundia da.
- 7/ Gero bueltatzen gera
santa an utzita,
gaizkille baten gisa
atiak itxita;
urte guztian ez du
beste bisitika:
mutil kokkor batzuek
tellatura arrika.
- 8/ Askotan pasatzen naiz
bere aurretika,
eta iruritzen zait
dagoela deika:
“Noiz aterako naute
barraka ontatika?”
Asarretua dago,
badu zergatika.
- 9/ Onenbeste mesede
egindako ermita,
orain ikusten degu
erdi erorita;
etzaude tratatua
orla merezita,
zabar bizitu gera
erabat utzita.
- 10/ Ermita ori dago
abandonatua,
ittozura aundiakin
olak usteldua;
purrukatua berriz
oso tellatua,
kanpuan ta barrena
igual erasua.

11/ Begira egondu naiz
ateraño juanta,
negarrez zeguela
uste nuen santa;
neronek ere asko
ezpanuen falta,
ikusirik ermita
tristiaren planta.

12/ Noblia ta leiala
da Errenteriya,
ezer egin nai badu
badauka premiya;
abundoso ipintzen
badigu ogiya,
urrengo urterako
ermita berriya.

KASTIGU TRISTIA

- 1/ Zortzi bat bertso berri jartzia
goguak eman dit neri,
albistia bat oso tristia
detalako irakurri;
Galiziako probintzia da,
seguro ez naiz zein erri,
esan bear det zer pasa zaion
blasfematzalle bateri.
- 2/ Bide batian zijoazela
ainbesteko pikardia,
bere lagunak kejtzeraño
botzen zuen blasfemia;
protestantian seta gaiztuan
aiñ omen zegon jarria,
kontra egiñaz Jaungoikoaren
Ama etzela garbia.
- 3/ Jaungoikoaren Ama txit Santaz
zuenian blasfematu,
miserikordi ondo gabea
ementxen zaio agortu;
au aditzian, nere kristabak,
biotza zitzaidan lertu,
mingaña bere aotik zintzillik
omen zitzaion gelditu.
- 4/ Jaungoikoaren probidentziak
zorrotza dauka labana,
zikindutzia ez duela nai
garbitasunaren Ama;
blasfematzalle guztiak orra
ikaratutzeko aña:
ikatz baña beltzago eginta
aotik zintzillik mingaña.
- 5/ Bere lagunak egiñalian
mingaña sartzen barrena,
baña alperrik iru sendakiñ
saiatu ziran urrena;
oraindikanen etzaio etorri
Jaungoikoaren baimena,
estadu ontan omen dagola
da albistia orrena.
- 6/ Esan diote eskatutzeko
Jaunari barkaziua,
eskuak gora asten omen da
egiten oraziua;
blasfematzalle guztientzako
ara emen liziua,
ikaratuta utzi dezaten
infernuko ofiziua.

7/ Beste nazio danen artian
auturikan España,
deitu zenion kariño aundiz:
“nere biotzeko erria”.
Etzegon nonbait gaur dagon aiña
blasfemi ta pikardia,
baiña euskaldunak aitortzen degu
zerala Ama garbia.

8/ Zu gure alde izan zaitezen
guk arrazoi bat daukagu:
gure izkuntzan maldiziu au
ezta oraindik azaldu.
Kastillanuan itz gaiztu ori,
ai!, al baliteke galdu,
arrozoiakin *Ibaizabal*-ek
nai du euskera zabaldu.

J.A. Aranberri

Ibaizabal, 1902-XI-23.

DON JOSERI

- 1/ Pena aundi bat ezin kendu det
gau eta egun burutik,
badaki nola faltatu zaigun
sazerdote bat mundutik;
negar gogotik egiñak gera
difuntuaren atzetik,
obretan ala ekusi degu,
pena degu biotzetik.
- 2/ Bere lagunak pena aundi ori
eman dute aditzera,
ez dakit nola joan ziraden
difuntuaren etxera;
nik pentsatzen det naigo zutela
aurrera baño atzera,
bañan preziso eraman bear
gorputza enterratzerara.
- 3/ Dudarik gabe berak zerutik
eman ziyen baloria,
negarrikanen etzuten egin
bañan aien doloria!
Kuardro triste au ekusi eta
negarrez zeguen jendia,
esaten zuten: “Ai, gure apaiz
puntuala ta noblia!”
- 4/ Persona ona eta justua
onek bear zuan izan,
alaxe ziran bere etxeko
serbitzari batek esan;
umildadea erakutsiyaz
puntuala txit elizan,
penitentiak ortxen dabilta
ardi galduaren gisan.
- 5/ Akordatzen naz Etxeberriak
nola esan zuan egiya:
“Nere kristabak, galtzera dijua
Erreteriko erriya;
gizon on denak iltzen ari dira,
indar artzen pikardiya,
santa berriyak izan dezala
gutaz miserikordiya.(1)
- 6/ Zeñaren penaz gure biotzak
negarrez ezin dira ase,
penak sufritzen baldin badago
atera ezazu San Jose;
danen partetik eskatzen dizut,
orrentxen gerade gose:
gauza gutxien faltan badago
requiescat in pace.

Bertso auetatik ageri danez, apai-zen bat il berria zan Errenterin, eta Xenpelarren illobak sei bertso auek moldatu zituan.

Ondoren beste bi erantsi zizkion saillari, aurretik adierazpen au egiñez:

Bertso abek bialiyaz difuntuaren arreba monjari jarriyak ona emen:

Ez nuke naiko bertso abekin
penatutzia geiegi,
Errenteriyen denak dakigu
zeruban degula...(2)
nere partetik letu bezaizka
komunidade danari,
ezagutzia deseaten det,
eskumuñak guztiari.

Ez nau arritu eskatutzia
Madriari lizentziya,
pensatu beza zeñ illuna dan
nere intelijentziya;
ez nago birtutiakin
bera bezela jantziya,
esan bezaio barkatutzeko
nere atrebientziya.

-
1. Sta. Ritaren kanonaziyoko egunak ziran.
(Esku-idatziaren oarra)
 2. Lerro au ezin izan degu osorik irakurri.

ENHORABUENA

Urrengo bertso auek Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren seme Manuelek bialdu zizkidan, aurretik onela esanez:

“Este que hizo la comunión era y es mi hermano n° 1; yo soy el 2° de 12.

Y en el verso final, que habla de shalsha gosuak, era porque hasta hace unos 12 años tuvimos en Rentería una Fonda y le habrían mandado a la Joshepa Antoni algo”.

1/ Suponitzen det pozez beterik danok zeratela ari,
zuen biotzen naitasun danak azalduaz semiari;
lendabiziko *enhora buena* aitari eta amari,
baita zuri're, goguan izan gaurko eguna, Juan Mari.

2/ Oso ederki azaldu zera,
zaude txit gora jasua,
etzegoen gaur zuri begira zure amona gaxua;
zurekin beti izan dedilla Trinidadeko usua,
eta izan zaitez esan dituzun biziyo danen mazua.

* * *

Baiña Juan Mari orrek beste lau bertsoekin erantzun zion Joxepa Antoniri. Dударik gabe, bere aita Enrikek moldatuak izango ziran. Onela diote:

1/ Atzo bazkaltzen ari giñala zure karta zan etorri,
enhora buena emanaz neri t'aitari eta amari.
Nere amona aztu eziña aurrian zenigun jarri,
eta maieko denen begiyak malkoz bete ziran sarri.

- 2/ Gaxuak ziran jaio ezker
alako amoriyua,
non eguneró ematen ziran
goxozko erreziyua.
Atzo zor paga eskeñi nion
lenengo komuniyua,
t'anaitxuakin egiten diot
goiz t'arrats oraziyua.
- 3/ Orain pobria naiz ta ar zazu
nere eskeñi pobria,
aberastian emango dizut
orixe baña obia;
artu ait'aman eskerrak eta
artu bai ere neria,
ta beti-beti izan nai det nik
zure adiskide noblia.

- 4/ Saiatuko naiz kontseju onak
zintzo-zintzo kunplitzera,
ta ontasnez ta ondasunez
azkar-azkar betetzera;
eta orduan lotsarik gabe
etorri gure etxera,
ta zerbait falta badezu, utsik
nigandik juango etzera.

* * *

Xenpelarren illobak beste bertso
onekin agertu zion bere esker ona:

Itz neurtu polit kariñosuak
dizkidatzute biali,
Senpelartarra izanagatik
zuen aldian deus ez ni.
Orren egoki ez bada ere
eskerrak nairik biali,
baita ere saltxa kazueta ontan
jartzen aritu danari.

BAKARKA EDO BINAKA

Bertso pare au ere, adiskideren bartzuen alabatxoak leenengo jaunartzea egin eta Joxepa Antonik zoriona ematearren bialiak dira. Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzita:

Adiskide on, biyotz leiala
beti dirazu agertu,
zure pozkida gozatsuetan
nitaz zerade oroitu.
Zure alaba biyotzekua
zaizunian komulgatu,
afari eder, postre goxua
dirazu erregalatu.

Jakob bat iya egin zerade,
ume-talde ugariya,
nere gogoko senar-emazte,
famili maitagarriya.
Ez dakit nola eskerrak eman
ni izanik ain urriya,
Jaun Zerukuak emango dizu
karidadien sariya.

* * *

Bertso bakar au, berriz, norbaiti erantzuteko moldatua izango da. Au ere Enrike Elizetxearen bilduman agertu da, eskuz idatzita. Onela dio:

Inkomodatu gabetanik
bertso bat bakar-bakarra,
onek esan du guk daukagula
mingaña luze samarra;
demoniñoka eraso digu,
orrek beltza du adarra,
nere lagunak egiten dute
aldamenetik algara;
nik ordañikan ezin somatu,
auxen da nere ikara,
aĩn egokiyak jarri dizkigu,
akabo Senpelartarra!

* * *

Arantzazura joan zan batean, bertso au kopiatu arazi zien etxekoei, andik bueltakoan:

Ogei ta zazpi lagun gerade
Arantzazura etorri,
nere biyotza lertzen dago ta
ezin det bertsorik jarri;
bakarrik itz bi egin nai dizkat
Ama maite Birjiñari,
onekin nai det konferentzia
Aloña menditik jarri.

* * *

Urrengo iru bertso auek, berriz,
Errenteriko Jose Goñi zanak emanak
ditugu:

Ez dakit nola eman
eskerrak bedorri,
neretzat izan duen
biyotz leial orri;
errezatu dizkiyot
errosariyo bi,
biarrian badago,
beorren amari.

* * *

Orañ eman dirate
notizi berria,
añaditu zaiela
beon familia;
errezatu dizkiyot
sei Abe Maria,
nexka izan deiela
umil ta garbia.

* * *

Gure nagusi Jaungoikozkuak
ederki pentsatu dute,
bedorrek utzitako limosnan
danok izan degu parte;
orain eskerrak nik ematia
nere lagunak nai dute,
deseatuak mundu onetan
osasuna ta asko urte,
agur, señora karitatiba,
agur Madalenak arte.

BI SERMOLARI

Lau bertso auk Don Jerbasio apaizari jarri zizkion Joxepa Antonik, Garizuma batean. “Iya guriak egin du” doiñuarekin kantatu bearrak dira.

1/ Sermoi eder bat lenguan
gustora aditu nuan;
entzun diot askori:
“Zertarako ekarri
kanpoko sermogillia?
Bertan daukagu obia”.

2/ Birau edo blasfemia,
deitu zion minbizia.
“Iñor emen bai alda?
Jesus, barkatu bada!
Izan dedilla gaur arte!”
ots egiten zuen fuerte.

3/ Zori gaiztoko biraua,
ematen zuan ikara;
mendekuari kentzen
ez badira saiatzen
guraso ta nagusiyak,
Jesus, oiek desgraziyak!

4/ Gerra desdixatu ori,
barkatu nai ez alkarri;
esan zuan nolatan
penak bizia kendu
zion Aita Santuari,
Pio amargarrenari.

* * *

Urrengo ostiralean, berriz, Don
Santiagori bertso au jarri zion:

Urrengo ostiralian,
Doloriaren gañian
don Santiago jauna
itz egiten asi zan
bere patxara ederrian;
Jaun orrek ez luke il biar!

AMA GUADALUPEKOARI

- 1/ Nere aurreko bertsolariyak
fedea onetan ill dira,
euskaldun onak bezela dira
gaxuak.....
illuntasuna besterik ez dan
batek zure kondaira,
zure laguntzik ez baldin badu,
eziñ atera argira.
- 2/ Adan-en saiets ezur batetik
nola dan Eba sortua,
au pentsatzian nik ekusten det
naizela gauza bajua;
bañan biotzak dio barrendik,
Ama Guadalupekua,
zure laguntzaz kontatutzeko,
eta asitzera nijua.
- 3/ Jaizkibel-dikan asitzen zaigu,
Ama, zure kondaira,
esanaz nola zeguen arbol
eta piztiz estaliya;
Naparruatik etortzen zala
eizera jende aundiya,
bai eta ere erregezkoak
utzirikan jauregiya.
- 4/ Zeruetatik zuk ekustean
munduban zerbait galera,
zenbait alditan etzaitu jetxi
amoriyuak lurrera!
Lau eunkida izango dira
urte gutxi gora-bera,
gure anparotzat etorri ziñan
Olearsoko gañera.
- 5/ Ondarrabiyan sartu etzedin
Frantzitik kontrariyua,
Felipe II-garrenak eragin
zuen emen gazteluba;
beste fuerte bat orra or bertan
askozaz senduagua,
zeñari ez diyon iñork kenduko
bere buruko korua.
- 6/ Bi inozentek ezin zutela
ezagutu beren ditxa,
pensatu zuten izango zala
eguzkiaren dizdiza;
urbildu ziran mendi gañera,
an eman zizuten antza,
belaunikatu ziraden biyak,
egin zizuten otoitza.

- 7/ Mendi au Tabor zan oientzako
nere esaera batera,
esango zuten: “Iñora gabe
ementxe biziko gera!”
Imajin ura an laja eta
nork oiek andik atera?
Bat an gelditu eta bestia
juan zan parte ematera.
- 8/ Balore aundiko jende leiala,
fedezko Ondarrabiya,
sinisten dezu inozente ark
ekarri dizun berriya;
kabildo eta aiuntamentu,
ondoren jende aundiya,
Olearsora dijoaz danak
ekustera mirariya.
- 9/ Igo ziraden Olearsora,
an zegoan imajiña,
nork esplikatu Ondarrabiko
jende aien atsegiña?
Bere Semea dauka besuan
baña da Ama Birjiña,
esaten zuten: “Egin dezagun
onratzera alegiña”.
- 10/ Elizatxo bat egin zizuten
gauza aundirik gabia,
denborarekin egingo zala
gero beste bat obia;
seta gaiztoko frantzesak galdu
nai euskaldunen fedia,
purrukatuta utzi zituen
eliza eta aldaria.
- 11/ Zure oroipena etzedin izan
andikan aienatua,
urte barruban eman ziyoten
berriz ere tellatua;
milla sei eun larogei eta
amaikan zan bukatua,
ez dakit bada zergatikan dan
orren deskalabratua.
- 12/ Milla zazpi eun irurogei ta
amabigarren urtia,
iñork ez daki nola izan zen
zure eliza erretzia;
etzan bakarrik eliza erre,
baita serora-etxia,
zure alaja zillarrezkuak
danak bertan urtutzia.
- 13/ Izanagatik purrukatua
eta bi aldiz erria,
bañan etzuten eiekin iltzen
euskaldunaren fedia;
bere gloriyan gerta dedilla
on Joakin Olo abadia,
onek eragin zuan eliza,
etxia eta torria.
- 14/ Mirari asko arkitzen dira
kondaira onen azkenian,
luziegiya ez det izan nai
gaur artu dedan lanian;
bat esatera saiaturko naiz
al dedan lagurrenien:
nola frantzesak sartu nai zuen
Españiako lurrian.

15/ Milla sei eun irurogei ta
emeretzigarrenian,
Ondarrabiya esitutzera
frantzes a zela bidian;
Juana Maria ango serorak
au aditu zuenian,
zure imajiña artu eta juan zan
kalera egiñalian.

16/ Orretarako abisatzen du
zer dijoan egitera,
andre on oni irteten zaio
erri dana portalera;
atsegin eta pozez beterik
daramate aldarera,
auspezturikan egin ziyoten
modu onetan eskaera.

Esku-idatzi batetik kopiatutako bertsoak dira auek. Papera zikin samar dago eta leenengo bertsoaren laugarren lerroa ezin izan degu osorik irakurri.

Amaseigarren bertsoa irakurri eta ez dirudi saila or bukatu bear duanik. Jarraipena izango zuan seguru aski, baiña guk eskuratutako esku-idatziak amaiera or du.

ARKIBIDEA

Itzaurrea

Bizitza	13
Xenperelarre	15
Xenpelarren jaiotza	18
Baserria	23
Egurrola.....	26
Gizona	29
Anai Juan Jose.....	31
Arreba Maria Luisa	32
Ezkontza.....	33
Bizimodua	35
Eriotza	37
Azkena	42
Xenpelarri buruzko liburuak	44
Xenpelarren paperak	47
Aotik aora	53
Zenbait bertso eta ateraldi	55
Xenpelar eta Olloki eta Patxi	62
Amerikanuari Xenpelarrek jarriyak	64
Patxi Bakallo eta Xenpelar.....	68
Xenpelar eta Ardotx bertsolaria	73
"Panderiyako onek..."	75
"Amigo batek..."	78
Iparragirre eta Xenpelar	83
Aldrebeskeriak	86
Xenpelar eta Musarro	93
Lau bertsolariaren bizimodua	99
Bertso-saillak	101
Oarra.....	103
(1854) San Joseren zazpi doloren bertsoak	105
Oiartzungo neskatxen bentajak	115
Albaka batengatik.....	119
Agedarenak	122

Zertarako zabilta aitzakiyen billa?	128
Neska gaste bati	132
Pasai San Juango zezenak	136
Bertso berriak Pasaiako zezenari jarriak	140
Bertso berriak "Pasaiako plazatik dator notiziya..."	144
"Frantzesaren ideak..."	150
Burni-bideak egitera etorri ziran frantzesari jarritako bertsoak	157
(1867) Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Bajatu gera graduana..."	163
"Asten danian fabrika..."	172
Bertso berriak mutil zarraren bentaja eta egi garbiak	175
Bertso berriak "Nere senarrarekin daukadan bizitza"	181
Andre txarren bentajak	189
Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Bertso bi Euskal-erriyan"	198
Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Agoztuaren ogei ta bian..."	203
Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Esplikatzera nua asunto guziya"	208
Bertso berriak "Bertso berriyak jartzen orain naiz abiyan"	215
(1865) Bertso berriyak "Milla zortzireun irutan ogei..."	226
Bertso berriyak Xenpelarrek jarriyak "Denen partetik laguntza on bat..."	236
Bertsoak Jesusen bost llagari jarriak	241
Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Dioskodok bere alabari lepoa kendutako bizitza Santa Barbari	248
Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Bertso berriyak jartzera nua..."	257
Bertso berriak Jesu-Kristoren Pasiuari jarriak	265
(1866) Bertso berriak "Milla zortzireun eta irurogeita zortziyan..."	272
(1867) Bertso berriak Xenpelarrek jarriak Tokin'eko Obispo jaunaren bizitza, Balentin Berriotxo.....	277
(1867) Bertso berriak Xenpelarrek jarriak "Komeni diran bertso berriyak..." ..	287
(1869) Bertso berriak "Milla zortzireun eta irurogei ta zortziyan..."	301
"Iya guriak egin du..."	309
Segurako itxua, Joakin Luzuriaga Oria	315
Bertso berriak itxu baten gaien jarriak	321
Bertso berriak Segurako itxuak eta bere andriak elkarri jarriak	324
Bertso berriak "Bertso berri batzuek bear ditut jarri"	330
Bertso berriak "Bertso berri batzuek aurtengo urtian..."	335
Xenpelarren inguruko bertsolariak.....	341
Larraburu - Miguel Antonio Otamendi Olaskoaga (1829-1876).....	343
Baserria eta familia	345
Zenbait gertaera.....	349
Larraburu eta Ardotx.....	351
Barka zaizkiguzu gure zorrak... ..	354

Karlisten gerratea	357
Eriotza	359
Ardotx Jose Antonio Bengoetxea Lekuona (1826-1878)	361
Bi anai bertsolari	363
Exkerra beratarra	367
Beste zenbait bertso	368
Juan Antonio Bengoetxea Lekuona (1819-1899)	371
Bizitza	373
Zenbait berri eta bertso	375
"Besteak aplikatu dit..."	378
Ardiai	382
Ameriketara.....	383
Juana Joxepa Bengoetxea Oiartzabal (1861-1943).....	386
Gozotza ala iratzea	387
Esponjak.....	389
Bekoetxia - Manuel Maria Olaziregi Iribarren (1824-1904)	393
Bizitza	395
Ezagutu zutenak diotena	398
Zenbait bertso.....	401
Bertso jartzea.....	407
Kontrabandoan	409
Txantxangorri.....	413
Eperra - Manuel Jose Mitxelena Kamio (1825-1906)	417
Bizitza	419
Bertso pare bat	424
Senideei	425
Karlisten gerratea	427
Gerra-ondoa	430
Bukaera	434
Patxi Bakallo - Juan Frantzisko Belaunzaran Zabala (1832-1896)	435
Bizitza	437
Leiotik leiora	442
"Kriaturak izandu..."	444
"Goizian jeiki eta..."	445
Promesa	446
"Atzo Santiyago zan..."	447
Bere buruari.....	448

Patxi Bakallo eta bere semea	450
Bertsuak Patxi aitak emanak	453
(1889) "Desgrazia bat zuzenditu zat..."	456
Pedro Santa Krutz Etxebeste (1839-1905)	459
Bizitza	461
Bertso berri batzuek Pedrok erbiyari zeñen poliki diyon pegatu berari.....	467
Bertso berriak Pedro Santa Krutzek jarriak (San Pedroren bizitza).....	471
Bertso berriak Pedro Santa Krutz-ek Andoaingo dantzariari jarriak	475
(1887) Pelota partiduarenak	478
Mutil zarren bertsoak	480
(1891) Etxe aldaketa edo bertso batzuen ondorena	483
Ernaniko Eriñazuko misio santuaren oroipengarriak	485
Despedira	489
Panderritarrak Joakin Maria Jauregi Salaberria (1844-1921)	
Jose Migel Salaberria Iraola (1838-1905)	491
Bizitza	493
Bertso berriak "Bertso berri batzuek biar ditut jarri..."	499
(1872) Bertso berriak Panderik jarriak "Milla zortzireun irurogei ta amabigarren urtian..."	502
(1880) Bertso berriak Panderik jarriak "Milla zortzireun da ta larogei urte..."	505
Bertso berriak Panderik jarriak "Bertso bi paratzera saiatu neriyen..."	509
Bertso berriak Panderik jarriak "Bertso bi jarritzeko badaudat biria..."	512
Bertso berriak Panderik jarriak "Garizuma santuan zenbat bertso berri..."	515
Bertso berriak "Bertso berri batzuek bear ditut para..."	518
Leandro Salaberria Astibia (1845-1909)	521
Bizitza	523
Bertso berriak orain dela 37 urte pasatutako kontuak bi anaiari.....	524
Komerianteak	527
Jose Maria Eleizegi Barasarte "Frailia" (1859-1925)	531
Bizitza	533
Aotik aora.....	534
(1919) Bertso berriak Errentei-ko Frailiak jarriak	536
Bertso berriak Errenteriko Frailek jarriak "Misiyuari ikasiya..."	540
Joxepa Antonio Araberri Petriarena (1865-1943)	545
Bizitza	547
Neskazarrak.....	557

<i>Tota Pulchra</i>	569
(1902) Ama Birjiari.....	571
(1917) <i>Guerra Europeari</i> jarriyak.....	573
(1926) Errenteriyari uztaren laubean	576
Ama Jenerosari.....	579
Fabrikari bertso kantari.....	581
Mariaren alaba batek Jaungoikuaren eta bere amari.....	583
Rikardo arakiña.....	584
Markolako patatak.....	587
Madalena-ko ermita	588
Kastigu tristia	591
Don Joseri	593
<i>Enhorabuena</i>	595
Bakarka edo binaka	597
Bi sermolari.....	599
Ama Guadalupekoari	600

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKAL IZAN DIA

1994 AZA 1 5

90000

1006485



1006485



USPOA • SENDQA